



Iturria: *Jesukristo, Maria eta Santuen bizitzak*, Joakin Lizarraga  
(Juan Apecherearen eta Francisco Ondarraren edizioa). Nafarroako Gobernua, 1994.

Klasikoen Gordailuan:  
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LizarragaZenbaitSandu.htm>

## **ZENBAIT SANDUEN BIZIAK, ASTEAZ DATOZINAK, KONTATZEKO BERE KARGUKOEI**

**Joakin Lizarraga**

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,  
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak  
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## **Izotz-illaren lenbizikoan**

### **S. Odilon Abadea**

1. Jaio ze S. Odilon Abernian, baita Franzian, jendaki nobletik. Aurra zelarik izan zue heritasun bat mienbro guzien oñazeeki ain erru, ezi nio-lateko maneran ibili etzeike oñez. Bein bere unideak, zeramanak besotan, utzi zue Ama Birjinaren Eliza-atarian, ta joan ze bera andik urrun. Bitar-teo aurttoa bakarrik zegolaik asi ze sartu naiez Elizan arrastaka zeiken gisan, ta ala ellegaturik aldarera eutxi ze eskuttoes; istantean aurkitu ze sano ta sendo milagrosoki, arriturik ikusi zutenak, guziak asi baizire ematen Jangoikoai eskerrak alako miragarrias. Azis adinean nai ze enpleatu Jangoikoaren zerbitzuan. Egin ze Eliza-gizon lenik: gero erreljioso, estu-diatus birtute, ta santidadearen estudioan ain gogotik, ezi laur urteen buruan ia guziek beirutzen zute Sandu bekala, ta egin zute beren Abade. Ofizio gartan ze guzien kidari on guzietarako: len lena penitenzian, ora-zioan, karidadean, sufrimentuan, ta lan guzietan; beretako sollik gogor, berzeendako beratx. Proximoen amorean ze guzis Jangoikoaren gisara, ongi egin naia, ta sokorritu naiez beartsuei, berze erremediorik etzuelaik, Elizako gauzei ere etziote barkatzen bear orduan.

2. Agitz ze deboto Sanduen, ta Aingeruen, prinzipalki Maria Santisi-maren: eta guzien gañetik Jesu Kristo Jangoiko-gizonaren. Asko milagro egin zue bere Majestadeak Sandu gonon amorez, eta onen medios. Prin- zipalki Purgatorioko arimen faboretan zebratzen da Sandu gonon ona; ezi onenganik asi omen ze Kristiandadean zebratzen arimen memoria azaroaren bigarrean. Nola izan zen, diote ezi ala. Jerusalengo peregrina-ziotik itzultzerakoan Erreljioso bat, ekaitz erru baten kasos ellegatu omen ze Siziliara urbil dagon leku batera. An gelditurik eremutar bateki onen kubilan zenbait egun, onduartaño denbora, onek galdeginik ia baze- kien Kluniakoren konbentuko berririk, ta ango Erreljiosoen; ark erranik



baietz: kontatu zio eremutarrak, nola an urbil ikusi zuen askotan anitz sugar, non entendatzen zuen purgatzen zirela arimak tormentu andieki emen izanikako bekatuetatik: eta aditu zituela askotan Deabruen oiur ta lamentuak, kekatzen zirela, zeren libratzen ziren arimak ango penataik fielen orazio ta sakrifizioen medios, berexki Kluniakoren Errelijiosoenen, zein baizire enpleatzen dilijent karidadesko obra andi gortan. Kontazezola Abadeari au, segi zezaten gogotik karidade gartan. Kontatu zio itzuli ondoan Errelijioso garrek S. Odiloni, zeñek bere menekoei kontaturik, itxeiki zekiote arimen debozioa geiago, ta paratu ze aien konbentuetan arimen memoria, festa bekala, Azaroaren bigarrenen: eta andik gero Eliza guzian. Diote zenbaitek paratu zuena izan zela Aita Sandu Juan XVI.ak, 996 urtean. Diote alaber Aita Sandu Benedikto VIII.a ilas geros agerturik eskatu zituela S. Odilonen ta bere Errelijiosoen sufrajoak, ta gero itzuli zela ematera eskerrak.

3. Agitz zarturik Sandu gau bizitu ze heri bortz urtes sendatzen zituela berzeak: ta Zerutik ikasirik erran zue eguna, noiz bear zen il: errezibiturik sakramentu guziak Sandu bekala iltze 1048 urtean. Gau gartan agertu zekio Monje bati ziola glorian zegola, ta iltzerakoan nai izan zuela galdu Deabruak, baña Jesu Kristok garaitu zuela. Pensa bekatariak &.

## Izotz-illaren irurgarrenean Sta. Jenobefa Birjina Parisgo Patrona

1. Jaio ze Santa Jenobefa Parisa urbil zen erri batean. Aurzututik ze ageri artan Jangoikoaren grazia, alako maneran, ezi pasatzerakoan erri gartaik S. Jerman S. Luporen konpañian, ikustera atra ziren jendeen ertean atra kare Sandaren Aita ta Ama ere beren aur goneki; eta Sanduak Jangoikoaren argis ezaundurik zela Jangoikoaren maite eskojitua, erran ziote buratsoei, zirela ditxosoak izateas alako humea, ta erman zezotela biramonean beraren ostatura: eta exhortatu zue antsiareki, ama ta estima zezala sollik Jesu Kristo, ta despei munduko banidadea. Ork beroi da nere ansia, dio aurrak: eta Sanduak Jesu Kristori konsagratzen zuelako señaletan, paratu zio gurutzetto bat lepotik: eta enkargaturik buratsoak guarda zezatela txoil ongi, segitu zue bere bideas. Egun andi batez Amak nai zuelaik joan tenplora, geldiarazi zue etxean alabattoa; baña onek eska ta porfia erman zezan bereki, amak eman zio zaflon bat, ta istantean gelditu ze itsu, ta egon ze ala bi urtez, alik eta eskatu zion alabattoari, ekar zezon ur guti bat, ta busti zezkiola begiak guruzearen señaleariki. Aurrak egin zue, ta bereala argitu zio bista; ta au izan ze prinzipio anitz milagro in zituenen urrengo denboran.

2. Ilas geros buratsoak, bera gelditurik emazurz konsagratu ze Jangoikoak betikos, ta pasaturik Parisa bizitzera obediencias, an bisitatu zue Jangoikoak perlesia ta oñaze errueki, probatus ala Sandaren pazienza ta konformidade miragarria, ta ala ezaunarazis jendeari arima garren ona. Denbora gartan ellegatu ze Franzia Atila, Hunoen Errege, deitzen zena Jangoikoaren azotea; urbildus Parisa eldu zelaik, Parisdarrak ikar ikar beldurak, in zezan an in zuena asko lekutan, iltzea, urratzea, erretzea, erraustea, zeude ia joateko iges. Sandak animatzen zitue egotera geldi ziu-dadean, ta eskatzera Jangoikoai piedade eta miserikordia barus, penitencias, orazios, limosnas: ta berak ala iten zue, ta ematen ziote esperanza, ona, ongi atrako zirela. Oneki zeude geldi. Baña zenbaitek ikusirik aren kasos gelditzen zela jendea aien opinionearen kontra, nai zute il Sanda. Jangoikoaren probidencias ellegatu ze bitartean. Jermanoganik Arzediano bat, zeñek jakinik nai zutena egin, nekez doi doia logratu zue etzezatzen galdu persona ain sanda kuadrablea Sanduaren ta Jangoikoaren begietan. Errealki onen atenzios Jangoikoak etzue permititu, ellega zeien Atila Parisa, itzulirik atzerat.



3. Admiragarria izan ze Sanda gonen bizimodua, birtute guzies betea, kastidades, humildades, karidades, paziencias, mansotasunes: baña iago arritzeko zena ze beraren abstinenzia ta penitenzia. Amabortz urte-  
taik berrogei ta amarrak artaño solamente bi egunes astean jaten zue, igandean ta ortzegunean, ta orduan ere sollik ogi ordioskoa, ta baba katu-  
li bat. Berrogei ta amar urte beteas geros obediencias obligaturik asi ze artzen esne ta zerbait bijiliako janari. Ardorik etzue txastatu sekulan ere. Prinzipalki sustentatzen ze orazioas, gogoa Zeruan, gorputza lurrean. Zerura beiratzetas ere zerizkio negarrak, ansia zuenagatik arara. Bere Jaun onetsiaren podores egin zue milagro-infinizio bat. Bein orazioan zegolaik gauas ilunbetan, itxeki ze kandela berez. Berze bein laguneki Elizara joa-  
tean itzali zekiote zeramaten argia, eta sandak ukitzeareki itxeki ze. Sen-  
datzen zitue heriak, libratzen endemoniatuak, argitzenitsuak, ezinduak bizkortzen, bizten ilak, ta beartsuak erremediatzen. Bein eskatu zio Jaun bati, barka zezola bere zerbitzuko bati: ura egin ze sor: Sandak erran zio, bada orrek ezipanau aitu nai, aituko nau ene Jesus Jaunak. Bereala Jaun gura heriturik Jangoikoaren permisos, akorduratu ze, ta eskatu zio Sandari humil; ta Sandak logratu zio arri osasuna, ta mutilari barkazioa. Erre-  
ge Txilderiko deituak, naiz ez Kristio, zio Sandari anitz atenzio. Bein manaturik justiziatzeko gaizkiegille batzuk, ta beldurrak eska zezon Sandak barkazio aiendako, ta ezin ukatuko ziola, atra ze ziudadetik kanpora ertxiarazirik portale guziak. Sandak jakinik, ta portalera ellegaturik, istan-  
tean idiki zire atariak berez: guziak berra arriturik, ta Errege iago, ezpaize atrebitu ukatzera Sandari aien bizia eskatu ziona.

4. Entenda daien zein karidade andia zuen, bein ogia eskas zelaik Parisen, ta gose anitz, erresolbitu ze joatera bera laguneki urrun gari-billa. Biaje gura honratu zue Jangoikoak asko milagros, eta itzuli ze Sanda bete-  
rik garis ta gozos erremedioareki. Bizitu ze ainberzeko penitenzian ta san-  
tidadean iago ezi laur ogei urte: Biziareen konforme izan ze bere bukaera izotzillaren irugarrenean, laur eun, berrogeitamazazpi urte ta iruogeita-  
ra. Da Parisko ziudade andi gartako Patrona ta anparo poderosoa. Jem klaro den ageri, nola Jangoikoaren aurrean munduko ponpa ta burrunbak baño iago duen balio personaren onak, ezi iago logratzen du beraganik alako batek, ezi errege ta Jaun andiek, ezpadire alakoak. Jangoikoak in gai-  
zala. &

## Izotz-illaren seigarrenean S. Andres Korsino Karmelita Obispo

1. Florenzian zire bi ezkondu noble, birtuoso, ta Jangoikoaren bel-  
durdunak, Nikolas ta Pelegrina deituak, matrimonioaren fruitu nai ta etzutenak. Artu zute Ama Birjina bitarteko ta Abogada, ofrezitus, ematen baziote, konsagratuko ziotela. Eman zioze Jangoikoak seme bat jaio zena S. Andresen egunean, orgatik deitu zute Andres. Amak libratu bear zen bezperan in zue amets, jaio zenzela beraganik otso bat, zein gero Elizara joanik gutibana itzuli zen axuri. Etzue entendatu adiarazten zena ortan, baña guardatu zue sekretoan. Azi zute kuido al guziareki: baña desgra-  
zias geienak bekala larritus bekala zoeie lazatus, ta gaixtatus, lagun gaix-  
toen gaitz kutsusko abasto denareki munduan. Aitak eta Amak egiten zute eginala zuzenarazteko, baña protxurik gabe: Amak espezialki baizue maite, mintzatus amolsu konsejatzten, ta erreprehenditzen zue: baña guzia ze alfer: ark errespondatzen zio desobediente suber. Egun batez itzuli zekiolaik beñere baño suberrago, Ama gaizoak aflijiturik erran zio, egiaz baizara zu otso gura, flik ametsetan ikusi nuena jaiotzen zela eneganik: baña oraño eztaukat esperanza galdurik, itzuliko zaituela ene Ama Birjina andre onak zu axuri beretako. Itz gebeki mutila baratu ze suspenso, asi ze akorritzen, eta ia humil erran zue, zer otso, ta zer axuri da dion goi, Ama, erran bezada. Amak erran zio, nola Ama Birjinaren medios logratu zuten hume izatea, nola ofratu zuten Jangoikoaren ta bere Amaren zerbitzuko; nola jaiotzearen bezperan amets in zuen, atratzen zela beraganik otso bat, zein sarturik gero Elizan itzultzen zen axuri. Orgatik erran dizut, baña esperanza dut onduko zarella Ama Birjinaren amores. O Jangoikoaren graziaren indarra! O eskojitu denaren fortuna! Istante gartan berean alda-  
tu zekio biotza; ta negarra zeriola belaurikaturik eskatu zio barkazio: eta biramonean Karmesko Elizan Ama Birjinaren alzinean orazio eginik eskatu zue habitua negarres ta belauriko. Eman zioze gogotik Errelijioso-  
ek, ta berak errezibitu zue gozoso, Aitaren ta Amaren asistenzia ta gusto onareki.

2. Ezaun ze berladanik Birjin Amaren lana zela au, ta artu zuela bere-  
tako Andres, zeren ezi berladanik asi ze sandutzen. Humil autsa bekala guzien manura, aplikatu ansioso lanera, orazio, penitenzia, ta on den guzi-  
ra. Etorri zekio bere alde kaballero bat egun batez anitz laguneki, ta baka-  
rrik opaturik predikatu zioze uzteko bizimodu gura: baña ia biotza amo-



rusturik Jangoikoas egon ze Sandua mutu itzik atra gabe; ta Satanasen ministro gaiek joan zire etsiturik. Estudiatzen zue libruan ta orazioan, atratzeko sandu ta jakintsu, on baize bere pretensio guzia, irabazteagatik bere ta berzeren arimak Jangoikoaren gloriatan. Laster asi ze apegatzen bere ona. Zue kaballero bat alde zegona gaitz luze bateki kuratzeko esperanzarik gabe: ta konsolatzeko, ah munduaren engañua! bildus bere etxean buru arinak, guzia ze an joku, dibersio, musika, danza. Joan zekio Andres, eta erre zetatu zio kuratzekos, utzi banidade gaiek, ta baru zeila zorzi egunes Ama Birjinaren honratan orazio egines bateo. Etzekio goxo erre zeta, baña osasunaren amores kunplitu zue, ta baliatu zekio, ezi bereala aurkitu ze sano kontatus guziei agitua, ta eman es graziak Ama Birjinai ta Sanduai. Au obediencias ordenatu ze sazerdote: ta xakinik nola bere aideek nai zuten egin anitz festa, gastu, ta burrunba lenbiziko mezarako, erretiratu ze konbentu soil batera, ta an ofratu zitue bere ordenaren primiziak konsolazio andiareki: ta meza-bitartean agertu zekio Ama Birjina gloriosa ta amorosa erraten ziola, *zu zara ene zerbitzari eskojitua, zure baitan nik izanen dut gloria ta sendagalla*. Pensa nola gelditu bidez Sandua kontentus!

3. Asi ze Jangoikoa agertzen munduari, zein kuadrable zen bere begietan Sandu gau, obratus onen medios asko milagro, argitus itsuak, sendatus heriak, adibinatus gauza sekretoak ta gerokoak, sollik Jangoikoak zuzkenak xakin. Bein bere adiskide batek eskatu zio porfiaz, nai bazio bataiatu aur bat jaio zekiona. Bataiatu zio, baña bataiatzerakoan ta ondo-rean zego Sandua negar ta negar. Galdegin zio arrek zer atik ala. Etzio erran nai Sanduak, baña porfiaren utses azkenean erraten dio, negar iten dut, zeren aur goi jaio baita bere perdiziora ta etxearen kaltetako. Ala izan ze: ezi anditu zelaik gaixaturik iltze berdugoaren eskus. Sandua eginik Superiore egin ze guzia guziendako guzien Aita edo Ama balitz bekala. Guziak kontent, iago Jangoikoa: baitirudi zerua ta lurra konzertatu zirela goratzeko Sandu gau. Iltze Fiesoliko Obispoa; ta bildurik nonbratu bear zutenak berria, guziek nai zute au: baña aitu zuelaik joan ze iges, ta altxatu ze kartujoen konbentuan. Ezin nion aurkitus, naiz billa ta billa zebilzan, ia bazoezi nonbratzera berze bat: baña entenda zeien Jangoikoak nai zuela au, ta ez berzerik, aurtto bat mintzarazi zue guzien aurrean ziola klaro, Andres nai du Jangoikoak bere Sazerdotetako, eta Kartujan dago altxaturik orazioan; an aurkituko dute. Admiraturik guziek bereala biali zuzte beren mandatariak ekar zezaten: ta Sanduak izan zue zerutik errebelazio, au zela Jangoikoaren borondatea, ar zezala kargua, ta lagunduko ziola eramaten. Oneki atra ze konbentu gartaik, ta bidean aurkitu zitue

eldu zirenak eske. Guziak alegratu zire izateas alako Arzaia, zein ofizio gartan, len bekala, beretako ze gogor, berzeendako beratx amoltsu. Konsultatzen zue Jangoikoareki orazioan azertatzeko guzietan. Lastimatzen ze beartsues, ta desegiten ze sokorritu naiez, ta etzelaik berze erremediorik, negarres logratzen zue Jangoikoaganik erremedio milagros ere. Zue-nak ainberze kuidado gorputzen bearres, zenbat bide zue arimenes? Orgatik Aita Sandu Urbano V.a biali zue Boloniara erremediatzera an ziren diskordia mortalak. Guzia paratu zue bake onean miragarriro. Azkenean ia iru ogei ta ameka urtetan zegolaik meza erraten Eguerri gauean, berriz agertu zekio Ama Birjina; eman zitio bazkoa onak, ta seguratu zio Errege egunean sartuko zela triunfante Zeruan. Ala agitu ze: egun gartan iltze inguraturik erresplandores, 1373 urtean. Ilas geros laboratu du Ziudade gura miragarriro. Pensa Jangoikoaren miragarriak bere eskojitueki: nola admititzen, ta gorazentuen penitenteak &.



## Izotz-illaren amirugarrean S. Hilario Putiersgo Obispoa

Jaio ze S. Hilario jendaki nobletik Akitanian, baita Franzian. Ongi azirik estudiatu zue gastezututik injenio andiareki. Ezkondu ze honratuki bere gisako Andre bateki, ta izan zute alaba bat deitu zutena Abra. Estudiatu libru sagratuak ellegatu ze Jangoikoaren argis ezauntzera fede kristioaren egia, zerurako bide zuzen bakarra: eta ala asi ze persegitzen ta konfunditzen herejeak. Bere xakintasun ta santidadearen fama barratu ze, iruzkiaren argia bekala, ezpaitaie altxa: eta eskojitua izan ze Putiersgo Obisopotako, alako baten bearra zen denboran, ezi hereje Arrianoak abasto ia zebiltza kutsatzen Kristio-gendea beren erreoren izurrias, Konstanzio enperadorearen podoreareki persegitus Katolikoak, iduri baize ondatu bear zutela mundu kristioa. Baña ezta podoreik aski munduan ta infernuan ere aski denik galtzeko Kristoren Eliza gau fundatua arri firmearen gañean, berak erran bekala. Errebestituzue bere zeloas ta korajeas S. Hilario, zeñek len lenik eskribitu zue fede katolikoaren deklarazio bat, zeñi etzuketan erresisti ereje banoek, nai bai ortzi libru gura, ta desterratu Sandua. Desterratua izan ze berze Obispo sandu batzueki Frijiara; baña andik ere iten ziote gerra egietafedearen fabore. Laur urtes egon ze desterruan alegre pasatzeas trabaju Jesu Kristoren amores, alik eta bildurik Obispoen Konzilio bat Seleuzian artara deitu zuten S. Hilario ustekabean, Jangoikoaren probidenzias, ezi an egin zue animoso egin zuena beti, baize garaitzea ta konfunditzea herejeak, konfirmatzea ta alegratzea Katolikoak egietafedean.

2. Bialirik zenbait Obispo ematera kontu enperadoreai pasatu zenas Konzilioan, joan ze aieki Sandua nioren beldur etzela. Nai zue au, ta eskatzen zue zetozila berareki disputatzera enperadorearen presenzian bere kontrarioak: baña etzirelarik trebe, in zutena ze konsejatzea enperadoreai bial zejala bere Elizara, orreki ura itzuliko zela gustoreki, ta aiek geldituko zirela kontent. Itzuli ze Sandua negarres ez logratuas martirio nai zuena: ta segitu zue S. Martin gloriosoak imitatzeke santidadean. Nork erran, zein kontent alegre errezibitu zuten bere ardiek, ta zenbat protxatu ziren beraren exenplu, ta doktrinaeki? Jangoikoak ere ia honratzen zue milagroeki, sendatus heriak, ta ilak ere biztus. Milagro bat notagarria kontatzen da Sandu gontas. Erranik dago, nola ezkondua zelarik lenago izan zuen alaba bat deitua Abra. Onek eskribitu zio Aitari desterruan zegolaik,

nola zuen eskalda on bat ezkontzeko Jaun bateti: Sanduak errespondatu zio, nola nior baño iago berak nai zuen aren ona, ta eman nai zion esposo bat daiken obena, ta aurkitu zuela bat bere parerik etzuen edertasun, nobleza, podore, ontasun, ta prenda guzietan. Zegola geldi eman gabe itzik niori, bera itzuli arteo etxera. Obeditu zue, ta ze go beira noiz itzuliko zen, kontatus egunak. Orduan itzuli zelaik, mintzatu zio Sandu ta Aitak bekala: deklaratu zio nola berarendako zeukan esposoa zen Jesu dibinoa, zeñen amores konsagra zezan bere birjinitadea. Logratu zue, zeren Aitaren gisara ze alaba ere ona, ta honesta. Baña Sanduak beldur emastekiarenas, xakinik Jangoikoaren errebelazios zegola grazian eskatu zio eraman zezala mundugontak erori baño len; eta logratu zue, ta bereala iltze gaitzik, ta oñazerik gabe, ta Aita onak ortzi zue gozoso bialias Zerura Birjin gloriosa.

Sandua bizitu ze gero bakean bere Obispadoan, baña kontino gerra egiten herejeei mias ta plumas, ta garaitzen kontino. Ellegatu zelaik denbora, biltzeko bere trabajuen eraizioa, eraman zue Jaun onak bizitza eternora gozoso alegre bera, baña bere feligresen pena arrigarriareki galtzeas alako Aita. Il omen ze irur eun ta iruogeamargarren urtearen inguruan &.



## Izotz-illaren amalaurgarrenean

### S. Felix sazerdotea Nolan

1. S. Felix sazerdoteen hispillu ederra jaio ze Nolan, baita Kanpianian, zeñen bizia eskribitu zue S. Paulinok ango Obispoak bersotan. Aurzutu-tik azitzen ze sandutako ta Eliza-gizontako, bere afizione ta iteko guziak zituena Elizan. Ordenaturik sazerdote guzia ze Jangoikoai zerbitzatzea, ta Kristioei orazio, sakramentu, doktrina, exenplu, ta obra on guzieki. Onen denboran goratu ze persekuzione lotsagarri bat Kristioen kontra, ilarazis obenak akabatu naiez Kristio-jendea. Ortako len lenik billatzen zuzte buruak, ta Artzaiak arrapatzeko, ta bereganatzeko, al bazezakete, ezperen, zatikatzeke ta ilarazteke milla manera gaixtos. Ze orduan Obispo ango Maximo zar benerable sandu bat: Onek xakinik billatzen zutela bera otso gaiek, iltzeareki Artzaia, galtzeko ardiak aisa, egon ze dudaketan, zer egin, edo utziko zen iltzera berla, edo guardatuko zen gerorako, azkenean obe iduriturik, ta konsejaturik erresolbitu ze altxatzera leku apart sekreto batean, utzis enkomendaturik saldoa S. Felizi, baize koraje anditakoa. Ezin aurkitu zutelarik Infielak Obispoa, eman zute S. Felizen kontra. Aurkitzen dute, arrapatzen dute; ta loturik sokas ta katees daramate preso: eta ezin errenditu zutelarik ez meatxus, ta ez loxentxus, utzi zute kalabozo batean penarazteko ango arri ta tella-puska barratu zuzteneki, ezin erre-pausa, ezin lokartu zeiken gisan.

2. Bitarteo bere Obispo sandua zego leku soill eremu ta kubila batean otzak, goseak, ta angabeturik sustentu-faltas, ta adin sobras: Jesu Kristo zego beira bere bi soldadoak beraren amores penatzen zeudenak: Biali zue an goratik Aingeru bat, zeñek manatu zio S. Felizi, jaiki ta atra zeuela karzeletik. Amets bat iduri zekio Sanduari au, nola S. Pedrori len; baña manaturik berriz, aurkitu ze libre kateetaik, ta asi ze segitzen Aingerua, idikirik atari guziak. Aingerua zoeie alzinean, atzetik Sandua, ellegatu arteo eremu artara, non baizego Maximo Obispo sandua Krean etzanik, izozturik, ta il-kolore, ia erdi ilik. Artu zue besarka S. Felizek; nai zue akorriarazi berotus atsas, eta al zuken modu guzies: baña etzuketarik nio-latere, paratu ze belauriko eskatzen Jaunari, sokorri zezan nezesidade extremo gartan. Ala dagolarik suspiroka, goraturik begiak, ikusten du malda batetik nola dagon dilindaka matsoko bat, zein arturik eskuas ertxitus aren likorea sartzen zio agoan zar gaizoari, zein orreki asi ze idikitzen begiak, ta ematen eskerrak Jangoikoai, ta gero keja amorosoak S. Felizi,

nola beran dutuzuen ainberze, ofrezitu ziolaik Jangoikoak etorriko zekio-la bisitatzera ta sokorritzera bear orduan. O Jaun ona, zein ona den bereendako! Nork eztu naiko amatu ta zerbitzatu Jaun ain ona? Nork ez konfiatu? &. Biak gozoso egon zire tratatzen elkarreki amorosoki: eta azkeneko determinatu zute bear zela itzuli errira alas edo olas, nola zeiken. Baña nola zar sandua ezpaizeike ibili ofies, ta ez izaki abrerik edo karrorik ermateko, zer inen zute? Karidadeak eman zio S. Felizi injenio ta indar. Soñean artu zue zar benerablea, ta eraman zue gutibana, ta sekretoan sarturik ziudadean utzi zue altxaturik persona on baten etxean, eta bera altxatu ze berze batean, alik eta ematu zen arteo tenpestade gura. Orduan atrarik konsolatu, erremediatu, ta animatu zuzte berze fielak bearean zeudenak.

3. Baña guti iraundu zue eguraldi on bakeskoak; zeren ezi bereala enperadorearen Ministroak itzulirik asi zire persegitzen Kristio fielak: eta nola baizekite S. Felix zela guzien alzindari animosoena, len lenik asi zire aren billa, ta aurkitu zute plazan, baña ezaundu ez. Galdegin ziote berai, ia ezauntzen zuen Felix sazerdotea: errespondatu zue, aitu bai, baña etziola ikusi aurpegia. Joanik orreki aiek, Sandua goaturik beraren billa zebilzala, joan ze berze alderat, ta altxatu ze bi pareteen erdeka batean. Ministro gaiek informaturik zenbaitenganik, mintzatu zioten gura zela Felix, itzuli zire laster; segitu zute kale-ertxi gartara. Baña admira gaitzen Jaunak tuen modu miragarries libratzeko bereak bear delarik, erdeka gura bat-batean aurkitu ze beterik armi-arma-sarees, ezpaize gogoratzen nior sartu zela an istante gartan. Itzuli zire andik berze lekutara billa: eta Sandua gelditu ze admiratus ta laudatus Jaunaren probidenza amorosoa: ta sartu ze aratago barna: an egon ze altxaturik sei ilabetes. Nola mantenitu ze bitartean? Beira berriz Jaun onaren kuidoada. Etxe batetik ze arara leiotta bat: ontan egunoro paratzen zue an bizi zen andre batek ogi ta jateko gauza zerbaik xakin gabe bazegon nior an beiti: ta gauza miragarria! beñere etze oroitzen paratu zuela, ta beti oroitzen ze paratzeas, utzi gabe egunik: ala sustentatzen zue Jangoikoak Sanduaren gorputza, ta arima berriz Zeruko erregalos ta konsolazios, alik eta sosegatu arteo persekuzioa.

4. Orduan agerturik berriro egiten zue egiten zuena beti, predikatzea, konfesatzea, konsolatzeta, animatzea guziak. Iltze Obispo izana, ta guziek nai zute Felix Obisopotako; baña Sanduak errepugnatu zue humilki, ta eskatu ziote in zezatela Obispo berze bat, sandu zena, ta ordenatua zazpi egunes lenago bera baño. Beira humildadearen fiña. Mostratu zue alaber bizitzean pobre beti. Persekuzione-denboran enbargatu ta saldu zuzte aren ondasun etzeko ta kanpoko guziak: Gero erraten ziote errekoa





zezkiela justiziaz, berze askok bekala. Ori ez nik, zio: ene Jaunaren amoreagatik utzi nitue bein: ongi daude. Artzen zuen alimentu gutiarendako guti bear, ta ala bizia atratzen omen zue kuidatus baratzetto bat ta irur erregerrri zen lurra bere eskus, ta bere lagun zuen Nekazari bateki. Bestimenta ere pobre, ta bat baizik ez beñere; ta norbaitek ematen bazio berze bat, berak ura berla pobreren bati. Munduan bizi ze, baña munduaganik etzekio deus apegatu: emen gorputza, baña Zeruan beti gogoa. Jesus ona zue maite agitz; ta Jesus onak ere bai bera. Ala bizitu ze S. Felix, izenez bekala, izanes ere feliz ditxoso anitz urtes: ta iltze eriotze prezioso bateki; ta beraren gloria duenas Zeruan ematen dute testimonio infinizio bat milagro egintuenek mundu guzikoeki; ta S. Damaso Aita Sandu español izanak ematentio graziak ta laudarioak osasun logratu zuenas bera zela medio. Berze milagroen artean kontatzen da, egia atraraztea, bear zelarik; ezi ukatzen zuena ermaten zute S. Felizen obiara, ta an juramentarazten zute; ta baldin gezur iten bazue, an ze kastigatua Jangoikoaren permisos agurrian berla: eta S. Agustinek ere dio, biali zuela berak ere bat arara, atra naiez egia, bear zena xakin preziso. Asko gauza notagarri dire Sandu gonon bizi admirablean. Beraren amore ta korajea defendatzeko Kristoren fedea: Jaunaren faboreak berari, libratu karzeletik Aingeruaren medios, ermanes oianera, ta emanen zereki akorritu Obispoa, guardatus bera telarañaeki ain seguro ta seguroago, ezi bronzesko murallaeki &. &.

## Izotz-illaren amazapigarrenean S. Anton, edo S. Antonio Abadea

S. Anton Abadea leku gebetan duena deboto anitz, zeren Jangoikoaren adiskide ona bekala logra dezaken asko fabore on geuren personen ta haziendaendako, jαιο ze Ejipton, nongo eremuetan pasatu zuen bizi-modu bat admiragarria iago ezi imitagarria. Au eskribitu zue S. Atanasiok, ta eskribitu zuena eraman zue Romara, non admiratu zire leitu zuten guziak, eta anitz oneratu zire: guzien artean S. Austin, zeñek bere lagun bati erraten zio heriturik biotzean, Alipio, zer da au aditu duguna? Goratzen dire letrarik ez tutenak; eta arrapatzen dute Zerua: eta gu geuren letraeki emen funditurik loiean! Agian zeren alzinatu diren, alke dugu segitzeas atzetik? Eta ezgara iago alketzen, ez segitzeas? Emendik izan ze prinzipioa, sandutzeko Doktore andi gura. Guk ere admiraturik gañarakoas ikasagun zer dezakegun nor bere estadoan, ta alke gaitzen kontra bizitzeas. Noblea ze ta aberatsa jenerazio: azi ze txoil sanduki buratsoen obediencian erretiraturik beti, nastekatu gabe mundukoan afizione, ta dibersioetan. Bere bizia ze Elizan, meza, orazio, doktrina, ta alakoetan. Emezorzi urtetara zelarik, il zekizkio buratsoak: gelditu zekio asko hazienda ta ondasun, baitare arrebato bat txipia, zeintas preziso zuen kuidatzea. Sel ilabeteen buruan asi ze pensatzen, nola lenbiziko Kristioak guzia utzirik okzupatzen ziren guziak Jangoikoan, ta ongi egiten proximoei Jangoikoagatik. Egun batez Ebanjelioa kantatzean aditu zue sententzia gura Kristok mutil bati erran ziona, Math. 19. Nai baduzu izan perfektu, zoaz, sal zazu duzun guzia, ta eman pobreei, ta segi ni, ta izanen duzu tesoro *Zeruan*. Sanduak, ain nola berarendako berex erranak balire, bereala joan etxera, berexi arrebarendako hazienda parte tokatzen zekiona, ta gañarako guzia sal du, ta errepartitu ziote pobreei.

Ala desenbarazaturik guzietaik asi ze bizitzen sollik Jangoikoaren ta bere arimaren. Trabajatzen zue garaitzeko inklinazioak ta pasioneak: plantatzeko birtuteak, humildadea len lenik, kastidadea, abstinencia, mansotatzena, pazienza &. Ortako aplikatu ze orazio mentalera ain gogotik, ezi egunoro zego orazioan denbora luzean, ta askotan ortan pasatzen zitue gauak ososoa. Infernuko etsaiak tentatzen zue asko maneras, agerrian ere: baña Jesu Kristoren amore sendo zuenareki Sanduak garaitzen zue: ta erraten zue, sinesta, ezi Satanas lotsatzen da debotoen orazioes, barues, ta berze on guzies, baña geienik Jesu Kristori diogun amore fiñas, zenen





guruzearen señailea sollik ere aski da aren garaitzeko, ta inarazteko iges. Jaun dibinoa asi zekio bisitatzen, mintzatzen, ta animatzen amoroki; oneki Sandua iago amorosten bere Majestadeas. Beraren amores egin zue penitentzia, ta bizitza gisa bat admiragarria: eta admiratu zue mundua, ta konbertitu anitz jende segitzera munduaren desprezioan, ta aditzera beraren konsejuak, garaitzeko aragia, mundua, ta Demonioa. Onek zio ainberze beldur, ezi nonnai urrun ere aipatuas geros S. Antonen izena, eskapa zen ze firrindaka: eta Sanduak zio, eztuela nior garaitzen etsaiak, baikik nai dena utzi garaitzera bere faltas, bere kulpas. Bein Satanaz zebilana inguruan erreprehenditurik Sanduak, erran zio arrek, nabila xakin naies, zergatik emateunten Kristioek ene kontra edozein desgraziatan. Sanduak: arrazioreki ematen die ire kontra, zeren ik in zitatzentuk gaixtakeriara. Errespondatu zue Deabruak, gizonena dela culpa guzia, beren naies iten baitute, zeren ezi berak, Kristo gizon in zenas geros, eztuela indarririk, ta ez armarik bortxatzeko nior; ta ala errenditzen direnak keja daizela beren burues. Gelditu ze Sandua laudatzen Jesu Kristo, obligatu baizue Deabrua, gezurraren Aita izanik, erratera egia: ta aumentatu zekio amorea iago ta iago Jesu Kristogana.

Guzia guti iduri zekio iten zuena Jaun onaren zerbitzutan, ezpaze iltzen Martir beragatik. Ansia goneki joan ze Alexandriara, non zeuden martirizatzen asko Kristio: akonpañatzen, exhortatzen, animatzen zitue, guziek ikusten zutela: Tiranoak etzire atrebitu iltzera, ta Jangoikoak etzue permititu: baña Sanduak in zue in ala iltzeko; ala izan ze Martir biotzas, naiz ez ilik gorputza. Itzulirik triste orgatik, enpleatzen ze guzia ongi egiten, eta milagroketa ezin konta ala: guziareki ain humil, nola deustako ezpalitz. Alaere beldurrak nai ze altxatu, ta altxatu ze leku soil batean Jangoikoaren inspirazio: an gozatzen ze orazioan bere Jaunareki: ta iago bizi ze glorian, ezi lurrean. Baña billatu zute an ere: ta Sandua izanik manso beratx onegia, enpleatzen ze egiten ongi guziei: beti sereno alegre bardin gorabera guzietan: ikusi etzutenek ere sekulan, milla Monjeen ermean ezauntze zute aurpegian, baize au ala nola hispillu bat arimarena. Sazerdoteeri zio agitz erreberenzia; herejeei oposizio errua. Eta bein bisione batean ikusi zue herejeek iten zutena Elizan, ala nola abreak ta zaldiak zeudela ostikatzen aldareak, urratzen, ta zikintzen. Zego negarres orgatik, alik eta errebelatu zion arteo Jangoikoak biktoria logratuko zuena Elizak. Denbora gartan deitu zue S. Atanasiok beregana: joan ze, ta egin ze fruitu admiragarria, konfunditurik herejeak.

## S. Paulo eremutar lenbizikoa

Zituelaik ia S. Antonek laur ogei ta amar urte, gogoratu zekio ote zen nior ainberze denboras bizitu zenik eremuan. Errebelatu zekio baietz, ta joan bear zuela arren billa ikusteko. Bereala argitu orduko zar benereblea paratu ze badean, ta bazoeie nora etzekiela: Eguerdirat naiz beroak aflijitzen, alaere segi konfiaturik aurkituko zuela Jangoikoaren fabores. Basezia batzuen señaileeki segitzen zue desertu gaiek barna, ibili ta ibili nekaturik egunas, ta orazioan gauas. Irugarren egunean ikusi zue otso bat oiana barna sartzen; segitus segitus, ia etzue ikusten otsoa, bai kubila bat an urbil: ellegaturik asi ze sartzen emeki barna ilunbetan, atsa gelditus, ta bearria paratus, zerbait al bazuke senti. Goartu zue aratago argi-errañu bat: alegratu ze esperanzareki: prisaka naies tropezatu ze arri bateki, ta in zue arroitu. Aiturik S. Paulok bereala ertxi zue ataria. Orduan S. Anton urtikirik lurrean an asi ze klamatzen otoi otoi idiki zezon ataria, ziola, badakit badakizula zuk nor nai zen ni, nondik etorri nai zen, ta zertara. Badakit ere ez nai zela digno ikusteko zu: baña ez naiz joanen emendik, ikusi gabe. Baseziak errezibitzentuzu: ta gizona eztuzu? Nik billatu, ta aurkitu zaitut: deies nago zure atarian, idiki zadazun. Ezpadut logratzen au, emen ilen naiz, ta bearko duzu ortzi ene gorputza. Itzebetara errespondatu zue barnetik, niork eztu ezkatzen grazia meatxueki: eldu barin bazara iltzeko, zer milagro da ez idikitzea? Erran, ta idiki zio ataria irrikos: bereala biak besarkatu zire amore andiareki, diosalea egines beren izenes, nola ezaunak balire, ta Jangoikoai graziak eman zitiote.

Gero jarririk elkarren aldakan biak asi zire konbersazioan, galdegines S. Paulok munduas, Elizas, ta gizagendeas, nola ta zer estadotan ziren. Errespondatu zio S. Antonek; ta galdegin berai, noiz ta nola etorri zen, nola zenbat denboras bizitu zen eremu gartan. S. Paulok kontatu zio, nola amaborz urtetan gelditurik buratsoik gabe, iges iteagatik bere koñatu baten, ta Infielen persekuziotik etorri zen, ta altxatu zen kubila gartan, non baize iturri bat, ta palma bat: iduriturik zela leku propia au Jangoikoak prestatu bekala, gelditu zela ta egon mantenitus palmaren fruituareki, ta bestitus ostoeiki, apartaturik munduaganik, baña ongi konsolaturik Jangoikoaganik. Ala zeudelaik jolasketan, ellegatu ze otsorrai bat, ta jarri ze arbolan zekarrala pikoan ogi bat, zein utzi bien oñetan ta joan ze. S. Anton arriturik, S. Paulok erran zio, biz bedeikatua gure Jaun ona, biali baitiu bazakaria. Irur ogei urte du bialtzen didaa ogi-erdi bat egunoro: egun zu eto-



rriareki doblatu digu bere soldadoei arrazionea. Esker milla emanen asi zire porfia humil bateki erranes batak berzeari, parti zezala: azkeneko biek arturik bi aldetaik gelditu zire bakotxa bere zatiareki: Jan ta graziak emanik Jangoikoai, S. Paulok erraten dio, banekie, Antonio, aspaldian bizi zinala desertu gebetako monasterioan, ta etorriko zinala nere ikustera. Gure Jaunak bial zaitu, ortzitzeko ene gorputzaren lur gau lurrean. Emen biotzberatu ze S. Anton, ta negarres zio, ain berant ikusi, ta ain fite utzi nai nauzu? Ez ez nazazula utzi, erman nazazu zeureki berze mundura. S. Paulok erraten dio, etzazula nai zuk Jangoikoak nai eztuena: ez zeure probetxua, bai proximoena, baitire oraño zure bearrean. In bear duzuna da joan ta ekarri Atanasiok eman zizun mantoa estaltzeko gorputz gau. Erran zio au S. Paulok, ez ajola zuenagatik orzitzeas estali, edo ez estali, baizik joateareki Antoniok etzezan ainberze sentitu aren iltzea ez ikustearreki. Arriturik S. Antonek aditzeas ziona, ezaundurik petxo gartan bizi zela Jangoikoa, apatus ixil ixila negarra zeriola atra ze egiteko manatua.

Prisaka prisaka itzuli ze konbentura. Bi Diszipuloek erraten zioten, non egon da, Aita? Errespondatu zue, ai nitas, bainaiz bekatarri dutena Errelijiosoaren izena utsik. Ikusi dut Elias; ikusi dut uan Bautista desertuan: eta errealki S. Pablo paraisoan. Berla zeldatik arturik mantoa atra ze itzultzeko laster; beldur ze iltzeien ellegatu gabe. Galdeturik zergatik zebilan ain prisaka, dio, denbora da ixiltzeko, ta denbora mintzatzeko. Eta amenik artu gabe bazoeie lengo bideas. Biramonean goraturik begiak zerurat, ikusi zue S. Pauloren arima txuri ta argi miragarriri igaten Zerura. Urtiki ze lurrean lamentatzen, O Paulo, zergatik uzten nauzu, despeitu gabe? Segitu zue andik alzina bidea ain zalui, boladan bekala. Sarturik kubilan ikusi zue gorputza belauriko tieso, ta ustez bizi zen, jarri ze aldakan bera ere orazioan: baña etzuelaik senti txinkarik, ezaundurik ila zela, artu besarka ta erregatzen zue negarres. Estali zue S. Atanasioren manto garreki: Inzizio Elizako errezuak: eta etzekielaik zer egin ortzitzeko, ezpazue altzurrik lurraren arrotzeko, etorri zire oian barnetik lasterka bi leon, ta marroas mostra iduritzen zute pena zutela: Bereala aztaparres in zute zulo bat aski zena, ta S. Antoni lamikatus oñak ta eskuak; onek emanik bedeizioa, joan zire, ta Sanduak ortzi zue Sandua &. &.

## Izotz-illaren ogeigarrenean S. Sebastian Martir glorioso

S. Sebastian Martir balientea bizitu ze Diokleziano ta Maximiano enperadoreen denboran, ta izan ze lenbiziko arren kohortearen kapitan, asistitus beraren palazioan, noble, fiel satisfakzioskoa, baña biotzez Kristio sendoa, naiz disimulaturik denbora puska batez ongi egiteko Kristioei, ezi bisitatzen zitue preso zeudenak fedeagatik, animatzen beldurtiak, ta salbatzen asko zeudenak peligrotan. Ebetaik izan zire bi kaballero deitzen zirenak Marko ta Marzeliano elkarren anaiak, ta agitz nobleak, ezkonduak zuztenak beren bizikideak ta humeak. Bisitaturik S. Sebastianek karzelean animatu zitue sufritzera edozein tormentu ta eriotze Jesu Kristoren fede ta amoreagatik. Sentenziaturik ia eriotzera, nola baizire Romako prinzipalentaik, beren buratso, bizikide, aide, ta adiskideek logratu zute Juezenaganik ogeitamar egunen epea, kentzeko burutik fedearen tema deitzen zuten gura. Bitarte gartan zer medio, arte, dilijenzia, ta gauza in zuten beraxteko, nola explika? Alde batetik Amak negarres, Aitak ezin mintzatus mias, bai suspiros: berze aldetik beren Andreek humeeki batean lamentatzen aien ta eben galmendea, baldin segitzen bazute teman. Sentitzen zute Sanduek gizon bekala. Aurkitzen ze an S. Sebastian, Kristio zen etzekitela, ta iduri zekio preziso zela agertzea ia, defendatzeko Kristoren kausa. Eta ala errebestiturik korajes mintzatu ze manera gontan: Jaunak eta Kristoren soldado balienteak, egon firme pelea gontan; erregeen errege da norengatik pelezengaren. Itz beratxek, ta andreen negarrek errendi bezkite gizon beldurtiak, baña ez zuek, baizarate animoso prestuak. Jaun andiaren soldado zarate; korona gloriakoa prestatuturik dauka zuendako: etza ziela gal emengo deus gutiagatik. Ebek eztakite ongi oraño Kristio izatea, ta bukatzea Kristio bekala, zer fortuna. Zuek ikasi duze; beira ez atzen. Lanze batean zarate, noiz galdu bearko edo ebek, edo Jesu Kristo. Nork konfesarazi dize Kristoren fedea orai arteo? Nork eman dizie indar, sufritzeko ainberze pena? baizik Kristoren amoreak? Atari-pokalean zauzte ia sartzeko glorian: litzake ongi gibelat itzultzea mundukoen amoreagatik? Etzin dekite zuen iltzea sentituko zutela zeuren propioek? Baña propioago dire Jangoikoa ta Zerukoak. Segi, ellegatu arteo arara. Ez utzi armak enemigoaren alzinean; ia daukaze errenditurik oin petan: erdi logratuturik daukaze biktoria: Iltzeareki istante batez jaiotzen da betiko bizitzara. Ebek emen negarres daudenek baleki-



te dakizena zuek, zer gloria izain duten onek, ta zer pena gaixtoek, ez lastima, bai inbidia ona lukete zuen fortunak; baña fede-faltas maiteegi dute emengo bizitza engañatzenutena, ta utzikotuena goiz edo berant: ezi ebek ere il bear dire gorputzean; eta arimak gero?... Ta itzulirik aiengana erran zioite, Jaunak eta andreak, ez dezatela nai galde zuten Kaballero gebek Zeruko gloria emengo miseria atik, ta ez erresisti Jangoikoaren espiritual animatzen tuenai. Ez ainberze pena, eben joateas mundutik, ezi doaz Zerura, ta andik inen dizie iago, logratzeko argi, ezauntzeko zuzen-bidea, ta ellegarazteko Sanduen konpañiara. Eztire ebek atso-kontuak, baizik egietafedeak progatuak infinizio bat milagroeki, naiz infielek dioten direla sorginderiak. Egiaskoak direlaik Kristoren milagroak, baitare beraren promesak, ta ebengatik arrazio da emengo bizitza ematea. Eta zer milagro andiago nauzie egietafedearen, nola iltzea ainberze ainberze Kristio beren borondatez, ain gogotik, ain animoso alegre, eta zenbatenas iago il, iago azitzen Kristiogendea, nola balitz Martiren odola Kristioen azia, naiz enperadoreak dabilzan akabatu naiez beren indar ta furia guziki, alfer. Beras ez ia negarrik, Jaunak eta Andreak, baizik akonpañia alegreki eben triunfoak &.

Itz gebek erraterakoan S. Sebastianek; jautsi ze bat-batean Zerutik argi andi bat, guziei admirazio, ta alegria eman ziotena: eta zazpi Aingeruen erdian agertu ze an Jesu Kristo eman ziona S. Sebastiani besarka bat erraten ziola, zu beti eneki egonen zara. Guziau agitu ze Nikostratoren etxean, zeñen andrea zegon mutu aspaldirik. Onek aditurik ta ikusirik pasatu zena, joanik Sanduaren oñetara mostratzen zue keñus nai zela kristiatu. Sanduak dio guzien alzinean, ni barin banaiz Jesu Kristorena, ta egia barin bada nie erraten duten guzia, Jesu Kristo berak senda zaizala zu, ta mintzarazi. Zeñatu zue agoan, eta istante mintzatu ze sueltoki mutu zena, laudatus Jesu Kristo ta Sandua. Milagro klaro goneki Nikostrato konbertitu ze, ta urtikirik anaia preso sandu gaien oñetara eskatu zioite barkazio idukias preso, ta zoezila Jangoikoareki libre. Ia aien Aita ta Ama ere konbertiturik gozatzen zire izateas Kristoren Martir seme gaiek. Iruogei ta amalaur izan zire konbertituak egun gartan; guziak bataiatu zitue Polikarpo sazerdoteak, zelarik guzien Aitabitxi S. Sebastian: aietaik asko sendatu ere zitue milagrosoki gorputzen gaitzetaik. Zer alegria zuten gauza gebeki nork erran? Guzia ze animatzea elkar pasatzera martirio Jesu Kristoren fede ta amoreagatik.

Kunpliturik ogeitamar egunen plazoa, Prefektoak, edo Alkateak, deitu zue presoan Aita: galdegin zio, ia konbertitu diren semeak obeditzera enperadorei. Errespondatu zue, ditxosoak dire nere semeak, ta ni

ere bai, ezaundu baitut erreligione kristioaren bide zuzen bakarra. Nola? dio Juezak, orrek ere galdu du juizioa, ta eratu da biziaren azkenean? Eroa da, dio arrek, uzten duena bizitzaren bidea, ta segitzen eriotzearena. Zer bizitza, ta zer eriotze? dio Juezak asarraturik. Arrek emekiro, nai banau aditu atento, ditxoso izanen da on ere, ta orren etxea. Adituko dut, dio, baña beira, ez niri erran gauzarik proga ez dezakenik. Izan zute jarduki luzea elkarreki, ta kontatus agitua, azkeneko S. Sebastianen konsejus osoki Juez gura ere milla ta laur egun berzeki errenditu ze izatera Kristio, nola in baize. Beraren konsejus, ta Kalo Aita Sanduaren asko atra zire Romatik bizitzeko apart altxaturik, eta Aita Sandu berak S. Sebastian deitu zue fedearen defensore. Prefekto berri nonbratuak martirizatu zitue bi anaia gaiek, ta berze anitz S. Sebastianek konbertituak.

Baña Diokleziano enperadoreak ikasi zuelarik, bere guardiako Kapitana Sebastian zela Jesu Kristoren soldado, ta iten zituen lanak, deitu zue bere alzinera, ta buztindurik iras erran zio, agian honratu ta goratu zaitut nik zu, zuk ene ordenen kontra Kristio izanik alhaitzeko Kristioak ta itxekitzeko gure Jangoikoen ira nere kontra? Ontara errespondatu zio Sebastianek sereno, Jauna, ni beti izan naiz fiel orren Majestadeai, ta berorren onagatik beti in dut orazio Jangoiko bakar egiaskoari, kriatutuenari Zerua ta lurra, ta diren guziak ta guzien Jaun denari, xakinik engañu andia dela adoratzea Demonioak ta idolo arriskoak ta metaleskoak. Turbatu ze guzis enperadorea, ta manatu zue kentzetatela beraren presenziatik bereala, eta paraturik bularretan ol bat eskribiturik Kristio zela, kanpora atra, ta biluxi ta loturik josi zezatela saetaeki tirazaleek. Ala egin ze: ta ainberze saeta frinkaturik utzi zizkiote gorputz guzian, ezpaizue iduri gizonaren gorputza, baizik sagarroi bat puntzikas betea. Bitarteo bere biotza zego suturik Jangoikoaren amores, ta arima alegre, naiak pasatu iago ere. Ustez il zen, utzi zute iltako bere zur gartan. Urbilen gauean Señora bat deitzen zena Irene, arturik lagun bear zirenak ortzitzera ermateko, joan, eta aurkitu bizirik, ta eraman zue bere etxera kuratzeko: ta denbora gutis Jangoikoaren grazias sendatu ze guapo. Joanik ikustera Kristioek porfia iten zioite negarres ere, atra zeie la ziudadetik iges, etzezaten il. Baña Kristoren soldado balienteak etzekie iges iten: eta ala xakinik pasatu bear zela biramonean karrika batean, atra zekio alzinera garboso, ta goraturik boza erran zio grabe, o enperadore Jauna, Jangoiko falsuen sazerdoteek engañatzen dute finjitus milla gezur Kristioen kontra, ta berorren inperioaren kontrario direla, direlaik egiaz fielenak, ta aien orazioen kasos dirauela. Turbatu ze nork dagi nola enperadorea aditus, ta beiratus bizi ta bizkor ilik zegona bere ustes. Suspenso egon ze guti bat, ta akorduratu zelarik gal-



degin zio, zara zu Sebastian, flik manatu nuena iltzeko? Etzara il? nola zaude bizirik? Errespondatu zio, Jesu Kristoren grazias nago emen guzien alzinean emateko testimonio egietafede kristioas, ta arraziorik gabe persegitzentutela direnak onak ta prestuak. Errabias suturik arrek, abuñia zeriola agotik, manatu zue erman zezatela andik, ta akaba zezatela golpeka. Ainberze golpatu zute infielek, ezi despeitu zue arima; ta gorputza bota zute gauas leku lizun zikin batean barna, etzezaten honra Kristioek: Baña Jangoikoaren probidenzias gelditu ze dilindan gantxo batetik erori gabe lezean; eta izanik errebelazio Luzina Matrona Sanda batek atra zue ta depositatu zue manatu zekion lekuan, ta an egon ze asko egunes Sanda gura orazioan: eta gero utzi zutelarik Kristiandadea bakean, egin zue tenplo bere etxea, ta utzi zitio bere ondasun guziak. Daukate Sandu gau Abogatu ta Patrono espezialki pestearen kontra; ta diote prinzipioa izan zela Agaton Aita Sanduaren denboran, noiz agiturik Roman peste lotsagarria, istante kendu zela paratzeareki Sandugoni aldare bat. Baitare Elizak bere etsaien kontra inbokatzentu S. Sebastian, S. Maurizio, S. Jorje &

## Izotz-illaren ogei ta batgarrenean Santa Ines Birjina ta Martira

1. Jangoikoaren ona, errelijione Kristioaren garbi sandu bakarra, ta Kristioeri Kristoren medios komunikatzen den graziaren indarra ikusgarri da Sandu guzietan, baña espezialki da ageri txoil klaro eder Santa Ines Birjina ta Martir gloriosan; zenen bizia, S. Anbrosiok dion bekala, guziek dezakete leitu, aditu, alabatu, admiratu, ala gizonkiek, nola emastekiek, andiek, ta txipiek, eta aurrek ere: Sanda gontan ikuskote akonpañaturik ondasunketa pobrezta biotzekoareki; nobletasuna humiltasunareki; gorputz txipia, ta arima andia, aur adinean, ta juizios ta diskrezios beterik: delikatu indarres, biktoriosa triunfante alaere, Birjin ta Martir batean. Jai ze Roman buratso abrats noble andi prinzipaletaik: Azi zute ongi aiek, baña prinzipalki Jangoikoak formatu zio biotza bere gustora. Txipizutitik eman ze Jesu Kristoren amoreai ain gogotik, ezi bere gustoa, ta bere bizia ze pensatzen egotea aren bizian ta pasioan. Amore garrek etzio utzi lekurik munduko afizioneari, baizik inspiratu zio konsagratzea bere birjindadea betikos, Jesu Kristo sollik nai zuela bere arimaren esposo, ta bera onen esposa. Amore gonon sugar kasto gozoak altxatu zitue berebaitan, aurra zen bitartean: baña amabi urte bete zituelarik, agertu zitue okasio goneki. Nola baize ariman bekala, gorputzean ere guziz eder agraziatua miragarririo, Gobernari edo Prefektoaren semeak pretenditzen ze bere esposatako, egines dilijenzia guziak buratsoeki ortako. Baña nola ebek ezaizute arrek nai adiña prisat, edo zeren alaba zen oraño aurra, edo zeren ikusten zuten etzuela bokaziorik Matrimonioko estadora, kaballero garrek berantetsirik, egunak urte iduri zekizkiola, garaiturik pasione itsuas injeniatu zue noiz ta nola mintzatu berareki berak egun bates.

2. Prebeniturik joia ta ikusgarri preziosoak, paratu zekio alzinean, eldu zelarik karrikan, errogatus artu zezan esposotako, ta ofrezitus milla gauza, ta eman zezamatzienak bereki. Baño Sandattoa lotsaturik istantean erretiratu ze atzerat, ain nola ikusi balu serpiente bat: eta grabe kotorki erran zio, aparta aparta eneganik erioaren zeboa, infernuko sutilletea, ezi ia berze amazale bat alzinatu da jabetzera nitas, zeñi desleiala ni sekulan ez naiz izanen; berari emana nago, ta beraren amores bizi naiz, ta il nai dut lenago ezi egin agrabio. Ez pensa zuk, eta berze niork ere, zaratela konparatzeko berareki, zeren ezi ditu sei kondizio niork ez bekala: da *noblea*; da *poderosoa*: da *aberats liberala*: da *eder galanta*: da *on ogeia*: eta da *ene*



*amazale* fiña. Beira den *noble*, duelarik Aita Jangoiko andia, eta Ama berriz Birjin gloriosa. *Poderoso* da ainberze, ezi nai duena in dezake Zeruan ta lurrean ta lur-pean; ta emengo errege ta enperadoreak kontu txinurriak beraren aldean: itz bateki, ta itzik gabe ere sendatzentu heriak, ta bizten ilak. Ain *aberats liberala* da, ezi eman dida tesoro bat balio duena iago ezi Erromako inperioak, ta ofrezitu dida betiroko erregina egitea, eta nornai den zerbitzatzen diona betetzen du ondasunes ezin pensa ala baño iago ta iago. Bada zein *eder galanta* den, ezta mirik explika dezakenik. Beraren edertasunas daude admiraturik iruzkia ta ilargia, eta Aingeruak kontino beira beira gozoro ezin aspertus; eta beraren aldean ezta ederrik: iago dena, berak edertzentu beiratzten dutenak. Bada beraren *on onegia* eztaike pondera; ain humila, gorena izanik! ain manso! ain sufritu! Ongi egin naia guziei, ta eztaiki, ta ez dezake gaizkirik egin; berzeren gaizkiak bai barkatu, ez bein solamente, bi, irur aldis, amar aldis, ogei aldis, baizik infini-zio bat aldis, beti ta noiz konfesa dezoten daudela urrikiturik. Guzien gañetik da ene *amazale bakarra*, maite nauena, niork ez bekala: ene amores apaldu da sobra: egintida milla fineza: pasatu du infini-zio bat nekepena: ta sellatu nau bere odol preziosoas: emantida gala, perla prezioso, ta diamante admiragarriak: paratuko da eskuan bere erastuna, ta aurpe-gian señalea, ez dezaten admiti berze amanterik nior ere, bera ezi: Artu nau bere esposatako paratzeko buruan korona; eta eman dida bere eskua, ta itz erreala, eznauela utziko sekulan. Orgatik ni berarena naiz guziau; maite dut nik bera iago ezi neure bizia, iago ezi neure arima, iago ezi den guzia Zeruan ta lurrean. Beira nere fortuna, izateas alako esposo bat bere parerik eztena. Beira nola utzi dezaketen, ez zure, ta ez mundu guziagatik ere. Lenago utziko naiz egitera milla zati, ta milla aldis iltzera... Erran ta joan ze Sanda bere bideas, tira utzirik.

3. Gelditu ze arriturik bekala Kaballeroa; etzue entendatu mintzo gisa gura: uste zue berze norbait mundukoaren amores bide zegola zoraturik: alketu ta koleratu ze alako maneran zelos, ezi erori ze goatzean heriturik. Aitak xakinik kausa, ta informaturik zela Ines persona ongi zego-kiotena beren etxeko, uste zue bai ganarazi berak: eta deiturik bere presenziara egin zue in ala promesas, loxentxus, meatxus, ones eta gaitzes, milla maneras; baño guzia alfer. Sanda beti firme, bazeukala arturik esposo dibinoa, ta etzuela utziko niorengatik. O fielak, zer den personen kalidada! Zenbatek naiko zute fortuna gura, izatea Romako Gobernadora? Zeikelaik logra bekaturik gabe matrimonios. Inesek etzue nai alaere. Zenbat errendituko zire gutiagogatik ere? (Eta lastima dena, zenbat engaña-turik aragisko amore falsuas iten dire pikaroendako aragi &.) Nai zue Pre-

fektoak edo Gobernariak xakin, nor zen esposo Inesek ziona. Etze falta-tu Deabruaren losentxari bat erran ziona, Jauna, donzella goi da Kristio, ta aurzututik arte gaixtotan azia. Emendik artu zue arrek eskalda, perse-gitzeko Sanda, ta ala mendekatzeko bere agrabio idurituas. Ala justizia-kolores bialirik bere Ministroak presentarazi zue bere tribunalean. Etzue utzi artifiziorik, ta mediorik usatu etzuenik, errendiarazteko matrimonio-ra. Baña Sandak biotza frinkaturik Jesus onaren amorean, etzue pellik errenditzeko. Bada nik, dio Juezak koleraturik, ermanaraziko zaitut emas-teki gaixtoen lekura, an deshonra zaizaten. Sandak serena, eztaie la kolera-tu, Jauna; eztagokio ongi berorri bialtzea ni bekalako konzella noble bat dion lekura: baño, iten badu alakorik, Kristiogendeari dion odioagatik, xakin bez dutela nik ene Esposo dibinoaren Aingeru bat guardatzen duena nere persona zelo andiareki.

4. Aditurik ori Juez infameak manatu zue eramateko Ines leku gar-tara. Tormentu gisa gau usatzen zute askotan Infielek, mostratus ala beren Jangoikoak zirela urdenaiak, ta berak urdeak, sentitzen zutena Kris-tioek iago ezi asko tormentu ta eriotze. Atra zute bada berdugoeke eramateko karrikas karrika birjina Sanda biluxirik: baño bereala milagrosoki Jaun dibinoak estali zue ikusi etzezaketan gisan. Ellegaturik etxe infame-ra ta utzirik kuarto batean, bereala agertu zekio bere Aingeru guardiakoa, ta bestimenta eder bat, zeñeki bestitu zen bera, ta argitasun zeruko bat admiragarria: eta Sanda paratu ze orazioan. Etze mantxatu S. Ines leku inmundiziaskoan, bai leku gura honratu Sandaren kases; eta zena len ladronen kubila, itzuli ze Jangoikoaren ta Aingiruen gela: non gero memoriatako fabrikatu ze tenplo bat zirauena egungo egunean. Ellegatus bekala gizonak, ikusteareki ango miragarriak, itzultzen zire konbertiturik, otsoak axuri, itsusiak eder garbi, Deabruarenak Jangoikoaren. Ellegatu ze Prefektoaren seme gura ere, ta itsuturik pasioneas nai zelaik jokatu, istan-tean utzi zue ilozturik an Aingeruak. Lagunek berantetsirik beiratu ta ikusi zutelarik ila, asi zire klamatzen, betoz, erromanoak, betoz, ezi Ines Kristioak ta sorginak bere arte gaixtos il du Prefektoaren semea. Roma guzian on aditurik, Aita zoraturik penas doa boladan: ikusten du ilik semea; erraten dio su bat eginik Sandari, o sorgin Deabrua, enbustera, ta infernuko furia, gaizki agertua ene penatako, nola il dun ene semea bizi bear zena beti, ta nere bizia zena? Sandak serena, ezta il orren semea nik, bai, bere itsutasuna zela kaso, ilarazi du ene guardiako Aingiruak. Libre atra dire berzeak izan baitute errespeto bear zena ez ukitzeko ni, beiraturik guardatzen nauela nere Jaun dibinoak, nori nik konsagratu nion aur-zututik ene birjinidadea. Orduan ia humil Prefektoak emeki erraten dio,





bada eskatzen dizut, otoi, bizitza itzuli dezozula, ezaun daien eztiozula kendu arte gaixtos. Sandak dio, etzue mereji mertxedegoi in dezon ene Jaun onak: baña eskatuko diot: atra beitez bitarteo. Atra zire, ta Sandak belauriko aurpegia lurrain kontra paraturik eskatu zio Jaun dibinoai, nai bazue egin grazia itzultzeas ilaren arima bere gorputzera. Egin zio, ta biztu ze ila, atra ze kanpora, ta asi ze oiuz erraten, eztela berze Jangoikorik Zeruan, lurrean, infernuetan, baizik Kristioek adorutzen dutena: oni sollik zor zaiola honra guzia: Jentilen Jangoikoak eztirela baizik Demonioak, engañatzen tutenak, eramateko beren infernura. O guruzifikatuaren ona ta poderosoa, ala konbertitzentuena otsoak axuri, arriak Abrahamen hume, ta beraren kontrarioak beraren Predikari! O zer indarra duen arima garbiaren orazio birjinalak!

5. Aditu zutelaiak ori Jangoiko falsuen sazerdote falsuek, gorarazi zute jendea oiuz iteko Inesen kontra, il ildaiela sorgina, enbustera, infamea, trasformatzen tuten biotzak ere. Prefektoak aiturik jendearen oiuz etzekie zer egin, ezi ikusteareki bere semea bizturik, inklinatzen ze uztera libre S. Ines; baña ez trebe: ta erretiratu ze, utzirik kausa bere teniente Astasio deituari. Onek inarazirik hogera andi bat, botarazi zue artan Sanda: baña errespeto izan ziote sugarrek idukis erdian mellarik in gabe; partitu zire, ta erretzen zuzte beira zeuden Jentilak, goratzen baizuzte ixkirituak Sandaren kontra maldizioka. Sandak goratus bere begiak Zerura zio, ene Jaun poderosoa, esker milla, ta milla laudario berorri, zeren bere Seme Jaun Jesu Kristoren birtutez garaitu baitut Tiranoen furia, ta sua bera, ta Deabruaren inmundiziak mantxatu gabe ni: Biz bedekatua Jauna: ta ia ordu da erman nazan bere gana. Orazio goneki itzali ze sua; ta Juezak manatu zue, pasatzeko Sandari lepotik ezpata. Ontan ere agertu ze Jaunaren amore Sandagana. Berkugoa, atra ta goratzerakoan ezpata, asi ze ikarutzen beldurrak kolore gaizturik; ta Sanda serena esperatzen golpea berantetsirik, erraten bek ala, zer ai zara? zertan zaude deteniturik? Il bedi gorputza dezaketena maita gizonen begiek, nik nai eztutenek; ta bizi bedi arima Jangoikoak duena maite. Ninduenak eskojitu bere esposatako errezihi nazala bere besotan. Errezibitu zue golpea, ta martirioaren korona.

6. Bere buratsoek, maite zutenak begien ninia bekala, ta arrazioreki, ortzi zute gorputz sandua beren heredaje batean, ez tristura ta lamentueki, bai alegre festa andiareki asistitus deboto Kristio guziek; inbidia ta errabia zutela Jentilek, zeñek tropadan joanik golpatu ta heritu zuzte asko Kristio zeudenak orazio egiten S. Inesen obian. Aien ermean bat agitz sanda deitzen zena Emerenziana, S. Inesen lagun ta esneko aizpa, etzue-na nai apartatu andik, ta erreprehenditzen zituena beren inpiedadeas,

oraño bataiatu ez, baña bataiatu naiak zegona il zute an arrika, ta ala bataiatu odolesko bataioas igan ze Zerura: ta gorputza an aldakan orzi zute, ta zelebratzen da Izotzillaren 23. Eta etzezetan Jentilek estorbatu Kristioen debozio gura, biali zue Jangoikoak lur-ikaradura bat, anitz ortots, oñastur, zentella; ta il zire aietaik anitz, ta gañarakoak iges joan zire utzis kanpoa libre Kristioei. S. Inesen Aita ta Ama beren alaba preziosa garren amore ta memoria gozoaren utses egoten zire orazioan gau eta egun aren obian: gau bates ikusi zute etorzen Birjin ederren prozesio luzitu bat, uziak galas, urres, perla preziosos adornaturik: erdian eldu ze S. Ines triunfante gloriosa, zekarrala aldakan axuritto bat elurra baño txuriago. Baratu ze bere laguneki, ta mintzatu ze, ene buratsoak, ez nigar egin nitas, ilas bekala, zeren ebeki bateo bizi naiz ene Jaunaren glorian, zein izan nuen maite sines lurrean. Au agitu ze il ta zorzigarren egunean, ta memoriatan zelebratzen du Elizak S. Inesen festa bigarren Izotz-illaren ogei ta zorzigarrenean.

Andik zenbait urte pasaturik, Konstantino Enperadorearen alaba Konstanzia donzella zegona agitz heri lllagas beterik, emengo erremedioen esperanzarik gabe, joan ze bellas S. Inesen obiara, kristiatu baño len, osanaren billa; an lokumaturik lo sobrenaturalas aditu zue Sanda erraten ziola, Konstanzia, porta zaitte konstante: iduki firme Kristoren fedea: orreki sendatuko zara osoki. Ala izan ze: egin zue arrek ere manatu bekala: gero fabrikatu zio tenplo bat galanta, depositatzeko artan S. Inesen gorputz sandua, zeñen medios askok logratzen zuten len, ta logratzen duten beti asko fabore Jangoikoganik &.





## Izotz-illaren ogei ta laugarrenean Ama Birjinaren jautsitzea erregalatzera S. Ildefonso

1. S. Ildefonso Toledoko Arzobispoaren, ta Ama Birjinaren kapellan honratuaren festa zelebratzen da Izotz-illaren ogei ta irugarrenean, ta Ama Birjinaren jautsia arren faboratzera ogei ta laugarrenean Toledon. Da on kontatzea animatzeko guziok izatera debozio Ama dibinari. Agitz deboto ze S. Ildefonso, (ta zein da eztenik) ta deboto biotzes, ta birtutes, ta obra ones. Ama zue debota Ama Birjinaren: eta zein Ama ezta izan bear? Ama Birjinaren medios lograturik seme gau berari ofratu zio, beraren debozioaren esneas azi zue; eta seme ona ongi azirik bear diren letra ta birtuteetan, beti distingitzen ze Ama Birjinaren debozioan. Etzego kontent munduko elze ta farraskaen ertean; eta ala erretiratu ze erreljionera garai onean, zikindu abe anima. Altxatu ze Aitagani ortako, beldurrak estorba zezon: baña Ama oroiturik ofrezitu zuela Ama Birjinal, alegratu ze ortas: joan zekio ematera zori ona: exortatu zue irautera, segitzera, ta bukatzera estado gartan. Itzulirik etxera Ama onak palakatu zue Aita, erranes matrimonioaren fin prinzipala dela azitzeko humeak ez mundurako, bai zerurako; ura Jangoikoak emana zutela, ta etziotela berek Jangoikoai ematen doaiik, baizik itzultzen ta pagatzen zor ziotena: eta Aita konformatu ze gogotik ofratzean sakrifizio gura, naiz bera gabe gelditu. Oh! zenbat balio duen Ama on batek! Baña geienek eztute begirik ikusteko, baizik emengoa: beti lurrera beira.

2. Sandua ze Ildefonso bere naturaleas ere, baña erreljionean sandutu ze iago: ala nola lur onak ongi landus ta abonatus baitakar fruitu iago ta onago. Goizik in zute Superiore; ta kontu ona emanik karguas, faltaturik Toledoko Arzobis oa, bereala guziek nai zute Ildefonso dignidade gartako propia zela: berak sollik etzuenai: baña errege, eliza-gizonak, ta guziak porfiaz enpeñaturik, bear izan zue kurtu burua. Ia gerostik izan ze diona Jesu Kristok munduaren gatza, ta argia paratua kandeleroan gora, gaixtoen ontzeko, onen obetzeko, ta guzien kidatzeko zuzen-bideas Zerura. Baña zertan geienik alegin duzen, izan ze Ama Birjinaren debozioan, pregonatzean, ta defendatzean beraren Birjinidade garbi betirokoa. Beraren denboran etorri zire Españara hereje urde batzuk blasfematus etzela Maria Santisima izan beti birjin erdi baño len, erditzean, ta erdias geros. Goratu ze aien kontra S. Ildefonso koraje andiareki: garaitu ta konfunditu zitue

disputatus publikoki, eskribitus libru miragarri dibino bat kontra: ta desterrarazis Españatik indigno gaiak, eta ala aumentatus Ama Santisimaren debozioa, ta bere gloria. Ainberze kuadratu zekio bere Kapellan amantearen zerbitzu gau Ama Birjinari, ezi guzien alzinean egin zio estimazio andia Señora soberanak bere Zeruko donzella baten medios: zeren ezi S. Leokadia Toledoko Patrona zelebratzen zen egunean, presente Errege Rezesbinto bere Kortearreki, Arzobispa Kalonje ta Eliza-gizoneki, ta infinizio bat jende, orazio egiterakoan Sanduak humil humila Sanda garren obialzinean, zuelarik irur eun ta iago urte ortzirik an, derepente bat batean goratu ze ganeko ar-lauza pizu arrigarri zena; bereala atra ze Sanda gloriosa, ta edatus eskua Sanduagana erran zio guzien alzinean, O Ildefonso, zuregatik bizi da ene Señora Erreginaren gloria. Guziak arriturik, Sanduak laudatu zue Sanda, ta eskatu zio faborea guziendako. Itzultzerakoan bere obiara, Sanduak Erregeren puñale bateki ebaki zio bere beloaren zatitto bat memoriatako, ta emen dago guardaturik ango sagrarioan.

3. Glorioso eder honraturik gelditu ze oneki Sandua; baña oneki sollik ez kontent Ama Santisima, berze egun bates Abenduaren emezozigarrenean bere Anunziazioa edo Expektazioa zelebratzen zenean, zoeielaik maitinetara Sandua bere laguneki aurkitu zute katedrale guzia Zeruko argis beterik, de manera ezi begiek ezin beiratus ainberze errespandore, itzuli zire lagunak guziak atzerat, ta utzi zute bakarrik Sandua, zein sarturik barna ellegatu ze aldare nausi alzina, orazio iten zuen lekura, ta an goraturik begiak ikusi zue gloriako Erregina amorosa jarririk bere katedran beiratzen ziola, ta erraten amoltsu, o Ildefonso, zeren guardatu duzun zeure birjinidadea, ta defendatu duzun nerea firmeki ta finki, nik ere nai zaitut honratu zu, ta neure eskus erregalatu ornamenta goneki, para zazun nere jaietan. Erran ta utzi zio kasulla bat eder prezioso admiragarria alako eskuetaik bekalakoa: ta joan ze iganes Zeruko bisita ikusgarri gura; ta gelditu ze tenploan fragranzia bat ezin daikena pondera, eta Sandua elebaturik, ta beterik konsolazios, admirazios, ta debozios. Gero sartu zirenek aurkitu zute errebestiturik ornamenta garreki; baña nola bera? Ezaundurik izan zela Zerutik erregalatu, naiz len respetatzen zuten Sandua bekala, baña andik alzina beiratzen zute nola Zeruko gizona, ango Erregeren ta Erreginaren maite estimatua, beneratus beraren doktrina, obeditus beraren manamendu ta konsejuak gustoreki. Eta ala gobernaturik Eliza gura bedratzi urtes ta bi ilabetes, iltze gozoso, jaiotzeko bizitza eternora Zeruan, ellegatu gabe ikustera Españako galmendea bizio ta bekatuengatik agitu zena Moroan eskupean andik berrogei ta zenbait urte & anno 714.



## Izotz-illaren 26.an

### S. Polikarpo Esmirnako Obispoa

1. Kristio-gendearen lenbiziko sanduetaik bat izan ze S. Polikarpo, Jesu Kristoren asko Diszipuloen ezauna ta adiskidea, S. Juan Ebanjelariaren Diszipulo onetsi estimatua, berak eskojitua Esmirnako Obispo Asian. Onen denboran izan ze asko duda ta disputa, noiz bear zuten zelebratu Kristioek bazkoa: Orgatik joan ze Romara, non zen Aita Sandu S. Anizeto, komunikatzeko S. Juanenganik ikasi zuena. Eta jakin zuelaik, eraikitzen zutela doktrina falsua Balentino ta Marzion herejeek, goratu ze aien kontra suturik, desengañatus egietafedearen argiareki Kristioak. Marzion gura aurkiturik bein karrikan, saiestu ze Sandua, etziola nai beiratu ere. Goaturik hereje alkegabeak galdegin zio, ezauntzen nauzu? Errespondatu zio, bai ezauntzen dut Deabruaren hume lenijaioa. Oneki adiarzais nola bear diren aborrezitu erregeak, ezi naiz edozein bekatari den Satanasen hume, baiña gaixtakeriak ta falsedadeak erakustentuen delar arren Maiorazgo bekalatzen, infernukoa infernu-urrin duena. Konbertitu zitue aietatik ere anitz zuzen bidera, ta itzuli ze bere ardiataratzen.

2. Esmirnan zegolarik ia, pasatu ze andik S. Ignazio Obispo ta Martir animoso, Jesu Kristoren amante gura, zeramatena Romara, leonen ortzes zatikatzen. S. Polikarpok errezebitu, besarkatu, ta maneatu zue S. Ignazio agitz ongi bidanabar, inbidia sandu bateki ez akonpañatzeas martirioan: eta aren exenpluareki animatzen zitue fiellak padezitzen animosoki fedeagatik: eta gero arrek eskribitu zio karta admirable bat bidetik.

Denbora gartan goratu ze laurgarren persekuzioa Kristioen kontra; etze berze famarik, baizik pena, tormentu, ta eriotze-mota usatzen zirenes aieki, eta iago tormentatzen zekiena zeukate Juez obeagoko. Ellegatu ze Deabruaren ministro bat bere laguneki; Sandua zebila dilijent kuitatzen bere saldoa, konsolatzen aflijituak, animatzen beldurtiak, ematen probidenzia bear zirenak. Entendatu zute ori Deabruaren Ministroek, eta zebiltza nondik arrapatu Sandua, orreki aisago galduko zutela saldoa. Ori xakinik, Kristioek altxarazi zute kanpoko etxe batean. Zenbait egunes egon ze an orazio egiten kontino Elizagatik. Izan zue bisione gisa bat, zeintan entendatu zuen martirio eman nai ziotena. Erran zioten alegre bere adiskideei, zauzte seguro ezi bear nautela ni erre bizirik. Biz bedeikatua Jesus, nai didana eman martirioaren korona. Alaere pasarazi zute berze etxe batera seguroagos, baiña kontra izan ze: billatu zute an: bazeike eska-

pa ta altxa, baiña etzue nai, baizik erran, Jauna, kunpli bedi orren borondatea guzietan, ta jautsi ze errezebitzena bere etsaiak: eman zioten ongi etorria: prebeniarazi zue al zuken otrontzerik obena: ta agasajo andiareki erraten zioten, jan zezatela zena alegreki, ta berai bitarteko utzi nai bazioten ordutto bat, enkomendatzeko Jangoikoai. Aiek jan ta edan zute guapoki gorputzen, Sanduak arimaren. Ainberze kuadratu zekiote onen begitarte afableas, kortesias, mintzaera, eta modu onas, ezi elkarri zioten, da posible erman dezagun preso alako gizona? Ia zeude utzi naiak: baiña berak nai joan aieki, azkeneko paraturik asto batean erman zute. Bidean opaturik Prefektoa bere Aitareki, biek sarrarazi zute beren kotxean: biek an amoltsu erraten zioten obedi zezala enperadoreai, pasatzeko bere azken egunak errepausa onean. Sandua ixil: aiek segi teman: ikusirik ori, erran zue, Jaunak, eztaitzela neka banoan, ezi nik sekulan ez tuten adoratuko Jangoiko ez tirenak. Orduan asarraturik aiek bota zute kotxetik, golpatu ta heritu ere zute zango batean; baiña kasorik in gabe oñazeas, segitu zue animoso bidea.

Ellegatzen ia tribunalera, aditu zue boza bat Zerutik erraten ziola, Polikarpo, ea, arimo ona; defenda animoso Jangoikoaren kausa. Galdegin zio Presidenteak, ia bera zen Polikarpo Obispoa. Baietz erranik sereno; arrek zio, bada in bez juramentu enperadoreen honratan, eta blasfema Jesu Kristos. Orduan Sanduak manso grabeki erran zue: lauretan ogei ta sei urte du nagola ni Jesu Kristoren zerbitzuan: beñere ez tida gaizkirik egin, bai beti faboreak abasto: bada nola nai du orrek, ofendi dezaten nik orai, ta izan nadien eskergaitz txarra ene Jaun ain onari? Porfiatzen ziolaik Juezak, errespondatu zio Sanduak, Agian nai du progatu nai zen Kristio ni? Erraten diot nai zela, ta nautela izan ilartaño ta aratago. Beira, dio Juezak, manatuko dutela erretzeko bizirik, edo zatikatzen baseizien ortz eta atzaparres. Alegre animoso zar Benerableak dio, nik ez tuten beldurrik emengo suas, iltzen baitu gorputza, ta itzaltzen baita: Betiroko sugarri diot beldur, zebaten baita kondenatuetan, ta ez itzaltzen sekulan. Ez pensa lotsatuko nauela bere meatxueki; ekarri bezki baseiziak, itxeki sua, emen nago. Au zio ain sereno alegre sosegu andian, ezi arriturik zego jueza: baiña pregonaturik nola zion Kristio zela, jendea goratu ze oiuz, au da gure Jangoikoen kontrario, ta Kristioen alzindari; erre zagun bizirik. Bereala in zute hogera andi bat; eta Sanduak kendu zitue bere gañeko tresenak laster. Nai zute josi zur bateki, etzeien mogi suaren oñazeareki; baiña Sanduak dio, ezta josi bearrik, ez naiz mogituko, uste dut, Jangoikoen graziareki. Ala utzi zute loturik eskuak sollik atzerat, ta sartu zute suan: eta Sandua ofratu ze Jangoikoai sakrifiziotan Jesu Kristoren gisara.



Suak artu zue erdian, ala nola egines arko bat inguruan: barnean ageri ze beraren gorputza ez erre pispildurik, bai urrea bekala istargitzen, eta fraganzia gozoa barratzen zuela. Eta ikusirik etzela akabatzen suas, akabatu zute ezpatas: eta ainberze odol atra ze itzali baizue sua, eta egatu ze arima Zerura goatzera Jangoikoas eternidadean. Nai zute Kristioek honratu gorputz sandua, baña Judioak alborotaturik orgatik, Presidenteak manatu zue erretzeko suan: ala egin ze: gero Kristioek bildus errauts prezioso gaiek paratu zuzte urna, ta leku dezentean, nola Sandu, ta Pontifize, ta Martir admirablearen; zebratu urteoro bere martirioaren eguna jai, ta leitus publikoki karta bat miragarria, eskribitu zuena Sanduak bizian &.

## Izotz-illaren 30.an Santa Martina Birjina ta Martira

S. Martina Roman jaioa ta martirizatu, izan ze donzella bat noblea, aberatsa, galanta, juizios betea, ta sanda guziz miragarriro. Azirik ederki, ta ikasirik eskritura sagratuaren egietafedeak, errepartitu zitue pobreei bere ondasunak liberalkiro, egoteko desenbarazaturik iltzeko, ta igateko Zerura: enperadore Alexandroren denboran. Onek manatu zue billatzeko Kristio zirenak, ta ermanarazteko ofratzera sakrifizio beren Jangoiko falsuei: Aurkitu zute donzella sanda gau zegola negarres: eraman zute enperadorearen presenziara: Ikusi zueneko, admiraturik edertasunas ta grazias erran zio amoltsu, o donzella, noblea, nere intenzioa ezta gaizki tratatzea, bai artzea zu neure esposa; ta egitea erregina ta señora nere palazioan; baña lenik ofra zozu sakrifizio Apolori. Errespondatu zio serena, ni ofratu nitza sakrifiziotan Jangoiko bakar bizi egiaskoari, zeñek baitu plazer kastidadearen garbian, ta egunoro berari ofratzen diot neure debozioaren sakrifizioa. Enperadoreak mana zitue Apoloren sazerdoteak, prestatzeko tenploa; ta ermanarazi zue arara S. Martina adora zezan: Sandak gurutzearen señalear formaturik, ta Zerura barraturik eskatu zue Jesu Kristori, urra zezan idolo gura. Instante lurra ikaratu ze, ta ziudade guzia; erori ze Apolo, autxi ze, txitxikatu ze, baitare erori tenplo garren zati andi bat, ta il zire anitz sazerdote ta jende zeudenak sakrifikatzen. Sandak erraten dio enperadoreai, bidoeie, lagun bezo bere Jangoiko Apolori, eroria baita, ta auts biurtua. Jangoiko barin bada, nola ezta jaikitzen faboratzera bere sazerdoteei daudenei ortzirik zur ta arrien pean? Bereala atra ze Demonioa, ta asi ze autsean inguratzen inbuluzka, oius ziola, o Martina birjina, Jangoiko andiaren zerbitzaria, zergatik botatzen nau neure etxetik, non egon nai zen ogei ta zorzi urtes? ta berze itz batzuk erran ta joan ze airea barna iskirritus, ta ilundura barratus pasatzen zen lekuetan.

Enperadoreak suturik ustes lan goi zen arte gaixtos, manatu zue maltratatzeko Sanda golpeka, ta txarrantxatzeko begiak burriñasko gantxo batzueki. Lan gau iterakoan, berdugo kruelak asi zire klamatzen, ai gutas! ezi au baño iago atormentatuak gara gu: laur persona argis beteak daude onen alzinean guri ematen penak oni eman naitiogunak. Sandak goratus begiak Zerura eskatus konberti zezkien fede kristiora zorzi berdugo gaiek. Bereala argi andi bat jautsirik, aditu ze, nik barkatzen diotet ene sierba Martinaren atenzios: eta zu, Martina, zaude animo onareki;



etzaitut utziko garaitzera niorenganik. Zorzi gaiek ia konbertiturik erran ziozte enperadoreai, Jauna, eztugu ia guk adoratuko orren Jangoikorik, ezi Sanda garren kasos ezaundu dugu Jesu Kristoren podorea. Zorziek orgatik pasatu zute martirio glorioso. Berze egun batez ekarrarazi zue Sanda, ikusagun, ziola, sorgin gura, ta arren sorgindierak berriz ere. Presentaturik nai zio adorarazi bere Jangoikotako zeukana, baña desobediturik biluxiarazi zue, azotatu kruelki, ta arramaskatu gorputz guzia kanibeta tzorrotzes. Argitu zekio aurpegia, ta estali gorputz birjinala erresplandores, ezpaizezakete beiratu: llağaetaik esnea zerio odolaren lekuan, eta atxon bat admiragarria. Berze asko tormentu generos progatu zue penaraztea; baña tormentazaleak nekatzen, Tiranoa konfuso, ta Sanda biktoriosa beti. Karzela itzularazirik, karzela itzuli ze gloria gisa bat, kantatus an Sandareki Aingeruek Jangoikoaren laudarioak. Andik ermanarazi zue sakrifikatzaera kanpoan zuten Jangoiko Deabru bati; ura asi ze lamentatzen sartu zeneko Sanda erretzen zuela; ta Sandak manatzeareki atra zeuela andik, asi ze ortots oñasturketan: jautsi ze Zerutik su erre zituena sazerdoteak, ta errautstu idolo gura. Ondorean rabioso enperadoreak edarazi zue lurreean, heritu ezpataeki alde guzietatik, ta bularrak txarrantxatu burrinasko aztaparres. Guzia sufritu zue koraje andiareki. Gero manatu zue botatzeko baseiziei plazan: Atra zute leon bat lotsagarria, iduki zutena jan gabe irur egunes berarias; jan zezan Sanda istantean. Leona marroas lastimaturik bekala joan zekio manso, ta asi zekio festa egiten, ta lamikatzen oñak. Sanda laudatzen Jangoikoaren amoreta ta podorea. Tiranoak manatu zue itzultzeko Leona bere kaiolara. Leonak zatikatu zue bidanabar arren adiskide andi bat arrapatu zuena.

Suturik enperadoreak manatu zue erre zezatela bizirik Sanda. Su andi asko in zute, ta sartu zute artan Sanda; baña momentuan al ze erru bateki barraturik suak erre zitue inguruan zeudenak, utzirik bera mellarik gabe. Guzia uste zue enperadoreak agitzen zela sorgindieras, eta ustes biloan ote zuken izan maldadea, motxarazi zio buru guzia arras. Sandak erran zio ausart, orrek kentzen dida gala Jangoikoak emastekiari eman diona: bada nik erraten diot orri, Jangoikoak kenduko diola bere inperioa, ta ilen dela miserableki penas eta dolores. Arrek ertxiarazi zue tenplo batean, non beneratzen zuten Jangoiko bekala Deabru bat deitzen zutena Zeo. Giltzaturik kanpotik utzi zute an. Egunoro eldu zire enperadorea ta sazerdoteak atarira: andik aditzen zuzte barnean musika ta kanta admiragarriak: uste zute Jangoiko gura bere laguneki zegola erakusten Sandari beren doktrina. Orgatik alegre prestarazi zue sakrifizio andi bat ofratzeko Jangoikogarri. Ortako atariak idikirik, ikusi zute Sanda inguratuturik

erresplandores, ta akonpañaturik Zeruko persona eder miragarries; eta Zeo gura botarik lurreean ta zatikaturik. Non da ene Jangoikoa Zeo? dio enperadoreak. Sandak dio, ene Jaun Jesu Kristok urratu du, nola berze gaiek, guziok baitire falsuak dauzkitenak engañaturik. Ia enperadoreak etxakin zer egin, manatu zue ebaki zezotela burua. Kanpora atrarik ortako, aditu ze boza bat Zerutik ziola, Martina Birjina, zeren peleatu duzun guapoki, atoz ene erreinura gozatzera eskojitueki. Lotsarriturik berdugok erori zire ilak bekala: ta Aita Sanduak akonpañamentu andiareki ortzi zue gorputz sandua. Enperadorea bereala biotzeko miñes asi ze zatikatzeten bere aragiak, eta klamatzen Kristioen Jangoikoai, miserikordia &.



## Otxallaren 1.an

### S. Brijida Birjina Eskoziakoa

Ikusteko, eztuela Jangoikoak beirutzen, baizik bakotxaren arimaren ona, ta eztiola niori gaizki nai bere buratsoen, edo aideen, edo berze nioen bekatuengatik, ikusgarri da Sta. Brijida Eskoziako Birjinaren bizitza. Onen Aita izan ze Jaun bat deitua Duptako, zeñek bere esklaba batenganik izan zue alaba gau. Beraren bizikideak sentiturik lan gaixtoa ta asarraturik senarraren kontra botarazi zue etxetik esklaba gura. Bere denboran jaio ze aurra deitu zutena Brijida, eta andixkoa egin zelaik, artu zue Aitak etxera: eta azi ze agitz honesta, humila, obediencia, ixila, langina, erretiratu, ta beartsuen kuidazale ongi egin naia. Arimaren ederra adornatzen zue doble gorputzaren edertasun admirableak, de manera ezi askok orgatik nai zute bizikide. Aitak ezin errekabatus ainberze eskatzen zuteneki, proponitu zio berari, eskoji zezala zein nai zuen. Baña Sandattoak eskojiturik zeuka ia betekos Jesus ona, ta nai zio konsagratu birjinidadea: eta xakinik edertasuna zela okasio, deseatzeko mundukoek, utzi zezatengatik, egin zue gauza bat gutik imitatuko dutena, baize afekto, ansia, ta asko negarrek eskatzea Jaunari itsustu zezon aurpegia de manera, ezi niork etzezan nai. Eta logratu zue; begi bata lerturik galdu zekio, ta gelditu ze ain itsusi, ezi ia niork etzue ikusi nai, ta bera kontent Aitaren lizenziareki sartu ze Monja. Errezibitzerakoan beloa, ikusi zue Obispoak susko pilare bat bekala gañeko aldetik, eta burua inklinatzean Sandak ukitu zue oñas aldareko frontalearen markoa, baize zur earreskoa, eta berdatu ze istantean, eta berai begia itzuli zekio ta aurpegia, ain eder nola len. Luze litza ke erabakitzea, nola azi zen Jaunaren amorean, ta ganarako birtuteetan, ta Jangoiko onak in zituen miragarriak beraren amores, ezi bere amazeen amazale da Jaun dibinoa. Zenbait bakotx erraintugu.

Konbidatu zue bein donzella batek, ta maiean zeudelaik, ikusi zue Sandak Jangoikoaren argis arren aldakan Demonio bat. Galdegin zio Sandak oni, zer aizen an. Errespondatu zio arren lazotasunak ekarrarazi zuela, ta zegola ongi aurkiturik arreki. Au klaro erranik aditu zue donzellak, ta lotsarriturik zeñatu ze, ta ezaundurik bere falta emendatu ze, ta gelditu ze libre. Berze emasteki txar bana batek izan zue seme bat, ta doratzeagatik bere kulpa, zio zela Obispoaganik. Deitu zue S. Brijidak, erran zezala egia, ez goratus testimonio falsurik. Urdeak ausarki berriz errana erran. Orduan Sandak señalatu zue guruzearen señalea arren

agoan, eta istante berean aunditu zekio mia, ta burua itsuskiro. Zeñatu zue aurra ere mian, ta galdegin zio nor zuen Aita: errespondatu zue aurtoak klaro, ezta ene Aita Obispoa, baizik urlia, zein baize gizatxar desdixatu bat. Ala jakin ze egia; gelditu ze bere honrareki Obispo sandua: emasteki pobreak in zue penitencia, ta guziek laudatu zute Jangoikoa ta Sanda. Berze Jaun andi baten alabak egin zue boto birjinidadearen, baña Aitak nai zue arrarazi matrimonioaren estadoa. Konzertaturik boda, konbita disponiturik zegon egun berean, donzella gura eskapatu ze S. Brijidaren konpañiara. Segitu zue Aitak asarre anitz lagunek beren zaldietan karreraka. Sandak goart emanik formatu zue guruzearen señalea lurrean: eta bereala baratu zire zaldiak ta zaldunak geldi ezin mogi. Ezaundu zue Aitak Jangoikoaren eskua; in zue penitencia, orreki joan zire libre, ta alabak segitu zue bere propositoa.

Dirudi eskojitu zuela Jangoikoak birjina gau faboratzeko kastidadean. Bere lagun bat ze iduri onekoa, ta adin gutitakoa; deskuidatu ze beiratzean; ordik segitu ze gogoratzea, afizionatzea, tentaturik bizitzea, ta Deabruaren inspirazio ezin kasi errepausatzea. Sandak Jangoikoaren argis ikusi zue urrundarik pasatzen zena arreki, ta nola zegon konsentitzeko peligroan: Eskatu zio Janpikoai bere orazioan, etzezala utzi bere eskutik erortzera. Berzeak bitarteo inspiraturik Jangoikoas barratu zitue brasa batzuk lurrean, ta oin urtuxian asi ze frinkatzen aien gañean: ala su bateki garaitu zue berze bat. Biramonean Sandak erran zio, zerengatik joan den gauean peleatu zaren balerosoki, emendik alzina etzara erreko su deshonestoan, eztare eroriko infernuko suan. Bereala bere orazioareki utzi zue sendaturik oñetan suak in zizkion llagetaik, ta libratutrik tentazioetaik. Berze donzella bat itsua bi begietaik ekarri ziote, nai bazio eman bedeizioa begien gañean. Eman zio, ta bereala gelditu ze argiturik bista onareki. Baña nola baize ona, asi ze pensatzen, agian obe zela ez ikustea asko gauza mundu gaixto gontan. Eskatu zio in zezan Jangoikoai orazio, eman zezon iago konberti zekiona. Bereala gelditu ze itsu, len bekala, ta kontent. Matrona noble batek zue alaba bat mutu jaiotzes; amabi urtetan zelarik, ekarri zio S. Brijidari: onek arturik eskutik neskattoa, galdegiten zio, nai duzu Jesus onaren amores guardatu gorputza kasto, ta birjin betiro? Mutua ixil: Amak zio, mutua da, ta eztaike mintza. Sandak ontara, bada ez tut utziko, errespondatu arteo. Ea, nauzu mantenitu birjin Jesusen amores? Errespondatu zio klaro, inen dut manatzen didana: ta mantenitu ze birjin betiro, ta mintzatzen ze perfektoki.

Berze asko milagro egin zue genero guzietan, prinzipalkiro konbertitus anitz bekatari galduak, ta sartus erreljionean, non bukatu ziren san-





duki. Azkenean jakinik errebelazio bere iltzeko eguna lendanik, erran zio berak azi zuen donzella bati noiz ta nola: eta ala iltze Sanda sanduki Otxallaren lenbiziko egunean, borts eun ta emezorzarren urtean, edo 521.an. Anitz gauza da notatzeko Sanda gonon bizian; prinzipalki jaioa izanik bekatutik, bere amore an de gura birtutera; ta kastidade birjinalaren estimazioa ezin iagokoa, guardatzeagatik eskatu ta logratu baezue galtzea gañeko edertasuna, ainberze estimatzen dutena mundukoek: baitare Jau-naren ona, kentzean ori, ala nai zuelaik, ta gero itzultzean on beroi, naiz ez ukaturik &.

## Otxallaren 3.an S. Blas Obispo ta Martir

S. Blas aurra zelarik ere, ze sandu: ta bere denboran guziek nai, ta in zute Obispo Sebasten, baita urrun emendik, Armenian. Gero Jangoikoaren inspirazio erretiratu ze desertura, non bizitu baize denbora zati bates sollik Jangoikoareki, ain Jangoikostaturik, ezi egunoro beraren kubilara etorris baseziak egoten zire an pokalean geldu, bukatu arteo Sanduak bere orazioa, kura zezkien beren gaitzetaik; ta kuratzen zitue milagrosoki; ta etzire apartatzen, errezibitu arteo beraren bedeizioa. Baña animaleek ongi tratatu zutena, jendeek tratatu zute gaizki. Diokleziano ta Maximiano enperadoreen ordes joan ze Sebastera Presidente bat deitua Agrikolao, persegitzera Kristio zirenak. Asko ta asko egin zitue preso, ta ilarazteko krueki bialu zue anitz eixtari arrapatzera baseziak, otsoak, artzak, tigreak, leonak, ta alakoak, ebei botatzeko Kristioak janari. Joanik oianes oian aurkitu zute S. Blasen kubila-alzinean ainberzeko saldoa aietaik, ta Sandua elebaturik kubilan. Kontu emanik, bereala Presidenteak bialu zitue soldadoak, ekart zera Sandua, ta aurkitzen zutzen Kristio guziak. Aurkitu zute sollik Sandua; erran ziote, betor gureki; deitzen du Presidenteak. Sanduak agitz alegre arresti erran zue, nere humeak, ongi etorriak direla: badu asko egun, nindegola etxideten. Emen egon naiz Jangoikoaren borondatez: orai beraren amores joanen naiz oieki gogotik ere. Joan den gauan agertu zaida irur aldis, ta manatu dida ofra dezotela sakrifizioa. Goazen ortako, ene anaiak, goazen Jangoikoaren izenean. Zoeie soldado-eki, ta badean bere itz sandu amoltsueki, ta obratu zituen milagroeki anitz konbertitu zitue Kristoren federa.

Ellegaturik ziudadera sarrarazi zue Presidenteak karzelean. Biramonean presentaturik alzinean tentatu naies loxentxus erran zio, ongi etorria dela, Blas ene adiskide onetsia, ta Jangoikoena. Sanduak errespondatu zio sereno, Jangoiko egiaskoak guarda dezala, Presidente Jauna; eta guardatzekos, ez dezkiela deitu Jangoiko Demonioak, zeñen eskuetan erortzen dire galduak sekulakos dauzkitenak Jangoikotako. Arritu ze Presidenteak errespuesta ain ausart pronto goneki: ta egonik guti bat suspenso, koleras suturik manatu zue golpa zezatela makilukaldika. Ala egin zute denbora luzean bortizkiro, eta Sandua nola balitz bronzeskoa tieso, firme animoso alegre erraten ziola, o engañazalea, uste zue engañatu ni itz gaieki? edo uste du lotsatuko nauela tormentueki, ta apartarazi ene Jangoikoaganik?





Ez eztu logratuko: eneki dago ta egonen da: egin bez nai duen guzia. Ermanarazi zue berriz karzela: an zegolarik, ekarri zio andre pobretto batek alimentu pixka bat, eskatus humilki ar zezala pobreza gura. Sanduak artu, ta estimatu zio, konselatus in zezala al guzia ongi bearrean zeudenei; nik ere, zio, sokorrituko diotet nere debotoei beren bearretan bizi nai zen bitartean, ta ilondorean.

Ekartzen zizkiote ziren heri guziak leku gaietan, ta guziak sendatu zitue orazioas. Guzietatik bat izan ze mutiko bat zeukana trabeska frinkaturik txintxurrian arrai-egur bat ezin atra ez gora ta ez bera, baizego itozteko ia. Sanduak eskatu zio Jangoikoai senda zezan ura, ta gaitz berareki berai enkomendatzen zirenak. Orduan egin zue milagro gura, ta gerositik ainberze alako, ezi Aezio mediku antiguaskoak txintxurriko minaren erremedioetaik bat emendio dela inbokatzea S. Blas: modua paratzen omen du, artus txintxurritik, erratea, S. Blas Martirak ta Kristoren sierboak manatzen du, ea, gora, edo bera. Señale da, usatzen zela denbora gartan erre zeta goi. Zenbait egunen buruan presentarazirik berriro, ta aurkiturik ain firme konstante Presidenteak manatu zue paratzeko dilindan zur batetik, ta an urratzeko azotees. Sanduak nola ezpalitz berea gorputza, edo ez aragiskoa etzue ajolarik azotees, baizik beti lauda bere Jangoikoa. Itzularazirik karzela, segitzen zute zazpi Andre debotek bildus odol zeriona: Orgatik in baizuzte presa aiek ere, ta martirizatu: baña bi exenplu balore Kristioaren dire notagarri: lenbizikoa, proponiturik tormentuak, ezpazuzte adoratzen idoloak, errespondatu baizute fineziareki, erman zezkitela an kanpoan zen ur balsa andi batera, an garbiturik ofratzeko sakrifizio garbia. Presidenteak kontent ermanarazi zitue; baña Sanda gaiek arrapatu ta bota zuzte butzu gartan Jangoiko gaiek. Berzea da, aietatik batak baizitue bi hume txipitto, ta utzirik aiek, zoeielaik Ama martiriora, klamatzen baiziotte aurttoek, erman zezkiela bereki, izateko lagun martirioan: Arriturik Presidenteak baizio suspiratus, emastekiek ta aurrek burla iten digutela. En fin guziak iltzire martir glorioso.

Gero nai izan zue berriz ere progatu S. Blas, baña guzia ze alfer, zeren baize Sandua fuerteago ezi diamantea. Manatu zue botatzeko uresko balsa edo butzu andi gartan: baña Sandua zeñaturik zebila oñes uren gañean ondatu gabe ta busti gabe: ta jarririk gero uren erdian grazioso konbidatzen zitue infielak ta justiziako ministroak, zatozte zuek ere, zatozte onat ni bekala, barin baduze fede ta konfianza zeuren Jangoiko guapo goietan. Sartu zire irur ogei ta zorzi; baña ez atra bakotxik ere; guziak bai ondatu gorputzak an, arimak infernuan. Eta Aingeruak agerturik S. Blasi erran zio, o arima Jangoikoaren argis argitua, o Pontifize Jan-

goikoaren biotzekoa, atra bedi ur gontaik, errebitzeko gloriako korona. Atra ze erresplandores beterik aurpegia, Jentilak betetzen zituela lotsas ta arrizios, Kristioak kontentus. Etxakin ia zer egin Juezak, manatu zue ilarazteko ezpatas. Golpea esperatzen zegolaik Sanduak in zue orazio Jangoikoai, berari enkomendatzen ziren guziengatik denbora guzietan fabora zezkien. Aditu ze boza bat ziona, zure orazioa aditu dut, eta agintzen dut eskatu duzuna. Bereala ebaki ziote burua, ta egatu ze arima andi gura gozatzera Jangoikoaren ta Jesu Kristoren besarka eternoa. Nola ezgara gu alketuko beraren aldean arima txarrak, barin bagaude apegaturik farras-keria &.



## Otxallaren 5.an

### Sta. Ageda Birjina ta Martira

Abantalla eramatea emastekiek debozian da ikusten dena egunoro; baña juizioan, balorean, ta konstanzia eramatea abantalla zenbaitetan agitzen da, ta da miragarri. Onen exenplu ederra da Sta. Ageda, Sizilian jaioa, Palermon diote angoek, Katanan kontra emengoek; ala daude pleituan bi ziudade gaiek, berea nai duela bakotxak Sanda, zeren honra andia baita, ez solamente Ziudadearen, baita erreinu guziaren ere, izatea sortuerria Sanda baten, ta alako Sanda baten. Sei dote edo abantalla zitue berex: ze noblea: ze aberatsa: ze galanta: ze garbi honesta: ze juizio anditakoa: ta guzien gañetik ze Kristio egiasko perfekta: gorputz ederrean arima ederragoa, kontxa urreskoan diamante prezioso. Dezio enperadorearen denboran, Sizilian Presidente edo Gobernari zelarik Kinziano, pregonatu ze Katanan, non bizi baize Sanda, Kristoren fedean bizi ziren guziak bear zirela erreligionen aldatu, edo tormentuen podores akabatu. Aditurik berri gau, erretiratu ze S. Ageda oraziora eskatus Jesu Kristori guarda zezan berea becala fede kristioan ta birjinidadean: zeren ezi personaren on edo gaixto atratzea dago artzean afizione, ta ematean onera edo gaitzera prinzipiotik: Sanda gau afizionatu ze ta eman ze aurzututik Jesu Kristori, ta kastidade garbiari alako maneran, ezi artu zue proposito iltzeko birjin lenago ezi desloratzera utzi; nola baize guzis ederra gorputz ta ariman, eta entedamentu anditakoa, gauza itsusia iduri zekio sujetatzea animaleen pasioneai. Kinziano Presidenteak manatu zue presentatzeko bere alzinean Ageda Kristioa. Enkomendatu ze biotzes bere Jesus onari, eta errebestiturik korajes presentatu ze seguraturik Jangoikoan. Ikusi zue-neko Juezak, gelditu ze bera preso admirazios ta amorios. Mintzatu zekio loxentxus emekiro milla gauza ofrezitus, uzten bazue Kristoren fedea, ta ematen baze beraren andretako. Etzukelaik logra ez bata ta ez berzea, preso paratu zue, ta biali zue, karzeleraz ez, baizik atso gaixto baten etxera, zeñek baizitue borz edo iago alaba bere gisakoak, an guzien erlean engañazezaten ta beraxtu Sanda.

Afrodisia deitzen ze emakume gaixto gura: zenbat egin zuen bere alabaeki bateo errendiarazteko Ageda; zenbat promesa, loxentxu, artifizio, erregalo, ta gauza, ezta explikatzeke. Sandak aditzen zitue, ta etzitue aditzen, baizego ain osoki paraturik biotza Jangoikoan, ezi ezpaizue kasorik egiten erranes, eztare errespondatzen. Baña egunoro tekla gura soña-

tzeareki, Sandari iduritu zekio beingoas obe zela taparaztea agoa betikos: eta ala erran zio grabe tiesoki, Afrodisia, entendantzentut orren mañiak ta marañak, utziarazi naies fede kristioaren ta kastidadearen amorea: baña ezdezala pensa duela ainberze indar bere mian ta mintzaeran, ni garaitzeko diña. Orren mia aditzen dut nik, ez nola emastekiarena, baizik nola Deabru gaixtoarena, zein mintzatzen baita orren agos. Nik Kristio becala, baitut obligazio onetsitzeko gaixtoak ere onnaies, abisatzen dut beira dezala bere buruai, ta utzi ofizio infame goi, zeñeki beroi deshonoratzen ta galtzen baita, ta galarazten onak. Eta naiz Kinzianok utzi dezan, baña Jangoikoa dago beira, ta pagaraziko dio pena. Eneki porfiaz segi ta segi ari den lan goi ezpadu uzten bere honra ta onagatik, utzi dezake bentzait ia ez alfer nekatzegatik, zeren ezi segurutzen diot Jangoikoareki bateo, ezi lenago iruzkia ilun, elurra beltz, ta sua otx izanen dela, ezi ni mudatuko nai zen. In bez Kinzianok in ala, idiki bezki infernuko atariak, ekarri bezki Deabru guziak bere lagun ene kontra, naiz bai, nik iltzea dut Kristio ta Birjin, ala nai baitugu, Jesu Kristok eta nik. Ori, Afrodisia, zarra da, erioa dauka atarian etxideten berantetsirik: ezpada nai sekulako galdu, konberti bedi Jangoikoai: nigar egin bez, ta emendatu. Erranik alako itzak utzi zue despeiturik.

Afrodisiak kontaktu zio Kinzianori ogei tamar egunen buruan, eginala eginik, ezin atra zuela deus, ta etzeikela espera, ezi ain amoros dago Jesu Kristos, dio, ezi dirudi etzuela berze deseorik, pensamenturik, ta ametsik, ezpada iltzea beragatik. Ekarrarazi zue ark bere alzineraz berriz; galdegin zio, zer jendakikoa zen. Noblea naiz, zio, ta ene aide guziak dire testigo. Bada nola zarelaik noble; segitzen duzu Kristioen bizimodu txar misera-blea? Sandak, Kristioen humiltasuna ta zerbitzua baita obeago ezi erregeen goratasuna ta ponpa. Beras, dio Juezak, ezpedegara noble gu despeziatzen dugunak zuen gurezifikatua? Sandak, Barin badire Deabruaren esklaboak, adoratus arriak, zur ta metale-puskak, non da oien nobletasuna? Koleraturik Juezak manatu zue emateko bofetada bat aur egian, eskarmenta zeien mintzatzean. Gelditu ze aurpegia gorriturik lenik, gero ubeldurik, baña ederrago Jangoikoaren begietan: biotza sereno, korajea geiago, defendatzeko Jesu Kristoren fedea. Enfadaturik Juezak dio, eramateko karzeleraz, pensa dezala zer nai duen iago, edo Jesu Kristo ukatu, edo tormentus akabatu. Karzelean enpleatzen ze orazioan eskatzen Jesu Kristori konstanzia, logratzeko biktoria eta korona. Biramonean presentaturik berriz, berriz asi zekio algos ta loxentxus konsejaten; gero meauxus manatzen, despei zezala Kristoren fedea, ala izanen zuela bizi ona, osasun, ondasun, deskansu, ditxa, ta nai zuen guzia. Errespondatu zue,



ene bizi ta nauten uzia da Jesu Kristo. Eta orrek ez pensa, lotsatuko nauela ni meatxus, ezi naiak nago padezitu pena ta eriotzea, ellegatzeagatik besarkatzera ta goatzera ene Jesu Kristo. Ezta granoa paratzen graneroran berexi gabe agotza ta lastoa; eztare arima Zeruan, il gabe gorputza. Orgatik atormenta nolana, eta il bez gorputz gau; zenbatenas iago pena ematen didan, iago fabore inen dida, ta ene Esposo dibinoak Jesu Kristok iago maitatu ta anparatuko nau. Zertan dago? Zer esperatzen du? Arritu ze Kinziano alako ausardias ta korajeas. Suturik errabias manatu zue, biurkatzeko ta ebakitzeko bular bat Sandari: Sandak turbatu gabe erran zio, Tirano kruela, ezta alketzen bularra ebakitzetas donzella bati, delarik azia berori Amaren bularrean? Baña etzego ura aditzeko arraziorik; ta ermanarazi zue berriz karzeler, debekatus sartzea medikurik, ta deus jatekorik ta edatekorik.

Baña Jesus onak zerutik biali zio S. Pedro senda zezan. Sartu ze an Apostolua Medikua-aintzu, ta diosalea emanik, ta zori onak, ain ongi peleatuas Kristoren gloriatan; eldu zela zio sendatzera. Sandak dio, ni beñere ez naiz kuratu nioren eskus, baizik dut ene Jaun Jesu Kristo sendatzen duena guzia itz sollareki. S. Pedrok erraten dio arresti, ez beldurrik nitas, ene humea, Kristoren Apostolua naiz ni, berak biali nauena zure onagatik. Egia delako señaletan sana zaude, ta zeure bularra bere lekuan. Erran ta desagertu ze: ta Sanda gelditu ze sana guzias agradeziturik ziola, esker milla diot, ene Jaun ona Jesu Kristo, oroitzen baita nitas, ta biali baitida bere Apostolua sendatzera nere zauriak. Gelditu ze argitasun bat ain admiragarria karzelean, ezi guardiak lotsarriturik joan zire iges, eta presoek erraten ziote Sandari, eskapa zeila, etzelaik nork estorbatu; ta idikirik atariak zeudelaik. Errespondatu zue animosa, Beñere ezdezala Jangoikoak permiti batallako kanpotik iges egitea nik, logratu arteo biktoria. Laur egunen buruan Presidenteak ekarrarazi zue bere tribunalera, ta ikusi zuelaik ain sana eder guzias, eta zegola publikatzen Jesu Kristo zela Jangoiko bizi egiaskoa sendatu zuena ain oso ta aisa itz sollareki, alde bat zego konfuso arriturik, berze alde suturik errabias manatu zue barratzeko lurrean tella-kasko ta anitz ikatz-brasa gori, ta aien gañean arrastatzeko biluxirik Sanda. Ortan zeudelaik kruelak, biali zue Jangoikoak terremoto lotsagarri bat urratu zuena anitz etxe ta parete, eta batek arrapatuturik pean Presidentearen bi adiskide ta konsejari maiteenak utzi zitue txatxakaturik antxe. Ta jende guzia asi ze klamatzen Jangoikoaren kastigoa zela ori, egi ten zen krueldade injustoagatik Agedareki: ta zoezi lasterka Presidentearen etxerat. Lotsaturik onek ermanarazi zue karzeler berriz. An Sandak goraturik begiak Zerura, egin zue orazio gisa gau: Ene Jangoiko Jaun

andia ta eternoa, armatu nauena ni bere grazias, peleatzeko Tiranoaren kontra berorren fedeagatik; ta garaitzeko tormentuak eta berdugoak: ordu da ia errezi bi nazan, deseaten dutena amore guziareki. Emen akabatu zue bizia orazioareki: edo errateko obeki, asi ze bizitzen, ta bizi da betikos gloriosa Zeruan. Zori onean dela: bidoie, o arima jenerosa, bidoie deskantsatzera bere palazio gartan, ta goatzera bere Esposo dibino gura, zeñen amores despreziatu zituen lurreko gustoak, ta bizia bera. Agitu ze Otxallaren 5.an 252 urtean.

Kinzianok xakin zuelaik iltzela, arrapatzeagatik arren ondasunak, akonpañaturik jendes artu zue biaje Palermorat; ta erreka bat pasatzean, zaldi batek in zio ozka aurpegian, berze batek ostikoka bota zue urera; ta ezin aurkitu ze arren gorputza. Entendatu ze Jangoikoaren justizia, aumentatu ze Sandaren gloria ta debozioa: zein iago aumentatu ze agitu zenareki urbilen urtean ta egun berean: Katanatik ez apart anitz, da oian bat Etna, edo Monjibelo deitua, botatzen duena asko aldiz su: ta egun gartan agiturik arroitua andi bat lur barnetik atra ze ala susko ugalde bat eldu zena zitudaderat. Jentilek etzutelaik berze erremediorik, lasterka joan ta artu zute Sandaren obiatic gañeko beloa, zeñeki etorri ziren suaren kontra; ta edatu zuteneko beloa, baratu ze susko ugalde gura. Milagro gau agitu omen da berze anitz aldiz: ta ikusgarri da alde batetik suketa gura, berze aldetik prozesio belo garreki kontra: eta baratzea & &. Famatua da ere egin zuena S. Luziareki: au Siliziako Zaragoza bere sortu-erritik joan ze Katanara S. Agedaren obiara, eskatzera osasuna bere Amaren: ta ageriturik Sanda ilak biziari erran zio, zertako eskatzen didazu niri dezokezuna zuk eman?



## Otxallaren 9.an

### S. Nizeforo Martira

Eztuela amatzen Jangoikoa eztuenak amatzen bere proximoa, da egietafedea, ta ikus daike S. Nizeforo deituaren bizian. Antiokian zire bizi Saprizio ta Nizeforo, ura Sazerdote, au lego, ain elkarren adiskide amante apasionatu, iduri baize zirela biak bi anaia sabel batekoak, edo biak arima bat bi gorputzetan. Baña Deabruak, ezpaitago beñere lo gizonen kaltetako, paratu zue bien ertean diskordia, ta zebatu ze ainberze, ezi ia etzeizke ikusi elkar, etzire mintzatzen, ezta beirutzen ere, naiz opaturik karrikan. Denborain buruan Nizeforo ukiturik Jangoikoaren eskuas asi ze pensatzen estado txarrean zeudela, ta kondenazioko bidean; ta nai ze baketu: Ortako biali zizkio Mandatari adiskideak Sapriziori eskatus Jesu Kristoren amores barka zezola, ta bakeratu Jangoikoareki bateo. Ezeta aditu nai ere Saprizio, bai despeitu ordu gaixtoan, gogorturik biotza bronzea bekala; ta ori, zelarik sazerdote alzinatu bear zena baketzera, ta artzen zuena eskuetan ta petxoan bakearen axuri mansoa Jesus sakramentua. Baña sakramentuak obratzen du ariman disposizioaren ariora, nola iruzkiak gogortzen loa, beraxten argizaria. Berriz ta berriz biali zio Nizeforok enpeñuak: baña ezin beraxtu zute Saprizioaren biotz txar gogorra. Orduan Nizeforok, obligarazteko, joan aren etxera, ta humil paraturik oñetan eskatu zio Jangoikoaren amoreagatik barka zezola. Goaie emendik ordu gaixtoan, erran zio Sazerdote kontrakoak. Oh! nola diren batzuen biotzak! naiz erreza, naiz konfesa komeka, naiz baru, ta meza, ta alako! Ta Jangoikoa beti biotzera beira: eta askok biotzas kasorik ez, bai-zik ageri denas.

Denbora gartan goratu ze persekuzioa Kristioen kontra: Inzute preso Saprizio, ta Presidentearen presenzian konfesatu zue zela Kristio ta Sazerdote: sufritu zue asko tormentu fedeagatik. Ori guziori ongi: baña ote da aski? Berla xakinen. Juezak etsiturik, etzuela errendiaraziko ukatzera fedea, manatu zue eramateko degollatzera kanpoan. Zeramatelaik ia bidean, Nizeforok atrarik alzineran erraten zio, o Kristoren Martir balientein ainberze sufritu duena bere fedeagatik: zori onean dela, baitoiaie erre-zibitzera korona gloriakoa. Beraren amores niri in bezada mertxede barkatzeas ofenditu nuena. Ezeta itzik ere arrek, baizik aurpegia ilun segi bere bideas. Aratxago berriz berzea paratu zekio belauriko, eman zezola konsolua barkatzeas. Guardiek irri iten zute Nizeforos, ala porfiatzeas barka-

zio eske sarril bear zenari. Baña oraño ere ura ain gogor nola peña: ezeta mellarik ere. Azkenean justiziatzeko lekuan urtikio zekio oñetara, barka zezola Jesu Kristogatik, zeñen amores zoeien iltzera. O Deabruaren tenia! Guziau etze aski izan, atratzeko baimendea, guti kostarik, eman zukuena. Zer agitu ze? O Jangoikoaren juizioak! O gizonaren miserablea! Erran zio-laik berdugoak, belaurika zeila ebakitzeko burua, erran zue Saprizio, zergatik nai didaze ebaki? Zergatik desprezientzuen Enperadoreen manamenduak, ta eznei adoratu gure Jangoikoak, daukalaik Jesu Kristo Jangoikotako. Orduan Sazerdote indignoak dio, bada ez nazazela il, ezi nik adoraturikotut zuen Jangoikoak, ta inen dut manatua Enperadoreek. Zego presente Nizeforo, ta lastimaturik negarres, Jauna, erraten zio, ea guti batengatik ez dezala malogra ainberze pasatu duena, ta ez galdu korona prestatuturik daukana. Baña etze izan erremediorik: gelditu ze obstinaturik: ukatu zue tranze gartan Jesu Kristo, len ain firme konfesatu zuena. Orduan Nizeforo ererik Jesu Kristoren amores asi ze oiuz, Ni Kristio naiz; konfesatzen dut ene Jaun eta Jangoiko Jesu Kristo ukatu duena miserable goniek: utzaze au, ta il nazaze ni onen partez: Abisaturik Presidentea pasatzen zenas, manatu zue uzteko libre Saprizio, ta iltzeko Nizeforo: ala egin ze, gelditus Sazerdotea bizi gorputzes, ilik arima: ta Nizeforo ilik gorputza, egaturik arima Zerura erre-zibitzera korona. O ditxosoa au! desdixatua ura! Ala aldatu ze sortea: nork du kulpa? Agitu ze Otxallaren 9.an Baleriano ta Galiano Enperadoreen denboran, 260 urtean.

Zein egia den diona S. Pablok, ezi *naiz guzia emanik, naiz gorputza utzirik padezitzera ta erretzera, ezparin badut karidadea, guzia eztela protxal!* Zer balio zio Sapriziori pasatua ainberzeko tormentuak, etzuelaik izan karidade, garaitzeko odio gura, zukuena garai nai izateareki solamente? Zein egia ere Kristok errana, *ezpaduze barkatzen, etzai zela barkatuko?* Nor fia estadoan, on izanan, anitz obra on ta gauza pasatuetan, beiraturik Saprizio Sazerdote ta anitz pasatu zuena galdurik azkeneko? Nork eznei iago imitatu Nizeforo?



## Otxallaren 12.an

### S. Eulalia Birjina ta Martira

### Barzelonakoa

Garelaik guziok naturaleza berekoak dugunak gorputz aragiskoa ta arima razionala, Gzuk alaere berzeenganik ain diferente kondizioan ta bizimoduan, txikizututik ere, izatea, zertan ote dago? Batzuk ta geienak ematen direla munduari, Demonioari, ta aragiari goiz eder, atzendus, ta utzis Jangoikoa atzerat! Bakotx batzuk berriz ain emanak Jangoikoai, ezi baitaude beti plazer in naiak bere Majestadeai, ontan pensatzen, ontas kuidatzen, beldurak in desplazer, lenago guzia galdu nai! Batzuek ajolarik gabe iresten bekatu mortalak nola ur tragoak: baña bakotx batzuk utziko direla iltzera lenago ezi konsentitzera bekatu den gauzan! Zertan ote dago au? Dagoke naturale onean au: baña naturale onekoak asko galtzen dire. Dagoke ongi azitzean: baña ongi aziak ere asko galtzen dire. Dagoke entendamentu ona izatean, ezi nola Jangoikoa ezpaita ikusten begis, entendamentuas ezauntzen da fedearaki: bada fede ta ezaumentu duten asko ere galtzen da. Dagoke artzean amore Jesu Kristori, zein nola baita Jangoiko ta gizon, gure naturaleza berekoa, afizionatus gizon dibinogoni, berla ematen da Jangoikoai, eta orgatik bide da iago emasteki on, ezi gizonki on: baña asko gaixtatzen ere bai. Dagoke Jangoikoaren grazian: baña au niori ezta ukatzen. Dagoke, on guziori izatean, naturale ona; azitze ona; entendamentu ona: fede bizia: Kristoren amorea, ta Jangoikoaren grazia. Baña aur txi piek, neskatto gasteek sufritzea alegreki anitz tormentu ta eriotze lotsagarria da dudarik gabe Jangoikoaren grazia espeziala, ta fede kristioaren onaren progu bat andia. Exenplu miragarria izan ze S. Eulalia Barzelonakoa, noblea, naturale onekoa, ongi azia, ezaumentu ta fede anditakoa, ta Kristoren amazale apasionatua, adinaren amirur amala urtetan despreziatus mundua, honrak, gustoak, ondasunak, ta bizia bera, sakrifikatu baize Kristoren, ta Jangoikoaren amores, Diokleziano ta Maximiano Enperadoreen denboran.

Aiek biali zuten Presidente Daziano zebilalaik, otso gosetia bekala, España barna erris erri tormentatzen, zatikatzen, erretzen, akabatzen Kristio arrapatzen zituenak, zeudelaik kasi guziak lotsarriturik. Ellegatu zelaik Barzelonara, zeukate buratsoek Eulalia, andik lekoa bat bide, erretiraturik kanpoko etxe batean, zegon bitarteo Daziano Kristioen martiri-

zaten Barzelonan. Sanda zego suturik zelos ta amores joanaiak Presidenteagana erreprehenditzeko aren krueldadea, ta emateko bere bizia fedeagatik: baña etzute utzi nai beren konpañiatik buratsoek. Injeniatu zue donzellatooak; deskuidarte bates ixil ixila eskapatu ze, ta presentatu ze Barzelonan justiziako salan; eta txutirik ausart tiesa guzien presenzian boza gora mintzatu ze, O Daziano, nola atrebitzen da ixurtzera Kristioen odola injustoki, ta adorazterera Jangoiko falsuak? Bat sollik da Jangoiko bakar egiaskoa, zein Enperadoreek, orrek, eta guziek bear duten adoratu. Nola bada gizon delarik ezta beldur ofenditzeas Jangoiko bakar guzis poderosoa? Eta nola naitu galarazi Kristioak, utzi dezaten Jangoiko egiaskoa, ta adora dezkiten Demonioen imajina goiek gizonen eskus eginak? Turbaturik ustekabe gartas Dazianok erran zio, eta nor zara zu, atrebitu baizara Enperadoreen Majestadeai ta beren ministroei zor zaioten errespetoaren kontra erratera itz goiek emen guzien alzinean? Ni naiz Eulalia, erran zue, Jesu Kristoren eskriba, zein baita Jangoiko Aitaren, ta Birjin Amaren Seme bakarra, Jaunen Jaun, ta Erregeen Errege, ta zeñi zor zaion justizias Jangoikoaren honra ta adorazioa, ez ordea Demonioei. Oneki itsuturik iras arrek manatu zue lotzeko bereala Eulalia, erman karzelerata, ta zatikatze azotees. Arimo andiareki ta begitarte alegreareki sufritu zue tormentu gau kruelki exekutatu zena: Rabioso Dazianok dio, pena-genero guzies bear dela penarazi Eulalia Kristioa. Nork konta tormentu eman zitionak? Lenik edaturik potroan, edo tormentuko goatzean deskoiuntatzen ta zatikatzen dute bortizkiro: gero txarrantxatzen burriñasko aztaparreri, ta erretzen sugarrak aplikatus saietsetan ta bularretan: gero guzia olios untaturik inguraka dabilate kalzina biziaren errautsean: gero botatzen diote gañetik plomua urturik irakiten, ta arraskatzen tella puskas: sudurretaik ere ematen diote hozpiñ mostazareki ta begiak erretzientie kandela itxekieki. Zer ezta injeniatzen malizia kruelak, apartarazteko bere Jangoikoaganik Eulalia! Baña zenbatenas iago aumentatzen den krueltasuna kontra, iago da ageri Kristoren esposan konstanzia, indartea, eta grazia. Nekatirik berdugoak: Sanda garbosa ausart alegre!

Etsiturik Dazianok, etzukela errendiarazi neskatto gura tormentus, pensatu zue progatzea ote zuken lotsatu alkeas. Bada manatu zue erman zezatela biluxirik, zauris ta odoles beterik, zegon bekala, Ziudadea barna karrikas karrika. Baña Jaun dibinoak adornatu zue bere Esposa Sanda manto prezioso bateki, zeren ezi estali zue elurres istantean. Zein gloriosa zoeien Sanda erregalaturik Zerutik gala! triunfante biktoriosa! Marroasa zego Daziano ezin garaitus aur gura: ta manatu zue jositzeko gurutze batean. Baña guruzean Sanda zego kantatzen Jesu Kristoren laudarioak





ederki konsolaturik. Azkenean berzerik etzuke laik, ilarazi zue ezpatas. Oneki atra ze arima eder gura, ta uso baten idurian ikusi zute anitzek igiten Zerura, utzirik lurrean gorputz sandua honratzeko Kristioek, arrazio den bekala, ta bere memoria, fama, ta exenplu andia, admiratzeko jendamendes jendamende &. &.

## Otxallaren 9.an

### S. Apolonia Birjina ta Martira

S. Apolona jaio zena Alexandrian bizi ze bizi guzian birjinidadearen estadoan, modestia, erretiro, ta honestidade, baize denbora gaietan estado agitz honratua ez solamente Jangoikoaren begietan, baitare Kristioendearen estimazioan, iago ezi gure denbora zar zakar gebetan, naiz beti prezisoki bear den izan honestidadea honoragarri honratua, izenaren konforme, ala nola deshonestidadea deshonoratua, naiz munduak erran nai duena. Ze Alexandrian Mago edo Sorgin bat Kristioen etsai endemoniatua, nola Demonioaren adiskide ta esklabo madarikatua: aren instigazios asi ze inzititzen jendea, defenda zezaten antiguasko errelijionea, ta Jangoiko banoen adorazioa, kentzeko mundutik Kristioak ekarri zutenak errelijione berri bat ta irrigarria, predikatus dela Jangoiko gizon bat iltzena guruze baten paloan. Alako itzak izan zire nola sutxindiak itxeki zuztenak iraren suan jentilen biotzak: Eta ala asi zire persegitzen Kristioak, ta sartus eben etxeetan errobotzen on zen guzia, erretzen gañarakoa, arrapatzen zuzketenak, ta ilarazten tormentaturik anitz maneras: Alakoetaik bat izan ze S. Apolonia ia alzinatua adinean, agitz errespetatua izana Ziudadetan. Arrapatu Infielek, ta nai ziote ukarazi Kristoren fede: baña zegolaik konstante firme bere fede gartan, eman ziote anitz golpe ta zaflada aurpegian, autxi matelezurrak, ta atra zizkiote kruelkiro ortzak eta aginak guziak: Eta eginik hogera andi bat, meatxatzen zute erreko zutela bizirik, ezpazue errenegatzen Jesu Kristos. Etzego artako, zio bai, edozein eriotze-genero pasatuko zuela Jesu Kristoren fede ta amoreagatik. Ala zeukatelaik suaren aurrean, goraturik biotza Jangoikoagana, itxekirik barnetik bere amore dibinoaren sua, beraren inspirazios igiturik, ezapaize zillegi berze gisas, eskapatu ze aien eskuetaik ta bera bota ze su gartan, non konsumiturik gorputza, egatu zen arima Zerura, gelditus arriturik Infielak ikusias, lasterrago zela bera artzeko eriotzea, aiek emateko baño. Agitu omen ze Martirio gau Enperadore Filiporen, ta S. Fabian Aita Sanduaren denboran 252 urtean. Martirio pasatu zuenaren kasos agian sartu da debozioa, enkomendatzeko Sanda goni ortz ta aginetako minan.





## Otxallaren 10.an

### S. Gillermo Akitaniako Duke &.

S. Gillermo, (zein dioten ebetan izan zela Sta. Feliziaren anaia, ta au aren arreba, nion ezpaitut aurkitzen notiziarik edo memoriarik ontas, naiz aurkitzen den berze arreba bat D.a Leonor izan zela Franziaiko Erregina, ta berze bat D.a Ines Araguako Erregina D.n Ramiroren Andrea, (Moret ann. 1135.) izan ze Akitaniako Duke, Piktabiako Konde, ta Franziaiko Jaundietaik Prinzipe bat poderoso andia, eta andia ere lenik gaixtakerian, andia gero penitentzian, andia santidadean, andia ariman ta gorputzean, jigante iduri baizue, ta ain azkar, garaitzen baizitue guziak, ta beti pelean ibili naia: berze alde luxurian ta gulan animaleen gisa, ta eskandalo ematen, eta ez aguantatzen itzik niork ere erran zezon. Bizi ze denbora gartan S. Bernardo bere Klarabaleko monasterioan: Zelo sanduas erretzen, nai erremediatu, ta eskaida onik ezin aurkitu: baña Jangoikoaren probidenzias agitu ze eskaida bat gero ere. Il ondoan Erromako Aita Sandua Honorio II., elejitu zute Inozenzio II: Kontra goratu ze makur bat deitua Pierleon, zituena bere aialdekoak: orgatik agitu baize Zisma peligroso bat Elizan, segitus batzuek au, berze batzuek ura. Zelebratu ze Franzian, egia- ren txuritzeko, Konzilio bat, zeintara deitu zuten S. Bernardo, ta guziek segitu zute arek deklaratu zuena Aita Sandu egiasko Inozenzio II.a. Sollik Gillermok etzue nai obeditu, ta desterratu zitue asko Obispo: eta orgatik izan ze exkomekatua. Eskaida goneki S. Bernardok joanik mintzatu zio humil amoltsu grabe ta sendoki: baña ez otoies ta ez meatxus, ez ones ta ez gaitzes ezin zuzendu niolaterere, ta itzuli ze triste bere Konbentura. Baña etzute utzi errepausatzeran anitz denboras, zergatik Aita Sanduak bialirik Akitaniara Obispo bat bere Legado, onek artu zue laguntako Sandua berze anitzeki. Mintzatu zio berrero; Jangoikoak nai ta logratu zue obedi zezan Aita Sandu Inozenzio: baña ez niolaterere utzi nai itzultzea Obispo desterratu zituenak, baizio ofenditu zutela bera, ta inik zeukala juramentu ez barkatzeko sekulan. S. Bernardok ikusirik ain gogor, zer egin zue? Sartu ze Elizan orazio egitera, eta meza erratera; eta pater noster ondo- rean arturik patenan hostia konsagratua, atra ze Eliza-atarira, non zegon Dukea ezpaizeike sari Elizan exkomekatuareki egones: eta au belauriko zegolaik, Sanduak txutirik sakramentuareki eskuan, sua zeriola begietaik, erran zio grabe Jangoikoaren Espirituareki, Orari arteo eskatu diogu Jesu Kristoren Ministroek, ta eztigu kasorik egin: Orari eldu zaio emen presen-

te errealki bere Majestadea bera: au da, Juez supremoia, zenen eskuetara ellegatuko den orren arima, ta emanen diona sententzia betikos: ikusagun baduen ausardia despreziatzeko au ere, gu bekala. Itz ebeki nola ausnarri ortotsareki ikar ikar Dukea erori ze lurrean: Jaikitzeran eginik erori ze berriz, ezin itzik atra, erdea zeriola agotik, lotsarriturik. Gero akorritu zelaik ia humil ofrezitu zue kunplituko zuela guzia.

Au izan ze prinzipio, sandutzeko Gillermo. Ukiturik biotza Jangoi-koaren eskuak, argiturik Zeruko argias, asi ze pensatzen nola egin penitencia, ta aldatu arras bizimodua. Ortako joan ze an leku soil batean bizi zen zar batengana, erakutsi zezon. Onek ikusi zuelaik ta aitu nor zen, bel- dur, etzela ones etorri, akar egin zio, zela Tirano bat kruela, ta furia bat infernukoia; ia eldu zen arren tentatzera: in bear zuena zela itzuli Jangoi-koagana, ta egin penitencia. Ortako etorri naiz, zio; baña arrek etzio egi- ten, baizik akar: guzia sufritzen zue ongi, ta mana zezola zer egin, gal etzeien betikos. Gero ere erran zio arrek azkenean, bidoeie alako Sandu garrengana; ark erakutsiko dio. Ze au gizon prudente jakintsua. Onenga- na joanik errezibitu zue amoltsu arresti, zeren izan zuen Zerutik abisu etorriko zekiola. Aditurik espazioreki, ta entendaturik zituen proposito onak, animatu zue, ta kariño ta modu on guziareki erran zio, zoeiela bere palaziora, ta niori adiarazi gabe intenzio zuena, erreparti zezala anitz limosna, ordenatu etzeko gauzak; eta zaldi bat arturik zetorrela beragana. Ala egin zue ta itzuli ze bere zaldian: aurkitu zue bere Maestru gura, ta arrek arotz bat. Jautsi ondoan zalditik, arrek erran zio grabe, Jauna, beka- tu anitz dire egintuenak; mereji zitue pena eternoak infernuan: baña Jan- goiko onak ongi nai du alaere, ta ezta nai kondenatu, baizik es eratu ta konbidatu in dezan penitencia mundu gontan, presentatu baño len bere tribunalean, non preziso baita egitea justizia merejimentuen ariora. Bada penitencia ere bear da izan kulpen ariora, ematekos satisfakzio: eta asko daude engañaturik, pensatus edozein penitencia aski dela, baitare Sazer- doteak uzteztuztenak ala joatera infernura. Obe du emen pagatu zor diona Jangoikoai, ezi an susko pena eternoareki. Mortifikatzea gorputza da justizia: orazioa sakrifizio gisa palakatzen duena Jangoikoaren biotza. Ene konsejua da para dezan burriñasko peto gau ermateko bizi guzian; ta doaien bereala oñes Aita Sanduagana, ta aren oñetan konfesatus bere gaizki eginak, absolbi dezan; eta ala errekonpensa daien eskandalo emana munduari.

Aditu zue Kondeak humil humila arrek zion guzia; nola erraten balio Jangoikoak berak: eta ala bereala kendurik bere tresena, ajustatu zue gorputzari peto gura, lagundus Sandu garrek eta arotzak, seguratus amar



kateeki ain fuerte, ezi beñere etzeiken liza: aren gañetik inguratu ziote zilio bat, ta buruan burriñasko morrion edo txapela bat: eta ala guapo armaturik penitente gisa joan ze oiñ urtuxian Aita Sanduaren billa, baize Eujenio III.a S. Bernardoren Diszipulo izana, ta baizego orduan Franzian Remsigo zitudadean. Ellegaturik arara urtiki ze Aita Sanduaren oñetan humil humila negarres, barkazio eske. Aita Sanduak ikusi zuelaik gizatzar bat ain temenariora bere oñetan, galdegin zio, nor zara zu? Aitu zuelaik zela Gillermo Akitaniako Dukea, iago berriz lotsatu ze, ote zeiken engañu izan Deabruaganik. Ala erran zio, nik eztakit nor zaren; Dukea ez tut ezauntzen: baldin ezpazara diozuna, ta nai banauzu engañatu, beira ez tatorren Jangoikoaren ira zure gain. Baña barin bazara diozuna, nola penitente-itxuraoi? Nola nik sinetsi? Badakit Jangoikoa dela guzis poderoso dezazkena egin arriak Abrahamen hume, ta otsoak axuri, baña eztakit oraño egin duen zureki, ta ez tut sinetsiko, ezpadut ikusten progu iago. Zoaz eneganik. Etze turbatu Gillermo, bai humillatu iago, eta suspiroka zio, ezauntzen dut ene bekatuek iago mereji dutela, ta eldu naiz satisfakzio eman naies berorregana, Jesu Kristoren lekuan baitago: bida bere bedeizioa, Jauna; ez-Deren, eskatuko dio kontu ene arimas Artzai dibinok, nola ardi galduas. Ia orduan Aita Sanduak mintzatu zio amoltsuago: eta biali zue Jerusalengo Patriarkarengana, baize gizon sandua ta prudentea, zeñi ematen zion potestade bear zen guzia. Konsolatu ze oneki Gillermo, ta oña apaturik Aita Sanduai, despeitu ze, joateko Jerusalem. Ain txusto Patriarka gura ze Dukearen mutil izan baten hume, ta orgatik ere errebitu zue piadoso besoak zabaldurik, emanen Jangoikoai graziak alako prodijioas, ta penitenteari absolutioa. Nai zue iduki bere konpañian ta maiean; baña arrek eskatu zio nai bazue inarazi etxola bat kubila gisa: ontan sarturik egon ze bedratzi urtes penitencia andian, ta orazio kontinuan: bere sustentua ogi beltz puska bat: edatekoa ur solla: bestimenta peto gura ta silizioa: goatzea lur utsa: bururdiko arri bat. Alaere zego seguroago ta alegreago, ezi zegolaik bere palazioan erregalaturik. Ia barkatua ta purgatua arima zegolako señaletan, asi zekio erregalazten Jangoikoa Aingiruen medios.

An zegolaik atzendurik bera bere lengo grandeza ta gauzes, etzeude artas atzendurik bere aideak ta adiskideak. Billa ta billa asko lekutan, noiz ere bai xakin zute Jerusalendik eldu ziren peregrinoetaik, nola zegoan. Joan zekizkio, ta nai zute itzularazi, milla kausa alegatus: baña egon ze firme bere propositoan, eta libratzeagatik alako tentabideetaik joan ze andik aurki ezezaten leku batera. Baña sobraxko detenitus pensatzen aien erranak, asi ze guti bat epeltzen ferborean: eta ala pasatzean Luka deitzen

den Ziudade aldetik, aurkiturik zeudela angoak gerran ezin arrapatus kontrarioen kastelu bat, nola baize soldado baliente usatua, erran zue, balego arren eskuan, laster inen zuela lan gura. Eskatu ziote aiek in zezala fabore goi; ofrezitu zue, ta asi ze prestatzen. Baña Jangoikoak etzue utzi bere soldadotako eman zena ia: kendu zio gorputzeko bista, idikiarazteko arimaren begiak. Ezaundu zue bere utsa; negar egin zue, eskatu zue barkamendua; in zue proposito berriro segitzeko guruzearen bandera. Jauna, zio, mereji dut kastigo gau, ta in dida mertxede emateas, ez nadien aparta orrenganik: baña ez permiti dirauen iago pena: itzuli bezada bista berorren zerbitzuko. Istantean itzuli zekio: eta abisaturik Ziudadeko Jaunei, zela bekatari pobre bat, etzegokiona armen itekoa, despeitu ze andik: eta berriz artu zue biajea Jerusalem. Itsasoan in zute preso Moroek, zeñiek ikusirik pobre penitente jaintsirik gisa gartan, nai ziote kendu peto gura, baña etzuket, ain amarraturik egones; ta ala utzi zute ta ellegatu ze Jerusalem; non berriro bereek porfiatu ziote, uzteko bizimodu gura; baña ezin errenditu zute: ta eskapatu ze andik berriz: ta etorri ze Españara, bisitatzera S. Tiagoren tenploa, non izan zen erregalatu Zerutik miragarriro. Itzulirik Italiara, Libalia deitzen den oian batean kubila lotsagarri andi batean sartu ze, ta zenbait laguneki egin zue hospitale gisa bat. Andik guti lagunek ikusirik aren bizimodu arrigarria, ta sollik Jangoikoa ta Jangoikoaren gauzak aipatzen zituela, oposizio artu ziote, ta maltratzen zute. Ori ikusirik joan ze andik ere, ta berze leku batean baratu ze. An berriz Demonioek Jangoikoaren permisios errefinatzeko pazienza, maltratatu zute moldegaizki. Baña bereala Zerutik konsolazioa, ta erremedioa, zergatik agertu zekizkio irur donzella errebestiturik argitasunes, eta Majestade iago mostratzen zuenak, baize Maria Santisima, mintzatu zio agitz amorosoki konsolatu, ta exortatus perseberanziara. Orreki sollik gelditu ze sendaturik arras.

Azkenerat ellegatu ze ostatus pobre batzuen etxera, non bein, ia kasi angabeturik nezesidades, zerbait sustentu nai, ta etxokandreak ezin eman, heri egones, Sanduaren orazios, au sendatu ze istantean, ta eman zio sustentu. Baña beldurrak, honra zezaten milagro garren kasos Sandua joan ze andik ere, ta baratu ze Malabales deitzen den desertu batean Sena aldean: emen errezibiturik sakramentuak Sazerdote baten eskus, despeitu zue bere arima Jangoikoaren eskuetan 1156 urtean. Gorputza il ondoan gelditu ze eder miragarri: Oneki ta anitz milagroeki bere gloria mostratu zue Jangoikoak.



## Otxallaren 13.an

### S. Martiniano Monjea

Kastidadearen birtutea zein ederra den ta preziosoa Jangoikoaren gustora, ta zein aborrezitua Deabruaganik, ikusteko, da S. Martiniano Monjearen bizia. Bizi ze au erretiraturik Palestinako Zesareatik ez agitz apart zen oian batean, gaste oraño emezorzi urtetakoa, ta dispozizio ederrekoa. Ain gogotik osoki eman ze Jangoikoak, ezi Jangoikoak arren eskus iten zue anitz milagro, ta famareki etortzen ze jendeketa andia erremediatzera beren heritasun ta bearretan. Orgatik zio inbidia ta odio Demonioak, gizonen etsai denak; eta persegitzen zue agerrian ere asko maneras; eta Sanduak erran zio bein, zertan abila, desdixatua? Uste duk garaitu ni, nereki dagolaik Jesu Kristo? Arrek iges joaterakoan, zio, etxek etxek, Martimano, nik eroriaraziko aut, ta joanaraziko ordik konfuso, naiz agon konfiaturik dioken gortan. Anitz urtes ala bizitu ze leku gartan, ez gizon lurrekoa bekala, baizik Aingeru bat Zerukoa bekala, Jangoikoak amatzen, ta jendeek admiratzen zutela. Bein Zesarean zeudelaik gizon batzuk zelebrazten arren ona ta Sandua, ellegatu ze emasteki bat alkegabea, deitzen zena Zoe, despreziatus arren sandutasuna; zela baseizia bat sollik bizi zena beti; ta etzela milagro izatea kasto ikusten etzuen emastekirik: baña nik tentatzen badut, ta ezpadu konsentitzen, orduan bai konta bezate sandu ta kasto, zio gaixtofikatuak. Azkenean, ni joanen naiz, dio, ta ezpadut errendiarazten, konta ni gezurtitako; baña ori logratzen badut, eman bezadate premio ona. Noraño ellega daiken emakumea, autxias geros bi freno gaiek paratu zitionak Jangoikoak? baitire alkea ta beldurtasuna. Ia ezta berzerik, baizik Deabruaren zerbitzari, Deabruaren arma, Deabruaren zeboa, ta Deabru bat aragiskoa.

Joanik etxera kendu zue gala zeramana, baita on ere nola Deabruaren sarea, arrapatzeko arima txipiak: jaintsi zitue zar zatar batzuk pobre gisa; ta doblaturik galaskoak, ta zorronean sartu ta arturik besapean, nola balitz ogi jan bear zuena, atra ze denbora ekaitz gaixto batean: eta ilundurik ia ellegatu ze Sanduaren etxolarat, bidea galdu zuelako atxekian. Atarira zelaik asi ze klamatzen boza negarti lastimoso bateki, o Jangoikoaren sierboa, urrikari bedi nitas, bainaiz emasteki triste bat galdu nai zena eremu gontan; ta denbora goneki eztakit nora Joan, ta non aurkitu aterbea; ezpanau orrek anparatzen, beldur naiz zatika nazaten basezieki emen. Jangoikoaren amorea atik in bezada karidade emateas aterbe guti

bat nonnai zokoren batean, ezi Jangoikoaren kriatura naiz ni ere, naiz bekatari. Lastima gaitara idiki zue leiattilla ta ikusirik pobre iduri gura ta ugarreketa, egon ze dudan ote zeiken izan Deabruaren astuziaren bat; baña beldurrak, galtzeien, uzten bazue desanparaturik gau guzian kanpoan, ta Jangoikoak kontu eska zezon aren galduas, enkomendatus Jangoikoak guarda zezan bera, idiki zio ataria; ta su eginik, ta zerbait fruta emanik akorritzeko; ta enkargaturik zoeiela biramon goizean goizik andik bere bideas, utzi zue an, eta bera sartu ze barnagoko gela batera, non ertxirik ataria egon ze gau guzian orazioan Jangoikoareki. Biramonean atrarik bere gelatik aurkitu zue hazienda gaixto gura, ez ia pobre gisa, baizik adornaturik galas: asi ze pensatzen ote zen fantasmaren bat; baña arrek erran zio nola zen errezebitu zuena gau gartan karidades, ta ainberze milla esker, karizia, itz amoroso, tentagarri, Deabruak erakutsis ta mintzatus arren agos, ezi gizonoi zego xoraturik; ta azkeneko atzendurik Jangoikoas biotza inklinatu zekio, baña Jangoikoak etzue utzi eror zera guzis bere sierboa. Atra ze ikustera eldu zen jenderik arren billa; ta Jaun onak beiratu zio berai, ta ukitu zio biotza kontriziosko dolore ain andias, ezi etxolara itzulirik, ta su eginik, oiñ eta eskuak paratzen zitue suan, ta erre pixpildurik, beira berzea zegolaik, atra zitue, ta erraten ze bere buruari, Martiniano, zer iduri zaizu? guapoki paratu zaitu su gonek, ta ori denborra gutis. Zer inen du infernuko suak eternidade guzian? Nai bauzu arara joan, ellega onengana, on baita arara joateko bidea. Erran ta berriz sartzen zitue suan. Arriturik beira zegon ematekia asi ze negar ta negar, etzezala segi erretzen; nere da kulpa, nik in bear dut penitentzia: eta bereala kendurik gala gaiek botatu zitue sura, barka zezola, ta erakutsi non ta nola in zezaken penitentzia: etzuela nai itzuli ziudadera, baizik despeitu betikos mundua. Sanduak biali zue Belena, non errezebitu zuen Birjina Sanda batek deitzen zenak Paulina, zeñen konpañian bizitu ze amabi urtes penitentzia erruan ogi ta ur solles mantenitus bein sollik egunean, edo bi egunetaik batean. Mostratu zue Jangoikoak grazia logratu zuena obratus milagroak ere, ta eman es iltze preziosoa.

Gelditu ze Martiniano ain errerik, ezi asko ilabetes ezin kuratu ze, ta ain eskarmentaturik, ezi beldurrak atra ze andik joateko nora etzeiken ellega emastekirik. Joaterakoan, burla iten zio Demonioak ziola, andia da ene podorea; botatu aut eure zeldatik iges. Sanduak zio, baitare nik kendu diat arma ik ekarri dukena; ire konfusiotako izain duk ura ia emendik alzina. Deabruak oi u iago, Martiniano, bagoaie iges? Bada nora nai segituko diat, ta ez nauk baratuko, errendiarazi artaño. Joan ze Sandua itsas-basteerrerat: an informaturik mariñel batenganik, bazela itsas-barnean urriti



peña bat, non zegoken, ajustatu zire ermako zuela arara, ta noizean noiz ogi ta ur, ta palmasko arramak, zeñeki arrek inen zituen esportak, zeñeki paga zeien zerbaite, ta berze alde enkomendatuko zuela Jangoikoai. Eraman zue bada, ta irur aldiz urtean ekartzen zio sustentu pobre gura. Erraten zio, ekarko ziola materiale, egiteko etxolaren bat, nai bazue. Etzue nai izan du: ala obeki beiratuko zuela Zerura; au zela estalki ona ta aski. An gelditu ze, ta zego bere orazioan ta lanean kontentago ezi bazkoa, euri, elur, ekaitz, iruzki, ta guzietara agerrian inguraturik ures, nora etzeiken ellega emastekirik. Ala uste zue: baña Deabruak injeniatu zue, naiz etzekion baliatu. Sei urtean buruan pasatzean itsaso gartan onzi bat, Deabruak Jangoikoaren permisios bota zue ta autxi ta autxi peña arren kontra. Ondatu zire an eldu zirenak: sollik donzella bat ol bati eutxirik zebila gorabera, ta asi ze klamatzen, o Jangoikoaren sierboa, Jangoikoaren amoreagatik eda bez eskua, ez nadien ito emen. Au baita lanzea: Sanduak enkomendaturik Jangoikoai, ikusirik klaro obligazioa, edaturik eskua atra zue uretik. Eta bereala erran zio grabe, ene Jangoikoaren humea, istupa ta sua ezta ongi egotea urbil: geldi zaite zu emen, an ta edan zazu den ogia, ta ura: emendik bi ilabete etorriko da mariñel bat; konta zozu agitu zai-zuna, ta eska zozu nauzuna.

Au erran, ta señalatu zue gurutzearen señaleara bere gañean, ta itsasoaren gañean, ta beiratus Zerura erran zue, Jauna, konfiaturik orren piedadean botatzen naiz itsasora, zeren ezi naiago dut il ondaturik, ezi egon peligroan mantxatzeko kastidadea. Eta exortaturik donzella mantenitzera Jangoikoaren beldurtasunean, despeitu, ta bota ze itsasoan. Bereala ellegatu zekizkio Jangoikoaren ordes bi arrai andi, deitzen direnak Delfinak, eta arturik beren gañean atra zute ta utzi itsas-basterrean: eta Sanduak belauriko eman zio esker milla milla: eta gerostik alzina zebila peregrinazioan batetik berzera, baratus gauak artzen zuen lekuan. Atenasko ziudadera ellegaturik, ia nai zitio Jaunak bere trabajuak, peleak, ta biktoria pre-miatu. Errebelatu zio ango Obispoari, nola zegoen Elizan Martiniano bere biotzeko adiskide andia. Joanik Obispoak aurkitu zue erreklinaturik eskañu batean: ta eskaturik bedeizioa eman zio Obispoak eskatus oroi zeielara artas Zeruan. Gero zeñaturik, ta erranik, Jauna, orren eskuetan enkomendatzen dut ene arima, alegre irrikos entregatu zue: ta bizi gau eskribitu zue Metafrastek. Donzella gelditu zenak peñan kontatu zio Mariñelai, joan zenean, nola pasatu zen guzia: Eskatu zio, ekarri nai bazio tresnaren bat gizonarena, ogi, ta ur, ta lan egiteko elle, edo gauza bere andreareki: ala egin ze: ta gelditu ze an egotes, ta iraundu zue sei urtes, zelarik ogei ta bortz urtetakoa, arara zelarik. An iltze sei urteren buruan

sanduki. Deitzen ze Fotina. Mariñelak gero aurkitu zuelaik ilik, eraman zue Zesareara; kontatu zio Obispoari guzia: eta Obispoak depositatu zue honratuki, laudatus Jangoikoaren miragarriak &



## Martxoaren 1. an Gure Aingeru Guardiako

Aingeru Guardiakoaren festa zebebratzen da bi aldis urteaz, Lasta-llaren bigarrenean Eliza guzian; ta Martxoaren lenbizikoan Iruñeko Obis-pado gontan; eta egunoro litzake arrazio zebebratzea nork bere biotzean bere Aingeru guardiako, ongi egiten dagokiona egunoro ta kontino. Entendatzeko zebebratzen duguna da konbeni explikatzea, nor ta *zer diren* Aingiruak: *ia badiren gure* guardian daudenak: *zer labore* iten digun ortan gure Jangoiko onak, eta zergatik: *zer ofizio* itentuten gureki Aingiruek: *aien progu zenbait* eskritura sagratuetaik, ta Sanduetaik: *ta zer guk in bear dugun* aieki.

Zer dire Aingeruak? dio katetximan: Dire espiritu bienabenturatu zori onekoak daudenak gozatzen Jangoikoa Zeruan. Zertako kriatu zitue Jangoikoa? Eternoki lauda ta bedeika dezaten bere Majestadea: eta beraren Ministro bekala goberna dezaten Eliza, ta guardatu gizagendea. Dire beras Aingeruak nola Errege gorenaren Korteko Jaundiak, Prinzipe noble poderosoak beraren palazioan asistente daudenak kontino, bere etxeko ta maieko adiskideak; eta bialtzentuenak nora ta zertara nai duen, nola bere Ministroak: ezi orgatik dute izena Aingeru, baita oroat nola Mandatari bialia enkargatua. Dire exerzitoen Jaunaren Kapitan jenerale, ta ofiziale, ta soldadoak, nor bere gradoan; eta ango soldadeska da Aingeru-gendea.

Eta Egia da gizonetaik bakotxai señalatu diola Jangoikoa bere Aingeru guardiako? Da egietafedea: asko testimonio da eskritura Sagratuan: baña testigorik obena Jesu Kristo Jangoiko-gizona Zerutik etorri zena, ta den guzia dakiena; eztaikena engaña, ta ez dezakena engana, baitio bere Ebanjelioan Math. 18. *Beira ez dezazen desprezia txipitto gebetaik bat, zeren ezi erraten diziet, oien Aingiruek Zeruetan daudela beti ikusten nere Aita Zeruetan dagonaren aurpegia*. Aingeru goi paratzen da gizonaren guardian, au mundura jaiotzen den istantetik, diote Doktore Sanduek, ezi sabelean dagon bitarteo, guardatzen duenak Ama guardatzen du humea. Jesu Kristok, Aingiruen Jaun bekala, etzue Aingiru guardiako bearrik, guziak zitue bere zerbitzuko: baña nik eta zuk bear gindue, ta eman digu nori berea Jaun onak. Ori erran zue Dabidek ere, ps. 90. *Bere Aingeruei manatu diote zuregatik, guarda zaizaten zeure bide guzietan: ermako zaitute beren eskuetan, ez dezazun tropezatu arriren baten kontra*.

Nolako faborea ezta au? Zein grazioso, gustoso, honrosoa, ta konsolagarria lurreko desterratu pobreendako? Nola aski ezpalitz kriatua gu Jangoiko onak bere imajina ta semejanbara ere gloriaratzeko, ta ematea ortako bear diren medio guziak: Nola guti balitz konserbatua asko denboras, manatus iruzkia argitzeko guri, zeruai, aireai, lurrai, itsasoai, ta kriatu duen guziaz laguntzeko guri, eta iago dena, mantenitus gu bere besotan, *ezi Jangoikoa bizi gara, mogitzen gara, ta garena gara*, ezi bera gabe atsik ere ez dezakegu artu, ta momentu batez utzten bagaitu, deus ezgara: Nola guti balitz preserbatua berak gu infinizio bat gaitzetaik, kulpa, pena, denborako ta eternoetaik: Nola guti balitz jautsitzeta bere Majestadea bere tronotik, egitea gizon, gure aide, adiskide, fiadore, Redentore: Nola guti balitz padezitzeta guregatik alako neke-penak, ta eriotze alako: Nola guti balitz egitea gu bere Kristio, bere etxeko, bere gorputzeko mienbro: nola guti balitz alimentatzeta bere gorputz ta odol preziosoes, doktrinas, orazioes, ta gañarako on direnes Elizan: Nola guti balitz artzea gu bere humetako, ta ematea gure Aitatako bera, bere Ama gure Amatako, ta Sanduak ta Sandak gure anai-arrebatako; zer labore ezta ematea bere palazioko Prinzipe glorioso eder gaiek gure guardia, kuidazale, ta aurzaitako? Eta aiek artzea gogotik, ta kunplitzea humilki ofizio goi? Enperadoreen ta Erregeen humeei billatzentioe Aio ta kuidazale daizken obenak, baña berak adiña ez tirenak dignidadean: baña nork ikusi du Prinzipe Jauna aldiritar baten aurzai? Beira emen gloriako Prinzipe gaiek gu aldiritar pobreen aurtzai bekala! Eztire ikusten begis, bai fedearen argis, seguro ta ziertoago baita, ezi begis ikusten dena. O faborea! O gure ditxa!

Eta zergatik ori? amore digunagatik, erman naies gu Zerura andik erori ziren Aingeruen lekuan. Da egietafedea erori zirela Zerutik anitz Aingeru, direnak orai Demonio ta Deabru. Ebek ikusten dute, nai gaituela Jangoikoa igan gu gizon lurrekook aiek al duzuten lekura: Orgatik inbidias kontino dagozkigu egiten gerra, tentatus asko maneras, engañus, indarres, zebos, ones eta gaitzes, nondik logra in dezogun desplacer Jangoikoi, ez uzteko sartzera Zeruan, ta jautsiazteko beren infernura gu ere: Zer egin du, ta egiten du Jangoiko onak? Biali Aingiru gaixtoen kontra Aingeru onak, zeñeki bateo guk aisa garai dezazkegun aiek. Ia bada eta zer ofizio itentute Aingiru guardiako on gebek? Nork explika? Nork entenda ere den adiña? anitz gorputzaren aldetik ere, baña iago ta iago arimaren aldetik: batzutan sentitzen dela, geienetan sentitu gabe. Eztuzu sentitu zenbait aldis alke ta beldur, egiteko eztagokizuna ongi? Zer ze ori? Aingiru onaren abisu bat. Eztuzu beñere sentitu, admititu ondoan bear etzena, an barnean desplacer, iluntasun, edo tristuraren bat? Zer ze ori?





Aingiruaren erreprensio amorosoa. Eztuzu sentitu noizerebait deseoa, anhelo, edo propositoren bat onerako? Zer ze ori? Aingiruaren bulkaldi bat. Ala nola afekto gaixtoak, inklinazio, tentazio, ta gogorazio gaixtoak baitire Deabruaren aldetik, ala onak dire Aingiruaren aldetik: Eta bagina dozil obediente Aingiruai, Sanduak ginazke. Zer gauza au, fielak, sinesten bada, beirratzea Aingiru eder ederra pobretto baten aldean ain erne antsioso, nondik ibiliko den ongi bere karguko pobre gura? Eta egia barin bada, eta da ain egia, nola Ebanjelioa, Zeruan Aingeruek dutela festa ta aleganzia, iten duelarik bekatari batek penitentsia, nola ezta alegratuko Aingiru guardiakoa, berea dabilalaik ongi? Kontra berriz Deabruen festa da ikustea gu bekatu, ta gaixtakerietan. Daudelaik guri beira, Aingiru onak onnaiez, ta Aingiru gaixtoak gaitztaies, pensa munduko dibersio ta galbideen okasioetan, nola bide dauden Aingiru gaixtoak kontent iduri tentatzen ta su ematen, Aingiru onak berriz despreziatuak becala bereenganik erretiraturik triste ilun! Pensa kontrako aldera, daudelaik onak Jangoikoai emanak ongi egiten; trabajutzen, padezitzen Jangoikoagatik ta proximoengatik, zein alegre Aingiru guardiakook laguntzen, konsolatzen, animatzen; zein ilun rabioso Deabruak! Ebek nola persegitzen, aiek nola tuzten guardatzen!

Ezin konta-ala dire exenpluak guardatuenak Aingeruek, batzuetan agerri, berze batzuetan agertu gabe. Biz lenbizikoa Daniel; bota zute leonen kubilara, jan zezaten: baña Aingiruak ertxi zizkiote agoak, ta etziote mellarik egin. Daniel. 6. Berze bein zeuzkitelaik sei egunes leonak jan gabe, ta erdian Daniel, Habakuk Profeta zoeiena bazkariareki bere igitarleendako artu bilotik Aingiruak, ta istante plantatu zue kubilaren gañean, ta sustentatu zue. c. 14. Bere irur lagunak bota zuzte sugarretan zeukaten labe andi gartan loturik esku oñetaik; eta an barnean zebiltza paseatzen ta kantatzen, ez irur ia, baizik laur, laurgarrena Aingirua akonpañatzen. ib. 3. Elias zoeie iges erregina Jezabelenganik, ta akaiturik etzan ze lurrean bizias etsiturik: Aingiruak jaikiarazi ta janarazi, ta bizkor ibiliarazi zue berrogei egun ta gau. 3 Reg. 19. Judith famatua, ederra gorputz ta ariman bizi ze Betulian erretiraturik bere etxean orazioan: zeukalaik Holofernesek inguraturik ziudadea, ta guziak etsiturik. Erreprehenditu zitue beren fede gutias, ta Jangoikoaren inspirazios atra ze ziudadetik iges iduri: arraturik presentatu ziote Holofernesi, zeñi orditu ta lokartu zelaik ebaki zio burua, ta eraman zue Betuliara, orgatik biramonean desegin baize arren exerzito guzia. Baña notagarri da Judith garbi ederrak in zuen juramentua, itzuli zelaik gau gartan, *Testigo Jangoiko bizia, guardatu nauela ni beraren Aingiruak emendik joatean, an egotean, ta andik ona itzultzean: eta eztuela per-*

*mititu bere eskriba gau niork ere mantxa zezan.* Notagarri ere da Sazerdote sumoak guzien alzinean laudario eman ziona, *Zu Jerusalemgo gloria, Israelgo alegria, ta gure jendearen honra, portatu baizara guapoki, ta biotz andiareki, zeren maite duzun kastidada.*

Ezta dudarik Aingeruak, nola baitire espiritu gorputzik gabekoak, luxuriaren etsai diren becala ez dezaketena soporta aren usaia, ala direla kastoen, espezialki Birjin direnen adiskide amanteak; kideak kideareki, diotena, zeren Birjin perfektoak dire lurreko Aingiruak, eta aiek Zerukoak, eta ala elkarrenak. Dire berze alde Birjinak berex Kristoren Esposa desposatuak garbikiro, *despondi vos uni viro Virginem castam exhibere Christo;* beras natural da Kristoren Aingiruak izatea aien lagun amante guardazale. S. Zezilia ofrezitu ze Jaun dibinoai betiroko Birjin mantentzeko beraren gustora: buratsoek desposatu zute nai etzuela Balerianoreki, zeñi seguratu zio Sandak erresueltoki, Baleriano, erran bear dizut sekreto bat ongi dagokizuna; jakin beazu dutela nik amazale Jangoikoaren Aingeru bat, zeñek zelo andiareki guardatzen duen ene gorputza. Beira ez dezazun egin eneki deus, zeñen kasos progarazi dezazun Jangoikoaren ira. Ark errespondatu zio, nai nuke ikusi Aingiru goi, ezperen errezelatuko naiz berze noribaiti zaudela afizionaturik. Bataiatu gabe eztaike ikusi, erraten dio Sandak; bataia zaita ta ikusiko duzu: Bataiatu ze, ta ikusi zue: eta bere anaia Tiburzio bataiarazirik ekarri zue ikustera Aingiru bera Sandaren aldakan. Eta biak gero izan zire Martir gloriosoak. Sta. Ines Jesu Kristoren Esposa fiela, zeren etzuen konsentitu desposatzea Romako Prefektoaren semeareki, eraman zute urdeen etxera, an deslora zezaten: baña bereala agertu zekio Aingeru guardiakoa guardatu zuena guapoki Sanda, eta il zuena atrebitu gura, naiz gero biztu zen Sandaren karidades, ta Jangoikoaren piedades. S. Franziska Romakoari agertzen zekio bere Aingiru guardiakoa, nola bedratzi urtetako aur bat idurian, aurpegia eder agitz, Zerura beira, besoak gurutzaturik, sotana txuri bateki: ta akonpañatzen zue orazio ta obra onak egiterakoan: eta bein zergatik deskuidatu zen konbersazioan andre batzueki, eman zio zaflada bat. Juan Karrera lego bat Konpañiakoa egunoro jaikiarazten zue bere Aingiruak bere izenas, joateko oraziora. Bein perezas detenitu ze, baña pagatu zue, zeren gero ia etzio iten faborea, egin arteo arrek penitentsia (Claus. p. 3 Cath. c. 10.) Gaste on bat lagunek erman zute engañaturik bekatu iteko zen okasiora: quarturik peligroa atra ze andik bereala; baña Aingiruak eman zio zaflada on bat izan zuen deskuidoagatik. ib. O zenbat maneras ongi egiten digun gure Aingiru onak, nola eztakigula geurek? Zenbat aldiz gu deskuidatzen garelaik, bera ezten deskuidatzen? Nola gu orazioan gaudelaik, dago bera





gureki, ta debozio iagoreki? Nola presentatzentuen Jangoikoai gure petizioak? Nola bearrean garelaik, naiz gerok ez oroiturik, bera oroitzen den eskatzeas Jangoikoai gure fabore? Bada gure eriotzeko orduan, infernuko otsoa dabilalaik ingur ingur arrapatu naiez arima, zein dilijent erne dabila Aingeru ona salbatu naies? Zenbat maneras laguntzen digun ongi iltzen? Nola enpeñatzen den Maria Santisimareki, Jesus onareki, Jangoiko berareki, atra daien ongi bere karguko arima gura? Zer aleganzia, ongi atratzen bada? Purgatoriora barin badoaie, zer bisitak, ta zein maiz itention? Nola konsolatzen duen penetan? Nola atratzen bere denboran? ta nola akonpañatzen duen Zerura? Iago ezi adiskide batek adiskideai, iago ezi anaiak anaiak, iago ezi Aitak ta Amak hume maiteai fabore iten dio bereai beti Aingiru guardiakoak: Eta senti gindezake klaro askotan, biziro sinestatus estima bagindez, ta egon atento.

Ia bada zer in bear dugu, logratzeko Aingiru guardiakoen faborea? Pensatu, estimatu, ta korresponditu dignoki. S. Bernardok dio ederki Dabiden itz gaien gañean, *Angelis suis Deus mandavit de te* & Bere Aingiruei Jangoikoak manatu diote zuregatik, guarda zaizatela zeure bide guzietan. *Fabore miragarria*, dio, ta egiaz karidadesko amore andia! Nor da manatu duena? Nori? Norengatik? Eta zer manatu du? Konsidera zagun sinez, ar zagun firmeki memorian manamendu gau ain andia. Nork bada manatu du? Norenak dire Aingiruak? Noren manamenduak obeditzen? noren borondatea kunplitzen dute? Dezakenak mana manatu diote bere Aingiruei, guardatzeko zu bide guzietan, ta eztute erreparorik artzeko ere zu beren eskuetan. Majestade sumoak bada manatu diote Aingiruei, ta bere Aingiruei, an gora dauden ditxoso bere urbileko gaiei, ta bere palazioko-ei manatu diote zuregam. Zu nor zara? Zer da gizona, oroitzeko artas Jangoikoa? Nola ezpalitz gizona usteldura bat, ta gizonaren humea artto bat. Baña zer uste duzu manatu duela zutas? guarda zaizatela. Itz gonek zenbat erreberenzia kausatu bear dizu? Zenbat debozio? Zenbat konfianza? Erreberenzia, zeren presente dauden: debozio, zeren ongi nai zaituten: ta konfianza, zeren guardatzen zaituten. Ibili ongi atento, no la beira dagokizula zeure Aingirua. Edozein leku, edozein zokotan guarda atenzio: ez atrebi egitera etzin dukena eginen, banego ni presente. Agian duda duzu dagola presente, zeren eztuzun ikusten? Zer litzake, adi bazindez? Zer, uki bazindez? edo usmatu? Ezta solamente bistas progatzen gauzen presente egotea. Aski da Jangoikoaren itz erreala. Jangoikoan bada maitazkigun afekto guziareki bere Aingiruak, nola bear direnak izan noizbait gure lagunak Zeruko herenzian, baña bitarteko gure aurzai ta kuidazale Aitak paratutigunak. Zeren beldur gara alako guardieki? Poderosoak dire, pru-

denteak, ta fielak. Solamente segi guk aien atzetik, ta egon seguro Jangoikoaren anparooan. Eldu zaizulaik tentazio, edo trabaju andiren bat, inboka zazu zure guardia; dei zazu, ta klama, guar benaza, Jauna, ta salba benaza, *ezperen galdua naiz*.

Aita Sanduak emantu induljenziak errateagatik orazio gau: *Angele Dei, qui custos es mei, me tibi commissum pietate superna illumina, custodi, regge, et gubernare amen*. O Jangoikoaren Aingiru ona, pobretto gonon guardian dagona, bada beraren piedades orren kargura nago ni, argi ta kida benaza, guarda ta goberna benaza orai te beti. Amen. Aita gure ta abe.



## Martxoaren 7.an

### Sto. Tomas Doktore Aingirua

Sto. Tomas sandu ta xakintsu andia, nior barin bada, Akinoko Kondeen humea, azi zute kuidaoreki, Jangoikoak emana bekalak. Nai zuelaik bein unideak maiolatu, aurkitu zue zeukala eskua ertxirik, ta artan paper-tto bat: nai zio ken du, baña ainberze negarrai eman zio, ezi utzi zue geldiri gero Amak kendurik, ta leiturik ziona ze Abe Maria: baña negarrez bitarteo beti aurttoa, itzuli arteo; itzuli ziote, ta berla ixil: eraman zue bere eskuttoas agora, ta gutibana urtus iretsi zue: baita mostra ona, Birjin Amaren debozioan azitzen zela esnean ere, ta izanen zela gero agitz deboto, nola izan baize. Bortz urtetako aurra zelarik, entregatu zute S. Benitoren konbentura, monjeeki an atra zeien ongi azia, nola atra baize. Guzis ze mutiko humila, mansoa, modesto geldia ta ixila, erraten dena, oneroa, edo onegia, ta obediente guziei gusto egin naia. Laster ikasirik meza laguntzen, on ze bere gustoa; eta orazio mentalean zebatzen asirik egoten ze noiznai bi ordus. Amar urtetakoa zelarik, atra zute estudiatzeko Napolezen gramatika, retorika, ta filosofia, admiratus guziak ain pronto ain ongi ikasteas, eta bateo ain ona ta modestoa izateas. Kobentu gartan azi zenetik zego ia afizionaturik berze munduko gauzetara, apartatu naies mundu gontako usai gaixtotik, emengo elze, ta tipula, ta farraskeria gebetaik. Tratatzen zue Sto. Domingoren Errelijiosoeki, ta afizonatu ze, ta artu zue aien habitua, zelarik oraño amalaur urtetakoa. Anitz arritzeko, ta errateko eman ze sartuas errelijione gartan mutiko bat ain ilustrea, ain gastettoa, esperanza ain anditakoa; batzuek murmura frailees engañatu zutela; berze batzuek buratsoes nola permititzen zuten; berze batzuek, aurkeria izan zela: bitarteo etzire falta zenbait admiratzen zutenak ongi egina, baitare imitatzen. Ama baizego berze erri batean, jakin zueneko berria, etorri ze Napolesa, ikusi naies bere semea: baña onek etxakin zer intenzio zekarran, ta zer agi zeiken, Amaren afekto, itz, otoi ta negarreki, eskatu zue erman zezaten andik berze leku batera. Erman zute Romara: baña araraño segitu zio Amak, baña etzue aurkitu an ere, zeren biali zuten Parisa. Amak eskribitu ziote berze bi seme soldado zituenei, atra zeizela bidera, al bazezakete erdetxi beren Anaia Tomas. Aiek beren meneko soldadoen medios arrapatu zute bidean; nai ziote kendu habitua; ezin, ta autxi ziote: ta gaizki trataturik itzes ta obras, biali zute Amagana. Amak ikusi zuelaik bere eskupean, kontent agitz uste zue bai geldiarazi bereki aisa mutikoa, izanik ain obediente humila ta ona. Zer loxentxuak egin

zition, zer kariziak, zer promesak, negarrak, ta gauzak, nork explika? Sanduak atenditzen ta errespetatzen zue Ama bekalak; humil sereno firme errespondatzen zio, etziola iten agrabio, ta deshonorrik, artus bide gaixtoren bat: zuela bokazio, izateko errelijioso: Jangoikoa zela len; ta nai ziola obeditu Jangoikoai. Amak ikusirik etzukela errendiarazi berak, bialtzen zitio bi arreba zituena, ia ebei atendituko zioten anaia; baña aisago despeitzen zitue ebek adiarazis munduaren banidadea, eternidadearen inportantzia, de manera ezi bata bentzait desengañatu ze, ta despreziatus galak, ponpak, ta boda andi ofrezituak sartu ze errelijiosa Kapuan.

Bada bi anaia soldadoek gerratik itzuli zirelaik, ikusirik Ama ta arrebak ain deskonsolaturik, eta Tomas ain tieso firme berartan, soldado bekalak nai zute indarka, itz gaixtoak erran, golpeak eman, kendu nai habitua ta zatikatu ziote. Eta etzezaten agian fraileek tratatu arreaki, edo erman bereki, ertxi zute preso guardieki kastelu batean. Guti ze mutil sanduarendako erretiro gartan egotea, on nai zue estudiatzeko, ta estudiatzen zue kontino: baña etze guti an egin zioten gerra asko ta sobra maneras. Bein billaturik ta alokaturik emakume arro bat engañazean, sartu ze aren kuartoan; lenik asi ze prebenitzen artifizioak modu on medianoan, geroago ta ausartago. Entendatu zuelaik mutil sanduak errebestiturik Jangoikoaren Espirituas erran zitio itz grabeak erreprehenditus aren atrebenzia: ikusi zuelaik itzak etzirela aski, artu sutillite bat, eta arreaki ematera zekio, ezpaze eskapatu. Gelditu ze gaste santua ain alketurik ta ikar ikar, ezi guruze bat formatus paretean sutillite berareki belaurikatu ze, ta negarrez Jangoikoai eskatzen zio guarda zezan beretako garbi; ofratzen ta konsagratzen ziola bere arima ta gorputza betiroko. Zego deitzen ere ta suspiratzen Maria Santisimagana, anpara zezan berea bekalak. Denbora zati baten buruan, dela kongojaren uses, dela Jangoikoaren dispozizios, artu zue lo batek an lurrean pareteain kontra: bitarteo autsirik bi Aingiruek zerutik erran ziote, nola Jangoikoak bialtzen zion kastidade perpetuoaren zingulo gura, ta zeñituzute gerrian ain ertxi erru, ezi idatzarri ze klamatzen. Klamoreetara akuditu zute guardiek, ta galdeginik zer izan zuen, etzue bere bizian sekulan deklaratu niori, baizik bere Konfesoerari: baña efektoan ezaundu ze, ezi libre izan ze gerostik etsai andien gorren tentazioetaik ere: baña naiz eman zekion kastidadearen donoa, da admiratzeko alaere paratzen zuen kuida doa eskapatzean okasioetaik beti, ta emastekien konbersazioetaik de manera ezi erranik bein señoira batek, zergatik ala zebilan iges aietaik, jaioa zelarik emastekiaganik, errespondatu zue, orrenгатик berorrenгатик eskapatzen naiz guzienganik, zergatik jaio nitzan batenganik. Eta arrazioreki, ezi ezperen donoa eman zionak kendu zioke. Ala naiz trataturik ainberze materia genero gartan bere Teologian, ain bir-



jin garbi mantenitu ze, ezi bere Konfesore Fr. Rejinaldok aditu zionak anitz konfesio jenerale, zio, au il ondoan, juramentuareki, iltzela ain garbi honestidadean, nola irur urtetako aurtto bat.

Bi urte pasaturik prisione gartan, etsiturik ia etzela aldatuko, edo Jangoikoaren beldurrez Amak disimulatuki utzi zitue bi arrebak soltatzera anaia, ta leio batetik atra zute, zeudelaik beitiko aldean fraileak etxide ten. Bereala erman zute Napolesa, non in zuen profesioa amazpi urtetan: andik guti Parisa: gero Kolomara, non Alberto magnoreki estudiatu zue Teologia, estudiatus parte libruetan ta pensamentuareki, parte orazio mentalean Jangoikoareki: gañarakoan beti humil modesto ixil ixila, de manera ezi lagunek deitzen zute orgatik idi mutua. Baña Maestru andi garrek ezaundurik arima gonon andia erraten ziote, on deitzen didaze idi mutua? bada nik diot, emanentuela alako marroak, mundu guzia barna adituko direnak. Gerostik ia asi zire erreparatzen Fr. Tomasen xakintasuna ta sandutasuna batean, eta ainberzeko argitasun entendamentuarena iago zela zerutik komunikatua, ezi ez estudios logratua; imposible iduri zekiotela ain denbora gutian ainberze ikastea. Guziek admiratzen, ta bera beti humillatzen, baita xakintsu egiaskoarena au; buru arin banoena bekalaita baita presumitzea; ala nola gariburu bete inklinatzen baita bera, baña buru utsa tieso gora. Biali zute Parisa, non alaber admiratzen ze ango eskola onen xakintasunas. Eman ziote an Maestruaren gradoa: baña progatu bear zen bezperan, balitz bekala munduko inutilena; errepugnatzen zue, etzela gauza, ziola. Akuditu zue beti bekala oraziora: errebelatu zekio ar zezala gradoa, ta zer puntu leitu bear zuen; biramonean egin zue bere aktoa, arritus mundu guzia, S. Buenabenturareki, biak orgatik beti izan baizire adiskide andiak, biak bat baizire kondizioetan: biek defendatu zuzte beren errelijioneak an berean, garaitus ta konfunditus kontrarioak. Biak elkar maite, ta elkar bisitatzen zire. Bein aurkiturik S. Tomasek S. Buenabentura zegola eskribitzen S. Franziskoren bizia, erran zue, utzagun Sandua Sanduagatik trabaja daien, ta utzi zue. Berze bein galdegin zio, non aurkitzentuzu ain gauza onak, nola eskribitzen baituzu? S. Buenabenturak mostratu zitio libru batzuk, tori, ona nondik estudiatzen duten nik. S. Tomasi etzekio iduri aski aiek zirela: zuk bauzu zio, berze liburuen bat berex. S. Buenabenturak sartu zue orazio iten zuen lekuan; mostratu zio Kristo guruzifikatua: tori, Tomas, au da ene liburrik obena berex. Baña libru berean estudiatzen zue onek ere.

Erakutsi zue denbora andian Parisen, gero Bolonian, Roman, Napolesen, barratus doktrinaren argia mias Unibersidade gaietan, plumas mundu guzian, nola iruzki berri batek, agertus ta konfunditus herejeen erroreak, ez solamente bizi zelaik; baitare il ondoan utzi zuenareki eskri-

biturik. Orgatik aborrezitzen baitute, nola ladronek argia estorbatzen diotena ladronkeria: On guziek berriz amatzen, estimatzen, bedeikatzen, ta segitzen dute azertatu naies. Deitzen dute Teologiaren florea, errelijio-nearen tenploa, Elizaren fuertea, fedearen eskudoa, herejeen mallua, eskolaen argia, Doktore Aingirua Jangoikoak erakutsia, Jangoikoaren iturrian edan zuena, ta alako milla, arrazio andiareki: ezi dirudi gizon gartan Jangoikoak bildu zituela bere jakindearen tesoroak. Nola in zue Sanduak egiteko ain jakintsu? Bere arima andiaren gañetik, (eta arimaren andia dago izatean irur potenziak andi, memoria firme, entendamentua klaro, borondatea zuzen sano, biotza noble jeneroso gora) bada orren gañetik bi lan iten zitue, baitire *aplikazio* ta *orazio* kontino biotzeskoa. Ain aplikatu ondaturik zego bere estudiatzen zuen gartan, ezi agitzen ze egotea atzendurik bitarteo gañarakoes, nola bein S. Luis erregeren konpañian zegolaik maian, baizego diskurritzen herejeen kontra eskribitzen zuen gartan, atzendurik jateas, konbersazioas, ta guzietas, goraturik eskua eman zue palmada bat maigañean ziola klaro, ez dezake izan zer errespondatu ontara herejeak. Errege informaturik nola zen, kuadratu ze, ta manatu zue ekartzeko papel ta tinta eskribitzeko, etzekion atzen. Orazioa zue lan prinzipala: beñere etze asten estudioan, in gabe lenik orazio, eta entendatzeko neke zirenetan orazioareki barua juntatzen zue. Ala logratzen zue argitzea.

Sakramentu aldarekoaren presenzian ze arima jeneroso garren azitzea, esnastatzea, erregalatzea. Heri ezipazego, egunoro erraten zue meza, ta enzuten zue berze bat, berak komunkiro laguntzen zuena. Jaun Sakramentuaren alzinean humil amorosten ze, negar amorosos bañatzen, ta admirazios elebatzen ze; ta alako maneran ellegatu ze ikustera misterio garren sekretoak, emen daiken adiaña, ezi berze asuntoetan garaitzen baitu berzeak Sandu gonek, ontan garaitzen du bere burua, nola baita ageri eskribitu zituenetan onen gain. Bere denboran Urbano IV. Aita Sanduak paratu zue Korpus Kristiren festa solemnea, ta Santo Tomasi manatu zio konpontzeko errezu ta meza tugunak oktaba guziko ezin obeki paratuak, apegatzeko debozioaren sua biotzetan. Parisko Unibersidadean tratatu ze Sakramentu gonon akzidenteen gain: Sandu gonek, zeñen eskuan guziek utzi zuten explikazioa, eskribitu zue, ta eskribiturik paratu zue aldaregañean, ta bera beiti humil eskatzen grazia errateko, barin bazego ongi, ezperen, etzezala permiti. Jaun dibinoak agerturik seguratu zio, *ongi eskribitu duzu, Tomas*. Oroat agitu zekio Orbieton, konpondu zuelaik Korpus Kristiren ofizio erran duguna. Oroat Napolesen bere Sumaren irugarren partea eskribiturik, erran zio Jaun dibinoak, *ongi eskribitu duzu nitas. Zer nai duzu premiotako? Sanduak, ez tut nai berzerik, baizik berori, Jauna*. Eta egia zio,



zeren ezi bizi guzian etzue izan berze pretensorik, baizik Jaunari plazer egitea. Irur gauza eskatzen zitio; lenbizikoa konstanzia beraren zerbitzuan: bigarrena konserbatzea erreljioso pobreaken estadoan: irugarrena bere anaia iltzirenen estado-suerteak xakitea: eta irurak logratu zitue. Anitz aparizio izan zue Zerutik ta Purgatoriotik, eta Jangoikoaren aldetik seguranza, kuadratzen zekiola bera ta bere trabajuak. Guziareki ain humil, ain beldurti, ain senzill izatea ainberzeko xakintasunaren erdian, da admiratzeko. Sekulan etzue nai izandu admititu dignidade ofrezitu ziotenak: Egin bai ofizio Zumilenak erreljionean. Zego leitzen bein errefektorioan: emendatu zioite gaizki itz bat berak ongi errana: alaere emendatu bekalarepetitu zue. Gero erran ziotelaik lagunek, zergatik ala in zuen; errespondatu zue, zergatik itz bat ala edo ola erratea guti inporta da, baña humildadea ta obediencia da inporta dena anitz. Berze bein fraile arro batek eskatu zio Prioreai lagun bat joateko limosna billa: Prioreak erran zio ar zezala lenbiziko aurkitzen zuena. Aurkitu zue ain txusto Sandu gau, ark etzuen ezaunzen: erran zio akonpañña zezala, manatzen zuela Prioreak. Istante atra ze arren atzetik, ta nai segitu ta ezin segi, zangoan gaitz izanes, ta ala zoeie atsanditurik: Norbaitek goart eginik erran zio berzeai, ia bazekien nor zen atzetik zeramana? zela Fr. Tomas de Akino. Aitu zuelaik izena, arriturik belauriko eskatzen zio barkazio. Sanduak irrikos goratu zue ziola, nik eztakit zertan dagon kulpaa: ortako dakarrat habitu gau, egiteko nere ofizioa, baita obediencia. Berze batek leioan zegolaik beira, ta Sandua kuartoan berzeeki, erran zio, betor, ikus bez; Fr. Tomas, ara idi bat boladan. Sandua maliziaik gabe joan ze ikustera, non da? non? Berzeak irria gora; bada zer? sinestatu bear zue zeikela bolatu idia? Sanduak, posibleago uste nue zela idia bolatzea, ezi erreljioso batek gezur erratea. Guzietan zue ta mostratzen zue humiltasun ta ontasun bat aur inozente batena bekalakoa, naiz zen gizon xakintsuena: eta ala guziek aurkitzen zute nai zutelarik pronto; guziak tratatzen zitue ongi amoltsu: Guziei ematen bere konseju onak itz gutitan, anitz. Zenbait ona: Pobreza pazientziarik gabe dela kostua irabazirik gabe. Arima oraziorik gabe eztela azitzen, ta ez bizkortzen: Oraziorik gabeko sazerdotea dela nola soldadoa armarik gabe. Eztakit nik, zio, nola persona bat dakiena dagola bekatu mortalean, daiken alegra, ta irri egun. O Sandu ona, badakite bada ori askok, eztakitenek orrek adiaña. Nola in daiken bat jakintsu, galdeginik errespondatu zue, ezi leitus libru bat sollik. Galdegin zio arrebak bein, nola zeiken salbatu. Naiizateareki, errespondatu zio: eta egia, nai barin bada bear bekalaa, ezi Jangoikoak ala nai du.

Baña Sandu gau, gure iduris bizi bear zena milla urtes, nai izan zue Jangoikoak erman beregana berrogei tamargarren urtean. Zelebratzen

zelaik Konzilio jenerala Leon Franziaikoa, Gregorio X. Aita Sanduak manatu zio akudi zezala artara faltarik gabe. Obeditzeagatik paratu ze bidean, ta heritu ze sustenturik batere etziola eskatzen gogoak. Medikuak zerbait eman naiez galdegin zio ia etzuen naiko artu zerbait zena zela: Errespondatu zue, ezi arenkeak, izatekos, sardinen gisara zirenak Parisen, baña Italian etzirenak aurkitzen. Baña entenda daien Jangoikoaren ona bere zerbitzukoeki, Medikuak plazara joanik aurkitu zue Arraiketari bat zekarrana berze arrai-genero bat, baña agerturik aurkitu ze zirela arenkeak. Erman zitue arriturik milagroas: baña Sanduak jakinik agitu zena, estimatu zue Jangoikoaren erregalaa, ta etze atrebitu jatera, bai ofratu bere Majestadeai. Oberatu ze, ta segitu zue bere bideas, baña ellegaturik Bernardoen Monasterio batera, deitzen baize Fosanova baratu ze an, ezaundurik betetzen zela biziaren plazoa. Konfesatu ze ta komekatu ze urtikirik lurrean humiltasun ta erreberenzia guziareki: eskatu zio Jaun Sakramentuari, ar zezala ontzat eskribitu zuena, ta utsin bazue zerbaitean bere intenzioaren bortxaz, barka zezala, guzia sujetatzen zuela bere Eliza Katolikoaren juiziora, zeñen obediencian bizitu zen, ta nai zen il. Errezibitu zue alaber olio sanduaren sakramentua. Eta emanik esker milla in zioten tratamentu onas, goraturik begiak Zerura, ta eskuak gurutzaturik, aurpegia sereno alegre, berze mudanzarik gabe despeitu zue arima Jaunaren eskuetan, Martxoaren 7.an, eta 1274 urtean. Lendanik izan zire señalear bere despedaren: Iltzen egun berean S. Tomas, bere Maestru izana Alberto M. Kolonian bizi zena urrun, asi ze negar ta negar; eta galdegin ziotenei motiboa erran zue, egun il da ene humea Fr. Tomas de Akino, baize Elizaren argi ederra. Ortzi zute konbentu bereko Elizan solemnidade andiareki; eta gloriaren mostratan agitu zire prodijioak: bat ze, ezi mandoa, zeintan ibiltzen zen Sandua, zangoan zuen miñagatik, autxi katea, zeñeki zeukaten loturik, ta joan ze gorputz sanduaren alzinerara, ta an erori ze ilik. Berze bat, ezi ango Priorea itu zegona aspaldirik, apatus oin sanduak, logratu baizue bista. Urte zenbaiten buruan gorputz sandu gura agerturik aurkitu ze oso ta fresko zeruko fragranzia bateki; ta Urbano V.en autoridades depositatu ze Tolosa Franziaikoa, 1368 urtean, 94 urte ilas geros: orduko ia zuela 45 urte kanonizaturik. Kanonizatu zue Juan XXII. Aita Sanduak 1323 urtean, zeñen itza da, zenbat artikulo eskribitu zituen, ainberze milagro in tuela. S. Pio V.ak Doktore 1567 urtean.



## Martxoaren 8an San Juan de Dios

S. Juan de Dios; ona Sandu bat, pobreen konsolu ta erremedio, guziek dezaketena imita; zeñen jendakias ta apellido mundukoas ezauntza guti baita; jaio ze Montmayor deitzen den erri batean Portugalen buratso pobre on batzuetatik: eta diote, bataiatzerakoan soñatu zirela ezkilak milagrosoki. Zorzi urtetako aurra zelarik, ekarri omen zue Sazerdote batek Kastelako Oropesara, non paratu zen Nausi bateki Artzai. Bazekarra bere prinzipiotik sandu izateko mostra, ta azi ona, baize humila ezin iagos, agitz gogorra beretako, ta berzeendako agitz berex, noble, liberala: eta Ama Birgmarene ta bere Seme Jesus onaren deboto biotzeskoa. Egunoro errosarioa, ta berze debozio batzuk, preziso. Ogeita bi urtetan Oropesako Kondeak goratu zuen konpañian defendatzeko Fontarrabia, asentatu ze soldado animoso, baña beti prestu deboto. Faltaturik probisionea, ofrezitu ze joain zela billa urrunkara zeuden kaserio edo etxaldetara: ortako igan ze Franzesei kendurikako bior batean; eta urbildu zelaik, sentituri animalak bere lekuko airea, eman zio lasterrai laurazka, ta bota zue peña batzuen kontra, ta gelditu ze desmaiatu erdi ilik, odola zeriola sudurretaik ta agotik. Bere baitan akorritu zelaik bi orduren buruan, inbokatus Jesus ta Maria belauriko eskatu zue fabore. Agertu ze an Artzaiesa iduri bat, eman ziona edatera ur trago bat, ta animatu zuena. Oneki desagerturik, itzuli ze Juan lagunetara. Denbora gutiren buruan aurkitu ze peligro andiagokoan: Prestua ezaundurik, Kapitan batek eman zio guardatzeko tesoro bat. Au ebatsi zio soldadoek: eta abeak kolera turik manatu zue urkatzeko arbole batetik, etzela balio egiarik, enpeñurik, deusik. Bazemate; ta Jangoikoaren fortunas Kaballero batek, bidea utsinik, an pasatzen zenak logratu zio bizia, baña desterratu zute kanpotik: Itzultzerakoan Oropesara, esker milla emanen Jangoikoai libratuas, bidean jan gabe bi egun pasaturik desmaiatu ze; ta akorritzen asi zelaik ikusi zitue an irur ogi ta baso bat ardo. Etxakin nola zen, ta etze trebe artzera: goraturik begiak Zerura asi ze erraten Aita gurea, ta ellegatzean itz gaietara, eman zaguzu egunoroko ogia, aitu zue boza bat, jan ta edan zazu, ezi zuretako da. Ala kuidatzen zue Zeruak pobrea! Zein Oropesan berriz jarri ze Artzai. Laur urteren buruan berriz joan ze soldado Alemaniara, nondik itzulirik ongi bisitatu zue Santiago bedratzi egunes: andik joan ze ikustera bere sortu-erria: baña emen nior ez ezauntzen berak, ta bera ere

nior ez. Etxakin zer etxetan edo karrikatan jaio zen, alik eta zar batek karanzatik, ta zenbait señaletaik ezaundurik, erran zion il zirela bere buratsoak, Ama fite, Aita gero S. Franziskoren habitua arturik Lisboan.

Joan ze Andaluziara, ta Hospitalean zego beira konpasionaturik heries, naiak erremediatu aien bearrak, oh! Jangoikoak eman balezada medio, ta modu, zerbitzatzeko pobrettoei! zio. Berriz jarri ze Artzai Sevillan: berriz nai ze joan Afrikara Moroan kontra: baña opaturik Kaballero bat zoeiela bere Andre ta laur alabaeki desterraturik Zeutara, joan ze aieki, ta peonzan irabazten zuen alokairuareki mantenitzen zue familia gura, gusto iago zuela ematean, ezi berak jatean. Itzuli ze Konfesoaren konsejus Españarat, eta agiturik itsas-nastekazio andi bat, guziak ia ia galduak kontatzen zire: Sandua sinetsirik zierto, bere bekatuengatik zela, asi ze oius, bota zezatela bera itsasoan, nai bazute izan salbo. Bazoezi botatzera; lenik eskatu zue utzi zezatela erreztzera Aita gurea: ta asirik akabatu gabe, serenatu ze guzia, guziak arriturik nola libratu ziren pobre garren orazios. Ellegaturik Españan prestatu ze egiteko konfesio jenerale bat, ta egin zue bizi guzikoa: ta lanean irabazten zuenetik ahorratu bildu zue erosteko zenbait libru, kartilla, ta estanpa, ta Martxante bekala zebila saldus ta emanen nai zutenei, ta aurrei berexki galdegines bidanabar doktrina Kristioa. Zebilalaik ortan, bide batean opatu zue aurtto bat agitz ederra, baña erdibiluxirik ta oin urtuxian. Lastimaturik bereala eman zitio bere espartin batzuk; baña etzeikela ibili aieki, itzuli zitio aurak. Sanduak, bada ermako zaitut soñean: atoz, para zaite. Bazema bazema prinzipioan aisa, baña geroago ta pizuego, izerditan asi ze; ta iturri batera urbil, erran zio, ene aurttoa, uz nazazu edatera ur-trago bat, ezi pizu zara, ta izerdiarazi nauzu. Aurra utzirik arbole baten ondoan, bera bazoeie ur eske biendako: ta aditu zue atzetik boza bat erran ziona, *Juan de Dios, Juan Jangoikoarena, Granada izain da zure gurutzea*. Beiratu atzerat, ta ikusi zue aurra zeukala eskuan granada, edo mingrana bat, ta erdian gurutzea. Pensatus ortan entendatu zue deitzen zuela Jangoikoak Granadara, ta joan ze, ta zego saltzen bere libruak an.

Denbora gartan zego Granadan Juan de Avila Benerablea deitzen zutena Andaluziako Apostolua arrazio andiareki. S. Sebastianen egun batez predikatu zue espiritu betikoareki, ta Sanduaren saetaetaik pasatu ze adiaraztera Jangoikoaren amoresko saetak, zeñeki naituen errendiarazi gure biotzak. Aren itzak izan zire nola susko saetak traspasatu zutenak Sandu gonon biotza, zein lenik asi ze desaogatzen negarretan, gero atrarik elizatik zatikatus bere tresenak oius erraten bere bekatuak, ematen bere aurpegiari bofetadak, bularrean golpeak arri bateki, beiratzen ta kla-





matzen zerura. Istante juntatu ze mutiko montio bat, ziotela, eroari eroari, ta tiratzen ziotela arrika, loi, ta gauza opatzen zuteneki. Gero joan etxera, ta eskus ta ortzes zatikatzen zitue libru protxal etzirenak, gañarakoak ta imajinak ematen zioite nai zutenei: diru bildu zuena eman zue libratzeko presoak. Gelditu ze sollik atorra ta galzazpieki, ta akonpañaturik mutikoes ta jendeas erotako zeukatenes joan ze Eliza Nausira, an oiua, Jauna, miserikordia niri, bainaiz bekatari andi bat itsuski ofenditu dutena beroren Majestadea. Zenbait Sazerdoteek etzute uste zela ero iduriarazten zuena: Erman zute Avila Benerableagana, ta examinaturik admiratu ze Jangoikoaren espirituaren indarras; utzi zue segi zezan denbora zati bat erakeria on gartan. Segitus karririk barna bere tema gartan, ta sufritus asko tratametu gaixto; flakurraturik azkeneko erman zute eroen hospitalera: loturik an azotatzen zute maiz, alik eta Benerable garrek biali zion erratera, aski zela ia. Orreki gutibana asi ze mostratzen bazuela juizio, ta despeitu ze emanen graziak.

Joan ze billa Benerable gura, zeñeki in zue berriz konfesio jenerala. Bere bokazioa ze pobreei zerbitzatzea, baña etzekie nola. Jakiteko, enpeñatzen zue Ama Santisima, ta zebila bisitatus beraren tenplo famatuena. Guadalupen egon ze ogeitabi egunes konfesa-komekatzen maiz. Bein bakarrik zegolaik Elizan, asi ze erraten Salbea, ta erraterakoan, *itzulizkizu zeure begi miserikordiasiko gñiek guregana*, goratu ze kortina bere kabo, ta Ama Santisimak beiratu zio amorosa. Kortinaren arroituareriki sakristabuak atrarik, ustes nai zion pobre garrek kendu imajinai zerbait alhaja, goratu zue oña, emateko ostiko bat, baña gelditu zekio earturik; ezaundu ta eskatu zio barkazio, ta Sanduaren orazios istante sendatu ze. Oraño etzekie zertan nai zuen enplea zeien, alik eta itzulirik Granadara Avila Benerablearen konsejus, an Ama Birjina Sagrariokoaren Elizan Kristo pruzifikatuaren alzinean, zenen bi aldetaik zeuden Ama. Birjinaren ta S. Juan Ebanjelariaren imajinak, asi ze eskatzen sin sinez, erakutsi zezotela bide segitu bear zuena. Iduritu zekio biek jautsirik paratzen ziotela korona aranzesko bat buruan, ta Birjinak erraten ziola, *Juan, aranze ta trabajuen medios nai du nere Semeak logra dezazun anitz merejimentu*. Sanduak zio, *aranzeak ta trabajuak alako eskuetaik dire enetako arrosak ta klabelak*. Atrarik andik laster entendatu zue misterioa, ezi karrikan zoeielaik ikusi zue etxe baten atarian letrero gau, *Etxe gau alokatzen da pobreendako*. Alokatu zue, ta bildus limosnas paratu zitue berrogei ta sei goatze txipittoa: berla atra ze bere hospitale berri gartara: an garbitu oñak, ta apatu ondoan amorosoki exhortatzen zue len lenik konfesa zeila, sendatzeareki arima, aisago sen-

datuko zela gorputza. Sustentatzeko ta kuratzeko bere pobre gaiek, atratzen ze egunoro karririk barna kapatxa bateki soñean, ta soka bateki bi elze andiak dilindan lepotik; eta boza lastimoso bateki oiua noizean noiz, *Anaiak, emazie limosna zeurendako*. Ala mogitzen zire biotzak, ta gauas espezialki; ta atarira jautsirik ematen zioite ogi, zuku, aragi, ta berze jateko gauza, ta diru: eta Sanuak itzulirik errepartitzen zioite alimentua, ta diruareriki erosten zitue medizina. Ortas landara berak xautu etxea, ekarri ura, egin ontziak, ta goatzeak, ta lan guziak. Gauas erreklinatzen ze bere erien erteen.

Bakarrik egoteak ematen zio pena, ez bere nekeagatik, bai pobreen faltagatik: baña etzute faltarik orgatik. Gau bates ur faltaturik, joan ze eske bi kantaroeki urrun; itzuli zelaik berant, aurkitu zitue onziak garbiturik, ta lan guziak eginik. Galdegin zue nork in zituen? Pobreek zioite, zergatik galdetzen zuen, in zuelaik guzia berak? Nola dateke, ni egon banaiz ur eske? Porfia aiek, berak in zuela. Sanduak orduan, agitz maite zaizte Jangoikoak, zuei zerbitzatzeko bialtzen baititu bere Aingiruak. Berze gau bates euri aizelaik, aurkitu zue karrikan pobre bat kejatzen etzukela aurki aterbe pixka bat. Sanduak, nauzu etorri ene hospitalera? Gogotik ere, zio, baña ez naie joan neure oñes. Sanduak naiz zeraman limosnaren karga, artu zue soñean pobrea: baña ezin jasis erori ze irristaturik. Erreprehenditzen ze bere burua, ta zoeielaik artzera berriz; gaste iduri eder batek lagundu zio, ta eskutik arturik erraten zio, ene anaia Juan, Jangoikoak bialtzen nau la untzera zuri, ta jakin zazun zenbat kuadratzen zaion iten duzuna, nik dut kargu asentatzeko. Sanduak humil, ni naiz bekatari pobre bat, ta on den guzia da Jangoikoaganik: baña eztida erranen, nor den berori? Ni naiz, dio, Rafael Aingirua, Jaunak destinatua zure lagun ta guardiatako, ta zure anaien. Andik guti faltaturik ogi zenbaitendako, etorri ze Aingiru bera Sanduaren habituareriki zekarrala saski bat ogi, ziola, ene anaia Juan, guziok gara orden batekoak; arzazu orai ogi gau suplitzeko falta. Berze bein Jesu Kristo bera pobre-idurian utzi ze ermateta Sanduaren soñetan hospitalera, ta nai zitiolaik garbitu oñak, ikusi zio lllaga bat ederra, istargitzen zuena; ta ariturik goratu zitue begiak beiratzeke aurpegira: ta aditu zue nola erraten zion amoltsu, *Juan, niri iten zaida pobreai iten zaion on guzia*. Erran, ta desagertu ze, baña gelditu ze ainberze erresplandore salan, ezi pobreak turbatu zire, ustes erretzen zen hospitalera, ta oiua iten zute sua sua. Egia zioite, erran bazute on Sanduaren biotzas, baizego erretzen Kristoren ta pobreen amores.

Ia salatus kanpora berri alakoak, asi ze jendea artzen debozio, batzuk beren personeki laguntzeko, berze batzuk limosnaeki. Ia zue ainberze kre-





dita Sanduak, ezi bere itz edo firma aski ze, fiatzeko nornaiek kantidade andiak. Joan zelaik bein eskatzera limosna Tuiko Obispoari, baize ango audientzia errealean Presidente, nola zuen izena ta izengañekoa, galdeginik, errespondatu zue, ezi aurtto batek kidatu zuenak Granadara, deitu zuela Juan de Dios, baita Jangoikoarena, baña etzela trebe izan artzera apellido goi ain andia. Manatu zio deit zeuela Juan de Dios andik alzina: eta egin zio habitu bat pobrea, baña dezentea, tratatzeko persona prinzipaleeki ta etxe andietan. Ez izanes lekurik aski, artu zue berze etxe bat hospitaletako. Gero abrats batzuek erosirik etxe andi batzuk, konbentu izanak, in ziozte hospitale andi bat bear ziren ofizina guzieki: eta Sanduak suplitu zue bear ziren erremedio, Doktore, Barber, Kapellan, asistente, ta gauza guzieki; eta Juan de Dios ze pobre bat abratsa, deus etzuen ta guzia zuena, zeren baizue fabore Jangoikoa, ta gizonen biotzak bere eskura. Eta nork kontu, zenbat ta zein andiak artzen ta ematen zituen limosnak?

Etze kontent kuidatzeas solamente bere hospitaleko heriak ta pobreak, kanpotik zirenak ere erremediatzen zitue, sustentatus familia pobreak, alargun beartsuak, aur ta donzella desanparatuak: ta etzeizen egon alfer, eramaten ziozte Merkatarien etxeetaik elle, ligu, ziriku, mise, ta gauza, trabajatzeko. Ilak ere ortzitzen zitue aurkitzen zituena; ta iago dena, Jangoikoak errebelatzen zio non iltzen norbait. Karidade prinzipalena zue arima ilak biztea, ta iltzeko peligran zirenak libratzea. Joaten ze emakume galetsien etxera, ta ez solamente itzes, negarres, bularretako golpes Kristo guruzifikatuaren alzinean oneratu nai zitue, baitare ofrezituz ta emanen sustentua, eta doteak, apartatzen bazire bizimodu gaixtotik. Eta zenbat konbertitu zitue? Bein zortzi bateo. Bat edo berze exkusatu nai baze, nezesidadeareki, artzen ziozte itza etzutela ofendituko Jangoikoa, itzuli arteo bera; eta bereala zuzen zuzenean joaten ze andre prestu debotaen etxeetara, ta erraten ziozte, nola Demonioak zeuzkien arrapatuturik preso arima batzuk nezesidadeagatik, ta bear zirela libratu: eta bildu ondoan bear adiña, itzultzen ze, ta atratzen zitue: ta asko akomodatzen zitue matrimonioaren estadoan dotatus berak; eta aldi batez ezkondu zitue ala amasei bateo: eta nai zutenak erretiratu sustentatzen zitue bere kostus. Zenbat murmurazio, zenbat burla, zenbat tratamentu gaixto sufritu zuen orgatik, eztaike pondera. Baña Sanduak bere trabajuas etzue ajo-larik, baizik bere Jangoiko maitearen ofensas. Bein aurkiturik kaballero bat konbersazio indezentean, Sanduak humil konsejatu zio guar zeuela: ark eman zio zaflada bat aurpegian; ta Sanduak belauriko paraturik erran zio, eman bezada nai duen guzia bofetada niri, non ta ez dezan ofenditu gure Jangoiko ona. Bizia gogotik nai zue eman Jangoikoaren ta proximoen

amoreagatik. Granadako Hospitale Errealean itxeki ze su egun batez: bildu ze jendeketa, soña ezkilak, anitz lamentu, lastima, ta gauza: baña nior ez trebe sartzera, egones atariak sus ta kees beteak. Joan ze Sandua lasterka: itsu itsua sartu ze atariak barna su ta kee guziaren erditik: igan gora, leioak idiki, artu heriak banaka ta biranaka soñetan, ta pasatu zitue berze alderdira; gero bota zitue goatzeak ta gauzak leioetaik: baña bitarteo bera bi aldetaik suak arrapatu zue erdian: etze agertu ordu erdi batez: ia ila uste zute guziek: baña gero ere niork uste etzuelaik, atra ze bizirik, zegozkiola guziak arriturik beira, nola erresuzitatu balitz; ta andik alzina iago zeukate Sanduaren opinioean: eta lenago tratatu zutena ero bekala, ia guziek deitzen zute Sandu; ta zein Sandu!

Bere esku propios trabaju ematen zena eztaike pondera. Heriei ta guziei zerbitzatzean trabaju zuenas landara, kondenatu ze bere burua beti agerrian ermatera estali gabe, zela euri, zela iruzki, zela otz edo bero: beti oñez ta oiñ urtuxian, abregañean ez sekulan ere. Atorraik beñerez, arren lekuan silizioa. Bere goatzea estera bat, ta manta bat, ta arri bat bururdiko: baña goatze guti bear zue, ezi komunkiro etzue pasatzen ordu bat lo. Elizako baruetan etzue txastatzen ogirik: ortzilareetan ogi ta ur sollik: egunoro baru zela erran daike, guti alimentu artus. Konbidatzen zutelaike, beñere etze jartzen maian, baizik belauriko artu ematen ziotena, ta guardatzen zue pobreendako, ziola, goxoago zaida au, jaten baute nere pobretoek: ta janarasten ziotena ze errauts emanen lenik. Penitziaren aizpa da orazioa: gau geiena pasatzen zue erien zerbitzutan, ta orazioan. Loak ematen ziolaik orazioan, zer iten zue? Kaskarabill batzuk lotu zangoan, ta ibili guti bat saltoka erraten zela, *nai baduk Jangoikoa zerbitzatu, eztuk bear lokartu*: ala arindurik loa, itzultzen ze oraziora. An Jangoikoak argitzen, animatzen, ta errateko ala, Jangoikostatzenzue. An agertzen zitio berzeren asko bear erremediatu bear zirenak, ala nola bekatu iteko intenzio zutenak, konfesioan ixiltzen zuztenak, &. Bere iltzeko eguna ere agertu zio S. Rafael Aingiruaren medios. Ltzeko okasioa bere karidadetik izan ze. Uregurra jautsi zelaik, joan ze eske bere pobreendako; ikusi zue mutiko bat urak zeramala: bota ze bereala libratu naiez: egin zue in ala, baña ezin atra zue: lastimaturik ortas atra ze, ta izozturik otzak lengo flakuriaren gañetik: ezin egones oiñ gañean etzintze bere esteran mantareki. Ezaundurik plazoaren urbiltzea, alaere animatu ze jaiki ta joatera etxes etxe asentatus nori zer zor zion: lan gau egin ta etzintze berriz, ezin jaikis, ezpaze sokorritzeko heriren bati; orduan amoreak indartzen zue. Izan zue errebelazio, pobre bat desesperaturik zoeiela urkatzera bere burua. Jaiki ze goiz gartan Sandua prisaka, ta zoeie paloa arturik: nai zute geldiarazi:



uz nazaze, zio, inporta da inantz noaien: itzuliko naiz fite. Ellegatu ze leku-  
ra, non zegon berzea ia urkatzeko: ikusteariki altxatu zue soka: Sanduak  
agertu zio, ta kendu zio, ta itzularazi zue urrikiturik in nai zuenas, ta kon-  
fianza ta konformidadereki. Sandua kontent arima gura irabazias itzuli ze  
iltzera Jangoikoareki.

Bisitatu zue Señora birtuosa batek D.a Ana Osoriok, ta ikusirik nola  
zegon ol ta estera gañean, ta kapatxa bururdiko, nai zue ermanarazi bere  
etxera. Etzela atrako, zio, bere pobreen konpañiatik. Señorak eskribitus  
Arzobispoari, baize D. Pedro Gerrero, onek biali zio billete bat manatzen  
ziola joateko kuratzera etxe gartan. Sentitu zue, baña obeditu zue: ta para-  
turik biali zion silla batean ermanarazi ze sala, kuarto, ta goatze guziak  
barna despeitus bere pobre onetsiak: badaki Jangoikoak, zio, nai nuela nik  
il zuen ertean, baña ez naute utzi nai: kunpli bedi Jaunaren borondatea.  
Etze aditzen an berzerik, baizik negar, lamentu, ta klamoreak pobreenak,  
bazoekiotela beren Aita, ez ikusteko sekulan berriz. Sandua ere beraxtu-  
rik desmaiatu ze: ta akorritu ondoan eman ziozte bedeizioa, geldi zaizte  
Jangoikoareki bakean, nere humeak, ta ezpagara ikusten iago, enkomen-  
da nazaze Jangoikoai. Eramanik etxe gartan in ziozte in ala: etze protxurik:  
Bisitatu zue Arzobispoak, ta erran zue meza beraren kuartoan, ta eman  
zio komekadura deseaten zuena. Gero galdegin zio ia bazuen zerbait  
pena ematen zionik? Errespondatu zue humil: O ene Aita, ta Artzai ona,  
irur gauza dire ematen didatenak pena garai gontan: lenbizikoa sobra  
ofenditu baitut ene Jangoiko ona, ta guti zerbizatu: bigarrena ene heri  
pobre gaiek nola gelditzen diren: irugarrena intudan zor gebek: ta atra zue  
librua bereki zeukana. Errespondatu zio Arzobispoak, ene anaia, lenbizi-  
ko pena utzazu Jesu Kristoren kontura, baita gure fiadore ta suplituko  
baitu falta zaiguna. Berze biak beude ene kontura, nik kunplituko dut zure  
partez. Gelditu ze agitz konsolaturik graziak ematen Jangoikoai ta Arzo-  
bispoai apatus eskuak.

Gero ezaundu zuelaik erioa urbil, eskatu zue utzi zezatela bakar. Utzi  
zute, ta kanpotik aitzen zute ziola, Jesus Jesus, orren eskuetan enkomen-  
datzen naiz. Eta beiraturik ataritik ikusi zute bere habituareki belauriko, ta  
ustez orazioan zegon utzi zute: baña sentiturik jende arroitu barnean, ta  
etzuela deitzen, idiki atariak, ta sartu zire, ta aurkitu zute ilik belauriko  
Kristoreki eskuan, ta ala egon ze sei ordus, ta egonen ze orai arteo ezpa-  
zute kendu mortaxatzeko; ta kuartoan fragranzia bat Zerukoa, ta gorputz  
ila eder Aingeru bat bekala. Iltze 1550 urtean: ta adinaren 55.an ortzilare  
ta larunbatearen ertean. Famaturik ori, etorri ze infinizio bat jende ze-  
bratzera Sandua. Ilaria izan ze triunfo baten gisara formatus prozesio bat

solemnea; lenean pobre, ta donzella, ta alargun, ta ezkondu erre mediatu  
zituena beren kandelaeki guziak, ta negarres guziak klamatzen zor zio-  
ten faboreak. Gero Kofradiak beren gurutze ta banderaeki: gero Erreli-  
jioneak, ta Parrokia guzietako Eliza-gizonak, Katedraleko Kalonje ta Dig-  
nidadeak, ta Arzobispa: Segitzen ze gorputz sandua bere andaetan, gero  
Tribunaleen Presidente, Juez, ta gañarako Ministroak, ta alde guzietatik  
jendeketa inmensoa elkar erxitus ellegatu naies ikustera, ta ukitzera erro-  
sario, ta medallak ilaren gorputz edo mortaxan. Il orduko, bada dionik asi  
zirela ezkila guziak soñatzen Jangoikoaren birtutez, ta egiten soñu gisa at,  
ez solamente kausatzen zutela sentimentu, baitare mostratzen senti zute-  
la. Meza zelebratu zue Minimoen Jeneralak, zeñen konbentuan deposita-  
tu zen, eta predikua berze Erreljioso batek artu zuenak Tematako diona  
S. Agustinek, *surgunt indocti, et caelum capiunt &*. Goratzen dire letra gabe-  
koak, ta arrapatzen dute Zerua, eta gu geuren letraeki emen inguraka  
loiean &. Eta ez omen ze urte gartan guzian predikatu Granadan predi-  
kurik, zeintan etzen atra Juan de Diosen laudariarik. Jangoikoak adiarazi  
zue Sandu asko milagroeki berladanik: ta gero kanonizatu Aita Sanduak  
Urbano VIII.ak 1630 urtean. Iltzen sala gartan iraundu zue fragranzia  
Zerukoak berrogeitamar urte gerostik ere, espezialki larunbateetan. Ikusi  
zuenak len ta gero, erran lezake, au da ura? Au da Artzai, Soldado, ta Mar-  
txant pobre gura? au da ero gura oius akusatzen zena bere bekatues, ta  
loies ta burlas betetzen zutena! Zierto, Sandu guzietan da admirablea Jan-  
goikoa, baña ontan da prinzipalkiro. Eztakigu zer jendakitik zen, ta ofizio  
humiletan igatu gastezuetua; ta zeren eman zen zerbizatzera Jangoikoai  
pobreetan, beira honraturik noraño! Zierto, gure Jangoikoa ongi amante  
gizonen espezialki pobreen bide da, ainberze plazer duelaik ongi egiteas  
aiei, ta ain ongi pagatzen duelaik an ta emen! Zierto, egia andia da, Jan-  
goikoai zerbizatzeten dionak Nausi onari zerbizatzeten diola, izateko ongi  
munduan ere, trabajuen ertean ere, ta gero ezin obeki eternidadean! Zier-  
to. Ilundura andia dago barraturik mundua barna, ainberze nola utsiten  
baita: guziok garelaik geuren buruen ongi naiak, geienok alaere zerbizata-  
tzen Demonioai, munduai, ta aragai kasi atzendurik Jangoiko onas! Eta  
alaere kejatzen trabaju ta malhur agitzen direnes! Eta gero zer &. &.



## Martxoaren 13.an S. Eufrasia Birjina

S. Eufrasia, zein aipatzen duen Sta. Teresak, t. 2. cant. 94. Jaio ze Konstantinoplan jendaki agitz nobletik, Enperadore Teodosio gastearen denboran. Aita zue Antigono Jaun andia Enperadorearen Konsejuko Senadore: Ama gisa berekoa, ta deitua alaber Eufrasia, edo Eufrosina. Izan ondoan alaba gau, konformatu zire elkarreki biak bizitzeko Anaia ta Arreba bekala: ta urte baten buruko iltze sanduki Antigono, ta Enperadorea ofrezitu ze kuidatzera alabatto gartas, ta kunplitzeko berladanik prokuratu zue desposatzea Senadore prinzipale bateki, zelarik borz urte-tako aurr, emanik arhak ta eskriturak gero bere denborako. Baña pensaturik anitz denbora bear zela pasatu adinera ellegatzeko, eta Ama alarguna oraño zela gastea, tratatu zue oneki matrimoniao, ta enperadoreak ere artzen zue ontzat: baña Ama ona ain urrun zego artzetik estado goi, ezi desengañatzeagatik, joan ze bere alabattoareki Ejiptora, non ere hazien-dak baizitue. An zebiltza bisitazen pobreak, ta egiten limosnak espezialki errelijonean bizi zirenei. Ellegatu zire erri batera, non konbentu batean bizi ziren eun ta ogei ta amar errelijiosa txoil sanduki. Aien jateko guzia ogi ta elzari bein sollik egunean, ta batzuek bi eguntaik bi eguntara. Loa silizio baten gañean, ta alakoa ze bestimenta ere. Nior etzeike atra konbentutik; kanpotik norbait eldu baze, atelzaiak artu errekaitua, ta ematen zue errespuesta. Medikurik etzute deitzen, baizik heritasun grabe andian. Eufrasiaren Amak nai ziote eman kantidade bat urre in zezaten orazio beragatik, ta bere alabagatik, baña etziote artu, baizik zerbait argizari, olio, ta inzensu Elizako.

Sartu zire bein konbentuan Ama ta alaba zelarik zazpi urtetakoa: eta arratserat nai zuelaik Amak itzuli etxera, alabattoak zio etzela andik atrak; baña Abadesak, etzeikela gelditu an nior etzenik ofrezitu esu Kristori boto perpetuoreki, aurrak besarkatus an zegon Kristo guruzifikatu bat erran zue, bada ni ofrezitzen naiz Jesu Kristori, ta iten dut boto perpetuo, izateko emen errelijiosa. Eta au zio ain erresuelta, ezi zenbat erran zioten Amak ta Abadesak angu bizimodu ertxias, etze izan aski, itzularazteko bere Amareki, zeñek ezaundurik zela Jangoikoaren bokazioa, konformatu ze, nola baize ona, ta enkomendatus Jangoikoai negarres, guarda zezan beretako, itzuli ze bakarrik, utzirik an bere prenda bakarra, ta Errelijosak kontent oneki. Amak gero pasatu zue bizitza guzis sandu, ta errepartitus

anitz limosna; ta errebelazio izanik, nai zuela eraman Jangoikoak beregana, errenunziaturik ondasun guziak alabaren diskreziora, ta emanik konseju onak, iltze ditzosa, ta ortzi zute konbentu gartako Elizan. Jakin zuelaik Enperadoreak Amaren iltzea, ta alabaren estado artu zuena, eskribitu zio, ia zegolarik adinean, zetorrela Konstantinoplara, zelebratzera bodak bere esposoareki. Leiturik karta Eufrasiak irri egin zue, ta errespondatu zio, etzela ongi, ta ez arrazio ere uztea Esposo dibinoa Jesu Kristo gloriako Erregea, ezkontzeagatik lurreko gizon bateki, baize lur puska bat, ta sarri izan bear dena arren janari. Etzezala aipatu ere ia alakorik sekulan, ezi nago ni determinaturik, zio, galtzera milla bizi, lenago ezi itzuli atzerat. Orren Majestadeak in bear duena da manatu bil daitzen ene Aiteta-men ondasunak, ta errepartitu Nekazariei, Elizei, ta pobreei, zerbizatzeko nik libre ia Jesu Kristori, nori entregatu nai zen: ta enkomenda benaza Jangoikoai. Guzia egin zue Enperadoreak, Sandak eskatu bekala.

Nork erran ordea orai Sanda gonek andik alzina eraman zuen bizi-modua, birtute azi zituenak, trabaju sufritu zituenak, ta milagro egin zituenak? Amabi urtetaik asi ze barutzen jan es bein sollik egunean, ta asko egunes jan gabe, ta bein aste bat ososoa txastatu gabe amenik. Zerbizatzan ziote berzeei atras ura butzutik, garbitus etxea, egines ofizio apalenak. Demonioak artu zio odio berex; tentatzen zue milla maneras fuerteki barnetik eta kanpotik. Ematen zio kontu Abadesai, ta obeditus, ta beti lanean edo orazioan okupatus, beti atratzen ze biktoriosa. Etsaia etze alaere desengañatzen: beti zebila inkietatzen anitz maneras. Loan ere ametsetan aflijitzen zue imajinazio gaixtoeki. Sanda fuerteago orduan doblatus orazioak, penitenziak, propositoak. Berze medio bat billatu zue gaixtofikatuak, inspiratus monja bati inbidia Sandas. Arrek tratatzen zue gaizki akzioes, ta itzes, deitus hipokrita andinaia, zebilana nondik inen zuten Abadesa; baña etzuela logratuko. Sandak agrabiaturia izanik, alaere joan ta eskatu zio barkazio, ta etzegola kontra. Sanduen lana da ori, berei eskatu bearrean barkazio, berak alzinatzea eskatzera.

Etsai infernukoak ezin eroriarazis Sanda bekaturen batean, nai zue il edo lesiatu, al bazezake: baña nola garai duena bere fabore Jangoikoa? Onen permisos bein bota zue butzura bere butzatoreareki. Erortzerakoa oi u egin zue, Jauna, lagun bezada. Lagunek arturik atra zute zegola irrikos, ta ziola, Biba ene Jaun Jesu Kristo; ez nauk garaituko ik, Satanas. Berze bein emanarazi zio oñean aizkoras, eroriarazi goratik bera, botarazi elze irakiten zegona oñetan, ta alako milla; baña Jesu Kristoren birtutes beti gelditzen ze sana. Iago dena, eman zio birtute, sendatzeko berzeak. Ekart zen zuzten konbentura heriak, an paraturik, orazio egiteareki



erreljiosa gaiek, asko sendatzen zire. Ekarki zuelaik bein Ama batek bere hume txipitto bat sor mutu perlesiatua, manatu zio Abadesak Eufriasiari, atra porteriara, artu aur gura, ta ekart zezala. Egin zue ala, ta ermaterakoan lastimaturik zeñiatu zue, ziola, kriatu zaituenak senda zaizala: ta sendatu ze besotaik utzi gabe. Zeukate konbentuan emasteki bat espiritua ekarri zutena libra zeien aien orazioen birtutez. Asko egin zute, baña etze protxurik; kontra bai ze aro kruel furosa, ezi nior etze trebe urbiltzera; ta jatekoa ematen ziozte urrundani pertika baten mokoan, beldurrak maltrata zezkien, orgatik ere baizeukate loturik katees ta sokas. Enkargaturik Eufrasia kuidatzeas egin zue koraje andiareki. Prinzipioan mostratzen zekio espiritua lotsagarri furosa nola iretsi nai zuela; baña Sandak fuer-te azkeneko errendiarazi zue, ta itzuli ain mansa beldurti, nola ardi bat, de manera ezi Sandaren alzinean etze trebe deus egitera; ta presente etzegolaik, furotzen baze, errateareki, eldu da Eufrasia, gelditzen ze olloturik ikar ikar. Inbidiosa garrek zio, agian sollik da Eufrasia dezakena sujetatu espiritatu goi? Karpa banu, ain ongi in nezake nik ere. Artu jatekoa; ta joan ze ematera; baña arrek istante arrapatu ta bota zue lurrian, ta maltratzen zue mala manera, alik eta etorri zen arteo Eufrasia; ta atra zion eskuetaik erdi ilik. Orreui gelditu ze Demonioa lotsaturik, ta inbidiosa kastigaturik, eta guziak erakutsirik nor zen Eufrasia Jangoikoaren begietan, zeñiek gero ere Superioraren manamendus, arturik enpeñu, atrarazi zue gaixtoa gorputz gartaik; ta bera orgatik ain humil.

Abadesak izan zue Zerutik errebelazio, zein kuadrablea zen Jangoikoaren begietan Eufrasia, ta nai zuela eraman bere Zerura. Tristatu ze ura, faltatzeas konbentutik alako joia. Niori erran gabe zebila negarres asko egun: ta entendatu zutelaik berzeek ere iten zute negar. Ellegatu ze Eufrasia bera xakitera; eta naiz bizitu zen beti sanduki, beldurtu ze alaere, pensatus etzuela aski egin, ta deseatus luza zezon bizia urte bat berere asteko egiten penitenzia. Baña Abadesak animatu zue, seguro zeukala gloria. Ze konbentuan Erreljiosa bat deitua Julia, erreljionean azi bekala zuena Eufrasia, ta maite zuena bere begiak bekala. Iltzerakoan eskatu zio onek logra zezola Jangoikoaganik joatea arren konpañian: oroat eskatzen zio Abadesak. Sanda ilas geros, Julia egon ze aren obian irur egunes negarres: laurgarrenean ale re erran zio Abadesai, nola Jesu Kristok deitzen zuen Eufriasiaren orazioagatik: eta borzgarrenean besarkatus erreljiosa guziak iltze suabekiro. Ogeitamargarrenean Abadesak deiturik bere monjak erran ziozte nola zoeien Zerura, Eufriasiak logratu ziola Jaunaganik: eskonji zezatela berze Abadesa bat, zein ta guziei konseju onak emanik, prinzipalki imitatzeo Eufrasia bizimoduan, manatu zue utzi zezatela bakarrik

bere zeldan gau artan. Biramonean aurkitu zute ilik. Zer den adiskide izatea Sandu edo Sanda bat, ta alako Sanda! Au iltze adinaren ogeitamargarren urtean. Denbora gutis irabazi anitz &.



## Martxoaren 19.an

### S. Josef Esposo Maria Santisimaren

S. Josef ditxosoa aipatzea da arrazio ta debozio ona, izan zelarik Maria Santisimaren Esposo errealdadean, ta Jesu Kristoren Aita ez errealdadean, bai jendeen opinioean. Emendik atra daike kontua, zein ona ta kuadrablea zen Sandu gau guzien ermean Jangoikoaren begietan, eskojitu zuelaik dignidade gartako bere Majestadeak, eskojitu zuenak nai zuena, ta zekizkienak sandu izanen zirenak len ta gero. Ebanjelioan diona da zela, Dabid Erregeren jendakikoa, eta justoa: bi itzes dio aren nobletasun ta sandutasun andia. Izena dio Josef, nai baitu erran amentua, zeren ederki amentatua den dignidadean bekala, grazia, dono, birtute, merejimentu, ta ondasun guzietan. Nola izan zen desposatzea Maria Santisimareki, ezio Ebanjelioan. Autoreek diote ezi trataturik Sazerdoteek paratzea matrimonioko estadoan donzella soberana azi zena tenploan, bildurik an kasta erreale beretik ziren gizonkiak, ta bakotxai emanik eskura bara bat, eta ala guziak paraturik orazioan, mostra zezan Jangoikoak zein nai zuen aren Esposotako, bat batean loratu zela S. Josefen bara; ala ezaundurik zela Jangoikoak eskojitua desposatu zutela Maria Santisimareki. Zela diote alaber pobre bizi zena bere lanetik, ta zurgingoa zela bere ofizioa. Etze ain adinetakoa desposatu zelaik, nola pintatzen ta ponderatzen duten zenbaitek, eztae sobra gaste, baizik adin erdikoa.

Orai eldu da Ebanjelioak diona, *ezi zegolarik desposaturik Jesusen Ama Maria Josefeki, elkarrengana ellegatu gabe, aurkitu zela sabeldun, edo sabeleko fruitu bazuela Espiritu Sanduaren grazias eta birtutez: eta Josef bere Esposoak, nola baize justoa, nai izan zuela joan utzirik ixil ixila*. Emen Interpretetek diskurritzen dute motiboa zergatik. Batzuek ta geienek diote, ezi alde bat ikusirik aurdun, ta etzela beraganik, berze alde etxakin nondik ta nola zen; ezin pensa gaizkirik alako personas, ta ezin uka begis ikusten zena; ala eznai salatu edo eman errateko bide, eztae esperatu jaijo arteo berea etzen humea, orgatik nai izan zela ausentatu Jangoikoaren eskuan utzis guzia, Jangoikoa lagun dakiola. Bear orduan ara Zerutik erremedioa. Jangoikoaren Aingerua lotan agertu zekio Josefi, erraten ziola, *Josef Dabiden humea, etzazula beldurrik izan artzeas Maria zeure Esposa, zeren ezi berabaitan jaijo dena da Espiritu Sanduaganik. Emanen du seme bat, ta deituko duzu beraren izena Jesus, zeren berak salbatuko du bere puebloa beren bekatuetaik*. Zein kontent gelditu bidez Josef, admiraturik bekala, bere Esposa dibinaren dignida-

deas, ta bere ditxa propioas! Zein dilijent atento bide zegon beira, zer manatzen zion, ta zertan in zezoken zerbitzu ta plazer! Bitarteo Esposa Santisimak ere nola estimatzen ta respetatzen Esposo sandua!

Bere denboran atra ze Augusto Enperadoreaganik manamendu artzeko listan mundu guzia; eta zoezi guziak ortako bakotxa bere Erri edo Ziadadera, nondik zuten etorkia. Igan zela, dio Ebanjelioak, Josef ere Nazaretik Belena, zeren baize Dabiden etxe ta familiatik, profesatzeko, bere Esposa Mariareki: eta agitu zela, an zeudelaik, betetzea egunak erditzeko &. Nork pondera, nork entenda, Sandu gonon gozo ta admirazioa lanze gartan? Aingeruen proklamazio, laudario, ta alborozo gaietan? Artzairen bisita, debozio, ta aleganzian? Gero zorzigarren egunean zirkunzision ta izenaren paratzean izan zuen partea munduaren alzineko Aita bekala; ta amirugarrenean ellegatu zirelaik irur Errege gaiek adoratzera aur dibinoa Maria Santisimaren besotan, ta S. Josefen konpañian: gero berrogeigarrenean eramaten zutelaik biek presentatzera Tenploan Jerusalem: presente guzietara Josef aditzen ta ikusten pasatzen zena, nola bide zegon bere biotza? Baña gozoeki nasteka zitue penak ere aldarres: Ara Jangoikoaren Aingiruak erraten dio, *ea, Josef, jaiki ta arzazu aurra, ta beraren Ama, ta zoaz Ejiptora iges, ta zaude an, nik erran artaño: zeren ezi agituko da ibiltzea Herodes aurraren billa galdu naies. Eta Sanduak jaikirik gauas artu zue aurra ta beraren Ama, ta erretiratu ze Ejiptora, ta an zego Herodesen erioztaraño*. Guziau dio Ebanjelioan: baña eztona pensa, bide luze soil neko so gartan pasatu bide zuena Sanduak bere bi onetsi gaien amores! An gero Ejipton egon ziren denboran, zer bere kuidoada, trabajatzeta, ta billatzea sustentatzeko familia! Baña bitarteo aur dibinoa arrapatu naies Belenen ta inguru gaietan il zuzte aur bi urtetaik bera ziren guziak Herodes kruelaren manamendus: baña bera etze orgatik gelditu libre; iltze geroxago. Iltzelarik Herodes, dio Ebanjelio berean, ara Jaunaren Aingirua agertu zekio Josefi Ejipton, ziola, *Jaiki ta arzazu aurra, ta bere Ama, ta zoaz Israelgo lekuetara, zeren il baitire billatzen zutenak aurraren arima. Eta jaikirik artu zitue aurra ta aren Ama, ta etorri ze Israelgo lurrera. Baña aditzeareki, Judean erreinatzen zuela Artxelaok bere Aita Herodesen lekuan, beldurtu ze arara oateko; eta abisaturik lotan erretiratu ze Galileako lekuetara, ta gelditu ze bizitzeko Nazaret deitzen den Errrian*. Math. 2.

Geroxago kontatzen da Ebanjelioan S. Josef honra andiareki, aipatus Jesusen Aita bekala, Luc. 2. nola egin zelaik mutiko dibinoa amabi urtetakoa, joan zirelaik beraren buratsoak urteoro bekala bazkoaren jai solemnean Jerusalem, gero itzultzerakoan aiek, gelditu zekiotela Jerusalem goartu gabe: ta egunaren akabanzan goarturik billatzen zutela aideen





ta ezaunen ertean; ta ez aurkitzeareki itzuli zirela Jerusalem billa, ta gero ere noizbait irur egunen buruan aurkitu zutela tenploan jarririk Dokto-reen erdian aien aditzen, ta galdegiten aiei, guziak zeudelaik arriturik beraren prudentzia ta errespuestaen kasos. Ikusteariki admiratu zire biak; eta bere Amak erran zio, *Seme, zergatik in duzu ala gureki? Orra zure Aita ta ni penas beterik ibili gara zure billa*. Erratan diote berak, ia Jangoiko gisa, *Zertan zebiltza ene billa? Etzekite bear nai zela enpleatu ni ene Aitari dagozkion gauzetan?* Erran ta itzuli ze aieki Nazareta, *ta zegoikiote sujeto aiei, ez solamente Ama Birjinai, baitare S. Josefi, biei*. Nor ezta arritzen itz gontas? Eta ain egia da nola Ebanjelioa. Nork eztu beirutzen ia S. Josef sandu andi poderosoa bekala Jangoikoaren etxean, ikusten delaiak Jesusen ta Mariaren konpañian Nagusi ta buru bekala? Eztu iago aipatzen Ebanjelioak, baizik bein, noiz bataiatu Jesus S. Juan Bautistaren eskus; jautsirik Espiritu Sandua gañera uso baten idurian, eta aditurik Aita eternoaren boza ziola, au da nere Seme maitea, zeintan baitut neure konplazentzia, baitio S. Lukasek, 3. *Jesus zela ogeitamar urtetako adinean sartzen, uste zutena zela Josefen seme*. Eta berze bein arriturik zeudelaik Galileatarrak Jesusen potestadeas ta mintzaeras, Math. 13. baiziote, agian ezta au ofizialearen semea? nondik jakinde gau ta birtute gebek oni? Baña pentsatzen da orduko iltzea S. Josef: pentsatzeko da bere iltzearen ditxa, Jesus alde batetik, berze aldetik Maria zegoziolaik asistitzen. Andik du S. Josefek izatea Patrono, logratzeko iltze onaren grazia. Baña zer grazia da, zeintako ezten S. Josef Patrono propia? bere tuelaiak Jesus ta Maria?

Aizagun S. Teresa, testigo ona, zenen doktrina Elizak deitzen baitu Zeruko doktrina. Kontatu ondoan bere heritasun andiak gastezutuan, ta nola gelditu zen ezindurik, Artu nue, dio, Abogatu ta Jauntako S. Josef glorioso, eta enkomendatu nitza berari gogotik. Ikusi dut klaro, ala nezesidade gontaik, nola berze andiagokoetaik atra nauela ene Jaun ta Aita gonek obeki ezi nekien eskatzen nik. Ez naiz oroitzen orai arteo eskatu diotenik kunplitzeko utzi duenik. Arritzeko da zein mertxede andiak egingidan Jangoikoak Sandu bedeikatu gonon medios, ta libratu nauen peli-groetaik, ala gorputzaren, nola arimaren: ezi berze Sandu batzuei dirudi eman diotela Jaunak grazia sokorritzeko nezesidade batean: Sandu glorioso gonek dakit experiencias sokorritzen duela guzietan: ta nai digula Jaunak adiarazi, ezi ala nola egon zekion sujeto lurrean, Aitaren nonbrea zuelarik Aio izanik, baizioke manatu, ala Zeruan iten duela eskatzen dion guzia. Au ikusi dute berze persona zenbaitek, nik erranik, enkomendatu direnek Sandugoni, baitare experiencias: ia badire anitz beraren deboto berriro progaturik egia gau... Nainuke nik inarazi guziak Sandu gonon

deboto, nik duten experienziagatik ondasun andies logratzentuenes Jangoikoaganik. Eztut ezaundu personarik sinez deboto zaionik, ezpaitut ikusten alzinaturik birtutean, zeren miragarrir probetxu ematen du ari-mein enkomendatzen zaizkionei... Banitz persona nukena autoridade eskribitzeko, gogotik eda nindeike erratean banaka mertxede intuenak Sandu glorioso gonek niri ta berze personei... Sollik eskatzen dut Jangoikoaren amoreagatik, proga dezala ez nauenak sinesten, ta ikusko du experiencias zein on andia den enkomendatzea ta deboto izatea Patriarka glorioso goni, espezialki personak orazio dutenak beti bear liokete izan afizione, ezi eztaikit nola daiken pensa Aingiruen Erreginan Jesus aurrareki ainberze pasatu zuen denbora gartan, eman gabe graziak S. Josefi, zeren ain ongi lagundu zioten. & Vit. c. 6. Sinesten da piadosoki S. Josef gorputz ta arimareki dagola Zeruan, alde bat, zeren gorputza egon baze munduan, jakinen ze non zegoen honratzeko, berze alde, zeren Kristoreki erresuzitatu baizire anitz Sandu, ta sinestagarri da erresuzitatu zuela bere Aita deitua, eramateko Zerura berze gaieki &.





## Martxoaren 22.an

### S. Katalina Sueziakoa Birjina

Sueziako erreinuan izan zire S. Brijida Ama, ta alaba S. Katalina, biak Sandak, zein iago Jangoikoak daki. Alaba gau Sanda izanen zela ta Birjin garbia, ezaundu ze aurzututik, zeren esnea artzen zue gogotik bere Amaganik, ta andre honestaenganik, baña eman nai bazio deshonestaren batek, etzue artu nai niolaterere. Esnetik kenduas geros Ama Sandak entregatu zue errelijosia bati azi zezan: eta bein au koruan zegolaik, Deabruak zezenaren figuran nai zue ilarazi aurttoa, bere adarreki atra zue kunatik, ta bota zue lurrean, eta la aurkiturik Errelijosak artu zuelarik eskuetan, zio Deabruak, Oh! zein gogotik ilen nuen, izan banu lizenzia Jangoikoaganik! Zazpi urtetako zelarik, zeren berze aurreki egon zen dibertitzen popiña iduri batzueki, Jangoikoak Sanda anditako zeukanak etzue utzi kastigorik gabe, ta ala beraren permisios urbilen gauean Deabruak popiñ idurian azotatu zute. Estado artzeko adinera ellegaturik, manatu zio Aitak ezkontzeiela; eta naiz proponiturik zeukan bizitzea betiro Birjin, obeditu zue fiaturik Jangoikoan ta Ama Birjinan konserbatuko zuela Birjinidadea matrimonioan: ta ala izan ze, zeren ezkondurik Kaballero agitz noble sandu bateki Eghardo deituareki mintzatu zio alako maneran, ezi bieki in zute boto kastidadearen, ta guardatu zute bizi guzian, iago plazer iteagatik Jangoikoak enpleatzen zire anitz orazioan, penitenzian, ta karidadesko obra onetan; Kaballero gisa munduaren alzineko, baña Jangoikoaren begietan zire sandu egiasko. Sandaren anaia Karlos deituak bano mundukoikiak erreprehenditzen zitue biak, zeren ziren ain erretiratu debotoak, ta iago bere arreba, zeren bestitzen zen ain llana. Baña Sandak ez solamente etzue aldatu galas, baizik ere aren Andrea erreduzitu zue uztera galak ta banidadeak, ta joatera bera bekala, txukun bai, baña modesta humil llana.

Iltze bere Aita Ulfon Neriziako Prinzipe zena, eta Jangoikoaren inspirazios bere bizikidearen lizenziareki joan ze Romara bere Amagana, egitera konpañia: bitarteo ilik bere bizikide ona, izateareki bera gaste ta agitz ederra, izan zue asko trabaju, nai ezkonarazi anitzek, ta berak ezna. Ones etzuketena, gaitzes nai zute logratu. Ortako altxatu zire leku batean, nondik pasatzen zen berze Matronaeki Elizara, beñerez bakarrik: eta pasatzerakoan, atra zireneko agertu zekiote alzinera oreñ bat, zeñen atzean eman zuten, bitarteo pasatu ze Sanda. Berze bein Ama Sandareki zoeielarik alaba

Sanda, Kaballero barronde zegona beira atra ze joateko beragana, baña istante berean gelditu ze itsu bi begiataik: baña belauriko eskaturik barkazio, bieki otoitz egiteareki Jangoikoak, itzuli zekio bista. Berze bein zoeziarik Asisa Porziunkulara, ezin ellegatu zire, ta bear izan zute erretiratu gauasko etxola pobre batean. Geroxago sartu zire an ladron batzuk, eta mintzatus itz torpe itsusiak gaixakeriara bereala. Sandak klama Jangoikoak: momentuan sentitu ze kanpotik arroitut jende armatuaren, oiuz ziola arrapatzeko gaixto gaiek. Lotsaturik aiek joan zire iges. Baña biramonean itzulirik bidean zoezi ia arrapatzera, ta gelditu zire itsuturik ezin ikusi. Ala Jaun onak daki guardatzen bereak bere aldetik guardatzen zirenak berarendako. Nork pintatu Jaun dibinoari zion amore fiñ firmea Sanda goneki? Eta beraren atenzios, pobreei ziotena? Ogeitabortz urtes egon ze Amaren konpañian, akonpañiatu zue Jerusalengo peregrinazioan, ta asistitu zio iltzerakoan, ta erman zitue beraren errelikiak Sueziara. Gero ertxi ze konbentu batean, baña preziso izanik atrarazten zute, ta Jaunaren birtutes obratzen zue anitz ongi miragarri arimen protxutan espezialki. Señora bat gaizki bizitu zena heritu ze, eta ez Sandak, ta ez berze niork etzukete konfesarazi. Paratu ze Sanda orazioan, eta bereala goratu ze ugaldetik kee ilun beltz bat, ta jarri ze heri garren etxe-gañean, ta ilundu zue guzia de manera ezi etzeizke ikusi elkar, egunas ori, ta alako arroituareriki, ezi lotsarriturik heri tristeak deitu zue Sanda, ta negarres ofrezitu zio obeditzea, ta konfesatu ze, ta biramonean iltze salbazioaren esperanzareki. Ugalde Erromakoa atra ze ametaik, ta zoeie arrapatus Ziudadea; eskatzen ziote guziek Sandari para zeuela uren bistan, libra zezan Jangoikoak orreki Ziudadea. Exkusatzen ze humiltasunes: baña artu ta erman zute bortxas bekala, eta ukitu orduko oñes ura, erretiratu ze atzerat guzia. Zenbat dezaken arima on bateki! Napolesen andre bat tratatzen zuena Deabruak torpeki, Sandak konfesarazi zue osoki, zeren asko alako malhur agitzen den konfesio gaixtoen kasos, zio, eta berak ofrezitus bere orazioak zorzigarren eguneko utzi zue libre. Konfesioko sakramentuaren debota zela espezialki sanda gau da klaro ageri, zeren ezi kostunbratzen zue konfesatzea egunoro, ta zenbait eguntan bi edo irur aldiz: ala egiten zue azken heritasunean, ta etzukelaik errebitutu sakramentu aldarekoa estomagoko gaitzes, adoratzen zue biotzas, humiltasun ta amore guziareki. Azkenean goratus begiak Zerurat, enkomendatus arima Jaunaren eskuetan entregatu zue 1381 urtean. Konbentu garren gañean agertu ze, ta zenbaitek ikusi zute izar bat gau ta egun egon zena ortzi artaño gorputz sandua. Eta gure Jaunak arren atenzios obratzen du asko milagro. Ellega gaitzala ikustera &



## Martxoaren 27.an San Isazio Konfesorea

Jangoiko Jaunak askotan permititzen du izan daien persegitua bere familia munduan, baita Kristiogenea purgatzeko, progatzeko, ta errefinatzeke, baña bateo beti mostrapzen du berea dela. Anitz mostra ta seña-le bada ezauntzeko au, bida dire Kristioen martirio borondateskoak, ta milagro klaro egiaskoak. Balente Enperadore ereje arrianoa izan ze bat persegitu zuena, baña azkeneko bera galdu ze, ta Eliza gelditu ze. Ertxi zitue Elizak, bota zitue Obispoak, martirizatu Kristioak; eta non da orai bera? Baña Kristiogenea Zeruan ta lurrean dago. Inziote Jangoikoaren permisios gerra Barbaroek, etzezan arrek egin Katolikoei. Atra ze aien kontra bere jendeeki: Bitarteo Jangoiko onak inspiratu zio erretiraturik bizi zen Monje sandu bati, deitzen zenai Isazio, atra zekiola bidera. Atra ze bada, ta alzinean paraturik erran zio koraje andiareki, Enperadore Jauna, mana bez idikitzeke Elizak, ta Jangoikoak emanen dio fortuna ona. Aitu, ta ez aitu in zue Enperadoreak; itzik erran gabe utzi erotako, ta segitu zue bere bidea. Berze egun bates oroat erdetxi, ta erran zio, Enperadore Jauna, idiki Elizak, ta itzuliko da biktorioso triunfante. Dudatzen asi ze bi aldiz ala errate garreki; baña kendu zio burutik aialdeko lagotero gaixtoak. Irugarren aldian gero atra zekio berriz, ta arturik zaldia frenotik erran zio, Enperadore Jauna, adi benaza bere onerako: idiki Elizak, ezperen, galduko da. Mintzatu zion leku gartan zire lar ta aranzesko sasidi andiak. Enperadoreak asarraturik manatu zue bota zezatela aietara ero gura, eta bota zute leze barna batean, nondik etzeiken atra. Baña atra zute mellarik gabe irur Jaun txuris bestiturik an berla agertu zirenek: ta berla desagertu zire. Ta ezaundurik Aingeruak bide zirela, eman zio Jangoikoai esker milla.

Eta berriro lasterka joanik lasterbide batetik erdetxi, ta oiuz erran zio, Enperadore Jauna, uste bidezue il nitzala: baña ez, zeren Jangoikoak guardatu nau, errateko idiki dezkiela Elizak, ala garaitukotuela etsaiak, ezperen... Oh! nola diren herejeak! Ezta mellarik ere. Manatu zioe bi Senadore Saturnino ta Biktore deituei, guarda zezatela, itzuli arteo bera. Sanduak, baldin on itzultzen bada ongi, ezta mintzatu Jangoikoa ene agos. Baña orrek eman batalla, ta garaituko dute, ta iges joanik erreko dute bizerik. Guzia agitu ze erran bekala. Balente garaiturik, eskapatu ta altxaturik etxola batean, su eman, ta erre zute an: Sandua bi Senadore gaiek ikusirik

Jangoikoaren gizona zela, ta egia erran zuela, faboratu ta honratu zute agitz; eta etxetto bat inik aien kostus, artan bizitu ze ez gizon, bai Ainguru bekala orazio kontinoan, ta eginas asko limosna bi gaiek ematen ziotenetik, ta konbertitus Jangoikoagana tratatzen zutenak. Azkenean iltze sanduki Martxoaren 27.an laugarren jendemendea erditik gora &...



## Aprilaren 1.an S. Pedro Gonzalez Telmo

S. Pedro Gonzalez jaio ze Fromestan Palenciara borz lekoa dagon billan buratso noble abratsetaiek. Estudiatuak arte liberalak, egin ze Palenciako Kalonje: ta gero Dean, edo Kalonjeen buru, naiz gaste zen orañ, ta munduko bano, guaponai ta arrullo: Eta ala posesio artu bear zuen egunean, baize eguerri-bazkoan, galas bestiturik, ta banidades atra ze bere gisakoeki zaldi arrullo arrogante batean karrikas karrika anitz arroitu, ponpa, ta burrunbareki. Baña ikus daitzen Jangoiko onaren maneratuena konbertitzeko arimak, beraren permisios agitu zekio Dean Jaunari txasko andixko bat: zeren ezi oben obenean zoro zebilalaik karrika nautsian karreraka, erori ze bat-batean bere zaldiareki aintzira loi, ta ongarri zeiken andienean, non guzia funditurik oñetaik bururaño, ia etze gala errestorik, baizik inmundizia: An zire jendearen irriak, oiua, txistuak. Gelditu ze ain konfuso alketurik, ezi etzekio iduri zeikela bizi jendeen artean izan zuena alako desgrazia: eta Jangoikoak bateo argitzeareki biotza, berartan artu zue erresoluzio, bada mundua burlatu da nitas, ni ere burlatuko naiz munduas: eta ala eman bear naiz Jangoikoai betikos despeiturik mundua. Sartu ze bereala Sto. Domingoren erreljionean, utzirik errenta, dignidade, ta esperanza guziak. Eman ze arimaren ontzera, ta adornatzera birtutees. Orazio mentala ze nola fabrika Espirituarena: an ikasi zue izaten humil obediente manso sufritu, penitente: an biztu zekio fedea, ta esperanza, ta guzien gañetik karidadea, au da Jangoikoaren ta proximoen amorea, imitatus bere Aita ona Sto. Domingo: eta nola Sandu gonon intenzio prinzipala izan baize irabaztea arimak Jangoikoaren, eskatzen zio Pedrok in zezan era ere instrumentu dignoa ortako. Estudiatuak ederki bear zena, asi ze predikatzen lenik bizimoduas; gero mias.

Ia gizon berria eginik Kristoren konforme asi ze arimen eizian ibiliskin trabajatzan afanaturik an ta emen asko lekutan Españan. Gauza notagarri bat kontatzen da Sandugontas, noranai zoeien, etzela andik atratzen, konfesatu gabe ango guziak: Zeren bereala tratatzen zue konfesioaren lixuas, ta bere konbersazioa ze bi puntutan, lenbizikoa bekatuaren gaitz, dañu, desgrazia, ta tristuraren gain: berzea konzienzia onaren ona, konsolu ta alegria dutena onek munduan ere, ta gero esperatzen duten felizidade ta gloria betirokoa. Pintatus egia gebek biziro bere modu onareki, mogitzen zitue guziak deseatzera garbitzea konfesioan. Kontatzen ere da, ezi edo-

zein garai, ta lanzean, zekielaik zegola personaren bat konfesatu-bearra, etzela baratzen logratu arteo in zezan lan goi: eta baldin zegolaik erreza-tzen, jaten, lo egiten, edo lan edozeintan, deitzen bazute konfesatzera, bereala uzten zuela errezua, jana, loa, ta lana, joateko artara, zeren iduri baizekio egia dena, arima edozein irabaztea dela nola goratzea lurretik Kristoren odola zebilatena oinpetan. Zelo goneki, ta santidade sendoareki akonpañatu zue anitz kanpañatetan S. Fernando Erregea, lagundus ederki garaitzeko Moroak, garbitus Kristioak. Kastidadearen amazale andia ze; orgatik ez solamente bera etze erori beñere tentazioan, baizik asko tentazale amorostuak beraren disposizio ederras konbertitu zitue onera. Galizian enpleatu ze geienik, non berze miragarrien artean Miño deitzen den ugalde andi garri egin zio zubi bat preziso zena, lagundus Jangoikoak milagroeki, joanes jendeak trabajatzera, ta berze franko laguntzera dirus, ta gauzes. Sandua bera ari ze peon bat bere eskus; ta sustentu bearrean zirelaik, paratzen ze ugalpasterrean, ta etortzen zekizkio arraiak, ta zeude gelditi, artzezkien nai zituena, ta gañarakoak etzire joanen, eman arteo bedeizioa Sanduak. Zubi gura akabaturik, Sandua enpleatzen ze Tui deitzen den Ziudadean, ta Obispadoan arimen irabazten. Beiratzen zute ia, ez gizon lurrekoa becala, bai nola Aingeru bat Zerutik etorria. Segitzen zute urrunetik jendeek bandaka zarrek, gasteek, emasteki, aur, ta heriek ere erremedio-naies arimen ta gorputzen. Milagroak iten zitue nolana: ta arima batengatik joanen ze noranai. Heritu ze Baionan Apez bat: jakin zueneko atra ze Sandua bere paloareki joateko bisitatzen, zitue bi lagun gasteagoak: ebek bidean asi zire mar mar goseak ziotela elkarri, Aita on gau nola baitago inik guti jatera, ezta sentitzen trabajua; baña gu ezta bardin. Ezaundu zue pasatzen zena bien artean: ellegaturik erran zioten, gose barin baduzie, zoazte peña gartara, an aurkituko duzie zer jan oraingoan. Joan ta aurkitu zuzte bi ogi esnea bezain txuri, ta onzi bat ardoreki. Ekarriri zitiote, ta Sanduak erran zioten, zuek jan ta edan zaze, ta sobratzen zaitzena utzaze lengo lekuan. Ala in zute, ta biajea in ta itzultzerakoan joan zire ixil ixila artzera utzi zutena; baña etzute aurkitu: ta Sanduak jakinik Jangoikoaren errebelazios in zutena, erran zioten zergatik itzuli ziren billa. Berze aldi batez eskaturik trago bat Apez baten etxean, au kanpoan zegolaik, atra zioten botellan zegon ondar bat, eta Nausiak itzuli zelaik aurkitu zue beterik ardo txoil onas, ta joan ta bota zekio oñetara kontatus milagroa.

Alako milla egintu il baño len ta il ondoan, espezialki itsasoan tenpesteadeetan agertus ta kalmatus itsasoa: orgatik dute Patrono mariñelek, ta inbokatzan dute deitus San Telmo. Baña gatozin bere eriotzera. Jakin



zue noiz bear zen izan, eta joan ze Tui deitzen den Ziudadera; an azken aste sanduan predikatu zue egunoro, zein preziso den konfesatzea nork bere bekatuak ongi penaturik. Bazkoa egunean eman zio sukar andi batek, eta Santiagora joateko zuen ansiareki, alibiatu zela iduriturik paratu ze bidean, baña bearko itzuli ezin emanen pausurik alzina. Gelditu ze gizon on baten etxean ostatus: an konfesatu, komekatu, ta oliatu ze debozio sumoareki agitz alegre. Deiturik gero etxeko Nausia erran zio, Adiskidea, geldi zaitte Jangoikoareki, ta bera biz beti zureki ta zure etxean. Ni bano-  
 aie bizi obero, eta dut Nausi bat ain ona ta ain liberala, ezi naiz nik guti zerbitzaturik, nai dida pagatu abasto, ta nai nau honratu mereji baño iago. Ofrezitu dida faboratzea Ziudadegom enegatik: ta ala emen geldituko naiz zuen Adiskide ta Patrono bekala, ikusi dezazen zein on den alako Jaunari zerbitzatzeta. Barka zadazu enbarazu ta trabaju eman dizutena nere heritasunean; esperanza dut ene Jaun onak pagatuko dizula ene partez abastoki, ezi ni pobrea naiz, ta eztut zereki pagatu: baña tori ene zinto gau ta guarda zazu ene memoriatan, ezi noiz ere bait protxatuko dizu. Errateareki eman zio zeñidore zuen pobre gura; eta norktiki zenbat baliatu zekion bear orduetan bere ta berzeendako? Gero zegolarik orazioan erregalaten amorosoki bere Jaun onareki sosegu andian sereno alegre entregatu zio bere espiritua bere eskuetan bazkoaren oktaba igandean 1246 urtean. Aingiruek zelebratu zute Zeruan Errege andiareki, eta gizonak munduan. Zori onekoa! Txasko ona izan zue onerako! Segitu bazue munduko banidadea, zer atrako zue? petardo ta perdizio sekulakoa, ta etze ia memoriaik izanen artas munduan. Nausi obeari aldatu ze, ta obeki atra da & &.

## Aprilaren 5.an S. Bizente Ferrer

S. Bizente Ferrer jaiotzearen buratso nobleetaik. Bere Amak zeukalaik sabelean etzue senti pizu ta enbarazurik, ta iduri zekio aditzen zuela aukas noizean noiz txakurtto bat bekala: ta konsultaturik Arzobispoareki, erraten zio arrek hume zuen gura dudarik gabe izanen zela Jangoikoaren etxean Predikari andi bat lotsatuko zituenen otso gaixtoak. Jaiotzearen erman zutelarik bataiatzera, etzire konformatzen paratu bear zioten izenean: ta Sazerdoteak erran zue deitu bear zela Bizente, ta ortan konformatu zire. Amak azi zue bere bularretan kariño ta kuido espezialareki, ta aurttoa ze ain agraziatua, ezi guziek zute maite agitz. Asirik eskolatan ia amar urtetako pasatzen zitue guziak: eta ikusirik nola iten zuten Predikariek, aurak ere bildus lagunak erraten ziote, adi nazaze, ta beira ia predikatzen duten ongi: ta zeñaturik erraten zitue aditu zituenak pulpitotik, alako grazia, ferbore, ta moduareki, ezi arritzen zitue persona larriak ere. Estudiatu gramatika ta logika denbora labur pasatu ze Teologiara, eta bere denboran etze atra Balenklan bera bekalakorik. Agitz deboto ze Jesu Kristoren, ta bere Ama Birjinaren estudiante zelarik ere, ta barutzen ze astean bi egunes, ortzilarean ogi ta ur solles: ala asi ze sandutzeko bideas.

Emezorzi urtetan desengañaturik munduko peligroes, sartu ze S. Domingoren erreligionean, kontent agitz bera, kontent fraileak. Bereala pensatu zue imitatzean bere Aita S. Domingo: mortifikatus gorputza fuerteki enpleatzen ze orazioan al guzia, gero egiten ofizio humilak obediente ixil modesto afable manso, guzien exenplu. Biali zute gero Barzelona ta Leridara, angu Maestrueki atra zeien perfekto guzis, ta atra ze de manera ezi ogeitazorzi urtetan graduatu zute Teologiako Maestru. Valenziara itzulirik, guziek nai zutela, asi ze predikatzen Jangoikoaren itza Jangoikoaren pregonari propia bekala: bera sollik deitzen zute jakintsu, sandu, Jesu Kristoren sierbo digno: eta ala ze ain egiaz, ezi sollik Jaunaren honra nai zue, ez jendeei gusto ematea, bai erretzea biotzak Jaunaren amorean, kontrizioan, ta beldurtasunean. Infernuko etsaiak ezaundurik Sandu gonek iten zion ta inen zion gerra persegitzen zue agerrian ere, nondik eroriaraziko zuen bekatu infameren batean, orreki galdurik Jangoikoaren grazia, ta kredita jendeen erlean, etzezaken atra fruiturik. Orta-ko bein zegolaik Ama Birjinaren imajinaren alzinean eskatzen perseberanziazaren donoa, agertu zekio gaixto gura Hermitaño zar venerable baten



idurian, erraten ziola bera egon zela Ejiptoko Sandu gaien erlean egiten penitentzia, baña gastezutan arro biziturik gero penitentiareki salbatu zela. Zu ere orai etzaitela il penitenzies, gastea zarelaik, utzazu on geroko, ezi jakin beazu dela gizona ain inklinatua aragisko gustotara, ezi goiz edo berant eroriko da, eta ezta ain gaixto bere denboran, nola adin alzinatuan... Ezaundu zue Sanduak etzela konseju goi Zerutik etorria, baizik infernutik; ta ala enkomendatus Ama Birjinai bota zue bereganik, o serpiente zarra, uste duk ezautea ezauntzen? Uste duk garaitu ni nagona armaturik Kristoren birtuteas? Berari konsagratu ziotat gastezutua, zartzutua, ta bizi guzia. Goaie ordu gaixtoan. Oneki joan ze firrindaka. Berze bein paraturik alzinean beltz itsusi baten idurian lotsagarri erran zio, ez aut utziko eroriarazi arteo deshonestoki. Eztiat ire beldurrik, dagolaik eneki Jesu Kristo. Ark, eztuk egonen beti. Sanduak, esperanza diat, eman didanak grazia ongi asteko, emanen didala bukatzeko.

Aldi batez leiturik S. Jeronimoren librua Ama Birjinaren birjinitate perpetuoaren gain, eskatzen zio Ama dibinari, logra zezon grazia iltzeko birjin. Aditu zue boza bat, etzuela Jangoikoak ematen grazia goi guzioi, ezta zuri ere, baizik galduko duzu laster. Aflijitu ze Sandua berri goneki, ta negarra zeriola itzuli ze Ama Santisimari otoi ta otoi. Orduan agertu zekio gloriosa, ta desengañatu zue aiek zirela enemigoaren enbusteriak: etzozula beldurrik izan, ezi flik artu zaitut ene anparoon, ta faboratuko zaitut ilaratño, ez dezan izan indarrrik aski infernuak zure kontra. Kونسولاتu ze oneki Sandua. Baña etze baratu oneki etsaia; baizik etzukuena logra berez, nai zue logratu emastekien medios, ezi naiago du eroriarazi Sandu bat, ezi milla epel. Nola Sandua baize ariman bekala, idurian ere ederra, paratu zio Deabruak señora bati ainberze afizione beragana, ezi nai luke bekaturatu. O pasionearen itsua! baña ez izanes, ta etxakines nola logra, finjitu ze heri andia zegola, ta deitu zue konfesatzeko atxekian. Joan zelarrik ortako, ta bakar zeudelaik kuartoan, Deabruaren heriak deklaratu zio pasionearen sua &. Arritu ze Sandua, ta errebestiturik Jangoikoaren espirituas erreprehenditu zue serioki, exhortatus penitentzia egitera, desengañatus nola bera zegon konsagratu Jangoikoak arima ta gorputza, eta lenago utziko zela iltzera milla aldis, ezi mantxatzera beinere: etzela ere arrazio trukatzera Jangoikoa ta beraren grazia gorputzaren inmundiziagatik. Baña etziokelarrik adiarazi arrazioa, atra ze andik Sandua; ta berzea errabias asi ze klamatzen Sanduaren kontra deshonoratu naies testimonio falsus: baña Jangoikoaren permisios Deabrua jabe zena aren arimaren, jabetu ze gorputzas ere, ta asi ze atormentatzen miserablea. Iganik oiuetara etxekoek aurkitu zute espiritaturik; deitu zuzte Sazerdoteak konjura-

tzeko; baña etze protxurik: Deabruak zio, ez nai zela atrako, ezpanau botatzen eztenak erretzen suan dagolaik ere. Etzute entendatzen ziona, baña konfesatzera deitu zuten bekala S. Bizente, deitu zute konjurtzera. Sandua, etzeiengatik usmatu emastekiaren maldadea, joan ze armaturik orazios ta konfianzas Jangoikoan, eta sartu zeneko kuartoan, Deabruak in zue oiubat, ona non eldu den erretzen eztena suaren erdian: ia ez nagoke ni iago emen: ta atra ze utzirik emasteki gura erdi ilik. Berze alako zenbait tentazioetaik libratu ze, guardatus Jangoikoak, ta berak kuidatus bere aldetik. Zeren ezi admiragarri da kuidado paratzen zuena beti beldurrik humil konserbatzeko kastidadearen donoa Jangoikoak emana.

Ala Jangoikoak lagundus ibili ze predikatzen Esp aña, Franzian, Inglateran, Eskozian, Irlandan, Piamonten, Lonbardian, ta Italian. Egunoro in bear zue prediku an edo emen: ta emezorzi urteen denboran solamente amaborz egun pasatu zire predikurik gabe. Fruitu atra zuena imposible da kontatzea. Esp añaik atra gabe kombertitu zitue ogei ta borz milla Judio, ta emezorzi milla Moro: Zer bide ze gañarako hereje ta Kristio gaixtoes? Segitzen zute jendeek tropadaka, ta izan ze aldi, noiz bildu ziren laur ogei milla: ta komunki ezin kabituz Elizetan, predikatzen zue plaza ta kanpoetan. Oñes joaten ze beti, alik eta zartzen asirik asi ze usatzen astoko bat bideetako; ta ze ikusgarri nola Ziudadeetan ellegatzean atratzen zekizkion prozesioan errebitzera Sazerdoteak Elizako kapa ta gurutzee-ki, Obispoak errebestiturik Pontifikales, Justiziak beren insignieki, nola balitz Zeruko Aingeru bat, zoeielaik bera bere astokoan humil humila kurturik burua. Erregeak berak Aragoan atra zekizkio errebitzera. Sanduak bereki zemazkie zenbait Sazerdote, errelijioso ta sekulare sandu laguntzeko doktrinatzan, ta konfesatzen jendeak. Orden gau guardatzen zue komunkiro: gauas lo pixka bat egin, ta gañarakoan egoten ze orazioan ta prebenitzen. Goizean joaten ze predikaren lekura; an konfesatzen ze lenik, gero erraten zue meza kantatua solemne organoareki, baizema bereki, pensatus on zela mogitzeko iago biotzak. Gero igaten ze pulpitorra, ta beiratzen ta aditzen zute nola gizon bat Zerutik etorria, itzik galdu gabe. Pretensio prinzipala zue mogitzea biotzak penitentiara zela Jangoikoaren beldurrez, zela amorez, ta plantatzea bere Majestadearen estimazioa ta honra munduan. Maiz klamatzen zue Aingiruaren pregoa gura, timete Deum, eta date illi honorem, izazie beldur Jangoikoai, ta emozie dagokion honra, ta estimazioa. Bere presenzia onas landara, entendamentua zue klaro, injenioa agudo, memoria firme, doktrina eskojitua, boza fuerte garbi penetrante, ta akzioea propia, adiarazteko nai zuen gura. Lenik bere biotza mogiturik mogitzen zitue berzeenak, berak nega-





rres inarazten zue negar. Kristoren pasio, juicio finale, ta infernuko penaeen gain mintzo zelarik, sutzen bekala ze bera, ta ikarazten, ta ikarazten zitue adizaleak de manera, ezi askotan asten zire an klamatzen, ta konfesatzen oiuz beren bekatuak, ta barkazio eskatzen negarres.

Baña predikatzean etze sollik S. Bizente, arreki bateo ze Jangoikoaren Espiritu Sandua ematen ziola argi, ta su, ta indarra. Askotan pulpitoan berean errebelatzen zio eldu zirela aditzera ia Judioak, ia Moroak; egoten ze etxideten ixilik guti bat: askotan inspiratzen zio erran bear zuena konbenzitzeko, ta predikarazten zio pensatu etzuena. Askotan erakusten zio nor zegon bearrean, ta arri beira mintzatzen zio biotzera. Urrunetik aditzea ain klaro ze komun; askotan lenguaje batean mintzaturik entendatzen zute berean berze lenguaje bat zutenek. Aingiruak ere ikusten zuzte beraren inguruan. Bada milagro obratzen zituenak ezin konta ala dire: Jangoiko Jaunak zion amorea mostratzen ze klaro. Bein zegolaik predikatzen Zaragozan, berri bat izanik Jangoikoaren partetik, asi ze negarres, andik guti bat igortzi begiak ta sosegaturik erran zue, ordu gontan il da ene Ama Valenzian, eta naiz tristatu nai zen galduas, baña alegratzen naiz orai, zeren Jangoikoak errebelatu didan erman dutela Aingiruek Zerura bere arima. Gero jakin ze nola izan zen egia erran bekala. Berze bein zegolaik predikatzen Alexandrian, baita Lonbardian, erran zue, o ene anaiak, berri on bat ematen diziet, dagola Eliza gontan mutil bat izan dena S. Franziskoren errelijionearen honra, ta Italia ta Eliza guziaren argi ederra, ta kanonizatuko duena Elizak ni baño len. Au izan ze S. Bernardino de Sena, zein kanonizatu zuen Nikolao V.ak borz urte lenago ezi S. Bizente Kalixto III.ak. Oni gaste zelarik Valenzian erran zio len ta lenda-nik, nola bear zen ellegatu izatera Aita Sandu.

Milagro andia izan ze jautsitzea Zerutik bere Aita S. Domingo, ta laudatzea Sandu gau nola bere hume propia. Milagro andiago Maria Santisima bera agertzea, ta zeukala Sandu gau bere anparoan betikos. Milagro andiena Jesu Kristo berak bisitatzea Sandu gau heri zegolaik Abiñonen Benedikto XIII.a Aita Sandu deituaren kortean, ta sendatzea, ta manatzea zebilala mundua barna beraren Pregonari bekala, ta ofrezitzea korona: ta amorearen señaletan ukitu zio matela bere esku dibinoas, ta gelditu omen zekio erien marka. Baña Sandu beraren medios in zituenak nork erranentitu? Badio kanonizazioaren bulan Aita Sanduak: Bera zela medio birtute dibinoak in zitue anitz milagro, dio, bere predikazioaren ta bizitzaren konfirmaziotan, anitz Demonio atrarazi zitue gizonen gorputzetaik, anitz sorrei eman adimentua, anitz mutuei mintzoa, argituitsuak, garbitu leprosoak, biztu ilak, bizkortu heriak. Guziok dire Aita Sanduaren itzak.

Jaiotzetik zuela milagro iteko donoa, diote; bedratzi urtetan zeramatela etxes etxe egiteko milagroak. Eskolara zebilalaik joaten ze berze mutikobaten billa, biak joateko: Bein ortara joan zen batez, erran zio arren Amak nigarti, ia ezta joanen iago eskolara zureki ene mutikoa, zeren il baita: sarri ermako dute ortzitzera. Igan ze Bizente, ta aurkitu zue mortaxaturik bi kandelaen erdian: eta arturik eskutik oiuz egin zio, ea xaiki, goazen eskolara. Bereala jaiki, ta segitu zio bizi ta bizkor. Errelijioso zelarik, zeramate txintxa bat soñatzeko egitera milagroak, ta bere garaiean erraten zio lagunai, soña txintxa goi milagro iteko. Egun emen dago Zamoran txintxa gura, ta soñatzen omen da berez, il bear delaik errelijosoren bat. Predikukoan sartu zelarik señoira bat aditzera, Sanduak pulpitotik erran zio itzuli zeieela etxera bereala, zela preziso. Itzulirik aurkitu zue bere nekatoa zegola itozteko bere aurra erdi ta berla. Erremediatu ze ala. Leridan Prioreak erran zio, gure ongiegille bat heritu da, zoaz ikustera. Entendatzen dut, errespondatu zio Sanduak, orrek nai du noaien egitera milagroren bat: zergatik eztu iten berorrek? nik in beartut guziak? Bidoeie, flik ematen diot ene podorea sendatzeko ez solamente señoira goi, baita opatzentuen guziak ere. Ala sendatu zue Prioreak ura ta berze anitz. Oroat komunikatu zio Kastellonen ango Prioreai. Zer da ematea ebei, eman zio-laik bere zapeta bati, zein baitago Valenzian kuratzen heritasunak? Okañan meza erran bitartean erman zute Sanduaren kapa, utzirik berze bat berria. Sanduak ezaundurik tranpa erran zue grazioso, kapa zarra erman didate; on dakiotela: nik badakit inen duela asko milagro; ta emen dago egiten orai arteo. Ferraturik bein bere astokoa, pobre nola baize, erran zio arotzai, Jangoikoak paga dezola. Onek zio, nik orreki ez-tut atratzen jan bear dutena, baizik diruareki. Sanduak, bada ene anaia astokoa, itzulizkiozu ferra goiek Jaunoni. Momentuan bota zitio an. Arriturik arotzak paratu zitio berriz doaiik. Tabernari batek eskatu zio predika zezala pagatzeko ermaten zen ardoa; iten ziotela erman ta ez pagatu. Sanduak ekarrarazi zio pitxera bat ardo; bota zue bere eskapulario gañean, eta pasaturik beitat ardo, gelditu ze gañean ura. Ikusteunzu? erran zio, in zazu justo dena zuk, ala nola nauzun in dezaten berzeek. Pasatzean karrika bat aitu zue lamentatzen emasteki bat etxe batean. Sarturik an Sanduak galdegin zue kausa. Andreak, Jauna, ez naike bizi senarrareki, beti bainauka maltratzen, eman gabe nik motiborik: guzia dago aborrezitzen bainau itsusia nai zela. Sanduak irrikos paskatu zio eskua aurpegitik; istantean gelditu ze miragarriri eder. Berze bati sudurra falta zekio, ta humil humila Sanduari eskatzen zio erremedio, konbeni baze. Sanduak paraturik en iak utsgune gartan istante atra zio sudur bat perfektoa. Berze batek





eskatu zio oroat, baña Sanduak atra zio sudur bat enormea. Kejatzan ze nola etzion egin berzeari bekala: Sanduak errespondatu zio, zeren ark fin ones eskatu zuen, ta zuk fin gaixtos: ta ala utzi zue palmo bat sudurregi. Famatua izan ze milagro in zuena Morellan; joan zelaik predikatzer. Nola ezaize an konbenturik, konbidatu zue bere etxeas gizon on batek zuenak andrea lunatika, aldartes zoraturik, aldartes ain sana juiziosa. Ala zego noiz erran zion etorriko zela Sandua sustentu artzera: presta zezala zerbait. Orreki joan zire guziak predikura: bitarteo gaitzak emanik, andre orrek an zuen semetto bat degollatu zue, ta zatiturik parte paratu zue elzean egosteko. Itzuli zelaik senarrak ikusi zuelaik alako desgrazia, ensa zer pena! Kasi urrikitu zekio konbidatua. Baña Sanduak sereno, ea ez afflijtu: Jaunak permititu du au ones. Ekarrarazi zitue aurraren mienbro ta zati guziak, egosiak, erdiegosiak, ta gordinak; Joan ze juntatus zein bere lekuan: ta in zue orazio gau, Jesus Mariaren Semeak, mundua, osasuna ta salbazioa, deusetarik kriatu zuena aur gonon arima, orai itzul dezala bere gorputzera bere izen sanduaren honra ta gloriatako: errateareki zeñatu zue, ta istante biztu ze sano ta fresko: Nor etze arritu bear ikusteas, arritzen garelaik aditzeas ere? Zer gizon da au? ain errebestiturik Jangoikoaren podoreas? iten baitu nai duen guzia? Geiegi iduriturik debekatu ziote egitea lizenziarik gabe. Agitu ze erortzea kisuskille bat agitz goratik, beira Sanduak oiue egin zio, zaude guti bat nik atra arteo lizenzia. Ala egon ze airean, itzuli arteo lizenziareki, ta orduan manso xautxiarazi zue lurrera.

Gizon bat ain Jangoikoas betea ezta milagro ama, estima, ta billa zezaten Jaundiek, Obispoek, Aita Sanduek, ta Erregeek berek. Iltze D. Martin Araguako Erregea heredero ziertorik gabe, ta Aragua, Kataluña, ta Valenziako Korteetan autatu zire bedratzi gizon, irur erreinu baktotxetik, deklarara zezaten nor bear zen Errege, aietarik zire bida S. Bizente Ferrer ta bere anaia, eta Sanduaren sentenzias nonbratu ze D. Fernando 1410 urtean, guziek proklamatzan zutela. Denbora gartan alaber ze zisma andi bat Elizan, baizire irur Aita Sandu deitzen zirenak, eta bildurik Konstanziar Kardenale, ta Obispoen Konzilio jenerale bat, irurak nai zuzte obligatu desistitzera beren pretensiotik. Bidek desistitu zute, ta elejitu ze Aita Sandu berri bat deitua Martino V. Baña irurgaietaik bat baize D. Pedro de Luna Benedikto XIII. deitua, Sanduak lenago segitu zuena, ezin erreduzitu zute uztera, eta Sanduak orduan utzi zue, ta Erregeri konsejatu zio utzezala, ta eman zezola obediencia Martino V: Baña iago dena Konzilio gartan berze anitz difikultade okurriturik, biali ziote Kardenale bat eta zenbait jakintsu konsultatzer. Sandugoni, ta onek Jangoikoaren argis klaratu ziote guzia.

Baña urbildus zoeie plazoa joateko mundugontak mereji zuena bizi-tzea beti. Beti trabajatzan Jangoikoaren Pregonari andi gau ellegatu ze Franziaiko Bretaina menor deitzen denera. Egin zue an ere fruitu andia, baña urteen ta nekeen kargareki ia gorputza zebila ez erori bai erori. Ala ere ze arritzeko gauza, pulpitora igan ta asi orduko predikatzen, errebestitzen ze korajes ta indarres nola balitz gastea. Konsejatzan ziote itzuli zeielara bere sortuerrira Valenziara, ta nola baize amoltsu beratxa, obeditu nai zue, ta gau batez atra ze ixil ixila Vañes edo Beneziatik, etorzeko Espaniarat: baña ustez ibili zuten zenbait lekora-bide onat, goizean aurkitu ze ango atarietan: ezaundu zue Jangoikoaren borondatea zela il zeian an. Sartu ze Ziudadean guzien aleganzia ta festa andieki. Egun gutiren barnean eman zio sukar erru batek: eta naiz beti zegon prest, egin zue Konfessio jenerale bat, ta errebiturik Sakramentu guziak ta Indulgenzia plenaria Martino Vganik, leiarazirik Kristoren pasio, psalmo penitenzialak, ta letaniak, ondorean aleganzia admirable bateki gurutzatus ta goratus eskuak, eta begiak Zerurat eman zue bere espiritu Jaunaren eskuetan 1419 urtean. Eriotze preziosoa bizitzaren konforme. Bada zein gloriosa presentatu bidez arima andi gura Janoiko andiaren palazio errealean! Zer errebiturik in bide zioten asko salbatu zirenek beraren medios, eta Aingiruek, eta ango bienabenturatuek! Egieta-ede delarik iten dela an festa alegrea, konbertitzen delaik bekatari bat, nola festejatu bide zute konbertitu zituena ainberze milla ta milla? Bat sollik konbertiarazten duenak barin badu prenda ona Jangoikoaren alzineko, zer ezta infinizio bat irabazituenak? Zer besarka eman bidezio Jesu Kristok bere gisako langin prestu gonik &.



## Aprilaren 9.an Sta. Kasilda Birjina

Jangoikoas dagona salbatuko da, baña on beroi da edo izanen da ona, ezi Jangoikoaren etxean ezta lekurik gaixtoendako. Ona egia gonon exenplu on bat, Sta. Kasila, zein izanik Mora, ta Errege Moroaren alaba, ellegatu ze izatera Sanda. Ze Toledon Errege Aldemon moroa sektas, Kristioen etsai andia: ebei gerra egines, galdu zitue asko erri, il anitz Kristio, berze anitz erman presidario, zein baizeuzkie kargaturik katees bere karzel ta kalabozoetan bere palaziora urbil goseak ta mala manera. Zue arrek alaba bat, ez bere gisakoa, baizik naturalki biotz-bera ta piadosa, lastimatzen zena preso pobre gaien goseas ta miserias: eta ala ixilkias bialtzen ziote noizean noiz ogi ta jateko gauza, baita ere berak ermaten, sokorritzeko tristeei. Ellegatu ze jakitera bere Aita: koleratu ze alabaren kontra orgatik: baña etzue nai izan du kastigatu, ikusi arteo bere begis. Barronde zegolarik egun bates goart egin zio nola zoeien alzoan zerbait zeramala. Joan zekio serio asarre, zer damazu or? Errespondatu zio, ezi arrosa ta lore. Ikusagun, dio: ta agerturik, oh Jangoikoaren probidenzia! Ikusi zue zeramana zirela arrosak ta loreak. Orreki Aita sosegatu ze; ta alaba gero joan zelaik presoetara, arrosa ta loreak itzuli zire ogi ta jateko gauza. Kontatus agitua, zego ematen Jangoikoas graziak ezaundus Jangoikoaren ona aieki ere, ta aiek bide zirela Jangoikoaren aldekoak. Informatu aienganik beren errelijioneas, fedeas, ta legeas, afizionatu ze, ta nai ze kristiatu, ta berladanik bataiatu, baña etxakin nola egin leku gartan, ta Aitaren konpañian ta eskupean. Ara Jangoiko onaren probidenzia amoroa: Bere eskojituaren onnaiez eman zio gaiz bat, baize odoljariora: erremedia franko eman, eta ezin erremedia. Mediki guziak konformatu zire gaitz gura zela erremediorik gabekoa. Kasildak izan zue abisu dela Jangoikoaganik, dela presoenganik, joateko bañatzera edo artzera bañua S. Bizenteren butzuan edo iturrian, baitago Bribieska aldean Burgostik onat. Erran zio Aitari berri goi, ta eskatu zio, nai bazue ikusi bizirik ta sendaturik, bial zezala bañu gartara. Aitak xakinik Kristio errian zela bañua, nola bera baize Moro Kristioen kontrario, etzue gustorik bialtzeas onat; baña alabaren negarrek, ta Aitaren amoreak errendiarazi zue ortara. Biali zue bada ongi akonpañaturik zerbitzukoas, baitare anitz Kristio preso libre utzi zituenes kartareki Kastelako Erregerendako, zein baize orduan D. Fernando I.a, eskatus kurarazi zezala Kasilda bañu gartan. Erregeke

agituz ongi artu zue, ta honratu zue agitz, ta biali zue bañura; bañatu ze, sendatu ze, ta bereala bataiatu ze; ta despreziaturik bere Aitaren Sekta, ta palazioetako erregaloak, an urbil inarazirik hermita bat, ta aldakan etxe edo etxola bat beretako, bizitu ze humil erretiraturik sollik Jangoikoareki urrengo denbora guzian iltartaño. Iltze gero bizitu bekala sanduki, ta Jangoikoak beraren atenzios egin du anitz milagro, zeñeki aumentatu den beraren fama, ta jendearen debozioa beragana: Eta Eliza Ama Sandak kontatzen ta zelebratzen du bere Sanduen ermean. Onen iltzea izan ze milla ta berrogeita zazpigarren urtean &.



## Aprilaren 13.an S. Hermenejildo Españako Prinzipe ta Martira

Da egietafedea dela lenbiziko manamendua legean, Jangoikoa onetsi ta adora zagula gauza guzien gañetik, au da galdu naia gauza guziak lenago ezi ofenditu bere Majestadea. Kunplitu zue manamendu andi gau. Hermenejildok, galdu nai izan baizue korona Españakoa ta bizia bera, ez galtzeagatik fede katolikoa ofenditus Jangoikoa. Izan zue Aita Leobjildo Errege Españakoa Godoa ta hereje Arrianoa, ta anaia bigarrena Rekaredo, gero in zena Errege, faltatzeareki lenik anaia, ta geroxago Aita. Bi humeak azi zitue Aitak bere Sekta gartan: biak in zire gero Katoliko, lenik Hermenejildo Prinzipea, geroxago Rekaredo. Ezaundurik bada Hermenejildok Jangoikoaren argis, ta S. Leandroren doktrinas zuzenbidea, utzi zue sekta gura, ta abrazatu zue fede Katolikoa: eta orgatik berari afizionatu zekio zirenak Katoliko Españan, ta nai lukete izan bera Errege. Leobjildok alde bat beldurak gora zekion semea erreinuareki, berze alde bere Sekta gaixtoaren zelos persegitzen zue Prinzipea. Onek firme artu zuen propositoan eskribitu zio Aitari atento, ene Aita, asarratzen bada, zeren aldatu duten erreljiones, nik eskatzen diot eman dezadala lizenzia pena artzeko ikusis eznauela utzi nai kuidatzera nere salbazioas iago ezi munduan den guzias. Eta bego entendaturik, nagola prest ematera, bear barin bada odola ta bizia neure arimagatik, ezi ezta arrazio, dezaken iago Aita lurekoak, ezi Jangoikoak, ta indar iago Aitaren borondateak, ezi nere konzienzia propioak. Azkenean faltaturik indar ta sokorru esperatzen zituenak, erori ze Hermenejildo Aitaren eskuetan. Aitak preso ermanarazi zue Sevillara, ta ertxitu dorre batean. Kontatzen du S. Gregorio andiak: nai izan zuela Aitak meatxu, loxentxu, ta promesa andieki itzularazi utzi zuen sektara, Sanduak firme erresisti, etzuela utziko fede ta relijione egiaskoa bein ezaundu zuena. Orgatik Aitak kendu zio erreinua ta zuen guzia: ta lotu bera ertxiago: baña loturik gorputza, libre zeuka biotza ez ajolarik egiteko emengo erreinuas, ta deseatzeko erreinu eterno gura: ta ala kalabozoa tenplo itzulirik, an egoten ze orazioan eskatzen arimo sufritzeko bear zen guzia. Ellegatu zelarik bazkoa, biali zio Aitak Obispo hereje bat, zeñen eskutik errezibi zezan komunionea, orreki artuko zuela bere grazian. Baña Prinzipe Sanduak bota zue bereganik Obispo

herejea akar egines gogorki. Or, aiturik Aitak beterik koleras biali zitue soldadoak ta Ministroak il zezaten an zegon lekuan, ta ala egin ze. Partitu ziote burua aizkora batez, ta kendu ziote bizitza gorputzarena berak aspaldian despreziatu zuena. Baña mostratzeko bere martirioaren gloria, Zerutik izan zire señaleak ta prodijioak, ezi gauas aditu zire musika Zerukoak ilaren aldakan: baitare diotenez argi milagroskoak, benera zezaten Martir bekala Prinzipe Sandua ia Zeruan koronatu Errege glorioso. Aita herejea urrikitu ze eginas, ta ezaundu zue fede katolikoa dela egiaskoa, baña etzue izan koraje bear adiña ellegatzeko konfesatzera jendearen beldurrez. Eta heriturik iltzeko enkomendatu zue S. Leandrori berze semea Rekaredo, zeñi usten zion korona, in zezan oneki nola in zuen berze anaiareki. Enkargu gau in ondoan joan ze mundutik. Enkargatzea on diote izan zela, zeren penatu zen iltzeas Hermenejildo kulparik etzuen, ta zeren ikusi zen zenbait milagro fede katolikoaren progutan denbora gartan. Lenik soldado iltzuen Sandua egun gutiren barnean iltze bera zori gaixtoan miserablekiro. Gero soldadoek errotatzen konbentu bat, nai zuelaik batek heritu Abadea sollik gelditu zena, Jangoikoaren kastigos bera gelditu ze an ilik derepente. Alaber katoliko batek disputatus hereje bateki, egiaren progutako iduki zue burriña bat goritua eskuetan mellarik gabe: ta herejea etze benturatu egitera berze ainberze bere gezurragatik. Alaber hereje bat bere Obispo herejeareki konpondurik iduriaratzeko itsua zela, ta eskatzeko Obispoari eldu zelaik Erregereki, para zezkien eskuak arren begietan argitzeko; pasatzerakoan asi ze eskatzen, o Jangoikoaren sazerdotea, urrikari bedi itsu miserableas; para bez bere esku kon-sagratua ene begien gañean, argi daitzen. Joan ze, paratu zio eskua, eta Jangoikoaren permisios len etzema itsu gelditu ze itsu. Orduan miserableak oi, nola Obispoak inarazion fikzione gura &. Ala joan zire desengañatus herejeen gaixtakeries, ta herejiaren falsedadeas: eta azkeneko ia Rekaredo Erregea S. Hermenejildoren anaia konbertiturik, ta juntaturik Obispoen Konzilio Toledon Erregeren ta Jaundien prezenzian kondanatu ze herejia, ta fede katolikoa laudatu, ta errezibitu ze jeneralki, S. Leandro Presidente zela, Konzilio III. Agitu ze au seigarren jendamendearen akabanzan edo zazpigarrenaren astean. S. Hermenjildo iltze 584 urtean.



## Aprilaren 16.an

### S. Engrazia, edo Enkratis

### Birjina ta Martira

Erreljione Kristioa dela Jangoikoaren biotzeko akar egiaskoa berze anitz progen eratean da bat Kristio Martir anitzen pazienza beren martirio arrigarrietan. Gutti erran dut *pazienza*; koraje admirablea, diot; antsia padezitzeke; ta alegria padezitzean tormentu ikaragarriak: Zeren ezi gure naturalearen kontra delarik padezitzea, ta ortara guziek dugularik natural-ki errepugnanzia, beldur, neke-pena, ta tristura: nork, baizik Jangoikoak ematen ziote aiei pazienza gura? koraje, antsia, ta alegria gura tormentuen erdian? Oraño ere admiratzeko iago da ori emasteki ta donzella delikatuetan; exenplu ere bai guzien; baitare alkaizun oraiko Kristioen. Martir balienta bat izan ze S. Engrazia, edo Enkratis, Portugalen jaioa, Kaballero Jaun andi baten alaba. Aitak konzertatu zue ezkontzea alaba gau Rose-longo Duke bateki. Donzella etzego ezkontzeko, baizik ofratu naiak Jesu Kristori bere birjinidadea, bizia, ta odola: baña informaturik ararako bidea zela Zaragoza barna, ta an pasatzen zenas, baitare Zerutik abisu, an pasatuko zuenas, disimulatu zue bodan: goazen arat, dio, Jangoikoas ala barin badago. Atra ze ederki akonpañaturik bere zerbitzuko, buratsoen kalidade ta estadoari gisan; eta bateo zoezi emezorzi kaballero aide ta adiskide Nobiare konpañian. Au zoeie bidean agitz kontent alegre: onatago ta alegreago. Niork etzue entendatzen aleganziaren motiboa: juizio iten zute, baña ez azertatzen: Sollik andre nobiak zekie, baña ez erraten niori. Misterio sekretoa zego, Jesu Kristok gloriako Erregek eskojitu zuenak bere Esposatako, errebelatu baizio, zelebratzeko bere Majestadeareki bodak Zeruan, bear zuela eman beraren amores bere bizia ta odola; ortako izain zuela eskalda ona Zaragozan. Orra zergatik doaien alegre gure andre Nobia: alegre, padezitu naies tormentuak ta eriotzea. Eztugu ikusi alako filosofiarik, ta kostunbrerik munduan, kontra bai abasto.

Zaragozan, Españako berze asko lekutan bekala, zebila orduan Daziano Presidentea Enperadoreen ordes, nola otso kruel gosetia zatikatzen, erre urratzen, milla maneras ilarazten ardi Kristio arrapatzen zituenak. Ori xakinik alaere sartu ze Zaragozan Engrazia bere akonpañamentuareki. Deskansa bedi: ez eztu sosegurik; Zeruko Esposoari dion amoreak inzitutzen du joateko len baño len Presidenteagana: ala bereala joan

ze; ta presenziara ellegaturik deklaratu zio nor zen, nondik nora zoeien, eta guzien gañetik Kristioa zela Jangoikoaren grazias. Eta zeratik, Jauna, orrek ain kruelkiro ixurtzen du ainberze persona onen odol inozentea, eztutelaik kulparik, baizik estimatzea ta adoratzea Jangoiko bakar egiaskoa, despreziatus Jentilen Jangoiko banoak, ta infernuko Deabru direnak, naiz orrek ta Enperadoreek engañaturik adoratzentuten Jangoikotako? Gelditu ze Daziano turditurik guti bat, beira alde bat donzella garren noblea ederra, ta akonpañatua ain ongi: berze alde libertade ta ausardia, zeñeki mintzatu zen aien Jangoikoen kontra. Dudankara egon ze, ote zekioken disimulatu zerbait, kanpoko izanes ta bide asko, ta personaren, ta akonpañazaleen kalidadeagatik: baña nola baize bereganik gizatzar kruel inhumanoa, ta Jesu Kristoren etsai ta Kristioena, biztu ze iraren suan, ta manatu zue arrapatzeko preso Sanda, ta bere lagunak: eta guziok azotarazi zitue kruelkiro erru: Eta zeren S. Engrazia koraje ta konstantzia andiareki zagon kontino gaizki erraten aien Jangoiko banoes, manatu zue ermateko arrastaka Sanda Ziudadea barna sokas loturik zaldiei. Gelditurik txoil maltrataturik oneki, biramonean eman zitio tormentu berze batzuk, ikaragarriak aditzeko ere; diskurriarazis bere kolerak, ta Deabruak biotza posesios arrapatu zionak, nola penarazi Sanda iago ta iago. Txar-rantzarazi zio gorputz birjinala guzia burriñasko aztaparres ain fuerteki, ezi kendu ziote anitz aragi-puska, ta atra ere gibel-zati bat, zein gero guardatu zen errelikiatoko, ta Pruden zio Poetak dio ikusi zuela. Ebaki ziote ezkerreko bularra, agertu-arteo biotza. Ain lastimaturik utzi ziote gorputz guzia, ezi gero paratu zioten bestimenta gelditu ze odolestaturik, zein ere guardatu omen ze, ta S. Eujenio Toledoko Arzobispoak dio ikusi zuela, ta kontatzen du anitz Sandak padezituaren testimoniotako. Tormentu goiek guziok etzire aski izan, kentzeko Birjin Sandaren biotzetik Jesu Kristo, eztare bere arima bedeikatuaren alegria, seguridadea, korajea, ta konstantzia, zeñeki iltzen zen beraren amores. Ori ikusirik Dazianok, eta etzela akabatzen iles, manatu zue uzteko ala llagaturik bere zaurieki, oñazeak iraun zezan iago, ta luzatus bizia, luzeago izan zeien martirioa: de manera ezi dion bekala ongi Prudenziok, pena erruago izan ze berantzea eriotzea, ezi ematea berla, zeren bizi zen eriotze bizi bateki; ta orduoro biziten ta aumentatzen zire oñazeak. Azkenean frinkatu ziote itze bat kope-tan, orreki akabatu ze, errezihibitzeko martirioaren korona. Emezorzi Kaballero gaiek ere degollarazi zitue kanpoan: eta guzien martirioa agitu ze Aprilaren 16.an, 304 urtean. Sta. Engraziaren gorputza ortzi zue Obispo batek Prudente deituak, Zeruko Sanduen ta Aingiruen akonpañamentu andi milagrosko bateki. Eta guzien errelikiak altxaturik egon zirenak



anitz urtes, agertu zire zimenduaren ondarrean marmolesko bi arkaetan 1389 urtean, ta ezurak ain oso, ta gorri arrosa-kolore. Gero lurpean in omen ziote eliza bat, non baitaude, ta D.n Fernando Katolikoak emanik daukate Monje Jeronimoek. Eta Sanda gonon ta lagunon ain deboto izan ze S. Eujenio, ezi utzirik Toledon zuen dignidadea, etorri omen ze Zaragozara, non egon zen Sandari zerbitzatzen, in zuten arteo Arzobispo Toledoko.

Etze baratu eben ta berze anitzen martirizatzeareki Daziano, baizik ikusirik ango Kristioen konstanzia, ta etzezazkela errendiarazi, determinatu zue akabatzea beingoas. Intenzio goi altxaturik gogoan, pregonarazi zue, Kristio ziren guziak alako egunean atra zeizela beren ondasuneki bizitzeko erri txipietan. Egun gartako prestatu zitue soldado armatuak, ta altxarazi leku sekretoetan. Atra zire bada Kristioak kontent ustez zoezin desterratuak, infinizio bat jende, gizonki, emasteki, zar gaste, ta aur. Atzetik ertxirik Ziudadeko portaleak, ta emanik señaleara, agertu zire beren armaeki soldadoak altxaturik zeuden lekuetaik, ta joan zire iles Kristio inozenteak ta il zute ainberze kantidade, ezi numeroa ezin atras zenbat, deitzen dire Zaragozako Martir innumerableak. Ez kontent orreki sollik, manatu zue biltzeko montonka gorputzak, ta nasteko aieki karzeletaik atra ta ilarazi zituen ladron ta gaizkiegille guzien gorputzak, erretzeko guziak bateo, berexi etzeizken gisan Martiren errelikiak. Egin ze lanori ere; baña zer balio dio? Jangoikoaren probidenzias Martiren errautsak berexi, ta ala nola ore txuriaren bolatto batzuk bildu zire an emenka, gelditurik gañarakoak eramateko aizeak. Eta egungo egunean ikusten omen dire Martiren bola gisa gaiek txuriak istargitzen odol kolores, biktima sagratuak zirelako mostran: ta deitzen tute massas santas ore sanduak. Beira orai orduko ta oraike Kristioen diferenzia, alke gaitzen, ta lastima gaitzen pasatzen denas. S. Engraziak despreziatus boda ta boda andia, billatzen du Martirioa, niork obligatu gabe, Jesu Kristoren amoreagatik: orai ofenditzen da bere Majestadea premia andirik gabe deus guti balio duenagatik! Orduan ez admititzeagatik bekatu bat, andi txipi guziak utzirik etxe ta haziendak zoezi beren ustes ta beren naies desterrura, ta utzi zire degollatzera erresak bekalak: orai ez eman nai ere, eztiot bizia, eztaere ondasun miserable bat beartsuari, egiteagatik plazer Jangoikoai; kontent ezpadu bereganatzen berzerena! Orduan leku guzietan persegituak Kristioak ilarazteko, penarazteko, martirizatzeako, beti erioain etxideten; alaere firme, elkar animatzen, elkar konsolatzen: orren gain konbersazioak, orazioak, prebenzioak: Orai fedea ilundurik, karidadea epeldurik, on da gutiena: gaixtoena da, utzirik Jangoikoa ematea munduari, aragiari, &. &.

## Aprilaren 21.an San Anselmo Obispo

San Anselmo, Sazerdoten perla, jaiotze Augustan. Aita zue munduari emana; Ama berriz birtuosa, etxearen kuidatzen, ta Jangoikoai zerbitzatzen enpleatzen zena. Baña azkeneko Aita ere ondu ze, ta iltze erreligioso. Eman zitiote estudioak semeari, ta amaborz urtetakoa zelarik, pensatus munduan diren peligroak ta lakioak, nai ze sartu errelijioan, baña Aitaren beldurrez etzute admititu. Izan zue heritasun bat peligroskoa, ta berritu zue lengo propositoa lien zegolaik; baña sendaturik joan ze atzendus, ta epeldus, ta gutibana emanen munduko banidadeetara lagun gaixtoeki, ta Amaren iltzeareki. Agitu ze Jangoikoaren permisos, ar zezon Aitak oposizio andi bat, ezpaizue ikusi nai. Asko dilijenzia egin zue semeak palakatzeko Aita, baña etze protxurik. Azkeneko diona errefranak, edo erran komunak, *ezta gaitzik on ezta karrenik*, bear izan zue eskapatzea, ta ordik etorri ze beraren ona. Franzalara joanik estudiatu zue irur urte: ta aditurik, S. Benitoren monasterio batean bizi zela monje bat deitua Lanfranko agitz ona ta jakintsua, norengana zoezin anitz ikastera, joan ze Anselmo ere, ta arreki alzinatu ze anitz estudioan ta birtutean. Biztu zekio berritua lengo deseo gura, despeitzeko mundutik. Baña aurkitu ze duduan, zer bide artu: alde bat inklinatzen bizitzera soil apartaturik guzietatik; berze alde ote zuen obe obedienziaren pean: berze alde iltzeareki Aita ta Ama, bera gelditurik heredero ondasun andien, obe ote zen gobernatzea, ta limosnatzen enpleatzea. Konsultatu zue bere Maestruareki, ta au ere etze atrebitu seguratzera: Biek joanik konsultatu zute Ruango Arzobispo sandu Maurilio deituareriki. Onek konsejatu zio seguroago bekalak egitea erreligioso. Egin ze Maestruaren Konbentu berean, ta eman ze ainberze prisa perfekzioarako estudioan, ezi irur urteen buruko guziek beiratzten zute errelijio guziaren hispillu bat bekalak; ta bere Maestrua Lanfranko aldaturik berze konbentu bateko Abade, aren lekuan Anselmo in zute Priore. Kargu berriareki etzue utzi estudioa, ta aumentatu zue orazio mentala: eta Jangoikoak argitzen, ta erregalatzen zue. Berexki eman zio espirituen diskrezio deitzen dena, au da ezauntzea jenioak, inklinazioak, ta biotzen sekretoak. Bada bere prudenzia, karidadea, mansotasuna gobernatzean Monjeak ze admiragarria, espezialki zerbait inbidia ziotenekiki. Bat izan ze txoil errebelak, zein miragarriri irabazi zue ones bortxarrik gabe mostratus amoltsu beti. Berze bat zarra ia, baña txarra, beti zego





tentaturik Sanduaren kontra: Sanduak orgatik etzue gaizetsitzen, bai onetsitzen. Agitu ze ura heri gelditzea, eta gau bates asi ze iskitrika lamentatzen, iduri zekiola bi otsoek arrapatu ta itotzen zutela. Sartu ze lekuan S. Anselmo, formatu zue guruzearen señaleara erranes, *Aitaren ta Semearen, ta Espiritu Sanduaren izenean*: eta bereala heria sosegatu ze, ta konfesatu zue, ezi Anselmok gurutzea señaletu zuelarik, ikusi zuela atratzen arren agotik susko lantza bat bekala, zeñeki otso gaiek joan ziren iges. Eta Sanduak amoltsu animatu zue, ta konfesatu zue, ta absolbitu zue, ta abisatu zue iruretakoan emanen ziola bere espiritua Jangoikoai: ta ala izan ze, gelditus guziak admiraturik beraren karidadeas, ta Zerutik zuen argias. Benignidade bera zue heri guzieki bisitatus maiz, konsolatus, ta emanen ere bear zutena bere eskus, egines, Aitaren ofizioak ez ezi, Ama amorosoarenak ere; ta ala guziek akuditzen zute beragana, nola aurrak Amagana, deklaratus beren pasioneak ta tentazioak, ta itzulis kuraturik, edo konsolaturik. Zue afizione espeziala, ta dono bakarra, azitzeko gasteak.

Usatzen ze denbora gartan eramatea Kaballero ta abratsen mutikok azitzera Monjeen erlean: Abade bat sandutako zeukatena kejatzen zekio S. Anselmori, ezin zezakela erreka mutiko gaieki, naiz azotatu, ain gaixto errebel! Sanduak desengañatu zue, ones etzuen atratzen, etzuela gaitzes atrako. Naiz noizean noiz eman beren erreprehensioak, maizago bear zirela loxentxuak, ta beti Aitaren eta Amaren amoreareki, ezaundezaten maite tuela beren Maestruak, naiz akar eginik. Diszipulo, anitz azotatuak, komunki atratzen direla gaixtofikatuak. Ala erakutsi zio arri, ta kargudun guzieren ziona geroxago S. Bernardok, *suspendite verbera, producite ubera*. Famatu ze S. Anselmoren santidadea, ta diskrezioa; eldu zekizkio asko lekutaik gasteak naiak ikasi beraren eskupean. Bera igan zute Abaderen dignidadera; bear izan zue pasatu Inglaterrara, ikustera bidanabar bere Maestru izana Lanfranko, in baizute Kantuariako Arzobispo. Leku guzietan ze on gi onetsia, zeren guzieki baize amoltsu afablea: eta erraten zue bear dela prokuratu gusto egitea guziei daiken guzian bekatu gabe, ta ala merijitzen dela Jangoikoaren alzineko. Errege izan ze bat estimatu zutenetaik S. Anselmo: eta aren ondorean semea eginik Errege atra zena gaixtoa Elizaren kontra, Jaun prinzipale onek eskatu ziote Sanduari, zetorren berriz Inglaterrara, moldatzera Errege, al bazezake. Inziote gusto goi Sanduak: joan ze, ta guziek ongi arturik, Erregek ere artu zue ongi, ta egin zue Kantuariako Arzobispo, naiz berak ezna, nai zutela Erregek eta guziek. Ala konsagratu zute Obispo guziek: eta prinzipioan Errege mostratzen zekio adiskide ustez atrako zuen arenganik dirutze andiren bat: baña etsitu zuelarik etziola emanen pobreendako zena, oposizio artu zio,

ta aialdeko gaixtoek su emanen asi ze persegitzen Sandua, Elizagizonak, ta Elizak. Sanduak ezin erremedia, ta uste zue obe zela ausentatzea Inglaterratik denbora zati bateko. Eskatu zio lizenzia joateko Romara Aita Sanduagana. Erregek asarraturik zio, etzela berze Aita Sandurk, baizik bera, Inglaterran. Ori ze ukatzea obediencia Elizaren buruai: eta Sanduak ezin on soporta, ta ezin erremedia berriro eskatu zio lizenzia: eta Erregek etzio eman nai, baizik joatekos zoeiela desterraturik, ez itzultzekotan. Jaintzi ze peregrino gisa, ta despeiturik jendeak negarres akonpañatu zutenak porturaño, ellegatu ze Franzian Leongo Arzobispoagana. Jakin zuelaik Aita Sanduak joanarazi zue Romara; an errezibitu ta honratu zute agitz ongi. Aurkitu ze Aita Sanduaren manamendus bi Konzilioetan: an agertu ze arima gartan zen argia. Gero Aita Sanduaren bedeizioareki itzuli ze Leona: an izan zue berri, nola Errege eziara joanik iltzen traspaturik biotza saeta bateki. Eztaike sinesta, nolako pena artu zuen ortas Sanduak, nola zegon negar ta negar, naiago lukela il balitz bera libratzeagatik ura!

Aren lekuan sartu ze Errege semea Enriko 1.a, zeñek ikusirik ain berze aflikzio erreinuan, asi ze honratzen Elizak ta Sazerdoteak, ta asko otoieki logratu zue itzuli zeien S. Anselmo: zein biali zue Aita Sanduagana Romara, naiz ezin logratu zuen pretensio zuena. Baña gero ere obeditu zio Aita Sanduari, ta faboratu S. Anselmori: ta orgatik agian logratu zue biktoria andi bat. Azkenean Sandu gau ellegaturik iruetan ogeitamasei urteetara, eroririk flakeza andian, etzukela erran meza, ermanarazten ze egunoro Elizara. Plazoa urbidus, errezibitu zitue Sakramentuak sandu bekala, ta emanik bere bedeizioa guzieren, enkomendatus Errege ta Erregina Jangoikoari, erreklaturik zilizio ta errautsaren gañean orduko kostunbrearen konforme, iltze Jangoikoaren eskuetan zilizio ta autsaren gañean 1109 urtean. Honratu zue Jangoikoak anitz milagroeki: Izan ze Ama Birjinaren deboto espezialki &.



## Aprilaren 29.an San Pedro Martir

S. Pedro Martir, herejeen humea, eta Kristio onen alzindaria, ta gaixtoen alkaizuna, Sazerdoteen perla, Errelijiosoan hispillua, fedearen Inki-sidoreen erregla, herejeen mallua, ta Kristiandadearen muralla jαιο ze Beronan, baita Lombardian; eztakigu nor ziren, ta nola deitzen ziren buratsoak, entenda dezaguna, nioren baño iago dela Jangoikoaren humea: Bere izena *Pedro*, baita arri firmea, da mostratzeko bere fedearen firmeza: bere balentia, ta odol ixuria irabazi dio apellidoa, edo izen gañekoa S. Pedro *Martir*. Nork ekarri zuen izatera Kristio katoliko Manikeoen hume gau, nork daki? edo obeki errateko, nork eztaki? nork dezake duda, ezi Jangoiko guziz poderosoak, atratzentuenak aranzeataik arrosak, txingarrietatik suak, peñaetaik urak, eta dakienak egiten arri gogorak Abrahamen hume? Jaiotzez dirudi zekarrala inprimiturik biotzean fedearen amorea, ta herejien odia, zeren ezi naiz nai zioten esneareki txuparazi aien benenoa, etzukete beñere ez loxentxus ta ez meatxus, ez erregalos ta ez palos, ez ones ta ez gaitzes inklinarazi segitzera aien sekta, edo ukatzera fede katolikoaren egia. Bein eldu zelaik eskolatik zazpi urtetako adinean, aurkitu zue Osaba herejeak, Aitaren anaiak, ta galdegin zio zer ikasi zuen? Aurra errespondatu zio ezi Kredoa; ta asi ze erraten, Nie sinestutzen dut Jangoiko Aita guziz poderoso Zeruaeren ta lurraren Kriadorea baitan. Ez ez, aurtto, dio osabak, eztuzu erran bear Zeruaeren ta lurraren Kriadore Jangoikoa, ezi ageri diren gauza gebek Demonio gaixtoak egin ditu. Porfia aurra Jangoikoa dela in tuena, porfia Osabak ezetz, baño ezin kendu zio bere tema Sandua ez arrek, ez bere Aitak gero, naiz akar, naiz eskuas eman: firme Pedrino berartan, baizoeie azis Martirtako. Ikasirik ederki eskola, biali zute Boloniara, segitzeko estudio goragokoak.

Boloniako Unibersidadean ainberze estudiante gaste, ainberze gaixtoen erlean mantenitu ze firme alaber, Jangoikoaren karidadean, ta kastidade garbian, asentaturik xakintasanaren prinsipio Jaunaren beldurtasuna. Guziareki ez fiatus bere buruas munduko Babilonia, ta Ejiptoko elze ta tipula, eta farraskerien erlean, nai izan ze erretiratu errelijionearen portura, ta admititurik gogotik artu zue S. Domingoren habitua beraren eskutik, ta bateo beraren espiritua: zeren ezi eztaike erran itz gutis, nola denbora labor adornatu zen birtute guzies arima on gura. Sekulan etzego alfer; beti bai okupaturik edo orazioan, edo leitzen, edo heriei zerbitza-

tzen, edo gañarako lan direnetan errelijionean; ta zenbatenas apalago, kontentago. Penitenziako obretara, silizio, disziplina, mortifikazio, baru, ta alakoetara ain zego emana, ezi aldartes sobra ere ze, ezi bein egon ze iltzeko peligroan alimentu-faltaz, ezin idiki agoa instrumentueki ere, pasarasteko zerbait sustanzia bizitzeko diña. Estudioetan agitz protxaturik, agitz birtuteetan, ia Fr. Pedro de Berona, ala deitzen baizute, beirutzen zute guziek sandu ta xakintsu, beretako gogor, berzeendako beratx, Jangoikoaren ta gizonen begietan perfekto faltarik gabe, ta dion bekala Brebiarioak Sanduganen errezuan, gorputza ta gogoa ain ongi guardatu zue mantxa denetik, ezi beñere bere bizian etze sentitu mantxaturik bekatu graberen batez. Ia Jangoikoak kuadraturik arima gartas admititzen zue bere komunikazio sekretoan, besarka, ta unione amorosoan. Ia lurrean gorputza naiz bai, gogoa beti zeruan, angoeki zue konbersazioa, ta andik zitue erregaloak. Bein eman zioze txasko-iduri bat pazienziaren errefinatzeko: zegolaik orazioan bere zeldan, etorri zekizkio Zerutik Jaunaren ordeze S. Ines, S. Zezilia, ta S. Katalina, ta berarias bekala mintzatu zioze ain klaro, ezi pasatzean klaustroan fraile batek aditu zue emastekien mintzaera edo boza: non gogoratu zirela Zerukoak? Eman zue kontu Priorai: onek Kapitulo publikoan erreprehenditu zue gogorki. Sanduak eznaiz agertu fabore Zerukoak, eznaiz ere diskulpatu bere burua humil-utses, etzue berzerik egin, baizik paratu belauriko lurrean kopeta, ta konfesatu zela bekatari. Satisfakzio emateko eskandalo artuas, biali zue berze konbentu batera urrun desterratu bekala: ikusi daien, nola Jangoiko onak erregalatzan ta progatzentuen bere onetsiak, ta eben pazienzia trabajuetan. An zego Sandua penitenzian zokoraturik, esperan, noiz Jauna atrako zen deklaratzera beraren inozentzia: baño egon ta egon, ta niandik ez ageri konsolurik, asi ze tristatzen, ta aflijitzen gure preso onegia: eta paraturik Kristo guruzifikatuaren oñetan asi zekio ematen bere keja amorosoak, Jauna, zio, ene Jaun ona, da posible utzi nazan ala desanparaturik pena gontan, berorrek in zidan faboreagatik? Ni zergatik nagon ixil, eztu orren Majestadeak adiaraziko, ez nuela kulparik? Errespondatu zio Kristok, eta nik, Pedro, zer kulpua nue, paratzeko gurutze gontan? Ikasazu eneganik izaten pazienzia trabajuetan. Gelditu ze Sandua konsolaturik ederki, ta animaturik gose trabajues iago ta iago naiak alako Jaunaren amores: baño Jaun dibinoak laster adiarazi zue Sanduaren santidadea; ta andik alzina beirutzen zute Jangoikoaren gizona, ta Zerukoak bekala.

Ia testimonio ona zuelarik kanpotik ere, ta barnetik konzienzia ohea, Jesu Kristo guruzifikatuaren imajina bizia eginik, beraren Espirituas errestituturik, beraren amores bizi, trabajatu, padezitu, ta il naiak bazuke atra



aurpegia mundu guziaren alzinean; ta atratzen zue ausart, baitare Jangoikoaren itzaren ezpata, defendatzen beraren honorea, errespetoa, obediencia, ta amore zor zaiona, konfesatzen, konsejatzten, korrejitzten, predikatzen leku guzietan. Arma espiritualak berritzen zitue egunoro meza-ko sakrifizioan, ta orazio mentalean. Ze bere pelea herejeen ta Kristio gaixtoen kontra: eztut ongi erran, erran bear nue, ezi aien fabore, baña aien herejien ta gaixtakerien kontra, Apostoluen gisara, dion bekala Ebanjelioak, *Domino cooperante* & Jaunak obratus bateo, ta konfirmatus beraren itzak milagroeki. Ariora ze fruitua abasto atra zuena Italia guzian, Florenzian, Romanian, Marka de Ankonan, Lonbardian, prinzipalki Milano Ziudade andi gartan, non baitute fortuna idukitzeas Sandu gonon gorpuzta. Atratzen zekizkio errezibitzera klarin, aleganzia, ta festa andieki; eta ezin pasatus jendearen utses, apatu naiez bere habitua, bear zute eraman airean litera edo anda gisa batean. Iganik pulpitora, penitenziaren erretrato bat bekala, lerden, flako, elebatua, beiratzen zute ala nola berze munduko gizon bat, eta aditzen zute atenzio andiareki nola Jangoiko andiaren Enbajadore, edo Aingiruren bat: ez bada zeren tratatzen zituen gure naturalearen gustosko gauzak, ez, ezi geienetan tratatzen zue Jangoikoaren ofensaren gaixtoa, ta penitenziaren bearra. Komunuiro asten zue predikua Jonas Profetaren itz gaieki, *Adhuc quadraginta dies, et Ninive subvertetur*; Ninibetarrei Jangoikoak biali ziotela erratera, berrogei egunen epea, ta gerostik Ninibe urratu erraustuko dela: Nik ere Jangoikoaren partetik abisatzen zaiztet, goraturik daukala besoa ezpatareki ia ia deskargatu naiak: alerta alerta, bekatariak, galduak zarate sekulakos, ezpaduzie egiten penitentzia. Ala zoeie segitus... Bere mintzaera ze suabe, baña fuertea; amoltsuleun, baña tzorrotz, barnatzen zena biotzaren ondarreraño. Konfesatu zio mutil batek bein, nola eman zion bere Amari ostiko bat. Sanduak sebero, alako oñak mereji zue ebakitzea. Bada ain biotzean sartu zekio itza, ta kontriziosko pena, ezi etxera joan, ta itsu itsua matxete bateki ebaki zue bere oña. Bereala arroituketa murmuratus Konfessoreas inprudente tentu gabe. Sanduak ukitus bere eskuareki ta zeñatus utzi zio sano. Etzire beraren itzak, gureak bekala, otzak edo epelak, baizik orazioaren sutegian gorituak atratzen zitue sua zeriotela, urratzeko, peñak ere, bronzek ere. Ortara zoeielaiak bein Rabenara, berandurik bidean ilundu zekio elurra zreunsala: ellegatu ze berant guzia bustirik: ta nora joan ze? S. Juanen Elizara: an Sakramentuaren alzinean berotu ze orazioan gau guzian. Bitarteo ezkildorre-kaskoan zego kontino argitzen zuzi edo antortxa andi bat bam bam bam, turditu gabe argia batere elurketa guziareki. Goaturik askok, ta joanik Elizara aurkitu zute Sandua bere orazioan, ta entendatu

zute bialia zela Jangoikoaganik argitzeko guzieri. Etze deskuidatzen Deabrua estorbatu naiez. Bein plaza batean predikatzen zegolarik, eldu ze zaldi beltz an ol baten idurian karreraka, iduri baizue itxikatu bear zuela jendea. Sanduak ezaundurik formatu zue guruzearen señailea; ta istante desegin ze bulto gura.

Baña kristioetan iten zuen fruitua izanik ere miragarria, zertan distingitu zen S. Pedro M., da konfunditzean ta konbertitzean herejeak: ortako paratu zionak oposizio gura ain fuertea, erran ere zio grazia, peleatzeko ta garaitzeko, espezialki Aita Sandu Inozentio IV.ak in zuenas-geros Inkisidore Milango Estadoan. Zego bein zenbait Obispoen ta Teologoen ertean examinatzen Obispo bat herejea kanpo agerrian: jendetze andia bildu ze an: examina ze luze, ta iruzkia bero. Hereje alkegabe batek oiuegin zio, akaba ia, hipokrita engañazalea: edo barin bada ain sandu, nola uste duen jende sinpleak, logra bez para daien lañuren bat iruzkiaren alzinean, ez gaitzen emen erre bizirik. Osgarbi zego zerua; etze lañu-mostrarik. Sanduak sufritu erran zue, baldin emen diren herejeek nai badute itzuli fede katolikora, paratzen bada lañua, nik uste dut logratu. Etzeude ortako: alaere Katolikoan firmatzeko, ta herejeen konfunditzeko, paraturik belauriko in zue orazio Jangoikoai: momentuan paratu ze lañu andi fresko bat in ziotena itzal Egar izan zen denbora guzian. Berze bein platikari maltzur batek ainberze argumentu ta naspilla paratu zio, ezi Sanduak erran zue, utzi zezala enkomendatzera Jangoikoai. Inik bere orazioa, errazu orai nai zuna, dio. Gelditu ze ura mutu, ezin atras itzik, eta berze herejeak konfunditurik. Anitz pelea izanik, akuditzen zue Maria Santisimagan, logra zezon biktoria. Eta Andre dibinak erran zio Sandugoni Kristok erran ziona S. Pedro Apostoluari: *Nik, Pedro, in dut orazio zuregatik, erbaldu eztaien zure fedea*. Bi nekazari zire Milango aldean, bata katoliko, berzea hereje. Onek enkomendatzen zio Demonioai eraizioa, baizeuka gauza emengoen Autoretako: Jangoikoai katolikoak. Sanduak in zue orazio, desengañatzeko: eta katolikoak bildu zue abasto eraizioa: herejeak ez pikorrik ere, ta alorra galdu ze. Orreki konbertitu ze gure federa. Nai zuzte deskreditatu Sanduak iten zituen milagroak. Ortako ajustatu zute finjitzeiela bat heri, ta sendatzera bekala zoeiela Sanduagana, ta sendatu zuela asten zirelaik, errateko aiek, etzela on milagro, etzegolaik heri. Joan ze bada heri finjitua palo bati arrimaturik asko itxurapeneki. Sanduak ikasi zue Jangoikoaganik maraña forjatu zutena: ta erran zio, finjitzen bazara heri etzaudelaik, nik eskatzen diot heri zaizala eskarmentutako. Ala izan ze, ta ain gaizki, ezi desauziatu zute medikuek. Orduan oiue miserableak



kontatus tranpa in nai zutena guziei, eskatu zio Sanduai barkazio, ta sanidadea: ta Sonduak sendatu zue gorputz ta ariman.

Anitz trabajatu, anitz padezitu, anitz arima ere irabazi zue S. Pedro Martirek: falta zekio palma ta korona. Zer da palma ta korona? Martirioa. Aspaldian zego orren naiez anhelatzen, ansiatzen, suspiratzen. Egunoro mezako sakrifizioan eskatzen zio grazia goi, erraten ziola, *O Jauna, ez permiti il nadien ni goatzean, baizik il nazaten orren fede ta amoreagatik*. Agindu zio grazia goi, eta kontentus beterik erran zue pulpitorik: Badakit bai, Hereje Jaunek nai nautela il, ta eman dutela dirua iltzaleai; ni nago prest emateko bizia fedeagatik: ta on da nere deseoa ta ditxa. Baña beude xakinik, ezi il ondorean inen diotela nik iago gerra. Guzia kunplitu ze. Atra ze Komotik Milanat bere ofizioaren itekos, zegolarik kuartanaeki, Aprilaren 5.an Bazkoako oktabaren bezperan; eta ellegatzerakoan pausu batera, deitzen baita Bardaxima, edo Barlasima, bidearen erditsutan atra zekizkio bi asesinoak bat-batean; eta bataki eman zio alfanjeas buruan; erori ze Sandua lurrean, ta asi ze erraten Kredoa, *Nik sinestatzen dut Jangoiko Aita guzis poderoso Zeruaeren ta lurraren Kriadorea baitan*: eta diote ere, odol zerionean bus-tirik eria eskribitu zuela, edo nai zuela eskribitu on beroi. Orduan sartu ziola ezpata bularrean: ilik gelditu ze gorputza odolestaturik, ta arima egatu ze Zerura, errezi bitzera irur koronak Doktore, Birjin, ta Martir bekala. Zori onean jaioa, Sanduek errezi bitu zute alegre emanen enhora buena, ta biba franko. Aingeruek akonpañatu zute Jesu Kristoren ta Trinitate Jaunaren tronoraño: an gozatzen du besarka amoroso gozoso eterno gura, peligrorik gabe galtzeko eternidade guzian.

Famatu ze bereala Sanduaren eriotzea, katolikoek pena, herejeek alegria. Biramonean depositatu ze gorputz sandua solemneki Milanen: eta asi ze honratzen milagroeki: bat eta andia da andik alzina herejeak humillago egotea, ta buruak kur-kurra, baitare anitz prinzipaleetaik ere konbertitzea, eta gañarakoak ain konfuso alketurik, ezpaizire trebe agertzera jendeen alzinean: entenda daien Martirek iltzen direlaik trunfatzen dutela. Berze bat konta daike Sanduaren iltzalea, deitzen zena Katino, iltzeko peligrorik egonik ta libratuagian Sanduaren medios sartu baize erreligioso Sandu beraren erreligionean, non bizitu ta il baize sanduki. Ala pagatzen du S. Pedro Martirek gaizkia onareki garaitus. Berze hereje batek ikusirik Sandua pintaturik ezpatareki bularrean, zio iras beterik, oh! egon baitza ni presente, il zutelaik traidore gau, zein gogotik ilen nuen! Istante gelditu ze mututurik Jangoikoaren kastigos; baña Sanduak noblekiro itzuli zio mintzoa, urrikitu zeneko: ta konbertitu ze fede katolikora. Ilik kanpoan utzi zutelaik gorputza, ikusi zire argi zerukoak inguruan. Lanparak

itxekitzen zire bere kabo, eta ala infinizio bat milagro kontatzen da Sandu gonon. Aita Sandu berak Inozentio IV.ak kanonizatu ta deklaratu zue Sandu il ta urte bat bete gabe, zergatik S. Pedro Martir iltze Aprilaren 5.an, 1252 urtean, eta urbilen urtean Martxoaren 24.an kanonizatu ze. Ain klaro ze santidadea! Sixto V.ak manatu zue zelebratzeko festa gau Aprilaren 29.an, naiz iltzen 5.an, zeren denbora gartan komunki Eliza egoten den okupaturik aste sandu, edo bazkoareki. Eta Fr. Hernando de Kastillo Dominikoen Historiadoreak dio, egun gontan Milanen bedeikatzen direla palmak edo oliba-ramuak, dutenak birtute andia arrerauntsi, kazkaragar, zentella, ta ausnarrien kontra: ta dakarzuki orazioak, zeñeki bedeikatzen diren. Inozentio IV.ak kanonizatu zuenak laudatzen du ederki diola, o gizon benerablea, digno dena lauda dezaten guziek leku guzietan laudario andieki! Au da erreligionearen erregla, birjinidadearen erresplandorea, kostunbre onen honra, jakindearen tesoroa &.



## Aprilaren 30.an Santa Katalina de Sena

Santa Katalina de Sena, ofiziale pobre baten alaba jaioa Senan, nondik eman dioten apellido goi, izan ze Jesu Kristoren Esposa erregalatuia espiritualkiro. Aurtto zelarrik, mostratzen ze zela Jangoikoaren eskojitua, ain goizik ain juiziosa, ain onttoa, ain agraziatua, ezi guziek zute maite, ta zebilate etxes etxe gusto ematen zuenagatik bere kondizio ta konbersazio admirableagatik. Apenas zue borz urte, noiz errezatzen baizue abe Maria perfektoki, ta ain maiz, ezi eskalera igatean edo jaustean belaurikatzen ze grada bakotxean erranes abe Maria. Sel urtetan anaiatto bateki eldu zelaik karrikan, ikusi zue Sto. Domingoko Elizaren gañean trono admirable bat, ta artan Sazerdote sumoa bekala Jesu Kristo beirutzen ziola guzis amoroso, ta ematen bedeizioa. Gelditu ze aurttoa elebaturik, ezin zukela itzulazazi anaiattoak akordura oiuz, ezpaze tiraka fuerte: orduan ala nola idatzaririk lo andi batetik erran zio, o anaia, ikus bazindez nik ikusten dutena, etzin duke naiko beñere apartatu emendik. Beiratu zue berriz, baña ia etze ageri. Ia ordutik Jaunaren argis ikasi zue anitz gauza Jangoikoaren: eman ze orazio mentalera, ta aur lagunei erakusten ziote doktrina, ta gauza onak. Zazpi urtetan egin zue boto bizitzeko birjin betiro; ta Maria Santisimari, zeren izan zen lenbizikoa konsagratu ziona Jangoikoai bere birjinitadea botos, eskatzen zio humil, eman zezon bere Seme dibinoa Esposotako. Ori eginik, asi ze pensatzen erreljiosa izatean, ta ikusten zuelaik pasatzen erreljiosoren bat, alegratzen ze, ta belauriko apatzen zue lurra, non frinkatu zuen oña. Baña etxean egonik, erreljiosa ze birtute guzietan, ainberze ezi anaiak ta buratsoak zeude arriturik, nola ikusten zuten guziak ere bai.

Adin prezisora ellegatu zeneko, tratatu zute buratsoek akomodatzeeas matrimonioan, etxakines boto egin zuena: baña Sandattoa zego, ta mostratzen ze agitz penaturik aipatzeas ere, ta determinaturik iltzera lenago. Bere aizpa batek ezkondua zenak konsejatu zio, naiz etzeien ezkondu, baña besti zeila galas, disimulatzeke, ta buratsoei kontentua iteko. Egin zue on intenzio gorreki zenbait egunes; baña Jaunaren argis ezaundurik, egin zue nigar bizi guzian ortas, nola bekatu andias: eta bere aizpa gura andik guti iltze erditzetik; ta pensatu ze izan zela Jangoikoaren kastigos, konseju gura emanagatik: eta Sandak enkomendatzen zue Jangoikoai arima gura sinki, ta izan zue errebelazio salbatu zela purgatu ondoan eder-

ki purgatorioko suan. Porfiatzen ziote buratsoek beren ezkontzareki: eta Sandak afljiturik ortas Jaunaren inspirazio ebaki zue bere eskus buruko biloa, baizue txoil ederra. Ori sentitu zute agitz aiek, ta asi zire persegitzen obras ta itzes, inarazis etxeke ta sukaldeko lan guziak. Guziak iten zitue serena alegre humil. Aitak ezaundu zue, alaba gura kidatzen zela Espiritu Sanduaren inspirazio, zeren egun bates zegolaik au orazio egiten bere zokoan, ikusi zue gañean uso txuri bat, berla desapareztu zena; ta ala manatu zue etzezola niork ere estorbatu. Oneki Sanda konsolatu ze, ta billatu zue kuarto berex bat apart, non egotentzen orazioan bere Jaunareki, egiten bere gurteak belaurikatus ta kurtus burua lurreraño, ta ainberze nekez daikena sinesta; irur aldiz disziplina, ta aldioro ordu bat katea burriñaskoeki odolestatus guzia; gañarakoan ertxirik gorputza berze katea bateki ain fuerte, ezi sartzen zekio aragiak barna; bere jana ogi zati bat belar gordin batzueki; bein edo bein, egosirik; ta ogei urtetara zelarrik, ogia ere utzi zue kontent belar solles: loa eztaike konta loa osoki, lokuma bekalala; noiz ori? noiz erreljiosoak zeuden maitinetan, orduan bazela nork estimatu Jangoikoa, bera erreklinatzen ze ol batzuen gañean, zur bat bururdiko: Irur urtes egon ze itzik atra gabe, ezpaze konfesatzeko; eta bein bentzait auster egunetik Joande Salvatore eguneraño ez amenik ez urruparik batere pasatu gabe, komekatus egunoro. Anitz errateko izan ze, ta nai ziote arrarazi sustentu gorputzke; nai zue obeditu, baña ezin pasa, ta zio zela bere Maestraua Jesu Kristo erakutsi ziona zer egin.

Baña zertako erran ezin daikena imita? Erragun zenbait birtute arimaren, nekez daizkenak imita; bateo Jesu Kristok iten zition finezak, nekez daizkenak sinesta. Ain usu, ain amoltsu afable tratatzen zue, ezi noiznai, zela orazioan, zela lanean, zela berzeeki tratatzean agertzen zekio, ta mintzazen zio nai zuena: Erran zio bein, *ene alaba, badakizu nor nai zen ni, ta nor zaren zu? Ni naiz nai zena, ta zu etzarena*. Berze bein, *zuk kuida nitas, ezi nik kuidatuko dut zutas*. Ontaik atra zue doktrina ta arimo andia, fiatzeko ta konfiatzeko Jaunaren probidenzian seguro, dela trabaju, dela fortuna, on edo gaitz, bizi edo eriotzearen erdian, eta eskribitu ere zue libru admirable bat orren gain; eta dio erakutsi ziola fabrikatzen arimaren barnean aposentu bat ertxia bobeda fuerte bateki, non egon bildurik atra gabe andik ez oiñ ta ez eskurik, orreki errepausa onean Jaunaren besotan, deustas turditu gabe. Baitare doktrina, ezauntzeko bere burua; eztela bat bereganik deus, baizik miseria ta ezindea. Ezaundurik Deabruak arima garren ona, ta Jangoikoaganik estimatua, inbidias ta gaiznaies asi zekio tentatzen asko manera gaixtos. Atormentatzenzue amets ta imajinazio torpe itsusi deshonestoeki, baizire arima garbi garrendako





erioa baño samiñago. Aborrezitzen, despeitzen, botatzen zitue bereganik nola sutxindiak: klatmatzen zue biotzas Jaunari, ta belaurikatzen, azotatzen, mortifikatzen ze asko maneras: ala garaitzen zue etsaia. Ondorean Jesus Jauna agertu zekiolaik, Sanda kejatu zekio humil, o Jauna, non egon da orai arteo, ala utzi bainau? Zureki egon naiz, errespondatu zio: eta Sandak, nola zegoke imajinazio ain itsusien ertean? Jaunak, gozatzen zina agian aietas? Ez, Jauna, dio Sandak, naiago nuke illa aldis. Bada ortan dago merejitzea, erraten dio Jaunak. Asko denboras tentatu zue infernuokoak tentazio gisa gebeki; baña Sanda beti biktoriosa.

Etzukelaik arrek atra deus alde gontaik, progatu zue al bazioko faltarazi pazientzian, edo karidadean: baña bi gebetan emantu exenplu andienak. Karidade puros artu zue bere gain kuidatzea ta kuratzea emasteki alargun atso bat, zeukana bularra kanzillas edo mijaleas ain usteldurik, ezi niork ezpaizezake soporta botatzen zuen usaia: sollik Sandak iten zio in ala Jangoikoaren karidades: baña Satanasek emastekias, edo emastekiak errebestiturik Satanases, grazien lekuan odio arturik Sandari tratatzen zue indignoki, ta goratu zio zela neska txar deshonest. Baña Sandak serena segitzen zue egiten karidade andi gura modu on guzieki: baita berzeak ere segi bere tema txarrean. Sanda konsolatzen ze bere Esposo dibinoareki, zein agertu zekio mostratzen zitiola bi korona; eskuieko eskuan bata urres ta perlas istargitzen zuena; ezkerrekoan berze bat aranzeskoa: auta zezala, zein nai zuen. Sandak arturik aranzeskoa paratu zue buruan, ziola, Jauna, bizi gontan nai dut konformatu berorren pasio ta penaeki. Jaunak orduan, bada segi zazu zerbitzatzean heri gorri, ta nik kuidatuko dut zure honras. Ala izan ze, zeren bere Majestadeak ikusiarazi zio heriari S. Katalinaren arima garbi ederra, eta arrek konfesatu zue bere gezur gaizki errana, eskatus barkazio. Ze berze bat legenartsua ta pobrea, niork kuidatu nai ez, ta bota nai zutena erritik: Sandak xakinik joan ta ofrezitu zio bere zerbitzua, ta zuken guzia. Ta bisitatzen zue egunoro bi aldis, ta ermanten zio billatus bear zuen guzia. Onek ere estimatu bearrean suberturik persegitzen zue malamente. Etze turbatu Sanda, bai segitu ongi egiten kuidado ta kariño iagoreki. Apegatu zekio lepra esku batean: segi alaere ajolarik gabe bereas, kuratzen berzea iltzen artaño: garbitu, mortaxatu, ta in zue guzia ortzi arteo: orduan garbitu zekio eskua. Ebetxek baitire lan onak, ta munduko errezu guziak baño obeak! Berze batek artu zio inbidia ta odio bat ain errua, ezi etzue ikusi nai, ezeta aipa zezoten, ta bota zue bere etxetik Sanda; eta ez Jangoikoaren kastigoeki, ez Sandaren on egin guzieki etzeike palakatu, alik eta iltzera urbidurik utzi gabe errenkore gura irur egunes egon ze agonian ezin iles, eta Sanda bitarteo beti orazioan, eske ta

eske etzeien gal arima gura; ta izan ze aditua, ezi ukiturik biotza Jangoikoaren eskus akorritu ze, ezaundu ta konfesatu zue bere kulpa, ta errezibiturik sakramentuak iltze ongi. Oneki agitu zena agitu ze berze askoreki, libratu baizitue erortzetik infernuan pokalean zeudenak, ezi Sanda gonon antsia ze salbatzea arimak bere Esposo dibinoaren gisara.

Bat izan ze abrats gaixtofikatu endemoniatu bat, Jangoikoaren ta Sanduen etsai, blasfematzen zituena, itz batez, zuena sendagalla gaixto izateas. Il bear alakoak ere, nai badu ezpadu: ellegaturik lanzean, ez memoriaik, ez ajolaik, ezta ere nai aipa zekion sakramenturik: ala zoeie sartzera infernuan ez atratzekos, baldin Sta. Katalina ezpaze enpeñatu berareki ta Jangoikoareki gogotik. Sandaren itz, ta orazio, ta negarren medios gero ere noizbait akorritu ze, konfesatu ze, ta iltze. Berze bida zemazkitenak justiziatzera karro batean, bidanabar tenaza goritues zatikatus, zoezi bi Demonio bekala blasfematus Jangoikoaren kontra. Ikusi zitue Sandak, ta lastimaturik eskatu zue, utzi zezaten joatera karroan aieki. Igan ze, ta ikusteko ze bi otso gaien ertean axuri gura ia predikatzen, ia zerura klatmatzen. Azkeneko Sandaren amores Jesu Kristo agertu zekiote, mostratus llagak aiengatik pasatuak, ta konbidatus barkazioareki, konbertitzen bazire. Konbertitu zire, ta konfesatu zire, iago ere pena mereji zutela, emanen Janpikoiak graziak, ta Sandari ere bai, aieki egin zuten miserikordias. Baña noiz akaba kontatzekos in zituenak genero gontan. Obeda itz batez erran, zetozin guziak Sandagana, ta aditzen zutenak konbertitzen zituela onera: eta ori ikusirik Aita Sanduak Sandaren konfesoari ta onen bi lagunei eman ziote potestade, absolbitzeko bekatu ta pena guzietaik. Aita Sandu gura, baize Gregorio XI.a Sandaren konsejus ere itzuli ze Romara Franziatik, non egon zen S. Pedroren Katedra irur ogei ta ameka urtes, ta bera, ta bere urbilen ondorengoa Urbano VI. baliatu zire Sanda gonon santidadeas ta prudenzias Elizaren iteko andietako, ta biali zute beren Enbajadora bekala, ta beraren eskuan utzi zute bakearen konpananza, ta mintzarazi Kardenaleen presenzian, nola egin baizue miragarriro: eta anitz Telogoeak konsultatzen zute dudasko gauza grabeetan, zuelarik ainberze argi Jangoikoaren; zeñeki alaber eskribitu zue anitz karta admirable Aita Sanduei, Kardenaleei, Obispoei, Errege, Prinzipe, Errepublikari, ta persona anitzei, Jangoiko beraren interprete bekala; baita miragarri, zelarik donzella pobretto bat, ta pobrettoen humeal!

Zena guziendako, pensa nola izanen zen bere buratsoendako! Aitari zerbitzatu zio bere azken heritasunean ederki alde guzietaik: eta eskatu zio Jaunari, ezpazue nai utzi munduan, libra zezala purgatoriooko penetaik, ezi berak ofrezitzen ziola pagatzea zor zuena. Jaunak agindu zio, zeren ezi



Aita iltze ongi seguro; ta alaba instante gartaik asi ze sentitzen oñaze berri bat señaletako. Ama deitzen zena Lapa, edo Lanpa, ze agitz geiegi bel-durtia eriotzearen; ta agitz heri zegolaik ere, etzue nai aipa zezon iltzeas. Sandak eskatu zio Jaunari, etzezala eraman izan arteo iago konformidade. Baña egoteareki beti eutxirik emengo bizi goni, Jaun onak alabari erran zio, erran zezola Amai, bada ezpazue nai joan orduan, agituko zekiola ain-berze trabaju, ellegatuko baize deseatzera iltzea. Ala bizitu ze laurogei ta bedratzi urtetaraño ederki purgaturik trabajus. Beira zer dezoken uka Jaunak Sandari! (Tratatzen zue bere amazale maite maitea bekala: maiz agertzen, ta erregalatzan zue, batzutan bakarrik, berze batzutan bere Ama Santisimaren, Aingiruen, ta Sanduen konpañian: Desposatu bekala zue bereki manera miragarrian: Inprimutuzikio bere borz llagak, S. Franziskori bekala, baña ikusi etzeizken gisan, ala eskaturik: Txastarazi zio bere bularreko llagatik suabidade gozo gozoa: bada komunione sakramentalean senti zuena, nork explika? nork entenda?) Konfesoreak, baize Fr. Raimundo de Kapua, ta baizekie, nai zuen guzia logratzen zuela Jaunaganik, eskatu zio logra zezola bekatu guzien barkamendu osoa, eta induljenzia plenaria bat. Ongi da, zio Sandak, eskatuko diot: eta biramonean etorri zekiolaik ofrezituaren eske, mintzatu zio Sandak Jaunaren on one-gias, ta gure gaizki pagatzeas, ain bizi, ain propiki, ain miragarriro, ezi Konfesorea zego urtzen negarres: Orduan Sandak, orra non duen induljenzia eskatu duenaren testimonioa. Baña nor etzue konbertitzen mintzatuas geros? Klaro ze ageri Jangoikoa bizi zela petxo sandu gartan, ta mintzatzan zela aren agos. Ikusten ere zitue proximoen konzienziak, berek baño obeki: Eta zenbait persona hipokrita eldu zirelaik honesta-itxuran, apartatzen zue aurpegia, etzezakela soporta usai deshonestoa. Sakramentuen presentzian ze bere paraisoa, bere errekreazioa, ta bere gloria mundu gontan: eta ikusten zue begis ere askotan ta asko maneratan. Da imposible erabakitzea Sanda gonon abantalla guziak: eta ala gatozin bere despeidara.

Ogei ta amirur urtes biziturik, naiak ia aspaldian joan emendik bere Jaunagana, heritu ze amoresko suas, ta errezibiturik sakramentu Elizakoa, ta induljenzia plenaria bi Aita Sandu gaiek emana, peleatu ze balienta etsaiaren kontra beti bekala, ta garaitu zue osoki. Berze tentazioen ertean akusatzen zue arrek banaglorias. Banagloria? erran zue Sandak alegre, ez sekulan ere: beti prokuratu dut ene Jaunaren gloria egiaskoa. Utzirik enemigoak, ta Jaunak arturik bere besotan, desegines beraren amores, laudario ta esker milla emanes, mintzatus amorosoki, ta azkenik itz gaiek, *Jauna, berorren eskuetan enkomendatzen dut ene espiritua*, iltze suabekiro; edo Elizaren

itzas erranes, lokartu ze Jaunaren besotan; ta egatu ze arima Zerura Apri-laren 29.an Roman 1380 urtean: bereala agertu zekio gloriosa bere Konfesore Fr. Raimundori Genovan zegonari. Oztzi zute, noiz zuketan, jendetzearen debozio ta milagro anitzen ertean. Kanonizatu zue Pio II.ak Senakoak 1461 urtean.



## Maiatzaren 4.an Santa Monika

S. Monika, S. Agustinen Ama, emastekien exenplu estado guzietan, jaiotze Afrikan. Azi zute bere buratso Kristio honratuek honestidade ta birtute guzian. Aurra zelarik zue afizione Elizara, ta an egoten ze zokotto batean orazioan gelditx. Gauas ere jaikitzen ze errezatza orazioak erakutsi zitionak Amak. Ze limosna in naia: ta usten zue berak jan bear zue-netik, emateko beartsuai. Ze banidadearen ta galaen etsai: bestitzen ze obediencias manatzen zioten bekala. Oroat bere deseoa ze bizitzea birjinitatean, baña obediencias ezkondu ze gizon noble bateki, deitzen baize Patrizio, ta ez Kristio. Oneki izan zue anitz sufritzeko, izanes desbardin erreligionen ta kondizios. Baña Sandak bere pazienza, ta modu onareki, bateo bere otoi ta negarreki logratu zue gero ere kristia zeien. Modua ta manera, zeñeki irabazi zuen bizikidea, badio S. Agustinek, izan zela zerbitzatzea, Nausiari bekala; mintzatzea obra ones iago ezi mias; sufritzeko ixil agrabioak; beñere ez asarratzea bera, ta ez erreplikatzeko itz gaixtorik; adbertitzea bear zena amolsukiro; ta baze ezpaze protxurik, beti enkomendatzea Jangoikoai. Atzetik beñere ez kejtzea tratamentu gaixtoes, nola iteunten gaizki askok: ta admiratzen zirelaik emasteki lagunak, gutiagos kejtzen zirenak, nola etzen kejtzen senarras, baizeki zela suber moldegaitza, galdegiten ziotela nola iten zuen: Sandak erraten ziotela nola; ta konsejatzeko ziotela ala in zezatela aiek ere bereeki, bazekitel del buru dela senarra, ta bear dela obeditu ta sufritu. Artzen zutenek konsejua, dio S. Agustinek, obeki pasatzen zutela; ta etzutenek artu nai, iago trabaju pasa, ta negar banoan. Oroat, dio irabazi zuela bere Amaiarreba, zein prinzipioetan etzegolaik txoil kontent erreñias neskatoen enbusteria, ta gezurren kasos, gero ongi ezaundurik ongi estimatzen zue; ta meatxu in ziotela neskatoei, botako zituela etxetik, baldin atratzen bazute itzik erreñaren kontra. Ala izan ze S. Monika etxeko Aingeru bakeskoa. Hume bat eman zio Jangoikoak, baize S. Austin; onen azitzean zer kuidoak pasatu zituel! zer sustoak! zer naigabeak! zer neke penak!

Aita etze oraino Kristio; Amak Kristio ona bekala nai luke kristio semea; baña au lazoago bizitzeagatik arrimatu ze hereje Manikeoetara; eta Ama, guzia negarrai emanik, berai erratea etzelaik protxal, zego gau ta egun eske Jangoikoai argi zezon ta ukitu biotza. Baliatzen ze Obispoes ere, ta berze persona ones, oneratzeko seme gura: baña etzego oraino

artzeko nioren konsejurik. Alaere Jangoiko onak konsolatu zue Ama ona, mostratus bisione-iduri batean, etzela galduko semea. Obispo batek ere erran zio, *bidoie, andrea, Jangoikoareki, ezi alako negarren humea imposible da malogra daien*. Ala konsolatzen ze aldartez. Bere gogoaren bortxaz joan zekio Romara, non heri andi egonik, ta kristiatu gabe oraino, libratu zela, dio Sanduak, bere Amaren orazio: Andik pasatu ze Milana. Emen ze Obispo S. Ambrosio: ta Amak ezi sosegatu zebilanak billa, erdetxi zue emen. Prokuratu zue semeareki akudi zezan aditzera S. Ambrosio: eta nola baize jakintsu, ta jakintsuen aiskide, obeditzen zio ortan. S. Ambrosiori ere eskatzen zio ansiosa, desengana zezan seme gura; ta Sandu gonak zio Sandari atenzio andia, ta egiten zue eginala. Gero ere aren konbersazio, arrazio, ta predikuen medios Jangoikoaren graziareki ezaundurik zuzen-bidea bataiatu ze S. Ambrosioren eskus Augustino ogeitamirur urtetako adinean, mundu Kristio guziaren alegranziareki: bada Ama sandaren gozoa nork explika? Zer laudarioak Jangoikoai? Zer esker millak? Bi aldiz erdi bekala ze seme gartas, len mundurako, orai Zerurako; beira ia etzuen motibo, alegratzeko iago ta iago? Eliza Ama sanda ere alegratzen da, ezi S. Pablaren konbersioea bekala zelebratzen du S. Agustinen, ta berze niorena ez. Baña ez solamente konbertitu ze, izateko Kristio, baitare bizitzeko sanduki erretiraturik. Ortako tratatu zute itzultzeas Afrikara, ta enbarkatzeko itsasoan, joanik Ostiako zitudadera, an zeudelaik etxideten eskalda, heritu ze Ama.

Ezaundurik, artaik nai zuela eraman Jangoikoak, arturik semea apart, eman zitio konseju sanoak, ta azken enkarguak, mantenitzeko firme konstante zuzen-bidean: ia ez tut, zio, zertako bizitu iago munduan; emen da ene bizitzaren bukaera; emen ortzi bear duzie zeuren Ama gau: solamente eskatzen diziet, in zazela memoria nitas Jaunaren aldarean. Iltze Sanduen eriotze preziosoareki, zituelaik berrogeita amasei urte. Sentitu zue naturalki seme Sanduak, ta negar egin zue faltatzeas bere Ama, ta alako Ama, asko urtes enegatik negar egin zuena, dio. Gero laudatzen du, nola zen kuidoas, benigna, mansa, amoltsua, ta bakeskoa, zuena grazia espezialea, baketzeko diskordian zirenak: beñere etzuen berzeren faltarik kontatzen, baizik on zena palakatzeko asarrea. Il omen ze 389 urtean.



## Maiatzaren 7.an

### S. Estanislao Obispo ta Martira

S. Estanislao Obispo ta Martir gloriosoa jaio ze Krakobiako ziudadean Polonian buratso abrats nobleetaik, zein egonik ogeitamirur urtes ezkondurik humerik gabe, gero ere logratu zute orazios au. Txikizututik ageri ze, izanen zela jakintsu eta sandu. Estudiatu zitue ederki estudio bear diren guziak: Il zirelaik buratsoak, gelditurik herederu ondasun andien, errepertitu zitue guziak pobreei. Nai ze egin errelijioso, baña Jangoikoaren ordes in zute Kalonje, ta Predikari, ta gero Obispo. Admiragarria ze Sandu gonon kuidadoso dilijenta Elizako gobernuan, miseriakordia beartsueki, humila, beratxa berzeeki, gogorra bereki, eta agitz amante Jangoikoaren, eta zeloso beraren honraren. Ze bere desgraziatako errege Boleslao, len on izana, gero deshonesto itzulia, alkegabe, ta kruela, zeukana eskandalizaturik erreinua. Sanduak humil humila eskatzen ta konsejatzin zio emenda zeien: etze protxurik. Meatxatzen zio exkomekazioaren meatxus: etzue ajolarik. Jangoikoaren ira ta kastigoa notifikatzen zio sekretoan ta publikoan: etzue deus logratu, baizik odioa, ta ira: Ta mendekatu naiez justizia-itxuras akusaturik Obispo sandua zeukala injustoki heredaje bat berzerena, zein erosi ta pagatu zuen osoki bere Elizarendako. Baña etzue eskriturarik asko, progatzeko egia: eta testigoak Erregeren beldurrez etzire trebe deklaratzera zena zen bekala: eta saldu ziona, deitua Pedro, ila ze ia irur urte gaietan. Deiturik Korte jeneralak, eta Obispoa Erregeren presenzian, ofrezitu zue irur egunen barnean ekarraraziko zuela tribunalera Pedro gura. Irri egin zute ofrezitua: eta Sandua irur egun gaietan egon ze barutzen ta eskatzen Jangoikoai, defenda zezan bere kausa. Irurgarren egunean meza erranik joan ze obia gartara; ta kenarazirik gañeko ar-lauza, ta agerturik gorputz ila, Sanduak ukitus bakulo pastoralears manatu zio jaiki zeila bizirik, ta segi zezola tribunalera. Ze ikusgarri nola zoezin Obispoa alzinean, ta ila bizirik atzetik: ta sarturik konsejuan, zeudelaik guziak arriturik, dio Obispoak, ona, au da Pedro saldu zidana heredajea: galdegin bezote ia pagatu nion Elizaren nonbrean. Il biziak deklaratu zue nola zen egia guzia: akar in ziote aideei molestia ematen ziotenas Sanduari, ta in zezatela penitenzia. Sanduak erran zio ia nai zuen eska zezon Jangoikoai, uztea bizirik zenbait urtes? Pedrok autatu zue itzultzea bere obiara gorputza; ta arimak falta zuena atratzeko purga-

toriotik, nai bazio suplitu orazios ta sakrifizios, ezi naiago zuela joan seguro bere salbazioas, ezi ez emen gelditu kondenatzeko arrixkoan. Ala akonpañatus Sanduak ta infinizio bat jendek, itzuli ze obiara, ta an edaturik gorputza, ta guziei eskaturik enkomenda zezatela, gelditu ze ilik berriro, bizitzeko eternoki glorian. Nor etze beraztuko ain milagro andiareki? Sollik zeike erresisti luxurias itsuturik zegona. Segi Sanduaren kontra: ezeta oroitzen ere itsua, logratu zuenak bizaraztea ila, bazukela logra ilaraztea bizi zena gaizki! Berze erremediorik etzelaik, azkenean exkomekatu zue Sanduak apartatus Kristioetaik mienbro ustela bekala.

Errege iago sutu ta furotu ze orreki: ta biali zitue bere soldadoak, meza erraten zegolaik, atra zezaten andik arrastaka, ta il zezaten. Aiek, ta gero berze batzuk joanik bein, bi, irur aldiz lotsarriturik Zeruko argi andi bateki gelditu zire in gabe lan gaixto gura. Azkenean Errege berak joanik, tratatus soldadoak kobardetako, autxi zio burua an aldarean, ta barratu muñak lurrean barna: gero guardiakoek zatikatu zute guzia, botatus zatiak kanpora, jan zezkiten arranoek ta otsorraiek, otsoek, ta tzakurrek. Baña Jangoikoak utzi zuenak iltzera biali zitue laur arrano, goarda zezkiten errelikia sandu gaiek, baitare argiak Zerutik, honratzeko. Animaturik orreki zenbait Kalonje, Sazerdote, ta persona onek bildu zuzte, ta juntaturik zein bere lekuan, milagro berri bateki unitu zire, de manera ezi gelditu ze gorputza oso, ta ala ortzi zute honratuki an. Gero pasatu zute ziu-dadeko Eliza prinzipalera. Arritu ze mundu Kristio guzia alako maldadeas alako personan: ta lenik Aita Sandua, baize S. Gregorio VII., zeñek bereala paratu zue Polonian entreditxo jenerala deitzen dena, edo Elizen ertxitezeta; parte izan zutenei eriotze gartan debekatu ziote izatea ofiziorik Elizan ez berek, ez beren ondorengoez laurgarren jenerazioraño: Errege urdea exkomekatu ta madarikatu zue: eta ala nola Herodes, berze Errege urde gura, degollarazi zuena S. Juan Bautista, aren gisako gau guzienganik aborreziturik, bere konzienziaren gaixto amargoareki aburriturik joan omen ze iges Poloniatik Ungriara, non ezin sufritus bere burua bere eskus akabatu omen zue; berze batzuek diote ezi zaldi batek botarik, jan zutela tzakurrek. Bada dionik in zuela penitenzia konbentu batean zerbitzatus sukaldean ilaraño. S. Estanislao izan ze martirizatu 1079 urtean; eta gero 1253 urtean Inozenzio IV.ak kanonizatu zue solemneki, deklaratus Jangoikoak Sanduaren santidadea milagro berrieki, ta daukala maite eder glorioso Zeruan bereki &.



## **Maiatzaren 12.an**

### **S. Domingo Calzadakoa ta**

### **S. Gregorio Sorladakoa**

S. Gregorio, deitzen dutena Sorladakoa, zeren Sorladan diren beraren errelikiak, izan ze Romako Kardenale, ta Ostiako Obispo sandua, etorri zena Nafarrora Jangoikoaren karidades egitera ongi arimen eta gorpuzten. Agitu ze Nafarroan denbora batez zebatzea langostak ardantze ta alorretan, galdus eraizioak urte batean ta berzean; eta naiz eginik dilijenziak, orazioak, prozesioak, sakrifizioak erremediatzeko, etze erremedio-rik. Akuditu zute Nafartarrek Aita Sanduagana kontatus beren trabajua, plaga, ta kalamidadea, ta eskatus erremedio. Aita Sanduak ongi xakinik, bekatuak direla gaitz guzien kausa; eta kontra berriz gizon sanduak Jangoikoaren adiskideak, aurkitu dutenak grazia beraren begietan direla erremedio eman dezaketenak; ezaundurik bere Kardenale ta Obispo garren santidadea, biali zue onat konsolatzera erreinu gau. Ibili ze zitudades zitudade, ta erris erri predikatzen penitencia, ta konbertitzen jendea gaixtotik onera; ta konfesatus bekala, ta kendus bekatuak, zoezi desterratus, desegines, akabatus langostak de manera, ezi paratu zitue kanpoak libre plaga gartaik, eta jendeak erremediatuak gorpuz ta arimetan. Sandu goni juntatu zekio S. Domingo Billorian jaioa, bizi zena erretiraturik eremuan, ta egon ze asko denboras beraren konpañian ikasten santidadea, ta biek a porfia zerbitzatzan Jangoikoa, alik eta iltzen arteo S. Gregorio, itzuli baize eremura S. Domingo: baratu ze orai dagon lekuan ez urruti Santiagorako zen bidetik, baizego orduan soil beterik sasis ta arboledies, ladronen estalkume peligrsko, ta askotan ugaldearen kasos ezin zeikena pasa: eta denbora gartan ze anitz debozio joateko Santiagora peregrinazioan. Konpasionaturik gizon sandua ainberze peregrinoen trabajues, kaltees, eta peligrues erresolbitu ze Jangoikoareki bateo paratzera erremedio: erre sasi-diak, botatu arbolak, eta garbitu zue guzia ederki: egin zue bide erreal, ta kalzada bear zen guzian; baitare zubi bat ederra, pasatzeko ugaldea; baitare hospitale bat, non akojitu peregrinoak, eta Kristo Salbadorearen tenplo bat, zeñi gero aumentatus etxeak, karrikak, ta gañarakoak, egin ze Zitudade bat deitzen dena Sto. Domingo de la Calzada Sanduaren izenetik, honratu dena Obispoaren katedrareki. Beira zenbat dezaken gizon pobre batek, baña sanduak, Jangoikoareki! Zenbat milagro obratu zituen

len ta gero nork kontatzen? Bizitu ze laurogei tamar urte baño iago, eta iltze Jaunaren besotan suabekiro, ta zazpi urtes lendanik egin zuen obian ortzi ze 1109 urtean.





## Maiatzaren 15.an S. Isidoro Nekazaria

1. Estimaten duela Jangoikoak nekazalgora, da señaile ona paratzea bere Ebanjelioan anitz konparazio nekazalgotik artuak, nola ardantzearena, azaroarena, eraizio, ta eultzi, ta aizerarena: baña zer honra, zer estimazio egitea ezta Jesu Kristok berak errate gura, naiz dela konparazio, *ni naiz aien egaskoa, ene Aita da Nekazari?* Alaere señaile obena da izatea Nekazari asko sandu ta Janoikoaren adiskide onetsiak. Alakoetaik bat da S. Isidro edo Isidoro Nekazaria, Madrilen aioa, baña pobre zerbitzuan egona, ta alokatzen, irabazis ogia bere izerdias, ta alaere ain sandu, ezi Erregeen Kortean da Patrono andia, ta erregeek ta Jaundiek adorutzen dutena. Ze beti agitz deboto, Jangoikoaren gizona propioiki, humila, ixila, bakeskoa, erretiratu, onesten zituena guziak, ta guziek onesten zutena bera. Agitz ze goixtarra; ta lena beti Jangoikoa estimatzen zue, ta ala lanera baño len bisitatzen zitue Madrugo zenbait Eliza, faltatu gabe obligaziora, ezi bazekie obligazioa kunplitzea dela prezisoago ezi debozioa, baña bazekie ere konpon daizkela elkarreki obligazioskoak ta debozioskoak, delarik diljenzia prudentea, ta diona Jesu Kristok, *haec oportuit facere, et illa non omittre*, obligazioak kunpli, eta deboziak ez utzi. Guziareki zenbait aldiz zebatzen ze bere debozioan berant artaño, baña nioren perjuiziorik gabe, ezi gero suplitzen zue berak aplikazio dobleareki, ta Jangoikoak laguntzeareki. Paratu ze Maxter bekala Madrilgo kaballero Juan de Bargas deituaren, kuidatzeko hazienda ark zuen bates aldamenean, onenberze alokairutan. Zenbaitek, dela inbidias, dela berze gisas, eman ziotte kontu Nausiari, nola Isidro egoten zela Elizaetan espazioreki, ta berantegi joaten zela alorrera lanera. Nausiak egin zio kargu, nola zuken eraman soldata oso, trabajatu gabe oso? ta etzela ere Jangoikoaren zerbitzu ona errezatzen egotea tratatzen egon bearrean. Errespondatu zio humil, etziola in nai kalterik, ta iten bazio, paga zeila arenetik: beira zezala ongi, ta ezpazue kalterik, utzi zezola kunplitzera Jangoiko Jaunareki; Nausiak admiraturik Isidoren onas utzi zue bakean: baña nai zue bein bere begis ikusi pasatzen zena. Joan ta altxaturik kanpoan ikusi zue Isidro berant nola zoeien alorrera: Bazoeie akar in bear ziola, ta urbildu zelarik ikusi zue erdian Isidro idi pare bateki lanean, ta aren alzinetik ta gibeletik berze bi pare elurra bezain txuri. Alegratu ze, bide zela milagrosko gauza, zekielarik etzuela Isidrok posibilidaderik paratzeko bere kostus. Ellegatu

zelarik ia etzue ikusten, baizik Isidro bakarrik bere idieki. Galdegin zio nor ziren lagun in ziotenak lentsago? Errespondatu zio senzillki, ezta gizonik lagun in didanik, baizik sollik ene Jangoiko ona da lagun iten didana beti, zeñi enkomendatzen bainaiz ni ere, ta beñere eztida faltatzen bere anparoa. Oneki seguratu ze Nausia, ta erran zio enkomenda zeila nai zuen denbora guzian; etziotela kasorik eginen murmurazaleei andik alzi-na.

Berze bein aurkitu zuzte idiak bakarrik berak lanoan, nior etzela ageri kidatzen zituenik, ta anitz lur landu zutela. Abisaturik Nausiak ikusi zue miragarri gura: sospetxatu zue bide zegola bitarteo Isidro Elizaren batean; itzuli ta aurkitu zue S. Andresen Elizan nola zegon debozio andiareki. Berze egun batez ezin entzun duzue mezarik: gero arratserat lana bukatuas geros joan ze bisitatzaera Eliza gura, baizego ia ertxirik: paratu ze belauriko atarian; bereala elebatu ze espirituan, ta idirik Zeruko atariak, an ikusi zue zelebratzen meza solemne miragarriro, ta entzundurik itzuli ze berebaitan konsolazio andiareki. Bete ze biotz gura Jangoikoarenganako amoreas, afizioneas, ta errespetoas ain guzis, ezi etzue ajolarik, ez gogorik, ez memoriarik ere mundu guzias aren aldean, ez bere buruas ere, ez konbenienzies, ez deskansuas, ez sustentu prezisoas ere apenas. Emengo ondasunak anbat estimatzen zitue nola loi edo lur-puskak, ezpaze emateko beartsuei, iago ezi bere buruai. Jangoikoaren amoretik itxeki zekio proximoen amore fiñ jeneroso. Etzio niori inbidiarik, guziei bai atenzio, ta pobreei konpasione, baita egastei ere ta lurreko animalettoei. Elurketa batez zoeie errotara iotzera bizpiru erregu gari: ikusi zitue arbole batzuetan usoak, ta goseak bide zeudela, garbitus elurretik lur zati bat, an bota ziotte bere gari gartaik porzione bat jan zezaten. Laguna asi zekio irri egiten ta murmuratzen ortas: baña mostratzeko Jangoikoak zuela plazer afekto on gartas, kostala ain bete aurkitu ze nola len. Oroat eraikitze-ra zoeielarik, bidean ematen ziotte pobreei, baitare botatzen lurrean egasteendako: ala arindurik zakua bidean, alorrean aurkitzen ze ain supliturik. Eraikitzerakoan zio, Jangoikoaren izenean au Jangoikoarendako, au guretako, ta au txinurrien, ta txoriendako. Pobreei ematen zue zuken baño iago fiaturik Jangoikoan, zeñek asko aldiz suplitu zue milagrosoki, ia errotan gari gutitik atras anitz irin, ia etxean elze ustutik atras jateko pobreen, ori anitz aldiz, ezi anitz ze andia zioten konpasionea: ez ala bere buruai. Zego bein erri bateko Elizan bere orazioan, utzirik kanpoan bere astokoa. Etorri zekizkio mutiko batzuk abisatzera, nola otsoa jokatu zekion astokoari. Sanduak sereno, ene humeak, zoazte bakean; Jangoikoak nai duena izanen da; kunpli bedi bere borondatea: ta segitu zue geldi bere orazioan:



baña Jaunak kuidatu zue arren partez bitarteo. Bukatu ondoan atra ze, ta aurkitu zue otsoa ilik astoaren aldakan, eta astoa sano mellarik gabe. Sanduak kuidatzen zue berzeren bearres obeki berzes baño. Nausia joan zelaik bein heredajeen ikustera, il zekio an zaldia. Ellegaturik an Sanduak eman zio palmada bat, ea, Jangoikoaren izenean jaiki, ta erman Nausioi gañean. Istante jaiki ze bizi, ta bizkor. Animaleareki in zuenak obeki inen zue personareki. Bero andi bat zegolarik, egarritu ze Nausia alorrean: galdegin zio ia bazuen urik. Sanduak mostratus eskuas tufar bat, erran zio, an aurkituko zela un Joan ze billa, baña etzue aurkitzen ur errestorik ere. Deitu zue Isidro, non da diozun iturria? Ellegaturik Isidrok eman zio pertikas tufarrai ziola, emen Jangoikoak nai badu, ur atrako du. Momentuan atra ze ur garbi garbia, dirauena orai arteo, ta egiten asko milagro. Berze iturria franko emen dire Madrilaldean Sandu gonek atreak.

Jangoiko andiaren adiskide andia ze pobre gau, ta pobre gonon adiskide andia Jangoiko andia, ta onen medios iten zitue milagro anitz ta andiak nola nai. Guti dela agotz solletik gari atratzea, ta gari gutitik irin abasto, ta eman ez gutitzea, ta idorretaik iturriak abasto jaioaraztea, heriak sendatzen, ilak ere zitue bizten milagrosoki. Zue bere Nausiak alaba bakar bat agitz maite: iltze au, Isidro zegolaik kanpoan: Itzuli zelaik aurkitu zitue negarres guziak, ta prestatzen ilaria. Joan ze ilaren ikustera, ta asi ze Jangoikoai egiten orazio; gero bere aurpegias ukitus ila, itzuliara zi zio arima, guziak arriturik zeudela bedekiatzen Jangoikoa. Ezkondua izan ze S. Isidro; bere gisakoa zue bizikidea, S. Maria de la Cabeza: izan zute seme bat, zein izanas geros, ia biak elkarren konsentimentus bizi zire anai ta arrebak bekala kastidadean, iago plazer emateagatik Jangoikoai. Mutikoa azi zelaik erori ze butzu batean; ta kanpotik etorririk S. Isidrok, ta aiturik desgrazia, paratu zire biak belauriko butzu-pokalean eskatzen Jangoikoai fabore tranze gartan. Ala daudelaik ikusten dute igaten dela ura pokaleraño, ta ur gañean mutikoa bizirik; zein arturik Aitak eskutik atra zue sano, emanen Jangoikoai esker milla, batak eta berzeak. Baña Deabruak nai izan zue eraiki diskordiaren zizaña bien ermean. Sandua bizi ze Madrilan, ta Sanda Karakiz deitzen den erri batean, Ama Birjinaren hermitan. Errian biltzen zue olio lanparaindako, eta egunoro itxekitzen zue pasatus Xarama deitzen den ugaldea. Berze errietan ere eskatzen zue berze hermita batzueendako, baizue debozio goi. Gaixtoek gaitzera bota zute joanetorriketa gura; ta akusatu zute Sanduari, bere andrea debozio-idurian, edo atxekian gaizki zebilala. Naiz ez sinetsi, nai izan zue ikasi. Joanik Madrilatik esperatu zue ikusi etzuten lekuan. Andik ikusten du nola eldu den olio ta argi zekarrala, ta ugaldera ellegatu zelaik zeñaturik,

ta mantelina edaturik ur gañean, artan bera oñes busti gabe pasatu zela berze aldera, ta gero lanpara itxeki ta bere debozioak in ondoan itzuli zela orroat ur gañean. Konsolatu ze Sandua, ta konfirmatu ze artas zuen opinionone onean. Baña denborain buruan berriz ere akusatu zute: eta Sanduak sentitus Jangoikoaren ofensa juizio gaixtoa egiteas ala fundamenturik gabe, erman zitue bereki desengañatzeko, ta paraturik lengo lekuan, eldu ze bere Hermitarat Sanda, ta guziak beira zeudelaik, edatus mantellina uren gañean, pasatu zue ugaldea aratakoan ta onatakoan, ta gelditu zire arriturik, ta desengañaturik.

Anitz urtes bizitu omen ze S. Isidro, ta ellegaturik plazioa, errezebiturik debozio andiareki sakramentuak, entregatu zue bere espiritu humila Jaunaren eskuetan Azaroaren 28.an 973 urtean. Ortzi zute S. Andresen Elizako zemeterioan, non egon zen atzendurik bekala 40 urtes. Baña Jangoiko Jaunak nai zuenak honratu munduan ere ere sierbo ona, ta erakutsi Madrildarrei artan zuten ondasuna, Patrono, ta anparoa, ezauntzen etzuten, disponitu zue aparezi zeien bere adiskide izan bati, Elizara urbil bizi zenai, enkargatus abisatzeko Sazerdoteak ta Kargudunak, pasa zezatela gorputza zemetoriotik Elizara. Gizon gura etze izan trebe erratera bisio-nea, etziotela sinetsiko, ta orgatik erori ze berla heri. Aparezitu zekio berriz ango Matrona noble bati; ta onek in zue manatua, ta izan ze sinestataua, Nekazari Sanduak Madrilan utzi zuen fama onagatik. Joan zire guziak zemetorio gartara, ta obia idirik, aurkitu zute gorputz sandua oso batere korrupzionerik gabe, ta mortaxa ere oso, eta guzia barratzen zuela ain fragranzia ona, ezi guziei paratzen ziote debozio, zein aumantatu ze milagro berri bateki, soñatzeareki beren kabo, niork ukitu gabe, ango ezkila guziak pasatzerakoan Elizara. Zeude bitartean pobre batzuk estropeatuak ta itsuak bide errealean eskean, ta aiturik asatzen zena joan zire nola zeizken, ta obia utsa ukitu orduko aurkitu zire sano ta sendo. Milagroen podores asi ze famatzen Sandutako. Erregeak ere izan dire beraren deboto; ta Alfonso VIII. irabazi zuena biktoria Moroen kontra Nabas Tolosako deitzen den lekuan, zelebrazten baita Elizan guruzearen triunfoaren nonbreareki Garilaren 16.an, enkomendatu ze lenik S. Isidrori, ta Sanduak kidatu omen zue leku gaietan. S. Fernandoren denboran aumantatu zire S. Isidroren milagroak, berexki logratzean euriak idorketaetan. Eta arren Ministro erreale batek etzuelaik nai sinestatu, master pobre batek nola S. Isidrok in zukela ainberze miragarri; bereala progatu zue Jangoikoaren kastigoa gorputzeko gaitz erru batean, ta penaturik erranas ermanarazi ze Sanduaren obrara prozesioan guziak kandelaeki eskuetan: an eskaturik barkazio, ta ofraturik zenbait presenta, itzuli ze sano prego-



natzen Sanduaren laudarioak. Obiara eramanik aur bat ila buratsoek logratu zute itzultzea bizirik etxera Sandu gonon medios. Moroen kautibo zegon bat libre kateetaik paratu zue bi aldiz Sanduak leku seguroan. Berze bat sentenziaturik eriotzera atra zue libre karzeletik. Kaballero batek artu zue pobre bat lanzeko lur batzuk urteaz; onek nai zue urte guziko saria alzinaturik; baña fiadore nai ta ezin izanes, Sandu gonon obian eman zue itza, kunplituko zuela; ta orreki eman zio arrek. Baña esker-gaitza ajolarik gabe itz emanaz bazoeie iges, ta gauas pasatzen ze ustekabeen S. Andresen Eliza alzinean. Gauza miragarria! gau guzian lasterka ibilirik, goizean aurkitu ze an berean; eta Kaballeroa zoeielaik eskatzera Sanduari fianza, aurkitu zue an gizonoi ingur ingur zebilala. Onek eskatu zio barkazio Sanduari ta Nausiari, ta kunplitu zio gero bere obligazioa eskarmentaturik.

Arimen libratzean izan da señalatua. Gizon bat onen deboto izana iltzerakoan beirutzen ze inguraturik Demonioes, eramateko esperan, baitzego bekatu mortalean: klamatzen zue biotzas Sanduari: ta agerturik an bota zitue Espiritu gaixto gaiek, eta konfesarazi zue ongi. Berze bat goatzean zegolaik nai zue Demonioak bota butzu batean: Sanduak agerturik erran zio, etzuela ikustekorik gizon gartan, zeñen fiadore bainaiz ni. Demonioak zio, nola fiatu dio, baitago bekatu mortalean? Sanduak, aspaldian da nere deboto, ta Kristoren graziak libratuko du bekatutik ta ire eskuetatik. Istante ura joan ze iges, eta Sanduak gizonoi erraten dio, in zazu nik errana: konfesa zaite zeure bekatu guzies ongi urrikiturik. Ongi argitu gabe mogitu ze ta joan ze konfeszatza gogotik ongi penaturik. Ala kontatzen da Moro bates Amete deituas, Sanduak bizpirur aldiz deitu zuela bere izenas ziola, Amete Amete, in zaite Kristio; nik erraten dizut. Eta ala egin ze. Noiz akaba kontatus milagroak? Milagro kontinokoa da bere gorputzaren entereza galetsi gabe, ta atxon Zerukoa bekala barratzen duena: Marineo Sikulok tio itz gebek: Nik ikusi dut bere gorputz sandua; ta dago ain oso, baitirudi etzuela ilik baizik bizpirur ilabete: ta iago admiratzen duena da, ezi edozein iletan lenbiziko galtzen dena delarik sudurra, ta begien zurra, onek baitauka oso miragarriri; ta ikusi nue-laik oroitu nitza dionas eskritura sagratuan, *Eztela galduko zuen buruko bilo bat ere*. D.a Juana Erreginak Enriko II.en andreak debozios nai zue aldatu Sanduaren beso bat berze leku batera: baña ezin atra ze Kapillatik gaitz andi batek emanik: ezaundurik etzela Sanduaren borondatea apartatzea gorputzetik besoa, itzulirik bere lekura istante sendatu ze. Erregina Katalika D.a Isabel sendatu ze gaitz grabe batetik Sandu gonon medios: joan ze bisitatzera bere Kapillan; eta adoratzean oñak Dama batek ortzes

kendu zio eri bat: baña guziak ia bazoezilaik, ura ezin atra zeike anzik: Erreginak jakinik ori, ta Damak konfesaturik in zuena, manaturik itzultze eria, itzuli zue, ta bereala aurkitu ze libre joateko. Milagro ta fabore anitz ta andien kasos beti izan ze beneratua Sandu bekala: guziareki Madrilgo Korteak agertus bere agradezimentua bere Ongiegille ta Patrono den Sandugoni, logratu du kanoniza zeien solemneki: eta ala Gregorio XV.ak kanonizatu zue solemneki S. Isidro Nekazaria batean berze laur Sandu andieqi. S. Ignazioreki, S. Felipe Nerireki, S. Teresareki, ta S. Franzisko Xabiareki: baita Jangoikoaren probidenzia honratzea alakoen ertean Nekazari pobre bat, ala nola egitea Españaiko Madrilgo Korte andiaren Patrono, beneratzen dutena Erregeek, Prinzipeek, ta Jaundiek belauriko humil, entenda daien Jangoikoaren alzinoko eztela diferenziarik persones, baizik nor den onago, ura onetsiago: eta niork eztuela atxekiarik, ez izateko on eta salbo, nai badu &.



## Maiatzaren 20.an S. Bernardino de Sena

S. Bernardino, Italia guziaren onerako, jaio ze Senan jendaki noble-tik. Ama iltzekio irur urtetakoa zelarik, Aita berriz seigarren urtean: Ala gelditu ze emazurtz goizik, ta bere kontura artu zue bere izeba batek bere Amaren aizpak Diana deituak, ta maite zue ta azitzen zue ain nola balitz Ama propia; eta aurra ze txoil amablea, agitz eder agraziatua alde bat, berze alde agitz ongi inklinatua, humila, modestoa, alketia, obediente; bere dibersioa mezak laguntzea, konpontzea aldareak, imitatzea predikariak predikatus aien gisara mutiko lagunei, ta mostratus ia gero izan bear zena. Estudioetan izan ze estudiante guzien exenplu, eta bere Maestruak zio, sekulan etzuela izan diszipulo obeagorik jenios ta injenios: ain honesto neurritua mintzatzean ere, ezi sekulan etzue uzten atratzera bere agotik itz bat bear etzena, eta beraren alzinean noribaiti eskapatzen bazekio itzen bat deshonesto-iduria, alketzen ze Bernardino, kolorea gorriturik, ederrago ala. Orgatik bera etzegolaik al bazire alako jardukietan, agertzen baze, ola ziote: ixil, ezi eldu da Bernardino. Jai andi batez prediku zen Eliza batean ezin kabituz jendea, gelditu ze anitz ataritik kanpoan; eta mutil sandua Jangoikoaren amores suturik igan ze an leku goraxagoan, ta zefñaturik asi ze predikatzen, ta predikatu zue ainberze grazia, xakintasun, ta modu onareki, ezi guziak utzi zitue admiraturik bedeikatzen Jangoikoa. Denbora gaietan bide ze, noiz S. Bizente Ferrer zegolaik predikatzen Italian, gelditurik predikuan erran zuen, berri andi bat ematen dizet, dagola Eliza gontan mutil bat, Elizak kanonizatuko duena Sandu, ni baño len, ta ni joan ondoan utziko dut ene lekuan. Ta mutil gau ze S. Bernardino, ta testigo ona S. Bizente, ta guzia egiatan atra ze. Zue lengusu bat errelijiosa agitz sanda, zefñi erraten zion maiz Bernardinok, zegola amorosturik donzella bates eder ederras, bisitatu bear zuenas egunoro. Beldurtu ze Sanda gura, ote zion mundukoren bates. Goart eginik ikusi zue nola joaten zen egunoro bisitatzera portale gañean zegoen Ama Birjinaren imajina bat txoil propia. Galdegin zio ia ura zen donzella ain maite zuena? Errespondatu zio baietz, ta maiteago ezi bere bizia; ta eskatzen ziona zela, nola baize gastea ta iduri onekoa, guarda zezan kastidadearen peligroraik. Eta kastidadearen amazale bekala beti izan ze Ama Birjinaren deboto: barutzen ze beraren jai bezperaetan ta larunbatetan: ta gero errelijioso zelarik, beraren festaetan predikatzen zue iago ferbore ta alegriareki: eta bein

erran zue, ni jaio nitza Ama Birjinaren jaitegunean; egun berean jaio nitza erreligionera, ta in nue profesioa, baitare lenbiziko predikua: ta esperanza dut beraren merejementus jaiotzea Zerura. Edozein gisas baliatu zekio zion debozio fiña, guardatzeko kastidade birjinala munduko sirena banaen, ta bere iduri ederraren bortxaz.

Peste-denboran gelditurik Senan Hospitale Eskalakoa beterik heris, ta nior etzela trebe sartzera asistitzeko, mogitu zio Jangoikoak espiritua egitera karidade andi gura, ta bere itz ta modu oneki bildu zitue zenbait adiskide obenetaik laguntzeko. Laur ilabetes an askoeri bizia eman ziote, ta berea guardatu zio Jangoikoak. Aterturik gaitz gura, enpleatu ze asistitzen bere Izeba lauretan ogeitamar urtetako errelijosari, baizue bearra, bizitu zen bitarteo: ta uste da izeba gonek apegatu ziola Jesusen izen dulzeari izan zuen debozio fiñ iña. Baña ia zego atra naiak munduko Babiloniagontaiak, despreziatus emengo elze, ta tipulak, ta farraskeriak. Jangoikoaren inspirazio sartu ze S. Franziskoren errelijionean: ta egin zue profesioa Ama Birjinaren jaitegunean, eta andik urtemugan erran zue lenbiziko meza, ta lenbiziko predikua ain miragarriri, ezi manatu ziote obediencia pean izateko Predikari errelijioneko: Baña zeren senti zuen bere txintxurrian zerbait estorbu, eskatu zio Jangoikoai paratus bitarteko bere Ama Santissima, libra zezan ortaiak, barin baze bere borondatea predika zezan: eta libratu zue milagrosoki. Ala amasei urtes predikatu zue egunoro bein edo bi aldis, zelarik nork aditu: Florentian, Senan, Toskanan, Lonbardian: Iduri zue Apostolu berri bat, ta ala aditzen zute: Predikua-bitarteo egoten zire ertxirik dendak, botigak, tribunaleak, estudioak, zeren guziek nai zute aditu. Fruitua ze bere ariora: baketu zitue bando aspaldirik gerran zeudenak elkarren kontra: Infinizio bat bekatari konbertitu zitue de manera ezi gizon jokariek ekartzen zitiote barajak, table-roak, ta jokuko instrumentuak, emastekiek beren banidadeko gala, hispillu & baitare sorginderien sorteak, zedulak, eta gauzak: ta hogera andi bat egin, ta guziak an erretzen zitue. Eramaten zue bereki ol bat, non zegoen urresko letraeki *Jesus* izen dulzea: ta erakusten zue jendeari predikatzerakoan.

Karidadea, baita Jangoikoaren ta proximoen amorea ze ala nola arima bizi ta igiarazten zuena obratzera, trabajatzera, ta padeziaraztera, plazer iteagatik Jangoikoai, ta arimei probetxu. Orgatik etzue ajolarik gañarakoas, ta zego munduaren gañean, ta oin petan zeuka mundua. Zimendu on guziaren zue humildadea ta fedea. Ain humila ze, ezi beñere etzue nai izan du munduko dignidaderik. Errehasatu zitue irur Obispado, Ferrarakoa, Senakoa, ta Urbinokoa: eta bein Aita Sanduak bere



eskus paratu ziolaik mitra, baita Obispoaren insignia burukoa, kendu zue eskatus humilki utzi zezala bere estado pobre errelijonekoan, alegatus ala iago zerbitzatuko ziola Elizari; eta Aita Sanduak ezaundurik, zeukala arrazio, utzi zue. Paziencia zue nola muralla edo peto fuertea, sufritzeko ez solamente bere trabajuak, baitare berzeren persekuzioeak, ezi goratu zioten asko testimonio falsu, ta akusatu ere zute Aita Sanduaren presenzian: doktrina etzela ona, ta zela Predikari ausart tentu gabea. Baña deiturik bera beregana Aita Sanduak, ta aiturik beraren arrazioak, ta fundamentuak, entendatu zue egia; ta gelditu ze Sandua kredita iagoreki, argizteko munduari.

Nai zuelaik pasatu Napolesa, bidean adiarazi zekio ordena, pasatze-ko berze mundura. Aparezitu zekio S. Pedro Zelestino, ta suabe amoltsu animatu zue sufritzeko eriotzea ia urbil zegona. Oneki agitz alegratu ze, baizire bere antsiak ikustea Jangoikoaren aurpegia. Exortaturik erreljio-soak guardatzera beren erre la, ta errezibiturik Elizako sakramentuak debozio guziareki, utziarazi ze lurtean; an goraturik begiak ta eskuak Zerurat asi ze alegratzen ta irris gozoro, nola ikusten zituela idikirik Zeruko atariak: eta irri gozo goneki despeitu ze arima eder gura erreinatzeke Jangoikoareki, Juande Salbatore-bezperan, 1444 urtean. Eta andik sei urte kanonizatu zue Aita Sandu Nikolas V.ak 1450 urtean, borz urte lenago ezi S. Bizente; beronek erran bekala. Bizitu ze S. Bernardino 63 urte ta gexago; ta il ondoan honratu zue Jangoikoak anitz milagroeki, nola bizian ere bai. Kanonizatu ta urbilen urtean in zioten Akilan tenplo bat, non paratu zuten 1472 urtean.

## Maiatzaren 25.an S. Maria Magdalena Pazzi

S. Maria Magdalena Pazzi, ez Kristoren denborako gura, bai azken denbora ebetakoa orai berreun urte bizi zena, Florentian aia, izan ze birjina bat admiragarria iago ezi imitagarria. Bataioan deitu zute Katalina, gero aldatu ze Maria Magdalena. Kasi kunatik asi ze egiten sanda: ain goizik izan zue ezaumentua klaro, ta inklinazioa zuzen Janoikoagana. Ze aur bat juiziosa, geldia, modesta, guzietan neurritua, afizionatua aditzera Jangoikoaren gauzak, erretiratzan zena egitera orazio mentala. Zazpi urtetan ia egoten ze orazioan luzaro: eta erakutsirik bere Amaren konfesoreak, pensatzen Kristoren pasioan egoten ze artan orduak ta orduak askotan, erretzen Jaunaren amorez. Alaber afionatu ze egitera penitencia asko marieras mortifikatus gorputzto inozentea. Aldareko sakramentuari ainberze debozio itxeki zekio, ezi naiak zego ansiatzen noiz utziko zuten komekatzera; bitarteo bere gustoa ze egotea tenploan, ta ikustea berzeak komekatzen; eta Ama komekatzen zen egunean beti zegokio aldakan, ta galdeginik zergatik ala, zio, zergatik senti baitut Jesu Kristoren atxon ona. Amar urtetara zelarik eman zioten lizenzia komekatzeke, ta gozos zoraturik bekala prestatu ze anitz orazio ta exerzizio debozioskoeki; eta komekaturik sentitu zue gozo ta gusto soberanoa, ta ain zebaturik gelditu ze, ezi permititurik komekatzea zorzitik zorzira, egoten ze kontatzen egunak eta orduak, zenbat falta zen ellegatzeko. Alako gosearen ariora ze probe-txua. Erretzen ze ansias ta zelos, ezaun zezaten ta estimatu guziek Jesu Kristo; eta egoten ze penatzen negarres, zeren ofenditzen duten malamente. Ala bere dibersioa ze erakustea berze aurrei doktrina Kristioa, ta orgatik joaten ze gogotik aldiritara, erakusteko ango aurrei, eta eskatzen zitio Amari zenbait txotxo ta gauza, emateko eldu zirenei, ikas zezaten obeki: ta ez luke joan nai orgatik ziudadera: ta gusto goi emateagatik Amak eraman zue aur bat aldiritakoa, nori erakutsi zezon ziudadean. Etxeko neskatoei erakusten zioten egiten orazio mentala, eta etzeizen exkusa etxeko laneki, berak lagunzen zioten guzietan. Ezta doktrina gau erakusten mundu gortan, ez, baizik banidadeak ta kanta banoak. Ain kasta ederra bekala ze, ta garbi naia, ezi amar urtetan in zue boto konserbatzeko birjin gorputz ta ariman bizi guzian Jesu Kristoren amorez.

Logratu zue otoi ta otoi lizenzia komekatzeko Jaioro Jesusen Konpañiako erretorearen konsejus: baña eman ze oraziora ainberze, ezi egu-





naren ta gauaren geiena ortan pasatzen zue, ta askotan aurkitzen zute elebaturik, ta ondaturik Jangoikoan. Bere buruareki ze gogorra, berze guzietan beratxa ta ongi egin naia guzietan, espezialki herietan, zeñei asistitzen zioten agitz ongi. Ain noblea, juizioskoa, ta ona izateareki, proponitu zioten buratsoek asko akomodu andiak matrimonioaren estadoan; baña berak nola artu baizue ia Jesu Kristo bere esposotako, desengañatu zitue beingoas betikos, lenago utziko zela ebakitzera burua: eta ala otoben podores logratu zue uz zezaten izatera erreljiosa Karmeskoa. Ezta posible erabakitzea zein perfekta zen ta sanda prinzipiotik ere: nork erran noraño sandutu zen azkeneko? Eta nork Jangoikoareki zuen komunikazio sobrenatural kontinokoa? izan zuena Zeruareki? zenbat errebelazio, ta erregalo espirituale an goratik? Zenbat progu ere, trabaju, ta martirio, agertzeko Jangoikoaren grazia zen poderosa den dispozizio duen personan, naiz den emastekia? Bortz urtes utzi zue ala nola pelean Demonioeki leonen kubila deituan, baña beti biktoriosa triunfante! Zenbat tentazio, persekuzio, tristura, ta desanparo utzi zion pasatzera bere Esposo dibinoak, errefinatzeko iago ta iago Sandaren humiltasuna, pazienza, korajea, ta santidadea! Alaere konstante animosa erraten zue, padezitu, ta ez il. Iago dena Jaunaren erregaloes ere nai ze gabetu, egiteagatik iago plazer.

Baña nola gauza gebek baitire sopra gora guretako, solamente aipazkigun birtute zenbait, ezpada, imitatzeke guzietan, bentzait ezauntzeko, zein apal gelditzen garen, ta alketzeko: birtuteak, diot, ezi debozio axalak, meza enzute, errosario, estazio, ta alakoak birtuterik gabe eztute ontzen persona; birtuteak bai dire ona iten dutenak persona. Len lena ta guzietan erregina, zaña, ta bizitza da karidadea, au da amatzea Jangoikoa beragatik, ta proximoa Jangoikoagatik. Fedearen ariora izaten da karidadea, ezi fedea da emateko ezaumentu Jangoikoas ta Jesu Kristo gure Errendetoreas. Ezaunduas geros ongi ta sinestatuas geros nor den bere Majestadea, zein amalea berez, ta zein gure amazalea, gure amarez obratu, trabajatu, ta padezitu zuena, da imposible ez amatzea, eta nork iago ezauntzen duen, iago amaten du. Baña ilundura dago barraturik mundua barna, eta fedearen argia ere guti da, ta ilunkara, ta ila ere askotan. Sanda gonek fede biziareki, ta orazio mentale kontinoareki ezaundu zue ongi, ta amaten zue osoki Jangoiko ona ta Jesu Kristo Jangoiko gizona. Erretzen biotza kontino amoresko su andiareki desaogatzen ze obra on, penitencia, ta trabaju pasatzean Jaunagatik, afekto, suspiro, ta itz amorosotan ere bai. Aurkitzen zuelaik norbait, galdetzen zio, *amaten duzu amore? eta nola zaizke bizi?* Bera ez iltzekos su amoreskoas, bear ze busti ur otzes bularra, besokak, aurpegia. Aldartez zoraturik bekala exklamaten zue, *o amore! sopra da,*

*sobra amaten gaituena.* Aldartez igaten ze dorrera, ta soñatus ezkilak oi iten zue, *Atozte, arimak, amatzera amore amaten zaiztena ainberze.* Progu ona da padezitu naia beti iago, ta erratea, ez nuke nai il ain goizik, zergatik Zeruan ezpaita padezitzen. Progu ona ere zelo andi gura Jaunaren honragatik, ta proximoen onagatik. Bere negarrak zire perpetuo betirokoak, *zere Jauna ofenditzen den, ta arimak galtzen diren:* para leikela infernuko atarian, ala al balezake debeka eztoaien nior arara. Il baño len erraten zue, *noaie mundugontak ikasi gabe nola niork dezaken adbertiturik admiti kulpa mortalaren bat bere Jangoiko Jaun onaren kontra...*

Boto eginen guardatzean ze txoil kuidadosa. Kastidadean ze nola Aingeru bat Zerukoa. Ikusi zute zenbait aldiz apatzen konbentuko pareteak; ta galdeturik motiboa zio, etzaize iduri arrazio apatzea parete sandu gebek, apartatzen gaitutenak mundu miserable zeken ortatik, ta segurutzen birjinidadaren tesoro preziosoa? Jautsiarazten zutelarik jarduki-lekura, pena zue, naiz ziren aideak eldu zirenak mintzatzera, ta nai lukela truk egotea purgatorioan, an egon bear zuen orduetan. Eta leonen kubila deituan Demonioek persegitu zuten bortz urte gaitan tentatus anitz manera gaixtos, geien sentitzen zituenak zire tentazio deshonestoak: eta ondo-rean apareziturik Maria Santisimak bein paratu zio Jesus aur idurian besotetan; berze bein seguratu zue etzuela beñere tentazio gaitan ofenditu Jangoikoa, ta bestitu zue bego elurra bezain txuri bates, señaletako etzuela sekulan ia izanen tentazio deshonestorik. Bere kastidade garbiaren progu ona ta milagroskoa da, ezi il ondoan, zeukatelaik gorputz birjinala kajan ortzitzeko, beiratsen ziolaik deshonesto batek aurpegira, itzuli zue berze aldera, nola balego bizirik, etzuela nai beira zezon garbi etzenak. Eta irautea oraño gorputz birjinala oso fresko atxon admiragarria barratzen duela, ezta progu gaixtoa.

Birjinidadaren guardia humildadea, ala nola presunzioa deshonesterikaren prinzipio ta pausu lenbizikoa. Humildadea, baita ezuntzea zer duen bereganik, ta zer Jangoikoaganik: bereganik gaitz guzia, ta onik baterez, Jangoikoaganik on den guzia, gaitzik ez. Ain humila ze egiaz, ezi bera zio zela gaixtakeria guzietan bilgura, ta ezpaleuka Jaunak bere eskutik, kapatz lizakela egiteko munduko maldadeak: eta naiz errezibiturik Jaunaganik ainberze fabore ta grazia, il bear zelarik, zego kontuaren beldurrak ikar ikar, eta guziei eskatzen zioten enkomenda zezatela, in zezan Jaunak arreki miserikordia: eta Konfesoareki galdegiten zio humil humilttoa, o Aita, iduri zaio salbatuko ote nai zen? Arrek ziolaik, zergatik galdegiten zion ori, errespondatzen zio, zergatik gauza lotsagarria baita ni bekalako bat, bere bizian gauza onik in eztuena, agertu bearra Jangoikoaren tribu-



nalearen alzinean. Humilaren utses kontatzen ze indigna, egoteko erreljiosan konpañian; apatzen zue lurra, non aiek paratu zuten oña; paratzen zekioe belauriko, erreprehendi ta kastiga zezatela; apatzen zitiote oñak; paratzen ze auspeska lurlean pasatu bear zuten lekuan, pasa zeizen beraren gañetik; lotuarazi ze eskuak atzerat, ta bendatu begiak ta ala amarratu enrejadoaren kontra, guziek akar in zezoten; ta alako milla. Itz batez: nola Jesu Kristo, Jangoiko izanik, humillatu baize eriotzeraño, ta gurutzeko eriotzeraño, Sanda gau bear ze izan sanda andia, bear zue izan humil guzia; humildadea zimendu, zimendua barna, izateko obra gora santidade admiragarria, Jesu Kristoren gisara.

Azkenean paratzeko Jangoikoak bere Sanda gau pazienziaren hispilu bere Elizan, erregalatu zue il baño len heritasun luze bates, obligatus egotera ogeitamar ilabetez goatze batean, obeki errain dugu, gurutze, ta martirio batean; anitz afflikzio ariman; ezin konta ala gaitz genero gorputzean, eta oñaze mienbro guzietan: arriturik Mediku guziak, nola zeiken bizi padezitus ainberze gaitz mortale doloresko lotsagarri. Iago zena, txurtu zekizkio lengo konsolazio espirituale Zerukoak, padezitzeko iago. Alaere mantenitzen ze, ezin bizis ta ezin iles, ain konforme ofrezitus ala egotera, nai bazue bere Majestadeak, juizioko eguneraño. Lastimatzen zirenei erraten ziote, au izan zela beti bere deseoa, padezitzea Jangoikoa-gatik. Komekatzen ze egunoro, ta an indar-berritzen ze, padezitzeko iago. Errezibiturik Oliadura Sandua, okurritu zekio baje preziso bat Konfeso-reai, baña etzelarik trebe, Sandak seguratu zue, bazeikela joan irur eguntako, ezi ondorean oraño aurkituko zuela bizirik. Aumentatu zekizkio penak eta doloreak; etzue admititzen alibiorik, ziola, Jesus onak gurutzean etzuela izan konsolurik. Maiatzaren 25.an errezibitu zue Biatiko Sandua, Bideasko bekala: zeude goizeko amarrak arteo erreljiosak beira, noiz akabatuko zen iles: Orduan zoeie Konfesoarea atratzera mezara aien guzien komekatzeko: ta ia errebestiturik abisatu zute zegola azken agonian. Etzekie zer egin: gero Jangoikoaren inspirazios gastigatu zio Priorai, mana zezola ezi nola izan zen bizian obediente, izan zeuela iltzean ere. Manatu zio Priorak etzeiela il, akabatu arteo meza, ta komekatu arteo erreljiosak. Manamendu gau aitu orduko itzuli ze berebaitan, irur ordus mutu egon zena, ta erran zue, Bedeikatua biz ene Jauna, utzi bainau azken punturaño konsolurik gabe: kunpli bedi bere borondatea. Berriz ofrezu zen naiz padezitzera, non ta in dezadan mertxede salbatzeas. Meza akabaturik igan ze Sazerdotea, eta berla despeitu ze arima sandu gura Maiatzaren 25.an 1607 urtean, adinaren 41.an. Gelditu ze ila ederrago ezi dai-ken pensa: ta biramonean presentaturik tenploan guziei kausatzen ziote

erreberenzia ta debozio: ain klaro ze ageri nolako arimaren onzia izan zen, ta zegola au ia glorian: eta gorputza naiz araturik leku humedoan mantenitzen da oso fresko ta galetsi gabe, barratus atxon Zeruko admiragarria. Beatifikatuzue Aita sandu Urbano VIII.ak andik emeretzi urte, 1626 urtean: Gero kanonizatu Aita Sandu Klemente IX.ak andik 43 urte, 1669 urtean &.



## Maiatzaren 30.an S. Fernando II.a Kastelako, III.a Leongo

Andi edo txipi, abrats edo pobre, fortunoso edo ez fortunoso izatean etzagola sandu izatea, baizik arima ta biotz ona izatean, da progu erreala, in baititu Jangoikoak estado guzietatik sanduak, pobreak oroat nola abratsak, oroat fortunoso nola ez fortunoso izanak munduan. S. Fernando Erregea Kastelako II.a, ta Leongo III.a izan ze guzis fortunoso, batalla bezanbat biktoria kontatu zuena moroen kontra. Denbora berean S. Luis bere lengusu propioa Franziaiko Erregea bi aldis joanik irabazteagatik Jerusalemgo ta Palestinako leku sanduak, bietan desgraziatua, lenbizikoan Presidario, bigarrenen iltze leku gaietan. Bien etorkia entendatzeko, da xakitea D.º Alfonso VIII.ak Kastelako Errege famatuak, (il ziotenak, Nafarroako ta Araguako Erregeeki bateo, Moroei Tolosako Nabas deitzen den lekuan berreun milla, faltaturik sollik ogeitaborz Kristio triunfo glorioso milagrosoan, deit zan baita gurutzearen triunfoa, zelebratzen duena Elizak Garillaren 16.an ta agitu zena 1212 urtean, noiz ere D. Santxo VIII.ak Nafarroko Erregeak *fuerte*a deituak, zeren autxi zituen kateasko enrejadoak Moroen Erregeak in zituenak kanpoan, artu baizitue arma ta insigniatako kateak.) Alfonso garrek bada izanik berze humeen ertean bi alaba D.a Berengela ta D.a Blanka: au ezkondurik Franziaiko Erregereki izan ze S. Luisen Ama; bere Aizpa D.a Berengela ezkondurik Leongo Errege Alfonso IX. areki izan ze S. Fernandoren Ama. Nolako semeak, alako Amak biak; esneareki eman zizkiote beren kondizio nobleak ta sanduak, ta azitzeareki guzis ongi atra zuzte nai bekalakoak zein baño zein obeak. Ilze desfortunas Henrike La Kastelako Errege gasterik D.a Berengelaren anaia: ta arreba gau bereala egin zute Erregina; onek ekarrarazirik bere semea Fernando, oni pasatu zio Korona, ta proklamatu zute Najeran zugar baten pean, ta gero Valladoliden Korte jeneraleetan. Palakaturik bere Aita nai zuena beretako Kastelako Korona ere, sosegaturik zenbait alterazio, pregonaturik guzien faboretan barkazio jenerala, logratu rik Errege on prudentearen fama ta kredita, ia guziek ongi nai zutela, bildurik jende tratatu zue gerra egitea Moroei. Lenik in ziotere hereje gaixtoei eskaparazis Erreinitik, ta erres arrapatu zirenak. Guzia paratu zue orden onean, nola balego usaturik anitz urtes goberna-

tzeko moduan: baña erakusten zio Jangoikoak Erregeen Erregeak orazioan, zeintan gastatzen zuen asko denbora, ta maiz konfesa-komekatzean.

Goazen, dio, orai akabatzerako moroak Kristiandadearen ta Españaren etsaiak, ta kentzera arrapatutuzten Ziudadeak ta Erreinuak. Prebenitu ze ongi; ta ikusirik, bera zoeiela personan; arrimatu zekizkio anitz Jaun ta soldado boluntario ere. Arturik intenzioa, defendatzeko, libratzeko, ta edatzeko, ez bere erreinua ainberze, nola Jesu Kristoren erreligiona, ia bere alde zue Jesu Kristo bera. Segitzen zute Errelijioso Sanduek, S. Pedro Nolaskok, S. Pedro Gonzalezek, V. Domingok, ta berze asko Sazerdote, Konfessore, ta Predikariek, mantenitzeko tropak Erregeren gustora Kristio onak. Zerama bereki apareju, nonnai baraturik, formatzeko tenplo gisa bat kanpoan ere, zelebratzeko mezak ta ofizio dibinoak solemneki, egiteko errogazioak, orazioak, konfesioak, komunioak, ta gañarako on direnak palakatzeko Jangoikoa. Maria Santisima zue nola bere Ama amantea, ta amatzen zue hume onaren amoreareki. Zeramazkie beti beraren irur imajina: bat zillarreskoa dagona orai Sevillan: berze bat marfileskoa txipiago, ermaten zuena zaldi gañean batallaetara: irugarrena Erregeen Ama Birjina deitzen zena, zein honratzen baizue erregina bekala palazioko kunplimentu guzieki, ta dagona txoil estimaturik Sevillan: ta arrazioreki, zeren baita milagroskoa prinzipiotik, len ta gero. Diote ezi, zegolarik bere orazioan bein elebaturik Errege sandua agertu zekiola gloriako Erregina Maria Santisima: nai izan zuela Sanduak egin imajina bat ikusi zuenaren konforme: billatu zitue ofizialerik obenak: berak explikatzen ziotere nola in bear zuten; baña etziote atratzen bat berere guzis konforme ta nai zuen bekala: Ellegatu zire bi mutil txoil ederrak ofrezitu ziotenak irur egunen buruko inen ziotela imajina konforme nola nai zuen. Eman ziotere ortako aposentu bat erretiratua. Irur egunen buruan sartu ze Errege ikustera; aurkitu zue imajina perfekto nola nai zuen, baña etzire ageri in zutenak, ta sinetsi ze zirela Aingiruak: Ezta milagro izan zezon debozio.

Atra ze bada S. Fernando Moroen kontra: paratu zue kuartel jenerala Kuenkan: Arara biali zio Valenziako Errege Moroak eskatzera lizenzia joateko beragana; ta emanik errezibitu zue S. Fernandok agasajo andiareki; ta Moroak gustoso ofrezitu zio obediencia: ta bada dionik geroxago kristiatu zela. Andik joan ze Andaluziarat Fernando, ta pasatu orduko Sierra Morena, ellegatu zekizkio Baezako Errege Moroaganik Enbajadoreak ofrezitus obediencia, sujezioa, diru, ta gauza bear zituenak. Bi Erreinu gebek izan zire bere biktorien primiziaik, eman zitionak Jangoikoak odo-



lik gabe. Nork erran gañarako irabazi zituenak? eta zertako ere? Aski da erratea, 35 urte izan zenetan Errege, beti gerran ibilis, etzuela izan nai zuenik logratu etzuenik. Zenbat batalla, ainberze biktoria: zenbat errege, erreinu, ta ziudade atakatu zuen, guziak garaitu zitue. Bere balorea, xakintasuna, dilijenzia, ta medio paratuak zire andiak; baña prinzipalenak bere orazioak, eta penitenziak peleara baño len iten zituenak. Aldioroko zue Dabiden itz gura, *Dominus mihi adjutor, non timebo quid faciat mihi homo: Jangoikoa dut lagun; ez naiz gizonen beldur*. Galdeturik zertan ote zegon beraren ditzak izatea iago ezi bere alzinekoenak: errespondatu zue, agian zeren *aiek* naiago bide zuten edatzea beren erreinua, ezi errelijionea. Orgatik Jangoikoak laguntzen zio milagrosoki ere. Xerez de la Frontera zego moroen: biali zue arara bere semea D. Alonso: garaitu zitue Moroak zirenak amar aldis iago, ikusi zutenak Santiago, ta berze zaldun eder batzuk txuris bestituak eleatzen Kristioen fabore. Biali zue berzeatzuen kontra D. Pelaio: onek azkeneko iges inaraziote, segitzen ziote, baña eguna alzina zoeielarik, ta ze Ama Birjinaren eguna, goratus begiak Zerura oiur in omen zue, Santa Maria, detén tu día, ta baratuo omen ze iruzkia Zeruan urratu arteo Moroak arras. Berze alako prodijioa franko utzirik, konta zagun agitu zekiona Sevillako atakean. Amasei ilabete zue zeukala inguraturik, izanagatik barnean zegon Moroak elemenio bat jende, ta Sanduak guti. Bitarteo kanpoan in zitue irur tenplo bere irur imajina gaiei, non enzun zezaten meza soldadoek. Aietaik batean zegolaik orazioan, agertu zekio bein S. Isidoro Sevillako Arzobispo izana animatus ta ofrezitus irabaziko zuela: berze bein Ama Birjinak berak mintzatu zio, ene imajina antigua koan duzu bitarteko betirokoa; segi zazu ta garaituko duzu. Imajina gau zego Sevilla barnean; eta Errege sandua gauas ia atra ze, nola etzekiela, ta joan ze Sevillara, ta portalean aurkitu zue mutil gaste iduri bat ederra guzis, sinesten dena zela bere Aingiru guardiako, zein alzinean zoeielaik zeñu eginik segi zezala, zoeie kidatus karrikak barna, ta idikirik Elizako atariak bere kabo, sartu ze barnean, ta an ikusi zue Ama Birjinaren imajina gura gozoso, ta eginik an orazio, ta eskaturik fabore, ta errehibiturik erregalo eztakigunak, atra ze, itzultzeko bere kanpamentura, ta erreparatuzue erori zekiola ezpata, zein aurkitu zue portaletik atratzean, mostratus ala Zerua, etzuela ezpata bearrik etsaies beterik zegon ziudadean, defendatzen zutelaik Jangoikoak eta bere Amak. Azkeneko segitus errendiarazi zitue Moroak beren ziudade andi garreki, kontentaturik uzteareki libre biziak ta haziendak, azaroaren 23.an 1248 urtean. Andik ilabete sartu ze triunfante artan prozesio solemne bateki, lenean Kapitan, Ofiziale, ta kargudunak jendeareki; gero anitz Kaballero, Jaun, ta noble; gero zenbait

Errelijioso, aien erlean S. Pedro Nolasko, S. Pedro Gonzalez, B. Domingo: gero Elizagizonak ta Obispoak: bereala Erregeen Ama Birjinaren imajina zillarezko karroza triunfale batean; aldakan eskuieko aldetik S. Fernando, ezkerretik Prinzipea D. Alonso ta Infanteak: gero jendetze andia ezin konta ala: Ellegaturik Eliza Nausira, non egin zen funzione solemnea graziak emaneg Jangoikoai ta Maria Santisimai, itzuliagatik Kristioei ziudade andi gura 535 urteen buruan. Dotatu zue S. Fernandok katedrale gura anitz hazienda ta errentaeki, ta berze anitz ta anitz Eliza an, ta Jaenen, Cordoban, Toledon, Murcian, ta nortaki zenbat ziudade ta errietan.

Ainberze ta ainberze trabajatuaren kasos gaindu zekizkio gaitzak; ta ezaundurik ia eriotzea urbil, niork manatu gabe konfesatu ze iltzeko, ta eskatu zue komekadura. Ekarri ziote Obispoen erlean: ellegatzerakoan paratu ze lurtean, ta arturik gurutze bat eskuan joan ze erreparatus pasatu zuena Jaun dibinoak guregatik, ta ponderatus bere korrespondenzia gaixtoa, eskatus miserikordia; guziau, zeukalaik soka bat lepotik, nola balitz gaizkiegille andi bat: gero egin zue fedearen profesioa klaro; ta ondorean errehibituo zue Biatiko Sandua: atrarazirik kuartotik insignia erreale guziak, mostratus ezteela erregerik Jesu Kristoren aldean, ta iltzerakoan guziok garela bardin, arima salbo. Gero emanikonseju onak, espezialki seme Errege usten zuenai, despeitu ze. Gero Jangoikoak elebatu zio espiritua, ikusteko Ainguruak beraren eske bialtzen zitionak, ta itzuli ze alegre gozoro. Eskatu zue barkazio, in bazio agrabio noribaiti; ta manatu ziote sazerdoteei, errateko litaniak ta berze orazioak: bitarteo entregatu zio bere espiritua Jangoikoai Maiatzaren 30.an 1252 urtean.

Bereala aditu zire Zeruko musikak ta bozak kantatzen ziotenak gloria: baña lurtean guzia ze tristura, negarra, ta lamentua: beñere ez omen da izan erregeren iltzerik iago sentitu denik. Kanpoko Errege Kristioek ere sentitu zute amargoki: azkenean Granadako Errege Moroak, in bai zue asko demostrazio doloresko, ta biali eun Moro lutos bestiturik asistitzeko ilarian argizari-tortxaeki. Gero España ko ta kanpoko Historiadore guziak, guziak konformatzen dire S. Fernandezen laudatzean, nola Prinzipe kabal perfektoaren alde guzietaik. Birtute guziak dire ageri Sandu gontan, zein baño zein gorago humildadearen ta fedearen zimenduaren gañean. Justizia, prudenzia, fortaleza, tenplanza, kardinaleak, dire ageri klaro erreinuaren gubernuan, baizeuka bake ta sosegu seguroan, etzirela trebe gaixtoak goratzera burua, baizekie egiten justizia guzien onetan, ta miserikordia bere agrabioetan abasto; gañarakoan, zelaik konbeni. Cordoba irabazi zuelaik, xakinik nola Errege Moroak Santiagoko ezkilak eka-



rrarazituen Kristio presidarioen soñetan arara Mahomaren lanparatako, itzularazi zitue Moroen soñetan Santiagora. Soldado urde batzuen konsejus emasteki urde batek inzitatu zue errelijioso sandu bat bekatura: errespueta izan ze suan sartzea, adiarazteko naiago zuela erre an, ezi luxurian, emateko exenplu; ta Jangoikoaren milagros etzue mellarik ere sentitu. Jakinik ori S. Fernandok botarazi zue sura urde gura, erretzeko bizirik. Alaere, ezpaze ezin berzean, etzue nai exponitu nioren bizia; ezeta ere paratu kontribuzionerik, ezeta ere Moroei gerra iteko atxekias, ziola, ago beldur diotet amiña pobre baten maldizioei, ezi Afrikako moro guziei. Naiago zue eman erreskatatzeko pobreak aien eskuetaik.

Baña fedean, karidadean, errelijionean izan ze lena. Beraren irabazi, ta abantallak zire Elizaren onerako. Lenbiziko iten zuena, irabazi orduko erri, ziudade, edo erreinuren bat, prebenitzea tenploak Jesu Kristoren. Eztute numerorik tenplo konsagratu zituenek. Solamente Maria Santisimari konsagratuak dire iago ezi bi milla. Bada Eliza sandaren ordenamentuak guardatzean ta guardaraztean, zer atenzioa zue? Prinzipeen obligazioa zio zela anparatzea ta itzal egitea beren armaeki Elizaren manamenduei, ez dezkiten desobe ditu gaixtoek. Elizako Ministroen estadoa honratzen zue attento estimatus Sazerdoteak: Errelijiosoak espezialki. Fabrikatu zue anitz Konbentu: erraten zue ezi tenploak zirela bere erreinuaren kastelu gisa batzuk; errelijioneak nola murallak; ta errelijiosoen koroak, nola eskuadronak, zeñen orazioetan konfiatzen zuen iago ezi armaetan, zeren kantatus Jangoikoaren laudarioak ta orazioak merejitzen ta logratzen zitioten biktoriak. Ala Sevillako sitioan zegolaik diru-bearean, ta konsejatzen ziotelaik balia zeuela Elizako errentaetas, errespondatu zue, Elizatik ta Elizagizonetaik orazioak sollik nai ditut, ebek eskatukotut bear orduetan beti, ta aien orazioei ta sakrifizioei zortiogute izan tugun biktoriak ta abantallak. Ala iltzerakoan ere konsejatu zio bere seme Prinzipeari, lenbizikoa Jangoikoaren beldurtasuna, ta Elizaren errespetoa. Baña bere fede, karidade, ta errelijionea etze baratzen tenplo ta gauza agerrietan; Progatu ze agitz amatzean, agitz obratzean, agitz trabajatzean, agitz padezitzean Jangoikoaren ta bere Elizaren faboretan. Sandu deitzen zute, eta sandu izan ze egiaz, ta sandu den guziaren Patrono, ta defensorre. Dudatu zute zenbaitek ote zen, iago balliente, edo iago sandu, edo iago fortunoso: baña eman bear zaio abantalla sandutasunai, zein deklaratu zue Jangoikoak milagroeki ere len ta gero. Aita Sandu Klemente X.ak deklaratu zue, ta jai &.

## Maiatzaren 31.an S. Petronila Birjina

Izan ze S. Petronila S. Pedro Apostoluaren alaba, ezi ezkondua izan ze S. Pedro Apostolu baño len, ta bere Amaiarreba sendatu zuela Kristok milagrosoki, dio ebanjelioan; ta bere bizikidea deitzen ze Perpetua, ta S. Klemente Alexandrinok dio, izan zela Martir; ta zeramatelaik iltzeko fedeagatik, erran ziola S. Pedrok, Perpetua, idukazu presente gure Jauna. Izanas geros biek alaba gau, pasatu zute bizia berex Anai ta arrebak bekal. Petronila izanik donzella ederra miragarriro, Jangoiko Jaunak nai izan zue erregalatu heritasun luze trabajoso bateki beraren onnaiez; eta S. Pedro bere Aitak etzue nai sendatu. Erran ziote, nola sendatzen zituelaik berzeak bere itzal sollareki, etzuen sendatzen bere alaba zeukana perlesiaturik ainberze denboras? Errespondatu zue, etzaiola on konbeni bere arimaren onerako, baizik dagon heri, ezi askotan gorputzaren kostus arima sendatzen, ta sana mantenitzen da: eta jakin dezazen eztela amore falta eztare podore falta, erran zio, ea Petronila, jaiki, ta zerbitzatu bear diguzu maian. Jaiki ze sana, ta zerbitzatu ziote; ondorean itzuli ze bere lengo gaitzareki, ta ain konforme, zeren ala nai zuen Jangoikoak. Urteen buruan sendatu zue, ta bizi ze sana, ta ain sanda, ezi asko milagro egin zue, ta asko heri sendatu zue. Nola den Jangoikoaren gustoa!

Ain sanda alde bat, berze alde ain ederra izateareki, pretenditzen zue bere bizikide kaballero noble abrats batek Flako deituak, ta ain sinez, ezi bera bein joan zekio bere etxera akonpañaturik soldados, ta deklaratu zio bere pretensioa, ta zion borondatea, ta zituen konbemenziak, honoreak, ondasunak, ta gauzak, guziak beraren. Petronilak turditu gabe serena erran zio, Jauna, zertako ainberze soldado ta arma, ni bekalako donzella pobre batendako? Berori sollik ere ze sobra: ta eztire armas iragazten borondateak. Nai banau bizikide, irur egun eman bezkida prestatzeko, ta ondorean bial bezkida akonpañazale zenbait Señora, orren etxera joateko, berorren estadoari dagokion bekala. Kontent arrek ofrezitu zio baietz. Gelditu ze Sanda, berze gogo bat zuela, zeren aspaldirik zeukan ofreziturik Jesu Kristori bere birjinidadeta. Irur egun gaitan barurik egon ze kontino orazioan eskatzen negarres, suspiros, antsias, libra zezala peligro artaik, ta ez permiti bortxaz gal zezan ofrezitu ziona, ta deseatzen zuena konserbatzea ilaratño. Irugarren egunean etorri zekio sazerdote bat deitua Nikomedes; zeleberratu zue meza beraren etxean, ta eman zio komeka-





dura, zein errezibiturik amorosoki, ta emanik esker milla milla, erreklina-tu ze goatzean, ta entregatu zue bere arima Jaunaren eskuetan. Andik guti ellegatu zire Señorak, ta ikusi zutelaik ila, ilaria zelebratu zute boden par-tez. Orzi ze Sandaren gorputza Bide Ardeatino deitzen denean: andik gero pasatu ze S. Pedoren Elizara Roman, Paulo I. Aita Sanduaren den-boran. Doktrina ona ematen digu pazienziaren gaitzetan, ta birjinidadea-ren estimazioaren: Imitatzea da lana &.

## Garagarzaroaren 6.an S. Norberto Arzobispo

S. Norberto jαιο ze Koloniar urbil erri batean jendaki nobletik. Azi ze gastezutuan ango Arzobispoaren palazioan; gero Henrike V. Enpera-dorearen Kortean, guzienganik onetsia ta estimatua, ta orgatik banida-dearen aizeareki goraturik denbora aldi batez zabartu ze: baña bere enten-damentu onareki, ta Jangoikoaren graziareki ezaundurik eztaikela arima bete ta sosega, ezpada sollik Jangoikoan, Jangoikoai sollik eman ze guzia. Ordenaturik Sazerdote, despeiturik gala, dibersio, ta banidade guziak, asi ze zebatzen orazioan ta penitentzian. Ortako erretiraturik egon ze Kon-bentu batean berrogei egunes; andik txoil Jangoikostaturik itzuli ze bere Elizara, non baize Kalonje, ta Jangoikoaren espirituas inspiraturik eman ze predikatzer Ebanjelioa, admiratus guziak ikusteas ala gizaberriturik: naiz zenbaitek etzuten ongi artzen libertade ta koraje gura konsejatzean ta erreprehenditzean; ta aurkitu zute Elizako bat gizatxarra, zeñek aien ta Deabruen inzitazios egin zio milla agrabio, ta zikindu ere bai aurpegia iago deshooretako: baña Norberto ia fundaturik Kristo arri firmean etze mogitu mendekatzera, baizik ofratzera Jangoikoai bekatuen satisfakzio-tan. Denbora gartan agitu omen zekio lanze gau: meza erraterakoan, iago debozio naiez, Eliza-peko kapilla barna batean, erreparatuzue kalizan armiarma beltz itsusi bat. Egon ze dudan, zer egin; edo artu odol prezio-soa biziaren arrixkoareki, edo utzi artu gabe Sakrifizioaren faltareki: azke-neko erresolbitu ze artzera; ta iretsi zue bateo animale pozoitsu gura. Ondorean zego orazioan etxideten erioa; baña Jangoikoaren probidenzias urtzinz, edo atriya bateki bota zue sudurretik, gelditus gaitzik gabe bete-rik konfianzas Jangoikoan.

Predikatu ondoan irur urtes Kalonje ta pobre bekala, sufritus asko persekuzione, utzi zitue bere errenta guziak: eta neguan joan ze Aita San-duagana oin urtuxian pobre gisa, ta botatu ze beraren oñetan deklaratus intenzio zuena. Aita Sanduak ezaundurik, Jangoikoaren gizona zela, nai luke iduki bere konpañian, baña otaien podores utzi zue, emanik potes-tade predikatzeko mundu guzian. Bedeizio goneki ta zenbait laguneki penitentearen habituan ibili ze ziudades zitude jendeen admirazio ta probetxu andiareki. Espezialki zue grazia, baketzeko diskordia zutenak; ta biotz gogorak ere errenditzen zire beraren erranera, ta erresistitzen baze bat edo bat, Jangoikoak kastigatzen zue. Eman zitio berze zenbait lagun



Jangoikoak, ta beraren inspirazio leku soil batean fundatu zue lenbiziko konbentua lekuaren izenetik deitu zena Premostratense. Guzien enemi-goak persegitzen zitue erreljioso gaiek, baña ebek bera garaitzen zute orazioz, humildades, ta barues. Asko pretendiente zue nai zutenak artu beraren habitua: artzen zitue artako zirenak; etzirenak uzten zitue, naiz Kaballero ta Jaundiak. Ia Jangoikoaren birtutez asi ze obratzen milagroak, berexki botatus gorputzetaik Demonioak. Ebeki agitu zekio antz gorabera; baña azkeneko atrarazten zitue nai etzutela bortxa. Bein konjurtzean Demonio terrible bat anitz jenderen alzinean, Demonioa zoeie deklaratus an zeudenen bekatu sekretoak; baña beñere etzue erran bekatu rik zegona konfesaturik. Eskapatu ze jende geiena beldurrik, atrako zituela an beren alkaizungarriak; Sanduak alako beldurrik gabe orazioz ta manamendus botatu zue gero ere: ta ala berze anitz.

Joan ze Romara bere debozios, ta logratu zue konfirma zezon Erreljione fundatu zuena. Aditu ze boza bat Zerutik ziona, bear zela izan Obispo Magdeburgon; ta ala izan ze guzien aprobazioareki. Lenago zena ain zeloso arimen salbazioaren, kargurik etzuelaik, zenbat iago izan bidez, kargua artuas geros? Asi ze erreformatus Eliza-gizonak; segitu zue sendatus gañarakoak. Elizako heredajeas ta gauzes jabeturik zeudenak obligatu zitue itzultzera berea Elizari; ta nola ezpaize goxo, artu ziote oposizio, ta nai zute mendekatu. Egun batez zegolaik konfesatzen, ellegatu ze bat penitente iduri nai zuela konfesatu. Bukaturik berzeak, Sanduak dio, sar daiela; sartu deneko, kenarazten dio kapa, ta aurkitu ziote zekarrala altxaturik puñale bat; ezin ukatu, ta konfesatu zue zela iltzeko Sandua, ta nork eta nork biali zuten. Berze bein zoeielaik gauas Maitinetara, berze batek heritu zue Sanduaren lagun bat; ustez zen bera: ta ala guardatzen zue Jangoikoak bere Sierbo onetsia. Bere denboran goratu ze zisma Elizan, bi Aita Sandu nonbratzen zirela. Defendatu zue S. Norbertok, nola S. Bernardok Inozenzio II.a nola Aita Sandu propria, ta utzi zue asentaturik S. Pedroren katedran. Iltze 1134 urtean.

## Garagarzaroaren 13.an S. Antonio Paduakoa

S. Antonio jaio ze Lisboan Portugaleko Korte Errealean buratso nobleetaik; Paduakoa deitzen da, zeren Paduan obratu zituen miragarriak, ta an iltzen, ta an daukaten beraren gorputza. Esneareki artu zue Ama Birjinaren debozioa mantenitu zuena bizi guzian. Berladanik mostratu zue izanen zena, bere jenio ta injenio onareki, gasterik zar baize, ta txipirik andi. Amaborz urteetan zelarik, noiz berzeek idikitzenuten begiak gaixtakerietako, S. Antoniok idiki zitue ezauntzeko munduaren gaixto banoa, ta erretiratzeko erreljionearen portura; ta ala egin zue S. Agustmen Kalonje relijiosoen Konbentuan. Andik pasatu ze berze Konbentu batera urrun, bizitzeko aideen bisitarikabe, orazioan ta penitenzian. Emen Coimbran zegolaik, agitu ze pasatzea andik borz fraile franziskoek gorputzak martirizatu zuztenak Marruekosen. Itxeki zekio antsia, joateko bera ere Marruekosa, logratu naiez martirioa. Ortako aldatu ze Franziskoek erreljionera. Sentitu zute galtzen zutenek beraren konpañia; ta batek erran zio, zoaz franziskoetara, zoaz, agian sandu inen zara laster. Au erran zio burlas bekala. Sanduak errespondatu zio, anaia, aditzen bauzu in nai zela sandu, Jangoikoarena izanen da gloria. An aumentatu zekio martirioaren antsia, ta tratu in zutenaren konforme biali zute Moro-errietara: baña an Jangoikoak biali zio heritasun luze bat, zeñen kasos itzultzerakotan itsasos Españarat, biali zue Jangoikoak al ze erru bat eraman zuena Siziliara. An zelebratzen zue S. Franziskok Kapitulu jenerala: beraren bedeizioa arteagatik, ermanarazi ze arara. Andik eraman zue batek konbentu erretiratu batera. Emen egon ze Sandua emanik guzia oraziora, ta penitenziara, zerbitzatzen guziei ofizio apalenetan, nola eskobatzen, onziak egiten, agertu gabe estudiatu zuela, zeukatelaik ignorantetako. Andik biali zute berze leku batera lagun batzueki: ebek, ta S. Domingoren fraile batzuk juntaturik konbentu batean, ango Superioreak eskatu zue, ebetaik batek explika zezala Jangoikoaren itza. Exkusatu zire guziak. Orduan manatu zio S. Antoniori, erran zezala zerbait. Exkusatzen ze, baña etzekio baliatu. Obedienziak mintzatu ze ain admirableki, ezi guziak gelditu zire arriturik bere xakintasunas, mintzaeras, espirituas; ta iago humiltasunas, nola egon zen ainberze denboras altxatus Jangoikoaren donoak.



Okasio goneki bere Aita S. Franziskok manatu zio egin zezala Predikariaren ofizioa, baitare erakutsi zezala Teologia. Manamendu goneki agertu ze argia altxaturik egon zena: argitu zue Franzian ta Italian, konfirmatus bere doktrina bere bizimodu sanduareki, ta infinizio bat milagroeki. Nork kontu konbersioneak numeroik eztutenak? Zenbat hereje, zenbat bekatari andi? Bein konfesatu zire Sandu goneki ogei ta bi ladron famatuak konbertitu zituenak. Herejeeki zue pelea kontino. Batek Bonibillo deituak ukatzen zue aldareko Sakramentuaren egietafedea. Konbentitu zue aisa Sanduak, de manera ezi etzuelaik arrek zer errespondatu, apelatu ze milagroetara. Sanduak erran zio, iduri zaizu zure mulak adoratzea Sakramentu gura ote den progu ona Jesu Kristoren prezentzia errearen? Nauzu apostatu adoratuko duela zure mulak? Apostu eginik, iduki zue irur egunes jan gabe: ondorean Sanduak meza erranik, eraman zue Sakramentua akonpañamentu andiareki: ekarrarazirik mula, ematen zio herejeak olo ta jateko nai zuena: Sanduak erran zio grabe, Jaun Jesu Kristoren izenean, zein ere nik daukaten eskuetan, manatzen dizut zatorrela egitera erreberentzia zeure Kriadoreai, konfundi daien herejia, ta guziek sinetsi dezaten Sakramentu gonon egietafedea. Bitarteo arrek oloa arri-matzen zio muturrera: baña mulak ark baño ezaumentu iago zuenak, oloa utzirik, adoratzan zue Sakramentua, burua kurturik ta besoak doblaturik. Milagro ain klaroareki alegre gelditu zire katolikoak, ta konfuso herejeak. Berze bein Ariminon nai ziotelaik Sanduak predikatu, aiek etzute nai aditu: Joan ze itsas-basterrera, deitu zitue arraiak, adi zezaten, ziola, adi nazaze zuek, ezi hereje gebek ez naute nai aditu. Gauza arrigarria! urbildu ze basterrerat infinizio bat arrai, andi, txipi, erdikal; ta paraturik erkadand, buruak ur gañean, zeude geldi; ta Sanduak deitzen zituela anaiak, in zioten predikua, zenbat fabore zor zioten Jangoikoai, ta nola bear zioten obeditu, ta zerbitzatu; ondorean buruak kurturik errezebitzeko bedeizioa eman ziotena, joan zire guziak ura barna. Katolikoak admiraturik, hereje anitz konbertitu ze. Berze bein konbidatu zute bazkaris hereje batzuek: joan ze plazer iteagatik, al bazuzke ekarrarazi zuzen-bidera: jarririk maian ezaundu zue Jangoikoaren argis, paratu ziotela beneno janarian: akar in zioten amoltsuki, zergatik aiek nai zioten in gaizki, etzuelaik berak nai baik aien ona beti? Erran zute, in zutela progatzeko, ia zen Predikari Apostoluen gisarakoa, etziona gaitzik egiten benenoak ere, dion bekala Ebanjelioan. Ofrezitu zioten, artzen bazue dañurik gabe, konbertituko zirela. Sanduak egin zue guruzearen señaleari janariain gañean; jan zue, ta ain sano gelditu ze mellarik gabe. Ala konbertitzen zire anitz.

Alako milla ta milla egiten zue Jangoikoak, ia mintzatus Sandua lenguaje batean, entendarazis asko lenguaje diferentetakoak zirenei; ia aditus urrundarik agitz; ia kanpoan erauntsiak alde guzietaik ugarreka, ta erdian adizaleak ur tantarik gabe: ia zegolaik predikatzen erreljiosoei, agertus milagrosoki an S. Franzisko bizi zena urrun andik. Alako gizona aditu naiez etze milagro ezin kabitzea jendea tenploetan, jaikitzea gauerdian leku arrapatzeagatik, ertxitzea dendak ta botigak predikua-bitartean, ta egitea ondorean askok penitentsia arrigarriak. Berze gisas ere iten zitue miragarriak. Bein abrats gogor baten ilarian erran zue, nola Kristoren itza den, *non ere daukan batek bere tesoroa, an daukala bere biotza*: ala onek zeuka biotza bere kofreetan; zoazte, ta an aurkituko duze. Joan ta erran bekala aurkitu zute. Askotan agertzen zekiote ametsetan batzuei erraten ziotela, ea, ots, jaiki, ta konfesa urliareki alako bekatua in duzuna Jangoikoaren kontra, izanik ain sekreto, ezi baizekie Jangoikoak. Bein etorri zekio bat konfesatzera ain kontrizios beterik, ezpaizeike mintza kongojaren utses. Erran zio Sanduak, bada etzaizke mintza, zoaz ta eskribiturik papel batean ekar zadazu zeure bekatuen konfesioa. Ekarri zitue eskribiturik, ta ikusi zire borroraturik guziak arras. Dudarik gabe izan ze Sandu gau Konfesioko Sakramentuaren amazale, ezi il ondoan ere Paduan heri zoezin guziak bisitatzera gorputz sandua, guziak itzultzen zire sendaturik, baldin konfesatu bazire ellegatu baño len, baña ezperen, ez. Bekatuetaik garbitzeareki arimak, libratzen zitue Deabruaren eskupetik: orgatik zio Deabruak oposizio andia, ta iten zio gerra al guzia. Gau batez nai zue ito, txintxurria ertxitus fuerteki, ta iltzeko puntuan egon ze, baña inbokatus bere Ama Santisima, libratu ze. Berze aldi batez botatu zue pulpitoa, non baizego predikatzen: baña niori etzio dañurik egin, abisatzeareki Sanduak, ta orazio egiteareki. Berze aldi batez predikua aditzen zegon andre bati etorri zekio mandatari-iduri bat, erraten ziola iltzela bere seme bat. Sanduak pulpitotik ezaundurik erran zio, etzezala sinesta, zeren baize Deabrua inkietatu nai zuena: semea zegola bizi ta ongi. Deabruak aborrezitzen zuena, maite agitz zue Jesus onak: Gau batez ostatus arturik batek bere etxean Sandua, kuartoan adbertitu zue argitasun andi bat: urbildu ze ikustera irriñartetik, ta ikusi zue aur eder bat libruaren gañean, gero Sanduaren besotan, ta Sanduak apatzen zuela, ta erregalatzan zela beira beira amorosturik. Jakin zue Sanduak errebelazios, nola ostatukoa egon zen beira, ta eskatu zio etzezola niori erran bizi zen bitarteo.

Ez solamente libratzen zue bekatuetaik, baitare tentazioetaik, ta berze trabajuetaik. Errebelatu zio Jangoikoak zebilala Nobizio bat agitz tentaturik, habitua utzi naiak. Lastimatu ze, negar egin zue ta orazio:



Deitu zue gero, idiki zio agoa bi eskues, ta ats emanik barnera erran zio, arzazu Espiritu Sandua. Oneki Nobizioa gelditu ze libre ta alegre. Berze bat etorri zekio agitz tentatua, ta kasi desesperaturik aragiaren tentazioen kasos, ezin garaitu zebilala. Konfesatu ze Sanduareki: ondorean Sanduak arturik apart kendu zue bere tunika, ta arri pararazi zio: Istantean sosegatu ze, ta gelditu ze libre trankil betikos, etzuela beñere gerostik sentitu alako tentaziorik bere bizian; baita ori progu ederra, zela S. Antonio gizon bat Zerukoa lurtean, edo Aingeru bat lurekoa kastidadean. Bi aldiz atzendurik lan in bear zuenas konbentuko koruan, zegolaik predikatzen pulpitoan oroiturik baratu ze, ta burua estalirik kapillas an, bitarteo ikusi ze koruan kantatzen. Paduan pasatu zitue bere azken denborak, ta obratu ere bai prodijio andienak. Zute Tirano bat Enzelino deitua, tigre bat zena kruela, inhumanoa, ikaragarria, iltzen zituena jendeak nola txinurriak. Arengana joan ze S. Antonio errebestiturik Jangoikoaren espiritutas beldurrik gabe: akar egin zio bere maldade ta horrore egin zituenes: meatxatu zio Jangoikoaren ira, ta su eternoa. Soldadoak beira, noiz manatuko zioten, ilarazteko Sandua, nola iten zuen erraten zioteneki itz bat kontra. Tiranoa, erreberenzias arturik Sanduaren kordona, ta paraturik bere lepontan bota zekio oñetara, ta ofrezitu zio emendatzea, naiz gero etzuen kunplitu. Egin zuen demostrazio garren kausa izan ze, ikusi baizue Sanduaren aurpegia, erreprehenditzerakoan, sua zeriola, ta erresplandore ikararazi zuena, ta orgatik turditurik egin zuela egin zuena. Berze bein Tirano berak falsikinak biali zio Sanduari presenta andi bat. Sanduak etzue nai izan errehibititu, bai despeitu mandatariak atra zeizela bereala, ezipazute nai progatu Jangoikoaren ira. Baliatu zekio ez artu naia, zeren ezi zekarrate ordena, artzen bazue, kentzeko bizia berartan. Baña nork engañatu Jangoikoa? edo Jangoikoaren gizona Jangoikoak biotzean daukana?

Jangoikoaren argis zekie asko gauza geroko, urruneko, ta sekreto. Señora bati enkomendatu zenai beraren orazioetan seguratu zio, izanen zuela seme bat, Errelijioso izanen zena, ta Martir, ta Martiren alzindari: ta ala izan ze erran bekala. Eskribano bat gaixtofikatua ze Franzian; oni aurkitzen zuelaik karrikan Sanduak iten zio erreberenzia andia. Erreparaturik bein arrek, ustez burlas iten zion, joan asarre, ta meatxatu zio. Sanduak humil erraten dio, ez eztut egiten burlas, baizik sines, zeren nik nai nuen grazia ta ezin logratu dudana, orrek logratuko baitu, baita Martir izatea. Ala izan ze, ezi Obispo batek joanik moro-errietara erman zue bereki, eta bein zegolaik Obispoa moroen artean predikatzen epelkara, goratu ze ura ausart, ta koraje andiareki laudatu zue Kristo, ta itsustu aien Mahoma. Orgatik tormentatu baizute irur egunes, ta azkenean il; ta zeramataleak

degollatza, oroitu ze S. Antoniok erranas. Miragarria agitu zekiona Aitareki, zein bizi baize Lisboan, semea zegolarik Paduan. Aitak izan zue Erregeren gauzen kargu bat: kontuak emanik Erregeren Ofizialei, ta pagaturik puntualki, senzill prestu bekala etzue in kasorik goratzeas erre-ziboak. Denborain buruan aiek ere kontuak eman bear, kobratua kontatu zute artzeko, ta eskatzen ziote pagatu zuenai: Gizonoi aurkitzen ze guziz afljiturik erremediorik gabe. Konsejua bildu zelarik Kortean kargu egiteko, Sandua Paduan zegona plantatu ze derepente Lisboan sala gartan: Erregeen Ofizialei erran ziote grabe, ea bereala artu kontuan pagatu ziotena Jaunonek alako egunean, alako garaian, alako lekuan, alako ta alako monedaetan: ezipadute egiten, ofendituko dute Jangoikoa, ta kastigatukotu gogorkiro. Arritu zire Ofizialeak: kunplitu zute: ta Sandua desagertu ze, ta etze ikusi iago an. Berze aldi batez egin zue iago. Akusatu zute falsuki bere Aita egin zuela eriotze bat bere mutileki. Eman ze sententzia iltzeko guziak. S. Antomok Paduan jakin zue ori Jangoikoaren errebelazios: ta eskaturik Guardianoi lizenzia joateko bide pixka bat; gau artan eraman zue Ainguru batek Lisboara: goizean oanze Korrejidoreagana eskatzera Jesusen amoreagatik, etzezkiela ilarazi gizon gaiek kulparik etzutenak. Baña nola ezipazue nai Korrejidoreak errebokatu sententzia emana: Sanduak biztu zue ila, ta guzien alzinean galdegin zio ia zuten aiek kulparik arren eriotzean. Il biztuak erran zue ezetz. Justiziako Ministroek nai zute galdegin zezon nor zen il zuena. Sanduak erran zue, ni ez naiz etorri galtzera kulpaduna, baizik libratzera inozenteak. Orreki ebek joan zire libre etxera, ila obiara, Sandua Paduara ain laster nola etorri zen: eta Lisboa guzia ta berze jakin zutenak gelditu zire laudatzen Jangoikoa.

Itzulirik S. Antonio bere Paduara segitu zue bere predikazioan irabazten arimak: ta urbilen Garizuman, biziaren postrean bekala, ferbore iagoreki, ta fruitu ezin iagoreki. Gelditu zekio gorputza akaiturik indar gabe ta herikor ainberze trabaju ta penitenzien kasos: ta ezaundurik urbil zela plazoa, erretiratu ze bi laguneki leku soill eremu batera, non gaindurik gaitza, errehibiturik Elizako ordenamentuak, errezzaturik psalmo penitenzialak, enkomendatus bere Ama Santisimari, onen medios logratu zue ikustea Jesu Kristo, zeñen eskuetan erreppausa andiareki entregatu zue arima andi gura 1231 urtean; bere adinaren 36.an; zeñetaik 15 pasatu zitue etxean: 11 kalonje errelijiosoen artean: ta 10 S. Franziskoren errelijioean. Urte gutis anitz egin zue munduan: baña Zeruan ere alakoak naituzte len baño len. Gelditu ze gorputza lo bekala, biziaren kolore, nola ezipalitz il. Iltzen egunean nai zutelarik Fraileek etzeien xakin, ortzitzeagatik beren Elizan, Jangoikoaren probidenzias aurak ta mutikoak Paduan asi zire ibil-



tzen karrikas karrika, ta klamatzen, il dela Sandua, il dela Sandua. Boza gaieki penas bete zire guziak entendatus iltzela S. Antonio. Ainberze ta ain andiak izan zire milagroak il ondoan, ezi heri guziak konfesaturik enkomendatu zirenak, guziak sendatu zire: eta ain izanes klaro, bereala urbilen urtean 1232.an kanonizatu zue Aita Sandu Gregorio IX.ak: eta egun gartan Lisboan, jakin gabe oraño kanonizatu zela, agitu ze gauza bat admiragarria, baitirudi Zerua ta lurra konformatu zirela festejatzeko Sandu berria; zeren ezi ezkila guziak soñatzen zire abando, niork ukitu gabe: gizonak ta emastekiak atratzen zire beren etxeetaik saltoka alegranzias, ta jende guzia zoraturik bekala bozkariundez: eta niork etxakin motiboa. Erreparaturik eguna, xakin ze gero, zela egun gura, zeintan deklaratu zuen Sandu Aita Sanduak. Paduan zelebratu zute orduan festa andieki, ta urteoro Patrono bekala: ta faboratzentu errealki bereak bekala. Bein zeudelaik Enzelino Tirano garren beldurak, eta Konbentu gartako Guardia-noa negarres Sanduaren obia-azinean, atra ze obiatik boza bat klaro erran ziona, zorzi egunen buruko libre geldituko zela ta konsolaturik Ziu-dadea. Edatu da Sandu gonon debozioa leku guziak barna, ta arrazioreki, zeren guzietako da Abogatu andia; prinzipalki diote ezi gauza galduen aurkitzeko: Sandu berari agitu zekio, bizi zelarik, ebatsi baizio libru bat eskapatu zen Nobizio batek. Paratu ze Sandua orazioan eskatus Janpikoi bere librua. Pasatzean ugalde bat Nobizio garrek, paratu zekio Deabrua azinean ezpata bateki eskuan, manatus asarre, itzuli zeielá konbentura, ta eman Sanduari bere librua, ezperen, ilen zuela an berean. Itzuli bai itzuli ura laster lotsarriturik, ta kunplitu manatua

## Garagarzaroaren 21.an S. Luis Gonzaga

S. Luis Gonzaga, gasteen exenplu ta hispillu ederra, Inperioko Prinzipe ta Kastellongo Markesen hume lenbizikoa; lenik Zerurako, ezi mundurako jaio zela iduri duena, zeren orazioen podores logratu zuten Jangoikoaganik, eta bere Amak ezin libratus zegolarik, etsiturik kasi ia medikuak Amaren ta semearen bizias, enkomendatus Loretoko Ama Birjinari logratu zuen asi zeien jaiotzen, ta erdijaiorik bataiatu zuten, Elizara baño len, peligro andiagatik, izan ze Jangoikoaren eskojitua, onera emana prinzipiotik, ta ongi azia guzis, baizeuzkie aurzutuan ere guziak admiraturik ta beragana afizionaturik, ain ona beiratus. Laur edo borz urtetakoa zelarik egon ze berriz biziaren arrixkoan, disparatus arkabuza bat, ta artilleria txipi bat guardiako soldadoen eratean; zeñen itz batzuk aditus errepetitu zitue entendatu gabe zer nai zuten erran; baña bere Aioak abisaturik, gaixtoak zirela, guardatu ze berriz aipatzeas bere bizian: on kontatzen zue gero bekatu andi bat bekala, ta ortas iten zue negar gogotik. Zazpi urtetan ia sartu zekio biotzean Jangoiko andiaren amore, estimazio, errespeto, ta beldurtasun andi bat: ta agitu ze, konjuratzerakoan Elizan espiritatu bat, zegolaik Luis aurra presente jendearen eratean, klamatzea Demonioek, ikusten duze aur gura? au joanen baita zerura, ta izanen baitu gloria andia an! Dirudi Jangoikoak erranarazi ziotela, ezi ia ordutik ze agitz debotoa egines anitz orazio, ta beti belauriko. Zorzi urtetan ia asi ze estudiatzen Florentian, ta zebatzen iago orazioan, arturik bere Patronataka Maria Santissima, enkomendatus biotzez maiz: eta in naiak zerbait zerbittzu, pensatus zertan in zioken iago plazer, determinatu zue obena zela imitatzea beraren garbitasun birjinala, nola baita Ama ta Birjin Birjinen Birjina; eta ala beraren imajinaren azinean in zue boto perpetuo konserbatzeko birjin garbi gorputz ta ariman bizi guzian; ta kunplitu zue ain perfektoki, ezi ez solamente etzue izan bekatuak, ezeta ere tentaziorik ez gorputzean, ta ez gogoan beñere; baita ori dono bat miragarria gutik logratu dutena, ta proprioki Jangoikoak emana bere Ama Santisimaren medios: eta iago dena, azi zelarik palazioetan erregaloen eratean! Baña Jangoikoaren aldetik grazia, bere aldetik juntatzen zue dilijenzia, goardatus sentidoak, espezialki begiak, ibilis modesto, ta apartatus peligratoaik, espezialki emastekien konbersazio, ta aurkintzeetaik.





Asi ze konfesatzen maiz; ta aldioro prebenitus nola iltzeko: ta komekatzen alako debozioareki, nola begis ikus balez presente dagona Sakramentu gartan. Juntatzen zue pasioenen mortifikazioa errepugnatus inklinazio guziri de manera, ezi azkeneko etzue iduri bazuela pasionerik. Mortifikatzenzue gorputza geiegi ere: asteoro irur baru, ta geienak ogi ta ur solles: baña erran daike egunoro zela baru, bere bazkariak apenas zirelaik ontza bat adifia. Askotan egunoro irur aldiz disziplinatzen ze odoles-tatus ramale ta katea batzueki: silizioak, etzuelaik berzerik, suplitzen zitue zaldien ezporees. Goatzea gogortzen zue paratus ol zatiak, jaikitzeke ere erneago orazio egitera: zeren gauaren geiena pasatzen zue orazioan, neguaren otzetan ere belauriko, ta askotan ator-utsean, edo prostraturik lurrean. Egoten ze Jangoikoaren prezianzian bekala erreberenzia ta atenzio andiareki, bi, irur, laur ordus, pasatu arteo bat, batere barratu gabe gogoa. Konstanzia gonon premiotan logratu zue idukitzea gogoa ain firme Jangoikoan, orazio iterakoan, pensatu gabe berze deustan ere, ta kontino elebaturik bekala. Gustatus orazioan, ta iago komekatzean, zein suabe gozo den Jangoikoa, desgustatzen zio munduak, eta nai izan zue utzi maiorazgoaren dretxo zuena bere anaiarendako. Zenbat in lezakete geienek izateagatik ark uzten zuena! Oh! nola diren Jangoiko onaren amazale maite espezialak, txastatu dutenak beraren ona, ta berareki sollik kontent direnak! Ala nola txastatu dutenek mana Zerukoa, aisa uztentute Ejiptoko elzeak, tipulak, ta farraskeriak. Eman ze Jangoikoai iago berri berritan: gozatzeko obeki nai ze sartu erreljioneren batean; etzekie zeintan zen obeago: logratzeko azertua, doblatu zitue baruak, penitenziak, orazioak: artu zue bitarteko, on guzietako dena, Maria Satisima: onen Asunzione egunean komekatu ze debozio espezialareki, ta zegolaik graziak ematen aditu zue boza bat klaro distinto erraten ziola, sartzeiela Jesusen Konpañian, ta komunika zeieela bere Konfessoreareki. Onak aprobatu zio bokazioa, baña desengañatu zue, etzutela artuko an bere Aitaren lizenzia gabe. Aitak aitu zuelarik nai zio kendu burutik; baña seme ona ain firme mantenu zue bere bokazioan, ta errespeto guziareki ain gogotik eman zizio motiboak, ezi gero ere azkeneko etorri ze ematera lizenzia. Amak etzue ainberze bear; naiz sentitu naturalki uztea bere konpañiatik bere seme lenbizikoa, ta seme alakoa; baña oroitus zela Jangoikoak emana Maria Santisimaren medios, konformatu ze itzultzean Jangoikoai berea. Despeiturik Romara joateko atra zelaik, an ze bere basalloen negarketa, zeren uzten zituen atratzea bidera, deitzea Sandu, ta etzutela mereji gozatzeta alako Prinzipe bat. Sanduak amoltsu zio, nai zuela seguratu bere salbazioa; neke zela Jaun andiak salbatzea ni munduko

grandezaen ertean: uz nazazie, ta geldi zaizte Jangoikoareki, ta kuida zazie bizitzetas Jangoikoaren grazian salbatzeko.

Sartu ze Konpañian Roman S. Katalina egunean, kontentus bera, ta guziak admirazios beterik, iduri zekiola sartu zela paraisoan, ziola, *haec est requies mea & au nere deskansua, emen biziko naiz, au baitut autatu.*

Sandu zena munduan, zenbat iago an? Andik bizpirur ilabete iltze bere Aita ain beterik kontrizios, konsolazios, ta esperanza ones, baizio bere seme onagatik Jangoikoak iten ziola grazia gura. Oneki konsolatu ze Luis, ta Jangoikoa berriro artu zue bere Aitatako. Izanik ain jendaki anditakoa, ta ain estimatu guzienganik, bera kontatzen ze guzien azkena, ta guziei zego zerbitzatu naiak. Guardatzen zitue lege txipienak ere puntualki: atzendurik zeuzkie ta aborreziturik munduko lege banoak: agitz ta geiegi ere mortifikatzen zue bere gorputz inozentea. Bada Jangoikoaren ganako amorearen suak ala erretzen zio biotza, ezi gorputza ere konsumitzen zio gutibana! Orgatik manaturik diberti zezala gogoa guti bat berzeetara, etzezake atzen; etzezake mintza, etzezake pensa berzerik, ezpaze bere Jangoiko maitea. Bada pensatzean Jangoikoa gizon gizonen amores, ta ala maltrataturik bere pasioan, ta ala ilik gurutzean, ta ala presente oraño nola dagon Sakramentuan, ta erregalo emanik Komunionean, an zire bere sugarrak, bere negarrak, bere azorazio ta exzesu amoreskoak. Asteoro komekatus, irur egun graziak ematen, berze irurak prebenitzen enp leatzen zitue: ta egunoro anitz bisita, nola txoriak bere kafiara. Sazerdoteak obeki zeleberratu naiez joaten zekizkio konbersatzera Sakramentua-ren gain: itzultzen zire deboziosko sua bizturik biotzetan. Maria Santisima zue urbilen maite biotzekoa: estimatzen, ta tratatzen zue nola hume onak Ama obena.

Proximoen amorean ze txoil berex distingitua. Salbatu naiez arimak, ezta gauzarik men etzuenik. Nai zue joan Indietara konbertitu naiez ango jendeak. Ori etzuketelaik logra, zegoen lekuetan iten zue in ala. Bere anaiak, Markes gelditu zenak, izan zue diskordia andi bat Mantuako Dukeareki. Obedienziak bialirik joan ta bereala paratu zitue bake onean, ta bere anaia bizimodu obean. Jangoikoak laguntzen zio, ta berze alde mundukoek zeukate, ta deitzen zute Sandu, erriak atratzen zekizkio bidera ikusteagatik, ta asko belauriko. Bere Ama propioak errezibitu zue, ez hume bekala besarka, baizik belauriko Sandu bekala, ta aurzututik zeuka bere Sandu ta Aingirua bekala. Iteko gebek bukataturik izan zue Zerutik abisu, denbora gutiren buruan ararako zela. Kontent ezin iagos, prebenitzeko biajea, itzuli ze bere Kolejiora Roman; ze denbora gartan asko nezesidade ta gaitz an: eskaturik lizenzia zerbitzatzeko heri pobreei, egiten zue ain kari-



dade andiareki, ta ain erreparo gutireki, ezi ortaik apegatu zekio azken gaitza; ta pensaturik, nai zuela Jangoikoak eraman mundugontak, alegratu ze agitz joateas adin artan, ta Sazerdote in baño len, etzuela ainberze kontu emateko. Egin zue bere konfesio jenerala, konfesatzeko guti zuela: errezibitu zitue Biatiko ta unzione extremo, iltzeko bekala. Baña agitu ze zazpigarren egunean ematzea sukarra, ta gelditza lento lentoa iraundu zuena irur ilabetez, ta joan zena konsumitus guti bana. Denbora gortan etzue nai mintza zekion, baizik Jangoikoas; ta bere Majestadeak adiarazi zio eguna, noiz il bear zen: kantatu zue Te Deum alegrazias: eta gero il baño len erran zue ilen zela Korpus Kristiren Oktabaren azken egunean. Egun gartan obe-iduri zegolaik guzien ustez, Sanduak zio etzela oraño bukatu eguna, ilen zela arrats gartan. Ilunabarrean bisitaturik Probinzia-leak galdegin zio, nola zegon. Errespondatu zio, Aita, bagoaz. Nora? dio Aitak. Sanduak, Zerura, ezpadute estorbatzen ene bekatuek. Nai luke, lurrean para zezaten iltzeko: ain ze humila! Azkenean despeiturik guziak amoltsuki, artu zue Kristo guruzifikatua, ta mintzatus amorosoki, ta apatus, beiratus kontino, ta aipatus Jesus Jesus, entregatu zio bere arima oktabarren azken puntuan Garagartzaroaren 20.an, adinaren 23 urte, 3 ilabete, ta 11 egunean: 1591 urtean. Ortzi zute Kolejioko Elizan solemnidade ta jendetze andiareki. Gero andik amalaur urte trasladatu zute leku gora gora Kapilla-nausian, milagro anitz ta andi agituen kasos.

Il ta bigarren urtean bere Ama zegolaik iltzeko etsiturik ordenamentu guziaki, aparezitu zekio seme sandua glorioso eder. Ikusteariki asi ze Ama negarrez kontentus, ta sendatu ze, ta andik alzina etxe guzia asi ze goratzen estado obero len zegon baño. Anitz testimonio andi ematen dute beraren santidadeas persona andiek: baña Kardenale Belarminok bere Konfessore izanak ematen duena da notagarri: Lenbizikoa dio juramentureki, beñere etzuela izan bekatu mortalerik: Bigarrena zazpi urteetaik gora beti bizitu zuela bizitza perfektoa. Irugarrena, beñere etzuela izan aragiaren tentaziorik. Laugarrena, orazioan komunki etzuela izan gogoaren barraziorik. Bortzgarrena izan zela obedienziaren, humildadearen, mortifikazioaren, prudenzia ta pobre zaren exenplu. Azkenik bere biziaren azkenean gau batez errepresentatu zekiola Zeruko gloria ain gozo andiareki, ezi pasaturik gau guzia ortan, ezpaizekio iduritu ordu laurden bat: Guziok baitire arima sanduaren ta andiaren abantallak. Alae-re da iagoko testimonioa eman zuena S. Maria Magdalena Pazzisek ikasirik Zeruko errebelazios, ikusi zuela Sanduen artean S. Luis Gonzaga, baizio admiraturik, o zein gloria andia duen Luisek Ignazioren semeak! Eznue pensatuko, ezpazida mostratu Jesu Kristok. Iduri zaida manera

batean ez nuela sinetsiko, zela ainberze gloria Zeruan, nola ikusi baitut duela Luisek. Nik diot, dela Luis Sandu andi bat. Nainuke ibili mundu guzia barna, ta erran, Luis Ignazioren semea dela Sandu bat andia... Luis izan ze Martir altxatu ezaundu gabea. & Benedikto XIII. Aita Sanduak deklaratu zue Sandu, ta kanonizatu zue, ta inozenzia ta kastidadearen exenplutako eman zue, baitare Patronotako, espezialkiro gastejendeari estudioetan enpleatzen denari &. Ex Breviario.



## Garagarzaroaren 24.an S. Juan Bautistaren jaiotzea, bizitza, ta iltzea

Sandu berex andia dela S. Juan Bautista, adiarazten digute Jesu Kristok, bere Ebanjelioak, eta bere Elizak. Elizak lengo denboretan zelebratzen zue Sandu gonon jaiotzea zelebatus irur meza, nola Eguerri egunean: eta oraiko denboran zelebratzen bi jai, bere iltzearena, berze Sanduena bekala; ta bere jaiotzearena, berze niorena ez bekala, Jesu Kristoren ta Ama Birjinarenas landara. Jaio baño len, ta konzebitu ere baño len, anunziatu zue S. Gabriel Aingiruak, anunziatu zuenak berak Jesu Kristorena. *Ze*, dio Ebanjelioak, *Sazerdote bat Zakarias deitua, ta bere andrea Isabel, biak justoak guardatzen zutenak Jangoikoaren legea, ta jendeen ertean kredita ona: baña etzute humerik, baizire ia biak alzinatuak adinean.* Zego bein Sazerdote gura ofratzen inzensu Jangoikoai, eta jende guzia kanpotik etxideten orazioan. Agertu zekio aldarearen eskuieko aldetik S. Gabriel Aingirua: turbatu ze Zakarias: ta Aingiruak erraten dio, etzaitela turba: ezi zure orazioa da aditua, ta bizikide Isabelek emanen dizu seme bat, deituko duzuna Juan: ta anitz gozatuko dire aren jaiotzean, ezi andia izanen da Jaunaren alzinean: ardorik ta sidrarik ezta edanen, ta betea izanen da Espiritu Sandus Amaren sabeletik ere. Segitzen du Ebanjelioan nola dudan gelditu zen: nola galdegin zion Aingiruai zer gisas: nola Aingiruak erran zion egonen zela mutu bere sinetsi faltas: nola jendeak berantetsirik zeudelarik, atrazen gero ere, baña mutu, ezin adiarazis, ezpaze keñus: nola arritu ziren guziak. Baña Zerutik errana kunplitu bear, konzebitu zue Isabelek sei ilabete lenago ezi Maria Santisimak. Ala S. Gabriel berak anunziatu ziolaik Maria Santisimari, konzebituko zuela seme bat, deitu bear zuena Jesus gorenaren Semea; erreparo paratu zuenai ia nola izanen zen ori, zegolarik Birjin? seguratu zio izanen zela Espiritu Sanduaren birtutez, guzia baitezake egin Jangoikoak; progutako añaditu zio, orra Isabel zure aidea ere, zarra izanik ta antzu deitua, dago seme bateki sabelean, ta doae seigarren ilabetean. Sinestaturik guzia, ta konzebiturik Jesus milagrosoki, ta Ama berria eginik Birjina Maria joan ze prisaka egun gaietan, Martxoaren azken, edo Aprilaren prinzipioan, bisitatzerela Isabel; eta sartu zelaik etxean egin zio diosalea. Eta agitu ze, aditu zueneko Mariaren diosalea Isabelek, saltatu zekio gozos aurrera bere sabel-barnean, eta bera bete ze Espiritu

Sandus, eta exklamatu zue goratus boza; ta erran zue, Bedeikatua zu emasteetan, eta bedeikatua zure sabeleko fruitua. Eta nondik niri ainberze ondasun, nola baita etortzea ene Jaunaren Ama enegana? Zeren ezi orra aditu duteneko zure mintzoa, saltatu da bozkariundezen ene aurrera sabel-barnean. Segitzen du Ebanjelioak kontatuz bi Ama ditxosa gaien esker emateak beren humeengatik. Dudarik gabe ordu gartaik S. Juanek izan zue ezaumentua; eta ikusi zue Jesus sabel birjinalean; libratu ze bekatu orijinaletik; ta logratu zue grazia, ta grazia andia berex, izan bear zuen ofiziorako: ta egon zela an Maria irur ilabete bekala, dio Ebanjelioak, eta pensatzen da ezi S. Juan jaio ta zorzi egun pasatu artaño: eta iduki ere bide zue bere besotan Ama dibinak bere elleba gura.

Isabeli bete zekio denbora libratzeko, dio Ebanjelioak, eta libratu zela semeas, eta urbilekoek eta aideek ematen ziotela zori ona. Eta zorzi-garren egunean etorri zire zirkunzidatzera aurrera, ta deitzen zute bere Aitarene izenas Zakarias. Amak zio ezetz, baizik ere deitu bear zela Juan. Aideek ziote, nior etzela bere aikoan izen goi zuenik. Adiarazten ziote Aitari keñus nola nai zuen dei zeien. Eta eskribitu zue, *Juan da bere izena.* Eta guziak admiratu zire. Da klaro, Jangoikoaganik zela izen gau; eta nai omen du erran duena Jaunaren grazia. Bereala mutuari lazatu zekio mia, ta mintzatzen ze bedeikatuz Jangoikoa. Eta arritu zire jende gaiek; eta Judeako montaña guzietan famatu zire gauza gebek, eta aditu zuten guziek beren biotzean paratu zute ziotela, nor uste duzie izanen dela aur gau? Zeren ezi Jaunaren eskua zego berareki. Eta Zakarias bere Aita bete ze Espiritu Sandus, eta Profeta gisa erran zue, Bedeikatua Israelgo Jangoiko Jauna, bisitatu baitu, ta egin bere puebloaren redenzionea. Eta paratu digu salbazioaren seguranza Dabid bere sierboaren jendakian, nola zeukan ofreziturik bere Profeta Sanduen agos, emanen zigula Erredentorea, orreki libratuz gure enemigoen eskuetaik ia beldurrik gabe zerbitza dezogun berari santidade ta justizian beraren presenzian geuren egun guzietan. Eta zu, ene aurrera, deituko zara gorenaren Profeta, ezi joanen zara Jaunaren alzinean prestatus bere bideak, erakusteko bere jendeai salbazioaren jakindea beren bekatuen barkaziotako. Gure Jaunaren miseri-kordiaren entrañengatik, zeñeki gaituen bisitatu an goratik jautsirik, argitzeko daudenei iluntasunean ta erioaren ilunbean, kidatzeko bakearen bidera. Guziau ta iago erran zue mutu egonak, Jangoikoak argiturik ta mintzarazirik.

Jangoikoak gizon eginik erredimitzeko mundua eskojitu zue Juan bere alzindari, prebenitzeko jendeak penitenziaren bataioareki. Ortako bera lenik prebenitu ze bizitus eremuan, jaintsirik zamarra gisa bat kame-



lloen biloes, ta gerriko bat larruskoa: langostak ta baseztia bere janaria. Bere denboran ia ogei ta amar urtetan Jangoikoaren manamendus atra ze Jordan aldeko errejioea-barna (Luc. 3) predikatus penitenziaren bataioa bekatuen barkaziotako, baitare emateko testimonio Jesu Kristos. Eldu zire jendeak beragana izateko bataiatuak beraganik; baña gogorki predikatzen ziate bekatariei, biboren kastak, nork erakutsi dize eskapatzen ira ondorengotik? Egin bada penitenziaren fruitu dignoak: eta ez fia erraten, Aita dugu Abraham: ezi erraten dizet, poderoso dela Jangoikoa atratzeko arri gebetaik Abrahamen humeak. Ia aizkora paraturik dago arbolearen ondoari: fruitu onik eztakarran arbola ebaki ta botako da sura. Eta zeudelaik pensatzen gogoan, bera ote zen Kristo agian: errespondatu zue: Nik bataiatzen zaiztet ures: baña etorriko da ni baño indartsuagokoa, zeñen oñetakoen lotzakia lazatzeko ere ezpainaz gauza ni: arrek: bataiatuko zaizte Espiritu Sandus eta sus: zeñek daukan sardea bere eskuan, ta aizeratuko du bere eulzia, ta bilduko du bere graneroan garia, baña lastoak errekotu itzali eztaiken suan. Jesu Kristo bera ere etorri zekio bataia zezan: Juanek apartarazi nai zue, ziola, Jauna, ni bear naiz izan bataiatua orrenganik: eta berori eldu da enegana? Errespondatu zio, zaude, ala da konbeni in dezagun on den guzia. Orduan utzi zue: eta bataiatu zueneko idiki zire Zeruak; eta ikusi ze Jangoikoaren espiritua jautsizen uso baten idurian beraren gañera, ta aditu ze Aitaren boza ziola, au da nere Seme onetsia, zeintan baitut neure konplazenzia. (Math. 3.) Berze egun bates ikusi zue Juanek Jesus eldu zela beragana, (Joan. 1.) eta erraten diote, ona Jangoikoaren axuria, ona kentzentuena munduko bekatuak. Au da zeintas nion, ene atzetik eldu da ni baño len dena. Eta nik ez nue ezauntzen, baña manifesta daien Israelen, orgatik etorri naiz ni bataiatzen ures. Eta testimonio eman zue, ikusi dutela Espiritu Sandua jautsizen uso bat bekala, ta baratzen beraren gañean. Eta biali ninduenak erran zida, noren gañera ikus dezazun jautsirik baratzen dela Espiritu Sandua, ura da bataiatzen duena Espiritu Sanduan. Eta nik ikusi nue, ta eman nue testimonio, ezi au dela Jangoikoaren Semea.

Baña Juduen konfusiotako ez ezaundu naitas Jesus, da testimonio eman ziotena S. Juanek, aiek ainberze estimatzen zutenak iduris. Biali ziate aiek enbajada bat Sazerdote prinzipaleeki galdetzera, ia nor zen bera. Eta konfesatu zue, ta etzue ukatu, ta konfesatu zue, ez nai zela ni Kristo. Galdegin ziate aiek, bada zer? Ellas da ori? Erran zue, ez naiz. Profeta da ori? Ez. Nor da bada, erman dezagun errespuesta biali gaitutenei? zer dio bere buruas? Dio, ni naiz boza klamatzen duenarena desertuan, ibili zuzen Jaunaren bideas. Aiek orduan, nola bada bataiatzen du,

ezpada on Kristo, eztare Ellas, eztare Profeta? Errespondatu zue S. Juanek, nik bataiatzen dut ures: baña zuen erdian egon da zuek ezauntzen eztuzena. Bera da ene atzetik etorriko dena, ta ni baño len dena, zeñen oñetakoen lotzakia lazatzeko ere ez naiz digno ni. S. Juanek berak biali zizio bere bi Diszipulo galdegitera, berori da etorri bear dena, edo berzeren bat esperatzen dugu? Jaunak errespondatu ziate, erran zoze Juam aditu ta ikusi du zena: itsuek ikusten dute, gorrek aditzen, leprosoak garbiturik, estropeatuak ibili, ilak bizi, pobreak predikari: eta zori onekoa eztena eskandalizatzen nitan: Aiek joan ondoan, asi ze jendeei erraten S. Juanes: Zer ikustera joan zarate desertura? kanaren bat aizeak dabilana? Baña zer ikustera joan zarate? gizonen bat galas jaintsia? alakoak Erregeen Kortetan dire. Baña zer ikusten egon zarate? Profetaren bat? Bai diot nik, eta iago ezi Profeta: au da, zeintas zegon eskribiturik, Orra bialtzen dut ene Aingirua, zure alzinean, ta prestatuko du zure bidea. Emastekien humeetan ezta jaiio Juan baño *andiagorik*. Egia gau Jangoiko denak errana da: eta S. Gabrielelek errana, izanen zela S. Juan andia Jangoikoaren alzinean; zeñen alzinean jende guziak dire nola ezpalire deus, dionez Profetak.

Guziareki alako gizona il zute munduan bi urdeen kasos, ta danzari baten petizios. Bizi ze Herodes Erregea eskandaloreki zeukala bereki bere anaiaren bizikidea deitzen zena Herodias. Erregeri erraten zio S. Juanek, ezta zillegi idukitzea bere anaiaren andrea. Erregek bazio errespeto S. Juani, ta onen konsejus iten zue anitz gauza: baña Herodias urdeak aborrezitzen zue, ta sarrarazi zue karzelean, ta il ere nai luke, baña etzuke. Zer den emastekiaren itsutasuna! Marco. 6. Eskaida ona izan zue Herodesen jaiteguna, zeintan konbita andi bat zebraturik Jaundi guziek, postrean danza; artan danzatu ze Herodiasen alaba: nola etze izan bear urdearen alaba danzari? Kuadratu zekiote: ta Erregek, kaskoa ia beroturik, erran zio, eska zadazu nai duzuna, ta emanen dizut. Eta juramentatu ze baietz emanen dizutela eska dezazuna dena dela, naiz ene erreinuaren erdia. Joan ze neska bere Amagana, galdegin zio, zer eskatuko diot? Infameak erran zio, Joan Bautistaren burua. Itzulirik prisaka eskatu zio Erregeri, Jauna, nai dutena da eman dezadan bereala plater batean Juan Bautistaren burua. Tristatu ze Errege, ezpaizue esperatzen alako petiziorik: baña juramentuaren, ta presente zeudenen atenzios manatu zue soldado bat, ekartzeko aren burua: ta ebaki zio karzelean, ta ekarri zue burua plater batean, ta eman zio neskari, ta neskak Amari. Alako fina mundu gontako izan zue bera baño andiagorik eztuenak munduan: gizon sandu zenak Jangoikoaren ta gizonen begietan, Jesu Kristoren berzergusuak, Ama Birjinaren



ellebak, ain Jesu Kristoren gisara ta konforme, ezi bizi zelaik S. Juan, uste zute zela Jesu Kristo; ta il ondoan Sandua, Jesu Kristo uste zute zela S. Juan: ala aditurik Jaun dibinoaren milagroketara, ziote, Juan erresuzitatu da, ta orgatik birtuteek obratzen dute artan. Herodes berak ere zio, nik degollatu nuen Juan, uraxe biztu da ilen ertetik. Marc. 6. v. 16. Alaere alako gizona ilarazi zute, ta alako maneran! Pintatzen du galantki tragedia gau S. Anbrosoiak: *Beiratzeko da, dio, nor den il dena, nork ilarazi duten, zer motibos, zer maneras, ta zer denboras. Justo garbi Sandua ilarazi dute injusto urde infameek; eta kulpa-dunek pena pagatu bear zutena berek pagarazi diote Juezari. Gero danzari baten premio da Profetaren eriotzea. Azkenik Barbaroek ere ez dezaketena soporta, konbita batean tragoen ertean ematen da sententzia eriozkoa. Zenbat maldade diren batean! Zebiltzalaik joanetorriketan konbitatik karzelera, karzeletik konbitara, nork etzue pensatu bear zela libratzeko preso sandua? Zer ikusteko dute erregaloez krueldadeareki? Nola konpontzen dire gustoak ta erioa? Profeta ilarazten dute konbita-denboran sentenziaturik, nolako sentenzias libratzea ere nai ez luken!* Pintatzen du gero Sanduaren burua eramate gura plater batean: *Plater goi ze, dio, asetzeko zuen furia, etzeikena ase jan edaneki. Beira buru sandu goi odola dariola. Beira begi goiek zuen maldadearen testigo direla eriotzean ere. Ertxirik daude, ez ainberze erioaren kasos, nola zuen urdakeriari dion oposizios. Urresko ago prezioso gura ixil dago ia, ta alaere dioze beldur.* Baña zer in bide zuten buru sanduas Ama alaba infame gaiek, zeukatelaik beren eskura, nork daki? Ortzi zutela palazioaren ondarrean barna, diote Autoreek, beldurrak biztu zeien berriro erreprehenditzeko.

Emen arima txipiei datorke tentazio, nola Jangoikoak utzi zuen ala tratatzera bere Sandua? nola Maria Santisimak bere izebak, nola Jesu Kristok berzergusuak guzis poderoso denak, etzuten debekatu. Dator ori, ez ongi entendatzeas Jangoikoaren Teologia mundu gontan. Nola utzi ze Jesu Kristo bera, izanik Jangoiko, preso egitera, golpaztera, azotatzera, kruzifikatzera &? Jangoikoaren zerbitzutan padezitzea munduan da gala ta gloria, ta iago padezitzen dutenak onagatik dire goapoenak Jangoikoaren etxean. Emengo deshonreek dakarzkite ango honrak: emengo trabajuek ango deskansuak: emengo iltzeak ango bizitza: emengo aranzeek ango arrosa-loreak; emengo neke-penaek ango perlak ta diamanteak. Erreaki S. Juan Bautista ain indignoki il zutena emen, orai dago an gora koronaturik glorias: eta emen ere Elizak litanian Jangoikoa len, Maria Santisima urbilena, atzetik Aingiruak, ta bereala paratu du S. Juan Bautista Sanduen len lenbizikoa. Bai, ta Herodes, Herodias, ta danzari gura zer in dire? Aien banidadeak ta gustoak akabatu zire: gorputzak ustel korronpiaturik autstu zire: arimak daude penatzen pena, ezin aguanta, ezin akaba

daizkenak. Baña arara baño len ere asi zire txastatzen beren gaixakerien erresumiña: ezi Aretak Arabiako Erregek, zenen alaba zen Herodesen bizikide propioa, ta despreziatua urdeagatik, egin zio gerra, ta urratu zio bere jendea, eta bera, botarik erreinutik, ta Franziako Leona desterraturik, andik Españarat iges etorririk bere urdeareki, angustias eta penas aburriturik, konsumitu zire. Eta danzari gura diote, ezi pasatzerakoan oñez ugalde bat izoztua, autxirik izotza, aren kantotik gelditurik dilindan, urak zebilala inguraka, ebaki zion arteo izotzak lepoa, eramateko Deabruak arima. S. Juan Bautistaren burua anitz urteen buruan beraren errebelazios aurkitu ze lenik otxallaren 24.an: bigarrenik Agustuaeren 29.an Balente Enperadorearen denboran, zeñek nai eraman Konstantinoplara, ta etzuke, zeren baize Hereje Arrianoa. Eraman zue Teodosio andiak gero, ta fabrikatu zio tenplo andi bat: eta baliatu zekio, zeren ezi orazio eginik tenplo gartan, ondorean emanik batalla Eujenio Tiranoaren kontra logratu zue biktoria. Enperadore gau izan ze Española, Españaren honra, bere Kristiotasun, balore, prudenzia, ta prenda on guziengatik. Au izan ze urratu zituena idoloen, edo Jangoiko falsuen tenplo guziak. Eta Alexandrian orden goi ellegaturik, urratu zute Kristioek Serapis famatuaren tenploa: ta fabrikatu S. Juan Bautistaren Eliza, non paratu zuzten Sanduaren errelikiak. Burua gero eraman ze Erromara, ta paratu S. Silbestrearen Monasterioan, non baitago presentean, nola baitio Martirolojio Romanoak &.





## Garagarzaroaren 29.an S. Pedro Apostolua

S. Pedro, Jesu Kristoren Bikario lenbizikoa, ta Apostoluen Prinzipe sumoa, Kristiogenearen Artzai burua, zeñi eman zition Zeruko erreinuaren giltzak, izan ze Galileatarra Betsaidakoa, ezkondua, ta S. Andresen anaia, deitzen zena len Simon, gero Jesu Kristok aldatu zio izena, erraten ziola, *zu zara Simon Juanen Semea; zu deituko zara Cephas, au da Pedro*, edo arri firmea; adiarazis ala, ezi delarik Kristo Elizaren zimendu ta arri prinzipala, urbilena dela S. Pedro: zeñen abantalla guziak ezin daizkelaik explika, zenbait bakotx aipatzea da konbeni, usma daien Sandu gonon ditxa ta dignidadea. Etze bada munduko andi abratsetaiek: bizi ze arranzutik, bere anaia bekala: Biak ikusi zitue botatzen sareak itsasoan, ta erraten diote Jaun dibinoak, *zatozte ene atzetik; inen zaiztet arranzari arimen*. Math. 4. eta aiek bereala utzirik sareak, segitu zute. S. Pedrori beti mostratu zio amore ta fabore berex; eta ala kontatzen direlaik Apostoluak, beti kontatzen da S. Pedro len. Bein itsas-basterrean bildu zelaik jendetze andia, aditzeko Jangoikoaren itza, Jaun dibinoa igan ze S. Pedroren barkan, ta andik jarri-rik predikatzen zue. Ondorean manatu zio Sanduari botatzeko sareak. Sanduak erran zio, Jauna, gau guzian ibili gara nekaturik, ta ezin arrapatu dugu deus: baña berorren manamendura edatuko dut sarea. Edatu zue, ta arrapatu zue ainberze arrai kantidade, ezi bete zuzte bi barka. Sandua arri-turik milagroas urtiki zekio oñetan ziola, *Jauna, aparta bedi eneganik, bainaiz gizon bekataria*. Luc. 5. Erraten dio Jesus onak, *ez lotsa, ezi enendik alzina izanen zara irabazteko arimak*. Berze bein gauas barkoa zebila gora bera aize kontrakoareki: azkenerat eldu ze Jaun dibinoa oñez uren gañean: lotsatu zire Apostoluak ustez fantasmaren bat zen: Bereala Jaunak erran ziote, *Konfia: ni naiz: ez beldurrik izan*. S. Pedrok erran zio, Matthaei 14. *Jauna, on barin bada, mana bez natorren ni orrengana uren gañean. Atoz bada*, erran zio. Bota ze urera Sandua, ta bazoeie oñez urean; baña al ze erru bat mogi-tzeareki beldurtu ze, ta ondatzen asi zelaik klamatzen zio, *Jauna, guarda benaza*. Jaun dibinoak edaturik eskua arrapatu zue, erraten ziola, *O fede guti-takoa, zergatik dudatu duzu?* eta sartu zireneko onzian, atertu ze aizea, eta adoratu zute ziotela, *egiaz Jangoikoaren semea da berori*. Baña famatuena S. Pedrok eman zuen testimonioa, konfesioa, ta deklarazioa Jaun dibinoas, noiz ta bere Majestadeak galdeginik bere Diszipuloei, *Nor diote jendeek nai zela ni?* Aiek errespondatu zute, ezi batzuek uste zutela zela Juan Bautis-

ta, berbatzuek Elias, edo Jeremias, edo Profetaren bat. Jaunak dio, *eta zuek nor uste duzie nai zela ni?* S. Pedrok orduan, *Jauna, berori da Kristo Jangoiko biziaren semea*. Jesus onak orduan erran zio, *Zori onekoa zara zu, ezpaitizu erakutsi aragiak ta odolak, baizik ene Aitak Zeruetan dagonak. Bada nik erraten dizut zuri, zu zarela Pedro, eta arri gonon gañean fundatuko dut nere Eliza, eta onen kontra ez tute indarrrik izanen infernuek garaitzeko. Eta zuri emanentizut Zeruetako erreinuaren giltzak: eta zuk lotu dezazun guzia lurrean, lotua izanen da Zeruetan, eta zuk laztatzen duzuna emen, laztatua an*. Baña andik guti (ib. Math. 16.) erreprehenditu zue bera. Zego Jaun dibinoa erraten, nola Jerusalemen bear zuen Dadezitu anitz, eta il guruzifikaturik: S. Pedrok zion kariño andiareki erraten zio, *ez, Jauna, ezta alakorik in bear orreki: ez permiti*. Jaun dibinoak akar egin zio, *Zoaz ene atzetik, Satanas, eskandalo zara enetako, ezpaituzu entendatzen Jangoikoaren gustora, baizik gizonenenera. Nai duenak etorri ene atzetik, uka bedi bere naikundeei, ar bez bere gurutzea, ta segi benaza*.

S. Pedro zue bere testigo ta lagun gauza sekretoetan ere, ala nola biztu zuelaik Prinzipe garren alaba ila; ta baratzean in zuen orazioan pasio-almazinean; ta lenago agertu zuelaik parte bere gloria Taborko oia-  
nean. (ib. 17.) Kafarnauen trebutuaren kobrazaleak ellegaturik erran ziote S. Pedrori, (ib. in fin.) Zuen Maestruak eztu pagatzen trebutua? S. Pedrok erran zue baietz. Eta joan zelaik Jaunagana, Jauna al zinduze galdegitera, *zer iduri zaizu, Pedro? Munduko Erregeek norenganik kobratzen dute trebutua? Humeenganik? edo berzerenganik?* S. Pedrok, *berzerenganik*. Jaunak, *beras libre dire humeak. Baña etzoguten eman erratekorik, zoaz itsasora, bota zazu hamua; eta lenbiziko arrai arrapatzen duzunai idiki agoa, ta an aurkituko duzu moneda bat; au arturik enozute nere ta zure partez*. Guzia erran bekala. Eta nork eztu admiratzen Jesu Kristoren ta S. Pedroren komunikazio elkarrengoa? Berze aldi batez predikatu zuelarik Jaun dibinoak bere gorputz ta odol prezioso eman nai ziotenes sakramentuan, anitz Diszipulo eskandalizatu zire gaizki entendatus. Joan. 6. ad fin.) ta joan zire atzerat. Gelditu zirenei erran ziote Jaun dibinoak, Nauzie Joan zuek ere? S. Pedrok errespondatu zio, *Jauna, norengana joanen gara? Orrek ditu bizitza eternoko itzak: eta guk sine-tsi dugu, ta ezaundu dugu berori dela Kristo Jangoikoaren semea*. Jaunak orduan, *nik artu zaiztet amabi, ta zuetatik bat Deabrua da*. Ori zio judas traidoreas. Berze bein galdegin zio S. Pedrok, (Math. 18.) *Jauna, zenbat aldis bekatu egini-  
nik ene anaiak, barkatuko diot? zazpi alditaraño?* Errespondatu zio Jaun onak, *eztiot nik, ezi zazpi alditaraño sollik, baizik zazpi amar zazpitararaño; errateko ezi beti ta noiz konfesatzen den ongi penaturik*. Oneki erakutsi zio izaten beratx bekatarieki, nola Jesus bera baizio, *ez naiz etorri justoen billa, baizik bekatarien billa*.



Baña Sanduak berak izan zue gero barkatu bearra, ezaundaien zer den gizona berez, nola ikusko dugun geroxago. Azken arratseko afaria legearen gisara prebenitzeko, biali zitue S. Pedro ta S. Juan Jerusalem, (Luc. 22.) ta prebeniturik jarri ze maian amabieki. Ondorean jaikirik, ta mantoa kendurik, paratu zue gerrunzean eskutako oial bat, ta arturik ur palangana batean asi ze garbitzen oñak Apostoluei. Ellegatu ze Pedro-rengana, ta Sanduak arriturik erraten dio, *Jauna, orrek niri garbitu oñak?* Jaun onak, *zaude, nik iten dudana zuk eztakizu orai, baña jakinen duzu gero S. Pedrok, Jauna, eztut utziko garbitzera ene oñok orren eskus sekulan ere* Jaun onak, *ezpazaitut garbitzen, eztuzu izanen parterik ene konpañian*. S. Pedrok on aditurik bereala, *Jauna, beras ez solamente oñok, baitare eskuok eta buruau ere*. Jaun dibinoak, *Garbi dagonak eztu bear gana baizik oñak; eta zuek garbi zauzte; baña ez guziok*. Au zio, baizekie nor zen traidorea. Gero itzulirik mazeran erran zue triste grabe, *segurki erraten diziet ezi zuetaik batek traiziatuko nauela ni*. *Eneki dago maiean traizio iten didanaren eskua. Ni banoaie nora Jangoikoa dagon: baña ai entregatzen nauenas. Obeluke, ezpalitz jaiu*. Ikaraturik galdegiten zute batbanaka, *Jauna, ni ote naiz?* S. Pedrok keñu iten zio S. Juani, ikasi zezan Jaunaganik, nor zen traidorea; zatikatzeke bere eskus an berean, dio S. Krisostomok. Gero despeidan bekala mintzatu zekiote agitz amoroso, *Ene humettoak, oraño gutitto bat nagü zueki: baña banoaie...* S. Pedrok erran zio, *Jauna, nora doaie?* (Joan. 13.) Jaun onak, *ez nazakezu segi orai zuk ni; baña segituko nauzu gero*. S. Pedrok, *zergatik ez dezaket segi? nere arima emanen dut orrengatik*. Jaunak, *arima emanen duzu? Zierro erraten dizut, eztuela ollarrak kantatuko, ukatu gabe zuk ni irur aldis. Ah Pedro Pedro, beira, ezi Satanasek nai zaizte baiastatu garia bekala*: Luc. 22. *Baña nik eskatuko dut zuregatik, eztaien falta zure fedea. Eta zuk noizbait konbertiturik konfirmazkizu zeure anaiok*. Atraterakoan erran ziote guziei, *zuek guziek eskandalo pasatuko duze gaur ene okasios: ezi eskribiturik dago, Artzaia golpatu, ta ardiak barratu*. S. Pedro beti berartan, *Jauna, naiz guziek faltaturik, baña nik ez beñere*. Jaun onak, Math. 26. *gaur ukatuko nauzula zuk ni irur aldis, ollarrak kantatu baño len*. Sanduak, *naiz preziso balitz iltzea ni orreki, eztut ukatuko*. Oroat ziote guziek. Gero xakinen.

Proposito goneki atra zire Jesus onaren konpañian, eta S. Pedro bere ezpatareki guapo, defendatzeko bere Jaun onetsia. Ellegaturik Jetsemaniko baratzean, utzirik gañarakoak leku batean, sartu ze barnago irureki, baizire S. Pedro, S. Tiago, ta S. Juan, *zauzte emen erne*, erraten diote, *ta orazio egin nereki, etzaizten erori tentazioan*: eta bere Majestadea araxago joanik zego orazioan odol-izerditan aflikzioaren utses. Itzulirik aiengana, (Marc. 14.) erraten dio S. Pedrori aurkiturik lo, *Pedro, lo zaude? Ezin egon zarate ordu*

*batez eneki orazioan? Espiritua da bizkor, baña gorputza herikor. Ea idatzarri, ta orazio egin*. Baña berriz ere itzulirik lo aurkitu zitue. *Goazen, dio, ezi urbil eldu da traiziatzen nauena*. Ia agertu zelaik Judas, ta arreki Ministroak beren armaeki, Pontifizearen sierbo bat deitua Malko alzinatu ze botatzera eskuak Jaun dibinoai: S. Pedrok arri tiratu zio ezpatas burura, ta ebaki zio eskuieko bearria: zein bereala Jesus onegiak ukitus eskuas utzi zio sendaturik; ta S. Pedrori erran zio, *itzulazu ezpata goi bere magira. Ene Aitak brindatu didan tragoa, eztuzu nai pasa dezaten?* Naiz bai, alaere admiratzeko da S. Pedroren zeloa, amorea, ta balorea Jaunaren faboretan kanalla ainberzeke garren aurkasean: eta S. Ignazio Loiolak, soldado zelarik, zebratu zue koplaetan balentia gura. Jesus onak erran ziote gaixtofikatu gaieti, *ni billatzen banauze, uzkie ebek joatera*. Eutzitzeareki aiek Jaun onari, Apostoluak joan zire guziak iges: S. Pedro ere bai ta S. Juan: baña deteniarezirik amoreak, zoezi biak segitus urrundani preso dibinoa. Gero Kaifasen etxean zeukatelak, sartu ze lenik S. Juan: geroxago S. Pedro. Erran zio oni zerbizari atezaiak, erran zio, *ori gizon gorren Diszipuloetaik da*. Zoraturik mas errespondatu zue, *nik eztut ezauntzen ere*. Andik guti zebilalaki jende gaixto gaien erlean, berriz ta berriz porfiatu ziote, aietak zela; mintzoan ere ezaun zela: baratzean ere ikusi zutela. *Pedrok uka juramentus ere, eztut ezauntzen*. Eta Jaunak itzulirik beiratu zio S. Pedrori; ta kanpora atrarik asi ze negarres, ta negar egin zue samiñkiro: eta ain gogotik, ta ain kontino, ezi bere bizi guzian, ollarra kantatzen aditu orduko, asten zue negarraren musika de manera, ezi bi begien pean bi erreka edo arraia in omen zekizkio negar jarioaren utses, ta begiak odolestaturik bekala orgatik. Bi motibo zire, nola bi punta tzorrotzak heritzen zutenak biotz noble gura: bat bere Jaun onetsiaren pena; berzea bere kulpa ofendituas bere amazalea ainberze on in ziona.

Urbilen igande goiz goizean S. Maria Magdalena joanik monumentura, ta ikusirik uts ta idikirik, itzuli ze lasterka S. Pedrori ta S. Juani kontatzera. Biak bereala joan zire ikustera laster ta laster; S. Juan ellegatu zela lentxago, dio berak, baña etzela sartu monumentuan; ellegatu ze atzetik S. Pedro, ta sartu ze, ta ikusi zitue mortaxak an, baña gorputz dibinoa ez; ta endendatu zute biztu zela. Badio Ebanjelioan agertu zekiola S. Magdale-nari berez: Joan. 20. S. Pedrori ere berez agertu zekiola Jaun dibinoa, da klaro S. Lukasen Ebanjeliotik, c. 24. v. 34. Nola errezibitu zuen Sanduak; nola urtiki zekion oñetara; nola konfesatu kulpa; nola eskatu zion barkamentua! nola Jaun onak barkatu, konsolatu, animatu zuen, nork explika? nork entenda? Egun gartan berean berant zegolaik S. Pedro bere lagunekin ganbara ertxian Juduen beldurrez, paratu zekiote erdian Jaun dibinoa,



erran ziote amoltsu, *bakea zuei; nola bialti ninduen ni nere Aitak, ala nik bialtzen zaiztet zuek*. Baita ats emanik zio, *ar zazie Espiritu Sandua. Bekatuak nori barkatzeniozen, barkatuak dire ta norenak retenitzen, retenituak*. Berze asko aldiz agertu zekiotte berrogei egun gaietan: baña azken kontatzen duena S. Juanek da notagarri, c. 21: zeude arranzuan S. Pedroreki zazpi lagun, ta gau guzian deus etzute arrapatu: goizean agertu ze itsasbasterrean Jesus ezauntzera eman gabe: manatu ziote botatzeko sarea eskuieko aldera: orreki atra zute kantidadea, ezin jasi ala. S. Juanek erran zio S. Pedrori, *Jauna da*. S. Pedro, aditu zueneko, bota ze itsasora ellegatzeko len baño len: atzetik gero guziak. Jaunak eman ziote jatera bere eskus. Bazkal ondoan erraten dio Jesus onak S. Pedrori, *Pedro, maitatzen nauzu ni, ebek baña iago?* Sanduak, *bai Jauna. Orrek daki maitatzen dudala*. Dio Jaunak, *bada kuida ene axuriak* Berriz galdegin zio, *Pedro, maite nauzu ni?* Errespondatu zio Sanduak, *bai Jauna, orrek daki maite dudala*. Dio Jaunak, *bada kuida ene axuriak*. Irugarren aldian galdegin zio, *Pedro, amatzen nauzu ni?* Tristatu ze Pedro galdegiteas irur aldiz ori; Errespondatu zio, *Jauna, orrek guzia daki: berorrek daki amatzen dudala*. Jaunak orduan, *kuida nere ardiak. Gastea zina-laik, gerrikoa paratu ta zindebiltza nora nai zinduen: baña zartzen zarelaik berze batek paratuko dizu, ta ermako zaitu nora nai etzuzun*. Au erran zuela, dio S. Juanek, aditzera eman, nolako eriotzeareki bear zuen honratu Jangoikoa: eta au erran ondoan erraten dio, *segi nazazu ni*. Orra S. Pedro eginik Kristoren Bikario beraren ofizioan, beraren axurien ta ardien Artzai sumoa, potestade guzien giltzaeki.

Igan ondoan Kristo Zerura, gelditurik S. Pedro Elizako buru, lenbiziko egin zuena izan ze eskojitzea amabigarren Apostolua S. Matias judas traidorearen lekuan. Amargarren egunean jautsi ze Espiritu Sandua susko mi batzuen idurian, bete zitiote biotzak amoresko sus, indar eta korajes, eta arimak jakindearen argis, mintzatzeko ausarki mundu guziaren alzinean, plantatzeko eta azitzeko Errelijione Kristioa, erakusteko Zerurako bidea, estimarazteko Jangoikoa, ta salbatzeko arimak. Len zeudenak altxaturik beldurrak, ia karrikara atrarik pregonatzen zute Jangoikoaren ta Kristoren laudarioak, adiarazis anitz mintzo-generotan, admiratzen zirela jendeak. S. Pedrok goraturik boza eman zue testimonio Jangoikoaren Espirituaren birtuteas obratzen zuenas aietan: eta Jesu Kristoren Erresurrekzioas, ta nola den Salbazalea; in zezatela penitentzia &. Eta egun artan sollik irabazi zitue irur milla arima, eta egunoro zoeie aumentatus eraizioa Zerurako, arrimatus Jangoikoak bere eskua, obratzeko prodijioak. Zoezi egun batez S. Pedro ta S. Juan tenplora; zego atarian pobre bat estropeatua bi oñetaik jaiotzez, limosna eske. Biei ellegatzean eskatzen ziote: S.

Pedrok erran zio, *beira zaguzu guri*. Beira zegokiote ustez atra zerbait. S. Pedrok erran zue, *zillar, ta urrerik eztut nik: baña dutena ematen dizut; Jesu Kristo Nazarenoaren izenean jaiki zaite, ta ibili*. Bateo arturik eskuietik goratu zue, ta istantean firmatu zekizkio zangoak eta plantak. Txutiturik zebila saltoka, ta sartu ze bieki tenploan saltatzen, ta laudatzen Jangoikoa oiuz. Jendeak ikusirik ta ezaundurik zela pobre gura, bildu zire arrizios beterik: eta S. Pedrok erran ziote, *zer ai zarate guri beira, nola geuren birtutez in bagindue lan gau? Jangoiko andiak gloriaztatu du bere Semea Jesus, zuek entregatu ta ilarazi duzena; baña biztu da Jangoikoaren birtutez: gu testigo: eta beraren izenak, eta fedeak sendatu du au: eta orai badakit in zindutela ignoranzias; pena bekize, ta konberti zaitetzte, borratzeko zuen bekatuak*. Konbertitu zire bortz milla: baña justiziako Ministroek preso erman zuzte biak. Biramonean Sazerdoteburuek bildu zute batzarra, ta paraturik biak erdian galdeiten ziote, zer birtutez, edo noren izenean ibiliarazi zuten gizonoi. Orduan S. Pedrok beterik Espiritu Sandus erran zue, *Prinzipe Jaunak, adi bezate, ta iduki bezate xakinik ta entendaturik, ezi Jesu Kristo gure Jaunaren izenean dagola sano emen alzinean dagon gau. Jesus oiek reprobatu zutena da Salbazale bakarra, eta ezta berze nioren baitan salbaziorik, ezi Zeruaren pean ezta gizoni eman berze izen bakotxik ere, zeintan bear garen izan salbo*. Ikusirik bien konstanzia, ta ezindua presente bizkor, ezin uka; utzi zuzte manaturik, ez predikatzeke Jesusen izenean. Baña errespondatu zute ausarki, *Beira Jangoikoaren alzinean, arrazio den obeditzea oiei iago, ezi Jangoikoai, juzga bezate, ezi guk ez dezakegu baizik erran ikusitugunak ta aditutugunak*. Meatzaturik utzi zuzte.

Ain andia ze S. Pedrok zuen eskua ongi egiteko, ezi plaza ta karrikaetan paratzen zute heriak beren goatzeetan, zetorrelaik S. Pedro, onen itzalak berere uki zezkien, orreki libratzeko; ta berze errietaik ere ekartzen zuzte heriak ta espiritatuak, eta kuratzen zire guziak. (act. 5.) Jaunaren Espiritu Sandua bizi zela S. Pedron ezauntzeko, agitu ze lanze lotsagarri bat. Lenbiziko Kristio gaiek zute ainberze karidade elkarreki, ezi saldu beren haziendak, ta aien prezioa paratzen zute Apostoluen oñetan, errepartitzeko Kristio lagunetan. (act. 5.) Ananias ta Safira bi senar-emasteek saldu zute beren alor bat; prezioaren zati bat gelditurik, berze zati bat ekarri ziote S. Pedrori, guzia zelako itxuran, ustez naski engañatu Apostolua. Erran zio senarrai lenik S. Pedrok, *Ananias, zergatik Satanasek tentatu du zure biotza, gezur errateko Espiritu Sanduari? Naibazindue iduki zeure alorra, etzego zeure eskuan? eta orat prezioa ere, naiz saldurik? Zertako erran gezurra? Eztiozute gezur erran gizoni, baizik Jangoikoai*. Itz gebek aditzean Ananias erori ze ilik berartan. Eta guziak lotsatu zire ortas: eta ortzi zute ila. Andik irur ordu guti gorabera ellegatu ze bere Andrea Safira etzekiela deus ala-



korik: erran zio S. Pedrok, *emastekia, erran zadazu, onenberzean saldu duzue alorra?* ark, bai Jauna, onenberzean. S. Pedrok, *Eta zertako da nai izatea tentatu Jangoikoaren espiritua? Bada orra atarian dire ortzi dutenak zure senarra, ta ermako zaitute zu ere ortzitzera.* Momentuan iltze an oñetan, eta erman zute ortzitzera senarraren obia berean. Baña pleitu andiagokoa izan zue Simon deitu bateki, baize sorgin endemoniatua, enbustero engaňatzen zituena jendeak arte gaixtos, ibiliarazis airean estatuak, artus berak serpiente ta animaleen figurak, ibilis suan erre gabe, airean egatus, ta alako gauzak Deabruen laguntzareki. Obeki engaňatzeko, bataiatu ze, baña biotza makur. Ikusirik ematen zela Espiritu Sandua, Apostoluek paratus eskuak gañean, eskindu zue diru, eman zezoten potestade, ekarrarazteko Espiritu Sandua nori ark paratzezkie eskuak. S. Pedrok erran zio serio, *ire dirua biz ireki perdiziotako, uste baituk Jangoikoaren donoa erosten dela dirus. Itz goiek eure kontra tuk, ezi ire biotz goi eztuk zuzen Jangoikoaren alzinean. Intzak penitentzia gaixtakeria gortas, nai badik barkatu Jangoikoak, ezi ikusten diat, agola loturik gaixtakeriaren lakioan.* Hipokritak zio, eska zozie zuek Jangoikoai eztatorkidan diozenetaik deus ere: nola aski balitz eskatzea berzeek, egin gabe berak; edo nola balego Jangoikoa obligaturik egitera baten onetan, lagundu gabe Mak. Eskapaturik andik Simon gura joan ze Romara. Gero S. Pedro, ibili ondoan Jerusalem, Antiokian, ta leku gaietan ameka edo amabi urtes, joan ze Romara, non aurkiturik sorgin gura, Satanasen Diszipulo gura, zeukatena kasi Jangoiko adiña: konfunditu zue S. Pedrok aisa; baña desengaňatzeko jendeak, aren miragarri itxurak zirela Deabruaren artez, ta ez onez, proponitu zioite ekar zezatela il bat, eta zeñek ere bizten zuen, ura izan zeiel a egietafedearen Predikari. Ekarririk ila, sorginak iten zue in ala bizteko, mogiarazten zio burua, eskuak, oñak: baña azkeneko ila il gelditu ze. S. Pedrok humil eginik orazio, biztu ze ta eman zue testimonio egietafedeas. Orgatik galdurik arrek lengo kredita meatxu egin zue iganaraziko zela Aingiruen eskus zerura, ta andik kastigatuko zituela. Errealidadean asi ze igaten airean gora gora, guziak beira zeudelaik ta klatmatzen Jangoiko Jangoiko zela. S. Pedrok eskaturik Jangoikoai debekatzekiela Deabru gaiek laguntzen ziotenak, manatu zioite utzi zezatela: momentu berean utzirik erori ta estropeatu ze de manera, ezi ia etzeike oñez ibili nai zena egatu egalik gabe. Etzue nai Sanduak il zeien eroralditik berartan, konberti zeingatik, ta desengaña guziak; baña biramonean iltze miserablea; eta S. Pedro gelditu ze triunfante nola egietafede a ere bai. Azkenean Pedro Kristio guziek leku guzietan zirenek, ta Sazerdoteek, ta Obispoek, ta Apostoluek, ta S. Pablo berak ezauntzen, errespetatzen, ta

obeditzen zute guzien buru bekala zituena potestade guzien giltzak Kristok emanak.

Baña preziso ze imita zezan Kristo bera padezitzean ere, ofizioan bekala. Herodes Erregeak persegitzen zitue Kristio prinzipalenak. S. Juanen anaia Santiago gure Patronoa ilarazi zue ezpatas Apostoluetatik lenbizikoa. Eta ikusirik Juduen gustoa on zela, in zue preso S. Pedro ere: ze bazkoa alzinean, ta zeuka guardaturik karzelean laur patrulla soldadoeneki, gogo eginik atratzeko bazkoa ondorean iltzera. S. Pedro karzelean preso, baña Eliza guzia orazio egiten Jangoikoai beragatik kontino. Atra nai zuen bezperan, zego gau gartan Pedro lo betean bi soldadoen ertean bi katees loturik. (act. 12.) eta guardiak atarian guardatzen karzela. Eta ara non Jaunaren Aingiruak golpe bat eman ta idatzartzen duen Pedro, ta erraten dion, *Ea, ots, jaiki fite* Kateak erori zekizkie eskuetaik. Eta erraten dio, *para zeure oñetakoak, ta zeure soñekoa, ta segí ni.* Jaiki ta zoeie segituz, ta etzekie zen egiaz iten zuena Aingiruak, uste baizue zela bisioneren bat. Pasaturik lenbiziko ta bigarren guardia, ellegatu zire burriñasko atarira, zein idiki zekiote berez: Atrarik andik pasatu zute karrika bat, ta instantean desagertu ze Aingerua. Eta Pedrok itzulirik berebaitan *zio, orai dakit egiaz biala duela Jaunak bere Aingirua, ta libratu nauela Herodesen eskutik, ta esperan zeuden uduen ganik.* Joan ze Juan Markos deituaren Amaren etxera, non zeuden anitz bildurik orazioan. Deitu zue atarian: ta atra ze neskatoa, deitzen zena Rode, galdetzera nor zen. Ezaundurik S. Pedoren mintzoa, itzuli ze prisaka erratera Pedro zegola atarian. Aiek ziote, eraturik zaude zu. Arrek firme seguratzen, Pedro zela. Aiek ziote, beraren Aingirua bide da. Bitarteo Pedro beti atarian dei ta dei. Noiz ere bait idiki ziote: ta ikusi zute, ta arritu zire; eta ixilarazirik kontaktu zue, nola libratu zuen gure Jaunak; ta zoezila erratera Jakobori, ta berze anaiei. Eta bera atrarik oanze berze leku batera. Oraingoan libratu zue Jangoikoak baizue plazer libratzeas bizia: ez ala gero Roman. Inzitie preso S. Pedro ta S. Pablo Neron Enperadoreak: ta bedratzi ilabeteen buruan sentenziatu zitue iltzera Pedro gurutzean, Pablo ezpatas. Bitarteoko denbora gartan biek karzelean in zute asko milagro, ta gauza on: konbertitu zuzte beren guardiak; ta bataiatzeko, atra ze bat batean iturri bat ango peña batetik dirauena egungo egunean; eta guziak bataiatu izan zire Jesu Kristoren Martir loriosoak. Ellegatus ia plazoa, Kristioek falta inen ziotena ezaundurik, eskatu zioite S. Pedrori, beren Artzai onai bekala, atra zeiel a karzeletik, ta injeniatu zute nola: ta ainberze porfia in ziote, ezi azkeneko atra ze, ta bazoeie libre, bidean agertu zekio Jesu Kristo. Ezaundurik S. Pedrok galdedin zio, Jauna, nora doaie? Errespondatu zio, noaie Romara izatera





berriz gurutifikatua. Entendatu zue Sanduak, zer nai zion adiarazi: ta bereala itzuli ze bere karzelerara. Egun señalatuan azotaturik lenik biak atra zuzte iltzeko, bata leku batean, berzea berze batean: Despeitzerakoan nor bere lekura, besarkatu zire amorosoki. Eta S. Pedro josi zute itzeeki gurutzean bere Maestru dibinoaren gisara, solamente ala berak nai zuela, burua bera, ta oñak gora, nola lurretik zerura zoeiena, dio S. Krisostomok. Ortzi zute gorputz sandua solemnidade zeikenareki denbora gartan. Izan omen ze S. Pedro gora gorputzes, naiz ez abultatu: kolorea txuri ta deskoloritukara: bizar ta buruko biloak usu ta rizatu izurrak, baña ez luze: begiak beltzkara, ta odol-kolores ainberze negar egines, berexki ollarrak kantatzean. Agitz debozio zute len S. Pedro, ta S. Pablo bi Prinzipe sanduen imajinei: eta len ta gero, ta beti mundu Kristio guziak estimatzen ta beneratzentu aien errelikiak. Konstantino Enperadoreari, sendatzeko lepra, ordenatu ziotelaik aurren odolesko bañua, aparezitu zekizkio lotan S. Pedro ta S. Pablo, ordenatzen ziotela billa zezala S. Silbestro Aita Sandua, zeñen eskus bataiatu garbituko zela. Billaturik aurkitu zue, ta ark mostraturik bi Sanduen imajinak, ezaundu zue zirela aparezitu zekizkionak berak: bataiatu ze, ta gelditu ze garbi gorputz ta ariman. Fabrikatu zue anitz tenplo, prinzipalki S. Pedrori bat andi goia, bere Majestadeak trabajatus zimenduan, utzirik manto erreala, atras bere soñean amabi esportalur &

## Garagarzaroaren 30.an S. Paulo Apostolua

Eskojitu zuenak S. Pedro Apostoluen Prinzipe, eskojitu zue S. Pablo ere laguntako, ta len zena Kristioen kontrario egin zue guzien defensore, Maestru, ta Alzindari eskojitua. Jaio ze Tarso deitzen den ziudadean: azi ze Jerusalem Moisesen lege antiguaskoan ain jakintsu ta ain zeloso, aren guardatzeko, ta guardarazteko, ezi orgatik persegitzen zitue Kristoren Diszipulo gaiek kontrario bekala. S. Esteban lenbiziko Martir glorioso arrikatu zutelarik, an zego deitzen zena orduan Saulo, gero Paulo, guardatzen arrikazaleen tresenak, *kruelago egines lagundus guziei, ezi arrikabalez bere eskus*, dionez S. Agustinek, *ezi guzien eskus arrikatzeko, guzien tresenak guardatzen zego*. Baña Sandu jeneroso gura mendekatu ze, Jesus onaren gisara, pagatus gaizkia onkiareki, zeren ezi arrien ermean iltzerakoan, belaurikaturik erran zue boza andi bateki, *Jauna, barkatu ebei, ta ez dezotela kargu egin bekatu gontas*. Eta zer dakigu, etzen izan orazio gonon efektoa Sauloren konbersionea? Bitarteo segitzen zue itsu itsua Kristioen kontra, eta dion bekala Eskrituran, Act 9. Oraño errespiratzen meatxu ta eriotze, atra zitue despatxuak, joateko Damaskora, ta preso eramateko aurkitzen zituenak Kristio, gizonkiak ta emastekiak. Eta Damaskora urbil zelarik, bat batean inguratu zue Zerutik argi batek; eta eroririk lurtean aditu zue oiubat erranen ziola, *Saulo Saulo, zergatik persegitzen nauzu? Eztagokizu ongi ostiko tiratzea akulloaren kontra*. Arrek, *eta nor da ori, Jauna?* Errespondatu zio, *Ni naiz Jesus zuk persegitzen nauzuna... Eztagokizu ongi &* Eta lotsarriturik ikar erran zue, *Jauna, zer nai du in dezaten nik?* Eta Jaunak, *zoaz Ziudadera, ta an erranen zaizu zer in bear duzun*. Bere akonpañazaleak zeude pasmaturik, aditzen bai boza, baña nior ez ikusten. Jaiki ze lurretik Saulo, ta begiak idirikik etzue deus ikusten: ta eskuetaik arturik sartu zute Damaskon: ta an egon ze irur egunes bistarik gabe, ta jan ta edan gabe. Bitarteo Jaun onak abisatu zue Ananias deitzen zen Diszipulo bat, joateko Sauloren billa alako etxean. O Jaun ona, guzia egiten du bekatarien fabore ere, nola bear balitu! Joan ze Ananias, ta paraturik eskuak gañean erran zio, biali nau Jesus Jaunak, ikusi dezazun, ta bete zaizen Espiritu Sanduas. Bereala ikusi zue, ta bataiatu ze, ta sustentu arturik predikatzen zue batzarre ta jendetze-lekutan, *au dela Jangikoaren Semea, au dela Kristo*: eta nola lentxago izan baize kontra, iago ze arritzeko; ta garaitzen ta konfunditzen zitue: Ta berladanik nai zute il, ta ertxi zuzte portaleak, etzeien eskapa,





baña esporta batean murallatik soka bateki jautsi zute kanpora anaiak. Andik joan ze Jerusalem: prinsipioan guartzen zire S. Pedro ta gañarakoak, etxakines Jangoikoaren lana egin zuena arreaki: baña desengañaturik laster osoki, artu ta besarkatu zute anaia guapoa bekala, ta Jangoikoak emana.

Deskinitas lengo uts egina, zenbat trabajatu ta padezitu zuen! nola-ko ferbore, koraje, ta anheloreki! zenbat lekutan ibili zen! zenbat arima irabazi zuen! zemat honratu, ta gloriastatu zuen bere Jesus, len persegitu, ta orai doble ta erredoble maitatzen zuena, non da mirik explika dezake-nik? zer espiritua! zer entendamentuaren argia! zer mintzaera ura! zer indarra mian ere, konfunditzeko, ta kastigatzeko, gaixtoak! Pafon ze sor-gin ta Profeta falsu bat, Bariesu deitua, estorbatzen ziona Jaun bati erre-zibitza fedea, S. Pablok erakusten ziona: itzulirik arren-gana, ta beiratus asarre ta sebero Sanduak erran zio, o Deabruaren humea, gaixtakeria ta tranpas betea, on guziaren etsaia, noiz arteo bear duk paratu estorbu, segitzeko Jaunaren zuzen-bidea? Bada orra orgatik Jaunaren eskua ire gain, ta izanen naiz itsu denbora zati batez, ezin ikusis iruzkia. Bereala gel-diturik itsu zebila eskus astatzen ibiltzeko. Eta Kaballero gura konbertitu ze, ta bataiatu deitzen zena Serjio Paulo, eta andik diote izan zela aldatzea Apostoluak izena, deitzen zena Saulo deitza Paulo. Gizon guzia ere alda-tu ze, iganik irugarren Zerura, ta paraisora, dela gorputzareki, dela gabe, etxakin berak, Jangoikoak daki nola, dion bekala berak. Kristoren kontra izana egin ze Kristoren amante apasionatua, ta ongi unitua guzis, baizio, *Bizi naiz ni, ez ia ni, baizik enebaitan bizi da Kristo. Enetako bizitza da Kristo, ta iltzea gananzia. Nai duzie agian nitan mintzatzen den Kristoren progu? Nik gor-putzean ere daramazkit ene Jaun Jesu Kristoren markak. Nork apartarazi ni Jan-goikoaren karidade Kristorenbaitan dutenetik? Agian trabajuak, edo angustiak, edo goseak, edo gabeak, edo pelgroak, edo ezpatak? Zierto nago ezi ez eriotzeak, ez biziak, ez Aingiruek, ez Potestadeek, ez oraiko, ta ez geroko gauzek, ez gorak, ez berak, ta deusek ere eznauela apartaraziko Jangoikoaren karidade dutenetik Jesu Kristo baitan. Arimo andi garreki, noiz bearren, kontatzen zitue Jangoiko-aren grazia ta dono erre-zibitu zituenak, baitare milagro, lan, eta gauza on obratu zituenak: ez nie bakarrik, dio, baizik Jangoikoaren graziak eneki. Ezga-ra gauza, dio, izateko pensamentu on bat geurenganik: gure gauza izatea da Jangi-koaganik. Niork ez dezake erran Jesus, ez ada Jangoikoaren graziak. Humiltasun sendoa zeuka frinkaturik ta asentaturik biotzaren barren barrenean, ez airatzeko gogoa, naiz iganik bera Jangoikoak izarretan gora. Ni naiz, zio, Apostoluen txipiena, indigno dei nazaten ere Apostolu, zeren persegitu baitut Jan-goikoaren Eliza. Jesu Kristo etorri ze mundu gontara salbatzera bekatariaik zeñetaik*

*len lena ni naiz. Ene baitan agertutu bere miserikordiaren ondasunak izan dezaten konfianza andia dutenek fede Kristioa.*

Santidadearen progurik obenak, ta Jangoikoai plazer iago ematen diotenak dire bida, baitare *arimen irabaztea*, ta anitz *trabaju pasatzea* Jangoi-koaren amores. Arimen zego gose, ta egarri zuena eztaike pondera; *egia diot*, zio. Rom. 9. *eztiot gezurra, testigo nere kon zientzia Espiritu Sanduareki, dutela nik tristura andia, ta pena kontinoa neure biotzean; nai nue izan nola exko-mekatua neurau Kristoganik ene anaien onagatik. Antsia dut zuetas Jangoikoaren antisias. 2 Cor. 11. Nor heritzen da, ni heritu gabe? Nor eskandalizatzen ni gabe? Testigo dut Jangoikoa, nola deseaten zaizteten nik zuek guziok esu Kristoren entrañetan. Filip. 1. Bi afektoen ertean nago ertxiturik, dutelaik deseo iltzeko, ta Kristoreki egotea agitz obeago da; baña zuen onagatik mantenitzea emen prezisa. Colos. 2. Bada trabaju pasatu zituenak, karzela, prisione, azote, golpe, ta eriozko pelgroak, nork kontatzen? Koraje, anhelu, ta antisia gura padezitzeko, nork pondera? Pasatu ondoan asko, zego joan naiak Jerusalem, non zuen kontrarioa franko. Profeta Agabok ikasi zue Jangoikoaren argis pasatuko zuena an: eta arturik S. Pauloren gerrikoa eskuetan lotzen ze bera arreaki esku oñetan, ziola, *onen jabea ala lotuko dutela Jerusalemen*. Ori entendaturik ango Kristio ta Diszipulo guziak zegozkio errogatzen etzeiela joan, ta porfia negar ta negarrez. S. Paulok tieso firme animoso, *zer ai zarate ala negarres allijitzen nere biotza? Ni ez solamente preso Jesu Kristogatik izan, baitare nai dut il gogotik ere*. Joan ze bada Jerusalem: an arrapatu, arrastatu, ta gol-patu zute beren etsaiak andiena bekala, zeren predikatzen zuen Jesu Kris-to Jangoiko, an gurzifikatu zutena: eta akabatuko zute, baldin ezipaziotu kendu eskuetaik soldadoen buruzagi batek, ta eraman karzelerera. Denbo-rra luzean egon ze preso: Juez baten ta berze baten alzinean presentaturik defendatu ze ausarki, ta klaro eder kulpa gabe: ta nai zutelaik erman berze leku batera, Judu gaixtofikatuen malizias, bidean ilarazi naies, apelatu zue Enperadoreagana. Orgatik eraman zute Romara: ta joan ze Apostolua itsasos ta leorres bide luze bat, eraikis guzia milagros. Ellegaturik Roman, bi urtes an ere iduki zute preso: baña gero ere libratu zue gure Jaunak. Gero ibili ze zorzi urtes erreinu erreinu, ta ziudades ziadade pregonatzen Kristoren Ebanjelioa. Espanan ere egon zela, diote, ta Señora batek Xan-tipe deituak leitu zuela Sanduaren kopetan eskribiturik urresko letraeki, Paulo Kristoren Predikari: baita berak zionaren konforme, *eznue uste bane-kiela nik deus zuen ertean, baizik Jesu Kristo, ta au gurzifikaturik*. Eta ala leku guzietan erakusten zue Jesu Kristo gurutzean, nola argia bere kandelero-an. Baña mias baño obeki bizimoduas ta sufrimentuas erakusten zue sufritus anitz beraren amorez.*



Itzulirik Romara, zergatik predikatzen zuen S. Pedrokei bateo fede Kristioa, ta konforme bizimodu garbi honestoa, konbertiturik zenbait emasteki tratu gaixtoa zutenak Enperadore Neron garreki, ta orgatik itzuli nai etzutenak, Neronek inarazi zitue preso bi Apostoluak, ta ilarazi andik bedratzi ilabeteen buruan. Emen da notagarri, munduan izan diren irur Predikari andienak, Jesu Kristos landara, irurak ain txusto iltzirela predikatzeagatik kastidada; irurak il zuztela luxurioso urdeek. Zein dire irur gaiek? S. Juan Bautista: S. Pedro: ta S. Pablo. Herodesek ilarazi zue S. Juan Bautista, zeren erreprehenditzen zuen onek aren tratu gaixtoa bere Goñatareki. Neronek ilarazi zitue S. Pedro ta S. Pablo, zeren aren lagun izanak konbertitu zuzten artzera fedea, ta guardatzera kastidada. Erman zuztelaik bada biak iltzera, bidean despeiturik elkarrengatik zein bere alde, berla arteo, S. Pablo zeramatelaik ia berex, aurkiturik Señora bat Plautila deitzen zena eskatu zio belo edo pañolo bat bendatzeko begiak, kostunbre zen bekala ustiziatzen zireneki, itzuliko ziola. Eman zio arrek debozio andiareki. Ellegatu baño len konbertitu zitue irur soldado bere guardiakoetaik. Ellegaturik lekura paratu ze orazioan belauriko sosegu andiareki: ondorean edatu zue animoso lepoa ezpatai: eta gauza admiragarria! Ebaki, ta etze atra odolik, baizik esne txuri txuria iduris, dion bekalala S. Juan Krisostomok. eta buru ebakiak eman zitue irur salto, nondik sortu ziren irur iturri dirautenak egun oraño. Milagro alakoeiki berze anitz konbertitu zire. Il ondoan apareziturik Sandagarri itzuli zio bere pañoloa. Izan omen ze S. Paulo txipia gorputzes, txuri kolores &. Iltze bere 68 urtean: Kristoren 69.an.

## Garillaren 6.an S. Godoleba ezkundua

Estado guzietan, naiz trabaju izanik, daikela egin sandu, da testigoa franko; matrimonioko estadoan ere bai, naiz desgraziatu izanik emengo, da S. Godoleba. Ze Sanda gau Franzian jaiola Bolonia aldean Kales deitzen denera urbil, jendaki jeneroso Kristio onetaik, ta bera gorputzes ederra, ta ederrago ariman. Bere prenda onen famagatik pretenditu zue bizi-kidetako Flandesko Kaballero batek, deitzen zenak Bertulfo. Kontent logratu zuelaik eraman zue, ta zelebratu zue boda burrunba ta festa andieki: baña laster aldatu ze guzia kontrako al era, arturik Bertulfok alako oposizioa, ezi etzezake ikusi ere begien alzinean: Bere Amak su iago ematen zio akar egines, zergatik ekarri zuen erreñus kanpokoa, zituelaik berean obeagokoak. Egun gutiren buruan utzi zue bere andrea etxean an konpon zeien; eta bera aburriturik joan ze bizitzes Amaren konpañian berze etxe batean. Godoleba gaitzetsiturik senarraganik, persegiturik Amaiarrebaganik, baña Kristoganik onetsirik, gelditu ze etxean kuidatzen gobernua pazienza, prestutasun, ta honestidade admirableareki. Baña Bertulfok egunetik egunera iago aborrezitus, beiratu gabe ez Jangoikoai, ez aikoai, ezta konsortearen onai, manatu zio bere zerbitzuko mutil bati, ertxitzeko gauza guziak, ez usteko mana zezan deus, ta eman zezola sollik ogi, ta ez berzerik. Kunplitzen zue mutilak beraren gisakoak puntualki: ta Sanda alaere ixil eta tranquil pazienza andian mantenitzen ze ogi ta gatz, ta ur solles; partitus bere ogi gartaik pobreeki, mintzatus humilki mutil moldegaitzari, ta konsolatus ta konfortatus orazioan Jangoikoareki. Aumentatzen ze aflikzioa, izateareki kontra Senarraren aideak ere, zeñek su ematen zioten iltzezala; eta naiak zego bera ere; baña andrearen aide andien beldurrez etzue iltzen. Baña gaindus ta itsutus kolera geroago ta iago, izan zue preziso Sandak, ez iltzekos, eskapatzea gauas neskato bateki oñes, ta joan ze bere sortu etxera: sentitu zute buratsoek alako tratamentua; eta Flandesko Konde ta Obispo baten medios obligatu zute Bertulfo arrazio zenera, baita bere bizikidea ongi tratatzea. Ofrezitu zue mias, ez biotzas, kontra egiteko obras. Bazue beldur goi Sandak, ta bazuke izan: baña obediente humil humila itzuli ze senarragana. Errezibitu zue onek ezin berzeas: ta bakarrik ia, ta bereenganik apart zeukalaik, tratatzen zue, ez bizikide, bai esklaba, ta etsai bekalala. Entendatu zue Godolebak, trabaju gaien bideas nai zuela Jangoikoak eraman Zerura, ta ala erraten ziote berak



andre eldu zirenei konsolatzera konpasionez, Janpikoak ematen ziola konsolazio, grazia, ta indar bear zuena. Baña Bertulfok ikusirik, naiz txurtu ogia, naiz gaindu tratamentu gaixtoak, etzela akabatzen, manatu ziote bere bi mutilei, iltzezatela ixilkias gau batez; ta berai amoltsu iduri erran zio, nai zuela ia obeki onetsi, ta onnaiez usten zitiola bi gaiek zerbitza zezoten. Bitarteo bera joan ze urrun, an esperatzeko berria, noiz iltzen zuten. Gau batez, noiz guziak zeuden lo, bi berdugo gaiek atra zute etxetik ator utsean, ta soka bateki lepotik ito zute ugaldean: gero atrarik paratu zute bere goatzean, ustez ala sinestarazi, bere kabo iltzela. Baña Jangoikoak agertu zue obratus anitz milagro Sandaren kasos, zeren ezi lurra, non il zuten, itzuli ze arri txuri ederretan; eta ura, non sartu zuten, itzuli ze ain milagroskoa, ezi sendatzen zitue heri guziak; eta Bertulfo beraren alaba bat itsu zena garbitzeareki begiak ur gartan, argitu ze. Martirio gau agitu omen ze 1070 urtean: eta Bertulfo gero konbertitu omen ze, ta bizitu ta bukatu penitenzian monasterio batean, ta bere Ama izan omen ze kausa prinzipala, tratatzeko semeak ain gaizki Ire sanda gura, zeñek orgatik etzue mendeku gaixtorik egin, agian bai logratu, konberti zeien &.

## Garillaren 12.an S. Juan Gualberto

S. Juan Gualbertok Florenziako nobleetaik segitzen zue soldadeska, bere Aitak bekala. Zue anaia bakar bat ongi onetsia, zein asarraldi batez il zio aide batek. Bereala tratatu zue mendeku artzeas, soldado bekala: eta ain txusto ortzilare sandu batez zebilalaik akonpañaturik lagunes ta armas opatu zue ilzalea leku ertxi batean, nondik etzeiken eskapa. Berze erremediorik etzuelaik, paratu ze belauriko besoak gurutzaturik, nai bazio barkatu bizia gurutze sanduaren atenzios. Jangoikoak ukiturik biotza, noble jenerosoa bekala, barkatu zio bereala, ta besarkatu zue. Au egin ta sartu ze lenbiziko tenploan, nola baize guruzearen eguna, adoratzera guruzifikatua. Adoratu zueneko erreparatuzue, nola Jaun dibinoak imajinan kurtu zion ta inklinatu burua, aprobatus bekala egin zuen nobletasuna barkatzean. Milagro goneki mogitu ze despeitzera mundua, ta zerbitzatzera sollik Jangoikoa, eta bere eskus an berean biloa ebakirik artu zue monjeen habitua; ta denbora labur birtute guzietan zerama guziei abantaila, de manera ezi il ondoan Abade angoa, bera in zute Abade. Baña naia-go zuelaik egon obedienziaren pean iago ezi Superiore berzeren, joan ze eremura S. Romualdorengana. Onek anunziatu zio errebelazios, nola bear zuen fundatu errelijione berri bat, fundatu zuena Balunbrosan. Bildurik an asko Errelijioso, bear izan zue artu zien kargua, nai etzuela bortxa. Miragarriri gobernatu zitue ongi, ta egin zitue berze ainberze soldado Jangoikoarenak bekala, egiteko gerra, ta peleatzeko espiritualkiro herejeen kontra, ta Elizako sakramentuak ta gauzak saltzen ta erosten zuztenen kontra. Orgatik pasatu baizute asko trabaju ta peligro: Bein kontrarioak sartu zire S. Salbioren konbentuan, su eman ziote Elizari, urratu zuzte fabrikak eta zeldak, Monje guziak heritu zuzte eriozko zaurieki; baña guziak bedeizioareki ta guruzearen señaile bateki paratu zitue sano ta sendo instantean Sandu gonek: eta pasatus bere Monje bat su inmenso bat barna mellarik gabe, logratu zue guzia gelditzea trankil: gero desterratzea simonia, edo gauza sagratuen salerostea Toskanatik; ta fedea itzultzea lengo estadora Italia guzian. Pobreen bizia sustentatzeko, billatzen zue nondik zuken al guzia, barkatu gabe Elizako gauzei ere: garaitzeko ta sujetatzeko gaixtoak, zerbitzatzeten ziote elementuek ere: Demonioen botatzeko, baliatzen ze guruzeas nola ezpatas. Azkenean bere trabaju ta penitentzia arrigarrien kasos estomagoa flakaturik, ta gorputza herikor



iraundu zue luze ala purgatorioan bekala, suspiratus ikusi naies Jangoikoaren aurpegia, errepetitus Dabiden itz gaiek, *ene anima egarriak dago anhelatzen Jangoiagana: Noiz Joanen naiz, ta agertuko beraren presenzian?* Eta ia iltzeko zegolarik, manatu zue paratzeko bereki obian Brebiarioa, ta eskribitzeko artan letrero gau: *Nik Juan sinesten dut ta konfesatzen dut fedea predikatu zutena Apostolu sanduek, ta konfirmatu zutena laur Konzilioetan Aita Sanduek.* Azkenean Aingiruek musika emanik irur egunes bolatu ze arima ditzoso gura 1073 urtean; adinaren 78.an. Gero ezin konta ala milagroak ikusirik, kanonizatu zue Aita Sandu Zelestino III.ak. &

## Garillaren 14.an S. Buenabentura Doktore Serafikoa

S. Buenabentura jaio ze Bañarea deitzen den errian Toskanan. Aurra zelarik egon ze iltzat; eta Amak S. Franzisko Asiskoari ofrezitu zio, sendatzen bazue, inen zuela in zeien beraren Errelijioso. Sendaturik nai izan zue kunplitu bere adinean Amaren promesa. Nobizio zelarik, asi ze mostratzen izanen zena, zebaturik orazioan azitzen zela humil, obediente, modesto, afable, ixila, ta guzis amablea. Emanik estudiantzera Teologia Parisen izan zue Maestru Alexandro de Ales famatua, erraten zuena bere Diszipulogontas Kristok errana, *Ona Israelita egaskoa, maliziarik gabekoa.* An egin ze Doktore S. Tomas Akinoreki bateo. O zer pareja! balitz alako anitz! Orgatik biak beti izan zire adiskide andiak, nola jenio ta injenio batekoak, sandu ta jakintsuak biak. Bein askotan bekala S. Tomasek joanik ikustera S. Buenabentura bere zeldan, eskatu zio mostra zezkiola libruak, nondik atratzen zituen ain gauza onak. Erakutsi zizkio zituenak an. Porfiatzen zio arrek, bazituela berze zenbait altxatuak, mostra zezkiola. Orduan Buenabenturak irrikos erman zue Oratoriora; mostratu zio Jesus guruzifikatua; ona, Tomas, au da ene libru obena, non estudiantzen duten nik. Baña libru berean estudiantzen zue Doktore Aingiruak ere. Berze bein aurkitu zue eskribitzen S. Franziskoren bizia; ta erran zue, goazen, utzagun Sandu bat berze Sandu baten trabaja daiela. Eta dirudi Jangoikoak juntatu zituela bi lunbrera gebek denbora batean, desegiteko inbidioso gaixtoen falsedadeak bien Errelijioeen kontra atra zirenak. Aita Sanduak aprobaturik ebena kondenatu zitue kontrarioen proposizio-neak, baitare Jangoikoak kastigatus ederki bat Jiraldo deitua iltzena laster perlesias ta lepras beterik.

Klemente IV.ak nai zue egin S. Buenabentura Arzobispo Eborazense Inglaterran sandu ta xakintsuaren famagatik; baña Sandu humilak errehusatu zue dignidade andi gura, bera indigno zelako atxekian, eskatus utzi zezala bizitzera S. Franziskoren pobretasunean, ta ala zerbitzatzera Eliza guziari. Utzi zue ikusirik probetxatzen zuena estado gartan: Baña bere Errelijioean in zute Ministro Jenerale, naiz gastea zen ta ogeitamabortz urtetakoa oraño: baña aisa suplitzen zue adinaren falta juizio andiak, prudenziak, sandutasunak, eta orazio kontinoan logratzen zuen



argitasunak: prinzipalki Jesus sakramentuari, ta Maria Santisimari zioten debozio espezialak. Maria zue nola Ama maitea, ta joaten zekio beti bear guzietan, nola hume humila, ta logratzen zue nai zuena. Bada Sakramentu aldarekoan zue gloria gisa bat, nola ikus balez begis an presente dagon Jesus amorosoa: Baña sobra humil izanes, etze askotan trebe erratera meza, etzela digno; ta egoten ze meza laguntzen: Belli ala zegolaik, Sazerdotearen eskuetaik saltatu ze, ta sartu zekio agoan zatitto bat bete zuena gozos, ta amores: entendarazirik bidanabar ala, naiago zuela gure Jaunak ellega zeien humil, ezi utzi humiltasunes. Sandu gonon denboran paratu ze Korpus Kristiren festa Elizan: eta gero bildurik Konzilio jenerale bat Franziaiko Leonen, obligatu zue Aita Sanduak Gregorio X.ak, asistitzera artan, eta ortako egin zue lenik Obispo Albanense ta Kardenale: Konzilio gartan zegolaik anitz trabajutzen eta probetxatzen, Jangoikoak nai izan zue deitu ere gana; eta iltze an 1274 urtean, adinaren 53.an. Honratu zue Jangoikoak anitz milagros: eta Xisto IV.ak kanonizatu zue 1482 urtean: ta Xisto V.ak zelebrarazi, Elizako berze Doktoreak bekala: ezi dion bekala Gerson Benerableak, da S. Buenabentura Kerubin bat jakintasunes, ta Serafin bat karidades; eta dion bekala kanonizatu zuenak, Doktore Serafin gonek bateo erakusten ta mogitzen du leitzen duena, argitus entendamentua, ta amoresko sus berotus biotza, iduri baitu Espiritu Sandua mintzatzan dela onen agos &.

## Garillaren 22.an S. Maria Magdalena

S. Maria Magdalena penitenziaren hispillu, ta Kristoren Diszipula jenerosa, konstante, animosa, Kristoren oñetan asi zena, ta gurutzearen oñean gero mantenitu zena, ta beti bein ezaundu zuen Kristoren amorean, izan ze S. Lazaroren arreba, ta S. Martaren aizpa, buratso abratsen humeak guziok; eta partiturik haziendak, ta arri sortaturik kastelu deitzen zena Magdalo, ordik deitu omen zute Magdalena. Onen bizia prinzipalki atra bear da Ebanjeliotik, non len lenik asten da aipatzen beraren konbersionea, Luc. 7. Konbidatu zuela Jesus Fariseo batek bazkaris, ta jarriondoan maian, ara non eldu den emasteki bat ziudadean zena bekatari. Nolokoa zen, dago opinioneetan: ezta dudarik, izateareki gastea abrats librea, zela bentzait bana, mundukoia, dibertitua, errateko ematen zuena, ta nola ardi zabarra: baña txistu bat biotzera egiteareki Artzai dibinoak, oartu ze, baratu ze, beiratu ze, galtzera zoeiela, ta bere entendamentu onareki ta Zeruko argiareki bateo ezaundurik ongi egietafedea, asi ze penatzen malogratuas denbora, ta ofendituas Jangoiko ona: Ah! zer egin dut? nola nindeiken izan, ta nola nai zen! Ah nere itsua! Jangoiko ona ofenditu, ta neurau galdurik gelditu! Zer inen dut? noaie erremedio billa: Eta erreparatu gabe garaiean, bazkal-ordua baize, ezta maieko jendeetan ere, aditu zueneko zegola Jesus ona etxe gartan, sartu ze, ta atzeko aldetik ellegaturik Kristoren oñetara, negar eta negar asi ze erregatzen oiñ sandu gaiek negarres, eta bere buruko biloei txukatzen, eta apatzen, eta ungen-du prezioso bateki unjitzen. Jaun ona zego ixil geldi beira, nola kuratzen zen kontrizioas arima gura, nola garbitzen zen negar gaieki perla loiestatu zena munduko bideetan. Fariseoa berriz zego an bere gogoaren barnean mar mar mar, au balitz Profeta, balezake xakin, nor ta nolokoa den emasteki goi, baita bekatari. Jaun dibinoak ikusi zio biotza, ta erran zio, Simon, gauza bat erran bear dizut. Arrek, erran bez. Orduan dio, bida zeude bati zorrean: batak zor zio borz eun; berzeak berrogeitamar: etzute laik nondik pagatu ez batak, eta ez berzeak, bie barkatu ziote: zeñek izain du maiteago? Arrek, Jauna, uste dut, ezi ark, nori iago barkatu dion. Jaunak, ongi diozu: Eta itzulis emastekiaren alde, erraten dio gizonai, ikusten duzu emasteki gau? Sartu naiz zure etxean: eztidazu eman urik oñetako: baña onek erregatutida negarres, ta igortzi biloes: eznauzu apatu zuk: baña au sartu denas geros dago apatzen ene oñak. Eztidazu olios





egin burua: baña onek ungendus untatutu nere oñok. Orgatik erraten dizut, barkatzen zaizkio anitz bekatu, zergatik amatu duen anitz: ezi nori guti barkatzen zaion, guti amatzen du. Eta emastekiai erraten dio, *barkatuak dire zure bekatuak*. Berla an zirenak asi zire pensatzen beren baitan, ta erraten, *nor da au, barkatzen baititu bekatuak ere?* Jaunak, ikusten zitue aien pensamentuak, baña etziote itzik erran, baizik emastekiari bai, *zeure fedekaliatu dizu: zoaz bakean*. Auxe da S. Maria Magdalena. Pensa emen, zenbat onago den Jesus ona, ta bere ariora edozein bere Ministro ona, zenbat onago den bekatariendako, ezi bekatariak berak! Joan baze Fariseo garrengana Magdalena, futoska arrek botako zue, goaie ordik, eztun zer urbildu enegana. Eta ura ze bekatari, iago edo gutiago, baña bekatari. Jesus etze bekatari batere: beragana doaie bekataria, ta beira zein ongi artzen, zein ongi uzten, zein ongi tratatzen, ta despeitzen duen! Pensa emen, Magdalenaren biotza, on guzioi progatzean, nola zoeien konsolatus, nola itxekis Jaunaren amorean, nola zenbatenas onago ikusten zuen, iago pena zuen ofendituas. Pensa emen, seguratu zuelaik barkazioa, zein agradezitua! ta despeitu zuelaik bakean, zein determinatua joan zen, ez ofenditzeko sekulan! Zein arras aldaturik biotza, afizioneak, ta pensamentuak! Aurki lezakenak galde, lenekoa den: erresponda, ezta lenekoa. Biz alako penitenzia, eta ni fiadore, barkatua dela bekataria dena dela.

Ia andik alzina Sanda gau etze mundukoa, naiz zegon munduan: Bere afekto, pensamentu, ta estudio guziak zire, nola zerbitzatu Jaun dibinoai. Berze andre on batzueki segitzen zue asko lekutara; sustentatzen zitue bera ta beraren Apostoluak al zuen guziareki: Aditzen zitue beraren itzak, Jangoikoarenak bekalat; eta barin baze okasiorik, etze deskuidatzen paratzeas beraren oñetan, non joan zekion ain ongi lenbiziko aldian, Luc. 10. Bere aizpa Martak errezibitu zue bere etxean Jesus dibinoa. Ezego deskuidaturik Maria, baizik ere jarririk Jaunaren oñetan zego aditzen itz salbazioskoa. Marta berriz okupaturik prestatzen gauzak: Joan zekio au kejtazera, Jauna, ikusten du nola utzi nauen ere aizpa gorrek ni bakarrik zerbitzaten. Erran bezo, lagun dezadala. Jaunak erraten dio, o Marta Marta, afanaturik zabiltza anitz gauzatan. Zierto bat sollik da bear dena. Mariak eskojitu du parterik obena, zein etzaion kenduko. Baña lanzerik obena izan ze, noiz heri gelditurik beren anaia Lazaro, zegolaik urruti Jaun dibinoa: Bi aizpek bial ziote erratera, nola zegon heri Lazaro, itz gebeki, *Jauna, orrek maite duena dago heri*. Erran zue Jaun dibinoak, *heritasun gau ezta eriotzeko, baizik Jangoikoaren gloriatako*. Egon ze geldi bi egunes zegon lekuan: bitarteo iltze Lazaro. Ondorean erran ziote Diszipuloei, *gure adiskidea Lazaro dago lo: banoaie idatzartzera*. Aiek erran ziote, lo

badago, ezta gaizki: atrako da. Baña Jaunak zerduka erioaren loas. Orduan erran zue klaro, *il da Lazaro, ta alegatzen naiz zuengatik, sinetsi dezazen, ezpainego an: baña goazen*. Ellegatu zelarik, anitz zego an konsolatzera joanik: Martak aitu orduko atrarik bidera erran zio, *Jauna, on egon baze emen, ene anaia etze ilen*. Jaunak, *biztuko da zure anaia*.

Martak, *badakit biztuko dela azken juizioko egunean*. Jaun dibinoak, *Ni naiz erresurrekzioa ta bizitza. Sinesten duena enebaitan, naiz il daien, biziko da &. Sinesten duzu au?* Martak, *bai Jauna, sinesten dut, berori baita Kristo Jangoiko biziaren semea, mundu gontara etorri dena*. Erran ta deitu zue bere aizpa Maria, etxe barnean zegona, Maestraua etorri da ta deitzen zaitu zu. Istante jaiki ta joanik urtiki zekio oñetan, ziola, *o Jauna, on egon baze emen, ene anaia etze ilen*. Jaun dibinoak ikusirik ura ta guziak negarres, lastimatu ze, ta dio, *non paratu duze?* Erraten diote, betor, ikusi bez. Joanik monumentura dio, ken zaze gañeko ar-lauza. Martak, *o Jauna, ia laur egun ilik, urrintzen asi da*. Jaunak, *eztizut erran, sinesten baduzu, ikusko duzula Jangoikoaren gloria?* Azkenik oi u andi bat egin zio, *Lazaro, atoz kanpora*. Bereala atra ze ila bizirik bere mortaxareki, ta lazarazi zue &. Beira zein kuadrable bide diren Jangoikoaren begietan ala Marta, nola Magdalena, zeñen atenzios biztu zuen alako ila!

Pasiora sei egun zegola, prestatu ziote afaria Betanian; Martak zerbitzaten zio, ta Mariak unjitu zizkio oñak ungendu prezioso bateki, zeñen fragranzias etxe guzia bete ze. Joan. 12. eta maiean zeudenetaik bat ze Lazaro. Judas traidoreak murmuratzen zue gaizki enpleatuas ungendu prezioso gura, zeikela sal irur eun dirutan, emateko pobreei. Etzio au pobreen amores, baizik berak sisatu naiez. Jaun dibinoak laudatu zue ongi egina, zela señale ortzitzeko bere gorputza; eta nonnai predika zeien Ebanjelioa munduan, erranen zela ark egina beraren memoriatan; kunplitzen baita. Baña noiz obekienik progatu zen S. Maria Magdalenaren fin-tasuna, izan ze Jaun dibinoaren pasioan, ta ondorean, akonpañatus Ama Santisima pausu guzietan, egones berareki firme gurutzearen aldean, guruzifikatu zutelarik, an ikusten, eta lamentatzen alako tragedia indignoa, soldado ta berdugoan eritean, ajolarik etzuela bere pasatzen zuenas, zeren Jesusen pena andiek enbargatu zioten biotz guzia. Pensa jositzerakoan itzees golpeka guruzean; goratzerakoan gurutzeariki gorputz dibinoa; agonizatzerakoan; itz bakan gaiek aditzerakoan; ta suspiroak, aiotsak, atsankak; nolako pena biotz amante garrena! Akabatzen bada, ta, akabaturik beiratzen zuelaik Jaun onegia: ta gero gurutzetik jautsirik doloresko Amaren besotan adoratzen zuelaik, ta apatzen oñak, eskuak, llagak, erregatus, nola len, orai ere negarres, pensa zer martirioa! Ortzi ondoan gor-



putz dibinoa, zein soil, zein ilun, zein desanparaturik becala, gelditu zen, nola kendurik iruzkia mundutik gau ilun ilunean! Urbilen larunbatean ezin atzendus bere ongiegille dibinoa, berzerik ezin egin ta egon ze presatzen balsamo ta aromak, unjitzeko berriro gorputz ila: Eta igande goiz goizean argitu gabe atra ze, joateko prisaka, eta guzia ze pensatzea bidean, nola kenduko zuten gañeko ar-lauza: ellegatu zelarik aurkitu zue iraulirik arria, baña etzego an gorputzik. Itzuli prisaka, ta kontatu ziote S. Pedrori ta S. Juani: ebek joan zire lasterka, ta ikusirik mortaxa ta oialak an, ta gorputzik ez, itzuli zire pensatzen beren baitan: Baña Maria Magdalena geldi beti an, noizean noiz beiratus obiara: alako batez ikusi zitue bi Aingiru erran ziotenak, zergatik zaude negarres? *Zergatik kendu baitute ene Jauna, dio, ta ezpaitakit non paratu duten.* ek biztu dela, erran zuen becala lendanik; ere segi leku gartan: itzulirik atzerat ikusi zue Jesus txutirik, ezaundu gabe: Galdegin zio Jaun dibinoak, *zergatik zaude negarres? Zer billatzen duzu?* Magdalenak ustez zen baratzezaia, erraten dio, *Jauna, orrek kendu badu, erran bezada non paratu duen; eta nik ermako dut.* O amorearen itsua! Jaun dibinoak orduan erran zio, *Maria.* Ezaundurik errespondatu zio, *o Maestru Jauna:* ta zoeie apatzera oñak. *Zaude,* erran zio Jaun dibinoak, *ezi orañ ez naiz igan ene Aitagana: baña zoaz, ta erran zozute ene anaiei, igaten naiz ene Aitagana ta zuen Aitagana; ene Jangoikoagana, ta zuen Jangoikoagana.* Joan ze kontentus zoraturik becala erranes Diszipuloei, *ikusi dut Jauna, ta au ta au erran dida.* Orduko ia dudarik gabe ikusi bidezue Ama Santisimak: baña gañarakoe-taik Maria Magdalena izan ze lenbizikoa ikusi zuena, Ebanjelioan dionez. Ikusi bidezue gero ere iagotan, Zerura igan baño len; ta azkenik Zerura igatean; ta errezi bitu zue beraren bedeizio betirokoa.

Igan ondoan Jesu Kristo Zerura, Maria Magdalena enpleatu ze akonpañatzen Maria Santisima, errepatatzen Kristoren pasioko memoriak, zerbitzatzen Apostoluei, ta federa ekartzen al zuzken guziak Jerusalem; alik eta S. Esteban lenbiziko Martir gloriosoa arrikatu zuten arteo, persegiturik Kristio guziak, S. Maria Magdalena ere, ta S. Marta, S. Lazaro anaia, Marzela beren neskatoa, S. Maximino iruetan ogeitamabi Diszipuloetaik bat, ta berze anitz paraturik itsasonzi batean, belarik ta remorik gabe utzi zuzten itsasandian, onda zeizen an: baña Jangoikoaren milagros onzia ellegatu ze ta guziak salbo Franziko Marsellara; ta beren itz sandu, birtute, ta milagroeki konbertitu zuzte ango jendeak; eta Lazaro gelditurik Marsellako Obispo, Marta erretiraturik leku batean anitz donzella, ta andre oneki, Maria Magdalena igan ze oian gora batera, non kubila andi batean altxaturik bizitu ze sustentatus belarres, zañes, ta Jangoikoaren probidenzias, gau ta egun orazioan, ogei ta amar urtes Aingeruen bizi gisa

bat, egunoro denbora gortan igaten zutela Aingeruek Zerura zazpi aldiz aditzera Zerukoan laudarioak ta musikak. Azkenean bialirik erratera S. Maximinori, espera zezala urbilen igandean Elizan, ta bakarrik, jautsi ze Sanda, ta Obispo garren eskutik errezi bitu zue Komekadura Sagratua, miragarrisko debozio ta negar gozoeki: eta andik guti entregatu ze bere espiritua bere Jaun ain amante, ta ain amatuaren eskuetan. Gorputza honratu zute depositatus leku gartan, ta honratzen dute denbora guzietan. Milagroeki ere honratu du Jesu Kristo bere penitente noble au len ta gero. Bat izan ze egin zuena Karlos II. konte Probenzakoareki, non Sandak konbertitu zuen anitz jende bere denboran. Konde gura bada zeuka-te preso Barzelonan ongi guardaturik ertxi eder, ta biziaren kentzeko peli-groan. Oroiturik bere presondegian, nola S. Maria Magdalenak egin zuen anitz ongi bere lekuetan, enkomendatu ze gogotik Sandari eskatus libra zezan; ortako barutu ze, konfesatu ze, ta negarra franko ixuri zue. Sanda bere jaiaren bezperan gauas agertu zekio itxura agitz eder grabean, ta mintzatus bere izenas erran zio klaro, beraren orazioak adituak izan zire-la, ta progutako segi zezola: gero deklaratu zio zela Maria Magdalena, nori enkomendatu zen: eta guti bat ibili ondoan galdegin zio ia bazekien non zegoen. Ark zio orañ uste zuela Barzelonako muralen barnean zegola: engañatzen da, erran zio Sandak, ezi ia dago bere lekuan urbil Narbonara: non sartu ze berla goizean; ta agradezimentutan inarazi zue monasterio bat ederra S. Domingoko Erreljiosoan, non dauden Sandaren erreli-kiak: eta despeitu zuen leku gartan gurutze bat. &



## Garillaren 25.an San Tiago Apostolua Españako Patronoa

San Tiago, andiena deitua, distingitzeko berze Santiagoganik, S. Juan ebanjelariaren anaia zarrena, izan ze Galileatarra, Jesu Kristoren aide, ta Apostolu estimatua, Jangoikoaren grazias Españako Patrono andia. Zeudelaik bi anaiak arranzuko sareak konpontzen beren Aitareki, deitu zitue Jesu Kristok beregana; eta Aita utzirik sareeki bereala segitu zute Jaun dibinoa. Eta aldatu zitiote edo añaditu izen gañekoak Boanerges, nai baitu erran, Ortotsaren humeak. Ebek S. Pedroreki artu zitue berex, agertu zuelaik bere gloria Taborko oianean; bizarazi zuelaik Prinzipe garren alaba iltzena; eta baratzean oraziora apartatu zelaik pasio-alzinean. Baña erreprehenditu ere zitue biak bein amoltsuki. Luc 9. Joan zire Diszipulo batzuk Samariako ziudadera, prebenitzeko sustentua; eta jende gaiek etzuzte errezibitu. Orgatik zelos beterik biak, ortotsaren humeak propioiki, *autsi daiela su Zerutik erautsteko aiek? Zauzte*, erran zue Jaun onegiak, *etzakize espirtu segitzen duzena. Birjinaren Semea ezta etorri galtzera arimak, bazik salbatzera*. Alaber bi anaia gebek beren Amareki bein Dresentatuze-kizkio Jesus onari; eta Amak humeen amorez erran zio, Jauna, mana bez jarri daitzen ene bi seme gebek orren erreinuan berorren bi aldetatik, bata eskuietik, berzea ezkerretik. Jaun onak errespondatu ziote, *etzakizie zer eskatzen duzien. Dezakeze pasa tragva nik pasatu beautena?* Aiek erran zute, *Dezakegu*. Jaunak orduan, *bada pasatuko duze flik pasatuko dutena; baña jarritzea ene eskuieko ta ezkerreko aldetaik da norendako disponitu duen nere Aitak*, au da, Jangoikoak. Biek asistitu zute azken afarian, ta ikusi zute erresuzitatu ondoan Jaun dibinoa, ta errezibitu zute berrogeitamargarren egunean Espiritu Sandua.

Guziau atra da Ebanjeliotik; gañarakoa Autore grabeetaik atra bear da. Santiago, pasaturik denbora-zati bat Jerusalem, Samarian, ta alde gaietan, pasatu ze Españara: Emen trabajatu zue zenbait urtes predikatzen Ebanjelioa, ta konbertitzen fede Kristiora Jangoikoas zeudenak: eta Zaragozan gau batez zegolaik bere Diszipuloeki orazioan Ebro ugaldearen basterrean, Maria Santisima, bere izeba, bizi zena oraño Jerusalem etorri zekio, airean Aingiruek ekarririk, bisitatzera ta konsolatzera bere presentzia ta itz sandueki: eta urtiki ze lurrean Apostolua gozos beterik ado-

ratzeko bere Jangoikoaren Ama; zeñek erran omen zio amoltsu, *ona leku gontan berean inen didazu Eliza bat nere izenean, baitakit España-alde gau izanen dela ene deboto, eta nik oraidanik artzen dut nere anparoan*. Utzi zio an pilare bat nabarris edo jaspes, ta gañean bere imajina bat. Egin zue S. Tiagok tenploa, nola zuken, txipia orduan, baña gero aumentatu, ta adornatu dena, ta guziek arrazioreki beneratzen dutena, nola Maria Santisimaren lenbiziko tenploa, edo lenbizikoetaik. Denborain buruan itzuli ze S. Tiago Jerusalem, non predikatzen zuelaik Jesu Kristo koraje andiareki, Juduen iras ta odios arrapaturik preso kondenatu zue eriotzera Herodes Agripak. Era-man zuenak preso ikusirik ain animoso alegre Sandua joaten iltzera, ezaundurik zela on Jangoikoaren gauza, konbertiturik ta kristiaturik eman ze bera ere preso, ta zemazkitelaik iltzeko, ark eskatu zio barkazio, ta Sanduak amoroso besarkatu zue ziola, bakea biz zureki: lentsxago sendatu zue perlesiatu bat. Bereala ebaki ziote burua ezpatas, an bazkoaren inguruan, naiz zelebrazten den garillan, noiz aldatu zen gorputz sandua. Da Santiagoren gloria glorioso, amabi Apostoluetaik izan baize len lenbizikoa pasatu zuena trago gura Jesu Kristok brindatu ziona, ta firmatu zuena bere odolareki fede Kristioa. Bere gorputz sandua bere Diszipuloek arturirik gero ekarri zute Españara Jangoikoaren probidenzias pasatus ainberze itsaso; ta depositaturik Konpostelan, zein deitzen den orgatik San Tiago, nora joanik mundu guzitik peregrinazioan honratzen du Kristiojende guziak, prinzipalkiro Españakoak, zor baitio anitz abore andi milagroskoak eginak bear orduetan, espezialki Moroen kontra, ikusi delaik ez solamente bein, bai anitz aldiz armaturik bekala bere zaldi gañean Kapitan jenerale bekala Españolen lenean, urratzen, ta desegiten Moroen tropak.

Guzien ermean da kontatzeko Riojan Klabbijo deitzen den oian-aldean egin zigun faborea Errege D. Ramiroren denboran, zeñen alzineko Erregeak D. Alonso asi baize ukatzen Moroei trebutu infame bat pagarazten ziotena len, baize presentatzea urteoro eun donzella. (Eta onen denboran agitu ze agertzea milagrosoki Santiagoren gorputza, zazpi eun urtes altxaturik egon zena, mostratus Zeruak Aingiruen ta argi miragarrien medios, non ze on tesoro andi gura, 800 urtearen inguruan). Errege izan batek zorzi edo amar urte lenago Alfonso baño, deitzen zenak Mauregato, agian zeren Mora zuen Ama, logratu zue utzi zezaten geldi, obligazio in zuenareki, emateko urteoro petxa gisa eun donzella. Sartu ze Errege D. Alonso Kasto deitua 791 urtean: eta ez solamente etzue nai izan du pagatu petxa infame gura, baizik ere bi aldiz il zitiote iago ezi eun milla Moro: Aren ondorean sartu ze D. Ramiro I.a Errege Leongo. Abderraman Cor-doban Moroen Errege ia poderoso eginak manatzen zio suberki presen-



ta zezkiola eun donzellak. Arritu ze Ramiro alako enbajadareki; eta erre-solbiturik sufritzera lenago eriotzea, ezi alako deshonrea ta infamia, pres-tatu ze emateko gerra; zeintara segitu zuten anitz Obispoek ta Sazerdo-teek. Abderraman superbe bere indarreki, ta suturik trebutua ukatzeare-ki, jende infinizio bat bildurik, atra ze Kristioen kontra. Riojan Albelda deitzen den erriaren aldean eman ze batalla iraundu zuena egunaren geie-nean, etzela ezaun nioren alde abantalla: alik eta arratsalde apalean ia ezauntzen asirik Moroen alde, Ramirok erretiratu zitue bere tropa neka-tuak, eta gutituak balienteenen iltzeareki aldapa batera, deitzen baita Kla-bijio. An gau gartan nola azken extremoan guzia ze klamatzea Zerura otoi eta otoi. Erre la, lotan agertu zekio S. Tiago, erraten ziola, ni naiz España-ko Patrono, ez lotsa: biar asistituko dizet, eta eneki bateo logratuko duze biktoria. Idatzarri ze alegre, ta animaturik guziak bisione garreki paratu zitue orden onean joateko Moroen kontra inbokatus Santiago, zein berea-la alzinean ikusi zute zaldi txuri eder batean, bandera bateki ta ezpata bateki sua zeriola, lurreratzen Moroak, itxikatzen, urratzen, segitzen zio-tela atzetik españolek, ta egiten nai zutena Moroes, zeñetaik gelditu zire ilik iruogei ta amar milla, gañarakoak barraturik; eta trebutu infame gura sekulakos kendurik. Eta biktoria gau zelebratzen du arrazioreki España-ko Elizak Santiagoren aparizioaren nonbrean Maiatzaren 23. An gelditu ze inbokatzea Santiago españolek batallaen asterakoan; eta progatu dute Sanduaren patrozinoa patente askotan, erremedio humanorik niondik etzenezan: berze askotan ezparin bada logratu, da zeren etzen konbeni, edo etzen mereji, ezi askotan bekatuak gaintzen dire sopra ta ainberze, ezi estorbatzen dute Sanduen patrozinoa. &. &. &.

## **Garillaren 31.an** **S. Ignazio Loiola,** **Jesusen Konpañiako**

Jairo ze S. Ignazio Loiolako Jaunenganik Gipuzkoan: azi ze Errege Katolikoaren Kortean; eta berez baliente izaereki eman ze soldadeskara. Zegolaik Kapitan bekala defendatzen soldado gutieki Iruñeko Kastelu lengoa, sopra arriskatus, zango bata autxi ziote kañon-bala bateki, ta ber-zea maltratatu arri saltatu zenareki: baña Franzesek arrapaturik Kastelua, utzi zute bera joatera kura zeien bere errian. Sufritu zitue kurazioko oña-zeak koraje andiareki, naiz esperanza guti zen sendatuko zela. Ze S. Pedro Apostoluaren deboto andia, ta armaen ertean lenago konpondu zitio koplak laudatus Apostoluaren koraje gura jokatzear ezpatareki, preso in zutelaik Kristo gure Jauna. Eta orai enkomendatzen ze bere Majestadeai Sanduaren medios, nai bazio eman osasuna. S. Pedro bere jai-bezperan aparezitu zekio, ta bisita goneki asi ze oberatzen. Konbaleszenzian dibe-ritzeko eskatu zue Kaballeroen libruren bat; ta berzerik ez aurkiturik eskunara, ekarri ziote Kristoren ta Sanduen bizien librua, zein leitus itxe-ki ze deboziosko suan imitatu naies: ta proponitu zue prinzipiotako joa-tea Jerusalem bisitatzea leku sandu gaiek, ta erreparatzera pasioko pau-suak Kristok an pasatu zituenak. Gau batez jaiki zelaik bere oraziora, sen-titu ze arroitlu lotsagarri bat etxean, nola guzia eror baledi lurrerat, ala adiarazis Demonioak zuen pena aren konbersioeas, adibinatzen zuen bekala gerra inen ziona gero. Beldur ze aragiaren inklinazioas, nola ain aisa baita konsentitza gogorazio gaixtoren batean: enkomendatzen ze Ama Birjinai: eta Ama dibina agertu zekio bere aur dibinoareki besotan ekartzen ziola kastidadearen donoa, de manera ezi gerostik libre bizitu ze bekatu-genero goietaik beti.

Konbaleziturik ia joan ze peregrino gisa Monserratera, paraturik bere armak dilindan Ama Birjinaren aldare-almazinean, eman zue prinzipio bizitza sanduaren: Eta len lenbiziko dilijenzia egin zue konfesio jenerale bat, eta pobre bati emanik bere tresena baliosoak, bestitu ze manta edo kapusai-iduri bat, pasatu zue gaua belan: prebenitu ze katees ta diszipli-nes, egiteko justiziak gorputzean. Pasatu ze Manresara, nongo Hospita-lean, ta an urbil zen kubila batean asi ta segitu zue bizimodu bat ain peni-tente arrigarria, ezi egungo egunean diraute señaile ta memoriak pasatuas



an urte batez: Penitziaren aizpa da orazioa: ontan pasatzen zue gau geiena, egunekoas landara, elebaturik bere espiritua Jangoikoan. Aldi batez egon ze elebaturik aste batez ososoa, mostratzen ziola Jaunak orduan gero fundatu bear zuen Jesusen Konpañia, ta forma nola bear zen. Ikusiarazi zio ala nola kanpo bat; non alde batetik zegon tropa andi bat, lenean Luzifer Kapitan bekalatze berze aldetik berze tropa bat, lenean Jesu Kristo; eta bi tropak elkarren kontra pelean: Andik etorri zekio desego goratzeko bere Konpañia, Jesusen soldadeska bekalatze. Bere penitentzia ta orazioaren ariora zire Jangoikoak iten zition konsolazio, erregalo gozoak biotzean, ta ariman bisione ta argitasun alakoak, ezi erraten zue gero, ezi ezpalitz ere eskritura sagratua, zegola bera prest emateko bizia fedeagatik. An, naiz letra guti izanik oraño, konpondu zue Exerzizioen libru gura, Sandu guziek laudatu, anitz bekatari sandu itzullituena, zeñen medios bereganatu zituen S. Franzisko Xabier, ta berze lagunak. Konpondu zue inspiratus Espiritu Sanduak, ta erakutsis Maria Santisimak; nola bere Majestadeak errebelatu zion bere sierba bati gero.

Andik joan ze Jerusalemgo leku sanduetara bakarrik ta pobre gisa: bidean pasatu zituen trabajuak, eta an gozatu zituen konsolazioak Jangoikoaganik, nork explika? Nailuke gelditu an erreparatzeko maiz pasioko memoria gaiek, ta konbertitzeko infiel gaiek: baña Jangoikoak berze lekutan nai zue: ta ala itzuli ze Españara estudiantzera. Asi ze gramatikaren prinzipioetaik Barzelonan, segitus estudioak an, Alcalan, ta Salamancan, bukatus Parisen; ta guzietan konbertitus anitz onera, pensatus asko ignoranteek, iten zuela arte gaixtos iten zuena arte dibinos, ta pasatus berak orgatik anitz trabaju, persekuzione ta prisione. Azkenik Parisen konbertitu zitue bedratzi estudiante obenetaik, ta obena S. Franzisko Xabier. Orgatik batek nai zue il S. Ignazio; eta ortako joanik bere ostatura ezpatareki, eskaleak igaterakoan, aditu zue Zerutik boza bat, nora goaie, desdixatua? Orreki lotsarriturik itzuli ze atzerat. Romara joatean agertu zekio Aita Eternoa bere Seme dibinoareki, zeñek erran zio, ni izanen naiz zuen fabore Roman. Da gauza notagarria, ta Jangoikoarena propioiki, ezi denbora berean, noiz infernuak goratu zituen herejeak Elizaren kontra, prebenitu baizue Jangoikoak S. Ignazio ta bere Konpañia: 1521 urtean asi ze Lutero Alemanian eraikitzen herejia; ta urte berartan konbertitu ze S. Ignazio Españan. 1534 urtean errebelatu ze Henriko VIII.a Aita Sanduaren kontra: ta urte berartan S. Ignaziok Parisen erreligionearen zimenduak paratu zitue sujetatzeko espezialki Aita Sanduari. 1540 urtean Kalbino goratu ze Ginebran madarikatua: ta urte berartan S. Ignaziok fundatu zue Roman bere Konpañia: eta Paulo III.ak Aita Sanduak lenik aprobatu zue,

ta gero laudatu ondoreko Aita Sanduek, ta Konzilio Tridentinoak. Irur boto komunen gañetik añaditu zue laugarrena, joateko misione egitera noranai bialti nai zituen Aita Sanduak. Ala bere antisia guzia ze, izan daien Jangoiko andia ezaundua, honratua, ta obeditua mundu guzian; eta bere intenzio, ta itz kontinokoa edozein lan edo gauzatan *ad majorem Dei gloriam*, Jangoikoaren gloria geiagotako.

Zelo andi goneki bere idea ze pretensio guzia ze ezaunaraztea ta onesiaraztea Jangoiko on bakar egiaskoa: prokuratzea beraren fedea ta legea: sinestea egiak, ta obratzea mandamentuak. Nola herejeek baitute galaraztea fedea, ta despreziatzea mandamentuak, kunplizeagatik bizioak ta pasioneak. Orgatik aiek odios nai zute Sandua ta bere Konpañia: baña Sanduak karidades nai zitue desengañatu aiek, ta aien segizaleak. Nork erran ortako egiten zituen dilijenziak eta lanak? Nork erran ferbore ta ansia gura, zeñeki predikatzen zuen Jangoikoaren itza, ta predikarazten? Akabatzen zituelarik doktrinak, beti despeitzen zitue itz gebeki, *Ama zaze Jangoiko Jauna zeuren biotz guziareki, arima guziareki, ta entraña guziaki: ta erraten zitue ain sua zeriola, ezi aditzaleen biotzetan itxekitzen baiziote su amoreskoa. Zelo andi goneki bialias landara asko lekutara bereak, injeniatu zue fundatzea anitz kolejio erreinuetan. Zelo goneki alzinatu ta aumentatu zue tenploen erreberenzia, ta dezenia: doktrina Kristioaren erakustea maiz, eta maiz konfesa-komekatzea. Zelo goneki inarazi zue Roman Alemanen kolejioa, azitzeko langin onak beren lekurako: ta anitz etxe, biltzeko, ta salbatzeko gaizki ezkonduak, peligroan ziren donzellak, aur amazurtz desanparatuak, ta doktrinaten zeudenak; ta berze asko piedadesko obra; beti anhelatzen nondik eta nola irabazi arimak Jangoikoaren; Orgatik galdeginik bein bere lagun bati, zein nai luken iago, eman balekio autara, edo oan bereala mundutik Zerura seguro betikos, edo gelditu emen zerbitzatzeko Jangoikoai, galtzeko peligroan? ark errespondaturik, naiago lukela joan Jangoikoagana; Sanduak zio, *bada nik ez, baizik naiago nuke segitu zerbitzatzan, naiz peligro den neure aldetik galtzeko.**

Ain bizia ta bizkorra zue fedea, iduri baizue ikusten zituela sinestazentugunak ikusi gabe: eta ala, zela etxean, zela kanpoan, zela berzeren alzinean, zela bakarrik sekretoan, guzia iten zue nola ikus balez presente Jangoikoa, ta nola berai bere Majestadea balegokio beira. Bada Jesu Kristo gizon dibino gura zenbat aldis ikusten zue, mintzatzan, eta aditzen zue, nola humeak Aita, edo bere Ministroak Errege Jauna? Aldareko sakramentuan eztaike pondera, zein erreberente tratatzen ta adoratzan zuen. Meza zelebratzen zue, nola balego Zeruan Aingirus inguratutik, bera erdian. An geienik zire bere amoresko sugarrak, negar gozosoak, desmaio





amorosoak; komunki ondorean etzeike oan bere oñes, eta bear zute eraman lagundus. Ordenaturik Sazerdote, meza ondorean bi ordus zego ematen graziak; beti gero bentzait ordu bat, naiz okupazio anitz izan zezan. Bein manaturik Aita Sanduak presenta zeuela beraren palazioan biramon goizeko seietako, ez faltatzeagatik debozio akostunbratura, asi ze prestatzen bi orontakoan; egon ze bi ordus preparazioan; ordu bat mezan; berze ordu bat ematen graziak. Orgatik pintatzen dute zenbaitek Sandu gau errebestiturik ornamenta sagratueki. Esperanza ta konfianza bere Jaunabaitan zue ain seguro, ezi erraten zue egiaz ziona Dabidek. *naiz nabilan erioaren erdian, eztut gaitzen beldurrik, berori baitago nereki. ps. 22.* Ala, zegola itsasoan, edo leorlean, edo karzelean, edo nonnai, ta nola nai, zego nola Jaunaren besotan. Admiratzen zire anitz, ta zeukate Jangoikoaren milagrotako mantenitzea ainberze lagun ain errenta gutireki; Zer milagro? zio Sanduak, milagro litzake, ori agi ezpaledi. Amorea Jangoikoagana parte ikusi dugu ainberze lan ta obra on eginetan, ikusteko dago progrurik obena, trabajuketa ainberze sufritzean, ta ain animoso ta ain alegre, ta ain prinzipiotik persegitua malamente, zergatik zen ona, ta ontzen zituen berzeak estudiantezutuan ere, Barzelonan, Alcalan, Salamancan, Sevillan, Parisen, Roman. Zegolaik preso Alcalan, guzia ze kuidatzea preso-lagunes deskuidaturik bere buruas: de manera ezi Maestru andi batek ikusi zue-nak zio, eldu naiz ikustetik S. Pablo prisioneetan. Salamancan oroat preso bisitaturik berze batek galdeiten zio ia etzuen sentitzen ala egotea malamente. Sanduak alegre erran zio, ain gaitz andia iduri zaio preso egotea? Bada nik diot, eztela Salamancan ainberze grillo, ta katea, nola nik nai nuken eraman ene Jaun esu Kristoren amores. Parisen oroat Unibersidadean, nola aldatu baizitue onera S. Franzisko Xabier ta berze franko, nola beltzetik txurira, ezpaizeike ezaun lenekoak ziren, nai ziote eman baketak, edo azoteak, eta bazoezi ortara zeudela erkadan guziak, nor bere azoteareki eskuan, eta Sandua zoeie sufritzera animoso sereno; noiz ta Erretoarek ezaundurik santidadea artu zue eskutik, eskatu zio barkazio, ta laudatu eta libratu zue. Ala bere bizia ze padezitzea: Galdeginik errelijioso batek, zein den bide seguro laburrena perfekziorako, errespondatu zio ezi padezitzea trabaju anitz ta andiak Kristoren amores; eta eska zezola Jaunari grazia goi, ezi nori iten zion, itentiola anitz grazia batean. Padezitzeareki juntatzen zue karidade fiña padeziarazten ziotenen fabore, baita grazia graziaren gañetik, garaitus gaizkiak onkieki. Parisen batek in zitio asko agrabio, ta kendu limosnak zemazkienak. Aurkitu ze gizonoi gero bides ta heri, ta anparoik gabe niondik: oroiturik Ignazios eskribitu zio billete bat: eta Sandua leitu orduko bereala amenik artu gabe, paratu ze

bidean, ta ibili ze oñes irur egunes ogeitazorzi lekoa-bide, jan ta edan gabe, ta ellegaturik besarkatu zue, ta asistitu zio, nola Ama amorosa batek, ta etzue utzi sendatu arteo. Alaxe da Jangoiko onaren espiritua: berze batek utziko zue or konpon, alegratus kontrarioaren gaitzas: on da Deabruaren espiritua. Errelijioso batek gastigatu zio, errearazi bear zituela Perpiñandik Sevillaraño ziren jesuita guziak. Sanduak errespondatu zio, bada nik nai nuke berori ta berorrenak guziak ikusierrerik Jangoikoaren amoresko suan. Humildadea zue on guzien zimendu ta guardia: oneki dijeritzen zue guzia. Lanze bat, eztuena iduri anitz, baña ure suberbiari latz zaiona kontaktatu nai dut, aita konfesatzea publikoan bere falta. Lenbiziko prediku in zuenean bere sortuerrian Azepeitian, erran zue pulpitotik, motibo bat izan dutena igateko leku gontara da emateko satisfakzio proximoaren honrari. Nik gastea nitzalaik ene gisako laguneki artugin due fruita kantidade bat berzerenetik; eta Jabeak sospetxas in zue preso berze bat etzuea kulparik. Bada jakin bez mundu guziak, ni izan nitzala gaixto gaizkiegillea. Eskatu zio pulpitotik barkazio gizonai, baizego an, eta guzien alzinean egin zio bere bi heredaje zituenen donazio. Non iten da alakorik? Noribaiti protxal barin baze, etzue erreparorik errateko bere bekatu pasatuak. Errelijioso konfesore bat bizi ze sobra lazo. Nailuke erremediatu Sanduak; baña etze trebe, ezpaize oraño sazerdote. Zer egin zue? Joan ze konfesatzera beragana: eta konfesaturik zuena, asi ze konfesatzen len konfesatuetaik zenbait, ponderatus ainberze, ta ainberze negarreaki, ezi konfesoarea mogitu ze penatzera berzes. Joan ondoan segitu zio atzetik, ziola, o Ignazio, Ignazio, konfesio goi ezta zure, baizik nere. Esker milla dizut: orai eska zozu Jangoikoai grazia, emendana dien osoki, zuk nai bekala. Ori ezta anitz: bazekie sartzen estanke izoztuan, ta andik predikatzen pasatzen zenai gaixtakeriara, etzeien pasa; eta logratu rik kontent, naiz otzak pasaturik. Bazekie sufritzen golpeak ta paloak, estorbatzeagatik kulpak. Kuratu ta itzuli bere lan onera: eta erraten ziotenei goar zeila, ezi len asi zutena bukatuko zutela, kendus bizia; Sanduak errespondatzen zue, eta zer deseatzen dut nik iago, baizik iltzea ene Jaunaren ta proximoen amores. Baña kontatzekos genero gontan in zuen guzia, bear litzake anitz libru, ta anitz denbora.

Au ze anima animoso gura, nolakoak kuadratzen zaizkion Janloikoai, S. Teresak diones, egin zuena anitz gauza on ta andi Jangoikoaren zerbitzutan, ta pasatu zuena anitz trabaju ta andiak beraren gloriatan. Amabortz urtes gobernatu zue bere Konpañia barratu zuena Italian, Españan, Franzian, Portugalen, Alemanian, ta bi Indietan, obratus berak ta bere humeek milagro klaroak Apostoluen denborakoak, errabiatus herejeak



inbidias eta penas, laburtu baizio bizia Melanton herejeen buruai, baizio lamentatus biotzetik, Ai ai, ezi ikusten dutenada, sarri beteko baita mundua jesuitas. Ellegatus plazoa, prebenitu ze berri herritan; errezibitu zue Aita Sanduaren bedeizioa, eta sakramentu guziak debozio guziareki, aipatus maiz Jesus beti zeukana biotzean; bake ta sosegu admiragarrian entregatu zio bere espiritua Garillaren azken egunean, 1556 urtean, eta bere adinaren 65.an. Bereala aparezitu ze glorioso anitz urrun zeudenei: Askotan agertu da bularra idirikik bekala, biotzean urresko letraes inprimiturik daramala *Jesus*, berze S. Ignazio Martir glorioso garren gisara, biok izan baizire Jesusen amante apasionatuak. Ezin konta ala dire milagro obratutuenak il ondoan. Konjuratzen zeudelaik espiritatu bat Trapanan Sizilian, Jangoikoaren probidenzias espiritu gaixtoak erran zue, gure etsai andia Ignazio il da, eta dago Zeruan berze Fundadoreen S. Domingo ta S. Franziskoren konpañian. Roman zeuka señora batek bere seme bat agitz gaizki iletsirik: ellegatzen ze S. Ignazioren eguna: enkomendatu zio gogotik; eta bezperan ustekabean aurkitu zue sano ta sendo, ziola mutikoak berak, S. Ignazio etorri zekiola, ta ukitus aurpegi, eskuas endatu zuela, ta manatu zuela jaikitzeke. Eskatu zue jateko: eman ziote, baña berla erresesatu zue; ta ori bizpirur aldiz. Amak orduan erran zio, Sanduak nai bide du baru zaizen egun bere jai-bezperan. Barutu ze, ta gero bazkarian bijilias emanik guapoki artu zio estomagoak. Ezkon du batzuei aur bat jaiorik, zer izen paratu bear zekion, zute porfia bien eratean: Amak S. Ignaziori zion debozioagatik nai zue dei zeien Ignazio: Aitak zeren errian zen S. Ireneoren errelikia, Ireneo nai zue dei zeien. Irur ilabetez egon zire pleitugontan. Azkenik erran zue Aitak, ez ala beti egotekos, galdein zogun aur oni, nola nai duen dei zagun. Istante aurrak, *Ignazio Ignazio*. Genovesadoan Ama Alaba noble batzuk konfesa-komekaturik eldu zire ugalpazterras, urak zoezilaik andi; urbildu ze alaba ezpondara ikusteko ta ustekabean urak janik ezponda eraman zue bereki. Klamatzen zue Amak: eta alaba erioaren erdian enkomendatzen ze Maria Santisimai, ta S. Ignaziori. Motiboa izan zue amets bat in zuena sei egun lenago, erortzen zela itsasoan, ta libratzen zuela S. Ignaziok, zenen konpañian sarturik bere anaia bat, murmuratu baizue sartu zela sandu etzenaren Errelijionean. Orai apareziturik Ama Santisimak S. Ignazioreki erran zio, ikusazu nola den sandu & libratu zute & 1618 urtean. Kanonizatu ze S. Teresareki &. 1622 urtean.

## Agustuaren 4.an Santo Domingo Guzman

S. Domingo Españaren gloria, elizaren pilarea, munduaren argia, errelijioso Predikarien fundazalea jaiou ze Kalaruegan Osmako Obispadoan jendaki nobletik. Irur anaia izan zire, ta irurak txoil birtuosoak, bata Sazerdote sekulare milagroegillea: berzea errelijioso Predikari: irugarrena gasteena ta sanduena S. Domingo. Au zeukalaik sabelean Amak, aparezitu zekio S. Domingo de Silos, ta seguratu zio izanen zuela seme bat agitz ona, jakintsua, ta sandua. Erdi bañu len izan zue berze bisione bat, iduri zekiola zeramala sabelean txakurtto bat agoan zeukana tortxa edo zuzi bat sutan, zeñeki erretzen ta argitzen zuen mundua. Bataiatu zeneko ikusi zue Amabitxiak kopetan izar bat argitzen zuena guzia. Señale gebeki mostratzen zue Jangoikoak bere sierbo gonon ona. Txipizutuan ongi azirik, ona zena berez, ze ezaun izanen zena geroago. Estudiatu rik Palencian ederki, bateo estudiutzen zue birtute guzia, espezialki miserikordia bearsueki: eta gose-denbora batez saldu zitue bere gauza guziak, eta bera nai ze eman truk erreskatatzeko pobre bat moroek kautibo zeukatena. Kastidatea guardatzean zue bere kuido espeziala, ta sendagalla: ortako beñere etzue nai egon alfer, ez konbersatu emastekieki, ta ez an edan geiegi. Ze orduan Obispo sandu bat Osman, zeñek prokuratu zue ekartzea S. Domingo Palenciatik, ta egin zue Kalonje ta Arzediano. Ogeitamar urtean asi ze predikatzen, ta egin zue bi urtes ofizio goi fruitu andiareki; alik eta Obispoak preziso izanik joatea Franzia eraman zue bereki sandua. Lentxago Españako Erregeren alaba D.a Blanka ezkondu ze Franzia Prinzi pe herederoareki: ellegaturik aurkitu zue kuidoan; ez izanes humerik. Sanduak eman zio erremedio errosarioa erreztatzea debozioreki, ta errepartitzea errosarioak nai zutenei: Artu zue erremedioa, ta logratu zue fruitu ona lenbizioa S. Luis, nola bere aizpa D.a Berengelak S. Fernando. Aizpa onak, Ama ditxosak!

Baña aratakoan Tolosa-aldean aurkitu zue Albi deitzen den erri bate tik atra zela hereje Albijense deituen kasta gaixtoa, kentzen ziotena bere maiteenari duen gloria, gala, ta sendagalla, txoil estimatzen duena. Nor da sanduaren maiteena? Ama Birjina. Zein da gloria ta gala geienik estimatzen duena? Birjin gelditua erdi bañu len, erditzean, ta erdias geros beti Birjinik. Ori ukatzen zute urde gaiek. Ortas suturik santua zego defendatua naiak egia goi, ta desengañatu naiak erre gartaik jende gaiek. Prinzi-



piontako lenbiziko arratsean konbenzitu zue ta konbertitu ostatuko Nausia errore gartan zegona. Akonpañaturik bere Obispoa Romara, ta andik itzulirik Franzia, enpeñatu ze bere indar guziaki, orazio ta penitencia andieki, argitzeko jende itsu gaien ilundura. Herejeek ezin erresisti sanduaren orazio ta arrazioei, eta onetsi bearrean beren mediku ta ongiegillea bekala, aborrezitzen zute etsai bekala. Eskribitu zute beren sektaren argumentuen liburu, edo paper bat; eta sanduak berze bat egietafedearen: eta apostus bekala botarik biak hogera batean, herejeena bereala erre ta errautstu ze: sanduarena berez atra ze mellarik abe, ta baratu ze goiti zegon zur batean: eta diote zur garrek dirauela oraño testimoniotako. Irur aldiz bota zute sura, ta irur aldiz atra ze libre: orgatik konbertitu baizire zenbait. Baña berze frankok segi beren tema. Alaere sanduak porfia egin ta sufri Ama Birjinaren amores, ta milagro asko bitartean: gero ere eman es eman es logratu zue konbertitzea eun milla urbil. Armaetara ellegaturik herejeak ta katolikoak elkarreki, ta Konde Simon de Monforte katolikoan Jenerale inguraturik herejeenganik atra ze milla oñesko, ta zorzitan eun zaldiskoeki, lenik konfesa-komekaturik; ta eman zute animoso herejeen kontra, baizire iago ezi eun milla, zegon bitarteo S. Domingo orazioan, eta il zuzte armas iago ezi ogei milla, berze franko ito zire ugaldean eskapatu naies; eta katolikoetaik solamente sei edo zazpi faltatu zire. Milagro alakoeki famatu ze sandua, ta bera atzendurik bereas guzia ze trabajatea prokuratzen Jangoikoaren ta bere Amaren gloria.

Ortako ezaundurik bear zuela laguntza, bildu zekizkio zenbait lagun: eta Tolosako Obispoa joateareki Roman iten zen Konzilio andi gartara, non bildu ziren Aita Sanduareki 1285 Artzai espirituale, joan ze arreki Sandua ere, fundatu naiez Predikarien errelijioea. Inozentio III.a ze Aita Sandu: erreparo zue admititzean errelijione berririk: eta S. Franziskok ere nai zue plantatu berea denbora gartan. Aita Sanduak lotan izan zue bisio-ne bat, bere Letrango eliza arrallaturik erortzera zoeiela; ta bi gaiak arrimaturik soñak firme zeukatela etzeien erori. Ezaundu zue oneki zirela Jangoikoaren gizonak, ta Eliza Katolikoaren kolumnak; eta ongi arturik bializ ziteue disponitzera erregla bizimodu nai zutenaren. Itzuli ze lagunengana S. Domingo, eta disponiturik erregla segitu bear zutena, itzuli ze berriz Aita Sanduagana 1216 urtean: ilik orduko Inozentio III.a, konfirmatu zio Honorio III.ak. Orreki sandua kontent agitz asi ze tratatzen erremediatzeas mundua bere aleginas. Onen prenda bat bekala ze lentxago S. Pedroren elizan izan zuen bisioea: Ikusi zue Jesu Kristo Juez bekalak majestade andian jarririk trono batean, zeuzkiela irur lanza eskuan, galtezko mundua. Ikusi zue Ama Birjina presentatzen zekiola humilki eska-

tus miserikordia bekatariendako: paratu zitiola alzinean bi gizon, baizire S. Franzisko, ta S. Domingo bera, ta erraten ziola, bi geben, ta eben humeen predikazioareki erremediatuko zela mundua. Ala aplakaturik bere majestadea, Sandua itzuli ze berebaitan konfianza onareki, bere fabore zuela Ama Birjina: eta iago berriz, noiz ta atra zeneko elizatik, opatu zuen karrikan S. Franzisko; eta beñere len ikusi gabe, ezaundu zire elkar, ta besarkatu zire ziotela, *anaiak gara; Aita berbera, Nausi berbera dugu biak: goazen bateo unione onean, eta ezkaitzala infernuak aparta elkarren amoretik*. Ala biak konzertaturik despeitu zire zein bere aldera. S. Domingo itzuli ze Tolosara bere lagunengana, errepartitzeko mundua barna Predikari Apostolikoak bekala. Española bializ ziteue laur: etze bera etorri orduan, zeren joan nai zuen moro-errietara, martiriza zezaten an. Baña Jangoikoak estimaturik aren deseoa, etzio nai izan du permititu kunpliztea: eta beti Jangoikoak nai duena in bear da. Romara itzulirik milagro andien podores logratu zue fabrikatzea an konbentu bat, ta paratu zioete bereei habitua Maria Santisimak mostratu ziona fr. Rejnaldori: Barraturik lagunak berze lekuetara, etorri ze bera Española, ta egin zue zenbait konbentu. Emendik pasatu ze bere Tolosara; andik berriz Boloniara, ta zelebraturik kapitulo jenerala bein ta bi aldiz, heritu ze, ta ezaundu zue zela despeitzeko mundugontak. Orren señale eman zio lentxago Jangoikoak, erran ziolaik orazioan, atoz, adiskidea, atoz deskansatzera, ta gozatzera gozo egjaskoak. Egin zue konfessio jenerala, ta ondorean despeitu ze bereenganik, *ene humeak eta anaiak*, ene biotzean ermako zaitzet guziok: ez penatu joateas ni zuenganik, ezi Jangoikoagatik munduaren utziak len dakar on gau, baita joatea nola noaien ni. Zenbatenas gutiago apegatzen zaigun mundutik, da obeago; ta seguratzekos angoa, bear da utzi emengo. Nai diziet orai azkenean agertu sekreto batzuen probetxu, ta Jaunaren gloriatako; eta da, ezi beraren grazias konserbatu dutela beti birjindadea garbi. Eta Jaunaren eskua ezpada izan eskas nereki, ezta zueki ere izanen txur. Baña beira ezi anitz balio duena anitz kostatu bear da. Prezioso da erne bizitzea ta orazio egitea; ta aparta aparta emastekien komunikatze ziotik. Ez fia okasioetan: gaixtoena da deskuidatzea ta seguratzeko zeuren edo berzeen birtutean. Kastidadearen izen benerablea ta sandua da nola bizitzea, *ezpataike erreobra*. Naiz au erran zuen intenzio ones; etorri zekio eskrupulo erranas, eta konfesatu ze ortas. Ain delikatua zue konfessio. Gero emanik konseju onak, ta manaturik leitzeko elizako orazioak, azken itzetan despeitu zue arima, igan zutena Aingiruek zerura. Iltze Agustuaren 6.an, 1221 urtean, zituelarik solamente 51 urte. Bereala eman



zue zeruak asko testimonio beraren gloria ta santidadearen asko milagro-eki. Eta 1234 urtean kanonizatu zue Gregorio IX.ak.

Español glorioso gonon birtuteak ezfire explikatzeke gure mias. Jan-goikoarenganako amore fuerte andi gura, nork explika? Beti trabajatu naiak Jangoikoagatik! Beti orazio ta negar egiten berzeren bekatuengatik! Beti padezitu ta il naiak fedeagatik! Hereje batek il nai zuenak, ta ez fortunatu, erran zio bein, pasatu baiitza orai egunean alako bideas, ez itza egonen ia bizirik. Errespondatu zio Sanduak, nik badakit ez tutelera mereji alako fortuna: baña eman balezada Jaunak autara, zein eriotze nauten pasatu beragatik, ene gustoa litzake ebaki zindezkidan eskuak ta oñak; ta atra zañetaik mia; gero bi begiok; gero utzirik gorputza bere odolean bañatzen guti bat, burua ebaki zindezan. Apez batek galdegin zio zein librutan estudiatzan zituen ain gauza on erraten zituenak: errespondatu zio, ezi karidadearen libruan, ezpaita obeagorik. Zimendua zue humildadea ain barna, ezi bere kulpengatik uste zue estorbatzen zela herejeen konbertitzea: eta ala sartzerakoan edozein erritan, eskatzen zio Jangoikoai, ezdezala kastiga jende gau ene bekatuengatik. Irur Obispado ofrezitu ziote, baña ezin arrarazi. Tolosan baño gogotikago predikatzen zue aldamentan, zeren Tolosan honratzen zute, baña ebetan lixtukatzen ta maltratatzan. Beti oiñ-urtuxian ainberze bideetan; eta sartzean erriren batean disimulatzeko penitentzia, paratzen zitue oñetakoak. Bere habitu pobrea- ren pean zerama silizioa, ta katea bat burdiñaskoa sarturik aragiak barna. Beñere etzue izan zelda xakinik, ta ez goatzerik: komunki bere goatzea aldareko peaña, edo eskañuren bat, edo lur utsa. Irur disziplina egunoro ixuris odola franko: bat bere Eekatuengatik: berze bat berzerenengatik: ta irugarrena purgatoriokoengatik. Zer milagro da alako tratametuareki laburtzea bizia? Ain zena gogor bereki, agitz ze beratx amoltsu gañarako guzieki, baita bekatarietara ere: agitz neurritua mintzatzean, agitz atento espezialki errelijioso ta sazerdoteeki. Bada kastidade Aingiruen gura; koraje ta konstanzia gura onean; fede ta konfianza gura Jangoikoan, ta gañarakoak, nork erran? Orazioan egin ze ain Jangoikoaren gizona: An apegatu zekio Jaunaren ona! Meza erraten zue egunoro ainberze negarreaki, imposible iduri baizue ainberze izatea ixurtzeko. Askotan atratzen ze sentidoetaik, sua zeriola: askotan goratzen ze airean gorputza.

Baña zertan distingitu zen berex da Ama Birjinaren debozian. Sandu gau da pregonatu ta barratu zuena munduan errosarioaren debozioa, estimatus, laudatus, ta enkargatus Ama Santisimak berak. Kontatzen duenez Aita Garzes venerableak, (cart. fav. vis. 6.) Asistitu zio Erregina Santisimak lenbiziko mezan: eta pulpitoan bere aldakan. Dio erran ziola

itz gau, ain maite zaitut, Domingo, ezi lurtean bizi banitz, ez nindegoke kontent, ezpanego zure konpañia amablean. Aparezitu zekio milla ta eun aldis, ikusirik zion amore fiña sanduak ere. Baitare txastarazi zio bere bularretako esnea, erregalatzeko manera guzies arima garbi sanda gura. Ekart zen ere zitio zerutik ango erregaloak, ta bere esku ematen. Azkenean asistitu zio iltzerakoan; eta bere Semeareki bateo eraman zute arima gura kolokatzeko zeruan Serafinen tronoan, ta Apostoluen koroan, Patrono ongi iltzeko debotoak &.



## Agustuaren 6.an

### S. Justo, ta S. Pastor Martirak

Erreljio Kristioaren egiaren progua ona da, firmatu baitute beren odolareki anberze jendeek, espezialki emastekiek eta aurrek beren borondatez. Guzien erlean da eman zuten testimonioa bi anaiattoek Alcalan. Zebila Daziano Presidentea España-barna, otso goseti bat bekala, martirizaten Kristioak. Ellegatu ze Alcalara: pregonarazi zue adoratzeko guziek aren Jangoiko zeuzkienak, ezperen, akabaraziko zituela tormentus. Zeudelaik lotsarriturik Kristio larriak, Jangoikoak armatu zitue bere Espirituas bi aur nobleak anaiak, batak zituela zazpi urte, au da S. Justo, berzeak bedratzi, au da S. Pastor. Zebiltza biak eskolan: eta aditurik pregon gura, biak beterik ferbores, zelos, ta fedeagatik il naiez elkar animatus, botatu eskolan paletak ta kartillak, eta laster joan zire Presidenteagana, oius ziotela, etzutela aiek nai adoratu aren Jangoiko falsuak, baizik Jangoiko bakar egiaskoa, ta Jesu Kristo Jangoiko-gizona; ta orgatik eldu zirela prest ematera beren bizia. Aiturik ori, gelditu ze Daziano arriturik, eta pensatus ori zela aurkeria, manatu zue azotatzeko biak sekretoan, orreki lotsatuko zirela. Zemazkitelaik ortarako, bi axuritto inozenteak zoezi animatus elkar: eta txipienak, baize justo, beldurrak agian, bere anaia etzeien fia aren konstanzias, erran zio lenik, ene anaia Pastor, ez lotsa iltzeas ere, eztare tormentues, aurrak garelako atxekian, zeren ezi Jangoikoak deitu gaituenak ainberzeko graziara, nola baita martirioa beraren amores, emanentigu arimo ta indar beartugunak, ermateko ongi. Alegratu ze Pastor aditzeas, ta errespondatu zio, arrazioreki deitzen zara justo, exortatzen bainauzu justoki, logra dezagun biek martirioaren korona. Errezibi sueltoseguro ezpata gañean, ezi trabajuak guti dirau, eta gloria da betirokoa. Ministroek aiturik konbersazio gebek, kontatu ziote Dazianori, zeñek beldurrak, baldin segitzen bazue bere teman, garaituko zutela mutiko gaiek, eta gañarako kristioak animatuko zirela aien exenpluareki, manatu zue il zezkitela sekretoan erris kanpoan. Ala egin zute, kanpo batean ebaki zizkiote buruak arri baten gañean, zeintan gelditu ziren inpreso belauen ta eskuen kuntzeak; adiarazis milagro goneki Jangoikoak, beratxago zirela arriak berak, ezi Jentilen biotzak. Kristioek bildu zuzte sanduen buruak ta gorputztoak, ta ortzi zuzte leku gartan berean: Eta badire diotenak Kristo bera jatsi zela honratzera bere martir inozente gaien ilaria. Gero Españako gerra ta persekuzioeki galdu ze aien memoria, alik eta Asturio

Toledoko Arzobispo batek Jangoikoaren inspirazioz billatu ta aurkitu zitue gorputzto sanduak, eta izan ziote ainberze debozio, ezi utzirik Toledo pasatu ze bizitzera Alcalan, nora pasatu zituen errelikia prezioso gaiek, eta an pasatu zitue bere egunak, honratzen mutiko sanduak: nola eskribitzen duen S. Ildefonsok, izan zenak gero alaber Toledoko Arzobispo. Gero Moroak sartzeareki Españan, Urbizio deitu batek, zein daukaten sandutako Huescan, ta ango Obispadoan, artu ta erman omen zitue bereki; ta anitz Joan-etorri pasaturik, azkeneko gelditu omen zire Huescan, nondik 1568 urtean, Aita Sandu S. Pio Kintoren, ta errege Felipe bigarrenaren manamendus pasatu zute errelikia aien geien partea Alcalara, ta errezibitu esta andieki, ta paratu aien izenean egin zen Kolejiata batean. An dire honratuak aldare nusiaren pean den kapilla batean, pensatzen baita dela leku bera, non agitu zen martirioa; eta an dago arri gura, non degollatu zuzten, dauzkiena belauen ta eskuen markak oraño ageri &.





## Agustuaren 10.an S. Lorenzo Martir gloriosoa

San Lorenzo, daramana bere izenean bere triunfoaren laurela, España guziaren, espezialki Aragoaren honra, koraje ta balore Kristioaren exenplu admirablea, egietafedearen testigo firmea, niork ezin garaitu zuena, Jesu Kristoren imajina bizi propia, ta Eliza guziaren gloria, orgatik sandu guziek miragarriri laudatzen dutena, ta Eliza guziak jai ta bijilia, ta oktobareki zelebrazten duena jai ze Huescan: Aita izan zue Orenzio, Ama Paziencia deituak, eta Sanduak, zeñetas errezatzen baita Huescan. Bere gastezutuas ezta notziarik, eztare nola joan zen Romara, baizik bai an izan zela Arzediano, ta Elizako gauzen ta ondasunen Maiordomo, zelarik Aita Sandu Sixto II.a, zein arrapatu preso Baleriano Enperadorearen ordes zeramatelaik presondegira, Lorenzok ansiaturik akonpañatu naies martirioan, lasterka joanik erdetxi zue bidean, ta asi zekio erraten amoltsu negarti, Nora doaie Aita bere semea gabe? Sazerdote sandua, nora alzinatzen da bere Diakona gabe? Orrek etzue beñere ofratzen sakrifizioa ministroa gabe: Nola doaie orai ni gabe ofratzera bere odolaren sakrifizioa? Agian ezaun duzu, ez nai zela artako? Proga bez ia azertatu zuen eskojitzeas ni Ministrotako gauza nai zena: Nori fiatu zidan administratzea sakramentu aldarekoa, eztida eman nai parte ofratzean biziaren sakrifizioa? Zer itzak ebek? Zer sua ura? Zer anheloa! Zer antsia il naiez fede Kristiogatik? Jangoikoaren espirituarena da su gau, ezi gizonarena da bizi naia, ta ez il. Biotz-beratu ze S. Sixto aditus: eta erran zio Jangoikoaren aldetik, etzaitut uzten nik, nere semea, eztare desetxatzen: baizik ere andiagokoak izain dire zure peleak Kristoren fedeagatik. Nik zar bekala dut bukatzea laster lebeago: baña zuk gaste bekala bear duzu garaitu tiranoa padezitus iago, ta irabazi triunfo bat gloriosoago. Irur egunen buruan segituko nauzu ni sazerdotea zuk Diakonak. Bitarteo barin baduzu zer-bait elizako ondasunetaik, emozute pobreei. Konsolaturik itzuli ze Lorenzo, seguraturik ilen zela martir irur egunen buruan. Eman ze pris a biltzera elizako ondasunak errepartzeko. Joan ze Andre alargun baten etxera, non zeuden altxaturik anitz elizagizon eta Kristio. Guziei paraturik belauriko garbitu zitiote oñak humilki, ta utzi zioe limosna abasto; eta etxokandre alarguna heri zegona buruko miñ andieki, zeñatus, ta eskuak buruan paratus utzi zue libre ta sana guzis. Andik pasatu ze Narziso deitzen zen baten etxera, non aurkitu zuen anitz Kristio ikar ikar beterik

angustias. Konsolatu, ta animatu zitue: ta oroat garbiturik oñak, utzi zioe bear zuten limosna; ta itsu bat Kreszenzio deitua zeñatzeareki begietan argitu zue. Andik joan ze kubila Nepozianoren deitura: an oroat konsolatu, oñak garbitu, ta sokorritu zioe: ta sazerdote bat Justino deitua ikusirik an, bota zekio oñetara apatzera humildade andiareki. Ala zoeie presatus logratzeko grazia andia bear izan zuena pasatzeko pasatu zuen martirio arrigarria.

Gaua pasaturik lan gebetan, biramonean ia iltzera zeramatelaik S. Sixto, atra zekio bidera S. Lorenzo, ta erran zio, *ea ez nazala ia desanpara, ene Aita Sandua, ezi epleatutut orren tesoro enkargatutidanak*. Aditurik tesoroen aipakundea Ministroek, bereala in zute preso, ta kontu eman zioe enperadoreai: Onk kontent ustez ase kodizia, ta errendiarazi Lorenzo, enkargatu zue onen guardatzea Hipolito deitzen zen kaballero bati, zeñek paratu zue karzelean berze asko presoeren artean; zeñetaik ze bat Luzilio negar eginaren utses bere desgraziagatik gelditu zena itsu. Oni predikatzan zio S. Lorenzok sinetsi zezala Kristobaitan, ta argituko zuela. Sinetsi zue, bataiatu ze, ta argitu ze. Famatu ze Roma guzian milagroa; etorri zire anitz itsu argi billa, ta guziak argitu zitue guruzearen señalearaki: eta preso guziak ere konsolatzen ta animatzen zitue bere koraje alegre garreki. Afizionatu zekio presoen kuida zalea Hipolito ere, ta arturik apart diskideaintzu asi zekio erraten, ager-zezkiela tesoro altxaturik zeuzkienak. Sanduak amoroso erraten zio, o Hipolito, sinesten badu Kristobaitan, tesoro andiak ofrezitzentiot ta bizi eternoa. Eta gutibana sinestarazi zio, ta bataiatu zue bere familia guziareki; eta Jangoikoak ala premiati zue, ezi ikusarazten zitio bataiatzen zirenak atratzen alegre eder ederrak... Enperadoreak presentarazi zue bere alzinean Lorenzo: galdegin zio elizako tesoroek: Sanduak sereno ausart, auna, ainberze gana barin badu elizako tesoroen, bida bizpirur egun biltzeko. Eman zitio kontent ustez beteko zion etxeguzia urres eta zillarres, baitare lagunak, baita karroak ere. Lorenzok bildurik al zuzken estropeatu, maingu, itsu, malder, ta pobre guziak, guziak paratu karro gaietan, ta erman zitue enperadoreagana, erraten ziola, Ona non tuen Elizako tesoroak. Ezta erratz explikatzea kolera artu zuena enperadoreak, ikusirik bere esperanza ala burlaturik: eta ala sua zeriola begietaik manatu zue biluxi zezatela an berean, ta arraskatu burriñasko aztaparez gorputz guzia; ta presentatu alzinean instrumentu-genero guziak usatzen zuztenak martirizatzeko, ziola, guziok progatu beartuk ezpapidak obeditu nai ukatus eure Jesu Kristo. Sandua ain zego amorosturik bere Jesu Kristos, ezi guzia guti iduri zekio amorearen kasos, eta ala batere ez lotsaturik, baizik sereno animoso alegre erran zio



Tiranoari, o gizon miserablea, uste du garaitu ni bere meatxu ta bere tormentueki? Bada diot, ezi orrendako direla tormentu, enetako erregalo, ta nere gosea izan dela beti asetzea mai gontan erregalo gisa gebetas... Nola entenda? nola sinesta ere lenguaje gau lurreko animalettoek? Entendatzen dute Jangoikoaren amoresko ardo prezioso gartas orditurik daudenek.

Andik eramanik berriro orañik Tiranoak bere kodiziaren goseareki erraten zio, ea, atra niri tesoro altxaturik dauzkizunak, eta adora gure Jangoikoak: ezperen, eztizute baliatuko libratzeko ene eskuetaik. Sanduak sereno, nik konfianza dut an gorako tesoroetan, baitire ene Jaunaren miserikordia ta piedadea, baliatuko didatela atratzeko libre nere arima, naiz gorputzak senti pena. Azotarazi zue plomusko azoteeki txaxakatus aragiak ta ezurrak: Sanduak Jangoikoai iten zio orazio, errezi bi zezan beraren arima. Aditu ze boza bat zerutik erraten ziola anitz pasatu bear zuela oraño. Aditu zute on berze askok, eta Tiranoak zio, o Romanoak, eztuzie ikusten nola Demonioek faboratzen dioten oni, despreziatzeko zuen Jangoikoak, eta Prinzipeak, eta tormentuak? Eta itsuturik iras, edarazi zue Lorenzo tormentuko goatzean edo potroan, deskoiuntatzeko ezurrak, ta zatikatze aragiak aztapar ta instrumentu tzorrotzeki. Aidirelaik ortan berdugoak, Sandua aurpegi alegreareki zego ematen graziak Jangoikoai. Biz bedeikatua, o ene Jaun ona, eta eman bezagu grazia guziei, ezaun dezaten ebek ere zein ona den, ta eztituela bereak desanparatzen bear orduan. Biali zue Jaunak Aingeru bat, freska zezan, ta albiatu pena bortitx gartan, oial txuri bateki garbitus izerdiak eta llagak. Ikusi zue au an zegon soldado batek deitzen zenak Roman, eta gero eskatu zio bataia zezala, nai zuela izan Kristio eta bataiatu izan ze Jesu Kristoren Martir, Sanduaren konsoluareki.

Etze ase Tiranoa ainberze tormentatuas, ta ainberze aldiz S. Lorenzo baliente gura: baizik ere determinatu zue enpleatzea gau bat osoa tormentatzen gorputz zatikatu gura pensa ala tormentu-motaeki: eta ekarrazirik, pena emateko, ziren makina guziak, galdegin zio, zer jendagitakoa zen. Errespondatu zio Lorenzok, ni naiz española, ta txikizututik Roman azia lege sanduan ta dibinoan. Dibinoa, zio ark, deitzen duk legea erakusten dikena egiten burla gure Jangoikoes, ta tormentues? Lorenzok sereno, nie ene Jaun Jesu Kristoren izenean eztut beldurrik orren tormentues. Tiranoak emen, bada ezpaduk adoratzen gure Jangoikoak, gau gontan guzian eztiat atertu bear ire tormentatzen. Sanduak ontara, beras gau gau izanen da gau ona enetako, ez ilun, bai argi ta alegre. Manatu zue Tiranoak paratzea goatze-iduri bat burriñasko sareeki, edo parrilla ta trilla deituak, ain andiak, ezi jasi zezaten gorputza, eta pean barratzeko anitz

brasa, joan zeien erre-pispildus gutibana, ta eriotzea izan zezan nekepenatsuago, zenbatenas luzeago. Guzia prestatu zute berdugo kruelek; biluxi zute gorputz sandua guzia llagatua, ta paratu zute trillen gañean, eta su bizia pean. Zego Tiranoa begiak armaturik beira bisai ilunareki; berdugoak zirikatzen sua tenaza ta burriñeki; gañarako an zirenak arriturik; Ainguruak ikusten alako ikusgarria; eta S. Lorenzo pazienza ta sosegu admirableareki erraten Jaunari, errezi bi bez, Jauna, sakrifizio gau berorren honratan. Eta Jauna zego indar ematen ta faboratzen. Etzue iduri zegola tostatzen trilla ikaragarrian, baizik goatze beraz batean: eta ala burlatzen ze ai zirenes bizten sua: eta Tiranoari erraten zio, ia erre da alde batetik, itzuli ta asi daike jaten; ezi elizako tesoroak orrek naituenak eztitu arrapatuko, zeren paratu dire zeruko tesorerian pobreen eskus. O Lorenzo admirablea, Jesu Kristoren soldado baliente garaitu eztaikena, orren aragiak ote dire arriskoak edo bronzeskoak? Edo ezta sentidorik? baña bai, ezi mostratzen du izerdi darionak: baña amoreak sufriarazten dio guzia: eta fuerteago ze su amoreskoa erretzen ziona biotza, ezi su ikatzarena erretzen ziona gorputza. Plazoa bete zelaik goratus begiak zerurat, zio, Esker milla, Jauna, idiketzen baitida ataria sartzeko berorregana. Au erran, ta egatu ze arima andi gura errezi bitzera korona ongi merejitu zuena. Biramonean ortzi zute Kristioek gorputza sendatu zuen alargun garren heredajea, ta zelebratu zute ilaria irur egunes an egones orazioan ta baruan: azkenean zelebraturik meza Justino garrek konsejatu zitue joateteo nor bere alde etzekiten arrapatu. Martirio gau agitu ze 261 urtean. S. Leonek dio, ezi nola S. Esteban lenbiziko Martirak honratu zuen Jerusalem, honratu duela Roma S. Lorenzok: eta guziak eztaizke ase laudatus alako Martira leku guzietan &.



## Agustuaren 14.an S. Estanislao Kostka

S. Estanislao Kostka, Poloniako lore ederra, Jesusen Konpañiako Nobizio il zena sandu ta gaste emezorzi urteetaik emeretzitara, jaio ze bere buratsoen kastelu batean jendaki ilustre prinzipale batetik. Amirur urtetan biali zute bere anaia zarrenaren ta Aio baten konpañian, estudia-tzera Biena Austriakoan. Agitz ze aplikatua estudiora, ta bateo ain ona ta onera emana, ezi len lenbizikoa jaikitzen ze goizetan; ta Jangoikoa lenbizikorik billatzen zue. Estudiora baño len, ta estudiotik atra ondoan prezisoki bisitatzen zue Jaun Sakramentatua elizan egunoro, ta egunoro meza enzutzen zue, ta jaietan al zuzken guziak, nola bere errosarioa ere bai egunoro Maria Santisimari, zeñen deboto fiña baize. Alakoak zire bere afizioneak ta dibersioak. Ala ze agitz erretiratua, geldia, ta ixila. Lagun gaixtoetaik urrun, nola apestatuetaik: bere gisako onttoeki ze bere konbersazioa modesto alegre amoltsua, ta ala ze onetsia ere. Denbora gartan eman zio heritasun batek, ta ekarri zue azkenetara: Zego guzis afljiturik, ez iltzeas ainberze, nola ezin komekatzeas, zeren ostatuko Nausia baize hereje. Sta. Barbarai enkomendatzen ze, leitu baizue aren debotorik ezte-la iltzen sakramenturik gabe. Baliatu zekio fedea, ezi gau batez zegolaik idatzarririk ikusi zue Sanda akonpañaturik Aingerus sartzen kuartoan, zekarratela sakramentu aldarekoa, zein errezibitu zue aien eskutik gozoso. Fabore gonon atzetik egin zio berze bat bere Ama Santisimak, agertu baizekio semeareki besotan, ta utzi zio aur dibinoa goatze-gañean, ta mintzatu zio amorosa, sartzeiela konpañian. Alako bisitareki etorri zekio on guzia, ta osasuna, zein deklaratu zute Medikuek milagros izan zela, etzeikela berze gisas: baña niori berak etzio erran nola.

Konbaleziturik bereala komunikatu zio konfesoreai bere bokazioa ta ordena sartzeko Konpañian: onek desengañatu zue etzutela artuko Bienen Aitaren baimendea gabe. Baña etzue mutil sanduak esperatu nai ainberze, ezta esperanzarik utziko zuela Aitak, ta ain guti anaiak. Onek, kondizio gaixtoa izanes, gaizki tratatzen zue itzes ta eskus ere. Sufritzen zue, baña erraten zio, ematen didazu motibo, joateko zure konpañiatik norapait, ta emain diozu kontu nitas Aitari. Goaie ordu gaixtoan nai zen lekura, erran zio arrek koleras. Baita Estanislao sosegu andiareki gau gartan prestaturik, biramonean konfesa-komekatuturik, enkomendatus bere Ama Santisimari, ta aldatus tresena pobre batzuk paratu ze bidean oñes,

ta asi ze joaten prisaka prisaka Augustarat: Anaiak falta aurkiturik, ta kotxe batean segiturik laguneki, erdetxi zute kanpo batean, baña Jangoikoak nai ta etzute ezaundu. Segitu zue sanduak bere bidea, ta goiz batez sartu ze eliza batean konfesa komekatu naiez, baña jakinik zela herejeena, deskonsolatu ze: baña Jangoiko onak biali zio Ainguru bat eman ziona komunione sagratua. Oneki animoso joan ze ibilis berreun ta iruogei ta iago lekoa Romaraño, non errezibitu zue S. Franzisko Borjak Lastallan 1567 urtean, sartzen zelaik adinaren emezorzigarren urtean. Aitak jakintzuelaik eskribitu zio karta bat beterik sus ta meatxus: semeak errespondatu zio berze bat beterik humildades, karidades, ta desengañus: bateo erresoluzio andias.

Zegolaik ia seguro bere Jangoikoaren etxean ta proprioki Jesusen konpañian, kontu inik ia etzuela berze Aitarik baizik Jangoikoa, ta ez berze Amarik baizik Maria Santisima, deitzen zuena beti ene Ama, eman ze sandutza iago berri berritan, plazer egin naiez bere Majestadeai. Guzia ze humillatzea, mortifikazioa, obediencia, sufrimentua: ain manso modesto afable, ezi Nobizio-lagunek beirutzen, ta maite zute Aingeru bat becala. Orazioan ze bere bizia: an azi zen ze arima, ta erregalaten: entendentua argitzen, borondatea erretzen, biotza amorosten Jangoikoas ta Jesu Kristos, ainberze, ezi kanpora ere komunikatzen ze su gura, askotan baize preziso ur otzes ta oial bustis freskatzea bularra, ez sofokatzekos: ta zoeie konsumitus gaitz amoresko gozo gartas. Zertan iago distingitu zen, izan ze Ama Birjinaren debozio amorosoan: bere estudioetako progua ta lan guziak Ama Birjinaren honratan: bere konbersazioak Ama Birjinaren laudarioetan: bere gogo ta gusto guzia Ama Birjinan. Bazekite on laguneki; eta ala gusto emateagatik berek asten ziote konbersazioa Ama Birjinaren laudarioen. Beraren atenzios Nobizioen Maestruak astean ta bukatzean belaurikarazten zitue errezatzeko abe Maria. Au da, zio beti, nere Ama, au Ama nerea. Amore gonon kasos paratu zekio deseo iltzeko Asunzioaren bezperan, ta eskatzen zue grazia goi, ta agindu zekio, ta agitu ze. S. Lorenzoren bezperain Bezperan pensatus Martir andi gonon erretzea trilla gaietan, itxeki ze S. Estanislaoen biotza amoresko suan, ta galdein ziote lagunei, nola zeiken bat erre S. Lorenzoren gisara: ta biramonean atra ze Refektoriora disziplina publikoareki, belauriko erran zitue bere faltak, apatu ziote oñak guziei, ta eskaturik limosnas janaria ta edaria jan eta edan zue lurrean mai-pean: andik joan ze zerbitzatzera sukaldean, ta ango sua ikusteariki, berriro pensatzen zue Sanduaren martirioan, ta ainberzeko amoreak artu zue, ezi emanik desmaio batek an, andik erman zute goatzera. Izan ze au S. Lorenzo-bezperan. Bezperagoan eskribitu



zue karta bat bere Ama Santisimaren entrega zezon Sandu garrek: artan erratan zio, ene Ama Santisima, o Ama nerea, ni ez naike bizi ori gabe: orren amores ta orren ikusi naiez nago heri: in bezada grazia eramateas emendik bere eguneko, ikusteko orren edertasuna, ene Ama, eta an iten dioten festa. Medikuek etzute uste gaitz peligraskoa, baña berak segurazten zue artaik ilen zela, ta Asunzioaren bezperan. Ala nola sukai karra suak, zerama konsumitus sanduaren gorputza amoreak. Egun gartan argitu ze txoil akaiturik: eskatu zio erretoreai humil ta ansioso elizako ordenamentuak, ta paratzea lurrean. Gusto egin zio zeiken gartan; paraturik lurrean almadraka pobre bat, ontan sanduak errezibitu zue Biatiko sagra-tua, ta Olio sanduaren sakramentua debozio bakanareki. Bereala goraturik begiak zerurat zego beira beira elebaturik ixil ixila. Galdeginik ia zegon konforme joateko emendik, errespondatu zue alegre Dabiden gura, Prest dago, Jauna, prest dago ene biotza: eta konfesaturik berriz, ta despeiturik amorosoki bere Nobizio-lagunak, erregalazten ze bere Ama Birjinaren imajinareki, gero Jesus guruzifikatuareki, egines latinesko orazio luze bat propia garai gartako. Leiarazi ze Sanduen litania. Orduan ze noiz agertu zekion bere Ama maitea gloriako Erregina akonpañaturik Birjines, zene-ki egon zen jardukian eraldi on batez: ondorean ixil suabekiro despeitu zue arima, bere adinaren 19.an ta Kristoren 1568.an anitz biziturik urte gutis. Ila gelditu ze bizi bekala. Anitz urte ortzias geros idikirik obia, aurkitu ze oso eder fragrante. Milagroen poderos asi ze jendea zelebrazten denbora gutiren buruan, ta Klemente VIII.ak deklaratu zue Beato 1602.an: gero kanonizatu 1725.an &.

## Agustuaren 20.an S. Bernardo Abadea

S. Bernardo santidadearen, ta xakintasunaren hispillu ederra, sendo eta gozoa, jaio ze Franziaiko Borgoñan erri txipi batean Fontana deituan. Teselino Aita kaballero soldado ta Kristio ona: Ama Aleta birtuosa, oneki sei seme izan zituena, ta alaba bat. Seme on gau zeramalaik sabelean ikusi zue ametsetan zeramala txakurto bat txuri ederra ta aunka iten zuena: konsultaturik deklaratu ziote, izanen zela Predikari andia guardatzeko Jangoikoaren etxea gaixtoen kontra. Jaiorik azi zue Amak kuido iagoreki, eta mugonez paratu zue estudioetan maestru oneki. Eta etzue anitz bear, ezi ze berez argia, ta onera emana. Izan zue burukomiñ andi bat: ekarri ziote emasteki enbustera kurazale famatuetaik bat: mutikoak ezaundurik etzela arte onekoa, bota zue ordu gaixtoan asarre oiuz bereala: eta Jangoikoak nai ta orreki sendatu ze istantean. Il zekio Ama, ta gelditu ze Bernardo gasterik emazurz: baña zelaik berez alketi honestoa miragarriri, berze alde galant gallardoa, lagun armen ermean, bear Izan zue bere birtutea, ta dilijenzia, libratzekos erretzetik Babilonia gontako suan. Bein deskuidaturik beiratzean sentitu zue tentazioaren sua, baña Jangoikoaren inspirazio sartu ze an urbil zen estanke edo balsa izoztu batean, nondik atra zuten otzak pasaturik: baña orreki logratu zue grazia, garaitzeko tira ta berze tentazio izanak. Ostatus ellegaturik bein, gauas etzinik zegon lekura sentitu zue eldu zela tentazalea: gaste honestoa asi ze oiuz egiten, ladronak ladronak: orreki erretiratu ze berzea, guziak jaikitzeareki. Bi aldiz agitu ze gisa berean. Biramonean bidean lagunek galdeginik zer ladronen ametsketan egon zen, errespondatu zue, etze amets, baizik egia, nai zidatela errobatu kastidadearen tesoro prezioso, estimatzen dudana nik Jangoikoareki iago ezi lurrean diren urre zillarren tesoroak.

Libratzeko peligro ta peste gisa gebetaik, ta gozatzeko Jangoikoas gaiken diña munduan, determinatu ze sartzera errelijionean. Baña nola baize mutil ain guapo jakintsua ta esperanza anditakoa, bereala eutxi zekizkio aide ta aiskideak, kendu naiez burutik: baña kontra agitu ze, ezi garaitu zitue guziak, ta bere espiritu ta mintzaera onareki bereganatu zitue osaba bat, anaiak, ta adiskideak ogeitamartaraño erretiratzeko Zistelgo konbentura, non guti baize oraño ango bizimodu penitentearen beldurrez: baña S. Bernardok gogorrigo ta naiago, baize arima animosoa. Gelditzen ze Aita zarraren anparotako anai txipiena Nebardo, zeñi despe-



dan erran zio, Adios Nebardo, or uztentizugu etxe ta haziendak. Errespondatu zue mutikoak zar-aintzu, Zer partizio da ori? zuek arrapatu zerua, ta niri utzi lurra? Eta gero ark ere segitu zue bide bera. Nork explika, nola eman zen sandua Jangoikoai? Bere orazioa, mortifikazioa, penitentzia, humildadea, obediencia, karidadea, ta santidade zen guzia? Animatzeke bere burua, zeuzkie maiz agoan ta biotzean itzkebek, Bernardo, Bernardo, zertara etorri zara? Guzien azkena kontatzen ze, ta guzien zerbitzuko: eta zerbait dispensa ematen baze, ori, zio, ar dezakete berzeek, baitire sanduak, ez nik, bainaiz bekataria gogorki tratatu bearra Jatekos bear zute igitatu Monjeek; uzten zute sandua etxean etzekiela igitan. Eskatu zio negarres Jangoikoai grazia, igitatzeko ark ere; ta logratu zue ain oso, ezi gero pasatzen zitue guziak igitatus milagros bekala diestro eder. Obedienziaren pean bizi naia ze beti, zion bekala berak ederki, *naia-go lukela bere guardian amar Artzai, ezi ez bera izan nioren Artzai, zeren iago beldur zen ostoaren ortzes, ezi Arzaiaren makilas*: baña eginik monasterio bat Klarabalen, ango Abade in zute S. Bernardo nai etzuela bortxa: Burua apaldurik, ofrezitu ze trabajura arimen onagatik. Miragarriro jende bildu zegio bizitzeko beraren konpañian ta obediencian, guzietaik bat bere Aita propioa, bizitu ta il baize sanduki seme sanduaren konpañian. Arreba bakarra gelditu ze munduan ezkondurik abrats bateki. Joan ze ura bein ikustera bere anaiak, baña bere munduko gala ta ponpareki. S. Bernardok manatu zio nior etzeiela atra ikustera bana: aurkitu ze au porterian deskonsolaturik etziotela kasorik anaiek: gero ere atra zekio S. Bernardo, ta bere itz leun fuerte gaieki aldatu zue de manera, ezi gerostik a bere kuidado guzia ze nola inen zen sanda, ta bi urteren buruan senarraganik logratu zue lizenzia bizitzeko erreljiosa.

Eman zio Jangoikoak sandu goni bere espiritu suabea ta fuertea; gero entendamentu ta jakinde bat admiragarria; oneki bateo mintzaera ain ezti gozoa, ezi errenditzen zitue biotzak gustoso: Baña obeki errana da diona ebanjelioan, etzela sandua mintzatzen zena, bai Jangoikoaren espiritua berebaitan. Prinzipioan nola bera baize ain sandu, ala nai berzeak ere, ze gogorkara, sufritzeko ta emendatzeko falta dunak, ta etze ain ongi akomodatzeko guzieki, alik eta gau bates agerturik aurtto batek inguraturik ar uis manatu zion, etzezala utzi errateko bereei humeei bekala iduri zekiona; ia ez bera, baizik beraren agos Espiritu Sandua mintzatuko zela. Manamendu goneki bateo eman zekio manso amoltsuaren grazia ta dono admirable bat, tratatzeko ongi guziak, iduri baize ia gizon bat berria, edo Ama bat amorosa humeeki, baitare Aita oso zuzena bear orduan. Beretako gogor, berzeendako beratx, baña beti zuzen-bideas. Itzak ere diktatzen

zizio Espirituak noiz ta nola bear ziren. Bein ze golaik predikatzen, gogoratu zekio gauza on bat: pensatu zue obe zela guardatzea berze aldi bateko: baña erran zio Espirituak gogora, on erran arteo, etzaizu emanen berzerik: ta ala erran zue bereala. Berze bein gogoratu zekio, zein ongi doaien! Baratu ze; ezaundu zue zela Deabruaren tentazioa: errespondatu zio, eztiat asi iregatik, ta eztiat ere utziko iregatik. Berze bein bisionean eraman zute Jangoikoaren tribunalera: akusatu zue Demonioak: errespondatu zue sanduak, konfesatzen dut ez tutelera mereji gloria eternoa nik: baña ene Jaun Jesu Kristok bere du bi titulos, lenbizikoa zeren baita Jangoiko, bigarrena zeren irabazi duen bere odolaren kostus: bera dago kontent lenbizikoareki, ta bigarrenas iten dida niri grazia: onengatik eskatzen dut. Konfusio joan ze etsaia. Zer izanen da gutas?

Baña zertan agertu zen sandu gonon andia, izan ze ongi egitean Kristoren eliza edo familiari, zeren ezi bere denboran eskojiturik Aita sandu, eta Kristoren Bikario lurtean Inozentio II.a, goratu ze Zisma nonbratus Pier Leon bat ere Aita sandu; ta bazitue onek ere segizaleak, erregeak ere. Asko lekutan iten zire konzilioak deklaratzeko egia. Franzian ere egin ze, ta erregeren ta guzien ordeztu ze artara S. Bernardo: eta nola baizekite zela Jangoikoaren gizona Jangoikoareki komunikatzen zena, guzieki utzi zute beraren eskuan azertua. Deklaratu zue Inozentio Aita sandu lejitimo propio: ta ala ezaundu ta obeditu zute Franzian. Solamente Gaskuñan ta Akitanian Gillermo Dukearen, ta obispo bano baten kasos etze obeditzen. Orgatik sanduak mintzaturik Dukeari, ta ezin errendiarazirik, azkenean eliza-atarira atrarik Sakramentuareki eskuetan, an lotsarritu ta eroriarazi zue lurtean, ta konbertitu zue, nola erran zen aren bizian, ta gero Jangoikoak in zue sandu. Obispoa gelditu ze bere teman, baña goiz batez aurkitu ze ilik bere goatzean sakramenturik gabe. Pasatu ze sandua Ingalaterrara ere, ta ango errege ta erreinua ere itzuli zue Inozentioaren obediencia. Italian ere sosegatu zitue, ta Milanen, leku guzietan beiratus guziek sandua nola berze munduko gizona. Itzulirik bere konbentura, nola bere kafiara txoria, uste zue errepausatu: baña Rojerio Siziliako errege defenzatzeareki Pierleon Anakleto deitu zena, zego Aita sandua trabajus inguraturik: etzue alibiatzeko aurkitzen mundu Kristioan alakorik, nola S. Bernardo: eta ala deiturik joan ze berriz Romara, gero errege gura ta Abogatu famatuak desengañatu zitue egias: eta sanduaren orazios Aita sandu falsua emendatu naietzena heriturik akabatu ze irur egunes. Aren lekuan bere aldekoek in zute berze bat: baña au gauas etorri ze S. Bernardogana, ta utzirik insigniak sanduareki joan ta bota ze Inozentioaren oiñetara. Orreki akabatu ze Zisma gura sei urtes trabajarazi





zuena S. Bernardo, baña lagundus ederki Jangoikoaren eskuak milagroke-tareki.

Berze zerbitzu on eder bat egin zue Kristoren Elizari, baize tapatzea agoak otsoeri, diot, herejeeri. Pedro Abailardo banoa konfunditu ta konbenzitu zue konzilio batean; ezpaizio utzi itzik zer erran. Jilberto Porretano obispoa obligatu zue deserratera erran zuena. Henrike Monje galdu bat zebilana eraikitzen zizaña Elizako sakramentu, sazerdote, ta gauza guzieren kontra, ikusiarazi zue zela otso galgarria galarazten zituena jendeak, ta ala berek arrapatu rik entregatu zute preso. Sanduak sinestarazteko bere egietafedea predikatzen ziotena, berze infinizio bat milagroen artean, aldi batez ekarri ziotelarik ogi-kantidade bedekatzeko, erran zue pulpitorik, ogi gontaik jaten duten guziak sendatuko dire. Bere lagun zen obispo batek, iduriturik sobraxko errana, explikatu zue, entenda, jaten baute fede onareki, sendatuko direla. S. Bernardok, ez, Jauna, eztut nik ala erran, baizik ontaik jaten duten guziak federeki edo fede gabe, guziak sendatuko direla, entenda daien Jangoikoaren aldetik garela gu. Ala izan ze: guzi guziak, heri txipi andi guziak sendatu zire; ta alako milagroeki zer milagro da desengañatzea ta konbertitzea jendeak? Sandua bera zego admiraturik iten zuenas Jangoikoak beraren eskus, ta zio iten zuela berzeren onagatik. Obispo batek Jangoikoas eskatzen zio zoeiela baketzera aren feligresak baizeude gerran elkarren kontra. Goatzean heri zego orduan sandua; ta alaere karidadeak igiturik jaiki ta joan ze obispoareki, Jangoikoak emanen indar. Ellegatu zelaik ia zeude elkarren aurkasean peleatzeko: paratu ze erdian sandua, nola bakearen Aingirua: eta berala utzirik armak errenditu zire berak nai zuenera. Guziareki izan zue bein progaldi bat ona sandu gonek. Aita sanduak predikarazi zio gurutzada, joateko Infielen kontra, erreskatatzera Jerusalengo leku sandu gaiek. Predikatu zue milagro franko egines: Joan zire enperadorea, ta Franziaiko erregea, ta jendeketa andia; baña Jangoikoaren permisos gaizki atra zire; galdu ze anitz jende; ta itzuli zire sanduaren kontra, deitus Profeta falsua, enbusteroa, engañazalea. Sanduak apaldurik burua adoratu zitue Jangoikoaren juizio sekretoak, eta non ta etzezaten eman bere Majestadearen kontra, alegratzen ze errezibitzeas berak golpeak Jangoikoaren partez: eta berriro Jangoikoak inarazi zio berze asko milagro. Maria Santisima izan zue beti bere fabore nola Ama amantea, zeñen imajina salutatzan zue beti pasatzean ziola Abe Maria: ta bein errespondatu zio Agur ene hume maita Bernardo. Azken gaitzak artu zue sandua estomagoko mines sobra barutus; eraman zue sandu bekala konformidade, sosegu, ta alegriareki; ta

errezibiturik sakramentu guziak iltze sanduki adinaren 64 urtean, ta Kristoren 1153enean: eta Alexandro III.ak kanonizatu zue 1165enean.



## Agustuaren 24.an S. Bartolome Apostolua

Kexatzen da S. Krisostomo ezin jakiteas Apostolu sanduen bizi, obra on, ta pausu pasatu zuzten guziak, izanik munduaren erremedio eman zutenak. Au agitzen da S. Bartolome Apostolua ere, ezpaitakigu den guzia; ta ez erdia ere agian: baña dakiguna erragun. Dakigu izan zela amabi Apostoluetatik bat, arrai-arranzari zenetik arimen arranzari egin zuena Jesu Kristok. Errezibiturik Espiritu Sandua, sortez partiturik mundua amabiek, nor nora joateko predikatzer, S. Bartolomeri sortatu zekio Likaonia, baita Asia-aldean, non kristiatu zuen anitz jende. Andik pasatu ze onatako Indiara, non alaber trabajatu anitz, pasatu anitz trabaju, ta konbertiturik anitz jende, pasatu ze Armenia maior deitzen den erreinura. Emen konbertitu zue Polimio erregea, bere bizikidea, ta amabi ziadade andiak. Ebetaik batean ze tenplo bat, non adoratzen zuten jende itsu gaiek Jangoiko falsu bat, Demonio egjaskoa, deitzen zena Astarot, mintzatzen zena idoloaren agos, ta en gañatzen miserableak, sendatus heri batzuk, berze batzuk heritus iago, ta gaixtatus. Sartu ze artan S. Bartolome, eta gerostik Demonioa mutu gelditu ze arria bekala. Goarturik sazerdote deituek konsultatu zute berze ziadade batean zen berze Demonio bat, zeñek errespondatu zioten mututu zela Astarot, zeren mutuarazi zuen Kristoren Apostoluak an sartu zenak, zeñek badaki, zio, emen pasatzen dena orai, ta eztuzie aurkituko, berak ezpadu nai. Billatu zute zenbait egunes, ezin aurkitus, alik eta atrazaririk espiritu gaixtoa gorputz batetik, famatu zen. Deitu zue erregek Polemio deitzen zenak zuenak alaba bat gisa berean espiritatua: zein libratu zue istantean Apostoluak, eta orgatik bialirik erregek present andi bat, ezin aurkitu zute mandatariek. Gero Apostolu bera milagros plantatu zekio bere ganbaran, ta deklaratu zio etzela etorri tesoro-billa, baizik salbatzeagatik beraren arima. Eman zio notizia Jesu Kristos ta doktrina kristioas: ta sinesta zezan firmeago, seguiratu zio Astarot Demonio gura obligatuko zuela konfesatzera bere zena, ta iten zuena. Eta ala bildurik tenploan errege, sazerdoteak, ta jendetze andia, konfesatu zue Apostoluaren manamendus, etzela bera Jangoiko, baizik Deabrua, zeukana loturik Jangoikoak, zeñen semea Jesu Kristo iltzen gizonengatik, eta biali zituela erakustera zerurako bidea bere Apostoluak, zeñetaik bat zen S. Bartolome. Gero ikusi zute guziek atratzen Demonio gura sua zeriola, ta usai bat infernukoa. Manatu zio Apostoluak

zoeiela nora etzeien ikus. Ala desengañaturik ta sanduaren milagroeki konbertitu zire anitz, adoratzera Jesu Kristo, despreziatus lengo idolo bano gaiek: zeñen sazerdoteek inzitatatu zute erregeren anaia Astiajes persegitzera Apostolua, zein azotarazirik lenik larrutu omen zue bizirik, ta gero burua ebaki. Ortzite Kristioek honratuki, eta Jangoikoak agertu zue injustizia egin zena, zeren ezi Astiajes, sazerdote, ta berze lagun izan nak sanduaren martirioan, tormentaturik Demonioenganik iltzire miserableki guziak ogeitamar egunen barnean. Orreki gañarakoak konbertitu zire, ta errege guran omen ze ango obispo, ta aumentatu ze kristiandadea. Gero S. Bartolomeren gorputza paraturik plomusko kaja batean bota omen zute Jentilek itsasora, ta Jangoikoaren milagros ellegatu ta artu omen zute Liparin Sizilia-ondoan; andik Napolesko Benebenton, emendik gero Romara 983 urtean, non dagon benerazio andian bere eliza propioan, ugaldeak iten duen Islan &.



## Agustuaren 30.an Santa Rosa de Santa Maria

Amerika deitzen den Indian santidadearen lore lenbizikoa ta ederrena izan ze S. Rosa, jaio zena Liman buratso humil honratuetaik Aprilaren 20.an ta 1586 urtean. Bataioan deitu zute Isabel: gero Konfirmazioan Rosa, zeren jaio, ta irugarren ilabetean ikusi zen kunan bere aurpegia trasfiguraturik arrosa-lore eder batean. Gero berak jakinik motiboa, zergatik ala deitu zuten, beldurrak banidadearen, enkomendatu ze Ama Birjinai, eta agertu zekio semeareki besotan, ziola bere semearen gustoa zela dei zeien Rosa de Santa Maria, edo Santa Mariaren arrosa. Beñere etzute aitu negar egiten azi-denboran, alik eta egun batez Amak atra zuen etxetik ermateko señora baten etxera, eman zio negarrai ainberze ain samiñ, ezi prezio izan ze itzultzea, ta itzuli orduko guzia ze irri ta aleganzia. Irur urtetaik gora ia mostratzen ze juizio anditakoa, ta gero izanen zena, espezialki pazientian, ezi eri bat maltrataturik kuratzean asko denboras, lotsatzen zirelaik ikusteas ere, bera beñere etzute ikusi txinka bat egiten. Oroat grano batzuk atrarik buruan, Amak ustekabean bota zitio solimanaren errautsak: erretzen zioze burua oñaze alakoeki, ezi gorputz guzia ikaratzten, ta kolorea galdu zekio; alaere galdeginik ia oñaze anitz senti zuen, ezta kontatzeko, zio: alik eta agerturik ikusi zuten ainberze anpolla ta Laga, arriturik nola sufritu zuen ixilik laur urtetako aur batek; ta oroat izan ze gero kuratzean berrogei ta iago egunes. Adin gartaik ia asi ze aborrezitzen gorputza kompasionerik gabe, ta lotsatzen solamente bekatuaren aipatzeas ere: ta bortz urtetan ia Jangoikoaren amorez egin zue boto kastidade perpetuoaren, ta ebaki zue buruko biloa: ta aborrezitzen zue edozein gala ta itxurapen. Agitz ze obediente Amari, ta bein señora batzuek nai ziotelaik paratu buruan koroa loresko bat, etzue konsentitu, alik eta Amak manaturik paratu zue, baña nola? frinkatus orratz andi bat buruan mortifikatzeagatik, zein gero ezin atras, prezio izan baize Barbera. Guziareki Amak nai zue adorna zeien: sandak humil errepugna: gero ere logratu zue porfia utses bestitzaea habitu honesto llano bat. Pobreak iza-teareki buratsoak, sanda, baize esku onetakoa, trabajatzten ze sustentatze-ko gau ta egun, naiz heri senti zen, eta erraten ziotenei utzezala lana, zegolaik ain gaizki bera, errespondatzen zue, nik ez dezaket falta buratsoen sokorruai, naiz iltzen banego ere. O hume ona!

Ia adinera ellegatus, ain ona, ederra, ta juiziosoa ikusirik, nai zute askok bizikide: Bere Amak zue gogotik berze Ama alargun abrats noble baten seme bakarrareki akomodatzea, guziok ala erremediatzeko. Bi Amak konformatu zire ia: ta Rosari bereak proponitu zio konbenienzia on gura. Sandak sentitu zue ain alzina pasatua, ta modu onareki desengañatu zue; dagolaik bakotxaren eskuan eskojitzea estado dagokiona, eskojiturik zeukala berak ia Jesu Kristo bere esposotako, etzuela utziko sekulan ere, munduko erregerengatik ere, ta niork etziola kenduko on burutik ta ez biotzetik: debalde ibiliko zirela. Emasteki bekala asarratu zekio Ama, tratatu zue gaizki itzes, ta eskus ere, arrastatu arteo lurtean. Akuditurik arrotuetara etxekoek, ta aditurik kausa, guziak sandaren kontra: eta sandak andik alzina determinatu zue imitatzea S. Katalina de Sena izan zena gisa berean. Iraundu zue martirio eman ziotenak asko denboras; sanda geroago ta firmeago bere propositoan. Noizbait Ama desengañatu ze, ta utzi zue bere tema sanduan. Bestitu ze S. Domingoren habitua, ta oneki S. Katalina Senakoaren espiritua. Humildade andi bat paratu zue zimendu: kontatzen, ta tratatzen ze guzien menosena bekala. Konfesatzean, naiz konfesoreak zebiltzan ezin aurkitus zertaik absolbitu, konfesatzen zitue bere falta andi iduri zekizkionak ainberze pena ta negarreki, ezi ikus lezakenak lezake pensa zela bekatari andi bat. Bere erioa ze lauda zezaten, ta berzeek nai luketena iduri ona ze berarendako, pena ta beldur izateko. Laudatu zio bein emasteki batek eskuen txuria etzuela ikusi ederragorik: biramonean sandak kalzina bizis egin zitue ain erru, ezi beterik anpollas eta sues ezin kuratu zuzte anitz egunes. Ez luke atra nai bere erretirotik, baña Amak kunplitzeagatik berze señora ikusi nai zutenen gustoareki, joanarazten zue bereki: Goiz batez erran zio, joan bear zutela arratsaldean señora baten etxera. Sandak belauriko eskatu zio etzezala eraman: ezin errekatatu zue: baña zer egin zue? zego entradan ogi iteko labea, ta pasatzerakoan Amaren atzetik bulkatu zue labearen agoko arlaua ta eroriarazi zue bere oiñ gañera: Lastimatu zio ainberze, ezi pausurik etzuke eman. Orreki utzi zue Amak etxean nai etzuela bortxa, ta bera naiz oñaze andieki gelditu ze kontent. Gero sendatu ondoan, nai zuelaik Amak atrarazi etxetik bisitara, artu zue berze medio bat, baize untatzea begiak pimentoreki, zeñeki sutan paratzen zekizkio, ta anditurik, ezaizekioke beiratu. Amak ezaundurik akar iten zio, paratzen zela peligroan galtzeko bista: Sandak errespondatzen zio, agitz obeki legokida izatea itu, ezi ez ikustea banidade ta peligro direnak mundu gortan. Ala etzue ia eramaten bisitaetara, eta sanda solamente atratzen ze an urbil ze on konbentuko elizara enzutera meza, konfesa ta komekatzera, ta ez



berze prozesio, funzione, ta festa alakoetara: zergatik ez? zergatik pena andia ematen zioten banidade ta itz gaixto usatzen zirenek. Exkusaturik joatetik bisitaetara, etzeike exkusa errezibitzeas señora eldu zirenak beraña, baña logratu zue etzeien jarduki, baizik Jangoikoaren gauzak. Ia gero erran zio bere adiskide batek, orai ia ezpide duzu desplazer bisitaes, ezteilaik berze konbersaziorik, baizik Jangoikoaren. Errespondatu zio, Jangoikoaren gain baño obe da Jangoikoareki konbersatzea.

Bere gustoa ze konbersatzea bere Jangoikoareki orazioan. Agitz aurra zelarik afizinatu ze orazioan egotera bakarrik zokoren batean; aurkitu zue bein ala leku ilun batean bere anaiatuo batek irri egiten ziola egoteas ala, ta ez berze aurreki txostaketan. Errespondatu zio sandattoak, uz nazazu nagon emen bakarrik ene Jangoikoareki, baitakit dagola nereki emen, ta eztaikit ala nai duen jostaketan dauden lekuan. Inarazi zue baratzean hermita, edo etxola gisa bat txipittoa, laur oiñ zabal, borz luze, ta sei gora: emen obia gisa gontan egoten ze, naiz ertxikara gorputza, desoagaturik gogoa. Konfesoarek ikusirik txanzas erran zio, zabalegi zela, bear zela meartu iago. Sandak errespondatu zio, Aita, naiz ertxikara iduri zaion ene zelda gau, abasto da egoteko nere Esposo Jauna ta ni emen. Ta ala egoten ze denbora al zuken guzian, elebaturik geienean, nola balego zeruan. Andik milagrosoki enzuten zitue mezak erraten zirenak konbentuan. Eltxo-kantidadeak iten zio konpañia, baña batek ere ez pikatzen, baizik goiz arrats iten zute musika miragarriri: Ala erraten zioite sandak goizetan, ea ene adiskideak, goazen laudatus gure Jauna; ta oroat arratsetan: ta asten zute beren musika, manatu arteo ixiltzeko. Gaste eder usatu ze pasatzera sollik bi ordutako loareki; gañarako ogeita bietaik amabiak enpleatzen zitue Jangoikoareki orazioan, ta debozioetan, berze amarrak lanean mantenitzeko buratsoak: baña lanean ere, ta loan ere zego arima gura konbersatzen bere Jaunareki. Ortzegunetik igande-goizeraño ematen ze Jangoikoai berex kontenplazioan elebaturik jan ta edan gabe. Andik izan ze aren Jangoikostatzea ainberze, ain Jangoiko onaren konforme ona, garbia, sanda azitzea. Bere konfessore ta predikariei konsejatzan ziote afizionaraztea arimak izatera orazio, nola erremedio jenerala oneratzeko.

Orazioaren aizpa, ezin daikena aurkitu apart elkarrenganik, da morfifikazioa ta penitencia. Ontan egin zuen geiegia sanda gonek, ez leike sinesta, ezpalitz Jangoikoaren inspirazio eta auxilios. Sel urteetaik gora barutzen ze ogi ta ur solles asteoro irur egunes. Amabortz urtetan egin zue boto ez jateko aragirik, ezpaze obediencias: obligatzen zute bein edo berze, baña ze tormentutako, ezi bereala egotzi bear zue, eta zerbait gelditzen bazekio, gaizkitzen ze. Sendatzeko manatzen ziote medikuek aragi-

zuku ta gauza: ta iago heritzen ze, ta ogi ta urareki sendatzen ze. Ala desengañatu zire barua zela bere erremedioa. Ikusteas ordea ain jan gabe, aflijitzen ze Ama: ta alaba obedientak konsultatu zue Jauna: ta Jaunak segiarazi zue bere baruan, kuidatuko zuela aren bizias bere Majestadeak. Bi baru-genero zitue; bata ordinarioa ogi ta ur solles: berzea extraordinarioa deus jan ta edan gabe egun guzian: au deitzen zue bere barua, ta usatzen zue anitz biziaren ezkenean. Sta. Kruz Urrikotik garizumaraño egunoro baru ogi ta ur solles: garizuman etzue deus ere jaten asteaz, baizik ortzilarean borz pepita naranjaren Jesusen bortz lllagen memorian. Askotan egoten ze amaborz egunes, ta ilabete bat ere jan eta edan gabe sollik aldareko sakramentuareki. Baño iago arritzeko zena ze, alaere izatea indar, egiteko lan ta penitencia sendoki. Gauoro disziplina katea burriñas-koes odolestas lastimosoki. Debekatu ziotelaik disziplina gisa goi, suplitzen zue berze bateki, ta katea inguraturik gorputzean, ertxiegi sartu zekio aragiak barna: Gaizkiturik orgatik, ta ezin berak lazatu, ta eznai niori agertu, enkomendatu ze Jaunari, ta erori zekizkio kateak. Berriz nai zue paratu, baña debekatu zio konfesoarek: Baña bat naiz debekatu, injeniatzen zue berze bat, baizego beti pensatzen nola kastigatu. gorputza. Bestitu ze zilizio lotsagarri bates: burua koronatu zue estañusko koroa bateki itzetto batzuk barneko aldetik: gero estaña etzela gogor aski, egin zue zillarres aro gisa bat armaturik puntzikas barnetik, ta asentatzeko buruan ongi, ebaki zue nabalas bilo guzia, utzirik solamente alzineko aldetik bilo puska bat, estaltzeko arrekio koroa; eta au eraman zue ilartaño, aldatus egunoro, ta berritus llagak. Bere etzitea ze ol uts batzuen gañean, aurra zenetik. Amak goart emanik, ta etzinarazirik almadrakan, bazue injenio, lo zeudelaik, ura kendu ta paratzeko olak desbardin, iago penatzeko. Gero azke nerat, egin zue goatze bat tronku desbardin batzueki, ta ertekak tellapuska batzueki, lastimatzen baiziotte gorputz guzia, ta ez deskansatzen. Gau batez guti bat beldurti zegolaik erreklinatzeo artan, agertu zekio Jesu Kristo, ta erran zio pensa zezala nolako goatzea izan zuen kalbarioan. Oneki animatu ze, ta ia etzekio iduri martirio, bai erregalo; ta alakoa usatu zue amasei urtes.

Baña zer etzue eginen Jaunaren amores arima garrek amatzen zue-nak iago ezi den guzia? Bada ala amatzen zue Jaunak ere bera. Bein zegolaik orazioan, Ama Birjina errosariokoaren alzinean, ikusi zue beiratzen ziola amoroso aur dibinoak besotan zeukanak, ta erraten ziola, *Rosa, ene biotzeko arrosa, zu izan bear zara nere esposa*. Biotza saltatu zekio ezin kabitus petxoan, ta erori ze desmaiaturik. Akorritu zelaik beiratus Jaunaren andia ta bere txipia, etzekie zer erran. Ama Birjinak orduan, Arrosa, beira



nolako faborea iten dizun ene seme Jaunak. Itzuli ze alako faboreareki zoraturik bekala kontentus, eta señaile bat nai zue egin memoriatako, au da erastun bat, zeñen erdian zegon inprimiturik Jesus; anai bati enkargatu zio egitea modela, ta letra iduri zekiona inguruan: anaiak erran zue, au da letra paratu bear dena, *ene biotzeko arrosa, zu nere esposa*: baizire itz berberak aur dibinoak erranak. Admiraturik nola erranarazi zion anaiari on beroi, inarazi zue ala erastuna, ta ortzegun sandu egunean pararazi zue sakramentuaren urnan: eta bazkoa-egunean etorri ta sartu zekio erastuna biotzeko erian, au da txipienaren urbileanean, gelditus bera seguraturik ta agradeziturik, eskojitu zuela Jesus onak bere esposatako. Andik alzina, gorputza naiz lurrean, gogoa bizi ze zeruan; angoek beiratzen zute bere-na bekala, Jangoikoak, Ama Birjinak, Aingiruek, sanduek guziek festejatzan ta erregalatzan.

Guziareki bizi ze, nork pensa? beldurak galdu bere Jaunaren grazia ta gloria. Baña seguratzan zue bere esposo dibinoak. Bein elebaturik espirituan ikusi zue lekua beterik arrosas: ta agerturik Ama Birjina semeareki besotan, Jesus dibinoak manatu zio biltzeko arrosa gaiek: Bildurik ofratu zizkio aur dibinoai berai: baña bat sollik artu zue, ta erran zio, *zu zara arrosa gau*; ontas kuidatzea dago ene kontura: gañarakoek in zazu nauzuna. Oneki ia seguratu bekala ze bere salbazioas. Berze bein alaber zegolaik beldurti, seguratu zue berriro Jaun onak erratan ziola, *arimo ona izazu, ene alaba, ezi nik eztut kondenatzen baizik nai dena kondenatu bera*. Ia gerostik bizitu ze alegre seguraturik bere salbazioas: eta konfesoreak bein erranik etzeiela fia, baizik beldurak joan obratus; ezi bazeikela erori ta galdu. Errespondatu zio, ene Aita, ongi konsejatzan dida, al banezake nik obeditu: baña nai zelaik ain bekataria ni, ain ona da ene esposo Jauna nereki, ezi ez dezaket duda beti guardatuko nauela. Ala zego amorosturik arima gura Jangoikoaren onas, ezi ia ezin mintza, ezin pensa, ezin errespira zezake besterik, ezpaze bere onetsia: ta beraren amores guziak nai zitue, ta nai luke ama zezaten guziek bere Majestadea, eta bere pena sollik ze baita ofenditua: O Jauna, zio, nola da amatzen eztuenik? Zertako da biotza? Bein ikusirik Ama negarres desgrazia batengatik, Ama, erran zio, eztire negarrak berzeetako, baizik Jangoiko Jaunaren ofensendako. Eta ala sandak iten zue negar bekatuan daudenengatik, ta estado gortaik atrazeagatik pasatzen zue asko penitentzia ta pena, ta pasatuko zuela, zio, edozein tormentu. Orgatik konsejatzan ziote sazerdotezi joatea konbertitzera infielak ta bekatariak. Bere konfessore bat zego joateko, baña beldur peligroes; sandak animatu zue, bidoeie ene Aita, ez lotsa deustas; bidoeie konbertitzera miserable gaiek; Jangoikoai gizonen in dezoketen zerbitzu-

rik obena da konbertitua arimak. Eta zer ditxa andiago nai du, nola sartzeta zeruan bat baizik ezpada ere? Niri balegokida, ibili nindeike karrikas karrika gurutze bateki predikatzen. Baña iten zue inala, ta oneratu zue anitz. Nork erran gañarako birtuteak? Nork Jangoikoaren erregalo eginak? eta nork proguak, ta trabajuak, ta aflikzio permitituak errefinatzeko iago? Adinaren ogeitamar urtetan montiatu zire penak eta doloreak ezin iagos, arritzen zela bera, nola zeiken izan gorputz batean ainberze gaitz. Deshauziatu zute medikuek; baña berak zio etzela ilen artaik, naiz irauen zioten akzidente geienek ilartaño. Baña animosa alaere zio, Iago, Jauna, iago dolore, nola eman dezadan pazientzia. Kunpli bere borondatea. Azken heritasunean eman zue iago exenplu santidadearen. Bazekie eguna, noiz bear zen joan mundutik. Prebenitu ze berriro, errebitus mugonez sakramentuak debozio admirableareki: Trabajuen erdian konsolatzen zue Jaunak mostratus premio emanen ziona. Deitu zitue bere Aita ta Ama; eskatu ziote barkazio, ta bedeizioa, joateko berze mundura. S. Bartolome bezperan bere konfesoreak bazela oraño denbora, nai zue joan etxera: ta sandak erran zio, xakin bez, Aita, gaur joan beautela, ezi konbidatu naute zerura: ezta ongi joatea, daudelaik idikirik atariak? Ala izan ze: gauerdian leitzerakoan arimaren errekomendazioa, begiak fixo zeruan, ziola, Jesus biz eneki, iltze ditxosa ogeita amabi urtetan, Kristoren 1618 garrenean galdu gabe beñere bataiarriko grazia &.





## Agustuaren 31.an S. Ramon Nonnat

Afizionarazteko zerbitzatzera Jangoikoai eta Ama Birjinai da propia S. Ramon Nonnaten bizia. Izan ze katalan, Portel deitzen den erri batekoa, jendaki agitz noble anditakoa. Bere Ama zegolaik erditzeko egunetan, joan ze konfesa-komekatzera, eta egin ondoan itzulirik etxera eman zio akzidente batek ain erru, ezi erremedio guzien bortxa edeki zio bizia ordu gutiren barnean. Etzire oroitu, edo etzute nai izan du idiki gorputz ila, atratzeko aurra, alik eta ellegaturik Kardonako Bizkondea, aide zena, ogei ta laur orduen buruan, ia ila ortzi nai zutelaik, manatu zue idikitze-ko, naiz Medikuek uste zuten zela alfer lan: baña asi orduko saiets batetik idikitzen, bereala aurak andik atra zue beso eskatzen bekala atra zezate-la obia gartaik. Atra zute bizirik, admiratus guziak, ta alegratus Jangoikoaren prodijioas. Bataiatu zute bereala, izanik Aitabitxi Bizkondea bera, zenen izena eman zioite Ramon, ta gero jendeak paratu zio izen-gañekoa Nonnat, baita nola ezjaioa, ta sanduak etzue errehusatu, iteko memoria Jangoikoak in zion faboreas. Obeki mostratu zue bizimoduas bizitus nola ezjaioa mundurako, baizik zerurako. Ze agitz aplikatua estudioetara: estudiatu zue ederki gramatika, Filosofia, ta Teologia. Nai zue segitu eliza; baña Aitak etzue nai, baizik munduko. Segitus bere teman biali zue Aitak an montañan zuen etxe ta heredaje batera, kuida zezan haziendas. Obeditu zue; joan ze, ta aurkitu zue an S. Nikolasen hermita bat, non zen Ama Birjinaren imajina bat. Emen bere gustora egoten ze bakarrik bere Ama Birjinareki errezatzen, ta afektoa mostratzen. Bean ala zegolaik orazioan, mintzatu zekio imajinaren agos amorosa, *ez lotsa, Ramon, ezi nik artzen zaitut ene humetako, eta zuk dei nazakezu ni zeure Ama, ta akuditu ene anparora konfianza onareki*. Beira zein admiraturik, kontent, ta agradezituri segitzen bidezuen gerostik kuidatzen, ta garbitzen hermita gura, adornatzen ta lorestatzen aldare ta imajina gura, prinzipalki abe marien arrosaes Errosarioareki egunoro. An ardiak kuidatzen zuen Arzaia bialtzen zue berze lanetara, kuidatuko zuela berak saldoas, gelditzeagatik bakarrik; ta orduan bere iteko guzia ze hermitan bere Ama Santisimareki, ta askotan ikusi ze bitartean Aingiru bat ardiak guardian.

Demonioa inbidias ikusis mutil sandua ain faboraturik Ama Birjinaganik, ta Aingiruen ganik, agertu zekio Artzai zar baten idurian, bizar andi bateki, ta burua billurdundurik; ta konsejatzzen zue etzegokiola ongi arren

adi nai ta jendakiai Artzaingoa; itzuli zeuela bere palaziora, ta bere Kabilero-laguneki diberti zeuela; eremuak zirela on bekatari zartuendako, baña ez arrendako, gozatu gabe oraño mundua; adi nai berea eman bear zaio-la, orai dibertitu, ta bizitu alegreki gustoetan, ta gero erretiratu zarzutuan. Ala segiarazi nai zio bide zabala, ermateko bere lekura. Mutil sanduak errespondatu zio, nik eztut segituko berze doktrinarik, ta ez biderik, baizik erakusten didana ene Ama Santisima Mariak. Itz gau aitu orduko joan ze iges firrindaka madarikatua: eta sandua sartu ze hermitan ematera graziak, ta eskatzera fabore. Orduan agertu zekio eder gloriosa; ta galdegirik sanduak ia zer in zezaken beraren zerbitzutan ainberzeko faboreen ordañatan: errespondatu zio Birjinen Birjinak, *Geienik kuadratzen zaidana da ofrez dezadazun guardatzea kasto garbi arima ta gorputza*. Bereala egin zue boto birjinidadere perpetuoaren. Alaber izan zue erbelazio, sartzeko erreljioso S. Pedro Nolaskok fundatzen zuenean, erreskatatzeko kautiboak. Logratu zue lizenzia Aitaganik Bizkondearen medios: eta jaintsirik habitua, errebestitu ze fundadorearen espirituas, eta sandu zena len zoeie iago ta iago sandutus egunetik egunera: prinzipalki anhelatzen zue egitera bi zerbitzu Jangoikoai in daizken andienak, baitire irabaztea arimak, eta ematea bere bizia ta odola Jangoikoaren gloriatan. Ordenaturik sazerdote Ama Birjinaren manamendus, asi ze predikatzen, ta konbertitzen jendeak alako fama ta kreditareki, ezi deitzen zute fraile sandua, ta Jangoikoak konfirmatzen zue milagro andi klaroeki. Señora batek erreprehenditzen zitue etxeko nirabe gaixto batzuk beren gaixtakeria iten zuztenengatik. Zer in zute aiek? Akusatu zute falsuki deshoneskerias Nausiari, zeñek bere suan itu itsua josi zue puñaladaka. Laster penatu zekio, ezaundurik etzuela egin alakorik bere esposak. Joan ze S. Ramonengana kontatzera bere lan gaixtoa, ta negar ta negar. Sanduak orazio eginik, ta Jangoikoaganik argiturik erran zio, bidoeie etxera, ta aurkituko du bizi ta sana bizikidea, nola libre akusatu dutenetik. Ala aurkitu zue: eta mutil gaixtofika-tuak iges joanik arrapatu zuzte egun berean, ta berze asko delito progaturik sentenziatu zuzte urkatzera, ta urkabearen oñean konfesatu zute testimonio falsu goratu ziotena.

Biali zue S. Pedro Nolaskok S. Ramon Arjela erreskatatzera Kristio kautiboak: Joan ze kontent, ta erreskataturik anitz; nai ta ezin guziak dirufaltaz, berze anitz logratu zue pagatzera gero, ta bera gelditu ze fiadore, padezitu naiez. Etzuke sufri jende gaien egotea errearen ilunbean: erakusten zioite zuzen-bidea, disputatzen zue aieki, ta irabazi zitue ta bataiatu prinzipale zenbait; eta zebaturik eizia gisa gartan segitzen zue. Baña xakinik ango buruzagiak inarazi zue preso, ta golpatu ta maltratatu milla



maneras: sanduak guzia sufri animoso alegreki: konsolatu nai zutenei zio, *ezta zer konsolatu itzes konsolatzen duena Jangoikoak penes: ta eztu konsolu-be- rrik duenak bere konsolua padezitzean. Iza zie inbidia niri, ta ez lastima, ezi pena geben ertean altxatzen da gozo andia, ta galdu ustean irabazten da. Anima zaizte zuek ere zio, padezitza Kristoren amarez, ezi ontan aurkituko duze tesoro pre- zioso altxatua.* Eskarmentatu bearrean kastigoeki, egarritu ze iago irabazi naiez arimak eta martirioa. Karrika ta plazaetan pregonatzen zue Kristo- ren fedea, konfirmatus Kristioak, ta konbertitus Moroak. Suturik orgatik buruzagiak manatu zue eraman zezatela biluxirik karridak barna, ta azo- tatu publikoki, ta plaza-nausian gero ezpañak zulatu, ta para zezotela sarraiu bat agoan ertxi ertxia, etzezan ia aipa Jesu Kristo. Ala in zute: Ala zeramate: zer da gero? naiz ia ezin mintza agoas, bere pazienza, ta kora- je, ta alegria mostratzen zuen gura, bere odol zerion gura zeude klama- tzen egietafedea. Ortzi zute kateas loturik kalabozo ilun batean: an iduki zute zorzi ilabetes, irur eguntaik irur eguntara emanen sustentu, etzeien il, baizik bizi luzaro penetan, kendus ta paratus aldioro zerroju gura, ta berritus lllagak eta oñazeak. Baña ilunbe gartan gozatzen zitue zerutik argiak, bisitak, ta konsolazioak. Aita sanduak egin zue bere Kardenale: Berri gau eraman zio bere lagunak, ta bateo manamendu, itzultzeko Espanara, ezi an gelditzen baze, segituko zuela bere teman, ta Moroek ilen zutela. Itzulirik Barzelonara errebitu zute ponpa andiareki Martir bizia bekala. Deitu zue Romara Mita sanduak: eta joaterakoan Kardona- ko Bizkondearen etxean heritu ze gaitz andi bateki: ta ezaundurik deitzen zuela Jangoikoak beregana, eskatu zue Biatiko sandua len baño len: baña berantzen zuelaik sazerdoteak, bitarteo klamatus zerura, ekarri ziote Ain- giruek, edo Aingirus akonpañaturik guzien Jaunak, zeñen eskutik kome- katurik, ondorean entregatu zue bere espiritua 1240 urtean. Non ortzi beartzen gorpuz sandua, pleitu arturik, paratu zute mula itsu batean; au zuzen zuzena joan ze hermita gartara, non asi zen sandutzen: an kendu- rik kaja, iltze mula. Bereala milagroak abasto, ta debozioa, zelebratzeko sandu &.

Bened. XIII. anno 1414 canon.: dein Alex. VII. et Clem. X.

## Urriaren 4.an S. Rosa de Viterbo

Noizean noiz Jangoikoak bere familia munduan dela Kristiogendea mostratu du milagroeki ere, bear denean. Federiko II.enperadoreak per- segitzen zuelaik Eliza ta bere Aita sandua, ellegaturik Viterbon ura bere soldado herejeeki, jaiorazi zue an Jangoikoak S. Rosa milagrosko sanda. Jaiio ta fite mostratzen zue bazuela ezaumentu, ta mintzatzen asi ze goiz eder, ta lenbiziko itzak Jesus ta Maria. Bigarren urtean mostratzen zue anitz debozio Jangoikoaren gauzetan, espezialki aditzean Jangoikoaren itza. Txoriak ta usoak etorririk zebiltza txostaketan bekala aurttoareki: eta ia adin gortan bazekie orazio egiten belauriko Jangoikoaren aurrean: ta Jangoikoa ere bai agertzen bere eskojitua zela. Bi urte bete zituelaik, iltze- kio bere izeba bat, ta pasaturik egun bat ososoa, ikusirik sandattoak ila atautean eramateko ortzitzera, ellegatu ze, ukitu zue eskuttoas, ta deitu zue bere izenas; eta istantean biztu ze ila, ta bizitu ze gero asko urte. Mila- gro goneki animatu zire katolikoak emateko herejeen kontra, bota zuzte ziudadetik, ta libratu zuzte anitz kardenale ta katoliko preso zeuzkitenak. Jangoikoaren amores eta zelos erretzen ze aurttoa; egoten ze sakramen- tuaren prezianian ain debota, ezi guziei kausatzen ziote admirazio ta debozio: bada predikuak aditzen zitue ain atenta, ezi errepetitzen zitue osoki ta grazia andiareki. Pobreen humea ze, ta pobre zaren amante: irur urtetan ibiltzen ze oiñ urtuxian, ta jaintsirik sergas, ta burua beti agerrian, otz edo bero zen, ateri edo erauntsi: ta kostunbre gau guardatu zue bizi guzian. Ederra ze idurian ere, baña ain modesta humila, ezi beiratzen zutenak sentitzen zire inklinaturik laudatzera Jangoikoa. Etzekie goratzen begiak, ezpaze zerurat. Berze alde ain penitziara emana ze, ezi arrizioa baize nola bizi zen ain guti alimentaturik, ta ainberze mortifikaturik. Bere etxetean billatu zue zokorik erretiratuena, non egoten zen Jangoikoare- na bekala bere Jangoikoareki zeiken guzian orazioan. Nork erran izan zituen erregalo zerukoak, Jesu Kristoren, Ama Birjinaren, ta Aingiruen bisitak? Nork milagro obratzen zituenak? iduri baitu bere eskura zeukala Jangoikoaren esuka!

Bere aldetik ere disponitzen ze al guzia: Jangoikoarenganako amorea aipatu dugu, baña proximoen amorean ta pazianian ageri ze. Iduri zue egin zuela Jangoikoak bere limosnera, ezi bearrean ziren guziak, triste, afljiturik, neke penatan, guziak eldu zire Rosagana, ta guziak itzultzen



zire konsolaturik, ta zeikenaz erremediaturik. Debekatu zio Aitak ematea etxetik deus ere: baña zer egin zue sandattoak? edo obeki errateko, Jangoikoak? Berai ematen ziotenetik guardatzen zue geiena, ta zoeie emanen artaik, ta bere eskuetan aumentatus eman ala eskastu gabe. Aurkitu zue Aitak, zeramala bein altzoan bultu bat; pensatu zue ogi bide zela: errejistratu ta aurkitu zue arrosak zirela. Ezaundu zue Jangoikoaren milagroa. Bere Amari ebatsi ziole ollo bat nabarra: orgatik ta pobre zenagatik estimatzen zuena; inkietatu ze Ama anixko; eta Rosak jakinik nor zen eraman zuena, joan ta ixil ixila ta humil humila eskatu zio emastekiari, itzuli zezola: emastekiak ez itzuli, bai oiuz asarre tratatu zue gaizki sanda: baña Jangoikoaren permisios istantean lumastatu zekio aurpegia miragarriro, zeudelaik beira arren oiuetara bildu zirenak, arriturik ta irris: orduan bere alkaizunareki humildu ze ta konfesatu zue, ta agertu zue olloa, ta itzuli zue. Rosak lastimaturik in zue orazio, ta bereala itzuli zekio aurpegia lengo estadora. Zazpi urtetakoa zelarik bialirik Amak iturrira ur eske onzi bateki; berze lagun bati autxi zekio berea, ta asi ze negarres, ta erraten autxi ziola Rosak. Aren Amak etorririk, ta sinestaturik bere alabak ziona, oiuz kulpitzen zue Rosaren Ama konsentitzen zitiola ebek ta berze alako gaixtakeriak sanda-itxuran; ta biak ala Ama nola alaba zirela hipokrita enbustera batzuk. Rosak sosegu onean nai zue palakatu emasteki iratua itz oneki, baña etzuketelaik ta biltzen zelaik jendea ogetara, artu zue mediorik obena, baize itzultzea oso bere onzia: ta ala bildurik zatiak eskuetan zeuzkiela, goraturik begiak zerura in zue orazio, ta momentuan agertu ze onzia oso, ta itzuli zio emastekiari, admiratus guziek sandattoaren ona, pazientzia ta grazia.

Nai zue izan erreljiosa, baña aur izanes edo berze kausas etzute admititu an zen Monjaen konbentu bakarrean; baña sandak bere etxettoa in zue konbentu: emen zerama bizimodu bat erretiratu, penitentea sandua miragarriro. Guzien ganetik progradu zue Janoikoak heritasun luze bateki iago ezi urte atez; ta uste zute il zela ere; baña eriotze uste zutena izan ze extasis edo elebazio sobrenaturale bat irur egunes iraundu zuena, zeintan ikusiarazi zio Jangoikoak gloria zerukoa, baitare infernuko pena lotsagarriak. Eta itzulirik berebaitan asi ze exortatzen guziak egitera penitentzia, kontatus ikusi zuena. Sendatu zue osoki Ama Birjinak, ta beronen manamenduz biramonean presentatu ze tenploan, ta ebakirik biloa bestitu ze S. Franziskoren habitua ekarri ziona Ama Santisimak: ta oiñ urtuxian guruze bateki eskuan predikatzen zue penitentzia, arritus guziak, prinzipalki herejeak. Eta etzitue oraño baizik bedratzi urte: baña Jangoikoak nai zue mostratu bere graziaren podorea aurtto gontan. Berak pre-

benitu, berak errebestitu ta armatu zue bere Espirituas. Agertu zekio bein guruzean josirik, llagas beterik, odola zeriola, uzia lastima bat eginik. Lastimaturik Rosa desmaiatu ze penareki; ta akorritu zelarik galdegintan zio, *Jauna, Nork paratu du gisa ortan?* Errespondatu zio, *Amoreak*. Rosak: *nork josi du ala guruze gortan?* esus onak; *bekatuak ta gizonen esker gaixtoak*. Klamatu zue orduan Rosak, *Jauna, misericordia, misericordia*. Erori ze berriz lurrean ila bekala: eta gero ere akorriturik, ta odolestaturik eman zen golpeeki negarra zeriola atra ze guruze bateki eskuan karrikas karrika oiuz predikatzen penitentzia, ta beraxten ez solamente biotzak, baita arriak ere. Erruki mortifikatzen ta martirizatzen zue bere gorputz inozentea Rosak; baitare bera erregalaten miragarriro Jesus onak bear orduan. Agertu zekio glorioso, alegratzeko bere Esposa bekala, ta bete zue argis ta xakintasunes bere misionaria bekala. Orgatik egunoro atratzen ze karrikak barna bere kruzifixoareki eskuetan, ta iganik pulpitoetara elizaetan, eta karrikaetan silla ta alkien gañean predika zenzue fedearen ta legearen guardatzea, Aita sanduaren obediencia, ta bekaturen penitentzia, ainberze testimonio sagratueki, Aita sanduen sententzia ta arrazioeki, ezi baize klaro, Jangoikoa mintzatzen zela aren agos. Milagros konfirmatzen zue egietafedea maiz egunoro; eta etzeikelaik ikusi lurretik, airean goratzen zue Jangoikoaren birtuteak, ta ala airean goraturik milagros konfirmatzen zue eliza sandaren egietafedea, ta konfunditzen herejeak. Ebek iras akusatatu zute sorgin bekala, enbustera, ta jendearen alborotazale, eta eraman zute maltratatus arrastaka biloetaik, ta paratu zute karzelean amar urtetako neskattoa zelarik, atra gabe itzik agotik, baizik au, *Bizi bedi orren fedea, Jauna, ta guarda bere Kristio fielak*. Bortxatunai zute Jueza, emateko sententzia eriotzearen, ta Juezak aldatu zue desterruaren sententzian atra zeizen zitudadetik bera ta bere buratsoak. Atra zuzte golpatus moldegaizki, ta utzi zuzte kanpoan Abenduaren otzenean elur izotzketan. Gau gartan guardatu zitue bizirik Jangoikoak, ta biramonean joan zire Sorianora: zitudade gau guziau konbertitu zue, ta konsolatu seguratus ilen zela enperadorea andik guti, nola il baize. Erri guzietan egin zitue prodijioak, espezialki Bitorkianon: Emen konbertitu zue sorgin bat zeukana engañaturik jendea, obligatu zelaik sanda sartzera hogera batean egietafedearen progutun. Egin ze hogera andia plazan; deitu ze jendea soñatus ezkilak; eta sanda oiñ urtuxian ta buru agerrian sartu ze formatus guruzearen señailea: sugarrak goratu zue airean gora; gero jautsi ze, ta zebila paseatzen suan, nola loreki batean, alik eta anitz denborain buruan atra zen mellarik gabe. Oiuz klamatzen zue jendeak misericordia; ta berze miserable



gura lotsarriturik animatu zue ta konbertitu sandak, zein iges laudarioe-taik joan ze andik berze lekutara misionatsera.

Aita sandu Inozentzio IV.ak aditurik santidade ta prodijio Rosarenak, 1252 urtean eman zio potestade predikatzeko Kristoren ebanjelioa non-nai, zituelarik orduan amabi urte. Segitu zue nola len obratus infinizio bat milagro, ta logratu fruitu infinito: gero ikusirik Eliza libre Tiranoaren persekuziotik, fedea triunfante, herejia oinperaturik, erretiratu ze bere adinaren amaborzgarren urtean. Enzerratu ze bere zoko gartan prebenitzeko iltzera: irur egunetaik batean sollik artzen zue sustentu eskas bat: asteak pasatzen zekizkio lorik in gabe, ta iten zuen pixka ze ol batzuen gañean. Eztaike erran penitentzia ikaragarria iten zuena. Eta nola orazio kontino gura? Bi urte pasaturik ala ertxirik, ia uste zute Amak ta bere lagunek iltzen zela, ta zeude negarres. Sandak desengañatu zitue etzela oraño bete plazoa. Segitu zue bere penitentzian, ta azkenerat izan zue bisita andi bat zerutik; eta sandak belauriko zio, *o ene Jangoikoa ta ene Jesus ona, lauda bezate gauza guziek. Ori enegatik? etze aski orren borondatea? Ea, Jauna, enen nauka obediente, kunpli bedi bere borondatea.* Eskatu zitue bereala Elizako sakramentuak, ta errezipitu zitue agitz debotoki: gero arturik kruzifixoa eskuetan, egines milla afekto amoriosko, agradezimentu, konformidade, ta berze birtuteen; ondorean erreklinaturik olgaietan, apegaturik agoa Kristoren oñetan lokartu ze sanduen loan; ta ikusi ze arima uso baten idurian igaten zerura Martxoaren 6.an 1258 urtean, ta bere adinaren 17 urte, ta 10 ilabetetan. Gelditu ze bere gorputza ain eder galanta, iduri baizue proprioki lo zegola: aurpegia gorri flamante, mostratzen zuela zela, izenas bekala, izanas ere Arroza, barratzen zuena atxon bat admiragarria. Ziudade guzia alborotatu ze, ikusirik argi-erresplandore andi bat bere etxetto pobre garren gañean, ta aditus ezkila guziak soñatzen zirela milagrosoki, niork ukitu gabe. Ortzi zute ixilkias bereala, estorbatzeagatik tropelia ta arroituan izan zeizkenak, ta kendu naies errelikiak. Bi urte ta erdiren buruan zegolaik Viterbon Aita sandua Alexandro IV.a, irur gaues agertu zekio eta deklaratu zue ta adoratu zue sanda, eta pasarazi zue beraren gorputza Sta. Maria Arrozaen konbentuko elizara, non baitago egungo egunean oso fresko sano eder beratx, nola lo balego: de manera ezi ango errelijosak, beragatik orai deitzen direnek Santa Rosarenak, ta bestitzen beraren habitua baita S. Franziskorena, aldatzientote sandari bereak, nola bizi balitz. Milagro egin, ta egiten tuenak omen dire ezin konta ala: baña zer milagro andiago, beraren bizia baña? Zer progu obeago Jangoiko andiaren podore ta ontasunaren, nola aurtto baten medios sei, zazpi urtetan ere probatzea bere elizaren egietafedea, bere Bikario den

Aita sanduari zor zaion obediencia, eta konfunditza herejeak ain klaro, ezpaizukete itzik atra kontra &? Ala da Jangoikoa admiragarri bere sanduetan.



## Urriaren 8.an S. Adriano, ta S.a Natalia

Errelijione Kristioa dela Jangoikoaren egiaskoa, dire progu ona Kristooren koraje, ta alegria padezitzean martirio erruak; ezi gizonarena da beldurra, baña Jangoikoak emana koraje ta alegria gura. Ezaundu zute on enperadoreen zenbait ministro juizioskoek. Ebetaik bat izan ze S. Adriano ogei ta zorzi urtetako gizon balientea, kaballero prinzipala; ta Maximiano enperadorearen Ministroa, ikusteareki Martirak ain animoso alegre tormentuetan, konbertitu baize, bataiatu, ta paratu Martiren listan aieki izateko martirizatu. Amirur ilabete zue zegola ezkondurik S. Nataliareki, zein baize Kristio sekretoan. Enperadoreak jakin zueneko, bereala suturik inarazi zue preso Adriano. Ontas eman zio berria bere mutil batek Nataliari, zeñek bizikide onak bekala zue maite senarra Jangoikoan; eta gozosa kristiatuas ura, ta preso eramanas fedeagatik, joan ze bereala karzelerera, ta paraturik aren oñetan apatus grilloak eta kateak erraten zio, dioxosoa zara zu, Adriano, aurkitu baituzu tesoroa etzi zutena utzi buratsoek. Ia seguro zoaz Jesu Kristogana, zeintan baituzu ondasun guzia betikos bear orduko, noiz niork nior ez dezaken libratu kondena ziotik, ez Aitak, ez Amak, ez adiskideek, ezeta ere munduko gauza guziak, baizik sollik bere obra onek baxotxa Jesus Kristoreki. Zeureki daukazu; etzaitela neka sufritus orai gutitto bat. Etzai zula deus emengo ondasunes, eztare Tiranoen meatxues ta tormentues. Beira emen ainberze lagun, (bazire ogei ta irur), beira eben konstanzia, *ta imita*. Eta joanik aiengana apatzen zitue aien kateak ere deitus fortunosoak, ta eskatus anima zezatela bere Adriano sufritzera, logratu arteo biktoria ta korona. Orreki despeitu ze guzietaik, ta senarraganik, tratu eginik, abisatuko zuela noiz bear zen martirizatu, egoteko bera presente: itzuli ze bere etxera kontent, eta an enkomendatzen zue Jangoikoai, eman zezon konstanzia.

Zenbait egunen buruan ikasirik Adrianok nai zutela sentenziatu, kunplitzeko itz emana, abisatuko zuela noiz, berze Martiren konsejus, ta logratu dirus karzelzaiaren lizenzia, itz emanik itzuliko zela karzelerera, atra ze joateko bera, abisatzera Natalia. Onek, ura ellegatu baño len, jakin zue eldu zela; eta ustes fedea ukaturik eskapatu zen, aflijitu ze; ta ikusirik ia eldu zela, utzirik bere lana, joan lasterka, ta ertxi zio ataria, ziola, eztaie-la agertu ene begien alzinean; eztut nai aditu itzik Jangoikoai gezur in diognaganik. Eta ia atarira zelarik, barnetik Andreak erraten zio, o gizon des-

leala, zergatik asi zina ongi ez bukatzekos? Zergatik utzituzu lagun sandu gaiek? eta Jangoiko ona? Zer inen dut ia nik desdixatuak? Eznue mereji deitzea Martir baten bizikidea: deituko naute errenegatu batena. Laster akabatu ze nere gozoa; ta betiko izain da deshonrea. Zego Adriano atarit- tik kanpoan aditzen alako itzak, ta bañatzen ze gozos, ta betetzen ze korajes padezitzeko, ikusteareki andrearen korajea. Erraten zio amoltsu, idiki zadazu ataria, etzara ernegatu baten andrea, baizik Martir batena; ezi ez naiz eldu iges, baizik abisatzera zu, ofrezitu bekala, ta despeitzera, ta orreki banoaie bereala ofratzera ene biziaren sakrifizioa. Desengañaturik ia idiki zio ataria, ta errebitu zue; ta elkar animatu zire sufritzeko martirio glorioso; momentu bateko penari darraiola korona, gozo, ta gloria beti- rokoa sandaen konpañian. Animaturik ala itzultzen ze Adriano bere karzelerera: akonpañatu zue andreak: bidean galdetu zio arrek oni, ia disponitu zuen etxeko haziendas, eta gauzes, bizitzeko bera alargun, uzten bazute bizirik. Andre jenerosak errespondatu zio, etzazula ajolarik hazienda lurrekoas: logra zagan Jangoikoaren grazia, ta oneki dugu nai dugun ta bear dugun guzia betiko. Ellegaturik karzelerera andre sandak berriro paraturik ango preso sanduen oñetan apatzen zizkiote kateak debozioreki, ta inbidia sandu bateki, eta zeren batzuk zeuden llagas, odoles, ta apostemas, ekarrarazirik etxetik oial garbiak, eta ebeki garbitu, ta kuratzen zitiote piadosa: eta lan goi segitu zue urrengo zazpi egun iraundu zutenetan, eskatus beti, zeudela arimo onareki, ta anima zezatela bere Adriano gura ere.

ONDOREAN ATRA ZUZTE GUZIAK KATEA BATEAN, TA AZKENIK ADRIANO ESQUAK LOTURIK ATZERAT: eta au presentarazi zute lenik enperadorearen alzinean, martirizatzeko lenik, gaste ta robusto bekala zuela indar iago, padezitzeko iago. Berexi zutelarik ortako, Martir lagunek erraten ziote, ea Adriano, garaia da, artzeko bere gurutzea, ta segitzeko Kristo: egon fuerte, beira zeruan prestaturik dagon korona, sufritzeko pasarazi nai diotena dena dela. Eta Natalia bere Andre noble garrek erraten zio, ea ene bizikide ona, para zazu biotza Jangoikoan sollik; bera egoin da zureki, ta lagunduko dizu: trabajua labur, ta premia da eterno. Oroi zaitte, nola pasatu duzun asko trabaju, zerbitzatus lurreko enperadoreari: orai sakrifika zaitte zerukoari; obeki premiatuko dizu. Presentaturik Adriano egon ze animoso errespondatzen, ta defendatzen fede Kristioa, ta etzuela faltatuko munduko loxentxu ta meatxu, premio, ta tormentu guziengatik: orgatik azotarazi zue enperadoreak kruekiro, ta gero laur saionek paraturik agos gora golpa zezatela makila gogorreki al guzia erru. Nataliak eman ziote berria berze Martirei, nola Adrianok asi zuen bere batalla: eska zezotela Jangoikoai, eman zezon indar ta konstanzia. Golpaturik atrarazi arteo





entrañak, manatu zue enperadoreak itzultzeko karzelera: eta Andre animosa garrek arturik eskutik laguntzen zio joateko, ta erraten zio, *o en begien argitasuna, zein ditxosoa zaren! bada iltzen zara iltzenagatik zure amores.* Ellegaturik karzelean guziek ematen zioten zori ona; besarkatzen, ta animatzen zute bukatzeko, asi bekala. Errespondatzen zue, aien orazioei ziotela berak zuen korajea ta gozoa Jangoikoak emana. Eta Nataliak garbitzen zio odol zeriona ta llagak; eta beraren exenpluareki eldu zire berze anitz andre piadosa konsolatzeko, ta kuidatzeko preso sanduak. Ori ikusirik, manatu zue Tiranoak ez usteko ematekirik an. Etze lotsatu orgatik Natalia, baizik arimo iago arturik, ebaki zue biloa, bestitu ze gizonki bekala, ta segitu zue bere tema sandua, animatzeko ta zerbitzatzeko Martirei: oroat in zute berzeek. Koleraturik Tiranoak manatu zue ebakitzeko Martirei zangoak eta eskuak. S. Nataliak eskatu zioten berdugoei asi zeizela bere senarraganik: eta ebakitzera, o andre balienta! berak bere eskus idukitzen zituen senarraren eskuak ta oñak ebakitzera, exortatus bateo irautera pazientzia: eta tormentu gartan despeitu zue arima Adrianok; eta Nataliak arturik esku ebakia eraman zue, ta guardatu zue errelikia bekala. Manatu zue Tiranoak erretzeko gorputz ilak labe batean: bitartean goratu ze tenpestate andi bat ortots, oñastur, ta ausnarris; orreki lotsarriturik berdugoak joanik iges, andre sanda gaiek artu zuzte gorputz ilak aurkitu zirenak oso mellarik gabe, zein gero erman zire Konstantinoplara. Natalia jenerosa gelditurik alargun, gaste abrats ta ederra, nai zue Jaun andi batek bere bizikide enperadorearen manamendus. Aurkitu ze sanda susto berri andiagoreki: eskatu zue irur egunen epea: bitartean eskatu zio Jangoikoai gogotik etzezan permiti uki zezan niork ere. Lotan izan zue errebelazio, enbarkatzeko bereala, ta joateko Konstantinoplara, nondik nai zuen Jangoikoak eraman beregana. Sandak utzirik etxe ta ondasun guziak, ta arturik S. Adrianoren eskua egin zue biagea, ta sarturik lekuan non zeuden ortzirik sandu gaiek, paraturik S. Adrianoren gorputzain gañean bere eskua, egin zue orazio, ta gero erretiratu ze deskansatzera. An agertu zekio S. Adriano erraten ziola, ongi etorria zarela Natalia ene arreba, Kristoren hume maitea, atoz gureki deskansatzera, ta errezibitzera premio mereji duzuna ta irabazi. Idatzarri ze sanda; kontatu zioten fielei bisione izana; lokartu ze berriz, ta loan despeitu zue arima. Ditxosa Natalia, jenerosa bekala. Nork ezta admiratzen alako arima? Jangoikoaren amore gura ain fiña? Zelo, koraje, ta gañarakoa? &

## Urriaren 11.an

### S. Proto, ta S. Jazinto Martirak

Erromako senadore Jaun andi batek bere Andre Klaudia deituagantik izan zue alaba bat deitu zutena Eujenia. Egin zute Aita Prefekto Alexandriako, baita Ejipton; ortako bear izan zue joan arara, ta eraman bere familia guzia. Adinera zelaik Eujenia, eman zitio bi aio ta kuidazale juizio anditakoak, deituak Proto ta jazinto. Ze donzella, guzis ederra bekala, entendamentu anditakoa, ta agiz aplikatua estudioetara. Estudiatzen zue libru onetan, ta bi zerbitzuko gaiek bateo: eta beren juizio onareki, ta estudioareki, ta Jangoikoak argitzeareki ellegatu zire ezauntzera Infielen itsutasuna adoratzean Jangoikotako Demonioak, ta gizon gaixto izanak. Ezaundu zute eztaikela izan baizik Jangoiko bat Kristioek adoratzene. Egin zire Kristio, ta obeki zerbitzatu naiez Jangoikoai determinatu zire irurak joatera ixilkiartzeko Monje an zen monasterio batean. Bestitu ze Eujenia gizonkiaren habituas, ta bere bi mutil gaieki joan ze, ta eskatu zute Moneen habitua; ze Abade obispo sandu bat deitua Heleno: Onek ezaundu zue Jangoikoaren argis finjitzen zena gizonki, ta deitzen Eujenio zela Eujenia donzella, ta erran zio berari: baña ezaundurik Jangoikoaren inspirazioz zela, utzi zue segi zezan bokazioa niori adiarazi gabe, nola zen: eta ala irurak bestitu zituen Monjeen habituas, ta irurak bizi zire agitz sanduki, espezialki Eujenio deitua ze santidade guziaren hispillu, guzien exenplu ta admirazio, de manera ezi il ondoan Heleno, egin zute guziek bere Abade ta Superiore, ta gobernatu zue txoil ongi, zeuka-telaik etxeokoe ta kanpokoek sandutako. Agitu ze Alexandrian heritzea grabekiro señora bat deitua Melanzia: berze erremedioek ez baliatzen, ta enkomendatu zute Abade sanduari, zeñen orazios Jangoikoak eman zio osasuna. Baña sendatu ondoan gero agitu ze señora gura beraren amores presa gelditzea, ustez gizonkia zen, de manera ezi okasio batez deklaratu zio bere biotzeko sua tentatus bekatura: despeitu zue ordu gaixtoan Eujeniok, ta erreprehenditurik grabeki atra ze bereala andik iges. Rabiosa emastekiak mendekus goratu zio testimonio falsua, nai izan ziola Abadeak bortxa egin ta deshonoratu. Eman zioten kontu Prefektoari, baize sandaren Aita infiel oraño etzekiena deus bere alabas. Deiturik bere gana Abade Eujenio deitua: Joan ze au bere bi mutil izaneki Proto ta Jazintoreki, baña ia ezin ezaundu zituela: Prefektoa asi zekioten erreprehenditzen gogorki, ia Kristok Jangoikotako zeukatenak erakusten zioten bortxatzen



ta deshonoratzen matrona honratuak? Orduan Eujeniok errespondatu zio grabedade, ta modestiareki, bada denbora ixiltzeko, ta bada denbora mintzatzeko: Orai ikusko da Melanziak diona den egia, ta orrek erreprehen-ditzen didana: idiki zue alzinetik habitua, ta erakusteariki bularrak ezaundu zute zela emastekia. Guziak arriturik ta Melanzia gura konfunditurik, Prefektoa informaturik, au zela bere alaba Eujenia, ellegatu ze kristiatzera bere familia guziareki, ta utzirik an zuen kargua, ta ofizioa, gero izan ze Martir. Baña Eujenia ia ezaundurik zela emastekia, despeiturik konbentua, itzuli ze Romara Proto ta Jazintoreki, eta aien medios anitz kristiatzen zire. Ori jakinik enperadore Galienok preso inarazi zitue, ta pasarazirik asko tormentu, ondorean sentenziatu zitue degollatzera: ta exekutatu ze sententzia egungo egunean 263 urtean: baña S. Eujeniaren martirioa celebratzen du elizak Abenduaren 25.an. Beira zenbat manera duen Jangoi-koak sandutzeko bere eskojituak, ta nola gaitzetaik ere dakien atratzen onak &.

## Urriaren 16.an S. Eufemia Birjin ta Martir Kalzedoniakoa

S. Eufemia Kalzedoniakoa, senadore Jaun andi baten alaba, izan ze donzella bat guziz juiziosoa, virtuosa, modesta, ederra, ta garbia. Egun batez zebratzen ze festa andi bat Kalzedonian Jangoiko falsu Marte deitzen zutenari, eta Prisko Prokonsularen manamendus bear zute akuditu guzi guziek biziaren penan: Eufemiak etzue nai izan du asistitu festa indigno gartan: eta nola baize persona ain prinzipala, kontu eman ziote Prokonsulari, zeñek preso inarazirik nai zue ones eta gaitzes ekarrarazi adoratzera aien Jangoi-koak. Ajola guti mostratzen zuelaik, meatxatu zio pasaraziko zitiola tormentu pensa zeizken guziak. Sarrarazi zue karzelean, ta iduki zue an zenbait egunes; ondorean presentaturik tribunalean, ta aurkiturik firme konstante Kristoren fedean, atormentarazi zue kruekuro Tirano moldegaitz aberetzarrak: lenik azotatu burriñasko azoteeki: gero deskoiuntatu potroan: gero lotu zute errueda bati, txitxikatzeko ezurrak, ta zatikatzeko bera guzia: zeñatu ze, ta eskatu zio Jesus onari, sokorri zezon: sokorritu zio, ta libratu zue erruedatik, sendatus llaga ta gaitz guziak, paratus ederrago ta luzituago len baño, ta lotsatus berdugo guziak. Itxeiki zute labe bat betea pikes, azufres, istupas, ta zarmendus: eta nai zutelaik bota artan bi ministro prinzipaleek, ikusi zuzte bi Aingiru sandaren bi aldetaik zeudela anparatzeko; ta etzire atrebitu. Eta manaturik berze bie, ebek in zute, baña berak erre zire, ta sanda gelditu ze mellarik gabe, bilo bat ere erre gabe. Etze ase Tiranoa tormentatus, eztare desengañatu Jangoiko andiaren asistenzia iten zionas. Manatu zue paratzeko dilindan, eta oñetaik arri andi pizu batzuk: etzekio baliatu on ere: gero inarazirik lurrean zulo andi bat, nola butzu barna bat, ta au beterik arrai, ta animalees, botatzeko an sanda jan zezaten ta konsumitu: baña guziek gaizkirik ez, baizik atenzio izan ziote ta erres peto. Guziau uste zue itsuak zela zorgindérias: baña etze aspertzen. Manatu zue zerratzeko mienbros mienbro, ta fritatzeko zarregietan. Ekarri zuzte zerrak, baña burriña beraztu ze nola argizaria, sua itzali, ta sanda oso beti triunfatzen suaganik, burriña, tormentu, tirano, ta Demonioaganik. Azkenean manatu zue botatzeko sana laur leonei, ta irur artzei. Sandak ia joan naiak gozatzera bere esposo dibinoa zeruan, eskatu zio izan zezan plazer eramateas bera-



gana. Aditua izan ze: ta ala atrarik zazpi baseizia gaiek, aietak artz batek ozka bat eginik, utzi zue ilik: eta entenda zeien on izan zela onnaies, ura ta berze artzak eta leonak zegozkio inguruan erreberente geldi lamikatzen oñak.

Iltzen orduan agitu ze terremoto, edo lurraren ikaradura lotsagarri bat; eta infielak lotsaturik joan zire iges; orreki sandaren buratsoek izan zute eskaida ona, ortzitzeko gorputz sandua an urbil, negar egines, tristoras ez, baizik gozos alako martirio, alako arimo, alako milagro, ta Jaunaren amoresko demostrazioengatik. Anitz miragarri egin zue gerostik ere Jaunak bere esposa maite gonon atenzios. Ukitus esponja bateki gorputz sandu gura, atratzen zute beterik odoles, baize abasto errepartitzeko anitz lekutan errelikiatako, ta mantenitzen zire odol-tantak oso bere kolore ta forma berean. Enperadore Mauriziok ez sinetsi naiez milagro gau, nai izan zue progatu bere eskus, ta atra zitue beterik odoles admiratus milagroa. Ortas landara atratzen ze urnatik atxon bat ain gozoa, ezpaita lurrean konpara daikenik.

Baña guzien gañetik kontatzeko da milagroa agitu zena fede katolikoaren progu, ta konfirmaziotako. Sanda gonon tenploan zebraturik konzilio jenerale Kalzedonense deitua S. Leon andiaren, ta Marziano enperadorearen denboran, kondenatus hereje Dioskoro ta Eutikes. Eben aldekoek dote etzela obratu egietafedearen konforme, baizik enperadorearen errespetos. Konzertatu zire ontan, eskribitzeko papela batean katolikoek beren konfesioa, ta herejeek berea berze batean: ta biak paratzeko sandaren gorputza zegoen urnan: eta zein mostratzen zuen sandak bere gustokoa, ura zeila egiaskoa. Ala egin zute, ta ertxirik urna, paratu zire orazioan, Jangoikoak egia atra zezan. Andik irur egunen buruan, presente zegolaik enperadorea, ta obispoak, ta jendeketa herejeen ta katolikoek, idiki ondoan urna, ikusi zute guziek, nola katolikoena zeukan eskuan petxoaren kontra, ta herejeena oinpetara botarik. Orreki ezaundu zute egietafedea. Kontatzen dute Glikas, Nizeforok, Zonaras, Metafrastek. Martirioa agitu ze Dioklezianoren inperioan & . &.

## Urriaren 21.an

### S. Mateo Apostolu ta Ebanjelaria

S. Mateo Apostolu ta Ebanjelari, len deitzen ere zena Lebi, jaijo ze Kana Galileakoan, non Jesu Kristok egin zuen lenbiziko milagroa konbertitus ura ardotan. Ofizios ze Publikano trebutuen kobrazale ta tratante, baize ofizio bat opinione ta fama gaixtotakoa: eta zegolaik jarririk bere alkian, Jaun dibinoak andik pasatzean beiratu zio, ta deitu zue erraten ziola, *jaiki zaitte, atoz, segi nazazu*. Istantean guzia utzirik segitu zue: orra publikano zena eginik Apostolu, eztaien nior deskonfia; baña bateo, erakusten digu nola bear den aditu Jangoikoaren boza edo inspirazioa, ta obeditu bereala berandu gabe. Agradeziturik Jaunari ta afizionaturik disponitu zue konbita bat, non akuditu zuten berze asko publikanoek Jesu Kristoreki, orgatik murmuratzen baizute eskriba ta Fariseo hipokritek, bazkalzen zuela bekatariaki: eta Jaun dibinoak erres pondatu baizue itz bat agitz konsolagarria bekatarien, *ez naiz etorri, dio, deitzera justoak, baizik bekatariak, ezi ez tute Mediku-bearrik ongi daudenek, baizik gaizki daudenek*. Ikasirik Kristoren eskolan doktrina zerukoa, zerura iganas geros Kristo, errezibiturik Espiritu Sandu biali ziotena, munduaren partizioan nork non predikatzeke, S. Mateori surtitu zekio Etiopiako Probinzia. Arara baño len eskribitu zue bere ebanjelioa ebanjelarien lenbizikoa, Hebreoen orduko itzkuntzan. Ellegaturik Etio pian predikatu zue Jangoikoaren gizon, ta enbajadore bekala sandu milagrosko prodijioeki, konbertitus jendeak zuzen-bidera. Garaitu zitue an bi sorgin beren Deabruaren arte gaixtos anitz gaixtakeria iten zutenak; eta jendea konsolatu ze, ta konfirmatu fede Kristoan, eta geiago ikusteareki biztu zuela erregeren seme ila, deitzen zena Ejipo. Orreki konbertitu zire errege ta erregina, ta beren humeak, eta jendearen geiena. Eta erregeren alaba Ifjenia deitzen zenak aditus Apostolua laudatzen birjinidadearen estadoa determinatu zue mantenitzea birjin bizi guzian; ta konsagratzea Jangoikoai erretiratus konbentut batean berreun donzella nai zuteneki akonpañatu. Iltze gero errege gura, ta arren ondorengoak Hirtako deituak nai zue ezkondu aren alaba Ifjeniareki, baize guzis ederra gorputz ta ariman. Mintzatu zio sanduari, onek ortara ekar zezan: baña kontra egin zue, zeren ezi prediku batean presente zegolaik Ifjenia bere errelijosaeaki, baitare errege berria bere prinzipaleeki explikatu zue matrimonioaren estadoa Jangoikoak paratu duela, ta nezesario dela matenitzeko mundua: bereala deklaratu zue zein



gorago ta perfektoago den birjinen estadoa, zeñen kasos iten diren Kristoren esosa bekalá; eta ala zelarik ia Ifijenia gloriako erregeren esosa, kendu nai liokena erori leikela Jaun andiaren indignazioan. Errege Hirtako aditurik on joan ze asarre meatxatus Apostoluari, eta berze egun batez meza erran ondoan traspasatu zute lanzadaka beraren ministroek odoles-tatus aldarea, ta botatus ila gorputza aldare-almazinean. Gero Hirtakok nai zue obligarazi Ifijenia ezkontzera berareki, baña etzukelaik logratu, manatu zue emateko su konbentuai: baña ikusi ze airean S. Mateo itzaltzen zebilala eta Hirtako Jangoikoaren permisios bete ze lepra ain gaixto doloreskoas ezi bere eskus edeki ze bizia. Apostolu sandu gonon gorputza egon ze il zuten ziudadean Nadaber deituan; gero pasatu zute Salerno deitzen den ziudadera Napolesen, non baitago egungo egunean ongi estimaturik, arrazio den bekalá. Bere martirioa agitu omen ze Kristoren 90 urtean, Domiziano enperadorearen denboran. Hipolitok deitzen du birjinitadearen biktima &.

## Urriaren 25.an

### S. Fermin Obispo ta Martir

S. Fermin deitzen ere dutena Firmino ta Firmio, Iruñeko seme ta obispo lenbizikoa izana, eta Nafarroako Patrono glorioso, ze Firmoren ta Eujenaren hume, zein baizire nobleak ta prinzipalak Iruñean, eta Firmo Aita senadore ta konsejuko Jaun ongi estimatua ta honratua. Ze Tolosa Franziakoan obispo S. Saturnino, Jangoikoaren gizona proprioki, ta Kristoren enbajadore guapoa, S. Pedrok biali zuena Romatik onat, eta plantatu zuena ebetan erreljione Kristioa, ta bere odolareki erregatu zuena azkenean. Onak biali zue Es añara bere Diszipulo bat eskojitua ta sazerdotea deitua Honesto. Ellegaturik au Iruñean, egun batez noiz ere iten zen festa andi bat Jangoikotako zeuzkiten Demonioei ta gizonei, Jangoiko egiaskoaren zeloaren suas itxekirik, ta Espiritu Sanduas igiturik goratu ze animoso jendetze andiaren erdian, eta asi ze predikatzen banidade ta engañua Jangoiko falsuena, ta progatzen, ezte la ta eztaikela izan baizik Jangoiko bat bizi erreal egiaskoa guzien prinzipio ta fin dena, kria-tutuena zeruak ta lurak ta gauza guziak, eta guzis poderoso bekalá guzia bere Menean daukana &. Aditu zute prediku berri gau Firmok, Faustino, ta Fortunatok, irurak baizire konsejuko senadoreak, eta admiratus Predikari arrotzaren ausardia, deitu zute berengana, eman zezan arrazio ta progua predikatzen zuenas. Sanduak sosegu andiareki deklaratu ziote egietafedea, progatus arrazio ta exenplueki, de manera ezi gelditu zire kasi konbenziturik egietafedea: baña nai izan zute ikusi ta aditu beraren Maestra Saturnino: eta ala enkargatu ziote Honestori ekarrarazi zezala Iruñera. Itzuli ze Tolosara Honesto: kontatu zio agitu guzia, ta eraizio kristioaren esperanza ta mostra onak zirela: Saturnino bereala mogitu ze Kristoren amores, ta Honestoreki etorri ze Iruñera, non bere grazia ta mintzaera onareki, arrazio ta milagroeki denbora labur Iruñ bereko ta berze errietaik konbertitu zire berrogei milla, ta prinzipalki irur gaiek Firmo, Faustino, ta Fortunato, alzindari bekalá segiarazteko beren atzetik jende gañarakoak. Eta S. Saturnino seguraturik ebetako eraizio onas, utzirik Honesto emen segitzeko lan ona, itzuli ze bera bere elizara Tolosara, non gero izan zen martir koronatua.

S. Honesto enkargatu ze emengo Kristiogendeas, espezialki doktrinatzetas, ta azitzetas Firmoren semea Firmino, zelaik amazapi urtetakoa; ta zazpi urtes atra zue sandu ta jakintsu abantallareki, ta enkargatu zio



predikatzea Kristoren ebanjelioa: eta S. Fermin enpleatzen ze Apostoluen ofizio gortan ala Iruñean, nola Nafarroan barna, konbertitus millaka arimak. Ia denbora zelarik, biali zue Honestok Fermin, edo eraman bereki Tolosara, konsagratzera obispo Iruñeko. Orduko iltze Saturnino, ta arren lekuan sartu ze Honorato, zeñek ikusi zueneko Fermin, ezaundu zue Jangoikoaren argis, zeukala bere Majestadeak destinaturik lan andietako, ta eraikitzeke Jangoikoaren itza anitz lekutan. Konsagratzerakoan erran zitio itz gebek, *Alegra zaitz, ene humea, eskojitu baizaitu Jangoikoak bere Ministrotako. Zoaz arimo onareki jendes jende, errezibitu baituzu Apostoluen ofizioa ta grazia. Ez izan beldurrik, ezi Jangoikoa dagu zureki zure lan guzietan. Baña abiatzen dizut konbeni dela pasa dezazun anitz trabaju beraren izenagatik, ellegatzeko gloriako koronara.* (Moret ann. Nav. 1. 1. c. 3.) Konsagratzeturik obispo Fermin itzuli ze Iruñera, non errezibitu zuten guziek kontent Artzaitako, eta berak kunplitzen zue Artzai onaren ofizioa, trabajatus azitzen ta aumetatzen saldo Kristioa. Baña ikusteareki etzela ainberze bear emen, ta oroitzeareki errana S. Honoratok obispo ordenatzean, ta beraren bearrago zirela berze lekutan, utzirik emen S. Honesto, ta berze Ministro bear adiña, Jaunaren Espirituak igiturik ta kidaturik joan ze Franzia barna, ia ogeitamar urte beterik, eta pasatus Akitaniako erriak barna, baratu ze Agen deitzen den ziudadean Tolosaren ta Burdeoseren erditsutan. Argiturik an zeruko doktrinas, pasatu ze sazerdote Eustakio deitu bateki Alberniako Probinziara, ta geiena irabazi zue Kristoren, naiz erresistenzia errua in zioten Arkadiok ta Romulok, zein garaiturik gero ere bataiatu zitue. Andik pasatu ze Andegabense deitzen zirenetara, orai Anjou, nongo ziudade prinzipalenean aurkiturik obispo sandu bat Auxilio deitzen zena, onen petizios egon ze an urte bat, eta irur ilabete, probetxu andia eginen. Pasatu ze andik Belobako deitzen direnetara, orai Beobais, non Balerio Presidenteak persegitzen zituen gogorki Kristioak. Emen nola berak ezpaizue beldurrik, animatzen zitue ederki Kristio beldurtiak Presidentearen desgogora, zeñek sarrarazi zue karzel ertxi batean, ta azotarazi anitz aldiz. Balerioren ofizioan sartu ze Serjio, zeñek oroat aborrezitzen zue errelijione kristioa, nola sandua. Nork erran zenbat pasatu zuen karzel ertxi gartan, ta ainberze denboras? baña gero ere jendeak libratu zue andik indarka, eta gerostik an predikatzen zue sueltoki, ta geienak ekarri zitue zuzen bidera: baitare fabrikatu tenplo bat S. Esteban Martir lenbiziakoaren honratan. Despeitzean andik, oñak frinkaturik iduki zituen arri batean utzi omen zitue oñen kuntzeak, dirautenak oraño, deitzen dutela le pas de San Frenin, au da, S. Ferminen oin kuntzea. Pasatu ze andik Amiens edo Anbianora, non sartu ze Lastallaren 10.an.

Amiensen zelebratzen ze festa egun gortan S. Ferminen sartu an, zeren berareki sartu ze, nola gau ilunaren ondorean, iruzkiaren argi ederra. Faustiniano senadorearen etxean izan zue ostatu lenbizikoa: etxe guziaren konbersioa segitu ze bereala: ta irur egunes konbertitu zire iago ezi irur milla. Jangoiko falsuen sazerdote enbusteroek eman zioten kontu Presidenteei, zein bereala etorri zire Trebirisdik Amiens: pregonarazi zute beren Jangoikoen benerezioa biziaren penan: Akusatu zute Fermin despreziarazten zituela, ta predikatzen Jesu Kristo dela Jangoiko egiaskoa: berri eman zioten sanduari pasatzen zenas: bazeike eskapa, baña nai izan ze presentatu defendatzeko ausarki errelijioa. Emen nago, dio, neure borondates, ezi niore eztiot egin, ta ez egin naiko gaizkirik, baizik ongi guziei, erakutsis zerurako bidea, baita errelijio kristioa. Zara zu, erran zio Presidente batek, urratzentuzuna gure Jangoikoen tenploak, ta apartarazten jendeak enperadoreen errelijioetiko? Nola deitzen zara? Nongoa, ta zer jeneraziotakoa? Errespondatu zue sereno, ni deitzen naiz Fermin: Españako Nafarroan jaioa muñeko ziudadean: Kristioa errelijioan, ta obispo ofizioan, bialia publikatzera Jangoikoaren ebanjelioa: desengañatzera engañaturik bizi direnak sinetsis ta adoratus ainberze Jangoiko falsu, eztelarik baizik bat egiaskoa, infinitoki ona, poderosa &. Turbatu ze Presidente Sebastian deitua, ta iraren suan manatu zio an berean bear zituela adoratu aien Jangoikoak, ezperen pasaraziko ziola tormentu ta eriotzea. Konstanzia iagoreki errespondatu zio Firminok: admiratus jendea, ta ia ia atra naiak sanduaren fabore libratzeko. Jueza zego etxakin zer egin, eznaiz utzi bere eskupean zeukana, ta ez trebe kastigatzera an jendearen beldurrez. Disimulatu zue, bear zela artu denbora ikusteko ongi Ferminen kausa, ta erretiratu leku seguroan. Ala engañaturik utzi zute ermatera karzelera. An gero gau erdian biali zitue bere guardiak ebaki zezoten burua sekretoan: eta ala egin ze, ofrezitus Ferminek baliente ezpatai burua, ta Jangoikoai arima, Urriaren 25.an. Urtea neke da txurritzea. Guti gorabera bide ze Trajano enperadorearen, edo Adrianoren azkenerat, edo Antonino Pioren denboran, nola uste baitu S. Brauliok. Mor. ib. Ortziarazi zue Presidente Sebastianok leku txoil okulto sekretoan, etzezaten aurki Kristioek: baña fite galdu zue berak bizia edekirik bere soldadoek, plazer zutela Amiensdarrek. Eta Faustiniano senadore garrek aurkiturik S. Ferminen gorputz sandua, ortzi zue honratuki bere heredaje batean, Abladana deituan, zein konsagratu ze zemeterio, ta da lenbizioko izan zena leku gaietan: an egon ze altxaturik anitz denboras, naiz sanduaren memoria bizi ta berritzen zen asko milagroeki: laur eun ta iago urtes.





Ellegatu ze izatera obispo Amiensen S. Salbio, zeñek logratu zue Jangoikoaganik milagros aurkitzea gorputz sandua, zeñen traslazioa zebratu zute zeruak ta lurak, ta izan ze agitz miragarri famatua prodijios, nolakoak apenas leitzen diren berze sandu bates. Obispo sandu garrek bada, ta jende guziak zue antsia andia, aurkitzeko tesoro altxatu gura: ia etsi zute etzela aurkituko, ezpazue agertzen zeruak: orgatik ze kontino klamatzea zerura orazios: Publikatu zue obispoak baru ta rogatiba, logratzeko grazia gura: eta bera etze atertzen eskatus: ta dirudi izan zuela zerbait señale, naiz ez klaro aski. Orgatik sandua Izotzillaren amirugarrenean joan ze leku gartara: an berriro zego eskatus humil antsias eta suspiros, mostra zekion: alako batez ikusi zue idikitzen bat batean zerua, ta andik jautsitzien argi-errañu eder miragarri bat lurreko leku bateraño: entendatu zue erran nazona: ta bilarazirik elizagizonak eta gañarako jendeak, asi ze bera aizur bateki idikitzen lurra leku gartan: segitu zute lan gartan gogotik ere; ta zerbaitto barnatu orduko asi ze atratzen fragranzia bat gozoa miragarriro, geroago ta geiago, ta barratu omen ze urrun berze errieta-raño, eldu baizire jendeak, gizonkiak, emastekiak, aurrak ere atxon garren zeboareki. Agertu ze gorputz sanduaren urna: orduan zire bada jendearen kontentuak ta klamoreak: zerua ere, airea, ta mundua alegratu ze egun gartan, ezi zelarik izotzillaren erditsutan ta neguaren erruan, tenplatu ze ta berotu airea, kanpoak berdatu zire, plantak loratu, ta arbola franko fruitas eta ostos bestitu, ta sotoak ta larratzak bete zire arrosas, klabeles, azuzenas, ta lore mota juzies, festejatus ala sandu glorioso. Bildurik infinizio bat jende prozesiorako, ala nola erramu-igandean Jesu Kristoren triunfoan, ebakis arboletaik arramak, ta edatus beren tresenak pasatu bear zuen lekuan, klamatzen zute nola orduan, Benedictus qui venit in nomine Domini osanna. Bedeikatua eldu dena Jaunaren izenean, biba biba. Obispo sanduak negarra zeriola bozkariundes eraman zue ta paratu errelikia prezioso gura S. Mariaren tenplo berak fabrikatuan: Berze batzuek diote fabrikatu zuela S. Firmino konfessore ta obispo izan batek an. Paratu ze aldarearen pean urna prezioso ederrean: baña zerua enpeñatu ze honratzean sandu gau osoki, baitirudi onen atenzios erauntsitu zuela osasuna, ezi ez solamente ukitus urna, baitare loreak sortu zirenak, eta fruitak, eta arbolen arramak lurrera botatuak pasatzean, sendatzen zire heriak. Festa andi gau izan ze Teodoriko erregeren denboran 614 urtean. Moret. lib. 3. c. 3. §. IX. Andik ekarriak dire zenbait errelikia Iruñera: bat D. Pedro Paris obispoak, orai duela iago ezi 600 urte: gero berzeak berze batzuek. Milagro ta fabore egitentuenen testigo dire denbora guzietan, espezialki logratzean denboraldi bear direnak, dela eraunsi, dela ateri. Dudarik gabe

sandu andia da S. Fermin, ta Patrono poderoso, logratzen duena Jangoikoaganik ainberze grazia ta miserikordia. Zori onean dela, egin bez izan gaitzen gu alakoak, ezi mereji dezagun beraren patrozinioa. amen.

Trajano sartu ze enperadore 98 urtean: Adriano 117garrenean: Antonino Pio 138garrenean.



## Urriaren 28.an

### S. Benzeslao Bohemiako errege Martir

Sabel batekoak, baña ez jenio batekoak izan zire S. Benzeslao, ta Boleslao bere anaia; ura sandu, au Deabru: au azi zue gaizki bere Ama Drahomirak gaixtofikatuak, ta Kristioen etsai porfiatuak: ura azi zue ongi bere Amiña Ludmilak Matrona sandak, zeñek eman ere zio Maestru al zuken obena, erakutsi zezkion letrak ta birtuteak. Berez eldu ze ona Benzeslao, ta onera emana, ta imitatu zue Amiña sanda: kontra Boleslao gaixtoa berez, gaixtoago egin ze Ama gaixtoareki. Benzeslaori seme len ta andienari bekala zegokio gobernatzea bere Bohemiako erreinua, faltaturik Aita, il baize aurak zirelaik; baña Ama alargun gaixtoak ezin soportatus mana zezan Benzeslaoreki Ludmilla amiñak, rabiosa zelos ta inbidias ilarazi zue au itorik bere tokareki, ta sartu ze manatzera infernuko furia bat bekala, ertxiarazis tenploak, debekatus etzezatzen predika sazerdoteek, eztare erakutsi maestruak pena andien pean. Kendu zitue Pragan Juez Kristioak, ta paratu zitue infielak kastigatzeko Kristio ta prestu zirenak; ta ala guzia ze desgobernu ta perdizio. Orgatik indignaturik Jaundiek Ama seme gaixto gaien tiranias, arturik Benzeslao proklamatu zute errege. Errege eginik guzia ze modestia, debozio, karidade, kuidatus pobre bearsues Aita baten gisara, bere kostus, ta bere eskus erremediatu asko bearsu. Ze agitz beratx manso benigno: lastimatzen ze kastigatzeas nior, espezialki eriotzearen penareki, naiz mereji zuten. Gauas ibiltzen ze sokorritzen nezesidadeak, baitare bisitatzen elizak, naiz neguaren otz erruene-tan, ta oin urtuxian elur ta izotzaren gañean utzis oinkuntzeak odolestaturik ta bero beroa. Bada mezako sakrifiziara zein zen afizionatu debotoa, nola explika? Ortako bear zen ogia ta ardoa berak bere eskus eraiki, landu, bildu, ta prestatzen zue debozios: eta sazerdoteak beneratzen zitue erreberenzia andiareki.

Errelijosotako zela obe ezi erregetako iduriturik, armatu zio gerra Radislao Dukeak, ta sartu zekio erreinua barna eginen dañua franko. Etzirelaik aski, sanduak bialki zition mandatariak, preziso izan zue atratzea peleara, ta ez usteagatik ixurtzera ainberze inozenteen odola, nai izan zue berak arrek peleatu bakarrik eskus esku. Artara ellegaturik, guruzearen señaleara formaturik ikusi zitue bere bi aldetaik bi Aingeru, ta kontrarioak aditu zue boza bat erraten ziola, ez tira: ta lotsarriturik jautsi zalditik, ta bota zekio oñetara barkazio eske, ta besarkatu zire. Alaber Oton enpera-

doreak bilarazirik Inperioko Prinzipeak, ta ebetaik bat bekala Benzeslao Bohemiakoa, egun bates sobra luzaturik meza enzun zuena, ellegatu ze berant juntara; eta sospetxaturik zela suberbias, tratatu zute, etzietela in bear kortesiarik, zetorrelaik. Ellegatu ze, ta ikusirik bi Aingeru akonpañatzen eldu zirela, jaiki ze arriturik enperadorea bere tronotik, errezipitu zue ta jarrarazi bere aldakan, etzekitela berzeek motiboa: gero erranik enperadoreak, guziek egin ziote estimazio andia. Erran zio arrek eska zezala nai zuena, emanen ziola. Uste zue bai eskatuko zuela munduko zerbait gauza andi: baña sanduak solamente eskatu zio S. Bitoren besoa errelikia. Eman zio admiraturik modestias ura, ta berze anitz, eta erregeren tituloa, ta bere arma imperialeak. Itzulirik bere erreinura egin zue Pragan tenplo andi bat; artan depositatu zue errelikia gura, baitare bere amiña Ludmilla-gorputza, zein irur urteen buruan aurkitu ze oso bereganik errespiratzen zuela fraganzia bat zerukoa. Jangoikoaren alako demostrazioeki, ta bere birtute ta obra on anitz andieki ze Benzeslao agitz amatua ta estimatua bere basalloenganik, ta berze errege ta Prinzipeenganik: sollik aborrezitzen zute bere anaia ta Ama gaixtofikatuek, iago amatu bear zutenek. Erretzen zire an biotz-barnean, naiz disimulatzen idurian. Ezauntzen zue sanduak, ta berez izanik humila, beratxa, ez andinaia, zego ia utzi naiak korona, ta sartu naiak errelijosio, ta deklaratu ere zue bere deseio goi. Baña berantzen zuela iduriturik, etzute Amak ta anaiak pazienziarik esperatzeko orduraño: eta determinatu zute ilaraztea lenbiziko eskalda onean. Ara non ellegatu zen. Jaio zekio Boleslaori seme bat, bi anaien herederu izan bear zena: zeren ezi Benzeslao etze beñere nai izan ezkondu, baizik mantentitu birjin betiro: zelebrazteko festa, konbidatu zute sandua; eta konfesa komekaturik espazioreki joan ze: ta anaiak errezipitu zue agasajo andiareki agerrian, baña maliziareki biotz-barnean. Bi anaiak eta Ama jarri zire maian, ta asko denbora pasaturik, ia gau erditsutan sandua jaiki, ta kostunbratu bekala joan ze tenplora erregalatzera bere Jaunareki orazioan. Ama kruelek suturik su eman zio Boleslaori, akaba zezan bereala zegon lekuan. Joan ze armaturik armatueki; aurkitu zue belauriko anaia sandua, ta antxe iltzue bere eskus, ta in zue Martir. Gau berean Dinamarkako erregeak izan zue errebelazio, zelebrazteko Martir bekala S. Benzeslao iltzena bere anaiaren eskus; ta ala egin zue fabrikatu tenplo bat aren memoriatan. Ama kruele inhumana lurra idikirik iretsi zue: Boleslao akonpañatu zutenak eriotze gartan guziak iltzire miserableki. Boleslao bizitu ze aborreziturik on guzienganik, zeren persegitzen zituen guziak; ta nai zuen ortzi sanduaren memoria: ortako gau batez atrarazi zue sanduaren gorputza zegon lekutik ermateko S. Bitoren tenplora, orreki milagro iten



zirenak pensa zeien iten zirela S. Bitoren medios: baña zer dezake gizonaren astuziak Jangoikoaren kontra? Zaldiak zeramatenak kotxea gorputzareki gelditu zire leku batean ezin mogitus, argitu artaño. Orreki agertu ze maraña, ta sandua honratu ze iago, ta anaia akabatu miserabemente.

## Lastallaren 1.an S. Remijio Obispo Remsko

S. Remijio Remsko Arzobispo, ta Franziako Apostolu gloriosoa jaiorazi zue Jangoikoak erremediatzeko erreinu gura noiz ta zegon kasi galdurik jendeen ta espezialki elizagizonen bekatues ta gaixtakeries, ta segi dan Jangoikoaren kastigoes, gerraes, plagaes, kalamidadees. Onen Aita eta Ama zire guzis onak, ta ia alzinatuak adinean. Ama deitzen ze Zilinia. An urbil eremuan bizi ze Jangoikoaren gizon sandu bat deitua Montano, zuena anitz komunikazio Jaunareki, ta zegokiona beti eskatzen erremedio ainberzeko galmendearen. Errebelatu zekio jaioko zela Ziliniaganik seme bat deitu bear zena Remijio, zeñek paratuko zuen erremedio. Konsolatu ze sandua, ta eman zio berri gau Ziliniari: onek dudan paratu zue nola zeiken adin gartan: baña sanduak seguratu zue baietz; eta bere esneareki azi bear du, eta esnetik kendu ondoan, garbitukotut nik ene begiok orren esnes, eta itzuliko zaida bista: ezi zego itsu. Guzia agitu ze erran bekala. Ia azirik aurr goizik agertu ze, Jangoikoaren eskojittua zela; ain ona ta onera emana! ain obeziente, humil, deboto, estudioso! Baña ez kutsatzeko munduaren izurrias, erretiratu ze leku soil batean, non bizitu zen ogei ta bi urteak arteo ortzirik bekala mundurako, baña fama egatu ze de manera, ezi ilik Remsko Arzobispa, guziek eskojitu zute ortako, naiz ain gaste izanik. Sollik berak etzue nai niolater e tzela gauza: baña zerutik argi eder bat paraturik aren buru gañean, entendatu zute guziek, ta berak ere bai, on zela Jangoikoaren Kondatea, eta ala errenditu ta utzi ze konsagratzera.

Gaste eginik Arzobispo etze gaste kondizioetan, baizik juizios betea, debotoa, perfektoa; bere itzak pizu ta neurrituak; aurpegia sereno, grabe, modesto, afable, beiratzeas ere kausatzen errespeto, amore, ta debozio. Predikatzean zue indar andia, zeren obratzen zue erraten zuena. Suberboeki ze tieso; humileki manso amoroso. Alfer beñerez, gustoen etsai beti, trabajuen adiskide, menosprezioen sufrizale, dirus pobre, birtutees abrats, ta biziorik gabe. Dishonestidatea espezialki erreprehenditzen zue maiz eta sendoki: ta guzietan kuidatzen zue bere ardi es zelo andiareki, iduri baizue gizon bat zerutik etorria, edo Aingeru bat lurrekoa. Bere bizi on admirablearen gañetik milagroeki ere honratzen zue Jangoikoak. Botatzen zitue Demonioak gorputzetaik: ta bat eraman zutena S. Benitoren-gana, onek biali zue karta bateki S. Remijiori, konfuso alketurik gelditu



baize ortas; eta humilegis exkusatzan zelaik, obligatu zute negarres: ta orazio eginik libratu zue persona, ta gero il zelaik ura bera biztu zue. Askotan bere ta berzeren bearretan suplitzen zue Jangoikoak, dela jatekoas, dela edatekoas. Itxeki ze su andi bat ziudadean erre baizue zati on bat: abisaturik sandua jarri ze orazioan, gero jaiki ta goratus begiak zerura suspiro bateki erran zue, o ene Jangoiko ona, eman bezo indar ene itzari. Erran ta joan ze surik erruena zegon lekura, ta formatu zue gurutzearren señailea: istantean sugarrak asi zire biltzen ta erretiratzen; sanduak segi atzetik; aiek aratago; alik eta bola gisa bat eginik atra ziren arteo portale batetik kanpora, guziek admiratus potestadea gizonai Jangoikoak emana. Errebelazios ikasi zue lendanik goseketa izanzen zena Franzian; eta pobreen amores egin zue prebenzio bear orduko. Zenbait gaixtofikatuiek pensatus karidade gura zela kodizia, eman zioten su graneroai, zegolaik urrun sandua. Abisaturik etorri ze, baña ia orduko zeuka suak arrapatutik guzia: eta etzelaik erremediorik, sosegu ta errepausa andiareki jarri ze berotzen, otz baizego: ta erran zue, nerea ezta inport, baña pobrettoei inen dioten faltagatik Jangoikoak kastigatukotu in dutenak lan gau. Ala izan ze: su eman zutenak guziak itzuli zire kebratuak, ta aien humeak ere bai, ta ondoreko guziak. Ez orduan solamente, baita berze askotan ere, sanduak erran itza, ta Jangoikoak paratu zue eskua, zela kastigatus, zela faboratus.

Baña milagrorik andiena izan ze konbertitzea Klodobeo erregea. Zue onek bizikidea Klotilde agitz Kristio ona consejatzen ziona beti kristia zeila, baña beti protxurik gabe, ajolarik etzuela. Bearrak inarazi zio ajola, ezi gerra batean Alemanen ta Sueboen kontra zegolarik guzia galtzeko arriskoan, oroiturik inbokatu zue Jesu Kristo, ofrezitus bataiatuko zela, atratzen baze artaik. Bereala etsaiak eman zire igesai errege galdurik, ta gañarakoak errenditu zire Klodobeori. Biktoria goneki tratatu zue kristio egiteas: bereala erreginak abisatu zue S. Remijio, prestatzeko errege bataiatzeko: eta zeudelaik errege, erregina, ta Jaundiak S. Pedroren Oratorio batean aditzen sandua predikatzen ziotena, agertu ze an argi bat zerukoa, ta aditu ze boza bat ziona, Pax vobis, ego sum & Bakea zueki: ni naiz ez lotsa: bai manteni ene amorean. Bateo sentitu ze atxon bat gozagarria. Lotsaturik errege ta gañarakoak bota zire sanduaren oñetan: konsolatu zitue, zela Jaunaren kondizioa lotsatzea lenik, gero erregalatzea ta konsolatzea: erran zioten agituko zekiotena gero, ta in bear zutena, ta etzekiotela faltatuko Jaunaren grazia, faltatu arteo berek zuzen badean. Notagarri da erran ziona erregeri len erre zituenai guruzeak, *Adora bez erre zuena, ta erre bez adoratu zuena*; errateko izan bear zela izan zenaren kon-

trako aldera. Gero bataiatu zue; ta faltaturik krisma, ezin pasatus zekarrana jendetzearen utses, jautsi ze uso bat elurra bezain txuri zekarrana pikoan erredomatto bat krimareki, zein utzirik sanduaren eskuan etze ikusi iago. Ala bataiatutik errege, berze asko Jaun ta jende konbertitu ze, ta sandua gelditu ze estimazio andian, ta esku andiareki erreinu guzian egiten zue asko gauza on. Baña bera errefinatzeko iago, azkenerat kendu zekio begien bista, naiz geroago itzuli zekion. Bizitu ze laur ogei ta amasei urte, ta obispotasunean iruogei ta amalaur. Ellegatus bekala plazoa, zoeie despeitus bereenganik; errezibitu zitue elizako ordenamentuak debozio guziareki ta iltze sanduki Izotzillaren 13.an ta Kristoren 545 urtean. Egungoa da eguna, noiz aldatu zen bere gorputza leku batetik berze presatatu zioten leku dezente preziosoagokora: baña agitu ze milagro bat, ezin mogitzea niolaterere zegon lekutik, eta ellegaturik gaua, eta zeudelaik sazerdoteak eta jendeak argieki kantatzen laudarioak, lokartzea guziak bat batean, ezin garaiturik loa. Idatzarri ondoan aurkitu ze gorputz sandua parturik berek nai zuten leku gartan, erakutsis zeruak, zein estimatua daukan. Onen medios in diote Jangoikoak lurrekoei anitz fabore &.



## Lastallaren 4.an

### San Franzisko Asis Fundadorea

S. Franzisko Asiskoa, Serafin humanoa, sandu gora andia, ta anitz sanduen Aita, Jesu Kristo guruzifikatuaren imajina bizia, ta amatea, humila guziz, ta gora ezin iagos goratua Jangoikoaren grazias, da humilen ta pobreen exenplu ta konsolu, esperatzeko den pobreenak igatea gora, aurkitus grazia Jangoikoaren begietan, nai badu egin bere aldetik dezake-na. Bere Ama erditzeko egunetan zegolarik, ta ezin libratu, ellegatu ze atarian pobre bat erran ziotena, eraman zezatela estrabile batera, ta bereala an libratuko zela. Ala egin, ta ala agitu ze, progatus ala diona Profeta errealak ps. 112. *Nor gure Jangoiko Jauna bekala, bizi dena goinetan, ta beiratzenuena humilak zeruan ta lurtean? goratus lurretik beartsua, ta ongarririk altxatus pobrea, plantatzeko Prinzipeeki, bere jendearen Prinzipeeki.* Ori da S. Franzisko plantatu duena an gora serafinen eratean. Aitaren ofizioa, baize Merkatarik, segitu zue prinzipioan, baña prestu beti; ta liberal espezialki pobreenako. Bein, ez usatu bekala, despeitu zue bat eman gabe: akorduratu ze bereala, ta jaiki, ta joan, eta erdetxirik karrikan eman zio abasto: eta egun gartaik alzina in zue proposito ez despeitzeko nior eskatzen zionik Jangoikoaren amoregatik. Eta ala ematen zue noiz nai, ez solamente diru ta jateko gauza, baita bere gañeko tresenak ere. Aitak beldurrak gal-tzera bota zezon hazienda, erman zue obispoaren alzinera, in zezan an zesionen aren ondasunen. Sanduak egin zue, ta utzi zizkio zamazkien tresenak ere, ziola, orai obeki zukela erran Jangoikoai Aita gurea zeruetan zaudena. Ia treseneki bateo despeitu zue munduko afizione guzia, eta estalirik an eman zioten ongarina iduri bateki joan ze larre batera kantatus Jangoikoaren laudarioak. Atra zekizkio ladronak, ta galdeginik nor zen, errespondatu zue animoso, ni errege andiaren pregonari. Golpatu ta bota zute an elur-leze batera, nondik atra zen alegre padezituas zerbait. Ala usatus izatera despreziatua ta maltratata zoeie plantatus humilda-dearen ta morfizikazioaren zimendu barna sendoa, goratzeko santidade andiaren fabrika igan bear zena gora gora. Bere bizia ze kuidatzea heries, espezialki leprosoes, apatus ere aien eskuak; eta ia nola bera enpeñatu zen apaltzera bere burua, Jangoikoa ere dirudi enpeñatu zela goratzera bere sierboa, ezi eman zio grazia sendatzeko. Gizon bat zuena matelean kan-zilla bat, janes zeramana itsuski agoa ta aurpegia, egonik S. Pedroren eli-zan Roman aurkitu ze S. Franziskoreki karrikan, ezaundurik gizon sandua

zela, bota zekio oñetara: sanduak etzue permititu, baizik arrapatu besarka ta apatu zio kanzillareki agoa zeukana erdi janik: eta o Jangoikoaren gra-zia! istantean gelditu ze sano ta garbi garbia. Au guziau ze su iago ematea sanduari, amatzeko iago bere Jauna, ta zerbitzatzeko bere pobreetan. Eskatzen zue limosna sanduak, bizitzekos humilki len abrats ikusi zuten lekuetan: ematen zioten, baña etzekie guardatzen, lenbiziko pobre aurki-tzen zuenai ematen zio ia dirua, ia tresena, ia edozein gauza zukena; zeren ezi ez solamente Jangoikoaren manamenduaren konforme amaten zitue proximoak, pobreak berexki, baizik iago ezi bere burua; ta obeki errate-ko, bere buruaren kontra beti, ta pobreen fabore ze. Ikasi zue Kristoga-nik utzi baize iltzera ere, guri bizia emateagatik.

Eman ze sandu gau egotera maiz ta espazioreki orazio mentalean; prinzipalki pensatzen Kristoren pasioan: eta bein agertu zekio bere Majestadea guruzifikaturik bekala, ta utzi zue sandua ain beterik amores, lastimas, konpasiones, ezi ia oroitzeareki sollik urtzen ze negarres, ta bizi guzian segitu zio pasione gonek maneraz, ezi azkenerat galdu zekio begie-tako bista negarren utses. Orazioan zoeie prebenitus sandua, fundatzeko bere erreljionea. Bein erran zio, Franzisko, zoaz, konpon zazu ene etxea, erortzera doaiena. Entendaturik materialki konpondu zitue irur eliza, limosnak bildus andik eta emendik: eta azkenik Porziunkula deitzen den Sta. Mariaren eliza. Emen asi ze Jangoikoaren errebelazioen ematen prin-zipio fundatu zuen erreljioneari: aditurik ebanjelioan kontatzen Kristok errana Apostoluei biali zituelaik predikatzeraz, *ez ermateko urre ta zillarrik, ta munduko prebenziorik;* on entendaturik, erraten ziola berari, kendu zitue oñetakoak, bota diruak, ta habitu pobre bat erxtiturik kordon bateki, asi ze bizitzen Apostoluen bizia, ta predikatzen penitenzia. Joan zekizkio arrimatus lagunak: eta ia bildurik anitz, eskribitu zue erregla, ta joan ze Romara prokuratzera aproba zezan Aita sanduak, baize Inozentio III.a 1209 urtean. Prinzipioan dudatzen zue aprobatzean erreljione berririk: baña gero izanik bisione-iduri bat, erortzera bekala zoeiela bere Letrango eliza, eta pobretto batek soñak arrimaturik zeukala tieso etzeien erori, entendatu zue ura zela S. Franzisko sustentatzeko Eliza Katolikoa: eta konfirmatu zio bere erregla. Asi zire predikatzen, mias baño, obeki bizi-moduas Jangoikoaren itza, ta Jangoikoak bialtzen zitio langin bear beka-lakoak, eta ainberze, ezi errepartitzeko nola bear zen, bildurik kapitulo jenerala Porziunkulako elizan, joan zire borz milla erreljioso arara; eta asentaturik an gobernua, partitu zire lekuetara. Nai zue sanduak aproba zezon erregla urbilen Aita sanduak, baize Honorio III.a Ortako iganik oian batera baru ta orazio kontinoan an eskribiarazi zue erregla, nola erre-





belatzen zion Jangoikoak. Eta aditu ze boza bat zerutik ondorean, *Franzisko, erregla gontan ezta deus zurea; nerea da guzia: eta guzia nai dut guarda daien itzez itz: ezi nik Makit gizonak dezakena, ta laguntza nik emanen diotena*. Ala konfirmatu zue Jangoikoak erregla, ta bereala bere bikarioak Aita sanduak. Eta erregla bizia ze S. Franzisko bera.

Nork edo nola pintatu sandu gonon bizimodu sandua, eta birtuteak? nola pensatu ere? Humiltasuna zerbait aipatu da; den guzia ezta posible, zeren guti ze kontatzea bere burua deustako, ta gaixtotako, ta deseatzea beti despezia zezaten: orren billa zebila, ta on ze bere gustorik andiena. Humillegis etze atrebitu ordenatzera sazerdote, ta gelditu ze Diakono beti: ta sazerdoteak beneratzen zitue ainberze, ezi erraten zue, *aurki balez bateo sazerdote bat, eta sandu bat zerutik jauntsia, lenik apatuko ziola sazerdoteari eskua, ta gero inen sanduari erreberenzia, zeren esku gaietaik artzen dugun sakramentua*. Humillegis ere asi ze dudatzen, obe ote zen erretiraturik bizitzea orazioan, edo segitzea predikatzean: eta konsultaturik, Sta. Klarak eta berzeek konsejatu ziotse segitzea. Humillegis errenunziatu zue izatea Jenerale, ta egoten ze obediente edozeñi, baita kozinariai ere: Humillegis beti bear zue eraman habiturik zar zarrena, ta iduri bazekio norbaitena zarrago, trukatu bear zio: eta iltzerakoan kendurik habitua, eman ziotelaik limosnas, zego kontent deus gabe zoeiela mundugontaik. Humillegis uste zue, ta erraten zue zela munduko bekatari guzien andiena: ta erraten ziotelaik nola zuken erran on egiaz, errespondatzen zue, *zeren egin balitio Jangoikoak ladron bati edo bekatari andienari, niri egingintan faboreak, bailitzake agradezituago ni baño; eta ni utzi banindu bere eskutik, izanen nitza gaixtoago aiek baño*. Penitentzian bada exzesu egin zuela, berak ere il baño len ezaundu zue, ta konfesatu zue, ekusatus egin zuela seguratzegatik kastidada. Birtute gau bada guardatu baizue, mortifikatus milla maneras, naiz Demonioak egiten zuen eginala deskuidarazteko. Bein orazio ondorean aditu zue boza bat ziola, o Franzisko, edozein bekatari den, konbertitzen bada, barkatuko dio Jangoikoak: baño iltzen duenak bere burua sobra penitenzias eztu barkaziorik. Gelditu ze dudan, nor ote zen erraten ziona; baño sentiturik tentazio erru bat, ezaundu zue zela Demonioa. Bereala disziplinatatu ze fuerteki, gero bota ze elurrean, nola iten zuen askotan garaitzeko etsaia. Miragarriro kuidatzen zue kentzeas okasio ta peligrouta, ta tratatzeas emastekieki: eta erraten ziotse bere errelijosoei, *iago fiatzen dena aisago erortzen dela; eta okasioan fuertea iten dela flako; ta emastekieki anitz tratatzea ta ez tentatzea dela ain inposible, nola brasen gañean oin urtuxian ibiltzea, edo sua kolkoan eramatea, ta ez erretzea. Zer iteko duzie aieki, ezpada konfesatzeko? Demonioa dabilala eskaida billa, ta barin badu nondik arrapatu,*

*ezpada baizik bilo bat ere, gerra fuertea inen du*. Alakoa da sanduen mintzaera mundukoaren kontra. Orgatik bere gorputza deitzen zue astokoa, zurriago bear zuena, karga anitz eraman, anitz lan ta guti jan. Alferrrik nior ere etzue ikusi nai, ta alakoa deitzen zue Fr. moska, errateko uliaren gisara dela. Guziareki agitz ze beratx benignoa berzeendako, beretako zena ain gogorra. Elizagizon aundi bat bizimodu gaixtotakoa zego agitz heri: nai ze sendatu: billatu zue sandua: ortako billatzen zue gaixtoek sanduak, ez imitatzenko. Ermanarazirik sanduagana eskatzen zio negarres, zeñazezala gurutzearen señalear. Sanduak amoltsu, baño grabe, erran zio, nola eskatzen dida in dezoten gurutzearen señalear, delarik gurutzearen kontrario bizimoduan? Nik mendiat konpasiones: baño beira, ezi Jaunak senda ta on itzultzen bada gaixtora, izain duela kastigoa andiengo. Egin zio sanduak gurutzearen señalear, ta Jangoikoak eman zio osasuna: baño Jaunarrek etzue utzi lengo kondizioa betikos: eta ala gau batez zegolaik etxe batean, erori ze gañeko tellatua, ta guziak eskapaturik, ura arrapatu zue pean. Baño ezta posible kontatzea milagro guziak; ain guti Jangoikoak sanduari egin zitien erregaloak.

Bat sollik eztaieki utzi kontatzeko. On guzia etorri zekio sandu goni, guzi ori bekala, Jesu Kristoganik, au baita Jangoiko ta gizon bekala Jangoikoaren ta gizonen bitarteko bakarra, ta gizonen ainberze amore diguna, ezi guregatik eman baizue bere bizia, gorputza, ta odola. S. Franziskok itzultzen zio ordaña, daikenez: Nai zue eman bizia ere beragatik, ta ortako joan ze moro errietara: baño ezin logratu zue martirio deseaten zuena. Biotzean ordea zio ainberze amore, ta ainberze konpasione beraren pasioas ta eriotzeas, ezi aipatzeas ere, oroitzeas ere zerio negarra. Bi urte il baño len Alberniako oianean, kostunbratu bekala, zegolaik orazioan ta barutzen S. Migelen garizuma, urriaren amazpigarreanean, gurutzearen egun ondoan agerturik serafin bat sei egaleki, ta guruzifikatuaren forman inprimitu zizkio borz llagak sanduari bi eskuetan, ta oñetan, eta bularrean, nola zelebrazten baitu Elizak, gelditurik sandua honraturik ezin iagos marka soberano gaieki. Altxatzen zitue albas berak, baño ikusi zuzte asko errelijosok, zenbait kardenaleek, ta Aita sanduek ere il baño len ta il ondoan. Baño llañen atzetik segitu zire asko trabaju, ta dolore, imitatzeko bere Jaun guruzifikatua al guzian: Guzia eramaten zue ain pazienza andiareki, ezi libratzea ez, baizik eskatzen zue aumentatzea, barin baze ala Jaunaren borondatea. Errebelatu zio noiz bear zen il; eta iltzeko ermanarazi ze Porziunkulako konbentura, bukatzeko an, non asi zuen bizi berria. Exortatu zitue bereak bizitzera Jangoikoaren amorez, pazientzian, pobre zan, ta fede katolikoan: ta gurutzaturik besoak, eman



ziote bedezioa guziei, presente zeudenei ta etzeudenei. Leiarazi ziote Kristoren pasio sandua, S. Juanek eskribitu bekala: eta gero erranes psalmo bat 141., azken itza erratean despeitu zue arima, zori onekoa, Lastallaren 4.an 1226 urtean, eta adinaren 45.an. Urte gutis anitz bizitu ze. Ordu berean agertu ze obispoari, ta berze zenbaitei. Gelditu ze gorputza, bizi zelaik ila iduri zuena, il ondoan agitz eder argi flamante, lotsatzen ez, baizik alegratzen zuena beiratzeas. Andik bi urte Aita sandu Gregorio IX.ak kanonizatu zue. S. Franzisko izan omen ze disposizio medianotakoa gorputzes, iago txipi, ezi andi: aurpegia luzekara: kopeta zabal betea: begiak txipikara, beltz, eta kuadrable: biloak ere beltz. Beigitartea alegre, afable, benigno, beltzarankara iago ezi txuri. Mintzatzea agudo, boza klaro, ta metale onekoa: mintzaera elegante naturalki, anitz ta ongi zekiena mintzatzen: injenio anditakoa, ta espiritu bizkorra, gorputza aragi ta bulto gutitakoa. Guzia da arrazio notatzea alako sanduan: baña prinzipalena da arima garren ona, humila, mansoa, sufritua, ta Jesu Kristoren amante fiñ fiña, imita dezagun dezakegun gartan &.

## Lastallaren 10.an S. Franzisko Borja

S. Franzisko Borja, Gandiako Duke izana, Lonbaiko Markes, Kataluñako Bisorrai, ta Españako Jaundia, izan ze andia alde guzietara Jangoikoaren ta munduaren alzineko, solamente txipia bere begietan. Bere Amak ezin libratu zuegolarik, eskaturik S. Franzisko Asiskoari fabore, ofrezitu zio jaiotzen baze seme, deituko zuela Franzisko. Orreki ta paratzeareki sanduaren kordon bat, eman zue argira seme gau deitu zena Franzisko, ta izan zena sandu garren imitazale propia, espezialki humiltasunean. Azi ze txoil ongi ala birtuteetan, nola letraetan, izanik berez ere txoil ongi inklinatua, sosegatua, bakeskoa ta oneroa deitzen dutena. Il zekio Ama, zelarik amar urtetakoa: eta Aitak emanik Maestru onak, ikasiazio zio bear zen guzia, izateko kaballero ta Kristio ona: gero biali zue Karlos V. enperadorearen palaziora, non izan zen guzien exenplu bekala, agitz estimatua: orgatik satisfakzio arturik onen juizioas, prudenzias, ta birtuteas, ezkondu zue bere gisako señora bateki, eta biali zue eramatera Isabel enperatrizaren gorputz ila ortzitzera Granadan. Entrega iterakoan, ikusi ze ilaren aurpegia ain aldatua lenekotik, ain itsusi lotsagarri, ezi arritu ze Dukea, ta desengañaturik munduko banidadeas erresolbitu ze uztera emengo guzia zukuenean, ta ematera Jangoikoai. Itzulirik lortera, nai lucjuelaik erretiratu, obligatu zue enperadoreak joatera Kataluñara Bisorrai. An gobernatzen zue Aita on baten gisara, egines al guzia ongi guziei, ta erremediatu gaizkiak onen amores. Lenbiziko in zuena garbitzea lurra ladronetaik, baizire anitz bandaka zebiltzanak. Eben atzean atratzen ze bera, ta bein arrapatu zitue berrogeitabortz fuerte in zirenak dorre batean; eta ala garbitu zue guzia bere dilijenzia onareki; ta erraten zue, egun daño etzuela segitu ain gustorako eiziarik, nola au, iduri baizekio eizian zebilala Jangoikoaren justiziaren konpañian, seguratzeko onak, kastigatus gaixtoak; zuelarik bateo eben konpasiene andia, ezpaizue ixurtzen odol tanta bat etzekiona kostatzen anitz negar: eta justiziatzen zen bako txaren sufrajiotan ogeitamar meza erranarazten zitue bere kostus. Kuidatzen zue Juezes ta justizies, eskribabo, ta alakoes, ibiltzeko zuzenbideas guziak: baitare soldadeskako jendeas: baitare berze estado guzies, prinzipalki pobreen erremedioas. Erremediatu zue goseketa erru bat hein ekkarrarazis kanpotik gari abasto, eta beti eman beretik liberal. Baña guzien gañetik zue kuidado erremediatzeas bekatu publikoak, eta aditzen zuelaik



agitu zela alakorik an edo emen, aflijitzen ze Jaun andiaren ofensagatik, ta beldurrak izan ote zen beraren faltas: zeren ezi erran daike Prinzipe erreljioso bat zela au, ta ala deitzen zute Prinzipeen milagroa. Bere palazioa zeuka ain ongi ordenaturik, nola konbentu obserbante bat: guziak an bear zire ibili zuzen sanduki, eta bera zoeie lenean konfesa komekatus maiz, barutus anitz, erreztatus errosarioa ta berze debozioak, egones orazio mentalean egunoro.

Iltze denbora gortan bere Aita: orren kases logratu zue erretiratzea bere Gandiara, non egin zuen asko gauza on Jangoikoaren zerbitzutan. Gero Jangoikoak erregalatu zue Dukesa heritasun luze bateki. Zego Dukea otoi ta otoi eske Jangoikoai senda zezan: eta bein bere Majestadeak adiarazi zio itz gau, Nai baduzu uz dezaten iago denboras, zure eskura usten dut; baña erraten dizut etzai zula konbeni zuri. Aditurik ori arritu ze sandua, ta agradeziturik ta zoraturik amores errespondatu zio, *Jauna*, ta Jangoiko nerea, nondik niri alako sobrania, nola uztea orren Majestadeak ene eskura berorren eskuan dagona, ta egon bear dena? Nor da berori? ta nor naiz ni? Bada nik diot orai danik betekos, ezi nola ezpainaiz neurea, baizik berorrera, eztutela nai in daien ene borondatea, baizik orrena, eta orrek nai duena nautela nik, ta ofratzen diotela ez solamente aren bizia, baita nerea ere, ta nere humeena, ta duten guzia berorrek emana: berorrek egin ta desegin bez guzietas nola duen *plazer*. Segitu ze iltzea bizikidea, zeñi asistitu zion sanduki entregatzeko arima Jangoikoaren eskuan, nola in baizue, gelditurik bera alargun adinaren ogeita amasei urtetan.

Ia ezaundurik nai zuela Jangoikoak beretako, asi ze tratatzen sartzeas erreljioneren batean. Plantatu berria ze Jesusen Konpañia S. Ignazioganik; zeñen exercizioak in zitue; ta logratu zue Aita sandu Paulo III.ganik aproba zezan ta konfirmatu exercizio gaien librua, nola in baizue Garillaren azken egunean, 1548 urtean. Azertatzeko zein erreljionetan sartu, egin zue anitz baru, ta orazio, ta limosna: ondorean entendatu zue Jangoikoaren borondatea zela sar zeien Jesusen Konpañian. Komunikaturik S. Ignazioreki, baizego Roman, ta ia zerutik abisaturik ortas, determinatu zue alistatzea konpañian. Sartu ze, ta profesatu ze, ta estudiatu zue manatu bekala: ondorean ia ordenaturik humeen, etxearen ta gañarako itekoak, joan ze Romara, non esperatzen zion atarian S. Ignaziok: eta naiz konbidaturik asko Jaun andiek, eta Aita sanduak berak bere palaziora, Sandua joan ze bere Aita onaren billa. Ellegaturik urtiki zekio oñetara, baña S. Ignaziok besarka arturik goratu zue; ta negarres biak alegratu zire Jangoikoan. Bisitatu zue Aita sandua Julio III.a ta gañarakoak: eta guzia ze admiratzea guziak, ta guziek honratzea bera, nai etzuela Mtxa. Eta entendatu-

rik nai zutela egin Kardenale, eskapatzeagatik, S. Ignazioren konsejus etorri ze Oñatera, baita Gipuzkoan. Emen ordenaturik sazerdote lenbiziko meza erran zue Loiolan S. Ignazioren sortuetzeko oratorioan. Bigarrena erran zue Bergaran publikoan logratzeko Jubileo Aita sanduak emana aditzen zutenendako; baña ainberze jendeketa bildu ze, ezi bear izan ze erratea kanpo agerrian, eta predikatu zue, eta aditzen zute arriturik bekala; eta naiz eziin entenda, izanes euskaldunak, zeude negar ta negar debozios ala gizonkiak, nola emastekiak, eta galdeginik zergatik zeuden negarres, ziote ezi ikustetas Jaundi bat sandua. O zenbat balio duen exenplu onak! Eman ziote Oñatekoek limosnas S. Magdalenaren hermita bat, zeintan inarazi zitue zeldatto batzuk txipiak desluzituak pobre gisa: ta ikusteko ze ikustea bere eskus lan egiten artan, ta sukaldean lagun iten kozinariari ur karraio, su egiten ta onziak, ta eskobatzan ain kontent, baitare alforjareki soñean limosna eske ataris atari: eta gero aurrei doktrina erakusten ain amoltsu, llano humil, nola menosena. Ibilis erri gaiek barna txintxa bateki deitus doktrinara. Kontent zego bere humiltasuna zoko gartan, baña etzego atzendurik artas Karlos V. enperadorea. Onek eskatu zio Aita sanduai, in zezala Kardenale: Aita sandua zego naiak. Baña S. Ignaziok eskatu zio etzezola manatu, baizik proponitu, nai bazue. Aditu zuelaik pasatu zena Roman, lotsatu ze izan zuen peligras, ta esker milla eman zio S. Ignaziori. Baña zoko gartaik edatu ze fama mundua barna egines mella ta admirazio andia, eta exenplu andi goneki anitz desengañatu zire munduko banidadeas: anitz eldu zire ikustera: anitz mogitu zire uztera mundua.

Ordu zela ia iduriturik, S. Ignaziok atrarazi zue zoko gartaik probetxatzeko munduan. Atra ze, ibili ze predikatus Iruñean, Burgosen, ta berze anitz Españako ta Portugaleko ziudadeetan: zenbat probetxu egin zuen Kristioetan, nork erran? aski zelarik beiratzea pulpitoan, konbertitzeko anitz. Aprobatu zue ta alzinatu S. Teresaren espiritua ere. S. Ignaziok ikusirik Jangoikoaren eskua zegola sandu goneki guzietan, egin zue bere Komisario jenerale. Zenbat aumentatu, ta oberatu zuen Jesusen Konpañia, eztaike aski pondera. Gero il ondoan S. Ignazio, ta bere urbilen ondorengo Jenerala Diego Lainez, in zute S. Franzisko Borja guziek gogotik ere: bera sollik zegola penas beterik eta negarres. Etzuelaik berze erremediorik, guzia ze eskatzea lagun zezoten konsejatus, abisatus, korrejitus, orazio egines: eta ikusten zutelaik etzezakela jasi karga, ken zezotela, nola iten baita asto bateki, ez dezakelaik eraman. Len lenbiziko manatu zuena zeudela geldi, ta banaka guziei belauriko apatu zizkiote oñak. Gero in zuen probetxua Konpañian ta Eliza guzian, non da mirik erran dezekenik? Karga ezin eramanes zegola zio, ta alaere karga kargaren



gañean añaditu zio Aita sanduak S. Pio V.ak bialis erregeengana Elizaren ta guzien onagatik. Obeditu zue, naiz azkeneko iltzen.

Baña guri dagokiguna, baitire birtuteak imitatzeke, erragun zenbait; ta lenbizikoa humiltasuna, baita iago admiratzeko ain gizon andian. Ze sinez ta egiaz humila berze S. Franzisko Asiskoaren gisara. Ez solamente etzue presumitzen bere buruas, baizik bai pensatzen zela mutila onerako; ta munduan den gaixtoena: ta nai zue mespreziatua izan, ta ortas etzue artzen punturik, baizik plazer. Bein karrikan joaten zoeie pensatzen nola mereji zuen infernura kondenatzea, ta zoeie uzkur uzkurra, nola gora baleitez guziak kontra ematera, ziotela, infernukoai infernukoai. Berze bein pensaturik nola Jesus ona paratu zen judas traidorearen oñetan garbitzeko, zego sandua negarres, kendu ziola berai zegokion lekua, etzuela ia lekurik munduan. Berze bein, Komisario Jenerale zelarik aurkitu ze porterian, ekarri zutela limosnas hazienda beltz bat: artu zue soñean, ta eraman zue goiti: ta ortas admiratzen zirenei erraten zioten, zer milagro da hazienda belz batek berze bat eramatea? Berze bein lanoan ai zirelaik idis, il zekiote idi bata; bakarrareki ezin egin lana, ta ain sinez nai ze bustarrian paratu, ta zio bustar zezatela. Honra iten ziotelaik, pesadunbre artzen zue; dignidadeetan pensatzeas ere aflijitzen ze: baña naiz aflijiturik errenditzen ze obediencia. Baña nori obeditzen zio? edo obeki errateko, nori etzio obeditzen? Manatzen zuelaik ere, iten zue ain amoltsu humil errogatus bekala, ta exenplu emanen, ezi guziak uzten zitue kontent in naiak; eta preziso zelarik ematea zerbait penitencia, berak lagun iten zio egiten. Sukaldean maiz zerbitzatzen zue, ta obeditzen zio kozinariari, aur batek bekala. Bein alako batean zegolaik, ellegatu ze beraren galdes Prinzesa D.a Juana: etze atra eskatu gabe lizenzia kozinariari, zeñek erran zio bazeikela joan, baña itzuli zeuela fite, falta inen zuela detenitzen baze. Atra ze, ta aiturik Prinzesa, bereala despeitu zue, bear zuela kunplitu manatua. Obediencia zio zela itsasonzi bat bekala, zeintan doaien bat seguro gau ta egun seguro ta alzina irabazis naiz lo dagon. Penitencia zio zela zerurako bide erreala bekatiaren, ta ala zebatu ze artan, ezi etzekio goxo alimentua egun batez ere, ezpazue iten penitencia eta azkeneko egin zue eskripulo geiegias. Ta etzeien akaba sobra fite, manatu zioten gorputzaren tamentuan obediencia zezola Markos deitzen zen lego bati: eta ze admiratzeko zein humil eskatzen zion lizenzia edozein gauzako legoari. Notagarri da ziona bere Jesusen Konpañias, uste zuela aren konserbazioa ta aumentua irur gauza direla medio, lenbizikoa orazioaren ta sakramentuen usoa: bigarrena persekuzione sufritzea: ta irugarrena obediencia perfekzioa. Guzietan zerama abantalla: baña orazio mentalean, ta sakramentuaren

debozioan, den adina eztaike explika, ta konzienzia examinatzean ta konfesatzean. Lan gau egunoro bi aldis egiten zue: orazioan noiz nai borz sei ordu pasatzen zue, kuarto ordu bat etzekiolaria iduri: ta sua zeriola zebaten ze ainberze, ezi beldurrak konsumi zeien sobra egones, lego garrek deitzen, ta erraten zio, aski zela, utzezala ia: sanduak errespondatzen zio, gexago, ene anaia Markos, uz nazazu guti bat gexago. Ainberze ordus idukis agoa pegaturik lurrain kontra bere orazioan erreberenziaren utses, galdu zekizkio aginak eta ortzak, ta ustelzen asi agoa, maneraz ezi ezpazioten goart eman, laster bukatuko ze. Baña beti ta leku guzietan orazioan zegola daike erran, ezi guzietan presente zeuka bere Jauna ezin atzen; eta konbersazioetan, bentzait etzirenetan espiritualeak, etzago atento, gorpuzta presente, baña gogoa jan eta ala abisaturik errespondatzen zue makur, ta adbertiturik falta, errespondatzen zue, naiago zuela tonto iduritu, ezi denbora galdu platika inpertinenteetan. Egunas zezaken guzietan eskapatzen ze bisitazera sakramentua, ta bajeetan sartzen ze aurkitzen ziren tenploetan adoratzera Jaun sakramentua; ta iago dena, usmatzen zue non zen sakramentua, non ez. Bada zer diogu komekatzeas? Ezta nior ain goseti goloso denik emengo janarien, nola zen sandu gau zeruko janari bizi erregalatu gonon. Etzue uzten pasatzera egunik komekatu gabe, zegola sano, zegola heri. Zego bein heri letargo-iduri bateki; nekez zuke te idatzarrazazi artzeko zerbait; baña komunioneke orduan etzue lorik, ta ez deskuidorik. Alakoa zue amoreta aun dibinoagana! Ez bizi bat, ezi milla bizi eman lezazke, balitu, bere Majestadearen zerbitzutan. Ortan bukatu zue bere zuena. Okasio izanas geros zerbait zerbitzu egiteko, etzue erreparatzen heri zegon edo sano, zar edo malder: eutxi lanai. Amoregontaik eldu ze ziotena proximoei: zeñeki ze agitz biotz-bera. Etze koleratzen, ez enfadatzen, ezta erresentitzen, edozein gauza erran, edo eginik. Ezta Amarik, ain amoltsu tratatzentuenik bere humeak, nola sandu gonek bere menekoak. Aien faltaetan erreprehensiorik andiena ze erratea, Jangoikoa in zaizala sandu: nola in duzu, edo erran duzu gauza ura? Baña nori zioten kariño espeziala, ze bere kontrarioei. Ebek deitzen zitue bere ongiegilleak, laguntzen baitigute salbatzen, sufrimentua dela medio. Beñere etzio niork ere aditu itzik bere kontrarioen kontra; ta etzue zer erran niork beraren alzinean; defendatzen zitue ta diskulpatzen ederki; ta gauza klaroki gaixtoan intenzioa exkusatzen zue. Alakoa zue pazienza ere ta konformidadea trabajuetan, baitare desapegoa bere aide ta propioetaik. Izan zue alaba bat agitz onetsia, ta mereji zuena: iltze au gasterik kondesa Lermakoa: berri goi izan zue zoeielaike erregeren palaziora karrikan: baratu ze Kredo bat bekala begiak ertxirik: berla segitu zue sereno: trata-



tu zitue zemazkien itekoak Prinzesareki: ondorean erran zio, enkomenda bez D.a Isabelen arima joan baita kasi derepente. Turbatu ze Prinzesa, ta erran zio, ta on da berri ematekoa ain deus bekala? ta ezta Aita baitan iago pena iltzeas alako alaba? Errespondatu zue, nola baikindue prestatua, ta Jabea etorri es ke, zer in bear dugu, baizik eman esker milleki? Sandu gau iltze sanduki Roman 1572 urtean, zituelaik 62. S. Teresak sandua zio: Kanonizatu Klemente X.ak.

## Lastallaren 15.an S. Teresa de Jesus Karmesko Deskalzaen Fundazalea

S. Teresa de Jesus emaste-jendearen gloria, Eliza guziaren argia, ta Doktora, zenen doktrina zerukoa deitzen duen Elizak, Españaren honra, Karmesko errelijionearen lustrea, sandu-eginzalea, ta sanda sendo egiaskoa abantallareki, ta amablea on eta gaixtoendako, ezpaitzakete utzi amatzeko ezauntzen dutenek, jaio ze Avilako ziudadean, 1515 urtean, buratso noble Kristioetaik. Aita deitzen ze Alonso Santxez de Zepeda: Ama Beatriz de Ahumada; zori onekoak beren onagatik, baitare izanagatik alaba gau ain ona berze anitz humeen ertean. Azi zute txoil ongi, ta berez ze ongi inklinatua, sanda izateko mostrak zituena, jenio ta injenio onekoa. Zazpi urtetako ia bazekie leitzen ederki, eta berak dion bekala bere eskribitu zuen bizian konfessoreen manamendus, erretiratzen ze bere anaia txipitto bateki, leitzera sanduen biziak, eta ikusirik martirio pasatu zuztenak Jangoikoagatik, *iduri zekida*, dio, *erosten zutela joatea gozatzera Jangoikoas, ta deseatzan nue agitz nik iltzea ala. Konzertatugina joateko Moro-errietara, an il gndezkiten*: ta errealki asi zire joaten, ta bidetik itzularazi zuzte. Aurra delaik ala dena, zer izanen da gero? *Arritzengina*, dio, *leitzerakoan, ala gloria, nola pena direla betiko. Tratatzen gndue orren gain, eta egoten gina errepetitzen anitz aldiz au, betiko, betiko, betiko. Ala nai izan zue Jangoikoak geldi zekidan inprimaturik aurzutuan egjaren zuzen-bidea*. Il zekio Ama, ameka amabi urtetara zelarrik. Gelditurik emazurz joan ze elizara, ta enkomendatu ze gogotik Ama Birjinari, anpara zezan Amak humea bekala: ta baliatu zekiola, dio, ezi beti progatu zuela Ama amorosa andik alzina.

Gero tratatus Monja sanda bateki, leitus libru onak, ta eskatus Jangoikoak orazioan, erresolbitu ze sartzera Karmesko errelijionean: ortako ematera kontu bere Aitari: *baña Aitak sobra maite izanes, dio, ez nindue utzi nai, bera bizi bitarteo; ura il ondoan, nai nuena in nezala*. Baña sanda etze fiartzan bere buruas mundu gaixtoan; Anaia bati konsejatu zio sar zeieia fraile, ta arreaki bateo egun batez, utzirik Aita, etxe, ta etxeko gauza guziak, joan ze konbentura, non arturik habitua gelditu ze kontent alegre estado berrian, ta Jangoikoak ere ematen zio debozio, ta gusto orazioan ta errelijioneko gauza guzietan. Baña nola Jangoikoak azitzen baizue sanda anditako, asi zue bisitatzen ta progatzen heritasun andieki. Eraman zute kura-





tzera berze lekutara, non bere konfesoera irabazi zuen Jangoikoarendako; baña bera, naiz pasarazirik martirio andiak kuratzeko, etze kuratu, bai iago gaizkitu; ta ala Aitak eraman zue bere etxera, non etsitu ta deshauziatu zute Medikuz guziek. *Prisa eman nue konfesatzeko, dio, ezi beti nitza maiz konfesatu naia. Iltzearen beldurra zelako atxekian ez nindute utzi. O amore geiegia, naiz alako Aitarena, zenbat kalte in zidaken! Gau gartan eman zida akzidente batek, iduki bainindue kasi laur egun sentidorik gabe. Eman zidate oliadura: kontatzen nindute ain ila ia, ezi aurkitu nue argizaria ere begietan: obia idikirik zerukate ene konbentuan, ta berze batean egirik ilariko sufrajoak. Ene Aitaren pena ze andia ez utzias konfesatzera: klamoreak ta orazioak zire asko Jangoikoai; biz bedeikatua, aditu baizitue, ta itzularazi ni akordura. Bereala nai izan nue konfesatu: gero komekatu nitza negar askoreki, naiz ez sollik ofendituz Jangoikoa. Bereala naiz ala ermanarazi ze konbentura bizirik, baña gaizkiago ezi ilik emateko pena, flakurraturik, oñazes beterik, ta ezin mogi: zorzi ilabetes egon ze ala, ta kasi irur urtes tulliturik: asi zelaik ibiltzen lauroinka, esker milla zio Jangoikoai; ta beti zego konformidade onean, nai bazue ere ala iduki beti. Alaere deseitzen nue, dio, osasuna, naiz neraman ale reki gaitza, ta pensatzen nue, baldin sendatu ta kondenatzen banitza, obe nuela egon ala, baña uste nue, sendatu ta obeki zerbitzatuko niola. Au da gure engaiua ez ustea guziz Jangoikoaren eskuan, in dezan nai duena, baitaki obeki zer zaigun konbeni, ta nai baitu gure ona beti.*

Etzuelaik erremediorik lurreko Medikuetan, asi ze billatzen zerutik, egines debozio ta orazio franko. Artu zue Abkatu S. Josef, ta ikusi zuela klaro, dio, ala artaik, nola berze asko bear gorputz ta arimarenetaik libratu zuela sandu gonek. Gero edatzen da onen laudarioetan, exortatzen guziei izan dakizkion deboto biotzes. Sendaturik artaik eman ze enpleatzaera orazio mentalean; au laudatzen, ta kontatzen du nola gaitz guzien erremedio, ta sandutzeko bide: eta denbora-aldi batez utzi zuenas humildade iduris lamentatzen da, ezi orduan zela gaixtoago; ta eztaiaela utzi dio orazioa, naiz izanik zenbait falta. Erakutsi zio bere Aitari nola egin orazio, eta probetxatu ze anitz. Eta heritu zelaik azken heritasunas, asistitu zio alaba onak, ta kontatzen du zein iltze ona izan zuen, ta nola Jangoikoak adiarazi zion il bear zela. Tratatus Aitaren konfesoereareki itzuli ze oraziora, baña despeitu gabe arras munduko konbersazioak, nola nai zuen Jaunak, sandatako azitzen zuenak. Orgatik asko maneras inspiratzen zio. Etzela bekaturik konbersazio gaitetan erraten ziote: baña dibertitzen ze. Asi ze konsultatzen Jesusen Konpañiakoeki, eta seguratu ze asko beldur zituenes, ote zen espiritu ona zuena. Ebetaik batek erran zio, plazer egiteko guziz Jangoikoak, kendu bear zela guziz konbersazioetaik: erres

ondu zue, ezpaze bekaturik, ta ez ofendi zen Jangoikoa, ia zergatik izan bear zen esker-gaitza. Konfesoerak erran zio, enkomenda zezala Jangoikoi erreztatus himno gura Beni Kreator. Egun batez orazio luzearen ondorean erraterakoan himno gura aditu zue erraten zekiola, *ia ez tut nai konbersaziorik izan dezazun gizoneki, baizik Aingrueki*. Ala gelditu ze txoil afizionaturik tratatzera zeruareki, despeiturik bekala mundutik. Ala Jaun ona ere asi ze erregalaten bere sierba konsolazio, erregalo, ta fabore soberanoeki. Bada pensatzen ta errepensatzen egones Jesus ona, ta amoresko exzesoa, obratzean ta padezitzean ainberze guregatik, itxeki zekio biotzean sandari amoresko sua, pasionea, ta konpacionea Jesus onarengana de manera, ezi bera sollik amatzen ta errespiratzen zue: Baitare Jesus onak bere amazalea pagatzen ederki mundua ere faboratus zeruko dono miragarrieki.

Sandaren konfesoerak, ta gizon jakintsu prudenteak konsultatu zituenak, alde bat ponderatzeareki sobra sandak bere indignotasuna, berze alde beiratzereki erregalo gaien geiegia, asi zire dudatzen ote ziren espiritu onaganik, edo gaixtoaganik, eta zenbaitek espezialki iago nai zutenek sanda uste zute gaixtoaganik zirela: eta sanda beldurraren ta afflikzioaren presnan bekala zego kongojaturik. Baña etze deskuidatzen Jaun ona konsolatzeas ta seguratzeeas bere onetsia bear orduetan: Erraten zio biotzera, *etzaitela beldur, ene alaba, ni naiz; ta etzaitut desanparatuko*: Ala sosegaturik gelditzen ze ta konsolaturik ederki. Konfesoere propioak ere konsolatzen zue erraten ziola, non ta etzuen ofenditzen Jangoikoa, etziokela gaizkirik egin, naiz Deabruak era, ura baliz: segi zezala onean ta Jangoikoi orazio egitean, ezi erremediatuko zela. Baña zenbaitei ain sinez iduri zekiote espiritu gaixtoa zela, ezi erraten ziote konjura zezala guruzeareki. Jesus ona agertu zekio klaro eder, ta artu zio eskutik guruzea, ta itzuli zio laur diamante preziosoeki adornaturik, ta borz llagak inprimiturik. Ezau-narazteko bere Majestadea zela, ematen zitio kausak ta arrazioak, erran zezkiotela aiei, desengañazeizen. Erraten ziote sandak, persona bat ongi ezauna, lentxago arrek egon zena erran balezote aiek etzela ura, sinesta lezakela obeki: baña persona garrek utzi balitio eskuetan zenbait joia edo prenda amorearen seña, nola zuen sinesta etzela ura? Bada Jangoiko Jaunaren amorearen prenda bazezakela mostra, ta guziek ikusten zutela, obetu zela aren arima. Eta on beroi erraten omen ziote bere konfesoere propioak, baize Konpañiakoeki, V.c. 28. n. 12 ta agitz humila, dio sandak; eta humildade andi gau izan zela okasio pasatzeko sandak anitz trabaju, ezi ez fiatus bere buruas, konsultatzen zitue berzeak: zeñek erraten omen ziote guarda zeuela, etzezan engaña, etzezala sinesta. Sanda on aitu-



rik aflijitzen ze, ta beldur ze etzuela izanen noreki konfesatu. Ta dio, Jan-goikoaren probidentzia izan zela, ain ona izatea konfessore gura, ta segi-tzea. *Onek beti konsolatzen nindue piedade andiareki, eta sinesta balez bere buruai, ez nuke pasatuko ainberze trabaju, zeren Jangoikoak entendarazten zio guzietan egia, eta argi ematen zio sakramentuak berak, nik uste dutenez.* (Baltasar Alva-rez) Jangoikoak aumentatus faboreak, ta agertus klaroago beraganik zire-la, geroago ta iago, disponitu zue joan zeien Avilara S. Pedro Alcantara, zeñen santidadea ta penitentzia laudatzen du sandak ederki: Oneki kon-sultatu ze sanda asko aldiz: Onek seguratu zue Jangoikoa zela faboratzen ziona: baitare informatu konfessorea, ta berzeak egia zenas, ta utzi zue sanda guzis alibiaturik. Baitare S. Franzisko Borjak aprobatu zue sanda-ren espiritua, eta Benerable Juan de Avilak Andaluziako Apostoluak, ta azkeneko guziek ezaundu zutenek.

Ala sanda andi gau izan ze anitz progeki probatua, ta aprobatua. Badire sanduak pinturaskoak lore ta kolore ederreki eginak: badire berze batzuk bronze, zillar, edo urreskoak eginak eskofre, zizelas, ta malluas golpeka golpeka: edertasunean aietaik iduri du S. Teresak: baña sendota-sunean da ebetaik: laur edo borz esku-motas izan ze labratua edo landua: lenik bere esku propios egines penitenziak, mortifikazioak, ta justizia gogorak berebaitan: gero Jangoikoaren eskus, sufritus ainberze gaitz, heritasun, oñaze, biotzeko miñ, perlesia, egozgale, kuartana, ta berze franko, baizio animosa, *Jangoikoari gloria, beñere etzai da falta zer edo zer heri-tasun:* gero Deabruaren eskus, persegitu baizue kruelki ez solamente ten-tazios, baitare golpatus, espezialki oneratzen zituelaik zenbait arima: beso bat autxi ere baizio Jangoikoaren permisos: alaere dio sandak etziotela Deabruei beldur iago ezi uliei: gero jendeen eskus ere, aguantatus gaixto-en ta ignoranteen persekuzioeak, ta murmurazioak, baitare azkenik xakintsuen ta onen juizioak, ta kontra emateak onnaiez. Ala iago errefi-natu ta goratu ze arima andi gura amorosturik sollik Jangoikoas ta Jesus onas: Irur gauzatan distingitu ze abantallareki, humiltasunean lenik, gero padezitzean ta padezitu naian Jangoikoa atik, baizio maiz animosa, *edo padezitu, edo il:* Gero arimen irabaztean ta irabazi naian Jangoikoarendako, baizio milla bizi eman lezazkela erremediatzeagatik arima bat ainberze galtzen direnetaik: (cam. perf. c. 1.) eta ziotela anitz inbidia em leatzen direnei konbertitzen arimak, naiz milla eriotze pasatu; eta leitzerakoan sanduen bizietan konbertitu zuztela arimak, *anitz iago debozio ematen didate, dio, ta negargale, ta inbidia, ezi martirio pasatu zuzten guziek, zeren au baita inkli-nazio eman didana Jangoikoak, iduri baizaida iago estimatzen duela arima bat ira-bazi gñdezona gure dilijenziak bere miserikordiareki, ezi in dezozkegun zerbitzu*

*guzi guziak.* (Fundaciones c. 1. n. 4.) Guzietako ere bai, baña ontako prin-zipalki izan zue S. Teresak habilidade ta grazia espeziala. Bere konfessore, ta adiskide tratatu zuten guziak sandutzea nola guti balitz, baliatu zirenak beraren medioas erremediatu zitue, eta orai berean solamente leitus bere libruak, erremediatzentu anitz; ta guziak nai luzke.

Ontako dirudi egin zuela Jangoikoak sanda gau, ta prebenitu bere amoresko dono, ta fabore admirableki. Lenik prenda naturalak eman zitio exzelenteak: biotz jeneroso balientea, ta koraje azkarra, ezpaitze lotsatzen munduko goraberes, trabajues, penes, jendees, ta Deabrues ere, baizik solamente Jangoikoaren ofensaes. Gero entendamentuaren argia, ta jakindea pensa ala emastekian, mintzaera ere, modua, ta grazia propia ganarazteko. Gero prudenzia bat ongi neurritua azertatzeko; ta modestia ederra ez fiatzeko bere buruas. Gero birtute surnaturalak grado goran: fedea ain bizkor, ezi ez solamente sinesten zitue egia fedeskoak firmeki, baitare firmeago zenbatenas diren nekeago entendantzeko, baitare elizako gobernua Jangoikoaganik dela, lenik il nai baizue ezi egin deus elizako zeremonia txipienaren kontra. (V. c. 33.) Eta konfessoreen errespetatzeko eman zue exenplu admirablea. Konfessoreak manatzen ziona manatzen ziola Janaoikoak berak, iduri zekio: V. c. 24. ta konfirmatu zio Jangoiko-ak consejatu ziona konfessoreak. ib. n. 3. Eta ez solamente bekatuak dekla-ratzen zitio konfessoreai, baitare Jangoikoak iten zition faboreak, ta arima guzia, nola asko aldiz erran zion bere Majestadeak. Eta iago dena; naiz manaturik Jangoikoak gauza bat, ez solamente etzue egiten konsultatu gabe konfessorea, baizik ere kontra erraten bazio onek, Jaunak manatzen zio obedi zezola, alik eta bere Majestadeak aldatzen zion gogoa konfeso-reai. ib. c. 26. n. 5. Utsin zue batek bein manatzean: Sanda exkusatzen ze iten zuela obeditzeagatik bere ministroai beraren lekuan dagonai: eta Jau-nak errespondatu zio ongi iten zuela obeditzean; baña berak entendarazi-ko zuela egia. Konfessore bat nai zue utzi sandak, eta Jaunak manatu zio ez usteko. V. c. 26. n. 3. Berze batek emanik erreprehensio bat, joan ze sanda konsolatzera, Jaunareki orazioan, ta an aurkitu erreprehensioa egiaz. ib. c. 38. n. 11. Amatzen zitue afekto ones bere konfessore sanduak: Asi ze artzen eskrupulo ortas: eta Jaunak seguratu zio, ezi ala nola Medi-ku batek sendatu duelaik iltzeko peligrotik, baita ongi agradezitzea ta amatzea, ala konfessorea. Ia zer izanen zen, aiengatik ezpalitz? Guzietan erakusten zio Jaunak, (ib. c. 40.) ta beti Elizako gobernuaren seguranan.

Zein seguro bada izan zue sandak esperanza Jangoikoan? Izanik ain humila, ain bekatari kontatzen zuena bere burua, alaere deskonfiatu ez, baizik seguraturik Jangoikoaren onas determinatu ze segitzera santida-



dearen bidea, zion gisan berak, anima animosoak kuadrutzen zaizkiola Jangoikoak, eta ala egin gauza andiak, ta pasatu zitue trabaju arrigarriak, naiz askotan kontra zuen mundua, naiz heri gorputza, beti bizkor arima, eta ala garaitu zue infernua, ta etzue beldurrik Demonioes iago ezi ulies, ta desafiaturen zitue fiaturik Jangoikoan, *Jaunau delarik guzis poderoso, ta aiek onen esklabo*, erraten zue, *ta ni Jaun gonen ta errege gonen zerbitzari, zer gaitz in dezakete aiek niri? Nola eztut izan bear nik indar emateko infernu guziaren kontra? Artzen nue guruze bat eskuan, eta iduri zekida ematen zidala Jangoikoak arimo, aisa garaituko nituela guziak guruze garreki, eta ala nio, Atozte orai guziok; nai zelarik Jaunaren zerbitzari ni, ikusagun zer in dezakedezen. Da zierto iduri zekidala aiek niri zidatela beldur. Iduri zaizkida ain kobarde beldurriak, ezi eztiotenei beldurrik, ez dezakete deus egin. Noreki diren azkar da errenditzen zazotena-reki bere kulpas. Jangoikoak nai dezala izan dezagun beldur izan bear denai, ta ezaun dezagun gaitz iago datorrigukela bekatu beniale batetik, ezi infernu guziagunik; bada on ala da. Zein lotsaturik gauzkiten Demonio goiek, zeren geurok lotsarazten aren geuren honra, ondasun ta gustoan afizioneeki, ezi orduan geureki bateo gaitz anitz inen digute, zeren geurek ematentoguten armak geuren kontra. ib. c. 25. n. 10. S. Teresak etzue beldurrik, baizik ofenditzeas Jangoiko Jauna. Oh! zein kontra geienek! &*

Jangoikoaganako amorean izan ze nola serafin bat humanoa. Ellegatu ze amatzera ainberze Jangoikoa, amatus Jesu Kristo gizon dibino gura, ezpaitaude apart, ezi gizon gau Jangoiko da: Emendik jautsten ze amatzera proximoak, ezi amore gura den biotzean au eztaike falta, baizik aren ariora da au andi edo txipi. Sandan guzia ze andi: bere lan onek ta trabaju pasatuek Jangoikoaren ta arimen amores diote. Itxeki zio Jesu Kristok gure Redentoreak, ta aumentatu zio anitz inspirazio, aparizio, erregalo, ta faboreeki. Ikusiarazi zio klaro bere edertasun dibinoa, kentzeko lurreko afizioenen memoria ere. Askotan zue konbersazio kontinoa berareki, ta oroitzea aski zue, ikusteko aldakan zeukala. Komekatzerakotan baitator bere Majestadea presente ain errealki, nola dagon zeruan, egi-ten zition erregaloak, ez dezazke aski explika sandak berak, naiz izanik mintzaera ederra. Komunkiro gelditzen ze komekatu argis inguraturik, nola kristalesko urna bat barnean iruzkia leukena, galant eder miragarri. Baña alako amore, alako antsia, ta alako fedearreki ellegatzen ze, nola ikusi balez begis: ta errealki ikusten zue asko aldis. Urrun elizatik zegolaik bein, ta ugarreketa andiak, etzeikela atra etxetik, ziote, komekatzera joateko; sandak, *baita lanzak ere para balezkidate petxoan, joan nindeike, euriak ez ezi; v. c. 39. ta egon ze komekatu ondoan elebaturik bi ordus, kuarto bat iduri etzekiola. Imajinatzen ze Magdalena bekala konbertitu zelarik, ta paratzen*

ze Jaun onaren oñetan humil humila. Askotan herikor ta afljiturik aurkitzen zenean, komekatu orduko gelditzen ze sana ta sendo gorputz ta ariman. Erramu-igande batez komekatu orduko iduri zegio agoa zeukala beterik odoles, aurpegia ta bera zen guzia bañaturik gozo ta gusto andiareki, ta Jaunak erran zio, ene alaba, nik nai dut balia dakizun ene odola, ta ez beldurrik izan falta dakizun ene miserikorida. (post vit. n. 2) Ponderatzen du *Jaunaren injenio ona gure faboretan, etortzeas altxaturik; ezperen, nola leiken atrebi elegatzera ni bekalako bekataria?* dio, V. c. 38. n. 13. Ontako kontatzen du sandak lanze bat lotsagarria, gure doktrinatako on dena. *Ellegatzean bein komekatzera*, dio, ikusi nitue arimaren begieki klaroago ezi gorputzekoeki bi Demonio, (V. c. 38. n. 15.) figura txoil abominablean. Iduri zaida beren adarreki inguraturik zeukatela sazerdote pobrearen lepoa. Eta ikusi nue ene Jauna erran duten Majestade garreki forma sagratuan zegola esku gaietan, klaro baize ageri zirela bere ofendizaleak, eta entendatu nue arima gura zegola bekatu mortalean. O Jaun nerea, zer ze ikustea berorren edertasun ori ain figura abominableen erlean? Zeude aiek ala nola lotsarriturik berorren prezenzian, iges joan naiak, utzi balezki berorrek. Eman zida turbazio andi bat, ezpaitakit nola neiken komekatu: ta gelditu nitza beldurrik, iduri zeuidala bisione gau izan baliz Jangoikoaren aldetik, etzuela bere Majestadeak permitituko ikus nezan nik arima gartan zen gaizkia. Erran zida Jaun berak, in nezala orazio arengatik, ta permititu zuela, entenda nezanatik konsagraziooko itzek duten indarra, zein errateareki sazerdote den gaixtoenak ere, ezpaita faltatzen bere prezenzia an, eta ikus nezan beraren onaren andia nola paratzen den bere etsai denaren eskuetan; eta guzia nere ta guzien onagatik. Entendatu nue ongi, zenbat iago obligatuak diren sazerdoteak izatera onak, eta zein gauza arrigarria den indignoki errebitzea Sakramentu Santisimo gau, eta nola den Nausi Demonioa arimaren mortalean dagonaren. Asko probetxu in zida; ta eman ezaumentu zor diotenas Jangoikoai. Biz bedekiatua betiko.

Azkenik komekatu zen batez S. Martinen oktuban, erran zio Jaun dibinoak amoroso, *ene alaba, etzazula beldurrik izan, niork aparta zaizan zu eneganik.* (post v. n. 17) Orun eman zio eskuieko eskuia itze bateki, erraten ziola, *tori itze gau, baita señale, izanen zarela ene esposa egundantik. Orai arteo etzin due merejitu: emendik alzina ez solamente zeure Kriadore, ta Errege, ta Jangoikoaren, baitare zeure Esposoaren honras bekala, kuidatuko duzu nereas. Nere honra da zure, ta zurea nere: ta ia neurau naiz guzia zurea, ta zu guzioi nerea.* (Brev. 27 Aug.) Pensa zein zoraturik gelditu bidezten. Ikusi ere zue zenbait aldis serafin bat susko saeta bateki traspasatzen ziola biotza, ta usten zuela erretzen Jangoikoaren amoretan. Eta on celebratzen ere du Elizak



Agustuaren 27.an. Alako miragarrieki zoeie Jesus ona disponitus bere esposa arima noble gura, obratzeko gauza andiak, ta pasatzeko trabajuak, bear zirenak, fundatzeko Karmesko deskalzo ta deskalzaen errelijionea. Baña penasko bisioneeki ere, ta doloresko martirioeki progatu zue ederki arima sanda. Kontatzen du berak bere biziaren 32 kapituloan, nola eraman zuten espirituan infernura, ikus zezan an lekua Demomoek prestatu ziotena, ta nik mereji nuena, dio sanda humilak. Pintatzen du, ta ezta kiel dio nola adiarazi, nola aurkitu zen sarturik labe barna ilun ertxi batean, niora ezin eskapa niolateko maneran. Sentitu zuela ariman su bat ain erru bizia, ezin daikena pondera; zeñen aldean tormentu ta oñaze pasatuak len, ta leituak ere libruetan deus ez tirela. Ango ertxi itotzen egote gura, arimaren aflikzio, kongoja, ta agonia gura, eta betiroko erremediorik gabe ala ezin egon ta egon bearko, tristura desesperatu gura: ezin espera niondik konsolurik, ezin jarri, ezin etzan, ezin alibia niolaterere. Eztela posible dio pensatzea den adia: emengo tormentuak, ta martirioak, nola pintatuak egiaskoen konparazioan: emengo erretzea deus guti dela angoaren aldean. *Agitz guti iraundu zue, dio, baña imposible da atzentzea beñere, naiz luze bizi banedi. Gelditu nitza lotsarriturik, eta nago orai ere eskribitzerakoan, duelaik ia sei urte pasaturik kasi, desmaizetza noaiela beldurrak. Emengo trabajuen beldurra joan zaida; guziak pasagarri aisa iduri zaizkida angu momentu baten aldean: Etorri zaida lastima dutena arima galtzen direnes arara, eta ansia irabazi naiez, ezi bat sollik libratzeagatik joatetik arara, pasa nezazke nik anitz eriotze gogotik ere, zio sandak eta siñez.*

Estado gontan zegolaik arima gura in naiak Jangoikoai plazer, naiz milla bizi kostarik, ta etxakin zer egin kuadratzeko iago, pensatu zue obena zela bere errelijionearen estadoa segitzea perfekzio guziareki. Agitu ze, norbaitek erratea berai ta berze batzuei ia gauza izanen ziren deskaltzatak. Nola baizebela obenaiez, tratatu zue on bere lagun adiskide andre alargun bateki, zeñek deseo bera baizue, ta zerbait errenta ere bai, naiz guti, egiteko konbentu. Alaere deseoak aisa iduriarazten zio egitea. Egun batez komekatu ondoan, manatu zio gure Jaunak, prokura zezala bere indar guzieki, ortas izanen zuela plazer. Sandak prokuratu zue lagunareki manera guzies, eta naiz oposizio asko izanik andik eta emendik kasi guzienganik, errelijioso, jakintsu, ta ziudadeko Jaunenganik, naiz pasaturik asko denbora, ta persekuzio, ta irri, ta oposizio, ta genero guzietako trabajuak, azkeneko gero ere logratu zue plantatzea bere lenbiziko konbentua Avilan, bizitzeko ertxirik pobre limosnas: eta grazioso dena, oposizio in ziotenek berek iten zio gero limosna, ta zio anitz debozio; ezauntzen zutela, Jangoikoaren lana izan zela ura. Jangoiko Jaunak pre-

miatu zue berladanik bialirik bere Seme Jaun Jesu Kristo ikusgarria, zeñek errezibitu zue amore andiareki sanda konbentu berrian; ta paratu zio korona, estimatus trabajatu zena Ama Santisimaren honratan. Ama Santisima ere ikusi zue koruan agitz gloriosa manto txuri bateki; ta anparatzen zituela guziak bere mantoaren pean (V. c. 36. n. 13. et 14.) Lenago Ama dibinak berak S. Josef konpañian bestitu zue kapa txuri argi eder batez, artus eskutik amorosoki, ta mintzatus, ta ofrezitus bere anparoa, ta paratus lepotik kollare urresko bat agitz preziosoa, guruze bat itxekirik artaik. (ib. c. 33. n. 9). Zer iduri zaigu alako personas? Dagolarik lurrean, ezta zerukoa? Anitz aldis iganarazi zue espirituan Jangoikoak bere zerura, ta ikusiarazi an go grandeza franko, ta gozarazi angu gloria daiken dia bizi gontan. Alaber ikusiarazi zio anitz arima igaten arara, anitz atratzen purgatoriotik bere orazioen medios. Ofrezitu zio etziola beñere ukatuko gauzarik eskatzen zionik, bazekiela etziola eskatuko bear etzenik. ib. c. 39. Ala egin zue sanda gonek anitz milagro anitz generotan, biztus ere ilak: Baña beraren orazioen atratzean Jangoikoak arimak bekatuetatik, faboratu duela, dio, anitz aldis. c. 39. Honestidadea, deitzen dena eskritura sagratuan santidade, apegatzen zue tratatzen zutenei, eta solamente beiratzea ze aski afizionarazteko, ezi aurpegian ere nola hispillu batean mostratzen ze, ta istargitzen arima garren garbi ederra. Bere orazio ta itz sanduen indarras libratu zue Demonioen eskupetik bat agitz galdua; naiz aiek mendekatzen ziren tormentatus sanda: berzeak libre ia, noizbait senti bazue tentatu nai zutela, leitzeareki sandaren letra gelditzen ze tranquil. Bada konsolatzeko bear orduetan, animatzeko trabajuetan, seguratzeko iltzeko ongi, non da alakorik? Bizi zelaik ere urrun, agertu ze derrepente bere konfessore bati (Gaspar Salazar) bear zuen konsolu ta arimo ematera. Bere Monja bati zegonai iltzen ia, ta deskonsolaturik urrun, Jangoikoaren ordes plantatu zekio istantean bururdikoan, ta pasatus eskua aurpegitik, zertan zaude ala beldurrak? zio; berla beazu Joan zerura. Ala despeitu zue arima ditxosa alegre Ama onaren besotan: iduri baitu zituela bere eskuan angu giltzak, ain maite izanes angu Jaunak, nola berak ere bai bere Majestadea, ezi beti zebila antsiatu rik nondik iago plazer in zezoken; ta boto egin zue, obratzeko beti zer uste zuen zela perfektoago. Ala ellegatu ze milagrosko santidade batera, ta bere bizi guzia ze milagro kontinuo bat bekala.

Ala Karmesko errelijionea erreformatu zue, paratu zitue munduan deskalzoak ta deskalzak bizimodu sanduan miragarriri, eta izanik donzella humil pobre bat, fundatu zitue ogeitamabi konbentu, naiz kontrario asko izanik, eta andiak, estorbatu naiak, baña Jangoikoa bere fabore zuela.





Nork erran bitarteko pasatu zituen lanak, ta bideak, ta nekeak, ta gorabe-rak? Nork erran bitarteko Jaunaren asistentzia miragarriak, ta sandaren dili-jenziak, herikor beti, ta askotan zegolaik heri andi? Nork erran elizari aummentatu dion lustre ta luzimentua, ta Jangoikoai honorea ta gloria? Nork erran orreki zenbat arima sandutu, zenbat salbatu, zenbat eraman, ta daramazkien oraño ere zerura? Liburu andi bat in leike, kontatzekos guzia. Bere karta anitz ta anitz eskribitues landara, eskribitu zue liburu bat konfessoreen manamendus, kontatus bere bizia, ta Jangoikoaren komuni-kazio ta fabore eginak. Berze bat, kontatus zenbait fundazio in zituenak, ta lanze pasatuak. Berze bat, erakutsis orazio mentala, ta alzinamentuak grados grado, deitzen baititu moradak. Berze bat, erakutsis perfekzioaren bidea, ta birtuteen egia, kalidadea, ta manera, azitzeko arimak kuadrable Jangoikoai, bere Majestadeak erakutsi zion bekala, orgatik Elizak sanda gonon doktrina deitzen baitu zeruko doktrina, jakinde zerukoa, arrazio andiareki.

Azkenean beterik 67 urte, nai izan zio Jaunak kunplitu bere deseoa aspaldian zuena, joateko mundugontaik. Izan zue lendanik abisu noiz joan bear zuen: eta fundaturik azken konbentua Burgosen, itzultzerakoan elle-gaturik Alba deitzen den Billan, gaindu zire gaitzak gorputz herian; ikusi zue puntualki eguna despeidakoa: mostrak ere zenbaitek ikusi zuzte, izar eder bat konbentuko elizaren gañean, bi argi eder zeldako leioan, ta berze alako señale batzuk: errezipitu zitue elizako ordenamentuak, prinzipalki sakramentu aldarekoa ain nola ikusten zuen artan etorri zekiona: gelditu zekio begitartea ain grabe istargitzen ziola, ezaizekioke beira: berze alde ain eder gloriosa, nola gastetu balitz, iltzeko: eskuak gurutzaturik, espiri-tua amores amorosturik, aurpegia alegrias inguraturik asi ze kantatzen despeida arima jenerosa gura, erregalazten bere esposo Jesus onareki. Iltzen egunean saiets batera erreklinaturik, besarkaturik guruzifixo, egon ze mogitu gabe amalaur ordus. Ikusi zute Jesus bera asistitzen anitz Ain-giru ta Sandueki. Ordua ellegaturik, egatu ze arima uso baten idurian, ta sentitu zire anitz señale: zeldaren aurkaseko arbola bat loratu ze bat batean. Gaitza akabatu zuena izan ze Jangoikoaren amore; amores bizitu ta amores iltze: Lastallaren laugarrenean, 1582 urtean, naiz emendatu zen Kalendario Romanoa, kontatus biramona amabortz. Gorputz ila gelditu ze gloriako dote iduriareki txuri eder flamante: eskuak, aurpegia beratx zamur, ain nola bizi balego, berze alde ain fragrante, ezi guzia bete ze atxon zerukoas. Milagroak montonka; ta kontinokoa da irautea gorputz birjinala gura ain oso fresko, atxondurik & Kanonizatu ze 1622 urtean S. Ignazioreki, S. Franzisko Xabier, S. Felipe Neri, S. Isidro &

## S. Teresaren zenbait afekto, ta sentenzia

Deusek ere etzaitela turba: Deusek ere etzaitela lotsa: Guzia pasa-tzen da: Jangoikoa aldatzen ezta; Jangoikoa duenari deus etzaio falta: Jan-goikoa sollik aski da. Pazienziareki guzia erdexten da.

Jauna, edo padezitu, edo il.

O Jesus, ene arimaren amore, ni zurea, ta zu nereaa... Zer zaida niri nitas, baizik zutas? naiz onda daien mundua, non ta eztaien ofendi ene Jangoiko ona.

Erakutsi obres iago ezi itzes...

Pensa, Jangoikoa ta zu sollik zauztela lekuan.

Iltzea ta padezitzea biz gure deseoa... Edozein gauza iteko, in lenik orazio...

Doktrina Kristioaren kartilla, au da liburu nik nautena lei dezaten nerek gau ta egun, baita Jangoikoaren legea...

Ama zazu iago, ta ibili zuzenago, ezi bidea da mear, edo ertxia...

Zerukoak ta lurrekoak bateratu garbitasunean ta amorean: zerukoak gozatus, lurrekoak padezitus: guk adoratus Jangoikoaren esenzia, zuek Sakramentu Santisimoa...

Demonioak nai du sartu, Jangoikoa sartzen den atarietaik, baitire komunioneak, konfesioak, ta orazioak, eta paratu benenoa medizina den gauzan...

Anitzen ertean beti jarduki guti... Beñerez porfiatu anitz...

Mintzatu guziei alegre modesto. Akomodatu tratatzen duenaren jenioareki; ez mintzatu pensatu gabe: ez diskulpatu &. Ez ponderatu gau-zak sobra: ez seguratu, jakin gabe segurki. Ez erran bere opinionea, eza-paiaio eskatzen, edo bear ezpada...

Konfessoreai agertu bere tentazioak, imperfekzioak, naigabeak.

Egin guzia, nola balego beira Jangoikoa. Ez niore gaizki erran, ezpada bere buruas...

Edozein lanen astean ofratu Jangoikoai, ta eskatu izan daien beraren plazer eta gloriatan.

Ondorean examinatu konzienzia, ia nola: eta egin proposito emen-datze...





Ez pensa gaizki niores. Beti egon padezitu naiez Jesu Kristoren amores...

Orazio goizekoan mediatu dena iduki presente egun guzian... Guarda sentimentu emantionak Jangoikoak, ta kunpli propositoak...

Eznai izan izatea bakar berex. Ez mostra debozio ezutuena, duena ere ez, ezpada bearres. Secretum meum mihi. S. Franzisko, S. Bernardo.

Ez erreprehenditu diskrezio ta humildaderik gabe. Delarik erreprehenditua, artu ongi humil barnean ta agerrian...

Iduki presente bizi pasatua, penatzeko, oraiko epeltasuna: ta falta zaiona zeruratzeko, ala beldurti bizitzeko...

Beti humillatu ta mortifikatu, eta amoresko afektoetan exerzitatua...

Beretako gogor, berzeendako beratx.

Gauoro examinatu bere konzienzia...

Tristura ta turbazioko denboretan ez utzi obra on iten zituenak, orazioak, ta penitenziak baizik prokuratu iago egitea.

Bere tentazioak ta imperfekzioak ez komunika epel imperfektoeki, ezi bere buruai ta berzeai in lezoke dañu...

Oroitu eztuzula baizik arima bat; eztuzula il bear baizik bein, ta bizi bat labur: eztela baizik gloria bat, ta on eternoa.

Zure desoea biz ikusteko Jangoikoa: zure beldurra, galduko ote duzun: zure pena ez gozatzas: zure gozoa artara daramanas: eta ala bizi-ko zara bake onean...

Bizi naiz, ta ez enebaitan: ta alako biziain beira nago, ezi ez iltzeas iltzen nago.

## Lastallaren 19.an S. Pedro Alcantara

Exenplu admiragarria, iago ezi imitagarria penitenziaren, izan ze S. Pedro Alcantara S. Teresaren denborakoa ta konsejaria: zeñen gain erraintugu zenbait gure onerako direnak, utzirik berze anitz. Jaiorik Alcantarat jendaki nobletik, beñere etze izan aur juizioan, beti bai zori birtuoso, laur urtetan erretiratzan zena oraziora, ta berexki deboto Maria Santisimaren, ta onen Konzepzio garbiaren. Etzelaik ageri etxean, baze-kite non billatu, au da, tenploan, non aurkitzen zute negarretan begiak, ta bera elebaturik askotan. Tratu egin zue begieki, ez beiratzeko emastekiren aurpegirik; to ala zebila beti begiak apal apala, eta ala konserbatu zue birjindadearen lustre ederra beti, Estudiaturik gramatika, pasatu ze estudiatzera Rhetorika, Logika, ta Filosofia Salamancan, zelarik beti estudiante onen exenplu, ta buru arinen alkaizun, ezi au agertu orduko ixiltzen zire ago lazoak, ziotela, ist, Alcantarakoa eldu da. Seguratzeko guzis, usatzen zue goiz eder penitenziaren gatz espirituala sendoki. Amasei urtetan sartu ze S. Franziskoren errelijoso, artako nai zuela Jangoikoak konfirmatus milagros, ezi joaterakoan habituaren artzera, ezin pasatus ugalde bat uramataik atra zena, baratu ze orazio egiten, etzeien estorba, edo luzatu bere pretensioa: eta istante sentitu ze eramaten urgañean, nola etzekiela, ta eman zio Jangoikoai esker milla. Habituareki errebestitu ze S. Franziskoren espirituas, ta len lenik humiltasuna zimendu. Gañetik berze birtuteak estudio andiareki, erraten zela maiz, ea, zertara etorri zara? zer ai zara? Gisaontan azi ze sandu goizik, ta ogei urte baizik etzituelaik, biali zute fundatzera Badajozgo konbentua, ta in zute buru. Bere adinean obligatu zute ordenatzera sazerdote: ordenaturik zebratzen zue sakrifizio andi gura ainberze debozio ta negarreki, ezi adizaleei ere kausatzen zue negargale, ta iago protxu iten zue meza erranes sollik, ezi Predikari andienak prediku luze bateki.

Nai zue Probinzialeak egin Predikari, baña etze trebe oraño etzuela pasatu Teologia: baña egun batez tratatzerakoan gauza espiritualeak elkarren artean, manatu zio, erran zezala ark ere bere iduritu. Mintzatu ze ain miragarriri, ezi bereala obligatu zue artzera Predikariaren ofizioa. Ia gerostik asi ze gizon berri bat zerutik etorria bekala predikatzen zerurako bidea ainberze fruitureki, ezi aldatu zue Kristiogenearen estadoa miragarriri: bere itzak zire susko saeta penetranteak: bere bizimodua arriga-



rria; ta aski ze beiratzea kasi, zelarik penitentiaren erretrato bizia: ta Jan-goikoak lagunzen zio señale asko admirableeki. Jangoikoaren kontenplazioan anitz aldiz ikusten ze goraturik airean gora ingurutik istargitzen erresplendore miragarri bateki. Ur-amataik atrarikako ugaldeak zitue pasatzen oñes busti gabe. Bere erreljiosoak, logratu zue, berze erremediorik etzelarik, mantentzea zerutik bialirikako alimentuareki. Biku-plan-tarik etzutela baratzean erran ziotelarik, frinkatu zue lurrean bere paloa, etzena bikuarena, ta azi ze biku lores, ostos, fruitus betea, orgatik deitzen baizute biku sandua, zeñen fruitatik jan esko sendatzen zire. Gauak arturik bidean elurketa andi batean, sartu ze etxola urratu batean tellaturik gabe, ta lurrean zen elurra urturik ta barnean sarturik, ta gaña idor utzurik, Zerutik erortzen zen elurras formatu ze ganbara bat bekala bobedaturik ederki, zegolaik bitarteo sandua orazioan fabrika admirable garren barnean bero eder. Eta alako milla in zue Jangoikoak sandu gonen amorez.

Sanduak ere Jangoikoaren amores egiten zue asko ta asko gauza on. Naiez itzuli bizimodu erreljioso pobre sandu gura S. Franziskok paratu zuena lenik, egin zue asko diljenzia, ta pasata zue trabaju franko, ta gero ere fundatu zue Aita sanduaren lizenziareki, ta Jangoikoaren graziareki konbentu bat Pedrosoren aldakan agitz pobre ta txipittoa, zeldak zirela obia gisa batzuk, non bizi ziren erreljiosoak ilak mundurako, eman es enenplu ta admirazio munduari, beiratzeas ere. Bizimodu -Deniten gura edatu ze asko Pronbinziantan Ink ietaraño. S. Teresaren espiritua Jangoi-koaganik zela aprobatu zue sendoki, ta Jangoikoaren ordes joan ze zen-bait aldiz sandaren fabore, konsolatu zue, ta animatu segitzera bere bideas, ta lagundu zio erreformatzen Karmelitaen erreljijonea: nola sandak agradeziturik kontatzen baitu, baitare laudatzen sandu gonen penitenzia ta santidadea, zeñen izenean eskaturik etziola niori deus ukatuko Jangoikoak seguraturik, enkomendatzen ze sandu gonen orazioetan, ta beti deitzen due sandu ago betes, bizi zelaik ere lurrean. Ponderatzedu beronen penitenzia. (c. 27. n. 10.) Eztago mundua sufritzeko ainberze perfekzione. Diote, dio, eztirela orai lengo indarrak, direla berze denborak. Sandu gau gure denborakoa ze, ta espiritua azkarra zue: berrogeitazazpi urtes egiteko penitenzia. Berrogei urtes gaua ta eguna kontaturik, beñere etzue pasatu loan iago ezi ordu bat eterdi: ta ori ez etzanik, baizik jarririk bera, ta burua erreklinaturik zur bati. Beñere urte goietan etzue estali burua, baizik agerrian beti, zela iruzki, zela ekaitz, otz edo bero: eta oinurtuxian beti, ta habitu latz mear bat gorputzean. Irur egunen buruan bere alimentu pixka artzea usatzen zue. Etzituela goratzen begiak, dio, ta

sekulan ez beiratzen emastekiei, ta oroat zekiola ez ikustea nola ikustea. En fin biziaren konforme izan zuela bukaera, erranes psalmo gura, laetus sum in his quae dicta &. Alegratu naiz erran didadetenes & ta iltzela beauriko. Il ondoan agertu omen zekio glorioso, erraten zuela, O penitenzia zori onekoa, irabazi didana ainberze gloria! Il baño len ere, urrun bizi zelaik, agertu zekiola, dio sandak, eta jakinik il bear zela, sandak abisatu ziola. Sandaren alako testimonio onak izan bide zire parte, kanoitzetzeko sandu gau, ta prinzipalki errebelazio izana Jangoikoaganik, etziotela eskatuko onen izenean gauzarik emanen etzuenik. Eta sandak eskatu zition anitz gauza, ikusi zituela guziak kunpliturik, dio: eta berze asko gauza nai lukela erran sandu gontas.

Jaundien ta Prinzipeen obsekioes etzela goratzen, naiz konsultatzen zuten aiek bera zerukoa ta Jangoikoaren gizona bekala, ta errehusatu zuela izatea Karlos V. enperadorearen konfesore, dio Brebiarioak. Pobre zaren guardazale andia izan zela, ta por konsigiente humildadearen: bada kastidade ta garbitasunaren ezin iagos: Mortifikazio genero guzies sujetatu zuela beti gorputza, zeñeki egin zuen tratu, ez emateko deskansurik mundu gontan. Orgatik il zen instantean agerturik S. Teresari erran zio, banoaie deskansatzera. Profeziaren espirituas anitz gauza urrungo ta sekreto ikasi zue, baitare ordua, zeintan il bear zen: ala iruogei ta irugarren urtean, berak erran zuen ordu berean iltze konfortaturik bisione admirable bateki, ta sanduen presenziareki. Ondorean deklaratus Jangoi-koak beraren santidadea anitz milagroeki, kanonizatu zue Aita sanduak Klemente IX. deituak.



## Lastallaren 22.an Sandak Nunilo ta Alodia Birjin ta Martirak

S. Nunilo ta Alodia elkarren aizpak jaio zire Aragoan, Huesca deitzen den ziudadera urbil. Aita izan zute Jentil infiel; Ama Kristio ona: Amaren gisara alabak egin zire Kristio, ta azi zire ongi; eta naiz goizik emazurtz gelditurik, anparatu zitue beren izeba on batek: Ala bizi zire sanduki enpleatus orazio ta obra onetan, emanen birtute ta honestidade guziaren exenplu ona. Denbora gartan Moroan errege Abderramen II.ak Cordoban zuenak bere Kortearen pregonarazi zue manamendu, ezi nornaiek zituenak Aita ta Ama Jentilak, edo Aita edo Ama sollik ere, ezpazue ukatzen Kristo, galtzeko bizia. Bi aizpattoei beren osaba infiel batek nai ziote utziarazi Kristoren fedea ta amorea, porfiatus ones eta gaitzes utziarazteko, ezperen kontu emanen zuela Juezari. Baña ala nola plantak izotzareki iago zain-errotzen ta sustraitzen diren lur-barnean, ala donzellattoak osabaren porfia ta meatxueki iago firmatzen ta konfirmatzen zire Kristoren fedearen afizionean, elkar animatus padezitza martirio, bear baze. Kontu emanik, deitu zitue Juezak bere prezentiara. Presentatu zire animosa biak, ta oiñ urtuxian, ensaiatus berladanik padezitzeko. Galdeginik ia egia zen, Aita izan zuten Jentila: Nunilonak baizue adin gexago, errespondatu zio sosegu onareki, Aitas galdegiten diguna eztakigu segurki, zeren il baize, gu ezaumentura ellegatu baño len: dakiguna da gure Ama izan zela Kristioa, eta gu berak ongi azirik garela Kristio, ta gaudela prest iltzeko Kristoren fede ta amoreagatik. Juezak alde bat bere sektaren zelos, berze alde gastetto gaien lastimas segitzen zue porfia ta porfia meatxus ta balakus, utzi zezatela tema gura. Baña etzuelaik protxurik atratzen, ontzat artu zue itzultzeizen orduan beren etxerat, beira zezaten obeki, etzeizen galdu.

Osaba gaixtofikatu ez kontent orreki sollik, edo dela arrapatzeagatik aien ondasunak, bentzait salatzeas zen premia, edo dela bere sekta falsuaren zelos, ta logratzeagatik grazia buruzagien begietan, eman zio kontu Abderramenen ordes gobernatzen zuenai Probinzia, errege nonbratzen zena, ta Zimael. Onek ekarrarazi zitue bere prezentiara: oiñ urtuxian joan zire berriro, ta agertu zire gogo sereno seguroareki beldurrik gabe. Gobernariak asarre serio erran ziote, zer ausardia da zuena, utzirik

Aitaren sekta, segitzea Kristorena, despreziatus gure manamendua? Baña nola baizarate aurrak, urte guti duzielaik, ta gutiago ezaumentu, artzen aut denbora, ta ematen diziet espazio, pensatzeko ongi, ta azertatzeko, itzulis gure legera, orreki akomodaturik honratuki biziko zarate zori onean; ezperen, ilaraziko zaitzet erremediorik gabe. Gu, diote biek, gara kristioak, ta nai dugu izan, eta il ere bai gure fede sanduagatik. Apartarazi zitue elkarrenganik, ta paratu zitue Jentilen bi etxeetan, apartarazteko ala beren tenia deitzen zuten artaik ones edo gaitzes, eta modu guzies. Inzute in ala etxe gaiekoek, baitare gezurres kontatus baktotxai berze aizpa ia itzuli zela aien sektara. Baña biak beti zeude konstante lenbiziko propositoan: eta enkomendatzen Jangoikoai, eman zezoten bukaera ona. Berrogei egunes iduki zuzte ala progatzen asko maneras, eta azkenaren bezperain bezperan zegolaik Alodia bere orazioan, etxe gartako alaba zegokio beira zelan irrin artetaik, ta ikusi zue inguraturik zeruko argitasun miragarri: kontatu zio Aitari, zeñek itsuturik bere erroean zio, utzan, sorgina dun, ta Deabrua zeagokion mintzatzen. Biramonean eskatu zue sandak ekar zezotela bere aizpa. Jangoikoak ala nai, ta ekarri ziote; ta besarkatu zire biak negarra zeriotea bozkariundes ikustea elkar ainberze egunen buruan. Nunilonak erran zio, ene aizpa, zaude firme Jesu Kristori ofrezitu diozun fedean? Alodiak errespondatu zio, etzazula duda, ene aizpa: nik sinesten dut firmeki Jesu Kristobaitan, asi bekala, ta dela bizi, dela il, zureki segituko dut. Baru gaitzen biok egun, ta gauden orazioan, ezi biar il bear gara. Ori ikasi zue zerutik: ala in zute: eta ala agitu ze.

Eguna ellegaturik, eramanarazi zitue Gobernariak beregana, ta milla karizia, ta milla promesaeki nai zitue beraxtu. Baña sandak firme beti ziotela, eman balezagu ere milla ta milla aldis geiago dion baño, ezkindezake estima iago ezi ongarria Jesu Kristo gure esposoaren aldean, ta beraren ondasunen aldean. Gobernariak erraten diote, ilaraziko zaitzet bereala, ezpadidaze obeditzen. Sandek serenoki, nai duena in dezake, ezi gu gaude prest iltzera lenago ezi ukatu Jesu Kristo. Erretzen zego Gobernaria kole-ras ezin errenditzeas ni neskatto gaiek, ta etzekio iduri honra ilaraztea emastekiak ezpatas: ala zego deteniturik dudaketan. Ikusi zue an urbil gizon gaixto bat, zeñek izanik Kristio ta sazerdote, ukatu baizue fedea: oni manatu zio in zezala in ala bi donzellatto gaieki, uka zezaten fedea. Gaixto gonek berze astuzia ta tranpaen gañetik itz leuneki erraten ziote, libratzeko bizia, erran zezatela mias bizpirur testigoen alzinean, akomodatzen zirela Mahomaren legera, ta aien testimonioareki utziko zituela libre Juezak; ta gero bizi zeizkela urrun joanik Kristio bekala. Oh! zer tentazioa au! nola errendituko ziren Kristio axialak! mias erragun baietz: bio-



tzean ez. Oh! litzake on bekatu andia. Etzire alakoetaik bi gaiek. Erran zio Nunilonak, Jauna, erran bezagu: il bear dugu noizbait? Errespondatu zio, iltzea noizbait, goiz edo berant, eztaike exkusa, baikara mortalak. Orduan sandak, bada il bear badugu goiz edo berant, obe dugu orai il Jesu Kristoren amores, joateko beraren gozatzeraz bizitza sekulakoan, ezi ez orai bizi naies ukatu Kristo, ta il gero, ta gero penatu eternoki infernuan. Ageri ze sandaren agos mintzo zela Espiritu Sandua. Etsiturik arrek Juezari dio, Jauna, ebeki eztaike deus atra, baizik galdu denbora. Urbilarazirik tribunaleraz biak, ta berdugoa prest kanibeta aundiareki, galdein ziote irur aldiz, ia obeditu nai zioten: errespondaturik ezetz beti: naiago zutela il Jesu Kristoren amores, Juezak oiue egin zio berdugoari, iltzik, ebakizkiotek buruak. Detenitzen ze berdugoa ere lastimas ta errespetos, galdegines Juezari berze irur aldiz, ia deskargatuko zuen golpea; baietz baietz aiturik, azkeneko erran zio Nunilonari, edazazu lepoa. Onak itzulirik erraten dio aizpari, beira, ene aizpa, in zazu iteuntena nik. Alodiak errespondatu zio, zaude se gura, segituko zaitut zierto. Animoso alegre orduan Nunilonak inguratu zue biloa buruan, etzezan estorba golpea: edatu zue lepoa, erraten ziola berdugoari, emazu laster. Arrek etzue guzis azertatu golpea, iltzeko istantean; sanda eroririk erioaren antsieki ildorka, guti bat agertu zekizkio oñak: eta bereala joanik lasterka aizpak estali zizkio, admiratus guziak alako honestidadearen exenpluas, baita Jueza bera ere; zeñek berriro lastimaturik erran zio berdugoari, ago geldirik: etzokela deus egin: eta sandari, zergatik nai zara il, zaizkelaik bizi obeditus guri? Sandak, eztut nai bizi infiel, baizik Kristio bizi, ta Kristio il. Eztiot obedituko: degolla benaza laster, eztoaien bakarrik nere aizpa. Ta bereala goratus begiak zerurat exklamatu zue, etxi guti bat, aizpa maitea: banoaie banoaie. Ikusi bidezue arima igaten formaren batean; Kardeñako santoralak dio, ezi uso baten idurian. Bereala kanibeta naiz odolestaturik beiratus, ortas ez ajolarik, bai etzekion agi agitua aizparen gorputzai, prisaka zinta bateki lotu zitue arrapak inguruan oñen kontra beiti beitia ertxiki. Ongi eldu da exklamatzea, o errelijione Kristioaren honestidade ta garbi naia! Non erakusten da alakorik? Iltzeas ezto ajolarik, bai honestidadeas iltzean ere, il ondoan ere! O zer doktrina au! ta zer exenplua! ta zer alkaizuna kristio falsu oraikoen! Bereala paraturik belaunak aizparen gorputz ilaren gañean, biloas loturik burua inguruan, errezibitu zue golpea bota ziona lurrera, ta arima zerura. Au da aizpa sanda gaien martirioa agitua Lastallaren 21.an, Kristoren 840 urtean, D. Iñigo Ximenez Nafarroako erregeren prinzipioan: Asturiako D. Alonso Kastoaren 50.an ta Abderramenen II.en 19.an. Moret Ann. Navarrae t. 1. l. VI. C. III.

Eriotzetik aratago pasatu zire sanda geben pelear ta triunfoak, zeren ezi atra zuzte arrastaka gorputz sanduak kanpo batera deitzen zena Furkas, jan zezkiten tzakurrek ta baseziek: baña naiz joanik asko miru ta otsorrai, etzitue ukitu batek ere: eta iago dena, gero etorri ziren arranoek joanarazi zuzte andik guziak, ta joan zire berak ere, utzirik ukitu gabe oso gorputzak. Orgatik Kristioek lizenzia logratu orzi zuzte dezenteki: baña ortzirik naiz bai, etzeuzkie atzendurik zeruak, ezi obiaren gañean gauas ikusi zuzte Jentilek ere asko argi milagrosko: orgatik Gobernariak paratu zitue guardiak, etzezkiten ebasi Kristioek honratzeko. Alaere gau batez nai izan zuzte eraman sazerdote on batzuek; baña sentiturik ta segiturik guardienganik doi doia eskapatu zire, baña tesoro nai zutena gabe: Au zeuka Jangoikoak erreserbatu erregina batendako. Gobernariak kentzeko esperanza Kristioei, atrazaririk obiatik ta ekarrarazirik zitudera ondatu zitue leze andi barna batean, montiatu gañetik anitz lur ta arri andi pizuak; on guzioi egin zue sekretoan. Baña ezta sekretorik Jangoikoaren. Gau batzues agertzen zire argi miragarriak gañeko aldetik, ikusten zuztenak, guziak ez, baizik bakotx batzuek. Fama barraturik ellegatu ze Leireko Monasteriora, non zegoen eskribiturik aien martirioaren ta miragarrien memoria. Ze Nafarroan erregina D.a Oneka, agitz birtuosa: erretiratu ze au Monasteriora 842.en urtearen garizuman pasatzeko orazioan ta exercizio sanduetan. An aurkitu zuen memoriareki paratu zio biotzean Jangoikoak deseo andi bat, billatzeko ta ekartzeko gorputz sandu gaiek: baña etzekie nola logra, ezpaze Jangoikoaren podores. Ala egiten ta inarrazten zitue orazioak kontino Jangoikoai: ta bere Majestadeak izan zue plazer errebelatzeas an urbileko gizon Auriato deituari adiarazis boza bat zerutik erraten ziola gau batez, Auriato, zoaz laster Huescara, ezi an aurkitukotuzu Santa Nunilona ta Alodiaren gorputzak altxatuak leze batean. Bereala etorri ze kontu ematera Leiren: eta erreinaren ta errelijiosoen konsejus jaintsirik Merkatarik gisa joan ze bear zen prebenzio guziareki Huescara, non saldu bitartean gauzak, kuido lenbizikoa zue logratzea tesoro sagratu gura ango Kristioeki sekretoan. Gau propi bat autaturik joan zire leze gartara, ta asi zire arrotzen lurra, ta atratzen arriak. Laster asi ze sentitzen barnetik atxon gozoa, konfortatu ta animatu zituena; oneki prisaka emanen lanari gana andiareki ellegatu zire aurkitzera gorputz sanduak, lo zeuden bitartean Jentilak, eta paraturik dezenteki abre batean prisaka eskapatus itzuli ze Auriato Kristio-errietara kontent tesoro garreki, ajola guti zuela merkaderia eramanen, ta artzeko zituena. Mugonez biali zue mandatari bat berri onareki erreginagana, zeñek abisaturik errege ta obispoa, baize D.° Gillesindo, ebeki bildurik jendeketa andia, for-



maturik prozesio solemne bat aparato ta ponpa errealareki, arturik andae-tan gorputz sanduak ekarri zuzte Leireko tenplora, non depositatu zuzte honra ta festa guziareki Aprilaren 18.an 842 urtean, pasaturik, ilas geros sandak, urte bat eta erdi, irur egun guti. Orduko errege Nafarroakoak D. Iñigo Ximenez, ta ondorekoek egintote anitz donazio; eta inguruetakojendeek, ala Aragoakoek, nola Nafarroakoek izan diote anitz debozio, eta logratu dute asko fabore zerutik sanda geben medios, zeñen amores ere ta debozios asko errege Nafarroakoak ortzi dire eliza gartan, honratus bizirik eta ilik dezaketen gartan sanda gloriosak. Huescan alaber diote anitz debozio, eta gorputzak botarik egon ziren butzu edo lezearen lekuan daukate kapilla bat errejadoareki, ta lanparareki: baita ere jaiterrian, zein orai deitzen den Araguesca, edo Adageska: len Arascosa, edo Abosca, legua 1.1/2 Huescatik &.

## **Lastallaren 25.an**

### **S. Krisanto, ta Daria Martirak**

S. Krisanto jaiorik Alexandrian etorri ze bizitzes Romara bere Aita eta Ama ilustre, ta familia guziareki, Numeriano enperadorearen denboran, non izan ziren agitz estimatuak ta honratuak. Bere Aita Polemio deituak estudiarazten zio an bere seme Krisantori Ilbru onetan: aien ertean ustekabean aurkitu zue, Jangoikoak nai ta, libru bat, zeintan zeuden eskribiturik ebanjelioak. Ebek leiturik, ezaundu zue utsinik zebilala bide kontrakoas ilunbetan; eta zuzen-bidea, argia ta egia dela Jesu Kristo. Seguratzeko bere gogoa, jakinik Kristio bat Karpoforo deitua persekuzioaren beldurres zegola altxaturik kubila batean, joan ze billa, ta aurkiturik arren explikazio ta itz sandueki seguratu ze, ta bataiatu ze de manera, ezi zazpi egunen buruan ia predikatzen zue publikoki Roman, Jesu Kristo dela Jangoiko egiaskoa. Berri gau izanik bere Aita Polemio, dela bere errelijione falsuaren zelos, dela Infielen beldurrez, asarratu ze agitz semearen kontra, ta paratu zue preso leku ilun batean, manatus etzezotela jatera eman, bai-zik txoil eskas. Etzekiolaik baliatzen medio gau, artu zue berze bat gaixtoagokoa, emasteki eder presumituena, zeñek galarazis honestidatea, segi dan galarazi zezoten Kristoren fedea. Ikusirik Mutil sanduak Deabruaren arma gaiek, goratus begiak zerurat, eskatu zio Jangoikoak bere faborea. Istantean guziak artu zitue lo edo letargo gisa batek, ezpaizeizke idatzarri ezpaze andik atrarik. Ala libratu zue bere sierboa Jangoikoak. Pensatu zue Aitak, paratzeareki Matrimonioaren estadoan bekaturik gabe, agian utziko zuela fede kristioa bizikidearen amorez. Ortako billatu zue bat prenda guziak zituena, noblea, eder agraziatua, juiziosa, jakintsua, prudenta. Au sartu ze kuartoan ongi prebeniturik arrazios, bere ustes, beraxteko admittizera bizikidetako. Au deitzen ze Daria: enpleatu zue ortako bere mintzaera, ta modu on guzia: baña ustez arrapatu lakioan berzea, bera gelditu ze arrapaturik uste etzuen lakioan, zeren ezi Jangoikoak Krisantori eman zio ainberze grazia mintzatzeko, ainberze arrazio, ainberze indar, ezi desengañaturik Darla andik atra gabe determinatu ze egitera Kristio. Biak konzertatu zire konserbatzeko birjin bizi guzian, ta gañarakoan munduaren alzineko elkarren konpañian bizitzeko bizikideak bekalak. Gisa gontan libratu ze presondegitik Krisanto; ta Daria bataiatu ze; ta biak, deituz bizikideak, bizi zire anaiarrebak bekalak.





Eta on guzien propietadea ta kondizioa baita deseatzeta ta prokuraztea izan daitzen berzeak ere, konsejatzeta zioteta guziei segitza erreljione kristioa, ta honestidade honratua: Ala konbertitu zuzte franko; Krisantok gizonkiak, ta Dariak emastekiak. Ori ze Infielen erioa: orgatik Zelerino Prefektoak reso inarazi zitue, ta entregatu hau dio Tribunoari kastiga zezkien. Onek eramanik Krisanto Jupiteren tenplora adora zezan, nola ezpaizue egin nai, azotarazi zue ain krueki, ezi ageri zekizkio ezurrak, eta erzeak: baña alare firme biotza. Gero sarrarazi zue kalabozo ilun urrintzu batean: burriñas kargaturik: baña kateak auts biurtu zire berdugoen presenzian, ta presondegia bete ze fragranzia zerukoas. Larrutu zute idi bat, ta larru gartan inguraturik Krisanto biluxirik iduki zute iruzkira; baña etzue ortaik izan penarik. Berriz sartu kalabozoan loturik katees, berriz kateak desegin zire. Berriz lotu, ta azotatu nai zute burrin asko azotees; baña azote gaiek itzuli zire ain beraz ta arin, ezi etzuketeta golperik eman. Ezaundu zue Juezak etzeikela on agitu arte gaixtos, baizik Jangoiko onaren birtutes; ta urtikirik oñetara eskatu zio barkazio, ta logra zezala barka zezon bere Jangoikoak. Oroat egin zute berdugoek: eta kristiatu zire aiek guziak, ta berze franko. Jakin zue guzia enperadoreak, ta guziak ilarazi zitue. Hilaria Juez garren bizikidea zegolaik orazioan geroxago Martir gaiek ortzi zuzten lekuan, in zute presa, ta nai zutelaik eraman enperadorearen presenziara, eskatu ta erdetxi zue utzi zezaten guti bat egitera orazio; artan logratu zue erman zezan Jangoikoak; ta ala ilik utzi zute leku berean senar ta hume izanen konpañian. Krisanto berriro paratu zute kartzela gogor ilun Tuliano deituan. Eta Darias zer egin ze? Nola infielak baizire ta baitire, beren Jangoikoak bekala, zikin likitsak, eraman zute emakume galduen etxera, non paraturik donzella garbi ederra bereala jarri ze belauriko ala nola tenploan edo oratorioan: klaro da zer eskatzen zuen, ta klaro ere da zein den Jangoikoaren gustoa, gure gorputz ta arimen garbitasuna, *haec est voluntas Dei sanctificatio vestra*: eta ala bereala agertu ze an saietsean leon bat lotsagarria, manso, beira, zer manatzen zion: sartu ze deshonesto bat itsuturik pasioneas deustara beiratu gabe. Leonak aztaparras bereala bota zue lurrean zeukala iago ilik ezi bizirik lotsamenturas, ta leona sandari beira, zer nai zuen in zezan: sandak manatu zio etzezola in gaizkirik, eta gizonari predikatu zio egietafedea, eta konbertitu ze: eta sandak manatzeareki leonari utzi zezala, atra ze libre oiuz ziudade guzia barna, eztela berze Jangoikorik, baizik adoratzeta dutena kristioek: Leon gura enpeadorearen leontegitik eskapatua ze: kuidazaleak joan zire aren itzultzera, baña ellegatu zireneko bota zitue lurrean, esperatus zer manatzen zion sandak: eta lanze goneki aiek ere konbertitu zire, ta itzuli zire

Pregonari Kristoren. Manatu zue Prefektoak itxekitzeko su, sanda ta leona zeuden aposentuaren inguruan, erre zeitzen biak an. Orduan leona kurturik burua, ta errezibiturik sandaren bedeizioa, atra ze sua barna, ta ziudade guzia barna dañurik gabe.

Ondorean paratu zute Krisanto dilindaka zur batetik, ta zura autxi ze istantean, eta zuzi itxeki zuztenak erretzeko sandua, itzali zire. Sanda ere nai zute tormentatu, baña berdugoeri bildu zekizkiote esku ta besoe-tako zafiak alako oñazeeki, ezi bearko utzi geldi. Biak gero erman zuzte kanpora, ta bia Salaria deitzen den lekuan zulo andi bat eginik, an ortzi zuzte bizirik botatus gañetik anitz arri ta lur: ala bateo an izan zute beren martirioa ta obia. Obratu zue Jangoikoak sandu geben atenzios asko milagro; eta jendeek artu zioteta anitz debozio. Bildu ze bein Kristio-tropa bat zelebratzera eben festa kubila batean; eta enperadoreak jakinik ori, ertxiarazi zue kubilaren agoa maneraz, ezi an il zire guziak Martir. Aien ertean ze sazerdote bat Diodoro deitua, zeñek komekatu zitue guziak, eta animatu pasatzera martirio gura, igateko arimak zerura. Bi sanduena izan ze Kristoren 284 urtean. Eskribitu zute Autoreek laudatus: eta S. Damaso Aita sanduak españolak egin zitue berso eleganteak aien laudariotan &.



## Lastallaren 29.an

### S. Narziso Geronako Obispo ta Martir

S. Narziso Geronan jaioa, ta ango obispoa, Aureliano enperadorea-ren persekuzioean, atra ze andik iges Diakono Felix deituareki, ta Jangoikoa-ren probidenzias joan ze Alemaniara predikatzer Kristoren ebanjelioa. Ellegatu ze Augustan ostatus Afra deitzen zen Andre prinzipale baten etxean, zein beren Jangoiko falsu ta urdeen obsekioan bizi ze desonestoki. Onek aditurik zela Kristioen obispo, aditu zue doktrina egie- tafedearena, ta orazioan gaua pasatus, ikusirik itxeki zela argia milagros, argitu zeuio entendamentua, ezauntzeko zuzen-bidea: eta ala bera, bere Ama Hilaria, bere osaba Dionisio, ta bere familia guzia bataiatu ze sanduaren eskus, eta beraren ta aien medios berze anitz. Bedratzi ilabetes egon ze an, ta irabazi zue ainberze arima Jaunaren, ezi Augustakoek daukate au beren Apostolu ta Maestru. Konsagratu zue Dionisio obisopotako, ta ordenaturik asko sazerdote, ango kristio berrien pena andiareki despeitu ze itzultzeko bere ardi propioes kuidatzera Geronara. Emen irur urtes trabajatus bere bizimodu sanduareki, ta doktrina zerukoareki argitu ziote guziei, ta aumentatu zue Kristiogendea agitz, Infielen bortxa ta errabiareki, zeñek azkenean meza erraten zegon batez il zute aldare-alzinean heritus lepoan, soñean, ta oin batean. Guziau dio Augustako Brebiarioak, zeintan kontatzen ere da S. Afraren martirioa, erre zutena bizirik, baitare bere familia. S. Narzisoren gorputza dago Geronan, non duten Patrono faboratutuena asko milagros. Famatua da agitua Franziaiko errege Felipe III, ta bere tropareki 1285 urtean, ezi gerra eginik odolez eta garrez barkatu gabe tenploei ere, ta Sanduei ere, sarturik S. Narzisoren tenploan guzia zikindus ta ultrajatus atra zire sanduaren obia edo urnatik abea ta uli, ta erle bandak eman zutenak aien kontra, ta il zuztenak iago ezi berrogei milla gizon, ta ogeitalaur milla zaldi: eta andik egun gutiren barnean iltze errege bera ere Perpinnanen: ta gelditu ze erran komuntako S. Narzisoren uliak. Berze askotan defendatu du Sanduak bere Gerona. 1653 urtean zeukatelaik inguraturik Gerona, oroat atra omen ze ainberze uli berde, azul, miragarri, emanik kontra ilarazi ziotenak iago ezi bi milla zaldi errabiaturik bekala, ta jendearen geiena. Berze bein 1684 nai zutelarik sartu asaltos, agertu ze sanduaren besoko manipuloaren gañean ulitzar bat anitz koloretakoa, mostratus bekala bazituela oraño uliak, bear baze.

Etze beartu pikatzea; ori gabe ilik anitz, ta gañarakoak iges joanik, gelditu zire despojoa franko, zazpi bandera errealeki. Alako miragarrien kasos edatu da sandu gonon errezua España guzira. Inozenzio XI.ak.



## Azaroaren 1.an Sandu guzien Festibidadea

Azaroaren lenbiziko egunean zelebratzen du Elizak lurrean memoria ta festa zeruan diren Aingiru, Sandu, ta Sanda zori onzekoena batean; alde bat zeren urteasko egunetan naiz zelebra baleitez egunoro millaka dakizkigunetaik an direla, imposible bailitzake guziak kabitzea; berze alde zeren baitire berze infinizio bat iago an emen eztakizkigunak: berze alde suplitzeko solemnidade goneki faltatu dena urte askoetan: berze alde, dion bekala Elizak, logratzeko Jangoikoaren piedadearen abastoa deseatzten duguna biltzeareki bateo anitz bitarteko: baña motibo ta kausa prinzipalena da, beiratus nola dauden gozatzen an jende ta estado guzietakokak, errege, sazerdote, erreljioso, birjin, ezkondu, alargun, andi, txipi, abrats ta pobre izanak emen, animatzeko gu ere joatera aien bideas, ellegatzeko gu ere gozatzera aieki gloria gozatzen dutena, zeintarako gu ere kriatu, konserbatu, erredimitu, berexi bere etxeko, ta azitzen gaituen Jangoiko onak. Fundatzenda festibidade gau Kredoan dion azken artikulo fedeskoan, baita *bizitza sekulakoa*. Zer nai du erran bizitza sekulakoa? Dio katetximan: *Bizi bear gara* secula seculorum zeruan edo infernuan: Jangoikoaren grazian iltzen direnak, zeruan, ta desgrazian iltzen direnak, infernuan. Baña infernukoen bizitza Elizak deitzen du propiki eriotze perpetuoa, *â morte perpetuâ libera nos, Domine*: zeren bizi baitire an eriozko agonia guziak baño iago penaeki, beti iltzen bekala, ta il naies beti, ta ezin akabatus iles beñere. An goitiko bizitza gura bai da propiki bizitza, ta bizitza sekulako gozoso glorioso, zeñeki konparaturik oraiko bizitza ere, dio S. Gregoriok, obeki deitu bear dela iltzea ezi bizitza. (h. 37. in ev.) Baña non da, dio, mirik erran dezakenik, edo entendamenturik pensa dezakenik nolako gozoak ta gloriak diren Jangoikoaren palazio ta korte erreale gora gartan? Aisago da logratzea, ezi explikatzea. Baña animatzeko, emagun zerbait notizia senzillki.

Beñik bein ura da bizi-lekua, Jangoiko andiak erregeen errege soberanoak berarias fabrikatu duena, agertzeko bere gloria ta ondasunen abasto neurrigabea, gozarazteko bereak bere prezentsian bere Majestadeai dagokion gisan. Begiak ez ikusi, ta ez aditu du bearriak, eztare gogoratu gizonaren biotzak Jangoikoak prestaturik daukana bera onesten dutenendako. Emengo errege deituek, angoaren aldean deus guti direnek, fabrikatzen baituzte obra miragarriak beren gozaro ta sendagallatako, zerik

uste duzu bide dela an gorako jaureki ta bizileku gura prestatu duena errege jakintsu, abrats, poderoso, bere parerik eztuenak, non ikustera ematen den bere glorian? non goza daitzen Kristoreki bere eskojituak? non guziak diren errege, ta txipiena andiago ezi emengo andiena? Ditosoa egiaz, ta zori onekoa ellegatzen dena logratzera: ikusko du, ta gozatuko du iago ezi daiken explika edo pensa. Kontu in zagun zarella zu zori oneko gori, zeñi despeitzean desterru gontaik erranen dion, *Atoz ene Aitareñ bedekiatua, arzazu posesio zuretako dagon erreinuas. Ea alegra zaitte, sierbo ona ta fiela, zeren guti ziren gauzetan izan zaren fiel, anitzen jabe inen zaitut: Sar zaitte zure Jaunaren gozoan*. Erran orduko istantean iganen zara azken zerura, ain laster nola igaten den pensamentua; baña gu goazen beiratus ararako bidean direnak. Ameka dire zeruak inguratzen dutenak mundu gau.

(Lenbiziko zerua, baitago emendik anitz milla lekoka-bide, ikusko duzu zein materiale ederretakoa den, eta artan ilargia duena inguruan 157 lekoka, ta dabilana orduoro 1963 lekoka.

Bigarren zerua ederrago oraño ikusko duzu, ta an Planeta, deitzen dena Merkurio.

Irugarren zeruan izar agitz argi bat deitzen dena Benus, ta goizeko luzero artizarra.

Laurgarrenean iruzkiaren iringola andi gura guzien erdian guziei argi ematen diotena; zeñen loditasunak baitu 5950 lekoka, aldetik aldera; ta inguruan 18700 lekoka, ta bolatzen dela ordu baktotxean kasi 4000 lekoka-bide.

Borzgarrenean planeta deitzen dena Marte: Seigarrenean Jupiter: zazpigarrenean Saturno: Zorzigarrenean, zein deitzen baita Firmamentua bere firmeza sendoagatik, diones S. Agustinek, ez geldi dagonagatik, ezi dabila agitz laster, ta da berzeak baño iago eder: An daude izarrak numero ta orden admiragarrian, ala nola berze ainberze perla prezioso eder, zeñetaik txipiena baita andiago ezi mundu gau; eta badire direnak eun aldiz andiago, berze batzuk laurogei aldiz, berze batzuk iruogeitamar, ta berrogeitamar aldiz; naiz emendik iduri guri txipiak. Bedratzi ta amargarren zeruak kristalino deituak, ta ureskoak, agitz ixtargitzen dutenak zeru goien goienaren errañuen kasos.)

Azken zerua enpireo deitua, Jangoiko andiaren paraiso ta gloriaren asentu erreala, kanpoko aldetik ere beiratzeas, zer admirazioa! Zer argi ederra! Zer primoreak! Azala ain miragarri, mamia nolakoa bide da! Kontxa gañekoa ain prezioso delarik, perla barnekoa zerik bide da! (pleraque ex manuscr. Agred.) Zer murallak aiek! Zer atariak! amabi S. Juanek dio direla, iruna laur aldetaik, eta baktotxa margarita prezioso bat: eta plaza



urre fiñ fiña kristale argiaren gisara: Eta eztela bear an iruzkirik ta ez ilar-girik; ezi Jangoikoaren argiak argitzen duela, ta ango argi-emallea dela Jangoikoaren axuria. (Apoc. 21) Bada ango berze preziosidadeak nork pensa? ango lorekiak, fruitadiak, amenidadea, fragranzia, aireak, eta gauza onak, nork pinta? Ezta an ekaitzik, ez eurik, ez aldarte txarrik, baizik eguraldi on perpetuo eternoa nai adiaña. Bada erreinu andi garren andi zabal inmensoa da ainberze, ezi balire itsasbasterreko area pikorrak ain andi bakotxa nola mundu au, guziak kabi leizke an, sobra leike lekua ranko gero ere; ta andik beiraturik mundu gau da nola orratz-buru bat, edo puntu bat, eztaikena ikus. Bada ango ikusgarri, ta gozagarri, ta admiragarriak eztaizke gogoratu ere bizi denai emen: An bildu baitu Jangoiko andiak guzien Jaun ta Jabeak on eder prezioso daiken guzi guzia, glorias-tatzeko bere eskojituak, maneraz, ezi angoaren aldean emengo palazio, preziosidade, ta miragarriak kontu direla txinurrien kubilak, ta propioiki desterrukoak.

Idikirik ango atari eternalak, sartuko da zori onekoa akonpañaturik bere guardiako Aingeruas, ta berze anitzes, errebestiturik gloriako argias errebituko dute milla zori on ta laudarioen erdian sanduek, Maria Santismak, ta Jesu Kristo Redentoreak: Errezibituko du Trintate Jaun guzis poderosoak besarka amoroso eternoan, ta gloriaztatuko du daiken guzia glorias graziazen ta merejimentuen ariora, nai dezaken adiaña, ta pensa ala baño iago. An diren guziek dute gloria nai adiaña abasto, guziak daude kontent bete bete; baño guziareki batetik berzera da diferenzia glorian; Jangoikoas geros Jesu Kristoren gizontasunak du guziek baño iago gloria: urbilena Maria Santismak guzien erregina soberanaes gero Aingeru eta sanduetan nork zuen iago grazia, du iago gloria. Ezta orgatik an inbidia-rik, ezi on balitz, ia ez litzake gloria. Guzis kontent daude bereas ta berzerenas; ala nola Aita batek in balezote gala tela batetik bere hume guziei andiei, erdikoei, ta txipiei, beren neurrian bakotxai, klaro da sartuko dela gai geiago andiaren galan, ezi txipiarenean; baño orgatik ain kontent legoke au bere galareki, nola ura bereareki. Gloria esenziala dago ikustean Jangoikoa aurkez aurke; andik datorkio arimari infinizio bat on, gozo, gusto, ta gauza. Ezta ikuste gura ikuste utsa ta utsala, baizik ere ikustea-reki partizipatzen du beraren edertasun ta gloria: (*Gu guziok*, dio S. Pablok, *beiratus agerrian Jaunaren gloria, trasformatzen gara beraren adurian*. 2 Cor. 3. Eta S. Pedrok diones, *partizipante naturaleza dibinoaren*. 2 Petr. 1. Eta S. Juanek, *Dakigu*, dio, *ezi agertzen delaik, izanen garena beraren semejante edo idurituak, ezi ikusiko dugu den bekala*. 1 Joan. 3. Ala nola kristale, edo lañu mee bat, iruzkiak ematen diolaik bete bete, argi edertzen baita: ala nola

hispilluan iruzkia, ta iruzkiareki hispillua istargitzen baita: ala nola burri-na bat suan goriturik sutzen baita: ala nola ur tanta bat ardo kantidadean nasirik, ardoaren kolores ta zapores paratzen baita: ala, baño ez ala, obeki arima, ikusis Jangoikoa, Jangoikostatzen da, erran barin badaike.) Irur kontatzentute arimaren doteak, *Bisionea*, *Konprehensionea*, ta *Fruizionea*. *Bisionea* da beiratzea, ikustea, entendatzea Jangoikoaren ona, ta dagokio-na. *Konprehensionea* da sartzea Jangoikoaren posesioan, ta on den guziaren. *Fruizionea* da ortaik darraion konplazenzia, gozo, ta gusto soberanoa, ala nola ondaturik bere gustorako esnesko itsas andian. Ia orduan etzara izanen pobrettoa, herikor, miserable niolateko maneran, bai aberats erregina eder gloriosa Jangoikoareki betikos, gaitz-errestorik ta peligrorik gabe. Memoria gozatuko da oroitus zein guti kostarik zenbat gozatzen, ta goz-tuko duen. Entendamentua kontenplatus Jangoikoan bere grandezak. Borondatea amatus bere Majestadea, ta gozatus beraren amorea, duela nai duen guzia, ta nai eztenik baterez niondik. Gorputza ere bere denboran asiko da partizipatzen gloria dagokion adiaña. Ezta izanen an emen beka-la, pizu, herikor, itsusi, animale, baizik arin, sano eder glorioso. Laur dire doteak gorputz gloriosoarenak, mostratzen direnak itz gontan *Kasi*. Klaridadea, Ajilidadea, Sutileza, Inpasibilidadea. Egietafede gau adiarazi zute Kristok ta bere Pregonariak S. Pablok tratatuz ilen berriro-bizteas, baño klaroki diolarik Philip. 3. *Esperatzen dugu Salbazale gure Jaun Jesu Kristo, zeñek erreformatuko du gure gorputz humil gau iduriarazis bere gorputz argi ederrai. Klaridadeas* paratuko du ain argi eder nola eguzkia, ta ederrago ere, ezi ango gorputz glorioso bat ager baledi munduan duen argiareki, ia ez lezake argi eguzkiak iago ezi zuzi batek eguzki andiaren argiaren aldean. *Ajilidadeas* paratuko du ain ajil zalui arin, ezi daiken egatu iago ezi saeta bat, aizea ta pensamentua bezain. Ala dakigu, biali duelarik nor edo nor andik lurrekoen abore, itza atra orduko, plantatu direla emen. *Sutilezas* paratuko du ain sutil ta sutilago ezi argia, au nola pasatzen den kristale batetik, ura pasa daikela muralla ta makina sendo lodiena barna estorburik gabe, iago ezi boza. *Inpasibilidadeas* ezin padezi trabajurik, ezin il, ezin senti oñazerik, nekerik, naigaberik batere eternidadean. Ura baita propioiki bizi direnen lekua, Jangoikoaren paraisoa, on guzien bilgura.

Alakoak deitzen dire gloria akzidentalak, esenzial prinzipalari darraizkionak. Badute berze bat ere, au da indartea ta habilidadea, artzeco nauten figura, egiteko miragarriak; guretako imposibleak; nola zelebratzen dugun San Tiago Apostolua Españako Patronoa agertu dela bata-llaetan moroen kontra, españarren alzinean, soldado zaldisko bekala zaldi eder batean guapo arrullo bere ezpatareki arritzen urratzen moroak. Ala-



ber erran duguna, badela distinzio batetik berzera glorian, batzuek daramate berzeek ez tamaten insignia berex, baita premio ta señaile izan zirenaren munduan. Irur jende-mota dire berex daramatenak an beren insignia gisa deitzen dutena Teologoek aureola. Aiek dire izanak emen *Martirak*, eta *Doktoreak*, eta *Birjinak*, eta ala bukatu zirenak. Zergatik ebek bai, ta berzeek ez? Zergatik alakoek in zuten hazaña, fineza, ta lan andia Jangoikoaren zerbitzutan. Hazaña andia da pasatzea martirio ta eriotzea Jangoikoaren amores: Orgatik dute an beren aureola *Martirek*. Zerbitzu Jangoikoaren gustoko andia da irabaztea arimak erakutsis zuzen-bidea: orgatik dute beren aureola *Doktoreek*. Gorputz aragiskoan, azi likitsetik formatuan, ainberze inklinazio, tentazio, ta zeboen bortxa bizitzea munduan Aingeruen gisa, mustatu gabe luxurian, Jangoikoaren amarez ta plazer eman naiez, fineza andia da: orgatik dute beren aureola *Birjinek*: baitare nauten guzia guziek.

Bada sentidoek gozatzen duten gloria gisa, nola explika? An gozatu-kore dire begiak beiratus eta ikusis Jangoikoas landara eder prezioso miragarrien miragarria &. An adimentua gozatuko da aditus musika, soñu, kantu, ta konbersazio agitz suabe zoragarriak. S. Franziskori emen sualeak ematerakoan begietan, ezpazue sentitu mellarik ere, zeren zitara bat soñatu zion Aingiru batek bitartean: S. Biril egon baze iago ezi berreun urte aditzen txori baten kantua Leireko peña ta sasi gaien erlean gau ta egun, uda ta negu, sentitu gabe penarik, baizik ainberze gusto, iduri baizekiotezela pasatu bi ordu: zer izanen da Jangoikoaren paraiso gartan? Usina ere gozatuko da ango atxon ta fragranzia soberanoeki. Emen ere sandu zenbaiten gorputz ilei ta erreliekiei utzi badiote Jangoikoak fragranzia bat alakoa, admiratzen baititu biziak, an zer izanen da? An gustoak gustatuko du nekerik gabe ta aspertu gabe suabidade gozo gozoa ta bete betea ezin iagos, ain berri nola prinzipioan beti eternidade guzian. Mana erauntsi gartas Israeldarrei desertuan diote ematen ziotela gusto-mota nai zutena, onei bentzait: komekatzean solamente sentiarazten baziote S. Teresari ta berze sandueri emen ainberze gusto, iduri baizekiote zeudela glorian, zer izanen da an agerrian? Tantatto batek txastaturik emen ala zorutzen bazi-tue gozos eta gustos, zer izanen da ondaturik itsasandian? Irri egiteko da galdegiten dutena tontoek, ia baden zeruan emen duten gusto gura ta ber-zea, nola ezpaitute txastatu Jangoikoaren gustorik: zer errain diogute? Izanen dutela an nauten guzia.

Berze gloria gisa bat da angoen konpañia ta komunikazio amorosoa: Lenik ainberze milla millon Serafim, ta Kerubim, ta gañarako Aingeruen tropak ezin konta ala, guziak ain ederrak, ta bata baño berzea ederrago, ta

guziak diferente distinto, ain ongi ordenaturik, zein bere gala ta insignae-ki. Gero ainberze gizon ta emasteki, andi ta aur emendik iganak denbora guzietan, jende, ta estado, ta kondizio, ta genero guzietatik, baña an ia guziak errege ta erreginak, guziak noble jenerosoak, guziak gaste eder perfekto, guziak xakintsu, abrats, poderoso, guziak onak ta amableak faltarik gabe; gizagendearen flore florea bildurik an, ta Jangoikoaren biotza- ren konforme guziak, elkar amatzen direla perfektoki elkarren adiskide ta anaiak bekala amore eternoareki. Ezta an emengo errezelarik, ez punturik, ez humore gaixtorik, ez aldaketarik. An bai, an kunplitzen baita osoki Jangoiko onaren manamendua, amatzea proximoa bere burua bekala. An baita guzien biotza bat, ta bat arima unione guziena Jangoikoa. An ezpai- ta ni andi, zu txipi, au nere, au zure, ta alakorik, baizik guziek guziak sar- turik biotzean. Bada zer izanen da tratatze gura bere lagun eta adiskideak bekala Apostoluak, Patriarkak, Aita sandu izanak; ta Doktore jakintsuak, admittitzen dutela beren komunikazioan izan zena emen ignorante pobret- toa? baña an ia jakintsuago ezi emengo jakintsuenak? Zer gauza da komunikatzea Martir baliente gaiek, errege, erregina, Jaundi poderoso izanak, ia anai arrebak bekala besarkatzen dutela? Eta ikustea ainberze birjina garbi eder ederrak, Teresak, Agedak, Luziak, Inesak, Zeziliak, Katalinak, Eulaliak, Rosak, Rosaliak, ta gañarakoak, aitutugunak ta eztu- gunak, artzen dutela bat beren konpañian amorosoki ia peligrorik gabe? Oroat Serafin, ta Kerubinek, ta berze Aingiruek! Nola aurkituko zara kontent gozoro alakoan erlean! O familia noble amablea Jangoikoaren etxe-ko gura! O nolako buratso, anai ta arreba, ta kideak aurkitukotuzun an! niork etzaitu desetxatuko, guziek bai artuko ta besarkatuko biotzes. O konpañia deseagarria! o fortuna balekida! Baña igan zaite gorago ere: dei- tzen zaion Jangoikoaren Amak Mariak; zeruko erregina soberanak konbi- datzen zaitu; artuko ta besarkatuko zaitu amorosoki. Nork ezta naiko ditxa gau? Baña iago ere oraño: Jesus berak edaturik besoak deitu, besar- katu, ta erregalatuko zaitu bere doloresko humea bekala, ta gozaraziko zaitu Jangoikoaren iturri deliziasko inmensoan. Zer idurituko zaizkizu orduan emengo trabajutto pasatuak? Merke-eder eman zaizula idurituko zaizu, ta grazias gloria gura. An ikusko duzu zein egia den Kristok erra- na, *zuen premia andia dela zeruan: zuen tristura itzuliko dela gozotan. Eun doble errezibituko duziela, ta bizitza eternoa*. Infinito ezin konta ala dire onen frui- tuak, baña berexententua amabi S. Buenabenturak: 1.<sup>a</sup> Sanidadea gaitzik gabe. 2.<sup>a</sup> Gastetasuna zartu gabe. 3.<sup>a</sup> Ase betea aspertu gabe. 4.<sup>a</sup> Libretasuna suzejiorik gabe. 5.<sup>a</sup> Edertasuna tatxarrik gabe. 6.<sup>a</sup> Inmortalidade ta inpa- sibilidadea penarik gabe. 7.<sup>a</sup> Abundanzia faltarik gabe. 8.<sup>a</sup> Bake osoa inkie-





turarik gabe. 9.<sup>a</sup> Seguridadea beldurrik gabe. 10.<sup>a</sup> Jakintasuna ignoranziaik gabe. 11.<sup>a</sup> Honra deshonreik gabe. 12.<sup>a</sup> Gozoa tristuraik gabe.

Ain geiegia da gloriako delizia, dio, S. Agustinek, ezi gozatzeagatik solamente ordu bat ere, bear ginduzke desetxatu emengo delizia ta ondasun guziak, naiz balire anitz denboratako ezin konta ala. Ezkarela dekuidatu bear, dio S. Krisostomok, naiz bear balitz guzia galdu, naiz pasatu sua barna, naiz lanzak ta ezpatak, ellegatzeagatik arara. An ezta nai eztenik; da nai den ta nai daiken guzia. Emen dire kulparen ta penaren gaitzak: an baterez alakorik. Emen ondasun deitzen direnak, edo dire falsuak, edo akabatzen direnak: an dire egjaskoak, beteak, betirokoak. Emen solamente bidanabar daizke goza; eta berberak denbora luzean enfadagarri dire: eta guziak batean ezin goza daizke: eta naiz goza leizken, ezin lezakete bete biotza. An biotza egonen da sosegaturik ase bete batean, eta betiro, eta zenbatenas iago gozaten, iago plazer. O bizi ditxosoa! o gusto soberanoa! o seguranza eternoa! Ze andia enpleaturik erregalaten bere onetsiak! zer iduri zaizu alakoes? Gloria gura da gizonaren azken fina, zeintako kriatu duen Jangoikoak, ta balio duena Jangoikoak adiña. Gloria gura da, zeintara igateko gu, jautsi zen zerutik Jangoikoaren Seme Jangoikoa, ta gizon eginik pasatu zuen anitz trabaju, ta eriotze samiña gurutzean. Gloria gura da, zein logratzeagatik, ta lograrazteagatik pasatu duten sanduek ta jakintsuek anitz neke-pena, ta martirio, ta penitentzia, ta mortifikazio &. Gloria gura da, zein egunoro mezako sakrifizioan eskatzen duen anitz aldiz, eta bigarren mementoan eskatu ondoan eman dezotela purgatorioko arimei deskansuaren, errekreo, argitasun, ta bakearen lekua, gero sazerdoteak emanek golpe bat bularretan dion klaro, *Nobis quoque peccatoribus* guri ere bekatariet berorren miserikordien geiegian esperatzen dugunei eman bezaju zerbait parte ta konpañia bere sandueki, zeñen ertean gu ere admitti gaitza, ez beiratus mereji duguna, bai emanek barkazio ta grazia. amen.

## Azaroaren 2.an Purgatorioko arimen memoria

Sandu guzien egunaren urbilenean zebratzen du Elizak purgatorioko arimen memoria. Egitea orazioak, sakrifizioak, ta sufrajioak ilengatik biziek, usatu da Jangoikoaren fede ta errelijione izan dutenetan beti, Kristo etorri baño len ta len ere. Ala judas Makabeo famatu garrek ofrazazi zue Jerusalem sakrifizio ilen bekatuengatik: eta on kontatu ondoan Eskritura sagratuan dio, *Sancta ergo et salubris est cogitatio* & Beras gauza sandua ta salbazioskoa dela ilengatik sufrajio egitea, libratzeko bekatuetatik. Kristiandadean Apostoluen denboratik usatu da beti mezako sakrifizioan egitea ilen memoria, ta orazio aien fabore, ta ortako da bigarren memento deitzen dena, ta meza guzietan iten dena. Baña egun seinalatuan zebratzea ori, diote paratu zuela S. Odilon Monjeak bere konbentuetan, eta onen konsejus Juan XVI.ak Aita sanduak eliza guzian. S. Odilon iltze 1048 urtean. Amalariko Fortunato Treberisko obispoak, berreun urte kasi lenago bizi zenak sanduen ofizioaren atzetik paratzen omen du defuntorena, baita señaie, denbora gartan ere zebratzen zela, notatu zuen bekalak Baronio kardenaleak. Inporta dena geienik da xakitea egietafedea sine tsi bear dena ontan. Fundatzenda Kredoaren artikulo gartan, non baitio *Eliza Sanda Katolikoa, ta Sanduen komunioa*. Eliza da Kristio fiel guzien kongregazioa, saldoa, ta familia, zeñen burua baita Jesu Kristo, ta onen ordes Aita sandua Kristoren Bikario lurrean. Kristioen familia gau irur estadotan aurkitzen den bekalak, irur izenes deitzeunte Doktoreek, eliza *triumfantea*, eliza *purgantea*, ta eliza *militantea*. Lenik eliza triumfantea deitzentute kristio daudenak triumfaten glorioso zeruan. Eliza purgantea deitzentute kristio daudenak purgatzen zeruratzeke. Eliza militantea kristio gaudenak munduan militatzen, edo pelean preziso zeruratzeke. *Sanduen Komunioa* da Kristio guzien komunikazioa elkarreki ondasun espiritualeetan: ellegatzen da ori purgatorioraño, ta zeruraño ere, guk honratus sanduen memoria lurrean, ta sanduek eskatus gure fabore zeruan. Purgatoriokoei berriz bialis guk emendik sufrajio, sakrifizio, ta orazio; aiek orai ta gero guri logratu Jangoikoaganik Iraziak; ezi arima gaiek sandak dire ta Jangoikoaren grazian daudenak orai, ta beraren aurpegia ikusi bear dutenak glorian goiz edo berant. Guziau da egietafedea.

Goazen orai. Eta nor, ta nola purgatzen dire? Eta nola sokorritzen dire? Utzirik alde bat, bataiatu gabe doazan aurren arimak, gañarakoen



arimak irur estado gisatan atratzen dire, iltzen direlaik gorputzak: batzuk bekatu mortalearen estadoan, por konsigiente Jangoikoaren desgrazian, ta alakoak doaz infernura kondenatuak erremediorik gabe, *inferno autem nulla est redemptio*: berze batzuk Jangoikoaren grazian libre kulpatik eta penatik: ta alakoak doaz zuzenean zerura zori oneko ditzosoak: berze batzuk Jangoikoaren grazian ere bai, baña dutenak zenbait beniale barkatzeko, edo barkatuen pena pagatzeko; zergatik konfesaturik ongi, ala mortale nola benialeen kulpak barkatzen dire beti, baña zor diren penak ez beti, baizik gelditzen da komunki zerbait pagatzeko, dela emen, dela an, zeintas eman bear den Jangoikoai satisfakzio. (Bataioko sakramentuan barkatzen da kulpa ta pena guzis, gizaberritzen bekala da, ta jaiio berritzen arima; ta orgatik barin badoaie bereala emendik, zuzen doaie zerura: baña penitenziako sakramentuan ala guzis garbitzera ta gizaberritzera eztaike ellega, ezpada gure trabaju ta negar andieki, dio Tridentinoak (ses. 14. c. 2) Orgatik zeruratzekos pasatu bear da asko penitentzia ta pena, ezi an ezta sartuko mantxa dunik batere: eta emen ezpada guzis purifikatzen edo purgatzzen, preziso da purgatzea an, nondik ezten atrako guzis garbi eder paratu arteo, nola urrea suan.)

Bai ta nola purgatzzen dire arimak? Padezitus pena erru andiak purgatorioko suan, zein ezpada ere eternoa, dio S. Agustinek, *da guzis samii* ikaragarria iago ezi niork munduan sufritu duen pena. Eztela martiriorik arreki *konpara daikenik*. S. Gregoriok ere dio, *ezin soporta daikena* dela, iago ezi oraiko biziaren pena edo trabaju guziak. Konforme diote Beda benereableak, S. Anselmok, S. Bernardok, eta iago dio oraño S. Tomas Dokto-re Aingeruak, purgatorioko penak *direla erruago* ta andiago, ezi Kristo berak bere pasio doloreskoan *pasatu zituenak*. Orgatik Agustinek dio berriz, *errain du* agian norbaitek, ezta anitz inport geldi nazaten purgatorioan, non ta noaien zerura. Ene anaia maiteak, dio, ezdezala niork erran alakorik, ezi ango su gura da gogorrango, ezi emen ikusi, ensa, edo senti daizken pena guziak, eta nola dagon eskribiturik, egun bat milla urte izanen dela. Eztuenak orai sufritu nai eri bat sollik idukitzea suan, naiz denbora gutis, nola ezta lotsatzen izateas tormentatua ango su erru bizias? Orgatik bakotzak kuida bez indar guzieki eskapatzeas bekatu mortaleetaik, ta emateas satisfakzio benialeengatik obra ones, eztaien gelditu konsumitu bear denik *sujarreki*. Guziok dire sandu garren itzak arritzen nautenak, zelarik sandua ain erreparatua, ta neurritua mintzatzean! *Kulpa*, dio berriz, eztaike pasa pena gabe: nola gorputza ere ez itzalik gabe, delarik iruzki. Jangoikoa da justiziasko iruzkia. Edo *kastigatzzen duzu*, edo *kastigatzzen du*: edo emen azote elleskoeki, edo an susko azoteeki. Egin bada peni-

tenzia biotzez lenik, gero gorputzes ere: Admiti gogotik, ta eraman konforme datozin trabajuak, emateko satisfakzio justizia dibinoari daiken adiaña Jesus onaren doloresko pasioareki bateo. Enpleatzen ote diren Demonioak, justiziako Ministroak bekala, penarazten arima sanda gaiei, ezta zierto segurki; zenbait Doktoreek diote baietz: S. Tomas Dokto-re Aingeruak dio ezetz: baña dena dela ortas, pena guziek diote dela arrigarrria, eta adiarazi dute arimek berek aparezitus sanduei nigarti eskatzera sufrajio... Onen gañetik dute berze pena bat deitzen dena dañuaren pena, au da pribaturik egotea ikustetik Jangoikoaren aurpegia denboras. Gure arimai lurrean orai, nola baitago ortzirik bekala gorputzaren loi gontan, etzaiko iduri pena gau ain bortitza: baña gorputzetik apart arimak libre ia ta beretz du ainberze inklinazio ta ansia Jangoikoagana, nola sugarrak gora, nola ezur atreak bere tokira, nola gauza guziek beren zentrora. *Ai ene*, daude klamatzen kontino, berantetsirik bainago, luze baita ene desterrua: non da ene Jangoiko ona? Noiz joanen naiz? Noiz emanen dida ikus dezaten bere aurpegia? Guziareki badirela egoten direnak deteniturik an ez solamente asteak, ta ilabeteak, baita urteak ere, diote Autore sinestagarrriek, naiz eguna iduri an urte. Baña alaere daude pazienza ta konformidade andian, seguraturik ez dezaketela gal Jangoikoaren grazia, ta ikusko dutela beraren gloria. Baitare bitartean omentuzte aldartes beren alibioak ta konsolazioak, espezialkiro jai andietan, berexki beren guardiako Aingiruen medios, ta zeruan sufritzen adiskide sanduen orazios: baitare munduko beren debotoen sufrajios.

Eta au da prinzipalki dagokiguna guri, ala geuren, nola aien probetxutan: Zeren ezi erregeren hume maiteak erreinatu bear dutenak berareki, preso baleude zenbait zor lebeen kasos, nork ez luzke naiko faboratu, alibiatu, sokorritu dezakenas, bere irabazi propioagatik ere? dakielaik, ortas duela plazer Aita erregek? eta aiek direla nobleak, agradezituak, ongi pagatuko diotenak? Alakoak dire arima sanda gaiek, orai pobrettoak preso ezin dezaketenak deus egin atratzeko, baña atrako direnak, ta zeruan beren ongi-egillees oroituko direnak. Zierto ziertoki atratuenak purgatoriotik anitz arima, aurkituko du bere atratzean mundutik anitz adiskide onak: Eta zer konsolazioa, zer konfianza, zer salbazioa eztu sentituko, ikustean aiek atratzen bidera faboratu naies? Bai ta nola dezaketegu sokorritu? Zer inen dugu, pagatzeko aien zorrak, ta libratzeko? Ezta ainberze bear bolsa, nola biotza ortako. Sufrajio len lena, ta baliosoena da mezako sakrifizio sandua, zeintan presentatzen ta ofratzen den axuri dibinoa, guzien salbadore, fiadore, ta pagadore bakarra bere pasioko lliga, ta pena, ta satisfakzio, ta merejimentu guzieki, balia daitzen nautenak bere



liberttasun geiegias. Orra bada maia paraturik, ta gañean erreskatearen prezio inmensoa beren ta berzerendako. Da klaro ezi aplikarazis meza, iago tokatzen zaiola: baña enzunes ere ta aplikatus baktokak bere partetik, inen diote sufrajio andia. Oroat diot, komekatus, ta ofratus arimendako. Emen gogora dakiok noribaiti, ofratzen delaik mezan prezio balio duena infinito, ia zertako den anitz meza aplikatzea? nola ezten libratzen meza bateki, aplikatuas geros? Errespuesta da bear dela ere Jangoikoak ontzat artzea, edo azeptatzea fruitu guziak bat garrendako, ezpaitakigu zenbat den azeptatzen duena; ezeta ere berzearen dispozioa; ez geurena ere; ta komunkiro dispozioaren ariora baita probetxua, ala nola iturri, edo itsaso andi bat izanik, ur abasto duena guziendako, atrako du baktokak daraman onziaren ariora, txipian ez ainberze nola andian: edo ala nola suargi andian tortxa edo zuzi andi bat daramanak itxekitzeko, argi asko atrako du, ez ainberze kandelaиска edo estaka bat daramanak. Orgatik beñere eztugu logratzen an den fruitu guzia geuren faltas.

Berze sufrajio onzat da Induljenziaena, guti kostarik anitz balio duena. Ortako ere ezta bear bolsa ta diru andirik, baizik biotz ona, karidadea ta dilijenzia. Oh! nola bide dauden arimak induljenzien egunen beira! oroituko den nor edo nor aplikatzeas aiendako! Baña o arima pobrettoak, zuek penatan zauzte, ta zuen aide ta aiskide, ta kide izanak daude atzendurik, sor, eta itsuturik munduaren ta aragiaren zeboeki. Eztute ajolarik beren arimes; zer milagro da ez izatea zuetas? Ah! zuen su gortarik salta balekiote txindi bat eskura, edo adi balezate, edo ikusi zuen aiots ta neke-pena, idatzar leizke. Baña ilundurik, ilik, edo erdi-ilik daukate fedea, baita sinestea ikusi gabe. Da notatzeko emen gauza bat arimen fabore, au da ezi mezaren ta induljenzien satisfakzioa ez dezakelaik irabazi beretako bekatu mortalean dagonak, baña aplikaturik arima gaiei balio diotela, mezarenak Kristoren birtutez, induljenzienak Elizaren atenzios. Ala uste du S. Tomas Doktore Aingiruak. Berze sufrajio bat da orazioa: iten delarik ori ei zaren nonbrean elizako Ministroen medios, da baliosoago, baña baitare kostosoago: zeren bear zen eman sustentua Ministroei, ta ebek sustentatzen dire arimen kasos, ta aien debotoen kostus maneraz, ezi obia baktokta kontu dela alor bat dakarrana fruitu sazerdoteen: orgatik ezpailitzake bizi bear sazerdoterik arimen deboto eztenik. Baña normaiek berez ere in dezake orazio arimen fabore, baitare baru, penitenzia, obra on, limosna, ta alako, ezi beretako on dena da on aiendako ere aplikaturik: solamente bear da adbertitu in daitzen konzienzia onareki, paratus grazian konfesioareki, edo bentzait kontrizioareki, ta konfesatzeko intenzioareki, ezi orazioa delarik inzensua bekala Jangoikoaren alzineko,

eztu atxon ona bekatu mortalareki: ta ala ontaik garbitzea biz lenbiziko dilijenzia. Arima gaiei egitea limosna beñik hein da gauza sandua, agitz kuadratzen zaiona Jangoikoai, zenen hume maiteak diren: berze alde da obligazio, espezialki nork bereei; berze alde direlaik agitz pobre beartsu, iago ezpaita posible, ezpaitute zereki pagatu, baizik pena ta pena pasatus, eztaere iragazbiderik, eztare non eskatu, eztare posibilidaderik adiarazteko beren bear dutena: baliatu bearko sollik fielen fedea ta karidadeak. Munduan den pobreenak dezake adiarazi bere bearra eskatus mias; mias ezpada, negarras, nola aurrek ta heriek: azkenik, ezpada berze erremedio-rik, persona on ikusten dutenen medios. Ori guzi ori falta zaiote preso gaiei. Beira ezten ongi preziso limosna gisa gau. Da berze alde agitz balioso ta protxugarri ongiegilleen, ezi onak bekala dire txoil agradezituak, eta pagatzen dute ederki doble ta erredoble, bentzait ellegatzen direlaik ikustera Jangoikoaren aurpegia: eta Jangoikoa bera dago pagatzeko bere gaiei egina: esu Kristok estimatuko du, baitire erredimituak bere odol preziosoas: Maria Santisimak, Aingiruek, ta Sanduek inen dute in dakion leku beren konpañian glorian. amen.



## Azaroaren 11.an

### S. Martin Obispo Tursgoa

S. Martin obispo sandu famatua, Sazerdoteen perla deitzen duena elizak, jaio ze Sabarian, baita Ungrian, buratso Infileletaik, baña noble munduko, ta soldado. Amar urtetakoa zelarik, aien gogoaren bortxa elizara oanik egin ze katekumeno, au da katetximan edo doktrina kristioan zeudenetaik prebenitzen bataiatzeko: geroxago nai luke erretiratu eremuren batera, izan balu adin asko, baña beti zego emana afiziones elizako gauza onetara. Agitu ze manatzea Konstanzio enperadoreak lixtatzeko soldadoen seme ziren guziak gerrarako: nai ze.exkusatu mutil sandua, baña Aitak berak joanarazi zue Asistente bateki, zein sanduak tratatzen zue laguna bekala humil modesto, bizi zelaik bera erreljioso gisa soldadoen biziorik gabe, sufritus anitz, ta al guzia ongi egines beartsueri. Bein neguaren egun otz batean soldado laguneki guardian zegoalaik Amiens Franziaiko ziudadearen portalean, ellegatu zekiote pobre erdibiluxirik zegon bat otzak ikar ikar limosna eske. Berzeek ajolarik ez, ta sanduak partiturik ezpatas bere kapotea, eman zio erdia pobreak estali zeien. Irri abasto in zute askok ortas, baña zenbait bakotxek admiratu zute karidade gura soldado gaste batean; eta Jesu Kristok mostratu zue agitz estimatu zuela, ezi urbilen gauean agertu zekio pobre garren itxuran ta jaintsirik Kapa zati garreki ziola bere Aingeruei, Martinek, oraño eztelaik baizik katekumeno, estali nau ni bestimenta goneki. Alegratu, admiratu, ta animatu ze sandua fabore goneki: nai luke erretiratu bizimodu perfektora, baña ezin oraño: Konstanzioren lengusu Julianoren tropan zego zerbitzatzen: sartu zire Franzian Alemanak: Martinek eskatu zue lizenzia erretiratzeko: Arrek tratatu zue kobardetako: Sanduak dio, eskatzen dutena da Jangoikoai sollik zerbitzatu naiez, ta ez kobardias, ezi ni armarik gabe nago prest guruzearen señaleareki sollik pasatzera etsaien exerzitoan barna. Enperadoreak manatu zue para zezatela biramonean armarik gabe etsaien aurkasean. Guziak zeudelaik suspenso zertan baratuko zen, agitu ze biramonean Alemanek eskatzea bakea: eta juiziosko personek fortuna gau pensatu zute zela sanduaren orazios.

Libraturik soldadeskatik tratatu zue sandu egiteas: ortako eman ze Diszipulo S. Hilariori Putiersgo obispo zenari. Oneki ikasi zue santidadearen badea, ta egin ze sanduareki sandu: Baña zerutik errebelazio izanik bear izan zue bere sortuerrira buratsoengana, zein oraño baizire

Infiel. Bidean pasatzerakoan Alpe deitzen diren oianak, arrapatu zute ladronek, ta batek goratu zuelaik arma ia iltzeko an, detenitu zue berze lagun batek Jangoikoaren probidenzias: solamente lotu ta errobatu zute. Galdeginik nor zen, ta ia bazuen beldurrik, errespondatu zue Kristioa zela, ta beldur etzela, baizekie Jangoikoa zegoa presente faboratzeko, edo egiteko artas nai zuena. Konstanzia goneki, ta erran zituen itz sandueki admiratu zire guziak, eta konbertitu ze bat, ta egin ze erreljioso, baize kontatu zuena gero agitua S. Martineki. Agertu zekio Demonioa ere Gizon-iduri, ta galdegin zio nora zoeien. Errespondatu zio, ezi nora zerman Jangoiko Jaunak. Orduan arrek, nora nai goaien, ire kontrario izanen nauk ni. Sanduak erran zue Dabiden itza, Jauna da nere lagunzale: ez tute beldurrik zer in dezadaken niork ere. Orreki desagertu ze gaixtofikatua. Ellegaturik sortuetxera ezin logratu zue kristiatzea Aita niolater; Ama bai, ta berze anitz angoak. Orgatik, ta egietafedea errateagatik pasatu zue anitz trabaju hereje Arrianoen eskus, persegitu baizute, preso egin, azotatu, ta milla maneras maltratatu. Itzultzen ze bere S. Hilarioengana; baña aiturik au ere desterratu zutela herejeek, baratu ze Milanen, non baize obispo Auxen zio herejea, zein etze baratu botatu arteo andik sandua: eta sandua sazerdote bateki altxatu ze itsasoko urarte Galinaria deituan, non egon zen sustentatu belarres gorputza, ta orazios arima. Xakinik itzuli zela desterrutik bere S. Hilario Franzia, joan zekio billa, ta izan ze errezibitua gozo ta gusto andiareki. An Jangoikoareki naies, egin zue kanpoan konbentu txipi bat, non zenbait laguneki bizi zen orazioan eta penitenzian. Bere amore ta afizione guzia ze Jangoikoa sollik: baita Jangoikoak ere amatzen zue, ta asi ze honratzen sandua milagros ere. Bein konbentutik kanpoan zegon bitartean, il ze konbentuan katekumeno zen bat, bataiatzeko ia, baña bataiatu baño len. Itzulirik sandua, ta guziak aurkiturik triste agitua, ta ila ia ia ortzitzeko, urbidurik paratu zeki berra, ta Jangoikoaren inspirazios atrazazirik guziak andik, gelditu ze bera bakarrik ilareki, ta edatu ze arren gañean eskatus Jangoikoak ansioso, nai bazio itzuli gorputzera arima. Jangoikoak egin zio nai zuena; ta guziek arriturik ikusi zute ila bizi ta bizkor asko urtes gero bizitu zena, kontatus nola izan zen kondenatua ilunbera, ta nola Jangoiko onak S. Martinen amores in zion grazia. Berze bat urkatu zena bere eskus, jendearen otoi ta negarren kasos inik orazio S. Martinek biztu zue. Irur tio biztuak gloriosoki Brebiarioan.

Iltze denbora gartan Tursgo obispoa: Guziek nai zute aren lekuan S. Martin, baña bazekite nai etzuela berak: baña Jangoikoak nai ta engañatu zute aisa gizon bekala. Jaun batek joanik ta erranik heri zeukala andrea, eskatu zio zetorkiola bisitatzera, ta bere bedeizioa ematera; eta nola baize



biotz-bera urrikariosoa, ala atrazaririk konbentutik, arrapatu zute bidean preso bekala jendeek esperan zeudenek altxaturik, ta eramanzu zara, obispo egiteko, geienen kontentu ta alegranziareki, naiz etziren falta zenbait txar inbidioso nai etzutenak, ziotela, tela persona prezentsia gutitakoa, gaizki jaintsia, ta ez dignoa obisopotako. Baña nola Jangoikoak nai baizue, azkeneko egin zute obispo, naiz berak eznaiz, ta negarres zegon otoi otoi utzi zezatela bere zokoan. Konsagraturik obispo, zenbat egin zuen salbatzeko bera, ta bere ardisaldua, nork explika? Errelijiosoen amante beti juntatzen zitue batean errelijiosoen ta eliza-gizonen ofizioak. Lekoa-erdi bat ziudadetik egin zue konbentu bat, non egoten zen erretiraturik al zuen guzian bere monjeeki, baizire komunki laurogei bizimodu penitente admiragarrian, guzian zerbitzari bekala S. Martin humilena, egunas lanean, gauas orazioan, lo guti, jana arin, edatekoa ura, zilizioa kontino, txur eskas beretako, ta pobreendako liberal ezin iagos. Dirudi miserikordia jaio zela berareki. Meza erratera joatean bein neguan aurkitu zue pobre bat erdi ilik otzak, Manatu zio Kapellanai besti zezala: ta segituz bere bideas, orazio in ondoan sartu ze sakristian errebestitzeko. An paratu zekio alzinean pobre gura, etzekiola eman tresena manatua. Sanduak kendurik ornamentak, atrarik bere barneko tunika eman zio pobreari, ta berriro errebestiturik ornamentas atra ze meza erratera: eta Jangoikoak karidadea estimatu ziolako señaletan, ikusi ze aldarean sandua in guraturik argi-errañues, eta buru-gañean ala nola sugar bat, ikusi zutena zenbait tek. Bere Jesus onareki sakramentuan zuela bere gozo, gusto, ta gloria da klaro, ezi goratzerakoan hostia ta kaliza, ikusi zire bere eskuak argi eder adornatuak perla preziosos, ta Aingeruak uruan. Tenploan egoten ze beti be lauriko, o txutirik, eta kolore-gaizturik beldurrak bekala: eta galdeginik zergatik ala? zio, dagolarik emen presente Jaun andia, nola eztut beldurtu bear? Ala komunikazio kontinoareki ze S. Martin Jesu Kristoren imajina bizi bat, errebestitua bekala Jangoikoaren Majestadeas, humil agitz ta manso sufrutua berez, ta Jangoikoaren ordos errespetatzen zutela Demonioek ere, ta elementuek, enperadore, ta Jaun mundukoek.

Bisitatzekoan bere obispadoa, gelditurik bein lagunak atzeratago, aurkitu zute soldado batzuek eldu zirenek kotxe batean, eta nola baizebilla sandua astoko batean pobre gisa, lotsaturik aien zaldiak nastekatu zire, ta aiek kotxetik atrarik eta juiziotik kolerain utses eman zute sanduaren kontra ezaundu gabe, ta moldegaizki golpaturik utzi zute ta odolestaturik. Ala aurkiturik lagunak erdi ilik lurrean paratu zute bere astokoan ain sereno zegola itzik atra gabe. Baña Jangoikoa atra ze fabore, zeren gelditu zire soldadoen zaldiak arriak bekala ezin mogi; ta ezaundurik Jangoikoaren

kastigoa zela, galdegin zute nor zen gizon gura, ta aditurik zela S. Martin, itzuli zire, ta belauriko eskatu ziot barkazio; sanduak amoroso artu zitue, ta barkaturik logratu zue Jangoikoaganik mogi zeizen zaldiak joateko beren bideas. Iago notagarri da mansotasun ta pazienza izan zuena bere elizagizon bateki. Au len errelijioso izanik lazatu ze sobra, ta sanduak amoltsu itz on beratxeiki nai zue emendatu. Ura emendatu bearrean itzuli ze sanduaren kontra erranes milla gaixtakeria jende askoren alzinean. Sanduak onegiaren utses ez solamente barkatu jeneroso, baitare erran zio amoroso, zaude zaude, Brizio, ala zue izena; barkatzen dizut gogotik ere, ta logratu dut Jangoikoaganik barka dezazun, ta izan zaiten obispo ene lekuan, il ondoan ni: trabajuak izaintuzu, baña Janpiko onak faboratuko zaitu. Brizio konfunditu ze pazienza alakoareki, baitare emendatu, baña ez orgatik sinetsi erran ziona obispo izateas: baña ikus daien zein Jangoikoaren biotzeko sandua zen S. Martin, ta nola nai zuen guzia iten zion Jangoikoak, Brizio egin ze gero obispo, ta sandu zelebratzen duena elizak, baña erruki persegitu zutena gaixtoek, akusatu arteo Eeraganik zela aur bat jaio berria; baña aurrak berak mintzatus milagrosoki deklaratu zue testimonio falsua zela. Adiziano Kondea gizon fiero kruela sartu ze Tursgo ziadadean egin naies asko ta sobra justizia ta injustizia; ortako bete zitue karzelak presoos, ta il nai zituenaren bezperan gauas Joan ze S. Martin arren etzeko atarira, lo zeudelaik guziak: an jarri ze orazioan. Bitarteo Kondeak loan aditu zue boza bat erraten ziola, Jangoikoaren sierboa dago zure atarietan lurrean: eta zu zaude lo? Idatzarririk oi in ziot mutilei, zoazte ezi S. Martin dago atarian: beira zaze. Aiek bide erditik itzuli ta erran ziot etzela ageri alako gizonik: amets in bide zuela. Orreki lokartu ze berriz; baña berriz aditu zue erruago boza: ta lotsarritu ta jaiki, ta berak idikirik ataria ikusi zue sandua nola zegon. Bereala bota zekio oñetara ziola, eztu atra bearrik itzik ere, ezi nie inen dut orrek nai duena. Eskatzen diotena da doaien emendik len baño len, ezatorren Jangoikoaren ira ene gain. Joan ze sandua bere etxera, ta Kondea atrazaririk preso guziak libre, atra ze bera ziudadetik biramonean, gelditurik guziak alegre libratuas otso garren ortzetaik beren Artzai onaren medios: Zer milagro, due-laik fabore Jangoikoa?

Bear izan zue joan S. Martinek Balentiniano enperadoreagana, baize berez sebero, ta baizue Andrea herejea inzititzen zuena katolikoan kontra. Orgatik zeuzkie manaturik, ez usteko sartzera. Joan ze S. Martin bi, irur, ta laur aldiz: beñere ez utzi nai barna. Etze orgatik inkietatu, ta desanimatu, bai armatu orazios, barus, penitenzias, baizire sanduaren armak. Zazpigarren egunean bere Aingirua erran zio joateko palaziora, etzuela





estorburi izanen. Joan ze, sartu ze estorburi gabe, ta igan ze enperadorearen ganbararaño. Au suturik asi ze Ministroen kontra, nola utzi zuten: ta etzio sanduari kortesiarik egiten, ez errespondatzen ere: baña bat batean sugar batek inguratu zio katedra, non zegoen jarririk, ta ia ia ukitzen gorputza: Jaiki ze bere bearres, ta ezaundurik Jangoikoa zegola sanduareki, bereala agindu zio eskatzen zuen guzia, tratatu zue honratuki, ta konbidatu bere maiera; baña etzuelaik nai alako honra ta erregalorik itzuli ze bere elizara. Gero bear izan zue joan berriz berze enperadore Maximogana: onek tratatu zue berze munduko gizon bat bekala, jarrarazis bere maian bere aldean. Eta enperatrizak aditus maiz sanduaren itzak, iduri zekio aditzen zuela Kristo bera; ta enpeñatu ze artu bear zuela beraren eskutik otronze arin bat. Etzego artako sandua: baña enperadorea bera enpeñatzeareki, ta bien debozioa ikusteareki, ta elizaren onetan zela, noiz-bait errenditu ze, ta egun batez maia paraturik enperatrizak berak, ta katedra, jarrarazi zue artan: berak gisaturik jatekoa, berak ekartzen zio, berak edatera ematen; eta bitartean zego txutirik zerbitzari bekala, begiak apal, gozoso biotza, zerbitzatzeas alako sanduari. Gero berak goratu maia, ta bildu apur guziak, ola errelikiak. Exenplu ona, nola Jaunak aldartez honraraztentuen bereak, ta aldartez trabajarazten! Berze exenplu on bat da in zuena sandu goneki donzella batek. Bizi ze au bere etxe kanpoko batean agitz erretiratua bere Jangoikoareki sollik. Etze agertzen, ezta nai ere: baña sandaren fama barratu ze nai etzuelaik ere. Onen kasos, an urbil pasatzean elizen bisitan, etorri zekio S. Martini debozio, bisitatzeko sanda gura. Eman ziote abisu nola eldu zekion: ta uste zutelai kontentus bete-ko zela, ikusteas bere etxean alako gizona, kontra izan ze: bialio erratera: nai bazio in mertxede ez etortzeas, ala iago estimatuko zuela. Kuadratu zekio sanduari, ta laudatu zue nola ongi egina: ta gero bialirik donzella sandak errefresko iduri bat, naiz etzuen alakorik admititzen sanduak, orduan admititu zue karidade ones zena.

Baña nork erran orai sandu gonek zuen zela, edatzeko Kristoren erreinua, ta zenbat alzinatu zuen kristiotasuna? Pasatu bear zue bein erri batetik, non guziak ziren infielak, zein fama zuen andiagatik, atra zire guziak ikustera; kanpoak zeude beterik jendes, ikusi naies alako gizona: ta bera zego lastimaturik ikusteas pobre gaiek erreoren ilunbean: errestiturik Jangoikoaren espirituas asi ze predikatzen egietafedea alako itz, alako boza, ta alako graziareki, ageri baize Jangoikoa mintzo zela onen agos; eta indar iago emateko itzari, disponitu zue ordu berean ekar zezon ama batek besotan aur bat il zekiona lentsago; arren negarrak, ta arren otoiak, biztu zezon il gura; bazukela, zelarik Jangoikoaren adiskide. Jende

guziak ere eskatzen dio on beroi. Sanduak ikusirik milagro gura izanen zela, konbertitzeko fede kristiora, egin zue orazio ta biztu zue, ta itzuli zio bizirik Amari, ezpaizekie non zegoen kontentus; ta guziak goratus bozak zerura joan zekizkio oñetara eskatus kristia zezkiela; ta sandua gelditu ze kontentago irabazias arima gaiek, ezi erreinuren baten korona. Ala urratu ta desegin zue anitz tenplo ta memoria Jangoiko falsuen anitz lekutan, batzutan eskus, geienetan orazio Jangoikoaren milagros. Bein nai zue botatu pino aundi bat zeukatena konsagratua Demonioari. Erresistitzen ziote; ta batek ausartago zenak erran zio, barin badu orrek ainberze konfianza bere Jangoikoan, geurek ebakiko dugu pino gau, non ta orrek ar dezan soñean erortzerakoan. Admititu zue kondizioa: lotu zute oñetaik sandua etzeien mogi, ta bera egon ze geldi, auxten zuten bitarte; noiz ta autxirik ia erortzera zoen gañean, goratu zue besoa, formatu zue guruzearen señaleara, ta istantean arbola itzuli ze kontrako aldera, kasi il baizitue an zeudenak. Milagro goneki kristiatu zire. Baña non da denborarik edo numerorik, kontatzeko guziak? S. Sebero Sulpiziok eskribitu zitue anitz, alaere dio direla guti, uztentuenen aldean. S. Gregorio Turonensek laur libru beteak solamente milagroen. Ain milagroskoa izan ze, ezi baiturudi, eman ziola Jangoikoak esku Demonioen, gizonen, zeruen, elementuen, heritasun ta eriotzeen, egaste, arrai, animale, ta gauza guzien gain. Guziak famatua izan ze bere denboran, ta oraño ere da mundu guzian.

Edatu zio Jangoikoak bizia 86 urtetaraño: beti trabajaten beraren gloriatan. Azkenik bukatzeko bere ofizioan, aiturik eliza batekoak zeudela diskordian, joan ze arat nolapait, ta konpondurik guzia nola bear zen, itzultzerakoan sentitu ze indargabeturik, ta erran ziote bere Diszipuloei, ia bere etxe luresko gura zegola erortzera, ta uste zuela sarri utzi bearko zituela. Asi zire aiek lamantatzen negarti erraten ziotela, o Aita, zergatik desanparatzen gaitu? Edo nori uzten gaitu gu deskonsolaturik? Ori faltatuas geros, sartuko dire bere saldo gontan otsoak. Badakigu dagola berori ikusi naiez bere Jesu Kristo: baña seguro dauka beti premia; gutas urrikari bedi gal ez gaitzen. Nola baize ain biotz-bera, beraxtu ze lastima gaieki: eta goratus begiak zerurat erran zue, Jauna, bear banau ni oraño berorren jendeak, eztu errehusatzen trabajua: kunpli bedi orren borondatea. Emen admiratus dio elizak, *O gizon sandua, lauda eztaikena bear dendiña, eztuena garaitu trabajuak, ezta garaituko eriotzeak! Etzena beldur iltzeas, ezta ere bizitzeas. Naiz erretzen zegoen sukar andiareki, zego beti zerura beira bere orazioan atertu gabe. Ta erraten ziotelaik alda zeila saiets batera, alibiatzeko zerbaitto: errespondatu zue, uz nazaze beira dezaten zerura obeki ezi lurrera, doaien nere espiritua bere bideas Jaunagana. Ia erioa*



urbildus, ikusi zue an infernuko etsaia, zeñi erran zio, zertan ago emen gaixtofikatua? Eztuk aurkituko enebaitan ire denik. Au erran ta despeitu zue arima errezipitu zutena zeruko Aingiruek, ta eraman akonpañiatu zeruko musika suabe, aitu zutzeneki an ta urrun ere, espezialki S. Seberino Koloniako obispoak. Gorputza gelditu ze glorioso eder admiragarri istargitzen zuela, ta mostratzen arimaren gloria: eta au zeruan errezipiturik alegre, ura lurrean honratu zute festa andiareki. *Martin*, dio elizak, *da errezipitua alegre Abrahamen senoa: Martin enen izana pobre ta humil, zeruan sartzen da aberats, ta zeruko kantaeki honratzen da. O Pontifize sandua; entraña guziarki maitatzen zuena Kristo erregea: o arima santisima, zein ezpazue ere atrarazi persegezalearen ezpatak, etzue orgatik galdu martirioaren palma*, dio elizak: eta berriz, *o zori oneko gizona, zeñen arimak artu duen posesio paraisoas, nondik Aingeruak festejatzen, ta Prinzipeak diren alegratzen, Sanduen koroak proklamatzten, Birjinen kuadrillak konbidatzen, zaude gureki betikos. O Jangoikoaren sazerdotea Martin, idikirik zuretako daude zeruak, ta Jangoikoaren erreinua. Mundutik joan da Martin obispoa, bizi da Kristoreki sazerdoteen perla.* Guziau dio elizak. in offic.

## Azaroaren 22.an S. Zezilia Birjin ta Martir

S. Zezilia gloriosa jaio ze Roman buratso agitz nobleetaik, eta txipititutik entendamentu ta inklinazio onareki despreziatus munduko banidadeak eman ze guzis Jangoikoai,, leitus kontino ebanjelioa, ta enpleatus orazioan, ta ala itxekis Jaunaren amoresko sua iago ta iago biotzean. Bura-tsoek beraren borondatearen kontra desposatu zute kaballero bateki, deitzen baize Baleriano. Ellegaturik boda-eguna, guziak alegre festas; sollik Zezilia triste zego, ta nigarti; eta leneko irur egunak pasatu zitue baru penitentzian, eskatus otoi otoi Jangoikoai guarda zezan birjin gorputz ta ariman ilartaño; enpeñatus ere deboziosko sanduak, ta Aingeruak, eta guzien gañetik birjinen birjina Maria Santisima. Ala prestaturik, ia garaia etorri ta aurkitu zelaik aposentuan bakarrik bere esposoareki, Jangoikoaren espirituas errebestiturik mintzatu zio sendoki gisaontan, *Baleriano*, gauza sekreto bat erran nai dizut; artu bear duzu ontzat. Jakin beauzu dutela nik ene konpañian Jangoikoaren Aingeru bat guardatzen nauena zelo andiareki. Orgatik beira zuk ez dezazun egin eneki deus ere nai eztuenik, etzai zan il: baña amatzen bagara kasto garbiro, amatuko zaitu zu ere, nola ni, ta inentizu faboreak niri *bekala*. Turditu ze guti bat itz ebeki Baleriano, ta erres pondatu zio, *Nola da ori?* edo zer Aingiru da diozuna? nai nuke nik ikusi. Sandak orduan erraten dio, ikustekos, da prezioso in zaiten kristio, ta bataiatu. Baleriano ikusi naiez joan ze S. Urbano Aita sanduaren billa, sandak eman zion señalet, ta mezuareki. Aurkiturik kontatu zio agitua Zeziliareki; eta admiraturik goratus eskuak eta begiak zerura dio Aita sanduak, o Jesu Kristo kastidatearen emanzalea, errezipi bezki Zezilian eraikituen azi onen fruituak: ezi ona Baleriano, leon bat bekala artu zuena, bialtzen dio orai nola axuri mansoa. Argibezo biotza, ezaun dezan berorren Majestadea. Bereala agertu ze an zar-iduri benereble bat, zekarrana eskuan libru bat urresko letraeki eskribiturik. Erori ze lurrean Baleriano lotsarriturik. Goratu zue S. Urbanok, animatu, ta leiarazi zio eskribiturik zegona, baize au: *Jangoiko bat; fede bat: bataio bat*. Erranik Balerianok sinesten zuela, desaparezitu ze Aingerua; ta doktrina kristioan erakutsirik, ta bataiaturik itzuli ze kontent alegre Zeziliagana, zeñen aldakan ikusi zue Aingeru eder gloriosoa argis inguraturik, zeuzkiena eskuan bi girnaldak zeruko azuzenas, ta arrosas formatuak: Biei eman ziotte bana ziola, *ebek bialtzentizie Jesu Kristok*, bizi zaizten ia emendik alzina anai arre-



ba bekala, onetsis amore kastoareki. Eztire zarbailduko lore gebek, ezta-re galduko sekulan duten atxon ona: baña eztuzte sentituko, baizik amaten dutenek kastidadea zuek bekala: Eta zeren zuk, Baleriano, sinetsi duzun zeure esposak errana, Jangoiko Jaunak biali nau seguratzera, amaten zaituela bere Majestadeak zu ere, ta nai dizula eman edozein *gauza eska dezozun*. Esker milla emanek kurtu ze Baleriano lurreraño, ta gero dio, *Jauna, nik ez nuke* berzerik nai mundu ontan iago, ezi ene anaia Tiburzio deitua ikustea kristiaturik, ezi neure bizia bezain maite dut, ta nai nuke partizipa lezaken nik logratu duten grazia. Aingeruak seguratu zio on ere, ta biak izanen zirela koronatuak martirioas. Despeiturik Aingerua, ellegatu ze an Tiburzio anaia, ta sentiturik loreen fraganzia miragarria, zer da au, dio, denbora gontan? Okasio goneki explikatu ziote fabore izana, fede kristioaren egia, Jentilen utsa ta perdizioa. Konbenziturik nai izan zue ark ere bataiatu, ta joanik bere anaiareki bataiatu zue S. Urbanok: eta andik denbora labur izan zire biak Jesu Kristoren Martir gloriosoak.

Almakio Prefektoak aien ondasunen kodizias, presa inarazirik S. Zezilia, galdetu zio, non zeuden. Sandak errespondatu zio zeudela leku seguroan bialirik zerura pobreen eskus. Asarraturik mendekatu naies erran zio Prefektoak, Zezilia, ezpauzu nai bizia ken dezazuten, sakrifika gure Jangoikoei. Sandak serena dio, eztirela Jangoiko, baizik Demonio: bat sollik dela Jangoikoa, zeñi sakrifikatzen dion. Zenbait erreplika ondolan ermanarazi zue tenplo batera, sakrifika zezan, edo iltzezaten. Eraman zutenek beiratus ain noblea, ain abrats, honesta, ederra, ta adinaren lorean, lastimas erraten ziote etzeiela utzi galtzera errelijionearen atxekias ta temas, baizik obeditu ta logratu bere estadoak ta ondasunak. Baña sandak baizeuka biotza paraturik zeruan, ta arimaren begiak argi, ezauntzeko ango ta emengo gauzak diren bekala, erran ziote, *Jaunak, eztakioketela iduri, Jesu Kristogatik iltzea dela galtzea, baizik gananzia, ezi orreki seguratzan da bizitza eternoa glorian. Ezta arrazio, uztea deus guti balio duena, logratzeagatik infinito balio duena? Uztea loa irreegatik? emengo miseria felizidade eternoagatik? Zerregatik eztute nai sufri dezaten nik pena ta eriotzea pasatzen direnak brebekiro, sarreagatik ene Jaun ta esposo Jesu Kristoren para zsoan ta palazioan, gozatzeko gloriosa eternidade guzian?* Ainberze mogitu zire alako itz eta moduareki guziak, ezi bereala asi zire erraten, sinesten zutela aiek ere Jesu Kristoren fedean; ta joan zire sandareki beronen etxera, nora deiturik S. Urbanok instruitu ta bataiatu zitue guziak, baizire laur eun persona, ta bat agitz prinzipala Gordiano deitzen zena. Jakin zuelaik Prefektoak agitua, sutu ze anitz, eta ezin garaitu zukelaik sanda sarrarazi zue bañu idor batean, eta su emanik alde guzietatik, idukiarazi zue an ertxirik, ito zeien sofokaturik.

Baña guardatu zue Jangoikoak aisa dañurik gabe. Gero manatu zue Prefektoak, ebakitzeko burua. Irur aldiz eman zio ezpataz berdugoak, ta ezin ebakis utzi zue; ta kristioek bildu zute zerion odola errelikiatako: Irur egunes iraundu zue ala heriturik; ala bisitatzen zute kristioek; ta sandak konsolatzen ta animatzen zitue ederki. Etorri zekio S. Urbano Aita sandua ere, zeñi sandak erran zio, erdetxi zuela irur egunen epea, enkargatzeko berari, erreparti zezkien aren ondasunak pobreetan, ta konsagra zezan aren etxea elizatako. Ondorean paraturik orazioan entragatu zue gozosa bere espiritua Jaunaren eskuetan 232 urtean, zelarik Alexandro Sebero enperadore. Depositatu zue gorputz sandua S. Urbanok Kalixtoren zemeterioan; gero Paskual Aita sanduak aurkiturik gorputz gura urresko telaetan bañaturik odoles aldatu zue sandaren etxe eliza in zenera, Baleriano, Tiburzio, ta Urbanoren gorputzeki, 821 urtean. Gero 1599 aldare Nausiaren pean aurkitu zire gorputz sanduak ta tela odolestatuak, ta zelebratu zue meza Pontifikale Klemente VIII.ak ta berriro depositatu zitue eliza berean &.



## Azaroaren 25.an

### S. Katalina Birjin ta Martir

S. Katalina Birjin ta Martir gloriosisima jaio ze Ejiptoko Alexandrian jendaki noble errealetik, ta izan ze adornatua emastekian izan daizken dote, grazia, ta prenda guzies; ederra ezin iagos gorputz ta ariman; modesta garbi ta birtuosa; entendamentu anditakoa, juizios betea, ta txipizututik ikasi zituena ederki gramatika, retorika, filosofia, ta letra onak maneraz, ezi emezorzi urtetakoa zelarik, jakintsu andienei zerama abantalla. Orgatik ere mugonez asi ze ezauntzen errelijione kristioa dela bakar egiaskoa. Obispo Ekilnok dio, ezi txipittoa zelarik, bataiatu baño len, izan zuela bisione-iduri bat, agertu zekiola Ama Birjina bere aur dibinoareki besotan: Amak ofratzen ziola semeari donzellatto gura; Semeak desetxatzen bekala zuela, apartatus aurpegia, ziola, donzella goi ezta ederra ene begietan, ezpaitago bataiatuturik. Goarturik Katalina, ta ezaundurik zer falta zekion, bataiatu ze, ta egin ze kristio. Agertu zekio berriro nola len, eta Jesus dibinoak amoroso beiratzen ziola, artu zue bere esposatako, ta eman zio erastuna seña. Bere baitan itzulirik sanda, ta aurkiturik erian erastuna, nork daki nola gelditu zen amorosturik Jesus onas, bere esposo dibinoas! beingoas betikos!

Agitu ze denbora gartan, Iruzkiaeren sortaldeko enperadore zenak Maximinok publikaraztea manamendu bat, zetozila guzi guziak beraren prezian ofratzera sakrifizio aren Jangoikoei biziaren penan. Orren kasos bete ze jendes Alexandria, eta tenploak aragis eta odoles, sakrifikatut erres, idi, ta animale abasto Jangoiko deitu gaiei: ta enperadorea zego beira gozoro. Lastimaturik biotza zego sanda gloriosa ikustetas alako itsutasuna: Determinatu zue joatea bera personan, ta mintzatzea guzien alzinean, desengañatu naies enperadorea ta gañarakoak. Presentatu ze animosa tenploan, ta paraturik enperadorearen alzinean koraje andiareki boza goratus, erran zio, nola *uts andia iten zuen* adoratzean Jangoikotako zirenak Demonio, ta gizon ta emasteki gaixto izanak: Inporta zekiona zela ezauntzea ta estimatzea Jangoiko bakar egiaskoa, infinitoki ona, poderoso, sabioa, justoa, prinzipio ta fin gauza guziena, guzien Jaun ta Jabe dena, ta zeruan, lurrean, infernuetan manatzen duena: zeñek gizonen amores bialirik bere seme Jaun Jesu Kristo Jangoiko ta gizon egiaskoa bizitu ta iltzen, *salbatzeagatik gu*. Zeude guziak admiraturik beira alako edertasuna, alako arimo, ta mintzaera: enperadoreak etzekiela zer erran,

noizbait erran zio, utzezala bukatzera sakrifizioa, gero errespondatuko ziola. Bukatu ondoan itzulirik bere palaziora, presentarazi zue an; mintzatu zekio, erran zadazu orai nor zaren zu, ta zer itz diren errantuzunak egun. Errespondatu zio sandak, ongi ezauna da nere jendakia Alexandrian: ene izena da Katalina: ene denbora enpleatu dut estudiatzen; baño zertas duten sendagalla da ikasias eta ezaunduas errelijione kristioa dela bakar egiaskoa, ta zerurako zuzen-bidea; izateas kristio, ta Jesu Kristo nere esposo. Emendik asi ze ematen arrazioak ta proguak, nola den fede gau; nola Jesu Kristo; nola Jangoikoa; nola errelijione gontan guzia den ona, fedea, legea, ebanjelioak, sakramentuak, orazio ta gañarakoak, alako mintzaera, alako indar, alako modu ta graziareki, ezi enperadorea zegokio beira xoraturik itzik atra gabe. Ta ezaundurik bere jakintasuna etzela aski, garaitzeko donzella gura, pensatu zue deitzea ta biltzea bere Inperioko jakintsu andi guziak ortako; eta bitarteo guardatu sanda bere palazioan.

Bildu zire berrogei ta amar jakintsuenak: Aditurik zertara ziren deituak, naiz ofreziturik asko premio, garaitzen bazute argumentus Katalina, agrabio ta alkaizun bekala kontatzen zute ala ekarriarazia emasteki baten-gatik; baño gero gelditu zirelaik garaiturik ezin erresponda, ezaundu zute lurreko xakintasuna etzela deus zerukoaren aldean; eta Jangoikoaren espiritua mintzatzen delaik edozeñen agos, ez dezokela erresisti gizonaren entendamentuak. Señalaturik eguna disputatzeko, famaturik berri gura, bildu ze infinizio bat jende ikustera: eta errealki ikustekoa ze, alde batetik berrogeitamar Filosofo famatuak, berze aldetik donzella bat emezorzi urtetakoa, pelean bekala disputatzera doazila errelijionearen gain. Egia da, bezperan Jangoikoaren Aingiruak agerturik erran ziola, ez lotsa, ta etzazula beldurrik, Katalina, ezi dakizunas landara zeure estudios, zerutik emanen zaizu argi, konbenzitzeko guziak, ta erdetxiko duzu biktoria; ta aiek ta berze anitz konbertituko dire. Ala animaturik sartu ze salan edo lekuan, non zeuden kontrarioak: Prinzipalenak, guzien Maestru bekala zeukatenak, beiratus trabeska suber meziprez-iduri, erraten dio, *Zara zu agrabiatzentuzuna gure Jangoiko andiak itz atrebitueki? Ni naiz*, dio sandak, *baña ez itz atrebitueki, baizik arrazio ta egia klaroeki*. Asi ze Filosofo gura defendatzen argumentu banoeki, Poeta banoek emanikako laudarioeki. Sandak aditu ondoan errespondatu zue, nola Poeta gaiek berek kontatzen beren Jangoiko gaien milla gaixtakeria in zuztenak, txarkeria, ta zikinkeria eztagozkionak ongi, ez solamente Jangoikoai, ezeta ere persona prestu ongi azi bati. Gero nola aien Sibila famatuek berek eskribitu zuten asko gauza on gure Jangoikoas, eta Jesu Kristos. Gero probatu zue anitz arrazio klaroeki, nola eztaiken izan, baizik Jangoiko bat, eta au guziz



ona, sandua, ta justoa, ta gañarako egia fedeskoak, ain klaro, ain grazia onareki, mintzatzen zela humil modesta, baña grabe animosa, serafin bat iduri zuela, maneraz, ezi Filosofo gura gelditu ze konbenziturik etzuela zer erran. Enperadoreak ikusirik ori, ta turditurik manatzen ziote berze lagunei, lagun zezotela, ta errespondatu aren partez. Baña aiek guziek itz batean ziote, arrazio zeukala donzella garrek, ta etzekiokela kontrarrestatu, egia salbo. Aiek orduraño egon zirela itsuturik errean, adoratus etzirenak Jangoiko, eztare gizon prestu: baña orai ia argiturik ezauntzen zutela, konfesatzen, ta adoratzan Jesu Kristo Jangoiko ta gizon egiaskoa: ta etzuketela ukatu.

Ezta erraz erratea, nola sutu zen enperadorea iras! nola itsuturik bereala manatu zuen itxekitzeko hogera andi bat, ta bereala artan botatzeko guziak. Itxeki ze; ta filosofo gaiek ikusirik bota zekizkio sandari oñetara, eskatus logra zezotela Jangoikoaganik barkamendu uts egines orduraño; zeudela prest errezituzera bataioa, nola iltzera Jesu Kristoren fede ta amoreagatik. Sandak gozosa ikusteas ala triumfatzen fede kristioa jakintsu gaietan, beiratus amorosoki, erran ziote zeudela seguro barkatuak zirela, ta sua izanen zela bataio gisa, garbitzeko arimak, ta igateko zuzenean zerura. Oneki animaturik, zeñatus anitz aldiz, ta inbokatus Jesu Kristo, paratu zuzte suan, non denbora labur despeitu zuzten arimak. Gero joan zire kristioak biltzera aien errelikiak, ta aurkitu zuzte gorputzak oso, bilorik etzekiotela falta. Milagro goneki adiarazi zue Jangoikoak, zenbat kuadratu zekion aien sakrifizio gura; eta anitz Infiel konbertitu zire fede kristiora. Gelditu ze Maximino furoso, ta oraño deseoreki, ta esperanza banoareki, errendiarazteko Katalina: lenik progatu zue modu ones, ofrezitus milla gauza: gero guzia banoan zela ikusirik, asi ze meatxus ta erronkas, penaraziko zuela tormentu krueleki. Sandak erran zio, egin dezake nai duena, ezi orren tormentu tionak bukatuko dire; ta premio emanen didana ene Jangoikoak ezta bukatuko: eta uste dut, berorren etxeko jendetik ere asko salbatuko direla, ni nai zela medio. Sandak erran, ta Jangoikoak kumplitu zue. Baña rabioso enperadoreak ezin logratzeas nai zuena, azotarazi zue oñetaik bururaño bi ordus ososoa; zatikatus gorputz birjinala gura, ta atrarazis odol generoso gura, lurrean erre balsatus; ta beira zeudenek ezin beiratus lastimas negarres; ta enperadorea koleras, armaturik begiak, ta agotik abuña zeriola. Gero joanik bera bere palazio-ra, manatu zue sartzeko sanda karzelean, ta ez emateko jatera amenik ere. Amabi egunes iduki zute ala an: baña bisitatzen zute zeruko Aingiruek Jangoikoaren manamendus, ta sustentatu milagros. An karzelean bisitazera etorri zekio enperadorearen Andrea admiraturik kontatu ziotenas

sandas: gauas joanik ixilkias bere ministro ta soldado fiel batzueki, aditurik sanda explikatzen egietafedea, konbertitu zire bera ta bere gaiek berreuntaraño, maneraz, ezi ofrezitzen zire ematera biziak fedeagatik: eta Enperatriza tormentuen beldur zegolarik, animatu zue sandak guapoki, zegokela beldurrik gabe, Kristok biotzean indar ta koraje emanen ziola bear orduan, ta gero korona glorian. Ala animaturik despeitu zire, ta admiraturik sandas: zeñi agertu zekio an bere esposo dibinoa Jesus amoroso, erraten ziola, *ea, ez lotsa, ni egonen naiz zureki; eztizu gaizkirik eginen tormentuak, eta zure medios anitz enegana konbertitu ondoan, zuri emanen dizut premio eternoa, an goiti nere paraisoan.*

Amabi egun pasaturik ala, eman gabe amenik, alaere bizi zela, jakinik enperadoreak ekarrarazi zue beregana; ta ikusi zuelarik, ez bizi solamente, baitare sana eder, ta ain luzitu agraziatu admiragarri, gelditu ze arriturik; eta mintzatus beratx amoltsu erraten zio, ezauntzen zuela, bere prendaengatik, ta grazia ta edertasun admirable garrengatik mereji zuela izatea munduaren erregina. Ezaundu zue sandak itz gaien zeboan altxatzen zen hamua; errespondatu zio, *ezta kasorik egin bear gorputzaren idurias, baizik arimaren ederras, baita balio duena, ta sanduek dutena zeruan.* Azkenik anitz platika ta itzketa pasaturik, batak porfia, berzeak porfia, etzuketelaik atra nai zuenik enperadoreak, berriro errabiaturik iras manatu zue tormenta zezatela makina laur erruedatakoan armaturik puntza tzorrotzes, trabaturik elkarreki, maneraz, ezi aietaik batean paraturik persona, mogitzeareki errueda, bear zen zatikatu lotsagarriro. Lotu zute sanda; ofrezitu ze animosa Jangoikoai, eskatus bateo beraren grazia; asi zire mogitzen erruedaen makina gura: baña etze deskuidatu Jaun dibinoa faboratzean bere sierba: Istante, bat batean bere Aingiru batek urraturik joan zire erruedak arat onat, utzirik libre sanda, ta arrapatus ta iles anitz Infiel zeudenak beira; eta libre eskapatu zirenek oiuz ziote, andia da kristioen Jangoikoa. Zer peña, zer biotz etze beraztuko milagro goneki? Zer tigre, zer baseizia etze mansatuko miragarri ebeki? Baña Maximino ze tigreak ta peñak baño gogorrago: etze mansatu: baizik pensatus, zela bere deshonre izatea garaitua donzella baten konstanziak, onen akabatzeke zego diskurritzen tormentu berriak. Ori ikusirik enperatrizak ia etzuke disimulatu biotz-barnean zeukan sua; eta joanik ausart itz grabe serioeki egin zio akar, usatzen zuen krueltasun inhumanoas Katalinaren kontra, ta berze kristioen kontra, ta arrazio guziaren kontra, baizik zergatik segitzen duten zuzen-bidea: eta jakin zazu, dio, ni ere nai zela kristio, ta nagola prest iltzera Kristoren amores. Nork erran furia artu zuena berri berritan enperadorea? Bereala manatu zue kenzeko bere begien alzinetik bere andrea,





ta degollatzeko ura, ta berreun soldado gaiek. Ala kunplitu ze sandak errana, Jangoikoak aren etxeko zenbait bereganatuko zuela. Enperatriza alegre admititurik sententzia joan ze sandagana, logra zezon Jangoikoagantik grazia iltzeko ongi. Sandak erran zio, ea, arimo, ez lotsa, Jangoikoa da orreki, ta laster emanen dio Inperio bat milla aldis obeagokoa: Ta berla arteo. Oneki joan, ta in zute Martir berze gaieki bateo.

Enperadorea bere Andrearen, ta bere, etxekoen odolas odolestaturik, aserik: ta etsiturik, etzuela errendiaraziko sanda, manatu zue degolla zezatela au ere. Au alegratu ze ortas; eta ofrezitu ze Jangoikoai sakrifizio-tan. Jakin zelaik zitudadean sententzia, jende guzia eldu ze ikustera il bear zuten lekuan. Ellegaturik an sanda ikusi zutelaiak ain eder graziosa, batzuek iten zute nigar lastimas, baña bera zego alegre animosa; eta goraturik begiak zerurat, in zue orazio esker milla emanen in zition faborees, prinzipalki bukatzeas bizia beraren fedeagatik. Eskatu zio, errezihi zezala bere espiritua, ta etzezala permiti, gorputza gelditi zeien gaixto gaien eskuetan. Eskatu zio, beraren deboto guziei in zezoten fabore: ta argi zezola an zegon jende guziari. Au erran, ta ebaki zio batek burua lepotik; eta atra ze andik, ez odol, baizik esne miragarriro. Gero gorputz sandua zeruko Aingiruek eraman zute Sinai deitzen den oianera, non depositaturik darion likore prezioso bat, sendatzentuen heritasunak. Gero Justino enperadoreak egin zio tenplo eder bat an berean. Anitz maneras andia da sanda gau, ta anitz maneras distingitu, honratu, ta honrarazi du Jangoikoak munduan ere: Nork explika, nola zeruan? O S. Katalina Birjin ta Martir eder gloriosa, Jesu Kristoren esposa amantea, ta Diszipula propia, Filosofoen maestra, ta jakintsuen erakustuna, garaitutuena tormentuak, ta eriotzea! Ongi egina, jarin baize orren lepotik esne, mostrateko orren arimaren txuri eder garbia! Ongi egina, in baiziotte ilaria zeruko Aingiruek. Ia dago arima jeneroso goi gozatzen bere esposo dibinoaren besarka amoroso eternoa. Logra bez ellega gaitzen gu ere, despreziatus emengo banidadea, ikustera Jangoikoa orren konpañian &.

Azaroaren 29.an S. Saturnino Obispo ta Martir. *Moret in S. Firmin.*

## Azaroaren 30.an S. Andres Apostolua

S. Andres izan ze S. Pedroren anaia zarragokoa, lenbiziko ezaundu ta tratatu zuena Jesu Kristo, ezi zelarik S. Juan Bautistaren Diszipulo, aiturik Maestra erraten Jesu Kristos, *ona Jangoikoaren axuria*, bereala onen atzean joan ze lagun bateki; ta galdeginik non bizi zen, berareki joanik egon zire egun batez; eta ezaundu zute au zela Mesias edo Jesu Kristo Jangoiko gizona guzien erremediatako etorria. Berri on gau emanik bere anaia S. Pedrori, eraman zue Jaunagana. Jaunak ikusirik erran zio, zu zara Simon Juanen semea; zu deituko zara Pedro, baita oroat nola Zefas, edo arri firmea. Kontent itzuli zire opatuas alako fortuna: ta zeudelaik egun batez sareak botatzen arrantzuko, Jaun onak erran zio, *Atozte ene atzetik; inen zaiztet arimen arranzari*. Guzia utzirik, istantean joan zire berareki; ta izan zire beraganik beti ongi onetsiak ta estimatuak: Eta S. Pedro destinataturik amabi Apostoluen buru ta Prinzipa, aren urbilena ta prinzipala kontatzen dute S. Andres. Ezta dudarik, atra zela bere jenio ta injenio onareki alako eskolan alako Maestruareki Diszipulo propia: ori progatu ze izan zion amore fiñ andian; beraren amores egin zituen obra onetan; ta pasatu zituen trabaju, persekuzione, ta martinoetan.

Errezibiturik Espiritu Sandua, oneki entendentuan argi, borondatean su, biotzean koraje ta indar abasto, asi ze pregonatzen Jesu Kristoren ebanjelioa, Judean lenik, gero Kapadozian, Galazian, Bitinian, Albanian, Trazian, Eszitian, obratus asko milagro, arkitus jende gaiek nola iruzki berri batek, ta konbertitus zuzen-bidera franko. Azkenik pasatu ze Akaiara: ta ango zitudade prinzipal Patras deitzen den batean baratu ze predikatzen ebanjelioa. Ango Prokonsul edo Gobernari Ejeas deituak debekatzen zio bere menekoei uztea beren errelijione falsua. Joan zekio S. Andres, eta koraje andiareki, naiz modu onareki erran zio, *Arrazio litzake, delarik berori gizonen Juez, ezaun lezaken guzien Juez dena, ta zeruan dagona Jangoiko bakar egjaskoa; eta ez ajolarik egin beren Jangoiko bano goietas, ta Demonio egjaskoes, zeñek dauzkiten engañaturik galarazteko betiroko*. Ejeasek erraten dio, zara zu Andres gura urratzentuzuna gure Jangoikoen tenploak, ta arrarazten guruzifikatuaren errelijionea, debekatu dutena enperadoreek? Orduan S. Andres asi ze defendatzen, ta explikatzen errelijione kristioaren egietafedea, eta nola Jesu Kristo guri zigun karidade geegiagatik egin zen gizon, trabajatu zen plantatzen errelijione bakar egjaskoa, ta utzi zen



guruzifikatzera bekatariengatik, salbatzeagatik guziok. Ejeasek erraten dio, konta kontu goiek sinetsi nautenei: zuk sinetsi niri, paratuko zaitute-la, ainberze laudatzen duzun guruzean, ezpaduzu sakrifikatzen gure Jangoikoei. S. Andresek dio, *nik egunoro sakrifikatzen diot Jangoiko bakar guziz poderoso egaskoari, ez oien idolo banoera, ta ez ari, ta idi, ta animaleen aragi ta odolak, baizik axuri bizi garbi mantxarrik gabekoa, zein arturik ere fielek komunio-nean, axuri sakrifikatu dena oso gelditzen da ta bizi*. Etzue ark entendatzen, ta eznaiz ere alako Teologia, ta enfadaturik manatu zue paratzeko preso karzelean. Jendea goratzen ze eman naies Gobernariaren kontra, eta ez utzi naies karzelean sandua: baña sanduak Jesus onaren amores, ta karidade jenerosoas etsaiaren fabore milla otoies ekatu ziot, etzeitzela mogi kontra, etzezotela estorba martirio antsia guziareki deseatzan zuena. Ala sosegatu zire.

Berze egun bates presentarazi zue Juezak, ta erran zio, akordura itzuli bide zara adoratzeko gure Jangoikoak, ta ala exkusatzeko eriotze samiña, ta gozatzeko bizia gustoso dena. Errespondatu zue sanduak, *nork ere eztauen sinesten Jesu Kristobaitan, ez dezake izan kontentu ta gusto onik, eztaue bizitzarik, nola beti predikatu duten leku gebetan*. Juezak emen, orgatik berrengatik beartuzu adonatu gure Jangoikoak, desengañatzeko ala jendeak engañatutuzunak zeure predikueki: ezperen, pasazarikotizut tormentu erruak, ta azkenik eriotzea gurutzean. Goratu ze orduan Apostolua, *O erioaren humea, ta zur earra, sura bota bearra, uste du agian lotsarazi ni meatxu ta erronkas? Egin bez nola nai duen: prest nago pasatzera, baitakit zenbatenas iago pasatzen duten, iago premio izanen dudala, eta orrek iago infernu daukana prestaturik*. Sutu ze ura koleras, ta azotarazi zue kruekuro oñetaik bururaño: zazpi berdugoek in zute lan gau aldatus bata berzearen atzetik apostus bekala, utzirik guzia llogaturik odola zeriola guzitik. Eta gero manatu zue, paratzeko guruzean sokas loturik oiñ eskuetaik, iago iraundu zezan martirioan. Zeramatelaik ia ortako, goratu ze jendea oiuz, zer egin du gizon justu, sandu, ta Jangoikoaren adiskide gorrek, ala paratzeko guruzean? Sandua berriz alegre klamatzen, etzezotela estorba fortuna gura, nola baize bukatzea bere Maestru dibinoaren amores guruzean. Eta au ikusi zuelaik urrundunik, alegranzias diosala egin zio, *Agur, Jangoikoak bedeika zu o gurutze preziosoa, Jesus Kristoren gorputzareki konsagratua, beraren mienbro ta odolareki adornatua ta edertua: len lotsatzen zinduza gizonak; gerostik onat alegratzen zuzu. Alegre seguro eldu naiz zuregana: errezibi nazazu zeure besotan alegraki. O gurutze ona, aspaldirik zure naiak nindago ni, zure billa ibili naiz; ta orai aurkiturik ar nazazu ni zure besotan iltzenaren Diszipulo nai zena, errezibi nazazu zure medios erredimitu ninduenak zure medios. O zer itzak ebek! zer amoresko*

sua! zer anhelu eta ansia zoroa, padezitu naies Jaunagatik! *O* Jangoikoaren amoresko ardo jeneroso, nola itentuen gizonak! Loturik goratu zute guruzareki, zeudelaik beira ogei bat milla persona lastimaturik ta admiraturik; eta sanduak guruzetik animoso alegre animatzen ta konsolatzen zitue, pasatzeko neke-pena Jaunaren amores. Bi egunes egon ze gurutzean dilindan; eta jendea klamatzen etzela il bear alako gizona ain ona, ta Jangoikoaren onetsia. Juezak ia beldurturik nai zue kendu gurutzetik: baña etzue nai Jangoikoak, zeren sanduak eskatzen zion, o ene Jesus, ez permiti kendu nazaten emendik, zeren ezaundu dut orren guruzearen birtutea: baizik berorrek errezibi bez ene espiritua, ezi ia ordu da doaien berorregana. Itzebetara jautsi ze argi bat inguratu zuena sandua, ta estali, niork ikusi etzezaken gisan. Iraundu zue ordu erdi bat bekala, ta ura kentzeareki bateo despeitu zue arima, Azaroaren 30.an Kristoren 72 urtean. Apostolu sanduaren gorputza ortzi zue Andre prinzipale batek deitzen zenak Maximila, zein etze atrebitu kastigatzera orgatik Jueza, baña zegolaik disponitzen akusatzea, ta kontu ematea enperadoreari, Demonia jabetu ze artas, eta ilarazi zue dolore ta oiuz andieki: eta on izan ze okasio, konbertitzeko berze anitz fede kristiora. Gero pasatu omen ze gorputz sandua Konstantinoplara: gero berriz Amalfi deitzen den ziudadera Napolesko erreinuan, nondik beso bat logaturik erregalos S. Gregorio andiak eraman omen zue Romara, non guardatzen den S. Andresen tenploan, obratzen duela len ta gero, asko milagro & Martirioa Neronen denboran.

Abenduaren 3.an S. Franzisko Xabier.



## Abenduaren 4.an

### S. Barbara Birjin ta Martir

S. Barbara jaio ze Nikomedia deitzen den ziudadean: Aita zue kaballero bat deitua Dioskoro abrats poderoso gogor kruela, ta Infiel, Jangoiko falsuen apasionatua. Etzuelarik baizik alaba gau, ta au agitz eder agraziatua, beldurrak engañazezan norbaitek etzegokionak ongi, paratu zue erretiraturik dorre batean ertxirik ederki, baña ganbara, konbenienzia, ta bear zuen guziareki. Alegre zego an Barbara, baize berez modesta erretiratua, ta apart munduko banidadeetaik egon naia, non egoten zen kontenplätzen Jangoikoan ta Jangoikoaren gauzetan. Ala ezaundu zue erreligione kristioaren ona bakar egiaskoa, ta sekulako bizitzaren inportazioa, eta emengoaren labor bano deus guti balio duena, ta peligros, okasio gaixtos, ta zebos betea, maneraz, ezi determinatu zue mantenitzea birjin gorputz ta arima bizi guzian. Bere denboran nai zue Aitak ezkonarazi bere iduri zekion bateki: errespondatu zio sandak, ezta arrazio ezkontzea nio-reki lurrean, daukana ia zueruan esposo nai bekalakoa, bere parerik ezteuena. Etzue Aitak entendatzen Teologia goi: eta gogoratus joateareki bera urrun, beraxtuko zela alaba, artzeko es osoren bat ark nai zituenetaik, joan ze, in ondoan bañu, leio, ta konbenienzia iago, egoteko gustora bere alaba. Gelditu ze au kontent bere erretiroan: eta ikusirik bañuan bi leio, inarazi zue irugarren bat Trintate sanduaren izenean, ta señalatu zue an erias gurutze sandua, zein gelditu ze arrian inpreso klaro, nola argizari beratxean, ikusten zutela guziek admiraturik milagroas: gero Jangoikoak an obratzen zue asko milagro, sendatus heriak. Aita urrun zegon bitartean, aren idolo ta Jangoiko falsuak lixtukatu zitue Barbarak, lastimatus Aitaren ta berze Infielen itsutasunas adoratzetas alako hitxurak.

Itzuli ze Aita etxera, ta ikusirik irur leio gaiek, ta guruzearen señalear, xakinik nola in zuen alabak, galdegin zio berari kausa. Alabak turditu gabe deklaratu zio, zergatik in zuen; eta nola den sollik Jangoiko bat irur personetan: nola Jesu Kristo Jangoiko gizona gure amores iltzen gurutze batean, salbatzeagatik gu. Entendaturik arrek bere alaba kristio zela, ta orgatik nai etzela ezkondu, suturik koleras artu zue ezpata, uzteko an ilik alaba. Baña au orduan eskapatu ze oian bat barna; Aitak segitu zue atzetik: batak laster, berzeak laster: peña andi bat ze bidean; ia ezin pasa alzi-na: ia ia urbildurik Aita ezpatareki; peña gura idiki ze bi aldetara, pasatze-ko sanda: ta ala libratu ze orduan. Baña Aita indignoa, peña baño gogo-

rango, ez eta milagro goneki ere etze beraxtu: baizik gero ere joan ze billa; eta noizbait aurkiturik arrapatu zue biloetaik leon baten gisara, eskus oñes golpatu, ostikatu, ta arrastatu zue arriak eta larrak barna: gero utzi zue preso ertxirik etxe batean, paraturik guardiak: eta bera joan ze kontu ematera Marziano Presidenteari, nola in zekion kristio alaba, ta in zezala enperadoreen legeen konforme, ta etzezola barkatu; ta inarazi zio juramentu, kastigatuko zuela gogorki ilarazi arteo tormentus. Noraño daiken ellega gizonaren gaixtakeria! Presidenteak ekarrarazi zue bere alzinera Barbara: asi zekio amoltsu karizias ta modu ones, utzi zezala kristioen seta banoa, ta bere tema gura: Baña aurkiturik konstante firme iago, ezi peña, aldatu zue modua krueltasunean, azotarazis erru ta moldegaizki; ta zauris bete ondoan, igortziarazis zilizio latz bateki guzia paratus idirikir odola zeriola guzitik. Alako estado ta itxuran eramanik karzelera, niondik etzuelaik anparorik, etorri zekio zerutik Jesu Kristo; konsolatu zuena ta animatu amore andiareki: *nik*, dio, *anparatuko zaitut: presente egomen naiz zure aldean: ez lotsa: guziak garaitukotuzu nereki*. Gelditu ze sanda, alegre biotza, ta sano guzis gorputza.

Presentaturik berze egunean ikusi zuelaik ain osoki sana eder Presidenteak, arriturik zio, aien Jangoikoek in ziotela piedade: adora zezkiela. Sandak dio, *oien Jangoikoek, nola baitire Demonioak ta gaixtoak, ezta kite gi egiten. Ene Jangoiko ona, ene Jesu hristo da sendatu nauena: au amatu, estimatu, ta adoratu nai dut, ta bear dut betiro*. Asarraturik arrek manatu zio te bi gizatzar moldegaitz indartsuei, txarrantxa zezotela gorputz guzia orraxa, edo txarrantxa burriñasko tzorrotzes; gero eman sugarres alde guzietaik; eta anitz golpe buruan mallues. Zego sanda bitartean klamatzen biotz barnean bere esposo dibinoai; ta senti zue faborea bear adiña. Iagotara pasatu ze krueltasun inhumano arrigarria: ebaki zizkiote bi bularrak kanibeta tzorrotzeki: oñaze bizi errua senti zue sandak, baña inbokatus bere Jesus ona, onen auxilio ta amoreareki pasatzen zue konforme, animosa, ta alegre. Berze pena bat iago sentitzen zuena oraño pasarazi zio te, baize pasaraztea karrikak barna biluxirik azotatus bidanabar, alketzeko bera, ta lotsarazteko berze donzella kristioak. Emen sandak goraturik begiak biotzareki zerura eskatu zio, o, *ene Jaun soberanoa, guzis poderosoa, estaltzentuena lañues zeruak, ta lurra gauaren ilunas, in bezada grazia estaltzeas ene gorputza, nola dezaken*. Aditu zue Jaun onak, ta estali zue argitasun admirable bateki, nola manto eder bateki, oñetalk bururaño, maneraz, ezi begiek ezin ikusi zute. Itzuli ondoan, ia etsiturik sandaren konstanzias Presidenteak manatu zue ebakitzeko burua. Presente egon ze beti Aita kruel inhumanoa, ta aiturik sentenzia, eskatu zue utzi zezatela bera izatera bere alaba-



ren borrero, ebakitzeko bere eskus oni burua. Oh Aita endemoniatua! Agindu zekio eskatu zuena: eta eramanik oian batera, an paratu ze belauriko sanda: egin zue orazio, graziak emanen iltzeas Martir, ta eskatus in zezotela ongi aren izenean eskatzen ziotenei. Aditu ze boza bat zerutik deitus errezi bitzera korona, ta ofrezitus eskatu zuena. Orduan inklinatu zue burua Aitaren oñetan; ta onek goraturik ezpata ebaki zio. Sandareki bateo iltzute Andre on bat, zein ikusteariki sandaren konstanzia ta milagroak, animatu ze deklaratzera kristio zela, ta il nai zuela fedeagatik: au ere bularrak ebaki ta tormentatu ondoan degollatu zute. Baña Aita Borreroa, bano in zuen hazañas itzultzerakoan, iltzue ausnarri batek: eta oroat Presidentea. Bi sanda gaien gorputzak ortzi zitue gizon piadoso batek, non ere agitu zire asgo milagro. Agitu ze martirio gau Maximino enperadorearen denboran. Zerdote batek, Teodoriko deituak, kontatzen du S. Barbararen milagro andi bat, bere eskuetaik pasatua Holandan 1448 urtean. Ze sanda gonon deboto bat, sinetsirik zegona, nior onen deboto denik eztela iltzen sakramenturik gabe. Deitzen ze gizonoi Henriko; agitu zekio gau batez lo zegolaik itxekitzea su etxeari, ta idatzarri zelarik bera aurkitzea inguraturik sugarres alde guzietatik, niora ezin eskapa: ta erretzen zegolaik, pena iago zue iltzeas sakramenturik gabe, ezi errerik iltzeas. Oroiturik S. Barbaras eskatu zio ansioso, ez libratzea iltzetik, baizik grazia iltzeko sakramentueki. Agertu zekio sanda bereala, ta mantoas apartatus sugarrak atra zue kanpora, erraten ziola, bere debozio garrengatik ematen ziola Jangoikoak denbora biramoneraño kofesa ta komekatzeko ta oliatzeko, etzeiela deskuida. Ala egin zue, zegolarik pobrea errepispilurik, eta guziak beira arriturik. Kontatu zue grazia logratu ziona sandak, ta exhortatu zitue izatera debozio; ta gero despeitu zue arima: ta sazerdote konfesatu zuena bera da kontatzen duena.

Abenduaren 6.an S. Nikolas Obispoa.

## Abenduaren 9.an S. Leokadia Birjin ta Martir

S. Leokadia izan ze Toledon jaioa jendaki nobletik, ta kristio andia. Orgatik preso inarazirik Daziano Presidenteak, ta akar eginik nola, izanik ain noblea, segitzen zuen kristioen sekta txar billaua ziona arrek, errespondatu zio ausarki defendatus ta laudatus errelijione kristioa. Arrek utziarazi nai zio loxentxus eta meatxus, ones eta gaitzes: Etzuketelaik logra, sarrarazi zue karzel ilun ertxi lotsagarrian penarazteko an, eta on aski ezpaze, iiarazteko tormentus. Kontent zoeie presondegira esker milla emanen Jangoikoai, eta negarres akonpañatzen zutenei erran ziate, ea Kristoren soldadoak, ez nigarririk egin ene penagatik, bai eman zori onak, zeren Jaunak in nauen digna pasatzeko zerbait bere fede ta amoreagatik. Denbora luzean iduki zute leku zikin ilun penasko gartan, alik eta kontaturik norbaitek arakintza kruela kristioetan iten zuena Dazianok, eta tormentu lotsagarriak, zeñeki akabarazten zituen, lastimaturik biotzes orazio egin zio Bure Jaunari, konbeni baze, ta plazer barin bazue, erman zezala mundugontatik, ez ikusteagatik errelijione kristioa ain persegitua, ta ala akabarazten sanduak. Jaunak aditu zue ta agindu zio eskatua; eta zegolarik orazioan, entregatu zue bere espiritua Jaunaren eskuetan, 305 urtean. Ortzi zute orduan kristioek al zuketean gisan: baña orai tu irur tenplo Toledon, bat non iduki zuten presa karzelean: berze bat jaio zen etxean; ta irugarrena ortzi zuten lekuan: eta sanda gonon debozios ortziarazi zire onen tenploan S. Eujenio, ta S. Julian Arzobispoak, ta S. Ildefonso. Eta an zelebratu zire zenbait Konzilio Españako obispoen. Tenplo ontan agitu ze prodijio mira arri bat. Da xakiteko, ezi S. Ildefonsok defendatu zuela herejeen kontra Ama Birjinaren Birjinidade betirokoa, au da, mantenitu zela birjin erdi baño len, erditzean, ta erdias geros beti birjinik: eta zerbittu on gau zenbat estimatu zuen mostratzeko, S. Leokadiaren festa egunean zeudelarik an presente errege Rezesbinto, korte guzia, infinzio bat jende; ta Arzobispoa sandaren obia alzinean orazio egiten, bat batean goratu ze gañeko ar-lauza bere kabo, nekez goratuko zutena ogeitamar gizonetik; atra ze obiatik sanda, iru eun ta iago urtes ortzirik egona, eta edatus eskua S. Ildefonsori, erran zio, o Ildefonso, zuregatik bizi da ene Señora zerukoaren gloria. Au erran ta erretiratzen ze bere lekura: eta sanduak, geldi zeingatik prodijioaren memoria, arturik erregeren puñale edo kanibeta bat, ebaki zio beloaren zatitto bat, zein armareki bateo guardatu diren eliza gartako sagrarioan &. Ab anno 646 ad 672.



## Abenduaren 13.an

### S. Luzia Birjin ta Martir

S. Luzia birjin eta martir gloriosan tugu anitz gauza admiratzeko; ta berze anitz imitatzeke. Jaio ze Siziliako Zaragozan buratso abrats nobleetaik. Txipia zelarik ere ze kristio andia, juizios betea, ta agitz oposizio zuena banidadeari, ta inklinazio ta afizione anitz onera, prinzipalkiro guardatzera garbi gorputz ta arima, plazer in naies Jangoikoai. Aita il zekiolaik, gelditurik bakar Amareki, onek tratatu zue ta ofrezitu kaballero bati ematea ezkontzas alaba, oni aipatu baño len. Aipatu ondoan errespondatu zio, etzuela oraño alako gogorik: ta zoeie artus denbora, ta luzatus berarias, etzeien egin. Eskalda on bat, ez egiteko, disponitu zue Jangoikoak, beretako nai zuenak ta birjin, baize gaitz luze bat Amari eman ziona, baize odoljario bat ezin kuratu ziotena laur urtes munduko Mediku ta medizinaeki. Ia etsiturik Eutikia, ala deitzen ze Ama, erran zio Luziak alaba onak, Ama, bada lurrekoek eztiote eman alibiorik, billa zagun zerutik. Iduri bazaio, goazen Katanara, non beneratzen den S. Ageda, zeñen medios Jangoiko Jaunak iten baitu asko miragarri, agian inen du orreki ere. Gogotik artu zue Amak bella gura, ta joan zire Amaalabak irur lekoa andik arara zirenak, ez dibersio, algazara, jendeketa ta naspillaren okasioan, (nola iten duten askok engañatus beren buruak, ez debozios, bai dibersios) baizik bakar ixil, nola iten diren obeki debozioak, ta logratzen. Ellegaturik biak S. Agedaren errelikien presenzian zeude orazioan luzaro. S. Luziari Jangoikoak lo-iduri gozo bat eman zio: zeintan agertu zekio S. Ageda, ta erran zio, amoltsu, Luzia ene aizpa maitea, ta birjin Jangoikoak emana, zertako eskatzen didazu niri eman dezokezuna istantean zeurorrek Amari? zure fedea baliatu dio, ta ia dago sendaturik, zeren ezi Jangoiko Jaunari plazer in diozu mantenitus birjin; eta zure birjintasunean prestatu diozu bere gustoko sagrarioa, non bizi daien presente: eta ala nola Jesu Kristok honratu duen Katanako ziudadea, ni nai zela medio, ala honratuko du Zaragozako ziudadea, zu zarella medio. Itzuli ze berebaitan S. Luzia gozosa, ta erran zio Amari, Ama, ia sendaturik dago sanda gonon fabores: emogun esker milla milla.

Itzulirik etxera eskatu zio, etzezola ia aipatu ezkontzarik, baizik dote zeukana ortako, eman zezola errepartitzeko pobreei. Ama Eutikia eutxikara ze, ta ez luke nai barratu ondasuna bizi bitartean bera: il ondoan in zezala nai zuena. Baña alaba sandak seguratu zio, ilondoreko limosnak

eztirela ain kuadrable Jangoikoak, zeren orduan ez ematen, baizik uzten den eztaikena eraman: bizian ematen dela goza zeikena, ta orrek duela balio; eta nola argia gau ilunean bear den erman alzinetik, ala limosna. Erranaren utses atrarazi zio dotea, ta saldu ta errepartitu zue liberalkiro. Kaballero garrek, nori Amak itz eman zion, uste zue saltzea joiak ta alhaja preziosoak zela, erosteko heredaje andi bat: baña informatu zelaik guzia pobreei eman ziotela, ta kristio zela Luzia, odio ta ira arturik akusatu zue Presidentearen alzinean, nola zen aien Jangoikoen enemiga, ta sorgina. Ala deitzen zuzte denbora gartan kristio sandu gaiek. Paskasio deitzen ze Presidentea: onek deitu zue beregana, ta lenik modu ones asi zekio erraten utzezala kristioen superstizioea, ta ofra zezala sakrifizio aien Jangoikoei. Sandak serena errespondatu zio, Jangoiko bakar egiaskoaren gustorako sakrifizioa dela miserikordia beartsuei egitea; ortan enpleatu zela urte gaietan emanen limosnatan guzia; ia etzekiola berzerik gelditu, baizik bere persona, zein naiak zegon ofratu bere Jangoiko onai sakrifiziotan zen guzia. Presidenteak erraten dio, oriek dire kristioen amets ta itz banok etzaizkidanak erran bear niri konserbatzen dutenai errelijione anti-guaskoa, ta enperadoreen legeak. Sandak dio, orrek guardatu nai du bere Prinzipearen legea: nik nere Jangoikoarena. Orrek dio beldur enperadore lurrekoai: nik zeruko Enperadorea. Orrek nai dio egin plazer gizon mortale bati; nik Jangoiko bizi guzis poderoso eternoari. Orrek uste du iten duela konbeni zaiona: nik iten dut ongi dagokidana. Eztaiel neka banonan kenarazi naies niri ene Jesu Kristoren amorea. Arritu ze Jueza alako ausardias, ta asarraturik tratatu zue itz gaixto indignoeki, bere hazienda galdu zuela gaizki bizitus. Emen sandak konstante serena erraten dio, ene hazienda paratu dut seguroan pobreen eskus: aborrezitutut beti zikintzen dutenak arima, nolakoak baitire Infielak adoratzentutenak Jangoiko ta Jangoikesa bano zikin izanak. Gure Jesu Kristo da garbi naia, ta beraren amores, iteagatik plazer, beti in dut iges alako gaietaik: ta esperatzen dut ene Jesu Kristo Esposo zeruan. Juezak erraten dio, jarduki sobra da ori; atertuko dire itzak, asten direlaik azoteak. Sandak dio, eztaizke falta itzak Jesu Kristoren zerbitzukoei, zeñi erran zioten, pensatu gabe nola edo zer erran, emanen zaiotela bear orduan; ez garella gu mintzatzen garenak, baizik Jangoikoaren espiritu sandua mintzatzen dela gure baitan. Juezak dio, dago agian zurebaitan Espiritu Sandua? Sandak dio, garbi ta kasto bizi direnak dire Espiritu sanduaren ten lo. Juezak, bada nik ermanaraziko zaitut urdeen etxera, aparta daien zureganik Espiritu sandua. Sandak, bortxa inarazi balez, nai eztutelaik, Jangoiko Jaunak guardatuko dida korona birjina. Enfadaturik Juez infameak manatu zue, eramateko etxe infame





gartara: baña sanda eutxi ze orazioari biotzean eskatus fabore Jaun dibi-noai, zein etzekio faltatu bear orduan: zeren ezi bildurik anitz bi oñetako otso, eramateko axuri gura, ezin mogitu zute zegon lekutik txutirik: eka- rri idi pareak, lotu sokak, egin al guzia tiraka, injenio, indarka: de balde, nola balitz peña firma: Sorgin deitzen zute sanda, ta sorgindia Jangoi-ko onaren grazia. Orgatik desegiteko sandaren sorgindia uste zuztenak, ekarri zuzte beren sorgin gaixto egiasakoak: ebek arte gaixtos in zute in ala garaitzeko sanda, baña de balde: zer dezake Deabruak Jangoikoaren kon- tra? Konfuso rabioso zego Presidentea abuña zeriola koleras: sandak serena erraten zio, zergatik ala turbatzen da? Sinetsi bez Jangoiko andia- ren birtutea dela, ta ez arte gaixtoa, defendatzen nauena ni. Juezak segi porfias: manatu zue paratzeko sandaren inguruan anitz abar, egur, erresi- na, ta olio, eta emateko su, erre zeien an. Baña sanda zego seguro alegre sugarren erdian mellarik gabe, nola lore di eder batean. Jueza surik gabe iras erretzen, sanda suaren erdian serena erraten, eskatu diot ene Jaunari ez nazan erre su gonek, ta luza daien ene martirioa, firma daitzen fedean kristio fielak, ta konfundi daitzen Infielak beiratus zein guti in dezaketen Jaun andiaren zerbitzariei. Juezak manatu zue traspasatzeko ezpata bat lepotik sandari: traspasaturik ala ere zego sanda bere orazioan nai adiña, ta predikatzen kristio an zirenei, konsola zeizela, ezi denbora labur ater- tuko zela persekuzioea. Leku gartara ekarri ziote, ta errezibitu zue komunione sagratua. Eta Juez gura, ikus daien Jangoikoaren justizia, in zute preso, ta katees inguraturik pasatu zute sanda zegon lekutik erama- teko Romara, non kendu zioten bizia. Sanda gonon martirioa izan ze Diokleziano ta Maximiano enperadoreen akabanzan. Orduan depositatu ze korputz sandua Zaragoza Siziliakoan; andik gero Konstantinoplan: gero berriz Benezian, non beneratzen den orai. Diote dela nola S. Loren- zo, Abogada suaren kontra: baitare begietako bistaren Patrona; zergatik ori, eztagigu segur, baizik ere Jesus Kristoren maite ta maitazale izanaga- tik, duela grazia, ez solamente begien, baitare gorputz ta arima guziaren sendatzeko, ta sano konserbatzeko. Pintatzea begieki plater batean dau- kala eskuetan, eta diotena zenbaitek atra zituela bere begiak deshonesto baten kasos, ezta guzis sinestagarri, baizik du gezur-kolore &.

## Abenduaren 18.an Ama Birjinaren erditzaren Expektazioa

Abenduaren emezorzigarrenean zelebrazten du elizak Ama Birjina- ren Expektazioa, edo bere erditza garbiaren etxidetea, edo esperatzea, baita zorzi egun erdi baño len. Egund gontan zelebrazten zue len Toledo-ko elizak Anunziazioa, baita Martxoaren ogei ta borzgarrenean, erortzen baita beti Garizuman, eta egun gartan Jangoiko onak egin zigun fabore geiegia gizonei egiteas bera gizon gure amores; zelebraztu ta festejatu naies solemnidade ta alegranzia iagoreki, paratu ze bigarren festibidade gau, zeini S. Ildefonsok paratu zio izena Expektazioa. Deitzen ere da O, zeren egund gortako bezperetan asten diren kantatzen antifonak asten direnak o, o, o: adiarazis lengo Patriarka, ta sanduen anhelok ta ansiak naies ellega zeien egund deseatu ditxoso ura, ikusteko Jangoikoa gizon. Ala deitzen du Profetak, *deseatua jende guzienganik*. Orai bada Jangoikoaren zerbitzuko guziek deseatzen bazute ainberze, bere Ama propiak, bere entrañaetan zeramanak zenbat iago deseatzen bidezue ikustea bere eskuetan bere Jan- goiko andia bere aur txipia, adoratzeko bere Jaun bekala, besarkatzeko, apatzeko, azitzeko bere hume maitea bekala? Bidanabar erakusten digu elizak ta Ama Santisimak guri ere, nola bear garen prestatu, nola garbitu, berotu, ta erre amoresko suas biotza, zelebrazteko gure Jaunaren ongi- etorria mundura, festejatzeko egund ditxoso gura, ongi deitzen dena egue- rri edo egund berri, egund argi eder sandu gura, zeñetan agertu zen iruzki- rik obena Jesus gizon dibinoa, Jangoiko humanoa, gizon Jangoikoa, Jan- goiko gizona, zeintan ikusi zen Jangoikoaren ona zein ona den, ta zein amante gizonaren: naiz izanik ofenditua gizonaganik, alaere kastigatu bea- rrean nai barkatu; ta ez on solamente, baizik ere justiziari emateko satis- fakzio, bera etorri, artu ure naturaleza, ta agertu gure trajean, gu bekata- rien idurian, gure partez pagatzeko, libratzeko gu, bera ofrezitu, ona ni gizonen fiadore, ta Redentore. Nola dezakegu aski estimatu alako amorea, ta alako amazalea? Nola zelebraztu dignoki alako faborea? Nola prebenitu errezibitzeko Jangoiko andia eginik aur txipia?

Bada bere Ama Santisimari emateko zori onak bere dignidade ta felizidade andias, nola daike nior izan digno bear adiña? duela bere sabe- leko fruitu bedeikatua, galdu gabe birjinidadearen lore estimatua; aurra- reki Ama ez mantxaturik, bai konsagratu, Ama dibina, zori oneko Ama, kriaturarik ederrena, Jangoikoaren biotzeko maiteena, beraren begietan aurkitu duena grazia guziek baño iago, ta Jangoikoas geros len-



biziko persona dena, ta Jangoikoa aur eginik zeukana sabelean orduan, ta geroxago iduki bear zuena bere besotan eta bularretan. S. Ildefonsok Toledoko Arzobispoak Ama Birjinaren kapellan ditzosoak ederki zelebrazten zue festibidade gau. Aren denboran atra zire Hereje itsusi likits batzuk: ukatzen ziotenak Ama Birjinari bere gala ta sendagalla glorioso bakar gura, baita birjintasuna Amatasunareki bateo niork ez bakala: Goratu ze S. Ildefonso, ta plumas ta mias defendatu zue Ama Birjinaren honra; ta konfunditu ziteue arras hereje gaiek, ta botatu Españatik. Ondorean premiatsu ta honratu zue Ama Birjinak bere kapellan glorioso: lenik S. Leokadiaren medios, zenen obiaren alzinean zegolarik sandua orazioan festa-egunean, goratu ze obiatik sanda, ta edatus eskua ukitu zue sanduarena erratan ziola, O Ildefonso, berorreatatik bizi da ene Señora zeruko Erreginaren gloria. Ez kontent orreki sollik Ama Santissima, dignatu ze jautsisea zerutik bera, honratzeko ta erregalatzeko sandua. Egungo festaren maitinetara zoeielarik S. Ildefonso, biotza beterik debozios zerama bereki libru eskribitu zuena Birjinaren defentsatan: eta ellegatzean tenplora ikusirik argitasun ta erresplandore andi bat, erretiratu zire lotsaturik lagunak: baña sanduak segitu zue animoso aldare nausirat. An ikusi zue Ama Birjina bera glorias errebestiturik, Aingerus akonpañaturik, ta obispoaren katedran jarririk: zeñek mintzatu zio amorosa, o Ildefonso, zeren defendatu duzun nere birjintasuna ederki, ta guardatu duzun ere zeurea, etorri naiz erregalatzera zuri emen. Utzi zio kasulla bat alako eskuetaik bekalakoa, zein usatzen zuen sanduak meza errateko Ama Birjinaren festa-egunetan. Oh! zein abasto pagatzentuen Maria Santisimak egiten zaizkion zerbitzuak! oh! zenbat arrazioreki dioten Doktoreek eta sanduek, Maria Santisimaren debozioa dela predestinazio ta salbazioaren señaile ta marka! Debotoak hume kontatzentu; eben Ama ematen da bera: zer geiago nai dugu, edo nai dezakegu? *O konfianza ditzosoa! o errefujio ta anparo seguroa*, exklamatu du S. Anselmok: *Jangoikoaren Ama, ta gure Ama!* Zergatik goratu zen ain gora, argatik apaltzen da ain bera. Zergatik ote, zergatik goratu zue ain gora Jangoiko andiak Maria? Beronek dio *quia respexit humilitatem ancillae suae, zergatik beiratu zuen bere esklabaren humiltasuna*. Eta zergatik orai beiratzin digu ain apal garenei? Zergatik bere semearen gisara baita gora ta apal, andi ta txipi. *Nor gure Jangoikoa bekalakoa*, dio Dabidek, *an gora gora erreinante dagolarik, beiratzin baititu humilak zeruan ta lurtean?* Nor, diot nik, Nor Jangoikoaren Ama bekalakoa, ain gora goraturik, apaltzen baita, izatera Ama gurea? Jangoiko andia aur Ama Birjinaren besotan! Ama Birjina jautsitzin gure amore ta onetan! Ainberze podore, ta ainberze amore! Quare tristes es anima mea? Spera in Domino et Maria.

## Abenduaren 25.an Jesu Kristoren jaiotzea

Jesu Kristoren jaioteguna deitzen da euskaras Eguerri, baita egun berri, zeren egun gontan agertu zen mundura eguzki berri bat, au da gloriako eguzkia, au da Jangoikoaren on ederra gizontasunean; Jangoiko egiasko dena bera gizon eginik, ta egun aur agerturik; andi bakarra, txipi txipittoa; guzis poderosoa, guzis amoroso; ta txoil arrigarri dena ta admirable, axurrittoa; guzis poderosoa, guzis amoroso; ta txoil arrigarri dena ta admirable, axurritto manso amable: *zein konzebitu baize Ama Birjinaren entraña sanduetan Espiritu Santi Jaunaren obras, grazias, ta birtutes; jaiotze Maria Birjinaganik*: dio Kredoan; ta adiarazi nai du, ezi nola eguzkia baitator, ez ilundus, baizik argiago paratus mendortza; edo nola argia pasatzen baita kristaletik autxi gabe ta mantxatu gabe kristalea, ala jaiotze zela Jesu Kristo Ama Santisimaganik mellarik in gabe, utzirik ain oso garbi birjinitadearen gloria; gelditzen zelaik birjin bola erdi baño len, oroat erditzean, ta erdias geros, beti birjinik. Au da egietafedea: orai historia; noiz; nola; ta non izan zen.

Bizi zirelaik Nazareten Maria ta Josef, etxideten noiz jaiotze zen sabeleko fruitu milagrosko dibino gura, bete urran zirelaik bedratzi ilabeteak, agitu ze atratzea Erromako enperadore Augustoganik manamendu, lixtatze mundu guzia. Ortako guziak zoezi joanes nor bere zitudadera, nondik zuten beren etorkia: Josef ere bai bere esposareki, edo ez uzteagatik bakarrik estado gartan, edo zeren ala zegoen Jangoikoas, igan ze Belengo zitudadera, Dabid erregeren sortuerrira, zeñenganik zuen bere etorkia. Inzute biaje gura pobre gisa, ta negu-denboran; pensa zein neketan! baña sabel-barnean zeraman fruitu bedeikatuareki guzia zekiote pasagarri. Etze izan ostaturik zitudadean gure peregrinoen. Mundua beti bano itu bere kaltetako! Bear izan zute erretiratu an portaletik kanpoan zen etxola zar batean, baizego uts, ta orgatik Ama Birjinaren gustorako, baize soill-naia. Idi bat sartu zela bai an, diote, bere tegian bekalakoa. Eta idi gura, ta asto eraman zutena izan zire, erran badaike, fortunoso, iago ezi jende banoak, ikusteas jaiotze guzien Jauna: kunplitus ala Profetak errana, diola Jangoikoak (Isai. 1.) *Humeak azitueta ta goratu, baña ebek mespreziatu dutela bera. Idiak ezaundu duela bere Jabea, ta astoak bere Nausiaren ganbela, baña bere jendeak ez Jangoiko Jauna*. Leku soill uts gartan zeudelarik, gauaren erdian, ta Maria Santissima orazio andian, ellegaturik ordu ditzoso gura, ikusi zue



bere eskuetan jaiorik gloriako errege, ta bere seme propioa! Nola errezi-bitu zuen; nola eman zion ongi etorria; bego pensatzeko espazioreki arimak, ez dezakena ongi ezplika miak!

Ebanjelioak diona da, oialetan inguratu zuela, edo maiolatu diotena, ta erreklinatu ganbela batean, zeren etzen berze goatzerik edo kunarik leku gartan. Da ere pensatzeko emen S. Josef ditxosoaren gozoa, amorea, admirazio, adorazio, ta afekto zituenak aur dibino garren presenzian. Segitzen du ebanjelioak, zeudela an urbil Artzaiak idatzarrik ardien guardatzen: agertu zegotela Aingeru bat, ta Jangoikoaren argitasunas bete zela inguru gura, ta lotsatu zirela agitz: baña Ainguruak erran ziotela, etza ziela izan beldurrik, ezi berri on andi bat ematen dizet, jende guziaren alegratzeko dena, baita jaio zaizela Salbazalea Kristo Jauna Dabiden errian: eta ona au duzie señale, ezauntzeko: *aurkituko duzie aurra maiolaturik, ta erreklinaturik ganbela batean*. Eta derepente bat-batean Ainguru garreki juntatu ze soldadeska zerukoaren tropa andi bat, laudatzen zutela Jangoikoa, ta erraten, *Gloria Jangoikoai goitietan, eta lurrean bakea borondate oneko gizonen*. Zerura igan ondoan Ainguruak, Artzaiak ziote elkarri, *goazen Belena, ta ikusagun agitu den gau, Jangoikoak mostratu diguna*. Eta joan zire prisaka, ta aurkitu zute Maria ta Josef, eta aurra paraturik ganbelan: eta ikusteariki ezaundu zute egiaz aur gau zela erran zekiotena. Eta aditu zutenak guziak admiratu zire, eta Arzaiak kontatu zizkioten gauzes. Baña Maria Santisimak guzia konserbatzen zue bere biotz barnean pensatus ta konsideratus. Eta Artzai ditxoso gaiek itzuli zire admiraturik laudatus ta glorifikatus Jangoiko Jauna aditu ta ikusi zuten guzias, erran bekala Jangoikoak. Eztio ebanjelioak, zer egin zuten etxola gartan: baña klaro aski da ta badio Agredako benerableak, kurturik lurrean adoratu zutela Jangoiko andia aur txipi gartan, etorria zerutik salbatzera gizagendea: biotzak beterik amores, admirazios, ta agradezimentus, mies ere bedeikatzen, konfesatzen, ta laudatzen zutela Jaunaren on onegia, ta digun amore geiegia. Dudarik gabe eman ziote zori ona Ama Birjinal ere, zeñeki ta S. Josefeki izan zuzte konbersazio gozo sanduak, informatus, ta firmatus misterioen fedean. O ditxosoak aurkitu zutenak alako ditxa! Nork ez luke nai izan pobre gaie-taik bat iago ezi Herodes, edo Jaundi bano gaietaik?

Daiken maneran espiritualkiro imita dezazke nornaiek, bisitatus ta beiratus arimaren begieki, ta amatus, estimatus, admiratus biotzeko afekto fiñeki Jangoiko Jaun andiaren karidadesko exzesu geiegiak gure faboretan. Guk ofenditurik bere Majestadea, ta merejiturik kastigo errua, berak ez eraunsi ausnarriak, suak, lanzak gure kontra, baizik jautsi bera ofreztizera barkazioa ta bakea ez ginduen mereji! Eta on guti dela, bera

jaintsirik gure zamarra pobrea, gure aide, gure aragi ta odoleko eginik, agertzea gure guzien fiadore bekala pagatzeko ure zorrak: Ona ni, diola, ona ni; ota ene gain karga guzia, libre izan daien ta salbo gizona. Jangoikoaren eta gizonen arteko itekoan zeude pleituan bekala justizia ta miserikordia. Miserikordiak nai barkatu gizonen, ta ez kondenatu: Justiziak nai eman dakion satisfakzio Jangoiko ofenditui: gizonen ez ematen, ta ezin eman ere aski denik: Nola konpondu pleitu gau? *Veritas de terrā orta est*: Jaio ze lurrean Jangoiko ta gizon egiaskoa dena, Jangoikoaren ta gizonen bitarteko bakarra: Jangoikoai gloria, ta gizonen bakea kantatzen diote: *Justitia de caelo prospexit*. Justiziak beiratu zerutik: eta orra konpondurik miserikordiareki, biak besarkatzen direla kontent, ematen dela ia satisfakzio Jangoikoai, nai adifia justiziak; eta barkazio gizonen, nai bekala miserikordiak: guzia Jesus onaren kostus. Ongi etorria dela Jaun alakoa! ain amablea ta ain amantea! Nork ezta amatuko? ain andia, ta ain txipia! Ain poderoso, ta ain amoroso! Ain gora, ta ain apal! An goiti izarren gañean tronoa glorian! Emen beiti bi animaleen erlean kuna ganbelan! Sinesten duenak biziro amatzen du fiñkiro, ta gloria espera bez segurkiro &.



## Abenduaren 26.an

### S. Esteban lenbiziko Martira

Jesu Kristo mundura jaio zen egunaren urbilenean zelebratzen da S. Estebanen jaiotzea zerura, au da bere eriotzea ta martirioa: Mereji du zelebratzea, zeren S. Esteban kristiandadean da Proto Martir, au da, lenbiziko Martir glorioso, Kristoren fede ta amoreagatik guzien len lena sakrifikatu zena, ta berze al& sandu prinzipala Espiritu Sandus betea; ta S. Klementek dio, etzela Apostoluak baño gutiago Jangoikoarengana amorean, eta errealki agitz laudatua da Eskritura Sagratuan. Zazpi Diakon eskojitu zuzte kristiandadearen prinzipioetan, errepartitzeko sustentua kristio pobreei ta alargunei: aietaik prinzipalena izan ze S. Esteban, zein ez ortan solamente, baitare enpleatzen ze erakusten fedea, ta predikatzen Kristo Jangoiko ta gizon egiaskoa, ta defendatzen ausart animoso zuzenbidea, eta beterik grazias, indarres, ta korajes obratzen zue anitz prodijio ta señaile andi jendearen erlean. Disputatzen zue orduko jakintsueki maiz: biltzen zire aietaik anitz disputazera kontra: baña etziokete erresisti ainberze xakintasun ta espiritu mintzatzen zenari. Gaixtoen deskitea, eztute-laik arraziorik, desarrazioan goratzea, ta ematea kontra maltratatzeko gaixtakerias ez dezaketena garaitu arrazios: Goratu zitiote testimonio falsuak, ta erosi testigoak erran zezatenak aditu zutela mintzatzen blasfemiak Moisesen ta Jangoikoaren kontra, baitare tenploaren ta legearen kontra: eta bildurik guzien erlean arrapatu, ta eraman zute Juduen batzarre, ta konsejura. Agertu ze an sereno animoso alegre gaste eder bekala, ezi solamente zitue ogerta amalaur urte, eta edertasun naturalaren gañetik ageri zekio aurpegian ere arimaren garbi ederra, kastidade birjinalaren lustrea, konzienzia onaren grazia ta alegria: ala nola barneko argia hispiluan, mostratzen ze aurpegian, istargitzen ziola miragarriri, maneraz, ezi konsejuko guziek beraren begitarrea ikusten zeude beira, nola zeruko Aingeru batena.

Galdegin zio Presidenteak akusatzen zutenas: eta sandua utzirik goratzen ziotena ezpaizue errespuesta bearrik, asi ze sosegu, serenidade, ta espazio andiareki probatzen Abrahamen denboratik nola den Jesu Kristo prometitua etortzeko mundura; ta nola berak beti zeuden erresistitzen Espiritu Sanduari buru ta biotz gogorreki: nola len aien alzinekoek il zuzten Profetak anunziatzen zutenak Kristoren etorria, ta nola berak orai izan diren Kristo beraren traidore ta ilzale. Aditus itz alakoak zeude erre-

tzen iras biotzetan, eta ortzak irrikaturik kontra eman naies. Sereno sanduak goratus begiak zerura ikusi zue Jangoikoaren gloria, eta Jesu Kristo txutirik eskuieko aldean: eta erran zue, *orra, ikustentut zeruak idikirik, eta Jesus txutirik Jangoikoaren eskuieko aldean*. Ori aditurik, goratu zire guziak arroitua ta tropelia andiareki aren kontra, atra zute ziudadetik kanpora, ta an tresenak utzirik guardatzeko Saulori (au ze in zena gero S. Paulo) asi zire tiratzen arriak S. Estebani, onek ofrezitzen zue bizia Jaunari ziola, o ene Jauna Jesus, errezi bez ene espiritua. Gero azkenerat belauriko paraturik erran zue oiui andi bateki, *o ene Jauna Jesus, ez dezotela konta ebei bekatu gau, barka bezote*. Au erran, ta il ze bakean: eta arima errezi bitu zue, Jesus onak, eta koronatu Martir glorioso bekala bere izenak dion koronas, ezi *Esteban* nai du erran *Korona*. Zori onean dela. O ellega bagindeiz &.



## Abenduaren 27.an S. Juan Ebanjelaria

S. Juan Ebanjelaria Jesu Kristoren Diszipulo maite onetsia, Maria Santisimari utzi ziona humetako, Apostolu, Profeta, Doktore, Teologo, Birjin ta Martir gloriosoa, izan ze San Tiagoren Españaiko Patronoaren anaia gasteena, arreki bateo deitu zuena postolutako, ta segitu zuena istantean, utzirik Aita, sare, ta arrantzuko istrumentu guziak, izateko arimen arranzuari ermateko zerura: Blok deitu zitue izen-gañekoas *ortotsaren hume*, nola ausnarri edo zentella suskoak; ala nola Apostolu lenbizikoa deitu zuen Pedro, edo arria, zeren onen gañean fundatu bear zuen bere Eliza; eta arreki bateo ebek biok beti artzen ta eramaten zitue bereki berex, in nai zuelaik gauzaren bat sekreto andia, ala nola trasformatu zelaik glorioso Taborko oianean, biztu zuelaik Prinzipe Jaun garren alaba ila, eta Jetsemaniko baratzean odol-izerditan zegolaik orazioan pasio-alzinttoan: Baitare prebenitzeko azken afaria Jerusalemen, S. Juan izan ze S. Pedroreki bialu zuena Jaun dibinoak. Eta jakinik bien Amak S. Salomek, estimatzen zituela Errege soberanoak berze Diszipuloen gañetik, S. Pedro ezpaze, izan zue koraje joateko biek, ta eskatzeko mana zezala bere bi gaiek jarri zeizen, bata eskuieko aldetik, ezkerretik berzea beraren erreinuan. Baña Jaun soberanoak errespondatu zio, eztatzie zer eskatzen duzen. Dezakeze pasa nik pasatuko duten tragoa? Errespondatu zute animoso baietz. Jaunak orduan, bai bada ene tragoa edanen duzie: baña ene esku ta ezkerreko aldetik jarritzea bego norendako dagon Jangoikoas. Baña S. Juanendako zego azken atarian egin zion amoresko fineza, baize idukitzea erreklinaturik bere bularretan sandu dioxosa. Nola an erregalatu zuen, nola amorostu, nola sandutu, ta Jangoikostatu zuen, nork explika? edo nork entenda? Fabore inkomparablea, erregalo soberanoa, grazia bakar dibinoa! Orduan izan ze noiz erranik Jaun dibinoak, amabietatik batek traiziatuko zuela, ta entregatuko bera etsaien eskuetan, ikaraturik zeuzelaik, ta jakin naiak, ta nior ez trebe galdegitera bere Majestadeai, S. Pedrok S. Juani adiarazi baizio keñus galdegin zezola, nola galdegin bai-zio, baita Jaunak erran sekretoan berari.

S. Juan izan ze, Jesus ona preso in ondoan ta eraman ondoan Kaifasen etxera, segitu zuena gero ere amore fiñfiñaren utses, baitare idikiarazi ataria, sartzeko S. Pedro ere naiak zegona. Baña ia etsiturik Jaun dibinoaren bizias, ta etzirela baratuko Judioak ilarazi artaño gurutzean, joan ze

akonpañatza Ama Birjina bere pena inkomparablean, ta akonpañatu zue Kalbarioko bide doloreskoan; ta Jaun dibinoa guruzifikaturik zegolarik agonian, zego txutirik beiti Ama santisima, eta S. Juan akonpañatzen. Orduan izan ze noiz Jaun dibinoak erran zion guruzetik bere Ama Santisimari S. Juanengatik, *Ona zure Semea*: eta berla S. Juani bere Ama santisimategatik, *ona zure Ama*. Eta ordu gartaik artu zire elkar Ama semetako. Ongi abrats honraturik ta erregalaturik gelditu ze S. Juan testamentu gonon ondasun utziareki, zeren ezi egietafedea izanik Ama Birjinaren seme proprio naturala sollik dela Jesus Jangoiko dena; eta berriz gu guziok humetako Jangoikoas artuok alaber Ama Birjinaren hume-ordeak; baña berex pribilejiatuen maiteena da S. Juan. Ala zue maitatzen ta estimatzen Ama dibinak, bere seme propioas landara, bere lenbiziko semea bekala: ala deitzen zue bere seme, nola S. Juanek ere bai bera bere Ama. Zer kariñoa ura, errate gura Maria Santisimak sanduari kontino, ene semea? ta errespondatze gura sanduak, ene Ama Andrea? Ala akonpañatu zue, il ondoan gorputz dibinoa, jausterakoan guruzetik, ortzitzerakoan, ta ortzi ondoan. Bizturik berriro ikusi zuelaik S. Maria Magdalenak abisatu zitue S. Pedro ta S. Juan: biok joan zire lasterka obiara, ta ikusirik an mortaxak uts, itzuli zire: eta nork duda du, eman ziola berri ona S. Juanek Ama onari? Agertu zekiote Jaun dibinoa Apostoluei ere zenbait aldiz, eta bein zegolaik S. Juan S. Pedroreki arranzuan: eta etzuelaik S. Pedrok ezaundu lenbizian, ezaundu zue S. Juanek, ta erran zio, *Jauna da*. Orduan egin zuelaik Jaun dibinoak S. Pedro bere axurien ta ardien Artzai-buru, emanik zeruko erreinuaren giltzak, ta erranik honratuko zuela martirioas, S. Pedrok galdegin zio S. Juanes, Jauna, ta au zer izanen da? baita ezaundu zion amore espeziala. Jaun dibinoak errespondatu zio, au ala nai badut geldi daien, ni etorri arteo, zuri zer zaizu? Emendik, dio Juan berak, asi zirela Disziuloak jardukitzen elkarren erlean, etzela il bear sandu gau: baña etzuela Jaunak erran etzela ilen, baizik ala nai badut dagon, ni etorri arteo, zuri zer zaizu? Gerostik ere izan dire uste zutenak etzela il S. Juan, ta ez ilen ere munduaren akabanzaraño: baña egia dena da iltzela bere denboran.

Jesu Kristo zerura igan ondoan, bizitu ze S. Juan Ama Santisimaren konpañian lenik Jerusalemen ;gero Efeson, baita Asian; bitarteo erakutsis jendeei Kristoren doktrina zerurako bidea. Bere konpañian eraman zue Ama Santisima, ta estimatzen, ta zerbitzatzen zue nola hume onak Ama ezin ohea, ogei ta irur urte iraundu zuenetan ilas geros bere seme dibinoa Jesu Kristo. Bitarteo fabore, kariño, ta erregalo gozatu zituenak Ama dibinaganik S. Juan dioxosa, nork erran? Guziendako barin bada Ama





gau ain benigna onegia, bekatariendako ere, zenbat iago ain sanduarendako, ta Jesusek hume señalatu zionarendako? Beiratzeak sollik Birjina soberana gura oneratzan bazue normai, zer inen etzue S. Juaneki tratatzeak ainberze denboras? Zer etze deitzea Maria Santisimak S. Juan bere seme, ta S. Juanek bere Ama, zekiena zela Jangoikoaren Ama? Zer konbersazioak elkarreki? Zer amoresko su eta argiak senti bide zitue biotzean? Sandu zena len, zenbat iago sandutu ze bitartean? Zer gozoak bañatzen zio biotza xakinik eta pensaturik, au dela gloriako Erregina? Zenbat aldiz gelditzen bidez suspenso elebaturik? Zenbat aldiz humil alketurik fabore geiegias? Bada ikusten zuenetan Ama dibina penaturik bere seme dibinoaren penaeki, ta mundukoen esker-gaitz gaixtoeki, nola nola S. Juani erdiskatzen bide zekio bere biotza? Gauza ebek obeak dire pensatzeko arimas, ezi errateko mias, edo eskribitzeko plumas.

Asian S. Juan egon zen denboran predikatu zue Kristoren doktrina zerukoa, plantatu zue kristiandadea, ta zazpi eliza zazpi ziudade prinzipalenetan, Efeson, Esmirnan, Pergamon, Tiatiran, Filadelfian, Sardisen, ta Laodizian, zeñen zazpi obispo Aingiru deitzen zituenei biali zizkiote abisuak ta manamenduak Jangoikoaren partetik. Baña bere iteko prinzipalea izan zue Efeson ziudade prinzipalenean, non baize asko Filosofo bano aundi, ta guziak itsuturik emanak adoratzera Jangoiko banoak, espezialki Jangoikesa Diana, zeñi zeukaten an goraturik tenplo zelebren famatu gura. Baña sanduak nola eguzki berriak desegiten zitue aien erreoren iluntasunak bere trabajuen, arrazio ta milagroen podores, maneraz, ezi leku gura len zena nola sasidi bat ta basezien kubila, itzuli ze nola jardin bat ederra Jangoikoaren gustokoa. Baña nola leku guzietan gelditzen baitire Deabruaren aldekoak gaixtoak, ta iltzeareki Tito enperadorea, sartu baize Domiziano bere anaia, ez anaia, baizik tigre kruela, espezialki kristioen kontra, eskaida goneki akusatu zute S. Juan, ta ermanarazi Romara loturik katees ta adinaren urte anitzes. Presentaturik enperadorearen alzinean eman zue arrazio predikatzen zuen egietafedeas: progatu ere zue asko milagros an berean. Baña arrek itsuturik onerako sarrarazi zue oliosko tinaja irakiten zegoen batean, biluxirik lenik, ta azotaturik moldegaizkiro. Baña suak orduan galdu zue bere indarra; ta olio irakiña izan ze nola intz freskoa; ta tormentua noal erregalo: eta sandua ondorean atra ze robusto ederrago len baño. Martirio gau zelebrazten du elizak Maiatzaren seigarrenean, deitzen duela S. Juan ante portam latinam. Milagroa ikusirik etze atrebitu enperadorea kentzera bizia sanduari; desterratu zue Patmos deitzen den Islara, non sanduareki ellegatu ze argia, ikusteko jende gaiek zeruko bidea. Kristiatu zitue jendeak, eta sanduak an izan zue asko bisita

zeruko, eta an eskribitu zue Apokalipsis edo errebelazioen libru admirable gura.

Domiziano iltzeareki bitartean gure sandu gau itzuli ze Efesora gobernatzera ango elizak, ta andik mundu guzia ere. Atra zire zenbait hereje nola kristio gendearen otso galgarriak, ukatzen zutenak Kristo dela Jangoiko. Goratu zire kontra Arzaia obispoak, eta otsoen agoak taparazteko, eskatu ziote sandu goni eskribi zezan ebanjelioa. Eta egonik orazioan, eta zerutik izanik señale andiak ortots arrotueki aditu ze prinzipio andi gura, egunoro mezaren azkenean leitzen den ebanjelioan *In principio erat Verbum & Prinzipioan ze Berboa, ta Berboa zego Jangoikoan, ta Jangoiko ze Berboa. Gauza guziak egin dire beragatik, ta bera gabe deuserrez*. Ala segitzen du diola etorri zela zeruko argi egiaskoa becala, argitzezko mundura datozen gizon guziak: eta errebitu zuten guzieren eman ziotela esku, izateko Jangoikoaren hume. Dio azkenerat itz andi gura, zeintara belaurikatzen den mundu guzia, *et Verbum caro factum est, eta Berboa egin ze gizon, ta gutartean bizitu ze beterik grazias ta egias*. Ebanjelio gau da nola egietafede guzieren zimendu, zain, ta meatzea becala: eta prinzipio gaitan zeramate eskribiturik kristioek bereki, ta orai ere bai anitzek: eta Filoso batek zio, bear zela eskribitu urresko letraeki; eta du birtute, ez solamente hereje ta Deabruen kontra, baitare ortotsen zentellaen, ta ausnarrien kontra, baitare gaitz ta heritasunen kontra: eta ala asko sazerdote onek leitzen diote gaizki daudenei.

Sandu gontan izan zena distingitua berex, bere Jesus onaren amoreas landara, izan ze proximoen ganako amoreas ta mansotasuna: ain amoltsu, ain beratx onegi ongi egin naia beti! S. Isidorok dio in zuela infizio bat milagro: bat kontatzen du kristio abrats izan, ta pobretu zenaren fabore. Aburriturik au zebilalaik ezin erremediatus joan omen ze Judio batengana, baize sorgin famatua. Eskatu zio eman zezon edari poziosko bat akabatzeke bizia beingoas: eman zio arrek, eta Kristioak edan zue, zeñatus lenik guruzearen señaleas: eta etzio mellarik ere egin benenoak. Itzuli ze berriro sorginagana, eman zezon edari erruagokoa. Eman zio, ta Kristioak ikar ikar zeñaturik iretsi zue; baña ain berri; bate-re mellarik ez senti. Joan ze kejatzeras eman zion edarias lebeegis etzuenas indarririk. Sorginak baizekie eman ziona, ta etzela posible arrek gelditzea bizirik, galdegin zio ia nola artu zuen: errespondatu zio nola zeñatu zen guruzeareki. Sorginak ezaundurik, joan ta eskatu zio S. Juani kristia zezala: ta kontatu zio agitua. Sanduak au bataiatu, ta berzea deitu zue, konso-latu zue, ta manatu zio, ekar zezola kanpotik zenbait belar ta gauza: eta orazioareki itzuli zitue urre fiñ fiña, zeñeki erremediatu zue pobre gura.



Bisitutzen zitue sanduak berze elizak ta ziudadeak: ebetaik batean aurkitu zue mutil bat agitz habil ederra: enkargatu zio ango obispoari azi zezala ongi elizako ministrotako. Artu zue arrek bere etxera: lenbizian mostratu ze honesto humil ona: baña gero gutibana lazatus gaixtatu ze ainberze, ezi lagun gaixtoeki eman ze ladronkeriara. Zenbat eriotze ta gaixtageria egin zuen, ezta numeroik! S. Juanek itzulirik ziudade gartara galdegin zio bere gartas obispoari: onek alkes eta penas beterik erran zio agitu zena: sanduak dio, kontu ona eman duzu nere enkargatuas! ta bereala iganik abre batean bere adin guziareki joan ze oian gartara, non zebilan mutil gura bere kuadrillareki. Ezaundu zue ikusi orduko mutilak, ta eskapatzen ze, altxatzeko, alketurik. Sanduak oi, nora zoaz Aitaganik humea, zarraganik gastea! ea itzuli, ezi nik emanen diot zure arimas kontu Jesu Kristori: zure-gatik ilen naiz gogotik, nola il baize Kristo. Baratu ze ura biotzberaturik: joan ta urtiki zekio oñetara, konfesatus bere kulpa, ta altxatus bere eskua, zeñeki in zuen ainberze gaizki. Sanduak artu zio amoroso, ta apatu zio; ta ofrezitu zio barkazioa Jaunaganik. Eraman zue elizara, inarazi zio baru ta penitenzia, eta sanduak bateo egin zue arreatatik, eta logratu zio ainberze grazia, ezi sanduturik in zue eliza bateko Artzai: mostratus ala zelo ta karidade ikasi zuena Kristoren bularretan. Ia etzeikelaik ibili oñes, eramaten zute elizara, ta beti Sanduak prediku labur gau, *ene humettoak, onetsi zaizte elkar*. Galdeginik zergatik itz goi erraten zioten bati, errespondeitzen zue, zergatik baita Jaunaren manamendua, ta kunplitzen bada aski da. Eun urte guti gorabera biziturik, ta plazoa noiz betetzen zen ikasirik, etzinze obian, ta despeitu zue arima inguraturik argi zerukoas.

## Abenduaren 28.an Aur inozenteen martirioa

Eguerrietan, Jangoikoa aur jaiorik zebratu ondoan, zebratzen du Elizak aur inozenteen martirioa, eztakitena agian askok aldiritan, nola ta zer gisas agitu zen. Ori ezta admiragarri, entendatzen dutelaik makur inozenteen itzkuntza bera, ezi uste dute inozente nai duela erran ero edo fatuo zenzugabe, delarik kontra guzis, zeren inozente nai du erran kulpa gabe sandu ona, gaizkirik egiten eztakiena. Ala makurtzentu gauzen ize-nak mundu banoak ta gezurtiak. Da bada ikasteko, ezi jαιο zelaik Belenen Jesus, bizi zela errege Jerusalem Herodes Romatarren ordes, Judatarrek nai etzutela, baña ezin debeka: eta zute Jangoikoaganik promesa, etorriko zela bere denboran Kristo errege, salbatzera jendea. Jαιο ondoan pobre gisa, *aiek* esperatzen zutena ponpa ta burrunbareki, aiek ez, ta urrunekok ezaundu zute: ala etorri zire iruzkiaren sortaldetik irur, errege deitzen direnak komunkiro; eta ellegaturik Jerusalem galdegiten zute, *non da jαιο dena Judatarren erregea? zeren ezi ikusi dugu beraren izarra gauren lekuan, eta eldu gara adoratzera*. Ori aditurik turbatu ze Herodes, ta arreki Jerusalem guzia: eta beregana deiturik irurak, informatu ze señaile ikusi zutenas: gero bildurik jakintsuak ikasi zue aienganik, Kristoren jaiterria bear zela izan Belem, ala dagola eskritura sagratuan. Orduan Herodesek erran ziote irur gaiei, *zoazte, billa zazie non jαιο den, eta aurkitzen duzielaik, gastiga zadazie ni ri, ni ere noaien ta adora dezaten*. O astuzia falsa! O malizia doblea! Eztu ez otsoak nai adonatu axurritoa, bai zatikatu. S. Fuljenziok dio ongi, ezi aur inozenteen odolak, kruekiro ixuri zuenak, diola klaro, zer nai zuen egin aurto gontas. Baña nai ezpadu permititu Jangoikoak, zer dezake gizonaren astuzia ta malizia guziak? Deus etzekio baliatu Herodesi berea. Magoek joan ta adonatu zute aur dibinoa, ta itzuli zire berze bides beren lekue-tara. S. Josefek ta Maria Santisimak berrogeigarren egunean presentatu zute Jesus Jerusalemgo tenploan, jakin gabe Herodesek, naiz bizi zen an: eta abisaturik zerutik Josef joan ze iges Ejiptora bere esposareki, ta aur dibinoareki.

Herodesek, ez itzultzeareki beragana Magoak, ta ez deus gastigatzeareki aur jαιο berrias, uste bidezue agian guzia izan bidezela imajinazio, amets, edo engaño; baña aditurik pasatu zena tenploan presentatzean, Simeon zar benerableak erranak, ta gañarakoak, pensatu zue jαιο zela Juduen errege bear zena, ta berari kenduko ziola korona; orren beldurrez,



zelos, inbidias, ta iras suturik ideatu zue ilaraztea Belenen ta inguruan bi urteetarañoko ziren aur guziak, baktotxik ere utzi gabe bizirik, ala ustes aien erlean arrap atuko zuela errege berri gura, etzukuena berex arrapatu, zeren altxatzen zekion. Ala egin zue ainberze aur txipitto inozenteen arakintza kruel inhumanoa: ta ala famatu ze iago Kristoren jaioa ta etorria mundura. Zer pregoa klaroago eman zeike? Noraño etze barratu fama Herodesen erokeria infame garreki? Ezi diote bere hume proprio bat ere ilarazi zuela zelos, maneraz, ezi enperadore erromakoak aditurik ori, ta admiraturik erran omen zue, obe zela Herodesen etxean izan hazienda beltz, ezi arren hume, zeren nola Juduek ezpaitute jaten urdaik, seguroago zegola hazienda beltza, ezi etxeko semea. Lanze lastimoso gura, zatikatzerakoan ainberze aurtto inozente, nola axuritto esnekoak! Soldado armatuen, nola berze ainberze otsoen barratze gura etxes etxei aien billa ibiltzea, Amen guardatzea, ta ezin guarda: aien tiratzea berengana, Amen idukitzea indarka: eben marrakak, iskirituak, lamentazioak; otso gaien oiua, erronkak, golpeak, inpiedadea, nork pinta? pintatzen dute S. Gregorio Nisenok ta S. Agustinek. Il zuztenen numero txustoa ezio Elizak, ta niork eztaki zierto, baizik zeruak, non bildu ziren aien arimak. Aita Alfonso Salmeron Jesuitak dio, izan zirela amalaur milla: ta Etiopiako Abisinoek zelebratzen dutela numero goi. Flos S. Zierto dena da, direnak direla, zelebratzentuela Elizak Kristoren Martir bekala guziak, il baizire Kristogatik bataiatuik odolesko bataioas, goiz eder.

Emen daizke desengaña arritzen direnak, ta agian eskandalizatzen permititzeas Jangoiko onak degollatzea ainberze aurtto inozente Tirano, gaixtofikatu baten kasos, zukelaik estorbatu, ilarazis bera lenik. Baña ala il balezki Tiranoak ta gaixtoak, nola lirazke Martirak, ta almak, ta koronak? Flakeza gortan erorko dire sollik tuztenak begi aragiskoak, ez ordea tuztenak arimaren begiak fedearen argias argituak. Alakoek ezauntzen dute, izan zirela aur gaiek ditxoso afortunatuak, logratuas goiz eder pena labur bateki palma, korona, ta gloria eternoak; luzaturik bizia agian neketan izanen zirenak; agian bekatari, agian kondenatuko zirenak. Orgatik Elizak deitzentu Martiren primiziak, ta Martiren loreak. Orgatik kantatzen diote, *O Martiren loretoak, mundura jai berriak, iltzaizte Herodes eroak, nola arrosak erauntsiak. Zuek len duze firmatu Jesus odolas kunetan; Palmak koronak logratu ala nola jostaketan.* Bada aien Aita ta Amek ere, ez perjuizio andirik, bai irabazi ta fortuna andia izan zute, pena labur baten kostus logratu izatea ta deitzea Martiren buratso, ta libratzea ala asko kuido ta pena izanen zutenetaik, bizitu bazire luze. Berze alde ontan da ageri, nioren perjuiziorik gabe, Jangoiko andiaren gloria, baita gure bizien Jaun ta Jabe, baite-

zazke bere ardantzean artu matsak, dela goiz, dela berant eta bere jardinean oroat loreak nola fruitak. Oroat diot usteas denbora aldi bates gaixtoak egitera gaizki; ezta faltako justizia, noiz ta nola bear den. Uzuntu bizirik aldartes, dio S. Agustinek, *edo emenda daitzen berak, edo aien medios progatzeko berzeak.* Herodes etze emendatu, baizik beterik amarguras biotza, gaitzes ta oñazes gorputza, guzienganik ta bereganik aborreziturik atra zekio arima penatzeko &. &.